



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

URTEKO TXOSTENA

2012

URTEKO TXOSTENA

2012



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: 2012ko urteko txostena

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2012ko, Apirila

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

AURKIBIDEA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

A black and white photograph of a fluffy chick, possibly a duckling, with the word 'AURKIBIDEA' overlaid in the center. The chick is the central focus, with its downy feathers rendered in high contrast against a dark, blurred background. The text is centered horizontally and vertically, appearing in a clean, sans-serif font.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	17
I. KAPITULUA. SARRERA	31
II KAPITULUA. KEXAK	35
2.1. Datu orokorrak	35
2.2. Onartutako kexak	38
2.3. Espainiako Arartekoari igorritako kexak	40
2.4. Baietsitako kexak eta herritarrei emandako aholkua	41
2.5. exen harira emandako ebazpenak eta administrazio publikoek haiek noraino onartu dituzten	42
2.5.1. Kexen harira emandako ebazpenak	42
2.5.2. Administrazio publikoek ebazpenak noraino onartu dituzten	43
2.6. Kexak sorrarazi dituzten administrazio publikoak	53
2.7. Aurkeztutako kexen banaketa eta zerrenda	58
2.7.1. Nekazaritza eta abeltzaintza	59
2.7.2. Gizarte ongizatea-Gizarte politikak	60
2.7.3. Merkataritza eta kontsumoa	66
2.7.4. Kultura	68
2.7.5. Hezkuntza eta irakaskuntza	69
2.7.6. Energia	74
2.7.7. Atzerritarrak	74
2.7.8. Funtzio publikoa	75
2.7.9. Toki entitateen funtzionamendua	82
2.7.10. Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten bermeak	83
2.7.11. Ogasuna	88
2.7.12. Barne arloa	92
2.7.13. Justizia	93
2.7.14. Gazteria eta kirola	95
2.7.15. Ingurumena	96
2.7.16. Herri Lanak	98
2.7.17. Herritarren parte-hartzea	99
2.7.18. Osasuna	100
2.7.19. Gizarte segurantzia	106
2.7.20. Zerbitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	107
2.7.21. Lana eta langabezia	109
2.7.22. Trafikoa	111
2.7.23. Hirigintza	112

2.7.24. Euskara.....	113
2.7.25. Etxebizitza	115
2.7.26. Beste batzuk (eduki juridiko-pribatuko kexak).....	117
III. KAPITULUA. OFIZIOZKO JARDUERAK	121
3.1. Datu orokorrak.....	121
3.2. Ofiziozko jarduketa aipagarrienak	124
3.2.1. Iruñeko espetxeko presoei ematen zaien arreta psikiatrikoa.....	124
3.2.2. Osasun etxeekin telefonoz euskaraz komunikatzeko aukera egotea	125
3.2.3. Ezgaitasunarengatiko prestazioak eta doktoretza-tesi bat egiteko ikasketa-beka bateraezinak izatea	126
3.2.4. Muga-eremuetan bizi diren gaixoei osasun-arreta ematea beren etxebizitzetatik hurbilen dauden osasun zentroetan, beste autonomia erkidego batekoak izanda ere	127
3.2.5. "Partaidetza lehenetsiak" deitutakoak	128
3.2.6. Funtzionario publikoen ordainsariak gutxitzea aldi baterako ezgaitasun kasuetan	130
3.2.7. Kontsumitzaileen eskubideak babestea	132
3.2.8. Erriberako Mankomunitateak hiri hondakin solidoen tratamendua dela-eta kobratzen dituen tasak	134
3.2.9. Hiri izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioaren zerga). Etxebizitzaren erosleak ordezkioaren izaera hartzea, eta bera izatea egiaz zerga ordaintzen duena	135
3.2.10. Nafarroako Gobernuo toki entitate batzuei eginiko gogorarazpena, herritarrek zuzentzen dizkieten eskariei eta idazkiei behar den denboran eta moduan erantzuteko legezko betebeharrari buruzkoa.....	137
3.2.11. Nafarroako Gobernuo departamentu batzuei eginiko gogorarazpena, herritarrek zuzentzen dizkieten eskariei eta idazkiei behar den denboran eta moduan erantzuteko legezko betebeharrari buruzkoa	138
3.2.12. Gizarteratze errenta eta oinarritzko errenta	139
3.2.13. Nafarroako etorkinen osasun laguntza publikoa	141
3.2.14. Nafarroako Foru Komunitateak pertsona guztien berdintasun efektiboa lortzeko sustatzen dituen ekintzak, haien sexu-orientazioa zein den ere.....	143
3.2.15. Nafarroako bide-sareetako seinaleak errotulatzeko Nafarroako Gobernuak toki horietarako onetsi duen izendapen ofizialaren arabera	146
3.2.16. Nafarroako Gobernuak Bitartekaritza Hipotekarioko Zerbitzu bat sortzea.....	147
3.2.17. Nafarroako Gazteriaren Institutuak datuak eskatzea gazte-elkarteen errolda gaurkotzeko eta izaera pertsonaleko datuen babesa	148
3.2.18. Espainiako Arartekoari eskaria egitea, azter dezan konstituzioaren araberakoak diren BEZaren igoera, langile publikoen 2012ko abendu aparteko soldata eta mendetasunerako laguntzen gutxipena	149
3.2.19. Ezgaitasuna duten pertsonak koordinketa farmazeutikotik salbuestea	156
3.2.20. Geroratzeko familia-laguntzen eta lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen ordainketetan	158
3.2.21. Adopzio nazionalaren aukera egitean bazterketa gertatzea, adopzio-egileei seme-alabarik ez izateko eskatzen baitzaie	160
3.2.22. Espainiara itzultzeko bisatua ukatzea Nafarroan bizi den eta herritar nafar batekin ezkonduko Nafarroako herritar bati.....	161

3.2.23. Osasun laguntza administrazio egoera irregularrean dauden etorkinentzat.....	162
3.2.24. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aldaketa bat bultzatzea, funtzionarioak boluntario-lanetan ari ahal daitezen.....	166
3.2.25. Balio erantsiaren gaineko zergaren zein tasa aplikatu 2012ko irailean egin baina aurreko hilabeteetan emandako zerbitzuei buruzkoak diren fakturretan.....	170
3.2.26. Iradokizun normatiboa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legeko 55. artikulua aldatzekoa, gutxieneko familiarraren asignazioa guraso banandu edo dibortziatuen artean hainbana dadin hitzarmen arautzailean seme-alabak direla-eta finkatu den bizikidetasun denboraren arabera.....	172
3.2.27. Egiaztatzea prozedura administratibo eraginkorrik ba ote dagoen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes legitimoak babesteko.....	175
3.2.28. Aldeetako batek GIB/HIESa izateagatik bazterten duten klausula, estipulazio, baldintza edo itunak baliogabeak edo eraginkortasunikgabeak izatea.....	178
3.2.29. Udaltzaingoaren jarduketa bat gainbegiratzea, adingabe baten abandonuko edo gurasoen arreta faltako balizko kasu batean.....	180
3.2.30. Krisialdi ekonomikoko ingurune batean etxebizitzarako konstituzio-eskubidea eraginkortasunez babesteko neurriak.....	181
3.2.31. Tasa judizialei buruzko Legearen aldaketak.....	183
3.2.32. Buru-gaixotasuna duten pertsonen zigor-tratamendua, tratamendu prozesala eta espetxe-tratamendua.....	188
3.3. Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa.....	191
3.3.1. Egingako jarduketan azalpena eta ebaluazioa.....	191
3.3.2. Azken bost urteotako bilakaeraren laburpen-taula.....	199
3.3.3. Iradokizunak.....	200

IV. KAPITULUA. HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO EGINIKO PROPOSAMENAK.....	205
4.1. Datu orokorrak.....	205
4.2. Herritarren proposamenen hartzaile izan diren administrazio eta erakunde publikoak.....	208
4.3. Proposamenen edukia.....	209
4.3.1. Ezgaitasunen bat duten pertsonen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan Nafarroako zergapetzea hobetzeko araudi aldaketak ezartzeko proposamena.....	209
4.3.2. Foru Komunitateko Administrazio buruzkoak merezimenduen lehiaketa bidez hornitzeko prozesuei buruzko hainbat neurri aldatzeko proposamena.....	211
4.3.3. Aireztapen mekanikoa behar duten pertsonak dituzten zailtasunei buruzko neurri desberdinak hartzeko proposamena.....	212
4.3.4. 10.000 biztanle baino gehiago dituzten Nafarroako udalerrri eta mankomunitateekin eta eskualdeko toki nagusiekin hitzarmenak sinatzeko aukera baloratzeko proposamena, herritarrek Nafarroako Gobernuari zuzendutako idatziak aurkez dituzten, behar bezala, toki erakunde horietako erregistroetan.....	212
4.3.5. Ikastetxeek neba-arreba bikiak gela berdinean edo desberdinean eskolaratzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan jarraitu beharreko irizpide eta prozedurak eskolaratzeari buruzko araudian sartzeko aukera baloratzeko proposamena.....	214

4.3.6. Uharteko Ikastetxe Publikoan hezkuntza eredu eleaniztuna eratzeke proposamena.....	215
4.3.7. Testu liburuak hurrengo ikasturteetarako aprobetxatu ahal izateko proposamena.....	215
4.3.8. Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea (indarrean dagoena) berrikusteko proposamena, alderdietako batek arau hausteren bat egitean kontratua iraungitzeko epeak aldatze aldera	216
4.3.9. Ezkontideak bereizi edo dibortziatean edo gurasoen bizikidetzat etetean seme-alaben zaintza partekatua arautzeko proposamena	216
4.3.10. Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarrentzako, eta, zehazki, Guardia Zibileko Kidegoentzako baja medikoen kontrol neurriak ezartzeko proposamena.....	217
4.3.11. Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak buru osasunari buruzko gaiet lotuta egindako ekarpenak Arartekoen Koordinaziorako XXVI. Jardunaldietako lantegietan kontuan hartzeko proposamena.....	218
4.3.12. Gaixoei tratua hobea ematen zaiela bermatzeko proposamena	218
4.3.13. Etxean egindako erditzeetan osasun estaldura bermatzeko proposamena.....	219
4.3.14. PFEZaren araudia aldatzeko proposamena, unibertitate ikasketak egiten dituzten eta bekari jasotzen ez duten seme-alabengatikoen kariak aurreikuste aldera	220
4.3.15. Ikastetxeetan gizarte langilearen figura sartzeko proposamena.....	221
4.3.16. Interes orokor edo soziala duten obra eta zerbitzuen kontratazioan langabetuei lehentasuna emateko proposamena, beren laneratzea errazte aldera	221
4.3.17. Ezgaitasunak edo buruko nahasmenduak dituzten eta espeteetan zigortuta dauden pertsonen kopurua murrizteko neurriak hartzeko proposamena.....	222
4.3.18. Konpentsazio pentsioa jasotzen duten pertsonet zerga tratamendua hobea emateko proposamena.....	223
4.3.19. Etxebizitza babestuen eskaeretan gaitasun ekonomikoa baloratzeko baldintzak aldatzeko proposamena.....	223
4.3.20. Proposamena Osasun Departamentuetan ez dezan eskatu Iruñean erroldatuta egotea, lan arrazoen ondorioz hiri horretan bizi direnek osasun arreta eskura dezaten bertan erroldatuta egon ez arren.....	224
4.3.21. Idazkari eta kontu-hartzaileen deialdian behin betiko onartutako pertsonen zerrenda lanpostu horien aldi baterako homidurarekin lotutako bitarteko lanak estaltzeko erabiltzeko proposamena, foru funtzionario gaituek horiek estaltzen dituzten arte.....	225
4.3.22. Proposamena, Foru Komunitateko Administrazioaren gaur egungo kontratazio zerrendetan, adinari lotuta (55 urte) eta Administrazioan lanean aritu izanari lotuta (15 urte) gutxieneko baldintzak betetzen dituzten hautagaiet lehentasuna eman dakien.....	226
4.3.23. Proposamena, irakasle funtzionarioen ordainsariei eta lanaldiari buruzko neurriak aldatu daitezzen eta beste neurri batzuk har daitezzen	226
4.3.24. Proposamena, babes ofizialeko etxebizitzet BEZaren tasa gutxitua aplikatu dakien	227
4.3.25. Proposamena, ibilgailua aparkaldi mugatuko zonetan aparkatuta edukitzean den denbora zehatzagatik kobratzen duen sistema ezar dadila.....	228
4.3.26. Proposamena, kontzeju irekiko udalen funtzionamendua araubideari dagokionez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu dadila	228

4.3.27. Proposamena, legeria aldatu dadila Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumean zerga sistemari lotutako ezagutzak gaineratu daitezen.....	229
4.3.28. Proposamena, oposizioegileek beren azterketak modu arrazoituaren berrikusi eta zuzendu daitezen duten eskubidea bermatu dadila, ez baitago ados Espainia osoan egiten diren oposizioetan aplikatzen den "zuhurtasun teknikoaren" irizpidearekin	230
4.3.29. Proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan onura fiskal bat gaineratu dadila, beren anai-arrebekin batera bizi diren eta haien zaintza beren gain hartu duten pertsonen zuzentzen zaiena eta aurrekoen eta ondorengo kasuan indarrean dagoenaren antzerakoa dena	232
4.3.30. Proposamena, hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzeari lotutako zenbait alderdiri dagokienez, araudia aldatu dadila (gainbalioen zerga).....	233
4.3.31. Proposamena, Toki Administrazioa Berriro Antolatzeko Foru Legearen proiektua aldatu dadila, Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako lanpostuei buruzko zenbait alderdiri lotuta	234
V. KAPITULUA. TXOSTEN BEREZIAK.....	237
5.1. Egindako txostenak	237
5.2. Erakundeak bere ekimenez egin duen txosten berezia	237
5.3. Nafarroako Parlamentuak eskatutako txosten bereziak.....	238
VI. KAPITULUA. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK	241
6.1. Aitzinsolasa	241
6.2. Gomendioak, iradokizunak eta legeko betebeharren gogorazpenak arloka	242
6.2.1. Nekazaritza	242
6.2.2. Gizarte ongizatea	242
6.2.3. Kontsumoa	261
6.2.4. Hezkuntza	265
6.2.5. Atzerritarrak	272
6.2.6. Funtzio publikoa	273
6.2.7. Toki erakundearen funtzionamendua	284
6.2.8. Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.....	286
6.2.9. Herri-ogasuna.....	296
6.2.10. Barne Departamentua	300
6.2.11. Justizia.....	306
6.2.12. Gazteria eta Kirola.....	311
6.2.13. Ingurumena	313
6.2.14. Herri lanak.....	321
6.2.15. Osasuna	324
6.2.16. Gizarte Segurantza	332
6.2.17. Zerbitzu publikoak	332
6.2.18. Lana	334
6.2.19. Trafikoa.....	335
6.2.20. Hirigintza	337
6.2.21. Euskara	340
6.2.22. Etxebizitza	350

VII. KAPITULUA. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEA	357
7.1. Nafarroako Administrazio publikoek arartekoari laguntzeko duten betebeharra.....	357
7.2. Laguntzeko betebeharraren betetze-maila. Nafarroako arartekoari laguntzarik eman ez dioten administrazioen aipamena.....	358
VIII. KAPITULUA. ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA	363
8.1. Herritarrentzako arreta bulegoa. Nafarroako arartekoari eginiko kontsultak.....	363
8.2. Gizarte zibilarekin izandako harremana	367
IX. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA	373
9.1. Nafarroako Arartekoaren baliagarritasunaren eta eraginkortasunaren inguruan herritarrek daukaten iritzia	373
9.2. Kexak izapidetzeko batez besteko epeak	377
ERANSKINA. 2012ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	381

AURKEZPENA



Defensor del Pueblo
de Havana
Hizlarroako Arartekoa



Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

AURKEZPENA

1 . Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko (NFEBHLO) 18. artikulua Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo gisa ezartzen du Nafarroako Arartekoa eta, hala, Konstituzioak eta Lege Organiko horrek herritarrei aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak babestu eta defendatu beharko ditu. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoen jardura ikuskatu ahalko du eta Parlamentua jakinaren gainean jarri beharko du.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa aldatu zuen urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren hitzaurrean, bestalde, Nafarroako Arartekoa Nafarroako Foru Komunitateko erakundea dela ezartzen da.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumenak, araubide juridikoa eta jardunbidea zehazten ditu, NFEBHLOko 18 ter artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatuz hartara.

Bi lege horien eta Nafarroako Arartekoa aurreikusten duten gainerako foru legeen arabera (besteak beste, haurtzaro eta nerabezaroaren babesari, administrazio elektronikoari edo gardentasunari eta gobernu irekiari buruzko foru legeak), honako funtzioak gauzatzen ditu:

- a) Konstituzioak espainiar guztiei aitortzen dizkien eskubideen defentsa eta hobekuntza.
- b) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak nafarrei aitortzen dizkien eskubideen defentsa eta hobekuntza.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako Estatuko legeetan, Europar Batasuneko arauetan eta nazioarteko hitzarmenetan aitortzen diren eskubideen defentsa eta hobekuntza.
- d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki erakundeek nahiz Nafarroako Foru Komunitateko edozein erakunde publikok herritarrei emandako zerbitzu publikoen hobekuntza.

- e) Herritarren legezko interesen eta Nafarroako Administrazio Publikoek zaindu beharreko interes orokorraren arteko bitartekotza eta kontziliazioa.
- f) Herritarrei informazioa eta laguntza ematea, hobeki balia ditzaten beren eskubideak Administrazio Publikoen aurrean.
- g) Informazioa eta laguntza ematea Nafarroako Parlamentuari, foru parlamentariei eta Nafarroako gainontzeko erakunde publikoei, bai haiek hala eskatuta, bai bere ekimenez, bere eskumeneko auzietan.
- h) Espainiako Arartekoarekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea herritarren eskubide konstituzionalak defendatu eta hobetzeko orduan, estatuko administrazio edo aginte publikoen ondorioz eskubideok kaltetuta edo ahulduta egon daitezkeenean.

2. Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 36.1 artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak urtero eman beharko dio egindako kudeaketari buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari eta txosten hori ohiko bilkura aldian aurkeztu beharko dio.

Hala, 2012. urteari buruzko txostenaren aurkezpenak Konstituzioan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoan eta gainerako xedapen aplikagarrietan babestutako eskubide eta askatasunen babes maila defendatu eta hobetzeko erakundeak egindako lanaren emaitzaren kontu eman beharko dio Nafarroako Parlamentuari.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 37. artikulua urteko txosten horren edukia zehazten du: aurkeztutako kexa kopurua eta mota; baztertutako kexa kopurua eta mota eta horretarako arrazoiak; ikertu diren gaiak eta horien emaitzak; erakundeak egindako ohartarazpenak, gomendioak, gogorazpenak edo iradokizunak, administrazioak onartu dituenak adierazita; eta eranskin bat, erakundearen aurrekontuaren likidazioa jasoz.

3. 2012an zehar, erakundeak 3.022 jarduketa egin ditu, albo batera utzita elkarriketak, bilerak edo ekitaldi instituzional nahiz publikoetako parte hartzeak. Kopuru hori honela banatzen da: 1.510 kexa kudeatu dira (horietatik, 1.298 urte barruan aurkeztu dira); 1.428 kontsulta artatu dira; 35 jarduketa edo ikerketa abiarazi dira ofizioz; zerbitzu publikoak hobetze aldera herritarrek aurkeztutako 46 proposamen helarazi zaizkie administrazio eskuduneko organoei, eta eduki monografikoko hiru txosten berezi egin eta aurkeztu zaizkio Nafarroako Parlamentuari (horietako bi, hark eskatuta).

Datu horiek iazkoak gainditzen dituzte. Iaz, izan ere, jarduera kopuru osoa, irizpide berei jarraiki, honakoa izan zen: 1.042 kexa kudeatu ziren (horietatik, 850 urte barruan aurkeztu ziren); 1.209 kontsulta artatu ziren; 35 jarduketa edo ikerketa abiarazi ziren ofizioz; zerbitzu publikoak hobetze aldera herritarrek aurkeztutako 28 proposamen helarazi zitzaizkien administrazio eskuduneko organoei, eta eduki monografikoko hiru txosten berezi egin eta aurkeztu zitzaizkion Nafarroako Parlamentuari (horietako bat, hark eskatuta). Guztira, 2.317 jarduketa.

Laburbilduz, 2012an erakundearen jarduera guztira % 30,43 igo da iazkoaren aldean eta igoerarik handiena aurkeztutako kexa kopuruan (% 52,71 gehiago) eta jasotako kontsulta kopuruan (% 18,11 gehiago) nabaritu da.

Nafarroako Arartekoak Nafarroako herritarren eskubideak defendatu eta hobetze aldera administrazio publikoetan egiten duen kontrol lana guztira 532 gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenetan ikus daiteke. Horiek guztiak bere ikerketa edo jarduketan emaitza izan dira.

4. Azpimarratu beharra dago herritarren kexa, kontsulta eta hobekuntza proposamenen artean, 2012. urtean guztira 7.782 pertsona hurbildu edo zuzendu direla erakundera. 2012an aurkeztutako kexei soilik erreparatuta, 5.242 pertsona zuzendu dira Nafarroako Arartekoarengana, administrazio publikoen edo zerbitzu publikoko titularren ekintzen edo ekintza faltaren aurrean beren eskubideez baliatzeko. Eta kontsulten atzean 2.493 pertsonak jo dute erakundera, dagozkien eskubideei, horiez baliatzeko modurik onenei edo administrazioaren jardueraren legezotasunari buruzko informazioa jasotzeko.

5. 2012an jasotako 1.298 kexen edukiak agerian uzten du herritarren arduraren edo atsekabea igo egin dela, batez ere, ekonomia, gizarte, hezkuntza, osasun, tratu, etxebizitza edo kontsumoarekin lotutako gaietan.

Hori horrela, beheranzko ordenan, herritarren kexa gehien jaso duten hamar gaiak honakoak izan dira 2012. urtean: funtzio publikoa, gizarte ongizatea, hezkuntza, osasuna, herritarren eskubideen bermeak, euskara, ogasuna, justizia, etxebizitza eta kontsumoa.

Aipatutako gaietako lehenengoari dagokionez, **funtzio publikoa**, aurreko urteetan kexa hauek antzeko bi multzotan banatzen ziren, batetik, sektore publikoan lanpostua eskuratu nahi zuten herritarrek aurkeztutako kexak, eta, bestetik, administrazio publikoen zerbitzura kontratatutakoek edo funtzionarioek, hau da, Administrazioan lan egin arren hark langileen kudeaketan edo politikan hartutako neurriekin ados ez zeudenek aurkeztutako kexak. Hala ere, 2012an lehenengo multzoan jasotako kexak % 8 jaitsi dira (batez ere Nafarroako administrazio publikoetan lanpostuak eskuratu edo hornitzeko prozedurei buruzkoak dira), enplegu eskaintza publikoak ere murriztu egin baitira. Bestalde, langileen kudeaketa edo politikarekin lotutako kexak % 92ra igo dira, batez ere Espainiako Gobernuak enplegatu publikoei abenduko aparteko ordainsaria ezabatzea erabaki duelako.

2012an funtzionario publikoek 414 kexa aurkeztu dituzte, ez daudelako bat ere ados aparteko ordainsari hori ezabatzearekin. Hala, ezabapen hori ezarri zuen uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren kontra konstituziokontrakotasunaren errekurtsioa jar dezan kudeaketak egiteko eskatu diote Espainiako Arartekoari. Azkenean, Arartekoak ez du errekurtsio hori jarri, baina bai, ordea, Nafarroako Parlamentuak, eta, era berean, Audentzia Nazionalak konstituziokontrakotasunaren gaia planteatu du.

Horren harira, gure funtzio nagusia enplegatu publikoei beren estatutuetako legeek eta laneko legeek aitortzen dizkieten eskubideen errespetua zaintzea eta herritarrak funtzio

publikora sartzean merezimendu, gaitasun eta berdintasunaren printzipio konstituzionalak benetan aplikatzen direla bermatzea izan da.

Bigarren postuan **gizarte ongizateari, gizarteko gaiei edo gizarte politikei** buruzko kexak daude. Aurreko bi urteetan bezalatsu, arlo horretako kexek lotura zuzen-zuzena dute bizi dugun krisi ekonomikoarekin. Hala, jasotako kexa gehienak (% 30) oinarrizko errentaren (orain gizarteratzeko errenta) prestazioaren ukapenarekin, berau emateko atzerapenarekin edo gizarteratzeko errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean ezarritako irizpide berrien (bai errenta aitortzeko, bai berau berritzeko) desadostasunarekin lotuta egon dira. Kexen % 21 familiaren babesarekin lotuta egon dira, zehazki, seme-alabak zaintzeko lan eszedentziagatik laguntzaren ordainketa ebazteko atzerapenekin eta ukapenarekin. Bestetik, % 13 adingabeen babes eta arretari buruzkoak izan da. % 8 mendetasunaren arloko prestazio eta arretaz mintzatu da, bai horien ukapenari dagokionez, bai hasieran aitortutakoaren aldaketari edo atzerapenari dagokienez. % 7 ezgaitasunaren arretari buruzkoa izan da. Beste % 7 gizarte bazterkeriaren eta muturreko beharizanen egoerekin lotuta egon da, geroz eta gehiago baitira. Gizarte laguntzako prestazioen emakida edo ukapenari buruzkoa izan da % 6. Eta, azkenik, kexen % 6 pertsona nagusien arreta eta babesari buruzko gaiekin lotuta egon da.

Jasotako kexa kopurua ikusita, eta azaldutako gertaerak egiaztatuta, erakunde honek legezko betebeharrak gogorazi behar izan ditu hainbat aldiz, organo eskudunek gizarteratzeko errentaren prestazioa eta larrialdietako egoerekin edo gehiegizko familia kargekin lotutako gainerako prestazioak erraztu behar dituztela azpimarratuz. Era berean, gizarteratzeko errentari buruzko Foru Legean ezarritako araudi berria objektiboki murriztaileagoa denez oinarrizko errentari buruzko aurrekoa baino eta, ondorioz, pertsona eta familia ugari prestaziotik kanpo eta txirotasunean geratu direnez, erakundeak honakoa iradoki dio Gizarte Politiken Departamentuari: benetako txirotasun egoeran edo egoera ekonomiko benetan estuetan dauden pertsonen oinarrizko bizi baldintzak behin-behinean estaltzeko diru-laguntzak ezarriko dituen araua sustatzeko.

Halaber, familientzako laguntzei dagokienez, eta seme-alabak zaintzeko eszedentziarako diru-laguntzen eskaera asko aurrekontu faltagatik ukatu direla ikusita, Gizarte Politiken Departamentuari gomendatu zaio dagokion aurrekontu partidaren kreditua handitzeko, are gehiago kontuan hartzen badugu aurrekontu faltagatik lehenengo eskaera ukatu ondoren pertsonalki gonbidatu zirela beste eskaera bat aurkeztera, nahiz eta, paradoxikoki, horietako askok erantzun bera jaso zuten, berriz ere aurrekontu falta argudiatuta.

Zalantzarik gabe, gizarte gai honetan ikusten dira ondoen Nafarroako gizarteak pairatzen dituen arazorik larrienak eta haren ondorioak: bereizkeriarik gabeko langabezia, lanpostuen ezabapen etengabea, pertsonen eta familien txirotze geroz eta handiagoa, prestazio eta zerbitzu publikoen murrizketa, giza baliabideen eta bitarteko ekonomikoen falta edo banaketa urria, premiazko egoera pertsonal edo familiarrei erantzun azkar eta baliozkoa emateko atzerapena edo ezintasuna, eta krisiak zigortu dituen herritarren itxaropenik eza edo ondoez sakona.

Hirugarrenik, **hezkuntzaren** gaineko kexak daude. Ikasketen laguntzekin, gurasoek lehen hezkuntzako bigarren ziklorako aukeratutako ikastetxeak egindako bazterketarekin, eta

unibertsitate ikasketen kudeaketa gaiekin lotutako kexak nabarmentzen dira. Aurreko urteetan bezala, hezkuntzaren planifikazio eta kudeaketari eta ikastetxeetan onartu ez diren ikasleei buruzko kexak aurkeztu dira 2012an ere.

Hezkuntzaren eremu material konplexu honetan, hezkuntza administrazio, ikasle, guraso, irakasle eta ikastetxe desberdinen interesak batzen dira eta erakundeak hainbat aldiz bitartekari lanak egin behar izan ditu, interes desberdinak uztartzen dituzten alderdiak bilatzeko. Bitartekari funtzio horrez gain, kasu batzuetan administrazioaren jarduera ikuskatu du, eskubide konstituzionaleko legezkotasunaren edo babesaren parametroei jarraiki.

Laugarren posizioan **osasunari** buruzko kexak daude. Itxarote zerrendekin lotutako kexak igo egin direla nabaritu da. Defizitaren betearazpen objektiborako neurriei buruzko urriaren 6ko 1/2011 Legegintzako Foru Dekretuaren onarpenaren eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 28ko 19/2011 Foru Dekretuaren ondorioz izan da hori, besteak beste, laguntza espezializatuko gehieneko epeak ondore gabe utzi baitzituzten. Era berean, gaixoek jasotako arreta klinikoarekin ados ez daudela adierazten duten kexa ugari aurkeztu dira. Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Legegintzako Errege Dekretuak sartutako arauen ondoriozko arazoak ere kexa asko eragin ditu, prestazio farmazeutikoen koordainketari dagokionez. Osasun zerbitzuen berrantolaketari eta horrek eragin ahal izan dituen arazoei buruzkoa izan da laugarren arrazoia.

Lehenengo kasuan, erakundearen jarduketak kexa sustatu duen pertsonaren arreta errazten duela egiaztatuta ahal izan dugu. Horrek ez du eragozten, hala ere, espezialitate jakin batzuetan itxarote zerrendak igotzea. Bigarren puntuari dagokionez, erakundeak kasuan kasuko ikerketak egin ditu, herritarrak kexatu diren kasuetan lex artis medikoaren errespetua egiaztatzeko, beharrezkotzat jo duenean gomendiorik komenigarrienak eginez. Hirugarren puntuan, koordainketa farmazeutikoaren itzulketa errazteko eskatu du. Horrez gain, koordainketa hori administrazioetan aplikatzen denean gizarteko sektorerik ahulenei, batez ere ezgaitasunak dituzten pertsoneri ez kaltetzeko ere eskatu du. Kexen laugarren arrazoia zerbitzuen berrantolaketa da. Horren harira, erabiltzaile, elkarte, toki erakunde eta osasun administrazioaren interes desberdinak uztartzeko asmoz egindako bitartekaritza edo gomendioak nabarmendu dira.

Bosgarrenik, **“herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan”** izenpean sartzen diren kexak daude. Administrazio publiko batzuek herritarrek egindako eskaera eta errekurtsioak legez ezarritako gehieneko epeetan ebatzi eta jakinarazteko legezko betebeharrak betetzen ez dituztenean aurkezten diren kexak dira. Halaber, gai honetan sartzen dira enplegatu publikoek emandako tratu desagokiari buruz aurkeztutako kexak. Lehenengo taldeari dagokionez, administrazio batzuek ez diete herritarren idatziei erantzuten, nahiz eta legezko betebeharrak hori nahitaezkoa den. Ondorioz, erakunde honen jarduketari esker, herritarrei arrazoi bidez erantzuteko eta administrazioaren erantzuna jasotzeko eskubidea errespetatzeko eskatu nahi da. Bigarren taldeari dagokionez, agintariak eta funtzionario publikoek herritarrei arreta egokia emateko legezko betebeharra dutela gogorarazi nahi da, betiere errespetu, begirune eta gizalegez tratatu beharko direlarik.

Seigarrenik, administrazio publikoetako **euskararen** erabilerari buruzko kexak daude. Administrazio publikoetako inprimakiak, liburuxkak eta dibulgazio materiala gaztelaniaz soilik argitaratzen direnean, administrazio bulegoetan edo administrazio publikoko langileekin euskara erabili nahi eta ezin denean eta kale, hiri bide, hiri arteko bide eta espazio publikoetako seinaleak eta bulegoetako izenak gaztelaniaz soilik agertzen direnean sortzen dira kexa gehienak. Aurreko ekitaldietan bezalatsu, erakundeak zaindu egiten du euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak eta toki erakundeek euskararen sustapenerako onartu dituzten ordenantza desberdinek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak administrazioetan errespetatzen direla.

Ogasunari dagokionez, toki ogasunetako zergei buruzko kexak gailentzen dira. Aurreko urteetan bezala, higiezin (batez ere etxebizitzan) erosleak Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren (gainbalioen gaineko zerga) nahitaezko likidazioarekin eta Erriberako Mankomunitateak etxebizitza eta bulego profesional diren lokaletan hiri hondakin solidoak batzeko ezarritako bi tasek gehiegizko ordainarazpenarekin ados ez daudela eta aurkeztu dira kexak. Nafarroako Foru Ogasuneko tributuei dagokienez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko kexak nabarmendu dira.

Erakundearen zeregina bikoitza izan da: batetik, zergen legezkotasuna ikuskatzea, legeak zergadunen eskubideak errespetatuz aplikatzen direla bermatzeko beharrezko alderdiak jakinaraziz ogasunei; eta, bestetik, bitartekaritza lanak egitea, zailtasun ekonomikoko garai hauek zergadunei beren zerga betebeharrak errazteko iradokizunak eginez (batez ere ordainketen zatiketarako), betiere zergadun guztien zerga berdintasunaren printzipioa errespetatuko delarik.

6. Kexa gehienak (% 40,6) Estatuko Administrazioaren kontra ezarri dira, funtsean enplegatu publikoei 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ezabatzeagatik. Kexen % 35 foru administrazioaren aurka zuzendu zen eta, horren barruan, gizarte gai eta politikekin lotutako Departamentuak izan ziren kexa gehien jaso zituztenak, atzetik Osasuna, Hezkuntza eta Sustapena eta Etxebizitza Departamentuak zeudela. Toki erakundeek kexen % 19,5 jaso zuten eta, horien barruan, Iruñea, Egues eta Barañaingo Udalak izan dira kexa gehien jaso dituztenak.

7. Erakundea martxan jarri zenetik lehenengo aldiz internet izan da Nafarroako Arartekoari zuzendutako kexak aurkezteko gehien erabili den bitartekoa.

Kexen % 53,8 bide elektronikoak erabiliz aurkeztu da (2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ezabapenaren aurka jarritako kexek azaltzen dute igoeraren zati bat). Kexen % 33,7, bestetik, Iruñeko gure bulegoan zuzenean aurkeztutako kexak izan dira. Balio absolututan, bulegoan zuzenean aurkeztutako kexa kopurua % 15 igo da iazko urtearekin alderatuta. Ondorioz, teknologia berrien erabilera gorabehera, herritarren eta erakundearen arteko harremanak errazten dituztelarik, herritarrek Nafarroako Arartekoaren bulegoan zuzeneko arreta jasotzeko duten nahiak oraindik ere hor dirau eta gorantz egiten du, beren kexak azaltzeko edo horiekin lotutako laguntza edo aholkuak eskatzeko bide hori gogoko baitute.

Kasu askotan herritarrek a priori ez dakite kexaren hartzailea den administrazio publikoaren jarrerak beren eskubideak urratzen dituen ala ez. Hori dela eta, Nafarroako Arartekoa herritarren eta administrazio publikoen arteko gatazkei aurre hartzeko bide (nire ustez) eraginkorra da. Hala, auzitegietara joatea saihesten da, esan bezala kasu horietan eskubidearen edo gertaeren gaineko txarto ulertu baten ondoriozko egoerak direnean. Gatazkei aurre hartzeko zeregin horrek are zentzu gehiago dauka tasa judizialak igo direla, eta, hortaz, justiziarako irismena zaildu dela kontuan hartuta.

8. Kudeatutako kexei erreparatuta, Nafarroako Arartekoak hamarretik bederatzi izapidetzea onartu du, herritarrak helarazitako gaia aztertzeko. Gainera, hamar kexatik onartutako bederatzi horietatik lau Espainiako Arartekoarengana igorri dira, edo, neurri txikiagoan, eskubide konstituzionalak babesteko parlamentuko goi mailako beste ordezkari batzuegana, beren eskumeneko gaiak zirenean. Aurten, aurreko urteekin alderatuta, Espainiako Arartekoarengana bideratu diren gaiak ugaritu egin dira, batez ere 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ezabapenekin lotutako kexen ondorioz.

9. Onartutako kexak aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak kasuen % 62tan erabaki du bazirela arrazoiak Administrazio publikoari zuzentzeko eta herritarraren eskubideen aldeko konponbide bat proposatzeko hari.

Nafarroako Arartekoak 532 ebazpen eman ditu, kexek agerian utzitako gertakariak zehatz-mehatz aztertu, administrazio publikoei entzun eta jasotako informazio guztia aztertu ondotik.

Gaika, gizarte ongizatea da ebazpen gehien eragin dituen arlo tematikoa. Ondotik dauzka: funtzio publikoa, ingurumena eta herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan. Hezkuntza beste gai azpimarragarri bat, euskara, ogasun eta osasunaren aurretik.

10. Nafarroako Arartekoaren erabakien onarpen maila, administrazio publikoen eskutik, % 77,6koa da; horrek berresten du erakundea baliagarria dela herritarraren begietan, erakundera jo eta haren babesa aurkitzen baitu.

Hori horrela, aurten administrazio publikoek onartutako kasuak murriztu egin direla antzeman da. Izan ere, administrazio publikoek gaitasun urriagoa izan dute egin ditugun iradokizunak betetzeko, batez ere irismen ekonomikoagatik eta aurrekontuagatik, eta, beraz, defizit publikoa murrizteko politika tarteko izan dituen baliabide ekonomiko eskasagoengatik.

11. Erakundeak **ofiziozko** hogeita hamabost **jarduketa** egin ditu aurten. Nafarroako Arartekoak irekitako espedienteak dira, bai ikerketa bat behar dutelako, bai erakundearen jarduketa behar dutelako hasierako fasean edo administrazioari edo Nafarroako Parlamentuari egindako iradokizunaren bidez edo Arartekoari beren eskumenean eremuan jarduteko egindako eskaeraren bidez. Ofiziozko jarduketa horietatik lau gizarte eskubideen babesari buruzkoak izan dira, bereziki, honakoak izan dituzte hizpide: urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeak jasotzen duen gizarteratzeko errentaren araudia, haren irismena

ezagutzeko; pertsona guztien benetako berdintasuna, beren sexu orientazioa gorabehera, berau bermatzeko neurriak proposatuz; familientzako eta familia eta lana uztartzeko laguntzen ordainketako atzerapenak; eta mendetasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza eta prestazioen murrizketa mendetasunaren sistemari buruzko araudian, uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez.

Halaber, osasunaren alorrekin lotutako ofiziozko lau jarduketa gauzatu dira. Horien artean nabarmentzekoak dira, batetik, Nafarroako etorkinei eman beharreko bidezko osasun arreta publikoa, Nafarroako legeetan xedatutakoaren arabera, bestetik, koordainketa farmazeutikoaren bidezko salbuespena ezintasunak dituzten pertsonen dagokienez, eta, azkenik, beren etxeetatik hurbil dauden osasun zentroetan bidezko osasun arreta jasotzeko aukera gune mugakideetan bizi diren nafarrentzat, zentro horiek beste autonomia erkidego batean egon arren.

Ogasunaren arloan, ofiziozko lau jarduketa egin dira. Azpimarratzekoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legeko 55. artikulua aldatzeko araudi iradokizuna, Tributu Ogasunari planteatutakoa, familiako gutxieneko kopurua bereizitako edo dibortziatutako gurasoen artean banatzeko, seme-alabekin bizi diren denboraren proportzioan, hitzarmen arautzailean ezarritakoari jarraiki.

Halaber, Espainiako Arartekoari egindako eskaera nabarmendu behar da. Bertan, Legegintzako Errege Dekretu bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergako tasetan egindako igoeraren eta enplegatu publikoen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ezabatzearen konstituzionaltasuna aztertze eskatu zen. Neurri horiek guztiek aurrekontu egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu dira. Era berean, Espainiako Arartekoari eskatu zitzaion Balioen Markatuko Batzorde Nazionalera, Ogasun Ministeriora eta bidezkotzat jotzen zituen administrazio publikoetara eta organismoetara zuzentzeko, irtenbide egokiak bilatze aldera, arauzkoak ere beharrezkoa izanez gero, lehentasunezko partaidetzetan inbertitu duten pertsonen zegoikienez.

Justiziaren alorrean, erakundeak Gorte Nagusietako Arartekoari eskatu zion Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legeko edukiak aztertze, eta Lege hori alda zezan iradokitzeko Gobernuari edo Gorte Nagusiei, legearen aurreko tratu berdintasunerako eskubidea eta epaile eta auzitegien benetako tutoretzarako eskubidea bermatze aldera. Zehazki, erakunde honek proposatu zuenez, pertsona fisikoak tasetatik salbuetsi beharko lirakeke, Konstituzioak aitortu eta babesten dituen oinarriko eskubideen titular izateagatik, edo bestela, hala egin ezean, klase baxu eta ertainetako pertsona fisikoak tasak ordaintzetik salbuetsi beharko lirakeke, tasen kontzeptua inspiratzen duen gaitasun ekonomikoaren printzipioa sartuz. Herritarren hainbat eskubide konstituzional babesten dituzten edo beren familiako kideen eskubideak kaltetu ahal izan dituzten prozesu judizialak tasa horiek ordaintzetik salbuesteko ere eskatu zen.

Etxebizitzaren alorrari dagokionez, erakundeak iradokizun bat egin zien Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari, Hipoteka Bitartekaritzaren Zerbitzua antolatze aukera azter zezaten,

antolamendu juridikoaren arabera banku erakundeen eta hipoteka maileguari aurre egin ezin izanagatik egoitza bakarra osatzen zuen etxebizitzatik kaleratu zitezkeen jabeen arteko bitartekari lanak egiteko, hala bazegokion pertsona kaudimengabeen maileguak berriz negoziatze aldera, Administrazioak proposatzen dituen baldintzetan oinarrituta. Nafarroako Gobernuak iradokizun hau onartu zuen eta Hipoteka Bitartekaritzaren Zerbitzua eratu zuen, haren funtzioak Nafarroako Gobernuko Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari esleitzuz.

Egindako beste ofiziozko jarduketa batzuen helburuak honakoak izan ziren: Iruñeko espexteko presoei arreta psikiatrikoa ematen jarraitzen zaiela egiaztatzea; telefono bidez osasun zentroekin euskaraz komunikatzeko aukera egiaztatzea; ezgaitasunaren ondoriozko prestazioak doktorego tesi bat egiteko ikasketa bekarekin bateragarriak izatea sustatzea; lan ezintasunagatik funtzionario publikoen ordainsariak murrizten ez direla ziurtatzea; hiri hondakin solidoen tratamenduagatik tasen kobrantzan gehiegizko bikoiztasuna saihestea; Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga aldatzea eta etxebizitzaren eroslearen ordezkio izaera ezabatzea, zerga ordaintzen duena bera delarik; Nafarroako Gobernuko Departamentuei eta hainbat erakunderi gogoraraztea herritarrek egindako eskari eta idazkiak behar bezala eta garaiz erantzuteko legezko betebeharra dutela; Nafarroako bide sareetako seinaleak Nafarroako Gobernuak lekuen izen ofizialari buruz onartutakoaren arabera idazten direla ziurtatzea; Administrazioak gazte erakundeen errolda eguneratzeko egindako datu eskaerak datu pertsonalen babesari buruzko araudia errespetatzen duela bermatzea; adopzio nazionalean bereizkeriarik ez dagoela egiaztatzea, seme-alabarik ez daukaten adoptatzaileei lehentasuna ematen baitzaie; Nafarroan bizi den eta nafar batekin ezkontuta dagoen nigeriar bati Espainiara itzultzeko bida ematea; Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutuaren aldaketa sustatzea, funtzionarioek boluntario lanetarako sarbide errazagoa izan dezaten; Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa 2012ko irailean bidalitako fakturetan aplikatzearen legezkontasuna egiaztatzea, aurreko hilabeteetan emandako prestazioei dagokienez; kontsumitzaile eta erabiltzaileen legezko interesak babesteko administrazio prozedura eraginkorrak daudela egiaztatzea; GIB/HIESA gaixotasuna izateagatik alderdietako bat baztertzen duten klausula, xedapen, baldintza edo hitzarmenen eraginkortasun eta baliozkotasunik eza aitortzea; Udaltzaingoaren jarduketa bat ikuskatzea, bere gurasoek behar bezala zaindu ez duten adingabe baten kasuan; krisi ekonomikoaren testuinguruan etxebizitzarako eskubide konstituzionala babesten duten neurri eraginkorrak proposatzea; eta buruko gaixotasuna duten pertsonen tratamendu penal, prozesal eta penitentziarioa hobetzeko neurriak proposatzea.

12. Aurreko urteetan bezala, erakundeak Nafarroako haur eta nerabeen egoera baloratu du. Ez da balorazio orokor edo soziologikoa, baizik eta egoera hori haurtzaro eta nerabezaroaren sustapen, arreta eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak Nafarroako administrazio publikoei ezartzen dizkien eskakizunen arabera egiaztatzeko balorazioa. Eremu honetan, orokorrean, adingabea babesteko zerbitzu publikoek garatu beharreko jarduketa igo da, eta, horien gardentasun soziala kontuan hartuta, lehentasunezko arreta behar da baliabide publikoak esleitzeko orduan.

Beharrian hori egiaztatzeaz gain, azterketak alderdi positiboak nabarmendu ditu, besteak beste, administrazio publikoaren ahalegina arrisku egoeretan esku hartzeko, esku hartzerik

larrienak gutxitzen lagun dezakeelarik; baina elementu negatiboak ere antzeman dira, seguru asko gizartea pairatzen ari den krisi ekonomiko bortitzaren egoerarekin lotutakoak, esaterako, harrera familiarrari harrera instituzionalaren aldean lehentasuna emateko zailtasuna edo familiek aurreko urteetan baino aukera gutxiago izatea adoptatzeko.

Azterketa horren harira, txostenean hainbat iradokizun daude, eremu horretako administrazio jarduketaren alor desberdinei buruz, harreraren egoera horretan antzeman den joerari buelta emango dioten neurriak hartzeko beharrezana nabarmentzen delarik.

13. Azken lau urteotako txostenetan adierazi izan dudana bezala, erakunde honek 2008tik aitzina sustatu du herritarrek zerbitzu publikoen hobekuntzan parte hartzea; hartara, herritarrak animatu ditu zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak aurkez ditzaten. Proposamen horiek organo eskudunetara bideratzen dira, eta, hala badagokio bertan defendatzen dira.

2012an **herritarrek aurkeztutako 46 hobekuntza proposamenen** bidez, duela bost urte herritarren partaidetzaren eta lankidetzaren aldeko ekimen hau martxan jarri zenetik guztira 234 proposamen egin dira. Aurten aurkeztutako proposamen gehienak zaintza partekatuari, funtzio publikoari eta ogasunari buruzkoak izan dira. Zehazki, toki erakundeek eta elkarteek 15 proposamen planteatu zituzten eta Nafarroako Arartekoari “zaintza partekatua” deiturikoa babesteko eskatu zioten, ezkontideak bereizi edo dibortziatzen direnean edo gurasoen bizikidetzeta eteten denean. Halaber, Kode Zibilean edo, hala badagokio, foru araudi aplikagarrian figura hori arautzeko eskatu zuten.

Erakundearen iritzi, Nafarroako Parlamentuak dagoeneko eztabaidatu eta arautu du zaintza partekatuaren gaia, gurasoen bizikidetzeta eteten den kasuetan seme-alabak zaintzeari buruzko martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legearen bidez. Foru Lege horrek, Nafarroak ezarri duena Foru Zuzenbide Zibilaren alorrean dagozkion eskumen eksklusiboak betez, gurasoei baimena ematen die seme-alaben gaineko zaintza partekatua adosteko, biak ados badaude, eta, ados egon ezean, epaileari ematen dio baimena zaintza modu hori ezartzeko, edo, bestela, gurasoetako baten aldeko zaintza indibiduala ezartzeko, adingabeak diren edo ezintasunen bat duten seme-alaben intereserako, familiaren egoera eta bestelako ezaugarriak kontuan hartuta, Zerga Ministerioaren txosten loteslerik gabe.

Ekonomia eta Ogasun Departamentura bideratu diren herritarren proposamenen artean ezgaitasunen bat duten pertsonen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan ematen zaien zerga tratamendua hobetzeko araudi aldaketak egiteko eskatzen zuena azpimarratu behar da. Proposamen honen arabera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legean 60.000 euroko murrizketa aurreikusi da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarako 100eko 33 edo goragoko eta 100ko 65etik beheragoko ezgaitasun maila egiaztatzen duten subjektu pasibo ezinduek egindako mortis causa eskuraketetan eta 180.000 euroko murrizketa, aldiz, subjektu pasiboak 100eko 65eko edo goragoko ezgaitasun maila egiaztatzen badu.

14. Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako **txosten monografikoak** hiru izan dira 2012an: bat erakundearen ekimen propioz egina, Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako

Arartekoaren arteko lankidetzaren harreman positibo eta eraginkorra nabarmentzen duena, zurikeriarik gabe, eta beste bi Parlamentuaren ekimenez eginak: lehenengo txostenak aztertzen du ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak betetzen ote dituen espezialitate desberdinetan profesional desberdinek ezarritako berrikuspen medikoetako epeak eta, bestetik, bigarren txostenean herritarrek komunikabide sozialekiko harremanean dituzten hizkuntza eskubideen egoera aztertzen da.

15. Erakundeko Herritarren Arreta Bulegoak herritarren **1.428 kontsulta** jaso eta erantzun ditu.

Aurten gizarte ongizateari buruzko kontsultak gailendu dira, baliabide ekonomikorik gabeko pertsonen laguntzen prestazioekin lotutakoak, batez ere gizarte laguntzak eskuratzeko baldintzei eta gizarteratzeko errenta emateko epeei dagokienez (errenta aitortu edo ordaintzeko atzerapen nabarmenaren aurrean). Era berean, adingabe eta nerabeen babesarekin eta familientzako laguntzekin lotutako hainbat kontsulta aurkeztu dira.

Bigarren kontsulta taldea Nafarroako administrazio publikoetan euskarari ematen zaio erabilerari buruzkoa da eta gehienak "Hizkuntza Eskubideen Behatokia" fundazio pribatuak aurkeztu ditu. Kexa horietan gaztelaniaz soilik argitaratutako inprimaki, liburuxka eta dibulgazio materiala eta gaztelaniaz soilik idatzitako kaleak edo bideak salatzen dira batez ere.

Horrez gain, osasunarekin lotutako kontsultak ere igo egin dira. Herritarrek itxarote zerrendei, arreta espezializatutako atzerapenari eta jasotako arreta medikoagatiko erreklamazioak jartzeko bideei buruzko informazioa eskatu dute.

Hezkuntzan, bestalde, kontsulta nagusiak ikasketarako beka eta laguntzak eman eta ukatzeko irizpideei eta ikastetxe desberdinetako garraio eta jantokiari buruzkoak izan dira.

Era berean, herritarrek administrazio publikoekin duten harremanetako bermeak, justiziak, funtzio publikoak eta etxebizitzak ere hainbat kontsulta eragin ditu.

16. 2012an herritarrek aurkeztutako kexa, kontsulta eta hobekuntza proposamenak erantzuteko egindako jarduketari, ofiziozko jarduketei eta landutako txostenei esker, zera ondorioztatu ahal izan dugu: herritarrek geroz eta indar handiagoz eskatzen diete agintari publikoei entzuteko, orientatu eta informatzeko eta beren eskubideak aitortu eta babesteko, batez ere gizarte eskubide deiturikoak (biziraupen, gizarte babes, hezkuntza, osasun, etxebizitza, ingurumen, kontsumo eta abarrekin lotutakoak), edukian egon litezkeen arau haste eta atzerapenen aurrean. Izan ere, horiek dira estatuaren eta aginte publikoen funtza, eta, beraz, herritarrek beren bizitzako arazoei eta gatazka sozialei irtenbide eraginkorrak ematea nahi dute. Baina, irtenbideaz gain, administrazio publikoen erabakietan parte hartu nahi dute, entzuteko aukera izateko eta gauzen ikusle baino gehiago bihurtzeko zeregin aktiboa eskuratze aldera.

Herritarrek partaidetza eta irtenbideak sustatzeko asmoz egin dituzten eskaera hauek, krisi ekonomikoa zenbat eta gehiago indartu edo luzatu orduan eta gehiago sentitzen direnek,

administrazio eta erakunde publiko gehienek oro har erakusten duten lankidetzarekin eta harmenarekin eta Nafarroako Parlamentuaren eskutik beti jaso izan dugun babesarekin batera, “Herriaren Arartekoa” izeneko erakundean lan egiteko ohorea daukagunok lan egiten jarraitzera animatzen gaituzte, agindu zaizkigun zereginak betetzeko, antolamendu juridikoak gure herritarrei aitortzen dizkien eskubide eta askatasunen babes maila defendatu eta hobetzeko asmoz.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Francisco Javier Enériz Olaechea
Defensor del Pueblo de Navarra
Nafarroako Arartekoa

1. KAPITULUA

SARRERA



Defensor del Pueblo
de Havana
Hizlarroako Arartekoa



SARRERA

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1. artikulua araber, Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi ordezkaria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko zereginen diharduena.

Parlamentuaren ordezkari gisa, Nafarroako Arartekoak urtero Nafarroako Parlamentuari egindako kudeaketaren berri ematen dio, ohiko bilkura-aldian aurkezten dion txosten baten bitartez.

Foru erakundea hau arautzen duen Foru Legeko 37.1 artikulua zehazten du urteko txostenean Nafarroako Arartekoak azalduko dituela aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik; baita zenbat gai ikertu dituen eta ikerketa horien emaitzak ere. Gainera, Nafarroako administrazio publikoek onartu dituzten ohar, iradokizun, gogorazpenak edo gomendioak zehaztuko ditu.

Agindu hori betetzeko, urteko txosten honek Nafarroako Arartekoak 2012an zehar garaturiko jarduerari buruzko datuak jaso ditugu.

2012ko txostenaren edukia bederatzi kapitulutan dago banatuta.

I. kapituluak sarrera-izaera dauka, eta txostenaren edukiari eta egiturari buruzkoa da.

II. kapituluak aurkeztutako kexen kopuruari eta motari buruzko datuak dakartza, eta herritarrek kexa horietan adierazten dituzten sakoneko arazoak jasotzen ditu. Kexen arloz arloko sailkapena egiten da, adierazita zein administrazio publikori zuzentzen zaizkien. Kapituluak balorazio orokor bat jasotzen du emandako ebazpenei buruz eta kexa horien harira eginiko ikerketen emaitzari buruz, bai eta ebazpen horiek izan dituzten onarpen-mailari buruz ere.

III. kapituluak erakundeak eginiko ofiziozko jarduketak islatzen ditu, eta adierazten du zein izan den haien izapidetzea eta emaitza. Kapitulu honetan, halaber, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioaren gaineko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezarri bezala. Zehaztapen batzuk egin behar dira horri buruz.

IV. kapituluan, herritarrek gure bizkar uzten dituzten zerbitzuak hobetzeko proposamenak jasotzen dira; horietako batzuek arau-proposamenaren izaera daukate.

V. kapituluak 2012an zehar eginiko txosten berezien zerrenda jasotzen du.

VI. kapituluan, Nafarroako Arartekoak, bere ikuskatze-jardueraren emaitza gisa, egin dituen gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak jasotzen dira, laburbilduta. Herritarren kexen eta proposamenen harira eta ofiziozko jarduketan eta eginiko txostenen harira eman dira gomendio, iradokizun eta gogorazpen horiek. Halaber, jasotzen da gomendio, iradokizun eta gogorazpen horiek Nafarroako Administrazio Publikoek edo zuzendu zaizkien gainerako erakundeek noraino onartu dituzten edo ez dituzten onartu. Kapituluak jasotzen du zein kasutan Administrazio Publikoek ez dituzten onartu Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak ez-onartze horretarako arrazoiak behar bezala justifikatu gabe; horrekin, izan ere, Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 34.2 artikuluan ezarritakoa bete da.

VII. kapituluan, kasu zehatz batzuk jaso dira, non jotzen baita administrazio publikoek ez dutela jardun erakunde honekiko lankidetzan. Aipamen horrekin betetzen da uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 31. Artikuluan aurreikusitakoa.

VIII. kapituluak zehazten du zenbat kontsulta eta gaitan herritarrek jo duten edo zuzendu zaizkion Herritarrentzako Arreta Bulegoari. Halaber, erakundearekin hartu-emanak izan dituzten gizarte zibileko eragileak aipatzen dira. Hartu-eman hori, batzuetan, pertsonala izan da eta beste batzuetan aurkeztutako kexen edo bestelako kezken bitartezkoa.

IX: kapituluan jasotzen da herritarrek nola baloratu duten 2012an erakundea, inkesta izengabeen bitartez.

Azkenik, txostenak eranskin bat dauka, non jasotzen baita erakundearen aurrekontuaren likidazioa, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 37.3 artikuluan ezarri bezala.

2. KAPITULUA

QUEXAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



2

QUEXAK

2.1. DATU OROKORRAK


Honakoak dira 2012an Nafarroako Arartekoaren bulegoan kudeatutako kexei buruzko datuak:

1. **Guztira, 1.298 kexa aurkeztu ziren.** Horrek esan nahi du kexa-kopuruak % 52,7 egin duela gora 2011ren aldean, orduan 850 kexa erregistratu baitziren.



2. 2012an **kudeatutako kexak** 1.510 izan ziren (aurreko ekitaldian baino % 44,9 gehiago). Kopuru hori heldu da urtean aurkeztutako 1.298 kexei aurreko urteetako 212 kexaren izapidetzea gehitzetik, dela kexa horiek aurreko urtean itxi gabe geratu zirelako, dela herritarrek eskatuta berriz ireki direlako.


Kudeatutako kexak 2012-2011



2012ko abenduaren 31n, 1.300 espediente **ebatzita zeuden**; hau da, kudeatutakoen % 86,1.

2012ko abenduaren 31n -ekitaldia ixteko data-, gainerako 210 kexak ebazteko zeuden.

Ebatzitako kexak/ebazteke dauden kexak 2012-2011



Irudian ikus daitekeen bezala, erakundeak 2011n baino 466 kexa gehiago ebatzi ditu 2012an.


3. **Kexak aurkezteko gehien erabili den bideari** dagokionez, lehenengo urtea da internetez aurkeztutako kexak (% 53,8) gehiago izan direla Nafarroako Arartekoaren egoitzan bertaratuta aurkezten direnak (% 33,7) baino. Hori zor zaio, funtsean, langile publikoei 2012ko abenduko aparteko soldata kentzearen harira 413 kexa aurkeztu izateari. Kexa horiek posta elektronikoz igorri dira.

Kasu berezi hori alde batera utzita, egiaztatzen da, beste behin, herritarrek nahiago izaten dutela gure bulegora etorri beren kexak azaltzera, horrela behar duten arreta pertsonalizatua eta aholkua lortzen dutelako, formalismorik gabe, haiengan zuzeneko eragina duten gaiak azalduz eta alde zurretik hitzordua eskatu behar izan gabe.

Halaber, oso maiz gertatzen da herritarrek gure bulegora jotzen dutela erakundeko langileekin elkarrizketa bat izateko eta kexaren nondik norakoen jarraipena egiteko.

Azkenik, kexen % 8,6 posta arruntaz igorri ziren, eta soilik kexen % 3,9 aurkeztu ziren fax bidez.

Kexak aurkezteko modua



4. Aurkeztutako 1.298 kexetatik, 1.160 **banakakoek** aurkeztu zituzten, eta 137, aldiz, **talderen batek**, pertsona multzo batek alegia. Kexa bat izenik gabe aurkeztu zen.

Kexak aurkeztu dituzten pertsonen edo kexen atzean dauden pertsonen guztizko kopurua 5.242 pertsonakoa dela jo da, kontuan izan gabe kexak aurkeztu dituzten izaera sozialeko, ingurumenaren arloko edo beste gisa batzuetako entitateek zenbat pertsona ordezkatzan dituzten.

Datu horrek adierazten du nola kexen kopurua ez den beti bat etortzen beren eskubide eta askatasun publikoak babesteko Nafarroako Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten

herritarren kopuruarekin, azken hori beti handiagoa izaten baita kexen kopurua baino. Hori honako arloetan gertatu da, batez ere: osasun arloa (ospitaleen arteko garraioa kentzeari buruzko kexak), hezkuntzaren arloa (ordutegiak aldatzeari buruzko kexak); funtzio publikoa (abenduko aparteko soldata kentzeari buruzko kexak); ingurumena (zaratengatiko kexak); gizarte gaiak (seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko laguntzak ukatzeagatiko kexak), eta abar.


5. Kexa sustatu duen pertsonaren profilari dagokionez, gehiago dira **emakumezkoek** aurkeztutako kexak gizonezkoek aurkeztutakoak baino. Zehazki, banakako kexen % 55 emakumeek aurkeztuak ziren.
6. Nafarroako hizkuntza berekien erabilerari dagokionez, 66 kexa **euskaraz** edo ele biz (euskaraz eta gaztelaniaz) aurkeztu ziren, hau da, guztizkoaren % 5,1.

2.2. ONARTUTAKO KEXAK

859 izan ziren Nafarroako Arartekoak izapidetzeko onartu zituen kexak, eta guztira kudeatutako kexen (1.510 kexa) % 56,9 egiten dute.

Herritarrek azaldutako sakoneko gaia dela eta, Nafarroako Arartekoak alde batera nahiz bestera bere iritzia eman duen kexak dira. Iritzi horren bitartez, izan ere, erantzun zehatza eman du aurkeztutako gaiari buruz. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, aurkeztutako kexetatik 522 beste parlamentu batzuetako goi ordezkariari igorri zitzaizkien, zeren eta jo baitzen haien eskumeneko gaiak zirela. Hala eta guztiz ere, erakunde honek etengabeko harremana dauka bai ordezkari horiekin, bai kexa-egileekin, azken horiei erraztasunak emateko dokumentazioa jaso eta igortzeko, edo aholkua eskatzen dutenean erantzun egokia emateko.

Ornatutako / onartu babeko kexak



Alderantzizko zentzuan, 129 kexatan ezin izan zen iritzirik eman herritarrek aurkeztutako gaiari buruz. Kexa horiek kudeatutako kexa guztien % 8,5 egiten dute.

Foru erakunde honek daukan izaera formalismoen aurkako delata eta, kexa bat ez onartutzat jo aurretik, herritarrei, izapidetzea ahalbidetzeko, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak eskaintzen dituen aukera guztiak ematen zaizkie. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, ahaleginak eginda ere, ezin izan da ikerketa bat ireki herritarrek azaldutako egitatei buruz, delata izaera juridiko pribatuko gaiak direlako, delata kexa bide judizialean dauden gaiari buruzkoa delako (gero eta gehiago gertatzen da hori), delata, azkenik, legeak kexa aurkezteko ematen duen urtebeteko epea iragan delako, besteak beste.



Kasu horietan, zeinak, jada adierazi dugun bezala, Nafarroako Arartekoaren bulegoari aurkeztutako kasuen % 8,5 baitira, pertsonalki ematen zaie aholkua herritarrei beren eskubideez baliatzeko egoki diren instantzietan erabil ditzaketen bestelako bideei buruz, eta horretarako bete beharreko baldintzei buruzko informazioa ematen zaie.

Bestalde, komeni da zehaztea subjektibotzat jotzen ditugun arrazoiak direla-eta kexak ez onartzeko kasuak egoten direla; esate baterako, kexa-egileak daturik ematea edo interesdunak berak kexa bertan behera uztea. 2012an, arrazoi horiek direla-eta 20 kasutan kexak ez ziren onartu; kexak onartu ez diren kasuen ehuneko % 15,5 dira horiek: kasu horietatik hamarretan herritarrek ez zituzten eman eskatu zitzaizkien datuak; sei kasutan, interesdunak bertan behera utzi zuen kexa, eta lau kasutan, azkenik, ez zegoen interes legitimorik kexa-egileak aurkeztutako kasuan.

Arrazoi subjektiboez gain, badira arrazoi objektiboak direla-eta onartzen ez ditugun kexak. 2012an, esaterako, 109 kexa ez genituen onartu arrazoi horiengatik (% 84,5), eta egileak aholkatu egin genituen aurrez.

Arrazoi objektibo horien artean honakoak daude, besteak beste: kexa garaiz kanpo aurkeztea, hura aurkezteko urtebeteko gehieneko epea iraganik egoteagatik (lau kasutan); Arartekoak ebazteko proposatzen den auzia ezin ikertzea, delata alor juridiko pribatukoa delako (hamahiru kasutan), delata epaitegietako prozedura baten gaia delako (hamalau kasutan), delata auzia administrazio eskudunari planteatzeko betebeharra bete ez eta zuzenean Arartekoari planteatu zaiolako (sei kasutan), delata kexak helburu jakinik ez duelako (lau kasutan), edo delata hirugarrenen interes legitimoetan kaltea eragin dezakeelako (kasu batean).

Azkenik, hamalau espediente ez ziren onartu amaitutzat emandako gai bati buruzkoak zirelako, eta beste berrogeita hamahiru, Arartekoak ez zuelako haiek bideratzeko eskumenik.

Arrazoi subjektiboak**Arrazoi objektiboak, aholkuarekin****2.3. ESPAINIAKO ARARTEKOARI IGORRITAKO KEXAK**

2012ko urtean, 516 kexa igorri zitzaizkion Espainiako Arartekoari. Kasu horietan guztietan, igorpen hori zor izan zaio kexa Estatuko Administrazio Orokorren organoen jarduketa bati buruzkoa izateari. Halaber, 2012an zehar, 6 kexa igorri zitzaizkien beste parlamentu-ordezkarri batzuei.

Adierazi beharra dago, beste ordezkari batzuei igorritako kexak gehiago direla 2011n baino (533 kexa oraingoan eta 73 kexa joan den urtean), langile publikoen abenduko aparteko soldata kentzeari buruz 413 kexa aurkeztu izatearen ondorioz.

2.4. BAIETSITAKO KEXAK ETA HERRITARREI EMANDAKO AHOLKUA

Onartutako kexen azterketa eta analisia egin ondoren, Nafarroako Arartekoak 532 espedientetan arrazoia eman dio, guztiz edo zati batean, erreklamazioa aurkeztu duenari (% 61,9).

Onartutako beste 186 espedientetan -onartutako kexa guztien % 21,7 egiten dute-, Nafarroako Arartekoak jo du ez zela beharrezkoa administrazio eskudunari iradokizun, gomendio nahiz legezko betebeharren gogorarazpenik egitea. Horrelako kasuetan, Administrazioari entzun ondoren eta sakoneko gaiak xeheki aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak kexak aurkeztu zituzten herritarrei informazioa eta aholkua eman zien antolamendu juridikoaren arabera konstituzio-eskubideen urratzerik ez atzemateko arrazoiei buruz.

Erakundeak kexa-egilearen arrazoia guztiz edo zati batean baietsi zuen aipatutako 532 espedienteetatik, 353 kasutan ikuskatutako administrazio publikoak onartu egin zuen Nafarroako Arartekoaren erabakia (kasuen % 66,4 dira) eta 102 kasutan, berriz, ez zuen onartu (% 19,2). Abenduaren 31n, Nafarroako Arartekoak baietsitako 77 kexa-espedientetako erantzunak, Nafarroako administrazio publikoenak, jaso gabe geunden.

Hartara, erantzun gabe dauden espedienteak kenduta, Nafarroako administrazio publikoek kasuen % 77,6an onartu dituzte Nafarroako Arartekoak hartutako erabakiak.



2.5. KEXEN HARIRA EMANDAKO EBAZPENAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HAIEK NORAINO ONARTU DITUZTEN

2.5.1. Kexen harira emandako ebazpenak

2012an, Nafarroako Arartekoak guztira 532 ebazpen eman zituen, 363 kexa-espediteren harira.

Ebazpenen kopurua (532) eta haiei dagozkien kexen kopurua (363) bat ez etortzearen arrazoia hau da: kexa-espeditente beraren kariatara, kasuko administrazioari gomendio, iradokizun edo gogorarazpen bat baino gehiago egin dakioke, ikerketaren emaitzek eskatzen duenaren arabera.

Emandako ebazpenen laburpen bat, dagokien espeditentearen erreferentziarekin, Nafarroako Arartekoaren webgunean daude. Horra <http://www.defensornavarra.com> helbidetik sar daiteke, 2012. urteari dagokion atalean klik eginda.

Ondoko taulan, egindako gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen kopurua azaltzen dugu, gaien arabera banakatuak:

ARLOA	Legezko beteb.				2012an guztira	Ukitutako kexen kopurua
	Gomend.	gogoraz.	iradokizuna	iradokizun normatiboa		
FUNTZIO PUBLIKOA	23	24	19	2	68	46
GIZARTE ONGIZATEA	24	23	45	0	92	54
HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA	12	7	30	0	49	40
OSASUNA	11	7	12	0	30	24
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HERRITARRAK						
DAUZKATEN BERMEAK	15	31	10	0	56	39
EUSKERA	1	22	23	0	46	41
OGASUNA	18	12	11	3	44	26
JUSTIZIA	1	2	2	0	5	4
ETXEBIZITZA	6	0	6	0	12	10
MERKATARITZA	3	0	1	0	4	4
TRAFIKOA	1	2	3	0	6	5
INGURUMENA	24	27	6	0	57	26
LANA	1	0	1	0	2	2
BARNE ARLOA	2	2	1	0	5	5
HIRIGINTZA	8	7	4	0	19	10
ZERBITZU PUBLIKOAK	6	3	2	0	11	9
BESTELAKOAK (toki entitateen funtzionamendua)						
HERRI LANAK	2	1	8	0	11	8
GAZTERIA ETA KIROLA	3	2	3	0	8	5
NEKAZARITZA	1	0	0	0	1	1
GUZTIRA	163	174	190	5	532	363

Taulak islatzen du administrazio publikoei gehienetan iradokizunak egiten zaizkiola, jokabide jakin bat har dezan: 195 iradokizun eman dira (ebazpenen % 36,7 dira), horietatik 5 normatiboak.

Ondotik, legezko betebeharren gogorazpenak heldu dira, zeinak 174 izan baitira (% 32,7); eta gomendioak, 163 (% 30,6).

Hartara, erakundeak, bere iradokizun eta gomendioekin, bere izate proaktiboari eusten dio Administrazioari zuzentzen zaion 10 kasutatik 7tan. Gainerako 3 aldietan, legezko betebeharrak gogorazten dizkio Administrazioari.

Arloka, gizarte ongizatea da ebazpen gehien egin ziren arloa. Ondotik, honakoak heldu dira: funtzio publikoa, ingurumena eta herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan eduki beharreko bermeak. Hezkuntza da nabarmentzen den beste arlo bat, euskararen, ogasunaren edo osasunaren aurretik.

Ebazpen gehien, berriz, honako administrazio publikoei zuzendu zitzaizkien, ebazpen gehien jaso dituztenetatik hasita:

- Famili, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Gizarte Politiketako Departamentua: 84 ebazpen.
- Iruñeko Udala: 61 ebazpen.
- Hezkuntza Departamentua: 57 ebazpen.
- Osasun Departamentua: 49 ebazpen.
- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 36 ebazpen.
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua: 29 ebazpen.
- Sustapen eta Etxebizitza Departamentua eta Sustapen Departamentua: 27 ebazpen.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua: 14 ebazpen.
- Erriberako Mankomunitatea: 14 ebazpen.
- Martzillako Udala: 12 ebazpen.

2.5.2. Administrazio publikoek ebazpenak noraino onartu dituzten

Guztira, ebazpen bat edo gehiago biltzen zituzten 363 kexak direla eta, ikuskatutako administrazio publikoek 282 kexa-espediteri erantzun diete (% 77,7)-


- 197 kasutan, Administrazioak erakundearen erabakia onartu zuen. Kopuru horrek guztizkoaren % 54,3 egiten du.

- Beste 85 kasutan (gutzizkoaren % 23,4), proposamena errefusatu zen.

Administrazio publikoek ez zieten erantzun 77 espedienteri, eta horiek gutzizkoaren % 21,2 egiten dute.


Azkenik, 4 espediente beste arrazoi batzuk tarteko itxi ziren, Administrazioak haiek berariaz onartu edo errefusatu behar izan gabe.

2012an emandako ebazpenak



Erantzuteko geratu diren ebazpenak kontuan hartzen ez badira (oraindik ere erantzuna zein den ezagutzen ez delako), administrazio publikoek ebazpenen % 69,9 onartu zituzten (2011n, % 68,9 onartu zituzten). Hau da, erantzuna jaso den espedienteak -kasuko gomendioa, iradokizuna edo legezko betebeharren gogorarazpena onartzeko nahiz ez onartzeko- kontuan hartuta, **administrazioek hamar espedientetatik zazpitan onartu zituzten, batez beste, erakundeak hartutako erabakiak**. Onarpen-maila handia da hori, izan ere.

2012an eman eta erantzundako ebazpenak




Hemen adierazten dugun ebazpenen onarpen-maila Nafarroako Arartekoaren erabakien onarpen mailaz bestelakoa da. Lehenengoan, ehuneko 69,9a egin diren eta administrazioek onartu dituzten gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenei dagokie. Bigarrenean, portzentajea % 77,6ra iristen da, zeren eta, ebazpenen onarpenaz gainera, biltzen baititu Administrazioak, ebazpena eman aurretik ere, bere jokabidea aldatu edo zuzendu ditueneko kasuak, hartara konponbidea emanez herritarraren arazoari erakunde honek informazioa eskatze hutsarekin.

Arestian adierazi dugun bezala, maiz gertatzen da kexa-espeditente beraren kariatara, ukitutako administrazio publikoari gomendio, iradokizun edo gogorazpen bat baino gehiago egitea. Hala eta guztiz ere, kexa horietako bakoitzean Nafarroako Arartekoaren proposamena onartu edo errefusatu dela jotzearen ondorioetarako eta, horrenbestez, egindako ikerketaren ondoren lortutako emaitza txostenean jasotzearen ondorioetarako, proposatutako neurri nagusiari begira lortu denari erreparatzen zaio (neurri nagusia gomendia, iradokizuna edo gogorazpena izan daiteke), zeren eta jotzen baita neurri hori onartuta herritarrek aurkeztutako arazoari konponbide eraginkorra eman zaiola.


Arestian argitutakoa eta gero, ondoren gomendioen, legezko betebeharren eta iradokizunen (iradokizun normatiboak barne) onarpen-maila erakusten dugu, dagozkien kexen arabera.

Gomendioak:




Gomendioen onarpenaren portzentajea % 54,4ra iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Legezko betebeharren gogorazpenak:




2012an egindako legezko betebeharren gogorazpenen onarpenaren portzentajea % 95,2koa da.

Iradokizunak:



Iradokizunen onarpenaren portzentajea % 70,5era iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Iradozikun normatiboak



Iradozikunen onarpenaren portzentajea % 50era iristen da, administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Ondoren, aditzera ematen ditugu 2012an emandako ebazpenen onarpenaren portzentajeak, ukitutako administrazio publikoak bereiziz, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak eta unibertsitateak, lanbide elkargoak eta bestelako entitate publikoak bereiziz.

Ebazpena duten kexa espedienteak, 2012an hemendik igorritakoak	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxlerak	Erantzunaren zain daudenak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa	Erantzuteke daudenen ehunekoa
AdForu Komunitateko administrazioakoa	203	112	52	4	35	% 68,3	% 17,2
Toki entitateak	150	83	30	0	37	% 73,5	% 24,7
Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar	10	2	3	0	5	% 40,0	% 50,0
GUZTIRA	363	197	85	4	77	% 69,9	% 21,2

Txosten honetako VI. kapituluan jasotzen da ikuskatutako administrazio publikoak Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradozikun edo legezko betebeharren gogorazpenak onartu ez eta, gainera, horrela jokatzeko arrazoiak egoki justifikatu ez zituen kexa-espedientei buruzko informazioa.

Hurrengo taulan, administrazio bakoitzaren onarpen maila erakusten dugu. Analisi honetarako, soilik ematen da aditzera 2012an hiru kexa-espediente edo gehiago izan dituzten administrazio publikoen onarpen maila, betiere administrazio horiek emandako ebazpenari erantzuna eman baldin badiote.

Taulan ikus daitekeen bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, honako departamentuak dira Nafarroako Arartekoen ebazpenak hobekien hartzen dituztenak, aipatzen diren hurrenkeran: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua; Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, eta Hezkuntza Departamentua. Ebazpenak okerren hartzen dituztenak, berriz, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentua dira.

Toki entitateen kasuan, Nafarroako Arartekoaren ebazpenak hobekien onartu dituztenak honakoak izan dira: Martzillako udala, Iruñerriko Mankomunitatea, Erriberriko Udala eta Iruñeko Udala. Ebazpenak okerren onartu dituztenak, berriz, Erriberako Mankomunitatea eta Eguesibarko Udala dira.

2012an igorritako ebazpenak: 3 Kexa-espediente edo gehiago dituzten Administrazioak. Kexa horiei buruzko ebazpenak 2012an eman dira	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan egiten duten ehunekoa
NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)					
Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria	14	9	5	0	% 64,3
Gizarte Politikak	29	19	10	0	% 65,5
Osasuna	36	22	12	2	% 61,1
Hezkuntza	29	22	7	0	% 75,9
Sustapen eta Etxebizitza	7	4	3	0	% 57,1
Sustapen	10	6	3	1	% 60,0
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	10	7	3	0	% 70,0
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	10	8	2	0	% 80,0
Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumena	1	1	0	0	% 100,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	12	10	2	0	% 83,3
Ekonomia eta Ogasuna	2	0	2	0	% 0,0
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua	6	3	3	0	% 50,0
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako	2	1	0	1	% 50,0
TOKI ADMINISTRAZIOA					
Barañáin	3	2	1	0	% 66,7
Egüés	3	1	2	0	% 33,3
Marcilla	10	10	0	0	% 100,0
Olite	5	4	1	0	% 80,0
Pamplona	29	23	6	0	% 79,3
Zizur Mayor	3	2	1	0	% 66,7
Iruñerriko Mankomunitatea	4	4	0	0	% 100,0
Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	6	0	6	0	% 0,0
Onartutako ebazpenek erantzuna eman zaien ebazpenen gutzitzkoan batez beste egiten duten ehunekoa (2012. urtea)					% 69,9

Azkenik, arloka xehakaturik, aurreko taulan islatutako administrazio bakoitzaren onarpen-portzentajeak erakusten ditugu:

FUNTZIO PUBLIKOA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-------------------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Osasuna	13	9	4	0	% 69,2
Hezkuntza	10	8	2	0	% 80,0
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	4	3	1	0	% 75,0
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	2	1	1	0	% 50,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	1	1	0	0	% 100,0

TOKI ADMINISTRAZIOA

Barañáin	1	0	1	0	% 0,0
Olite	1	0	1	0	% 0,0
Pamplona	1	1	0	0	% 100,0
Zizur Mayor	1	0	1	0	% 0,0

GIZARTE ONGIZATEA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--------------------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria	14	9	5	0	% 64,3
Gizarte Politikak	27	19	8	0	% 70,4

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	2	1	1	0	% 50,0
Zizur Mayor	1	1	0	0	100,0

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN HERRITARREK DAUZKATEN BERMEAK	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Osasuna	1	1	0	0	% 100,0
Sustapen eta Etxebizitza	1	1	0	0	% 100,0
Sustapen	2	1	0	1	% 50,0
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	4	3	1	0	% 75,0
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	5	5	0	0	% 100,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	1	1	0	0	% 100,0
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua	1	1	0	0	% 100,0

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN HERRITARREK DAUZKATEN BERMEAK	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--	-------------------------	-----------------	------------------------------	-------------------------------	---

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	4	3	1	0	% 75,0
Zizur Mayor	1	1	0	0	% 100,0

HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-----------------------------------	-------------------------	-----------------	------------------------------	-------------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

hezkuntza	17	13	4	0	% 76,5
-----------	----	----	---	---	--------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Egüés	1	0	1	0	% 0,0
Marcilla	9	9	0	0	% 100,0
Pamplona	1	1	0	0	% 100,0

EUSKERA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
----------------	-------------------------	-----------------	------------------------------	-------------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Osasuna	1	0	0	1	% 0,0
Hezkuntza	2	1	1	0	% 50,0
Sustapen eta Etxebizitza	2	2	0	0	% 100,0
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	1	1	0	0	% 100,0
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	2	2	0	0	% 100,0
Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumena	1	1	0	0	% 100,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	1	1	0	0	% 100,0
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako	2	1	0	1	% 50,0%

TOKI ADMINISTRAZIOA

Barañáin	2	2	0	0	% 100,0
Pamplona	5	5	0	0	% 100,0
Iruñerriko Mankomunitatea	3	3	0	0	% 100,0

OGASUNA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
----------------	-------------------------	-----------------	------------------------------	-------------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Ekonomia eta Ogasuna	2	0	2	0	% 0,0
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua	5	2	3	0	% 40,0

TOKI ADMINISTRAZIOA

Olite	2	2	0	0	% 100,0
Pamplona	2	1	1	0	% 50,0
Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	5	0	5	0	% 0,0

TRAFIKOA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-----------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	2	2	0	0	% 100,0
----------	---	---	---	---	---------

INGURUMENA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-------------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Sustapen eta Etxebizitza	1	0	1	0	% 0,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	9	7	2	0	% 77,8

TOKI ADMINISTRAZIOA

Marcilla	1	1	0	0	% 100,0
Olite	1	1	0	0	% 100,0
Pamplona	4	4	0	0	% 100,0
Erriberako Mankomunitatea	1	0	1	0	% 0,0

ETXEBIZITZA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--------------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Sustapen eta Etxebizitza	2	0	2	0	% 0,0
Sustapen	5	2	3	0	% 40,0

OSASUNA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
----------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Osasuna	21	12	8	1	% 57,1
---------	----	----	---	---	--------

HIRIGINTZA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-------------------	---------------------	-----------------	--------------------------	---------------------------	---

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Sustapen	1	1	0	0	% 100,0
----------	---	---	---	---	---------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	3	3	0	0	% 100,0
----------	---	---	---	---	---------

ZERBITZU PUBLIKOAK	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--------------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Sustapen eta Etxebizitza	1	1	0	0	% 100,0
--------------------------	---	---	---	---	---------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	1	0	1	0	% 0,0
Iruñerriko Mankomunitatea	1	1	0	0	% 100,0

BARNE ARLOA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
-------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	1	0	1	0	% 0,0
-------------------------------------	---	---	---	---	-------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	2	1	1	0	% 50,0
----------	---	---	---	---	--------

MERKATARITZA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Gizarte Politikak	2	0	2	0	% 0,0
-------------------	---	---	---	---	-------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Egüés	1	1	0	0	% 100,0
-------	---	---	---	---	---------

LANA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	1	0	1	0	% 0,0
---	---	---	---	---	-------

TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
---------------------------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

TOKI ADMINISTRAZIOA

Pamplona	1	0	1	0	% 0,0
----------	---	---	---	---	-------

HERRI LANAK	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
--------------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

NAFARROAKO GOBERNUA (DEPARTAMENTUAK)

Sustapen	2	2	0	0	% 100,0
----------	---	---	---	---	---------

TOKI ADMINISTRAZIOA

Olite	1	1	0	0	% 100,0
Pamplona	1	1	0	0	% 100,0

GAZTERIA ETA KIROLA	Kexa kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan egiten duten ehunekoa
----------------------------	--------------	----------	-------------------	--------------------	--

TOKI ADMINISTRAZIOA

Egüés	1	0	1	0	% 0,0
-------	---	---	---	---	-------

2.6. KEXAK SORRARAZI DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

2012an aurkeztutako kexa gehienak Estatuko Administrazioari buruzkoak izan ziren. Horixe da 527 kexaren kasua -guztizkoaren % 40,6 egiten dute-. Kexen hartzaile nagusia Estatuko Administrazioa izatearen arrazoia da langile publikoek kexa ugari aurkeztu dituztela abenduko aparteko soldata kentzearekin ados ez daudela adierazteko (413 kexa).

Bigarren tokian, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa ageri da, non sartzen baitira administrazio hori bera, hertsiki hartuta, eta haren erakunde publiko eta sozietate publikoak. Foru Administrazioari buruz, 453 kexa aurkeztu ziren, eta guztizkoaren % 35 egiten dute (hiru kexatatik bat).

Toki entitateei eta hein menpeko enteei 253 kexa zuzendu zitzaizkien, eta guztizkoaren % 19,5 egiten dute.

Kexa bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki administrazio baten baterako jarduketa bati buruzkoa izan zen.

Administrazio judizialari buruz, berriz, hogeita bi kexa aurkeztu ziren.

Hamar kexatan, hartzailea Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan zen, eta kexa baten xedea, berriz, Nafarroako Unibertsitatea izan zen.

Lanbide elkargoen jarduketari buruzko kexak, berriz, hamar izan ziren.

Sei kexa aurkeztu ziren autonomia erkidegoen administrazioei eta nazioarteko administrazioari buruz.


Nafarroako Parlamentuaren administrazioa dela eta, kexa bat aurkeztu zen.

Administrazioaz kanpoko sozietate pribatuei (banku-entitateak, telefono-konpainiak eta aseguru-konpainiak) buruzko kexak zazpi izan ziren.

Azkenik, zazpi kexatan ez zen administrazio jakin bat aipatzen edo, bestela, ente pribatuei buruzkoak ziren.

KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO		
EDO ERAKUNDE PUBLIKOAK	Kexa kop.	%
FORU ADMINISTRAZIOA	453	% 34,9
TOKI ADMINISTRAZIOA	253	% 19,5
FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOA (*)	1	% 0,1
ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	527	% 40,6
ADM. JUDIZIALA	22	% 1,7
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA	10	% 0,8
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA	1	% 0,1
LANBIDE ELKARGOAK	10	% 0,8
SOZIEATEAK	7	% 0,5
AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA NAZIOARTEKO ADMINISTRAZIOA	6	% 0,5
NAFARROAKO PARLAMENTUA	1	% 0,1
BESTERIK / BESTE BATZUK	7	% 0,5
GUZTIRA (*)	1.298	% 100,00

(*) Kexa bat badago aldi berean eragina duena Foru Komunitateko Administrazioan eta toki entitate batean.



Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei zuzendutako kexak, haien eskumeneko gaiak biltzen dituztelako, ondoren adierazten direnak dira, 2012ko ekainera arte zeuden departamentuak eta urtearen erdi parean gobernu birmoldatu ondoren sortutako departamentuak berezita.

Emaitza honako hau da:

DEPARTAMENTUAK	Kexa kop.	%
Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria	76	16,81%
Gizarte Politikak	67	14,82%
Osasuna	100	22,12%
Hezkuntza	71	15,71%
Sustapen eta Etxebizitza	27	5,97%
Sustapen (*)	20	4,42%
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barnea	22	4,87%
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	21	4,65%
Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumena	15	3,32%
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	8	1,77%
Ekonomia eta Ogasuna	11	2,43%
Economía, Hacienda, Industria y Empleo	8	1,77%
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako	6	1,33%
GUZTIRA (**)	452	100,00%

(*) Departamentuei zuzendutako 452 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitateen bati zuzendutako kexa bat ere sartu da.

(**) Halaber, horren barrenean daude aldi berean Nafarroako Gobernuko departamentu batean baino gehiagotan eragina duten lau kexa, zenbait departamentu eta Nafarroako Parlamentua ukitzen dituen kexa bat eta departamentu bat eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa ukitzen dituen kexa bat.

(**) 452 kexa horiej gehitu behar zaie oro har Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa den beste bi kexa, zeinek ez baitute eragin berezirik inongo departamentutan.

Toki entitateei erreparatuta, honakoak izan ziren hamar kexa baino gehiago jaso zituztenak: Iruña (68 kexa), Eguesibar (12) eta Barañain (11).

Kontzejuen jokabideei buruz, berriz, 10 kexa aurkeztu ziren.

Mankomunitateen jarduketa eta kudeaketak 27 kexa eragin zituen. Iruñerriko Mankomunitatea eta Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea izan ziren kexa gehien jaso zituztenak (7na kexa).

Xehetasun gehiago izateko, hona datuei buruzko taulak.

UDALAK

ALLO	1
ALTSASU - ALSASUA	1
ANDOSILLA	2

UDALAK

ANSOÁIN	3
ARANGUREN	1
ARBIZU	1
ARTAJONA	2
ARTAZU	1
AURITZ - BURGUETE	1
BARAÑÁIN	11
BASABURUA	1
BAZTAN	2
BERA	1
BERIÁIN	3
BERRIOZAR	2
BUÑUEL	2
BURLADA	3
CADREITA	1
CAPARROSO	1
CARCASTILLO	2
CASTEJÓN	1
CENDEA DE CIZUR	1
CINTRUÉNIGO	1
CIRAUQUI	1
ZIZUR MAYOR	4
DONEZTEBE - SANTESTEBAN	1
EGÜÉS	12
ESTELLA	5
ESTERÍBAR	3
EZCABARTE	1
FUNES	1
HUARTE	2
LARRAUN (*)	1
LEGARDA	1
LEGARIA	1
LEITZA	2
LESAKA	3
LOS ARCOS	1
LUBIER	1
MARCILLA	10
MENDIGORRÍA	1
MILAGRO	1
MONTEAGUDO	1
NAVASCUÉS	1
NOÁIN	1
OLITE	4
OLZA	6
PAMPLONA	68

UDALAK

PERALTA	4
PUENTE LA REINA	6
PUEYO	2
ROMANZADO	1
SANGÜESA	2
TAFALLA	1
TORRES DEL RÍO	1
TUDELA	8
URDAZUBI - URDAX	1
VALLE DE ERRO	4
VIANA	1
VILLATUERTA	3
VILLAVA	3
ZUGARRAMURDI	1

UDALAK GUZTIRA 216

KONTZEJUAK

ARAZURI	1
ARLEGUI	2
CIÁURRIZ	1
ESQUIROZ	1
IHABAR	1
NARBARTE	2
OSÁCAR	1
TIEBAS	1

KONTZEJUAK GUZTIRA 10

MANKOMUNITATEAK

ZANGOZAKO ESKUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	7
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	7
ERRIBERAKO HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	6
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA	2
IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA	2
NAFARROAKO GOI ERRIBERAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA	2
SAKANAKO MANKOMUNITATEA	1

MANKOMUNITATEAK GUZTIRA 27

GUZTIRA (*) 253

(*) 253 kexa horietan aldi berean Nafarroako bi toki entitate ukitzen dituen kexa bat badago

2.7. AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ETA ZERRENTA

Arloei erreparatuta, 2012an aurkeztutako kexak honela bana daitezke:

Alorrak	2012		2011		Aldaketa	
Funtzio Publikoa	504	% 38,83	112	% 13,18	392	% 350,00
- funtzionarioak ez diren herritarrek aurkeztuak	41	% 3,16	64	% 7,53	-23	% -35,94
- langile publikoek aurkeztuak	463	% 35,67	48	% 5,65	415	% 864,58
Gizarte Ongizatea	137	% 10,55	100	% 11,76	37	% 37,00
Hezkuntza eta Irakaskuntza	77	% 5,93	76	% 8,94	1	% 1,32
Osasuna	76	% 5,86	32	% 3,76	44	% 137,50
Administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten bermeak	70	% 5,39	74	% 8,71	-4	% -5,41
Euskera	64	% 4,93	69	% 8,12	-5	% -7,25
Ogasuna	41	% 3,16	45	% 5,29	-4	% -8,89
Justizia	36	% 2,77	30	% 3,53	6	% 20,00
Etxebizitza	30	% 2,31	37	% 4,35	-7	% -18,92
Merkataritza	29	% 2,23	17	% 2,00	12	% 70,59
Trafikoa	28	% 2,16	43	% 5,06	-15	% -34,88
Ingurumena	28	% 2,16	39	% 4,59	-11	% -28,21
Lana	24	% 1,85	11	% 1,29	13	% 118,18
Barne arloa	23	% 1,77	24	% 2,82	-1	% -4,17
Hirigintza	21	% 1,62	32	% 3,76	-11	% -34,38
Gizarte Segurantza	21	% 1,62	18	% 2,12	3	% 16,67
Serbitzu Pubikoak	19	% 1,46	29	% 3,41	-10	% -34,48
Bestelakoak (toki entitateen funtzionamendua)	17	% 1,31	10	% 1,18	7	% 70,00
Atzerritartasuna	14	% 1,08	7	% 0,82	7	% 100,00
Herri Lanak	13	% 1,00	10	% 1,18	3	% 30,00
Herritarren parte Hartzea	9	% 0,69	9	% 1,06	0	% 0,00
Gazteria eta Kirola	7	% 0,54	7	% 0,82	0	% 0,00
Nekazaritza	6	% 0,46	4	% 0,47	2	% 50,00
Bestelakoak (juridiko-pribatuena)	2	% 0,15	10	% 1,18	-8	% -80,00
Kultura	1	% 0,08	2	% 0,24	-1	% -50,00
Energia	1	% 0,08	1	% 0,12	0	% 0,00
Industria	0	% 0,00	1	% 0,12	-1	% -100,00
Turismoa	0	% 0,00	1	% 0,12	-1	% -100,00
GUZTIRA (*)	1.298	% 100,00	850	% 100,00	448	% 52,71

Ikus daitekeen bezala, kexen kopuruaren araberako lehenengo multzoa funtzio publikoari dagokiona da. Hala eta guztiz ere, arlo hori bi atal handitan banatu ahal dugu: batetik, kexak funtzionario publikoak edo langile publikoak aurkeztu dituzteneko kasuak, partaide diren administrazio publikoekiko daukaten lotura bereziak eragindako gaiengatik; bestetik, herritarrek -ez funtzionario publikoek- beren izaera orokorreko harremanengatik edo funtzio publikoan sartzeko eskubideaz baliatzerakoan sortutako arazoengatik aurkeztutako kexak. Hona datuak:

- % 92 funtzionarioek edo administrazio publikoen zerbitzuan kontratatutako langileek aurkeztu zituzten, eta honako gaiei buruzkoak izan ziren: 4, lanpostuak

betetzeari buruz; 18, langileen eskubide eta betebeharrei buruz; 425, lansarien araubideari buruz; 13, mugikortasunari buruz; 2, diziplina araubideari buruz; eta 1, eskubide pasiboari buruz.

- % 8 administrazio publikoetakoak ez diren herritarrek aurkeztu zituzten. Kexa horiek, nagusiki, administrazio publikoan sartzeko prozedurei buruzkoak izan ziren.

Bigarren tokian, **gizarte ongizatearen** arloari buruzko kexak daude (edo gizarte gaietakoak edo gizarte politiketakoak). Kexa guztien kopuruan % 10,55 egiten dute.

Kexen hirugarren multzoa **hezkuntzari eta irakaskuntzari** buruzkoak dira, eta aurrean aurkeztutako kexa guztien % 5,93 egiten dute.

Ondoren, **osasunari** buruzko kexak ageri dira, eta guztizkoaren % 5,86 egiten dute.

Bosgarren tokian, **herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan eduki beharreko bermeei** buruzko kexak ageri dira. Arlo horretan daude herritarrek aurkeztutako idazki eta errekursoak legezko epean informatzeko eta ebazteko betebeharrak eta administrazioek herritarrei tratatu desegoki edo gizalegez bestekoa emateko jokabideak. Bada arlo horiek kexa guztien % 5,39 hartzen dute.

Gainerako arloak ez dira aurkeztutako kexa guztien % 5era iristen.

Herritarrek beren kexetan adierazitakoari buruzko informazio gehiago emateko, aurreko txostenetan bezalaxe erabaki dugu kexak arloka biltzea. Ez ditugu hemen aipatuko kexa horiek direla-eta erakunde honek egin dituen legezko betebeharren gogorazpen, iradokizun eta gomendioak: informazio hori txosteneko VI. kapituluan jaso da.

Horrekin ezagutzera eman nahi ditugu herritarrek azaldu dituzten kezkak eta arazoak, alde batera utzita zein izan den erakunde honek kasu jakin bakoitzean izan duen esku-hartzea, halako moduz non hemen islatzen den informazioa erabilgarria izanen baita bai Nafarroako Parlamentuarentzat, bai Nafarroako administrazio publikoentzat, kasua bada.

Arloen aurkibidea hurrenkera alfabetikoan eman dugu. Halaber, zenbait arlotan, gaien araberako multzo batzuk sartu ditugu, informazioa hobeki antolatze aldera. Halaber, bidezkoa denean, kexen kopurua ere aipatzen dugu, aurkeztutako kexak bat baino gehiago direnean.

2.7.1. Nekazaritza eta abeltzaintza

2012an, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako 6 kexa aurkeztu ziren, 2011n aurkeztutakoak baino bi gehiago. Erregistratutako kexen guztizkoan % 0,46 egiten dute.

Hiru kexa Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari buruzkoak dira; kexa bat, berriz, ureztatze sindikatu bati buruzkoa, eta bosgarrena, azkenik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari buruzkoa.

Honakoak izan ziren kexetan azaldutako egitateak:

- Abeltzaintza ustiategi bati laguntza ekonomikoa ukatzea deialdiko baldintzetako bat ez betetzeagatik ez egitateak gertatzeko unean, baizik eta laguntza eskatzeko unean.
- Ados ez egotea zehapen-prozedura alde batera utzita ureztatze sindikatu batek ezarritako zehapen batekin, erreten batzuk ez garbitzeagatik.
- Ados ez egotea Nafarroako Ubidearekin eta haren kostu ekonomikoarekin, eta Administrazioari eskatzea inkesta inpartzial bat egin diezaien nekazariei jakiteko pozik dauden ubidearekin eta errentagarritasun ekonomikoaren arabera egin daitezken landaketekin.
- Lurzati berrantolamendua egin ondoren, erreten bat egoera txarrean gelditzea, kexa-egilearen jabetzapeko lursail batetik iragaten den zatian.
- Nekazaritza-ureztaketarako erabiltzen zen osin bat lehortzea, Nafarroako Ubidearen obren ondorioz.
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ezezkoa ematea lurzati berrantolamendu baten karietara esleitutako lursail baten permuta-eskariari. Lursail hori landaredia naturaleko 97. elementu gisa dago katalogatuta, eta horrek eragozten du ureztaketarako behar den azpiegitura jartzea.

2.7.2. Gizarte ongizatea-Gizarte politikak

Arlo honetan 137 kexa aurkeztu ziren. Nabarmentzekoa da kopuruak gora egin duela, 2011n 100 kexa aurkeztu baitziren. Kexa horiek guztizkoaren % 10,55 egiten dute.

Kexen guztizko kopurua, berriz, honela xehaka daiteke:

- 42 kexa gizarteratze errenta edo, kasua bada, oinarritzko errenta emateari ezezkoa emateari edo ematen berandutzeari buruzkoak dira;
- 2 kexak zerikusia dute familia-babesarekin, aukeren berdintasunarekin eta familia eta lana bateragarri egitearekin;
- 19 kexa adingabeen babesarekin eta arretarekin daude lotuta.
- 12 kexa mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arreta dela-eta aurkeztu dira;
- 10 kexa ezgaituen arretarekin lotuta daude;

- 10 kexa gizarte bazterketarekin;
- 9 kexa gizarte laguntzako prestazioak eta gizarte ongizatea xede duten bestelako laguntza ekonomikoak ematearekin edo ukatzearekin daude lotuta;
- 6 kexa adineko pertsonen babesarekin eta arretarekin lotzen dira.

Honakoak izan ziren kexak aurkeztea eragin zuten egitateak:

A) Gizarteratze errentari eta oinarrizko errentari dagokienez:

- Gizarteratze errentaren eskariak ebazterakoan atzeratzea: 8 kexa.
- Oinarrizko errenta berritzeko eskariak ebazterakoan atzeratzea: 7 kexa.
- Ados ez egotea emandako gizarteratze errentaren kopuruekin: 4 kexa.
- Gizarteratze errenta ukatzea Nafarroan bizitokia ez izateagatik modu jarraituan eta efektiboan gutxienez ere eskaria aurkeztu aurreko azken hogeita lau hilabeteetan: 6 kexa.
- Gizarteratze errenta ukatzea hogeita lau hilabeteke epea agortzeagatik eta hura luzatzeko aparteko egoeran ez egoteagatik: 5 kexa.
- Oinarrizko errenta ukatzea ez egiaztatzeagatik Nafarroako udalerrri batean bizi izatea, etenik gabe, eskaria aurkeztu aurreko azken hamabi hilabeteetan. 3 kexa.
- Oinarrizko errenta ukatzea eskatzaileak hura jasotzeko gehieneko epea agortu duelako: 2 kexa.
- Gizarteratze errenta ukatzea eskatzaileak Espainiako lurraldean legezko egoitzarik ez izateagatik: 2 kexa.
- Gizarteratze errenta ukatzea eskatzaileak Nortasun Agiri Nazionalik ez edukitzeagatik: Kexa 1.
- Gizarteratze errenta ukatzea eskatzaileak eskatzen diren gehieneko diru-sarrerren kopurua gainditzeagatik: Kexa 1.
- Oinarrizko errenta ukatzea onuradunak familia unitatean izandako aldaketak ez jakinarazteagatik horretarako ezarritako epeetan: Kexa 1.
- Gizarteratze errenta arautzen duen martxoaren 23ko 1/2012 Foru Legearen aurka -zehazki, 3. artikuluaen aurka (baldintzak gogortzea) eta lehenengo xedapen iragankorraren aurka (balizko atzeraeragina)- konstituzio kontrakotasuneko errekurtsio bat aurkezteko eskaria.

- Ados ez egotea oinarritzko errenta emateko moduarekin, zeren eta jotzen baita haren gaineko kontrol administratiboak ez direla nahikoak eta hura ematerakoan iruzur egiten dela, orokorrean.

B) Familia-babesari, aukeren berdintasunari eta familia eta lana bateragarri egiteari dagokienez:

- Atzeratzea bigarren semea zaintzeko eszedentziarengatiko laguntza ekonomikoaren eskariak ebazterakoan: 21 kexa.
- Atzeratzea hirugarren semearengatiko laguntza ekonomikoaren eskariak ebazterakoan: 4 kexa.
- Atzeratzea etxeko lanetan jarduteko beste pertsona batzuk kontratatzen dituzten pertsonentzako laguntza ekonomikoaren eskariak ebazterakoan.
- Eskolatzeko xedeetarako atzerriko adingabeak harreran dituzten familientzako laguntzarik ez egotea.
- Ados ez egotea familian eta gizartean integartzeko jasotako laguntza ekonomikoaren zenbatekoarekin.
- Berdintasunaren arloko teknikarien kolektiboa ados ez egotea berdintasunerako politikaren arloan izan diren murrizketekin, udal zerbitzuetan eragina baitute.

C) Adingabeen babesari eta arretari dagokienez:

- Administrazio publikoari eskatzea esku har dezan adingabeen balizko babesgabetasuneko kasu batzuetan: 7 kexa.
- Desadostasunak Elkartzeko Guneko hezitzaileek bere bi semeei emandako arretarekin.
- Desadostasuna adingabe bati emandako tratuarekin. Adingabe hori neurri judizial bat betearaztearen ardura duen zentroan dago.
- Koordinaziorik ez egotea adopzio nazionalako eta nazioarteko adopzioko programen artean, zeren eta nazioarteko adopzio bat egin ondoren jaso baita adopzio nazionalako programaren bitartez neska bat adoptatzeko aukeraren berri.
- Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Lege berriak Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legean duen eragina aztertze eskaria.
- Desadostasuna bere alabaren behin-behineko familia-harreraren egoera bertan behera uzteko datarekin.

- Nafarroan haurren aurkako tratu txarren kasuetarako jarduera-protokolo bat egin eta onesteko eskaria.
- Semearen egoitza-harrera, entitate publiko eskudunaren tutoretzapekoa, agintzen duen erabaki judiziala.
- Elkartzeko Guneko bisita-araubideari buruzko erabaki judiziala.
- Adingabea babesteko zerbitzuek jarraipenik ez egitea amaren aldetik umezurtza den anaiaren egoerari buruz.
- Amaren tratu txarren eta babes ezaren balizko egoeraren aurrean ezer ez egitea.
- Desadostasuna seme baten aitak hura atxikita edukitzearekin Espainiatik kanpo, amaren baimenik gabe.
- Desadostasuna alabaren amak, orain Alemanian bizi denak, ez duelako betetzen epai bidez onetsitako hitzarmen erregulatzailan ezarritako bisita-araubidea.

D) Mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arretari dagokionez (Mendetasunari buruzko Legea):

- Ados ez egotea Administrazioak aitortutako mendetasun graduarekin: 3 kexa.
- Ados ez egotea mendetasun sistemako prestazioen eskaria ezetsi izateari buruzko deklarazioarekin.
- Ados ez egotea 1. mailako mendetasun handia aitortua duen pertsona bati emandako laguntzaren zenbatekoarekin eta hura ez gaurkotzearekin.
- Ados ez egotea eguneko zentro batera joateagatik jasotzen duen laguntza ekonomikoa eteteko aukerarekin, bere osasun-baldintzek okerrera egin ondoren egoitza-zentro batera sartzeko eskatzearen ondorioz.
- Garraiorako prestazioa bermatzen ez dien mendetasun gradua aitortua duten pertsonen eskaria, dagokion kostua ordainduta erabili ahal izan ditzaten prestazioa aitortua duten pertsonentzako garraiobideetan libre geratzen diren tokiak.
- 1. Mailako mendetasun handia eduki eta igogailurik ez duen etxebizitza batean bizi den pertsona bat eguneko zentro batera ezin joatea, zeren eta garraio zerbitzuko langileek ezezkua ematen baitiote hura etxebizitzara igotzeari eta etxebizitzatik jaisteari.
- Eguneko zentro batean garraio lagunduaren zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu behar duen prezioaren proportziorik gabeko zenbatekoa.

- Nafarroako Gobernuak mendetasuna duten pertsoneri ematen dien arretan atzera egin izatea, krisialdi ekonomikoaren ondoriozko aurrekontu-murrizketetan babestuta. Kexa Mendetasuna duten Pertsonen aldeko Plataformak sustatu du.
- Ados ez egotea eguneko zentro batera joateko mendetasunerako laguntza eta familia ingurunean zainketak hartzeko laguntza bateraezinak izateari buruzko deklarazioarekin.
- Ados ez egotea mendetasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoetarako eta mugikortasun-laguntzetarako deialdiak kendu izatearekin.

E) Ezgaitasuna duten pertsoneri dagokienez:

- Ezgaitasuna dutenen elkarteen eta ezgaituen egungo egoera, ezgaitasun eta mendetasun kontzeptuei bereizkuntzarik gabeko tratamendua ematen zaielako; eguneko zentroetarako prestazioak eta norberaren etxean zainketak hartzeko laguntza bateragarri egiteko ezintasuna; ezgaitasunaren arlorako aurrekontu-kredituak gutxitzea; Ezgaitasunari buruzko Plan Integraleko konpromisoak ez betetzea; ezgaitasuna duten pertsonen enplegura sartzeko legezko aurreikuspenak eta Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 9. artikuluan bildutako lege-erreserba ez betetzea; eta Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legeko aurreikuspenak ez garatzea. CORMIN-Ezgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Komiteak sustatutako kexa da.
- Ados ez egotea hezitzaile batek tutoretzapeko pisu batean bizi diren eta buru-nahaste larria duten pertsoneri ematen dien tratuaarekin.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak hautatzeko araudiaren balizko aldatetarengatik kezka. Aldaketa horrek lehentasuna emanen lieke ezgaitasuna duten pertsoneri.
- Iruñeko Monjardín eguneko zentrori doazen eta buru-nahaste larria duten pertsonen senideen desadostasuna, zentro hori Sarrigurengo Las Hayas zentrori eramategatik. Kexa APAMO-Iruñeko Monjardín Eguneko Zentrori Buru-nahaste Larriko Pertsonen Guraso eta Tutoreen elkarteak sustatu du.
- Epai bidez % 65eko ezgaitasun-gradua aitortua duen eta prestazioa ere aitortua duen pertsona bati etxebizitza funtzional bat ez esleitzea, eta ados ez egotea orain bizi deneko babes ofizialeko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko diru-laguntza kentzearekin.
- Ezgaitasun graduaren balorazioan atzeratzea.
- Buru-gaixotasuna duen seme bat onartu ez izatea egoitza jakin batean, egonaldi luze baterako.

- Ados ez egotea 65 urtetik beherako pertsona ezgaituentzako zentroetan sartzeko dagoen itxaron-zerrendaren kudeaketarekin.
- Legez ezgaitua dagoen eta tutoretza Nafarroako Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioari dagokion egoiliar bati tratu desegokia ematea buru-gaixo kronikoentzako egoitza batean.
- Ezgaituek irisgarritasun arazoak izatea Mendillorriko auzoko autobus geltoki batean, espaloia estua izateagatik eta zuhaixken sustraiengatik.

F) Gizarte bazterketari dagokionez:

- Muturreko larrialdi ekonomikoko egoera, oinarritzkoenak diren premiei erantzuteko nahikoa diru-sarrera ez edukitzeagatik. 2 kexa.
- Baliabiderik ez izatea, prekarietate ekonomikoa eta bizi direneko etxebizitzatik kanporatzeko balizko aukera: 2 kexa.
- Iruñeko Udalak ez ematea gizarte larrialdiko egoeran dauden pertsonentzako zuzeneko prestazio ekonomikoa.
- Ez erantzutea lehen mailako premiaren aparteko laguntzaren eskariari.
- Ostatua hartzeko tokirik ez izatea eta etxerik gabeko pertsonentzako zentro batera berriz ezin joatea.
- Desadostasuna egungo premia egoerarako dauden gizarte prestazio batzuk ukatzearekin.
- Gizarte zerbitzuek esku ez hartzea balizko premia-egoera batean.
- Aparteko laguntza bat eskatzea bizi deneko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko.

G) Gizarte laguntzako prestazioei eta gizarte ongizatea xede duten beste laguntza ekonomiko batzuei dagokienez:

- Laguntza ekonomikoa eskatzea ezarri zaion hil ala biziko tratamendu mediko berritzaile batetik -bihotz artifiziala- heldutako elektrizitate-gastuak ordaintzeko.
- Desadostasuna laneratzeko eta gizarteratzeko zentro baterako sarbidea ukatzearekin.
- Gizarte enplegu babestuko programa batean sartzeko eskaria.
- Ados ez egotea oinarritzko gizarte zerbitzuetan emandako arretarekin.
- Ez jakinaraztea gaixo zeliakoentzako laguntza ekonomikoen deialdia.

- Laguntza bat eskatzea osorik ordaintzeko bere semearen egonaldia drogamenpekotasuna duten pertsonentzako tratamendu- eta errehabilitazio-zentro batean.
- APRODEM-Tratu Txarrak jasandako Emakumearen Eskubideen aldeko Elkartearen desadostasuna 2012rako aurreikusitako diru-laguntza ez ematearekin.
- Nafarroako Osasunaren aldeko Plataforma ados ez egotea Gizarte Politiketako kontseilariaren urriaren 31ko 557/2012 Foru Aginduekin, uste baitu osasun laguntza eskuratzeko unean bazterketa eragiten duela baliabiderik ez duten eta aurrekari penalak dituzten egoera irregularreko etorkinengan. Foru agindu horren bidez, onesten dira Nafarroako Foru Komunitatean baliabiderik gabeko pertsonei osasun-laguntza publikoaren unibertsalizazio araubiderako ekarpena ordaintzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.
- Ados ez egotea Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioko langile batekin izandako elkarriketa dela eta, tutoretzapeko pertsona bati laguntzeko unean.
- Aparteko laguntzak ezin eskuratzeari, bizi deneko babes ofizialeko etxebizitza ordaintzeko hilabeteko ordainketa batzuk ordaindu gabe edukitzeagatik.

H) Adineko pertsonen babesari eta arretari dagokienez:

- Ados ez egotea kasuko zentro geriatrikoetan dauden senideei ematen zaien arretarekin: 2 kexa.
- Ados ez egotea egoiliarra ingresaturik dagoen egoitzak ezgaitze judiziala eskatzeko prozedura abiatu izatearekin, familiari jakinarazi gabe.
- Ados ez egotea Gizarte Politiketako Departamentuko Kalitate eta Ikuskatze Zerbitzuak izandako jarduerarekin, egoitza pribatu batek prezioak aldatu dituenean, Administrazio Publikoak aitorturiko mendetasun gradua aldatzearen ondorioz.
- Alargun pentsioaren kenkari fiskala aurreratzeko eskaria ukatzea, gutxieneko osagarria ez jasotzeagatik.
- Zentro gerontologikoak eginiko axolagabekeria, egoiliar baten heriotzan determinantea izan zena.

2.7.3. Merkataritza eta kontsumoa

Merkataritzaren eta kontsumoaren arloan, guztira 29 kexa aurkeztu ziren; hau da, guztizkoaren % 2,23; 2011n, ordea, 17 izan ziren.

Kontsumitzailearen babesa dela eta, 27 kexa aurkeztu ziren.

- Telefonía enpresa batek gizarte bonoaren onurak ez aplikatzea: 2 kexa.
- Lurrin baten telebista-iragarki batean publizitate subliminala egoteari buruzko salaketa, Plaza del Castillo Elkarteak sustatua.
- ANEABE-Asociación Nacional de Empresas de Aguas de Bebidas Envasadas elkarteak ados ez egotea hornidura publikoko uraren kontsumoa sustatzeko kanpainarekin.
- Telefonía enpresa batek kexa-egileari erreklamatzeko eskatu ez duen router baten diru-zenbatekoa.
- Gas konpainia batean titularitatea aldatzeko zailtasunak izatea.
- Ados ez egotea behar ez ziren banku-komisio batzuen ordainketa erreklamatzeko prozedurarekin.
- Desadostasuna Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuak autoeskola bati ezarritako zehapenarekin.
- Ados ez egotea telefonía konpainia batek igorritako fakturekin, non erabili ez ziren zerbitzu batzuk jasotzen baitziren.
- Elektrizitate-konpainia batek gehiegi fakturatzea.
- Gas-hornitzaile batek behar ez zena kobratzea.
- Ados ez egotea ibilgailuen konponketarako tailer batek emandako kalte-ordainarekin, ibilgailuak tailerrean eman zuen denboran pairatutako kalte eta lapurreten kontzeptuan.
- Merkataritza zentro baten publizitate eskasa eta zentroak ez erantzutea aurkeztutako erreklamazioei.
- Finantza-entitate batek partaidetza lehenetsiak saltzea, behar ziren argibideak eman gabe.
- Kontsumitzaileen Elkarte bateko zuzendaritzan sortu diren desadostasunak.
- Telefonía mugikorrek konpainia bateko faktura handitzea, kontratua aldatzeko garaian emandako informazio oker baten ondorioz.
- Ados ez egotea telefonía konpainia batek herri jakin batean ematen duen zerbitzu eskasarekin.

- Ados ez egotea telefonia mugikorreko konpainia batek telefono-aseguruetan dauzkan baldintzekin.
 - Ados ez egotea Nafarroako Gobernu Kontsumo Zerbitzuak erreklamazio bat ez onartzearekin.
 - Ados ez egotea telefonia mugikorreko enpresa batek igorritako fakturazioarekin eta bezeroa berankorren zerrendan bidegabeki sartzeagatik.
 - Nafarroako Gobernu Kontsumo Zerbitzuak ezer ez egitea kexa-egileak aurkeztutako salaketa bati buruz; salaketa banku-entitate bateko zenbait bulegotako iragarki-oholetan zeuden akatsei buruzkoa zen.
 - Gas naturaleko galderen mantentze-zerbitzuak gaizki funtzionatzea.
 - Banku-entitate batek komisio bat kobratzea.
 - Banku-entitate batek aurrezki-libreten mantentze-gastuengatik gehiegizko komisioak kobratzea.
 - Telefonia-enpresa batek bere bezeroei arretarik ez ematea.
 - Desadostasuna aseguru enpresa batekin, zeren eta ez baitu erantzuten kexa-egilearen negoziotan gertatu diren kalteengatik.
 - Banku-entitate batek behar ez ziren komisioak kobratzea aspalditik efektiboak ez diren kontu batzuen mantentze-gastuen kontzeptuan.
- Halaber, merkataritzaren arloari dagokionez, bi kexa aurkeztu ziren honako egitateei buruz:
- Ados ez egotea saltoki finko bat ez esleitzearekin udalerrri bateko kaleko azokan.
 - Udalaren lizentziarik edo baimenik ezin eskuratzea kaleko saltoki bat jartzeko herriko jaietan, herri horretan erroldaturik ez egoteagatik.

2.7.4. Kultura

Arlo honetan, kexa bat aurkeztu zen (guztizkoaren % 0,08), 2011n baino bat gehiago. Honakoa izan zen kexaren arrazoa:

- Sanferminetako Zezensuzkoan kalte-arriskuak egotea, Iruñeko alde zaharreko eraikin batean. Izan ere, erakin horretako fatxada Udal Planeko Erakin Ondarearen Katalogoan jasota dago, 3. mailako babesarekin.

2.7.5. Hezkuntza eta irakaskuntza

Arlo honetan, 77 kexa aurkeztu ziren, 2011n baino bat gehiago hain zuzen. Guztizkoan % 5,93 egiten dute kexa horiek.

Aurkeztutako 77 kexetatik:

- 17 bekak eta ikasteko beste laguntza batzuk emateari eta ukatzeari buruzkoak izan ziren.
- 15 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako laguntzari buruzkoak izan ziren (haur hezkuntzako lehen zikloa).
- 9 unibertsitate-irakaskuntzei buruzkoak izan ziren.
- 6 hezkuntza plangintzari buruzkoak izan ziren.
- 6, ikasleak ikastetxeetan ez onartzeari buruzkoak.
- 5, eskola-eraikinen baldintzei buruzkoak (segurtasuna, kontserbazioa, eraikuntza).
- 5, eskola garraioko zerbitzu osagarriari buruzkoak.
- 4, eskola-bizikidetasunari buruzkoak.
- 5, hizkuntza eskola ofizialei eta hizkuntzen irakaskuntzari buruzkoak.
- 3, hezkuntzaren kudeaketari buruzkoak.
- 2, musikako goi mailako ikasketei buruzkoak.
- 1, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzari buruzkoak.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

A) Bekei eta ikasteko bestelako laguntzei dagokienez:

- Amaiera ezin ematea Hezkuntza Ministerioaren aurrean beka baten eskariari, izapidetzerako erabiltzen den aplikazio informatikoarekin izandako arazoengatik: 3 kexa.
- Hezkuntza Departamentuari beka bat ezin eskatzea, zeren eta aurrez ez baita eskatu Hezkuntza Ministerioaren beka, aplikazio informatikoan izandako arazo batzuk tarteko: 3 kexa.
- Ados ez egotea udalak ikasteko laguntza bat ukatzearekin: 2 kexa.

- Desadostasuna Hezkuntza Ministerioak mugikortasunerako beka bat ukatzearekin, zeren eta eskatzaileak ez baitu gainditu arrazoi medikoengatiko deialdian ezarritako kredituen kopurua.
- Ados ez egotea Hezkuntza Ministerioak mugikortasunerako eta egoitzarako beka bat ukatzearekin, azken ikasturtean ahal ziren kreditu guztietan matrikulatuta egoteagatik.
- Desadostasuna Hezkuntza Departamentuak eginiko erreklamazioarekin, doktoretza-tesia egiteko eman zitzaion laguntza bat zela eta, tesi hori amaitzeko gehieneko epea iragatearen ondorioz.
- Hezkuntza Departamentuak ez izapidetzea ikastola batean haur hezkuntzako unitate bat sortzeko diru-laguntzen eskabideak.
- Garraiorako laguntza ekonomiko baten eskaria.
- ELA sindikatua ados ez egotea unibertsitatez besteko mailetako eskola publikoetan atzerriko hizkuntzetako mintza praktikarako laguntzaileen beken deialdiaren oinarriekin, zeren eta jotzen baitu laguntzaileak lan-harreman baten bitartez lotu beharko lirakekeela Hezkuntza Departamentuarekin.
- Kexa bat sustatu duen pertsona bat ados ez egotea Hezkuntza Departamentuak bere alabari etxeko hezkuntza-laguntza ukatzearekin. Alabak gaixotasun arraro bat dauka, eta eskolatze-aldi luzeak behar ditu, ez baita derrigorrezkoa den hezkuntza hartzen ari.
- Ados ez egotea eskola-garraioko beka bat ukatzearekin, zeren eta Hezkuntza Departamentuak uste baitu familiaren etxebizitza dagoen herritik ikastetxera dagoen distantzia bost kilometro baino gutxiagokoa dela.
- Desadostasuna Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan atzerriko hizkuntzetako mintza praktikako laguntzaileentzako beken postuak direla-eta erabaki duen antolaketaarekin, zeren eta ez baititu errespetatzen deialdiko oinarriak, esleitu beharreko lanpostuen banaketari dagokionez.

B) 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako laguntzari dagokionez (haur hezkuntzako lehen zikloa):

- Gurasoen talde bat ados ez egotea udalaren haur eskola batean dagoen zezenketa-giroko material didaktikoarekin: 9 kexa.
- Ados ez egotea haur eskoletako tasak “haurtzaindegi-txekea” deitutakoaren bitartez ordaintzeko ezintasunarekin: 2 kexa.
- Ados ez egotea Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen du eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo

horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan aurreikusitako aldaketarekin, zeren eta eragin kaltegarria baitu zerbitzuaren kalitatean, arreta-ratioak handitzen direnez ikastetxeetako baldintza fisikoak aldarazten direlako.

- Haur eskola bateko langile batzuen desadostasuna udalak hartutako erabaki batekin, zeren eta eskolaren kudeaketa zuzenaren alde egiten baitu, langileak subrogatzera jo gabe.
- Haur eskolan utzitako fidantza bat itzultzeko eskatzea, seme-alabei baja eman dielako, eta zor zaizkion zenbatekoei buruzko informazioa ere eskatzea.
- Udalak informaziorik ez ematea haur eskola kudeatzeko adjudikazio berrirako prozedurari buruz.

C) Unibertsitate-irakaskuntzei dagokienez:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle batzuk ados ez egotea Lehen Hezkuntzako Irakasle graduiko irakaskuntza ordutegiak aldatzearekin.
- Lanbide heziketako goi mailako gradutik heldu diren ikasleen ikasgaiak ezin baliozkotzea, arau-garapenik ez egoteagatik.
- Ados ez egotea Unibertsitateko graduondoko titulu bat baliozkotzeko aurkitutako zailtasunekin.
- Doktoretza-tesi bateko zuzendari ohi bat ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezezkua eman izanarekin doktore-izangaiak aurkeztutako gora jotzeko errekurso baten harira emandako txosten juridiko batzuk eskuratzeari.
- Ados ez egotea ohorezko matrikula lortzen duenari Nafarroako Unibertsitate Publikoak prezio publikoen salbuespena aplikatu ez izatearekin.
- Ados ez egotea Nafarroako Unibertsitateak ezezkua eman izatearekin Medikuntza Fakultateko matrikula bat leku-aldatzeko eskariari.
- Ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoan graduz aldatzeko aurkitutako zailtasunekin.
- Ados ez egotea irakasleek botere publikoen menpeko liburutegi eta museoetarako doako sarbidea izateko Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezarritako prozedurarekin.

D) Hezkuntza plangintzari dagokionez:

- Ados ez egotea Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak ezarritako neurriekin, Hezkuntzari buruzko

Lege Organikoan araututako irakaskuntzak funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasten diharduten irakasleen lanaldiaren irakaskuntza-zatiari dagokionez, eta ikastetxe horietako irakasleak aldi baterako ordeztearekin. Noaingo Elortzibar Institutuko irakasleen, gurasoen eta ikasleen eta hezkuntza erkidegoko beste kide batzuen Batzarrak aurkeztutako 2 kexa.

- Hezkuntza-aukerarik ez egotea erlijio irakasgairako.
- Ados ez egotea Donapea Zentro Integratu Politeknikoa tokiz aldatzearekin.
- Ados ez egotea ordutegiz kanpoko jarduerak hizkuntza ereduaren arabera antolatzearekin.
- Ados ez egotea IIP (Ingelesez Ikasteko Programa) ezartzearekin Uharteko Virgen Blanca Ikastetxe Publikoan. Zumedia gurasoen elkarteak sustatutako kexa.

E) Ikasleak ikastetxeetan onartzeari dagokionez:

- Ados ez egotea “antzinako ikaslearen seme-alaba” irizpide osagarria erabiltzearekin funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko garaian (2 kexa).
- Haur hezkuntzako bigarren zikloko ikasturtean zehar ikastetxez eta hizkuntza ereduaz aldatzeko eskariari ezezkoa ematea.
- Ados ez egotea hizkuntza-ezagupenen proba bat egin behar izatearekin bigarren hezkuntzako lehenengo ikasturtean eredu elebidunera sartu ahal izateko. Santa Vicenta María ikastetxe publikoko gurasoen elkarteak sustatu du kexa.
- Kexa-egilea ados ez egotea bere semea lanbide heziketako ikastetxe batean sartzeko ikasle onartuen behin betiko zerrendatik kanpo geratzearekin, ezarritako prozedura bete ez delako.
- Kexa-egilearen desadostasuna bere alaba onartua ez izatearekin prestakuntza ziklo batean, zeren eta aurreko ikasturteetako kalifikazioak ezin izan baititu aurkeztu deialdian ezarritako epean, arrazoi medikoak tarteko.

F) Ikastetxeen eta eskola-eraikinen baldintzei dagokienez:

- Desadostasuna Miranda Argako San Benito ikastetxe publikoko haur hezkuntzako hirugarren mailako eta lehen hezkuntzako lehenengo mailako ikasleak hezkuntza unitate bakarrean batzearekin. Virgen del Castillo gurasoen elkarteak sustatu du kexa.
- San Francisco ikastetxe publikoko jolastordu partekatuan sor daitezkeen segurtasuneko eta integritateko balizko arazoak, haur hezkuntzako ikasleak eta

lehen hezkuntzakoak batera egoteagatik, adina dela eta dagoen aldearen eta bereizkuntza fisikorik ez egotearen ondorioz.

- Sarrigurengo ikastetxe publikoan tokirik ez izatea. "Sarriguren Eraikitzen: Hazi eta Hezi" auzolagunen plataformak sustatu du kexa.
- Beñat Etxepare ikastetxe publikoan usoek teilatuan eta patioan eragiten dituzten osasungarritasun arazoak. Gurasoen elkarteak sustatu du kexa.
- Haur eskoletako patioetan harritxoak izateak dakarren arriskua.

G) Eskola garraioko zerbitzuari dagokionez:

- Ados ez egotea Artikan bizi eta Doña Mayor ikastetxe publikora doazen ikasleentzako eskola garraioko zerbitzua kentzearekin: 3 kexa.
- Ados ez egotea Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikorako eskola-garraioa kentzearekin: 2 kexa.

H) Eskola-bizikidetasunari dagokionez:

- Ados ez egotea ikastetxez aldatzeko aurkitutako zailtasunekin, ikasle baten balizko sexu-gehiegikeria bat tarteko.
- Leku eta masifikazio arazoak Biurdana Bigarren Hezkuntzako Institutuan, datorren ikasturterako. Patxi Larrainzar, Sanduzelai, Orkoien eta Buztintxuri ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteek sustatu dute kexa.
- Ados ez egotea ikastetxeak izandako jokabidearekin eskola-jazarpenaren aurkako protokoloa aplikatzeko garaian.
- Eskolak nahikoa ez egitea kexa-egilearen alabak beste ikasle batzuegandik jasaten dituen irain eta laidoen aurrean.

I) Hizkuntza eskola ofizialei eta hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez:

- Ados ez egotea Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikula baliogabetzearekin: 2 kexa.
- Ados ez egotea Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean emandako kalifikazioarekin.
- Ezin parte hartzea hizkuntza murgilketako programa batean, elikadura-alergia bat edukitzeagatik.

J) Eskola-kudeaketari dagokionez:

- Ados ez egotea berriz ere prestakuntza praktikak egin behar izatearekin beste enpresa batean, Hezkuntza Departamentua enpresa-aldaketa egiterakoan geroratu delako, lehenengo enpresan esleitutako lanen desegokitasuna tarteko.
- Desadostasuna bigarren hezkuntzako laugarren mailako ikasleentzako atzerriko programa akademikoko postuak esleitzeko prozedurarekin, berdinketa kasuei dagokionez.
- Ados ez egotea ikasturtearen erdian lehen hezkuntzako bosgarren mailako ikasleen tutorea aldatzearekin.

K) Musikako goi mailako ikasketei dagokionez:

- Ados ez egotea musika eskola batek zenbait hilabeteko ordainketa exijitzearekin, matrikula deuseztatu ondoren ere.
- Desadostasuna Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak karrera amaierako proiektua baloratzeko prozedurarekin.

L) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzari dagokionez:

- Desadostasuna semea hautatutako ikastetxean eskolaratzeko arazoengatik. Atxikimendu-nahaste bat dauka.

2.7.6. Energia

Arlo honetan kexa bat aurkeztu zen -gutzizkoaren 0,085 egiten du-. Aurreko urteko kexa-kopuru bera da. Honakoa azaldu zen kexa horretan:

- Eguzki parkeen jabeek pairatzen duten babesgabetasun egoera, abenduaren 23ko 14/2010 Errege Lege Dekretua onetsi eta ondoren eta hura aplikatzeko Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emandako egintzen ondoren.

2.7.7. Atzerritarrak

Arlo honetan, 14 kexa aurkeztu ziren (gutzizkoaren % 1,08 egiten dute). Joan den urteko kexen bi halako dira.

Aurkeztutako kexetatik, hamabi Espainiako Arartekoari igorri zitzaizkion, haren eskumeneko gaiak zirelako.

Aurkeztutako kexak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

- Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaritzak ezer ez egitea atzerriko nazionalitatea duten barruko mediku egoiliar batentzat lanaren ondoriozko egoitza-baimena lortzeko izapideak errazteko.
- Ados ez egotea Atzerritarrentzako Bulegoan emandako arretarekin eta Argentinako nazionalitatea duten gurasoen egoitza-baimena lortzeko behar diren betekizunekin.
- Ados ez egotea iraupen luzeko egoitza-baimena ukatzearekin.
- Espainiak Santo Domingon duen enbaxadara ezin sartzeari adopzio-izapideei buruzko informazioa eskatzeko.
- Desadostasuna familia birbiltzeko bisatua ukatzearekin, eta ukatze horren aurka aurkeztutako errekurtsua ebazten geroratzea.
- Ados ez egotea bisatu bat ukatzearekin eta Espainiak Marokon duen kontsulatuan emandako tratuekin.
- Desadostasuna Amerikako Estatu Batuetan sartzeko bisatua ukatu izatearekin.
- Ados ez egotea bere emazteari ezkontuta egoteari buruzko inskripzioa eta bisatua ukatzearekin, eta ez erantzutea Espainiak Bogotan duen Kotsuletxe Orokorrean aurkeztutako errekurtsu bati.
- Desadostasuna egoiliar txartela lortzeko behar diren baldintzekin.
- Egoitza-baimena ezin berritzea, eskaria horretarako ezarritako epea iraganda aurkezteagatik.
- Egoitza-baimenak eta lan-baimenak ukatzea gaixotasun larria duen Ekuadorko pertsona bati.
- Desadostasuna iraupen luzeko egoitza baimena ukatu izatearekin eta aldi baterako egoitza-baimena amaitzearekin.
- Egoitza-baimenaren eskaria gizaldekotasunengatik osasuna arazoak dituen adineko bikote bati. Espainian sei urte baino gehiago eman dute bizitzen.
- Aldi baterako egoitza-baimena izapidetzen geroratzea, aparteko inguruabarrak tarteko.

2.7.8. Funtzio publikoa

Arlo honetako kexak 504 izan ziren. Joan den urtean, berriz, 112 izan ziren. Guztizkoaren 38,83 egiten dute.

Kexa horietako 414tan, kexa-egileek adierazi zuten ez daudela ados langile publikoei 2012ko abenduko aparteko soldata kentzearekin, eta eskatu zuten Espainiako Arartekoak konstituzio kontraktotasuneko errekurtsio bat aurkez dezan neurri hori ezartzen duen uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren aurka. Hori dela eta, kexa horiek Espainiako Arartekoari igorri zitzaizkion.

Honakoak izan ziren kexetan azaldutako arrazoiak, laburbilduta:

A) Enplegu publiko batera sartzeari dagokionez:

- Ustekozko irregulartasunak eta gardentasun eta publizitate eza Nafarroako administrazio publiko desberdinetako aldi baterako kontratazio-zerrenden kudeaketan. 6 kexa.
- Desadostasuna Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan langileak aldi baterako kontrataziorako ezarritako lehentasun irizpideekin; izan ere, foru agindu horren bidez aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dira. Izan ere desadostasuna dator lehentasunezko irizpideak sartzetik % 33 edo gehiago ezgaitasuna duten pertsoneri deitzeko eta gutxienez ere Foru Komunitatearen Administrazioan gutxienez ere hamabost urteko zerbitzuak eman dituzten eta berrogeita bost urte baino gehiago dituzten pertsoneri deitzeko: 4 kexa.
- Desadostasunak kalifikazio epaimahaiek edo bestelako organoek langileek hautatzeko prozesuetan merezimenduak direla-eta emandako balorazioekin: 3 kexa.
- Aldi baterako kontratazio baterako dei egiteko erabili den sistemarekin ados ez egotea ezgaitasuna duen pertsona baten kasua ez lehenestegatik: 2 kexa.
- Hezkuntza Departamentuak eskola publikoetako euskarazko aldi baterako zaintzaileari ez informatzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez aldi baterako kontratazioetarako izangaien beste zerrenda bat egiteari buruz: 2 kexa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako E mailako oposizio bateko hautapen-proba batzuk zuzentzeko erabilitako erantzunen txantiloiarekin ados ez egotea, erantzunetako batzuk okerrak izateagatik.
- Kexa sustatu duen pertsona ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zerbitzuko administrari laguntzailea izateko lanpostu batzuk oposizio bidez betetzeko deialdiko zerrendetatik kanpo geratzearekin.
- Funtzionario publiko ez izendatzea eskatutako dokumentazioa ustez garaiz kanpo aurkeztu duelako.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuak aldi baterako kontratazio baterako eginiko banakako deialdiarekin, zeren eta eragozten baitio bere interesekin hobeki

ezkontzen den beste lanpostu baterako aldi baterako beste kontratazio batzuk esleitzeko ekitaldi publikoan parte hartzea.

- Ados ez egotea epaimahai kalifikatzaile batek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko administrari laguntzaileko lanpostuak oposizio bidez betetzeko deialdian, informatikako probari buruz eginiko balorazioarekin eta aurkeztutako alegazioei ez erantzutearekin.
- Desadostasuna Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko E mailako 167 lanposturako deialdi orokorreko lanpostuak gutxitzearekin, defizit helburua lortzeko zenbait neurri onesten dituen urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege Dekretua betetzearen ondorioz.
- Desadostasuna deialdi bateko oinarrietan ageri den baldintza batekin. Hautaprobeen bitartez, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egin nahi da, Zizur Nagusiko Udaleko herritarrentzako zerbitzuen arloko etxez etxeko laguntza zerbitzurako familia-langile lanpostu bat betetzeko. Gidatzeko baimena eta ibilgailua bat erabili ahal izatea eskatzen da.
- Epaimahai kalifikatzaileak behar adina arrazoi ez ematea administrazio teknikaria izateko hautapen prozedura bateko ariketa praktiko batean emandako kalifikazioari buruz.
- Publizitaterik eta gardentasunik ez izatea Fisioterapiako hautapen prozedura bateko ariketa bat baloratzeko.
- Desadostasuna Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzuko ofizial administraria izateko lanpostu bat eta administrari laguntzaile izateko bi lanpostu betetzeko deialdia baliogabetzearekin.
- Ados ez egotea Berriozarko Udaleko zerbitzu anitzen arloko lanpostuak aldi baterako betetzearekin Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidezko deialdi baten bitartez, alde batera utzita lehendik udalak berak eratu zuen izangaien zerrenda bat.
- Arangurengo Udalean lorezaina izateko bi lanpostu aldi baterako betetzea horretarako exijitzen den prozedura bete gabe.
- Ados ez egotea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa eman izatearekin lanpostu bat betetzeari hutsik zegoen aurreko beste lanpostu batean aitortua zeukan denborarako.
- Ados ez egotea Auritz, Erroibar eta Orreagako Udal Multzoko idazkari lanpostua aldi baterako betetzeko deialdian exijitzen den baldintza batekin, alegia, hiru urtez udal idazkari lanpostu batean jardun izatea exijitzearekin.

- Atzeratzea hautapen prozesu baten ondoriozko E mailako lanpostuetarako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrenden behin betiko onespenean.
- Ados ez egotea Iruñeko Udalaren zerbitzuko gizarte langile lanpostu baterako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautapen prozesuko ariketa batean epaimahai kalifikatzailearen zati batek erabilitako balorazio-moduarekin.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuak destinoak esleitzeko erabilitako moduarekin, arte plastikoetako eta diseinuko irakasleen aldi baterako kontratazio batean.
- Kexa-egilearen desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erizaintzako laguntzailea izateko aldi baterako kontratazio zerrendetatik kanpo uztearekin.
- Barañaingo Udaleko Udaltzaingoko lau lanpostu betetzeko hautapen prozesu batean ustez izan diren irregulartasunak.
- Kexa-egilea ados ez egotea Azkoiengo Udalaren zerbitzuko udaltzain lanpostu bat betetzeko prozedurarik kanpo utzi izatearekin, eskuz kronometratu zen proba fisiko bat ez gainditzearen ondorioz.
- Ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoak administrari laguntzaileko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko egin duen hautapen prozesuarekin.
- Toki entitateetako B mailako kontu-hartzaile lanpostu baterako gaikuntza eta sarbidea lortzeko probak egin ahal izateko behar diren egokitzapenen eskaria. Izan ere, izangaiak istripu bat izan eta eskuin-besoa immobilizatuta dauka.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko kazetari lanpostu bat betetzeko hautapen prozeduran ustez irregulartasunak izatea.
- San José zentroko bere zaintzaile lanpostura ezin sartzea, lan kontratudun finko gisa, epai bat betetzeko prozedura gerarazi delako.

B) Administrazio publikoko lanpostuak betetzeari dagokionez:

- Irregulartasunak funtzionario publiko batzuei Hezkuntza Departamentuan Ikuskapen Zerbitzuko lanpostu batzuk betetzeko zerbitzu-eginkizunak eman zaizkielako behar den prozedura bete gabe: 7 kexa.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanaldi partzialeko osasun langile finkoek zailtasunak izatea lanaldi osoko lanpostuetara sartu ahal izateko: 2 kexa.

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarekiko desadostasuna, Foruzaingoaren Kidegoko kabo lanpostuak betetzeko aldi baterako izendapenek gehiegi irauten dutelako.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziarako langileen atalerako lan harremanen diplomadun lanpostu bat betetzerakoan ustez izan diren irregulartasunak.
- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarekin ados ez egotea funtzionario bat lanpostu huts bat betetzeko aldi baterako izendatu baitu, aldi baterako kontrataziorako prozeduretara jo gabe.
- Desadostasuna Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Idazkaritza Tekniko Orokorrari atxikitako administrari laguntzaileko lanpostu bat betetzeko jarraitu duen prozedurarekin. Lanpostuak Larraintzarren zuen destinoa, eta hartan kexa-egileak egiten zuen lan, ordezkotz gisa. Desadostasuna, halaber ordezkotz kontratu hori azkentzearekin.
- Kexa-egilearen egoera, ikastetxe bateko zuzendaria hautatzeko prozeduran irregulartasunak salatzearen ondorioz.
- Ados ez egotea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko B, C, D eta E mailetakotz funtzionarioen eta A mailakotz funtzionarioen barneko mugikortasunerakotz sistemertean dauden diferentzietekin.
- Ados ez egotea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile ez-sanitarioietz ezin parte hartzearekin prestakuntzarakotz zerbitzuen egoerantz goragokotz mailakotz lanpostu bat betetzeko izangaien zerrendak osatzeko deialdietan.
- Ados ez egotea Padre Moret bigarren hezkuntzakotz institutuan musika irakasleatz izatekotz lanpostu huts bat kentzearekin.

C) Funtzionario publikoentz eskubideei eta betebeharreri dagokienez:

- Kexa-egileatz ados ez egoteatz Iruñeko Udalaren menpekotz entitateatz den ASIMEC-etik kanporatutaz izatearekin. Kanporatze horrentz aurkakotz errekurtsotz aurreratz da lan arlokotz bide judizialeantz.
- Kexa-egilearentz desadostasuntz Lizarrakotz Udalekotz Musika Patronatuarentz menpekotz musikatz eskolatik kanporatutaz izatearekin.
- Desadostasuntz Eguesibarkotz Udalekotz haurtzaindegikotz zaintzaile gisatz kaleratutaz izatearekin, exijitzen den titulaziotz ez edukitzearentz ondorioz, nahiz etz hemendik gutxirat amaitut den gaitasuntz egiaztatze kotz proiektu bat egiten ari direntz.

- Ados ez egotea Barañaingo Udaleko ofizial administrariko bere lanpostutik hemendik gutxira kentzearekin, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen bat betetzeko. Izan ere, ez da partea izan prozesu horretan.
- Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin, Tuterako osasun barrutiko funtzionarioen lanaldia luzatu duelako, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriei buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aplikatuz. Izan ere, arratsaldean lan egitera behartzen dituzte: 2 kexa.
- Desadostasuna Nafarroako Unibertsitate Publikoak lan ordutegia onesteko jarraitutako prozedurarekin, hura organo eskudunak ez duela onetsi jotzeagatik.
- Lanbide-sindikatuak behar adinako ordezkaritza sindikalik ez izatea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako negoziazio-foroetan. USPAN-Nafarroako Administrazio Publikoko Profesionalek Batasunak sustatu du kexa.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuarekin, jarduneko zerbitzuan berriz hasteko ezarri dion datarekin, seme-alaben zainketarako eszedentzia bereziaz baliatu eta ondoren.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuak harrera iraunkorreko egoeran dagoen adingabe bat zaintzeko zerbitzu-eginkizun batzuk ukatzearekin.
- Ados ez egotea lekualdatze lehiaketan ondorioetarako ez baloratzearekin tutoretza-eginkizuna betetzeko eszedentzia bereziko egoeran emandako denbora.
- Ados ez egotea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren irizpide-aldaketarekin, edoskitze-aldiak metatzeari dagokionez, baimena sortzen duen aldi guztian zerbitzuak ematen ez direneko kasuetan. Nafarroako Erakunde Publikoetako Langile Administrazioen Sindikatuak sustatu du kexa.
- Ados ez egotea fitxatzeraz ez behartzearekin lanpostura sartzen denean eta lanpostutik irteten denean.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen ordu-murrizketarekin.
- Desadostasuna Hezkuntza Departamentuak ukatu diolako seme adingabe bat zaintzeko zerbitzu-eginkizunetarako baimena.
- Desadostasunak Zizur Zendeako Udaleko Alkatetzaren erabaki batekin. Haren bidez, izan ere, udaleko aguazilen eginkizunak aldatzen dira.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko langile bat ados z egotea lan ordutegia markatzeko txartelaren modeloarekin, zeren eta txartelak enpresa pribatu baten publizitatea baitakar.

D) Langile publikoen ordainsariei dagokienez:

- Langile publikoak ados ez egotea 2012ko abenduko aparteko soldata kentzearekin, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuan jasotakoaren ondorioz: 414 kexa.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bi urte baino gehiago geroratzea ordainsari osagarrien ordainketan: 4 kexa.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak funtzionario publikoei ordainsari osagarri bat ez aitortzea: 2 kexa.
- Ados ez egotea Erriberriko Udalak ordainsari osagarri bat ukatzearekin, zeren eta kexa-egilea ez baita baliatzen udalaren etxebizitza batez, eta ados ez egotea, halaber, horri buruz aurkeztutako eskariaren ebazpenean geroratzearekin.
- Ados ez egotea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, administrazio-isiltasunaren bidez, ezetsi duelako hildako funtzionario baten oinordekoak eginiko ordainketa-eskari bat, hark, aldi baterako ezgaitasun egoeran zegoelako, gozatu ez zituen opor-egunei zegokiena.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko E mailako lanaldi partzialeko lan kontratudunak ados ez egotea 2012ko abenduko aparteko soldata kentzearekin, zeren eta beren urte osoko lansaria ez baita iristen lanbide arteko gutxieneko soldataren 1,5 halako izatera.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko funtzionario bat ados ez egotea amatasun-arriskua konpentsatzeko ordainketa bidegabekoa izatearekin.
- Desadostasuna Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateko plantilla organikoaren hasierako onespenearekin.
- Irakaskuntza publikoko irakasleen eta irakaskuntza itunduko irakasleen arteko desberdintasuna, erabakitako soldata-murrizketari dagokionez.

E) Diziplina-araubideari dagokionez:

- Iruñeko Udalak ezer ez egitea funtzionario publiko batek bateraezintasunen araubidearen balizko urraketa bat salatu eta ondoren.
- Barañaingo Udalak ezer ez egitea funtzionario publiko baten ustezko jokabide okerra dela-eta aurkeztutako salaketa baten aurrean.

F) Eskubide pasiboari dagokienez:

- Ados ez egotea MUFACE-Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak faktura bat ordaintzeari ezezkoa ematearekin.

2.7.9. Toki entitateen funtzionamendua

2012an, 17 kexa bildu ziren kontzeptu horren pean. Guztizkoaren % 1,31 egiten dute; aurreko urtean, berriz, 10 izan ziren.

Kexak ondoko gaiei buruzkoak izan dira:

A) Zinegotziek edo kontzejukideek aurkeztuak:

- Berako Alkatetzak ezezkoa ematea legediaren araberako talde bat osatzen ez duen zinegotzi bati bulego bat izateko udaletxean, herritarrak artatu ahal izateko eta zinegotzi lana egin ahal dezan.
- Garesko Udaleko zinegotzietan osoko bilkuran aztertu behar dituzten gaiei buruzko dokumentazioa behar den denborarekin ez eskuratzea.
- Arlegiko Kontzejuaren bilkura arrunt baterako deialdiaren data justifikaziorik gabe aldatzea eta kontzejuburuak kexa-egileari eragozteko kontzejukide gisa dituen eginkizunetan jardun dezan.
- Andosillako Udalak erroldatze-ziurtagiriak ukatzea udalari ordaindu beharreko guztiak ordainduta ez dizkioten. Andosillako Talde Sozialistak aurkeztu du kexa.
- Arlegiko Kontzejuko bilkura arrunt baterako deialdiko data justifikaziorik gabe aldatzea.
- Cintruenigoko alkatetzak osoko bilkura batean erabilitako esamoldeak.

B) Herritarrek aurkeztutakoak:

- Eguesibarko Udaleko udal erroldan ageri den informazioa eta bi pertsonen egoitza efektiboa bat ez etortzea.
- Garesko Udalak laguntzarik ez ematea Comptos Ganberari, ez baitio behar den informazio guztia eman udalaren fiskalizazio-txostena egiteko.
- Aintzat ez hartzea Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatearen 2012ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren hasierako onespeneraren akordioa dela-eta aurkeztutako alegazioak.
- Romanzadoko antzinako alkate batek jazarpena jasatea.
- Ezkirozko Kontzejuko tabernaren errentamendurako kontratu administratiboa amaitzea eta ez berritzea.
- Garesko Udalak ez betetzea administrazio elektronikoari buruzko udal ordenantza.

- Garesko Udalak kortesiarik gabeko erantzuna ematea arkitekto-aholkularia izateko lanbide-zerbitzuen eskaintzaren aurrean.
- Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak ez igortzea alegazioen txosten bat onesteari buruzko akordioa, Nafarroako Administrazio Auzitegian kexa-egileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsio bat tarteko.
- Desadostasuna Garesko Udalak Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari igorritako espediente administratibo baten edukiarekin.
- Erroko Udalak informaziorik ez ematea ikasteko ematen dituen laguntzei buruz eta udaleko langileek laguntza-eskariak aurkezterakoan emandako tratua.
- Iruñeko Udalak ez ematea arriskutsua izan daitekeen animala bat edukitzeko lizentzia.

2.7.10. Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten bermeak

Kontzeptu horren barrenean, 70 kexa ageri dira. Guztizkoaren % 5,39 egiten dute. 2011n, berriz, 74 aurkeztu ziren.

Epigrafe horretan sartzten dira herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideei buruzko kexak, bai eta eginiko eskari eta errekurtsioei Administrazio Publikoaren erantzuna behar den denboran eta moduan jasotzeko eskubideari (isiltasun administratiboa) buruzko kexak, informaziorako eskubideari buruzkoak, zentro eta bulegoetara sartzeko eskubideari buruzkoak, arreta egokia jasotzeko eskubideari buruzkoak, herritarren parte-hartzerako eskubideari buruzkoak, gardentasunerako eskubideari buruzkoak, administrazio egokirako eskubideari buruzkoak eta antzeko beste batzuk.

Herritarrek aurkezturiko kexak ondoko gaiei buruzkoak izan dira:

A) Administrazio publikoen erantzun bat lortzeko eskubideari dagokionez:

- Herritarrek aurkeztutako eskabide eta eskariei ez erantzutea: 13 kexa.
 - Otsakarko Kontzejuak ez erantzutea herri-lur batzuen adjudikazio bati buruzko informazio- eta dokumentazio-eskari bati.
 - Izarbeibarko Zerbitzuen Mankomunitateak ez erantzutea informazio bat eskatzeko aurkeztutako eskabideari.
 - Iruñeko Abokatuen Elkargoan aurkeztutako idazki batzuei ez erantzutea.
 - Espetxeko Lanaren eta Enplegurako Prestakuntzaren Erakunde Autonomoari ziurtagiri batzuk emateko eskatu eta halakorik ez egitea.

- Narbarteko Kontzejuari argiteria publikoari buruz informazioa eskatzeko aurkeztutako eskabide bati ez erantzutea.
 - Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak ez erantzutea Iruña-Noingo aireportua linearako garraio publikorik ez izateari buruz aurkeztutako idazki bati.
 - Iruñeko Udalak ez erantzutea bulegoetako lokal bat ixteko espedienteari buruzko bi informazio-eskabideri.
 - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez erantzutea langileen hautapenerako prozedura bateko ariketa bateko galderekin eta erantzunekin lotutako eskari bati.
 - Villatuertako Udalak zenbait eskabideri ez erantzutea.
 - Eguesibarko Udalak ez erantzutea oinezkoen pasabide batean abiadura moteltzeko sistema bat ezartzeko eskariari. Pasabide hori haur eskola baten aurrean dago.
 - Ez erantzutea bide telematikotik Beriaingo Udaleko Kirol, Kultura eta Gazteria Batzordeari eginiko eskari bati.
 - Ez erantzutea Garesko Udalaren esku dagoen informazio eta dokumentazio jakin batzuen eskari bati.
 - Ez erantzutea Sustapen eta Etxebizitza kontseilariarekin elkarriketa bat izateko eskariari.
- Errekurtso administratiboak ebazten atzeratzea edo haiek ez ebaztea: 17 kexa.
- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak ez ebaztea langileriaren arloa dela eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtso batzuei: 3 kexa.
 - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez erantzutea langileen hautapenerako prozedura bateko ariketen behin betiko emaitzen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoei: 3 kexa.
 - Eguesibarko Udalak berraztertze errekurtso bati ez erantzutea.
 - Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak ez erantzutea jaiotza baten inskripzioa ukatzearen aurkako apelazio errekurtso bati.
 - Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak ez erantzutea Administrazio Publikoko teknikaria (adar juridikoa) izateko

hogeita hamazazpi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdiko hirugarren ariketako behin betiko emaitzen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuari.

- Sustapen Departamentua atzeratzea Lizarrako alde zaharreko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta Babespenerako eta Barne Berrikuntzarako Plan Berezia aldatzeko espedientearen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua izapidetzen eta ebazten.
- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak ez ebaztea langileak hautatzeko prozedura bateko merezimenduen behin betiko balorazioaren aurkako gora jotzeko errekurtsu bat.
- Ez erantzutea Zangozako Eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen plantilla organikoaren eta aurrekontuaren hasierako onespeneraren aurka aurkeztutako alegazioei.
- Osasun Departamentuak ez erantzutea langileriaren arloko gora jotzeko errekurtsu bati.
- Erriberako Mankomunitateak ez erantzutea kexa-egilearen jabetzapeko lokal batean aplikatzen den hondakinen bilketarako tasen bikoiztasuna dela-eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuari.
- Lizarrako Udalak ez erantzutea zehapenaren arloa dela-eta aurkeztutako berraztertze errekurtsu bati.
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ez erantzutea lurzati berrantolamenduko prozedura baten aurkako gora jotzeko errekurtsuari.
- Abokatuen Kontseilu Orokorrak ez erantzutea gora jotzeko errekurtsu bati.

B) Artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeko eskubidea ukatzeari eta informazio nahikoa izatek eskubideari dagokienez:

Artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeko eskubidearen ukapena dela-eta 6 kexa aurkeztu dira; ondoren adierazten direnak, hain zuzen:

- Martzillako Udalak ezezkoa ematea akta eta erabaki batzuk eskuratzeko eskariari.
 - Sustapen Departamentuak ezezkoa ematea lehiaketa bateko lizitatzailerei hura irabazi duen proposamena erakusteari.
 - Narbarteko Kontzejuak ez erantzutea Kontzejuaren bilerei buruzko eta akta jakin batzuk eskuratzeko eskari bati.

- Urdazubiko Udalaren Kontu Orokorren onespenera buruzko dokumentazio-
eskari bati ez erantzutea.
 - Buñuelgo Udalak udal artxiborako sarbidea ukatzea pertsona bati.
 - Ziraukiko Udalak ezezkoa ematea herritar bati emateari herritar horrek berak
udalari eman zion eskritura publiko baten notario-kopia oso bat, dirudienez
udalak eskritura galdu baitzuen.
- Informazio falta edo informazio ez-nahikoa edo eskasa emateagatik 7 kexa
aurkeztu dira; honakoak, hain zuzen:
- Iruñeko Udalak informazio eskasa ematea ibilgailu bat udal gordailutik
erretiratzeko isun bat ordaindu ahal izateko.
 - Torres del Rioko Udalak informaziorik ez ematea hilerriko hilobi bat
erretiratzeari buruz.
 - Informaziorik ez ematea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-eskaintza
batean, komunikazio-irakaslea izateko lanpostu bat betetzeko, jarraitutako
hautapen prozedurari buruz.
 - Legardako udal zerbitzuek informaziorik eta aholkurik ez ematea kexa-
egilearen jabetzapeko finka batzuk Lurralde Aberastasunaren Erregistroan
inskribatu ahal izateko.
 - Ados ez egotea Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakunde
Harremanetarako Departamentuak emandako informazioarekin, Nafarroako
Foru Komunitateko Administrazioarekin zeukan prestakuntza-beka baten
amaiera dela eta.
 - Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuak informazio eskasa ematea hari
kontsumoaren arloa dela-eta eginiko kontsulta bati buruz.
 - Estatuko Zerbitzu Publikoaren Nafarroako Zuzendaritzak informaziorik ez ematea
Estatuak Nafarroan duen Administrazioako Langileen Batzordeko idazkariak
lanpostu hutsak betetzeko protokoloaren gainean eginiko eskari bati buruz.
- Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea ukatzeak 4 kexa eragin
zituen:
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak
ezezkoa ematea SEO-Espainiako Ornitologia Sozietateari dokumentazio bat
eskuratzeari. Dokumentazio hori enpresa baten aurkako zehapen espediente
bati buruzkoa da. Espedientea, berriz, sozietate ekologista horrek
aurkeztutako salaketa baten harira zabaldu zen.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak SEO-Espainiako Ornitologia Sozietateari ez ematea okil gibelnabarrari buruzko txosten bat, zeina ingurumenaren arloko espediente administratibo batean jasota dagoen.
- Olazagutiako Udalak informaziorik ez ematea udalez gaindiko proiektu sektorial bati buruz eta enpresa bati ingurumen baimen integratua aldatzeari buruz, hainbat motatako hondakinak erraustu ahal izateko.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak ingurumen-informazio eskasa ematea Gurelur elkarteari zientzia-xedeetarako eratzunak jartzeko jarduerari buruz.

C) Herritarrentzako arretari eta haiei ematen zaien tratu pertsonalari dagokienez:

Herritarrentzako arretari eta haiei ematen zaien tratu pertsonalari dagokienez, 11 kexa aurkeztu dira. Honakoak dira, hain zuzen:

- Ados ez egotea Lizarrako Erregistro Zibileko funtzionario batek emandako tratuarekin.
- Ados ez egotea Nafarroako Gizarte Segurantzako Diruzaintzako arduradun batek emandako tratuarekin.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko sendagileek tratu okerra ematea lanerako ezintasuneko egoera bat ebaluatzerakoan.
- Eguesibarko Udaleko langile batek tratu desegokia ematea.
- Nafarroako Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioko langile batek arreta ez-zuzena ematea.
- Funesko alkatetzak tratu ez-zuzena ematea.
- Lizarrako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek arreta eskasa ematea.
- Ados ez egotea Iruñeko Abokatuen Elkargoko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko pertsona batek emandako tratuarekin.
- Desadostasuna Ezkabarteko Udaleko idazkariak emandako tratuarekin, zeren eta espediente bat eskuratzeko eta bahitura diligentzia baten ondoriozko erreklamazio baten erantzuna eskatu eta ezezkoa eman baitio haiek emateari.
- Desadostasuna Nafarroako Enplegu Zerbitzuko arduradun batek emandako tratuarekin.

- Desadostasuna Iruñeko Udalak igorritako premiamenduzko probidentzia baten komunikazio batek daukan tonu gogorregiarekin.

D) Norberaren intimitaterako eskubideari dagokionez:

- Ados ez egotea Tiebasko udal aterpearen sarreran dagoen zaintza-kamera batekin, bide publikora jotzen baitu.
- Kexa-egileak desadostasuna adierazten du bere buruari buruz, internet bidez, argitaratu den informazio bat dela eta. Egunkari bateko hemerotekatik heldu da.
- Interneten bera difamatzen duen eta intimitatea urratzen dion "Link" bat egotea.

E) Beste eskubide batzuei dagokienez:

- Andosillako Udalak ezezkoa ematea komunitate islamiarrari herri horretan haurrei arabierazko eskolak emateko ikasgela bat uzteari.
- Ados ez egotea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lehendik badaukan dokumentazio bat aurkezteko eskatzearekin, bere laugarren seme-alabarengatik eta ondorengoengatik laguntza bat izapidetzeko.
- Desadostasuna Nafarroako administrazio publikoen jokabide orokorrarekin, hau da, lehendik bere eskura duten dokumentazioa eskatzearekin.
- Bi udalek ezezkoa ematea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean gora jotzeko errekurtsio bat onartu eta erregistratzeari: 2 kexa.
- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen batekin ados ez egotea.
- Eskaria, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatearen aurrekontuari dagokion espedientea ikuskatu dadin, osatu gabe dagoela jotzen baita.
- Publikoki ematen diren bideen bitartez aurrez hitzordua eskatzeko ezintasuna, errentaren aitorpena Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoetan egin ahal izateko.
- Villatuertako Udalak ezezkoa ematea bide publiko bat antolatzeke eskari bati.

2.7.11. Ogasuna

Ogasunaren arloa dela eta, 41 kexa aurkeztu ziren; 2011n, berriz, 45 aurkeztu ziren. Guztizkoan % 3,16 egiten dute.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan ziren:

A) Nafarroako Zerga Ogasunaren tributuei dagokienez:

- Geroratzea Nafarroako Zerga Ogasunak egindako kobrantza bidegabe baten erreklamazioa ebazterakoan.
- Txirotasunaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Sarea, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea eta Nafarroako GGKEen Koordinadora ados ez egotea ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea ez betetzearekin. Lege horrek, izan ere, arautzen du Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7a. Ez daude ados, ezta ere, hura 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bitartez aldatu izatearekin, zeren eta uste baitute arauaren xedea eta izpiritua nahasten direla, Nafarroako Gobernuari aukera ematen zaiolako ekintzak % 0,7 horren kargura zuzenean gauzatzeko eta hartatik zenbatekoak erabiltzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortzen dituen banakako prestazio ekonomikoetarako.
- Nafarroako Gobernuko Zergen Ikuskaritza Zerbitzuak irekitako zehapen prozedura, bakarrik ezgaitasuna duten pertsonen erabiltzekoak diren ibilgailuen lehen matrikulazioa dela-eta zenbait garraio bideren gaineko zerga-salbuespenari dagokionez, zeren eta Nafarroako Zerga Ogasunak jotzen baitu ibilgailua ez zuela bakarrik erabili kexa-egileak.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ezezkoa ematea ondare eskualdatze eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga itzultzeari, ibilgailuaren jabetzaren eskualdaketa efektiboa ez egiteagatik.
- Ohiko etxebizitzaren salmentatik heldu den ondare-gehikuntzaren balorazioa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortzearen ondorioetarako.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ohiko etxebizitzan eginiko inbertsioaren kenkarian aplikatzen duen egozpenaren ehunekoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.
- Etxebizitza ordainean emateari Nafarroako Zerga Ogasunak eman dion zerga-tratamendua, zeren eta jo baitu irabazpidezko ondare-eskualdatze bat izan dela.
- Nafarroako Zerga Ogasunak bi zerga-zehapen ezartzea, hiruhileko bateko balio erantsiaren gaineko zerga ez aurkezteagatik eta hirugarrenentzako eragiketen barruan finkatutako gutxienekoa gainditzeagatik.
- Nafarroako Zerga Ogasunak exijitzea itzul ditzala etxebizitza babestua erosteagatik aplikatutako kenkariak, zeren eta azkenean etxebizitza ez baitzuen erosi, inguruabar berezi batzuk tarteko.
- Lan etekintzat hartzea pentsio-plan baten erreskatea, pertsona fisikoen gaineko zergaren ondorioetarako, horrek prestazio publiko batzuk eskuratzea eragozten baitio.

- Nafarroako Zerga Ogasunak egiten duen konpentsazioa, Gizarte Politiketako Departamentutik etxean zainketak emateagatik jasotzen duen prestazio ekonomikoaren zenbatekoaren gainean.
- Nafarroako Zerga Ogasunak bahitzea jasotzen duen gizarteratze-errenta.

B) Toki tributuei dagokienez:

- Higiezin baten eroslea ados ez egotea hura zela eta hiriko lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren subjektu pasiboa, ez eta hura likidatzearekin ere: 3 kexa.
- Erriberako Mankomunitateak bi tasa ordainaraztea higiezin bakarreko hondakin solidoen kudeaketa-zerbitzuaren truke. Higiezin hori aldi berean da etxebizitza eta bulego profesionala: 3 kexa.
- Erriberriko Udalak ez ordaintzea eman zain zerbitzu bat: 2 kexa.
- Zaborrak biltzeko tasak igortzeko irizpide berriak ez jakinaraztea, eta desadostasuna Erriberako Mankomunitateak emandako premiamendu- eta bahitura-probidentziekin.
- Castejongo Udalarekin hartutako zor batengatik udal horrek oinarrizko errenta bahitzea.
- Nabaskozeko Udalak ez jakinaraztea higiezin baten katastro aldaketa, zeinak haren lurralde-kontribuzioa handitzea ekarri baitu.
- Oltza Zendeako udalak ofizioz hasitako prozedura, kexa-egilearen jabetzapeko lursail baten katastro-aldaketa egiteko.
- Katastroan ez inskribatzea lursail bat Oltza Zendeako Udalaren alde laga izana.
- Oltza Zendeako Udalak katastroan ez inskribatzea lursail baten titularitate pribatuaren aldaketa.
- Erripagainako bizilagunen eta Eguesibarko gainerako bizilagunen artean diferentziak egotea hiri-lurraren gaineko kontribuzioaren kuotan.
- Erriberako Mankomunitatearen zaborren bilketarako tasak ez ordaintzeagatik premiamenduzko bidearen aurretiko jakinarazpena falta izatea.

- Oltza Zendeako Udalaren Lurralde Aberastasunaren Katastroan, zenbait parajeren izenak direla-eta, zenbait aipamen zuzentzeko eskaria izapidetzeko ezer ez egitea.
- Ados ez egotea Iruñeko Udaleko Zirkulazio Zerga urte osoan ordaindu behar izatearekin, urtarrilaren 9an eskualdatu zuen ibilgailu batengatik.
- Iruñeko Udalak ezezkoa ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emateko data atzera eramateari.
- Aisako Udalak exijitzea hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagozkion ordainagiri batzuk ordaintzeko, finka baten administrazio-lagapeneko araubidean saldu eta ondoren.
- Iruñeko Udalak igorritako bahitura diligentzia, kexa-egileak Nafarroako Gobernuari saldu zion higiezin bati zegokion hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta zeukan zor batengatik, aurrez zorraren jakinarazpenik jaso gabe.
- Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak ez jakinaraztea 2012ko lehen seihilekorako zaborren tasaren likidazioa, eta premiamenduzko probidentzia ez jakinaraztea.
- Kirol instalazioen erabilerarengatiko ordainketa dela-eta Milagroko Udalak jarraitutako premiamenduzko prozedura, bahitura barne.
- Erriberako Mankomunitateak igorritako bahitura probidentzia, kexa-egilea bizi den baina bere jabetzakoa ez den etxebizitzari dagokion zabor-bilketarako tasa ez ordaintzeagatik.
- Mendigorriako Udalak kexa-egilearen jabetzapeko lursail bati esleitzen dion azalera eta harengatik igortzen dien hiri-lurren gaineko kontribuzioa.
- Zangozako Zerbitzuen Mankomunitatean arlo ekonomikoan ustezko irregulartasunak gertatzea.
- Beriaingo Udalak teknikari dinamizatzaile lanak egiteko laguntza teknikoko kontratu bat bertan behera uztea, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritakoa bete gabe.

C) Estatuaren Zerga Agentziari dagokionez:

- Lanzaroteko lokal bati eta Almeriako garaje-plaza bati katastroetan esleitutakoa.
- Espainiako Gobernuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta iragarritako neurriak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familientzat kaltegarriak direla jotzen baita.

2.7.12. Barne arloa

Barne arloan, 23 kexa izan ziren; hau da, guztizkoaren % 1,77. 2011n, berriz, 24 jaso ziren.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan ziren:

A) Poliziaren jarduketei dagokienez:

- Ados ez egotea Foruzaingoko kideek 2012ko irailaren 26ko greba orokorrean gertatu ziren istiluen harira izandako esku-hartzea.
- Polizia Nazionaleko eta Guardia Zibileko kideek 2012ko irailaren 26ko greba orokorrean gertatu ziren istiluen harira izandako esku-hartzea.
- Desadostasuna Suhiltzaileen Zerbitzuak bere ibilgailuan eragindako kalteekin, ibilgailu horretan gertatutako su bat itzaltzeko.
- Iruñeko Udaltzaingoko kideen jarduketa, Sanfermin jaietan ibilgailua erre ondoren.
- Nafarroako Foruzaingoko kideen jarduketarekin izandako desadostasuna, etxeko atxiloketa zigor baten betetzea egiaztatzearen harira.
- Nafarroako Foruzaingoko kideen jarduketa, ibilgailu bat miatzerakoan. Kexa-egileak uste du errespeturik gabeko jokabide desproporzionatua izan zutela.
- Guardia Zibileko agenteek kontzentrazio batean parte hartutakoen argazkiak egitea.
- Iruñeko Udaltzaingoko agente batek emandako tratua.
- Tafallako Udaltzaingoko agente batek emandako tratua.
- Iruñeko Udaltzaingoko Elkarte Profesionalaren desadostasuna Sanfermin jaietako ekitaldi masibo batzuen harira udal zerbitzuak antolatzeke moduarekin, zeren eta uste baitute kidego horrek ekitaldietan duen parte-hartzea gehiegizkoa dela. Izan ere, uste dute ekitaldi horiek ez direla haien eskumenekoak eta toki segurtasuneko plan bat egin beharra dagoela.
- Guardia Zibilak jarritako salaketa, kidego horretako Informaziorako eta Herritarren Arretarako Bulegoan kexa bat aurkezteko eskubideaz baliatzearen ondorioz.
- Ados ez egotea Guardia Zibileko agenteek ibilgailua miatzerakoan eman zioten tratuarekin.

B) Espetxe administrazioari dagokionez:

- Etxerat Nafarroa elkartearen kezka, euskal preso batzuen osasun egoera dela eta. Haien espetxe-egoera hobetu dadila eskatzen dute.
- Ergoienako eta Altsasuko Udaletako osoko bilkuren erabakiak, gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoak askatzearen aldekoa.
- Mexikok Espainian duen Kontsuletxeak arretarik ez ematea kexa-egilearen arrebari, herrialde hartan preso baitago.
- Preso bat Darocako (Zaragoza) espetxetik Iruñeko espetxera ekartzeko eskaria, familia-arrazoiak tarteko.
- Kexa-egilearen anaiaren egoera ezin okerragoengatikoa laguntza eskaria. Sao Pauloko (Brasil) espetxe batean dago preso.

C) Zehapen prozedurei dagokienez:

- Barañaingo Udalaren akatsa, bide publikoan txiza egitearen ondoriozko zehapen espediente bat izapidetzerakoan, garraioaren arloko zehapen espediente baten gisara izapidetu baitzen.

D) Zenbait izapide administratibori dagokienez (informazioa, bisatuak eta erregistroak):

- Barajasko aireportuko argibideetarako gunean ezin jasotzea bere maskotarako osasun-ziurtagiri bat lortzeko behar zen informazioa; horren ondorioz, bidaiaren datak aldatu behar izan zituen, eta horrek kostu ekonomiko handia ekarri zion.
- Estatu Batuetara bidaiatzeko arazoak, bidaia-dokumentu batean ageri ziren irregulartasunen ondorioz.
- Argentinan lortutako motozikletarako gidabaimen bat baliozkotzen geroratzea.
- Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Elkarteen Erregistroan ezin inskribatzea zuzendaritza batzar baten titularitate aldaketa, zeren eta batzarkide ohiek uko egiten baitiote sinatzeari. Elkartea desegiteko prozedura abiatu dute batzarkide horiek.

2.7.13. Justizia

Justiziaren arloan, 36 kexa erregistratu ziren; 2011n, ordea, 30 izan ziren. Kexa hauek guztizkoaren % 2,77 egiten dute.

Jada aurreko txostenetan jakitera eman dugun bezala, Justizia administrazioak Nafarroako Foru Komunitatean duen funtzionamenduari buruzko keak Estatuaren eskumen eksklusiboa dira. Hala eta guztiz ere, gai honetan, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailearen 3ko 4/2000 Foru Legeko 13. artikulua ezarri zuen erakundeak berariaz islatuko dituela bere urteko txostenean jasotzen dituen keak.

Bestalde, Justizia Ministerioaren menpe dauden erregistroen funtzionamenduari buruzko keak Espainiako Arartekoari igorri zitzaizkion, hura baita haiek ikuskatzeko erakunde eskuduna, erregistro horiek Estatuaren administrazioaren zeregina direlako, eta herritarrek erabaki judizialekin ados ez egoteari buruzkoak, berriz, ez ziren onartu, erakunde honek ezin baitu horri buruzko ikuskapenik egin, botere judiziala independentea baita justizia administratzeko garaian.

Honakoak izan ziren kexetan islatu ziren arrazoiak:

A) Justizia Administrazioari dagokionez:

- Bidegabeko geroratzea prozedura judizialak izapidetzean eta epaiak betearaztean: 10 kexa.
- Desadostasunak hartutako erabaki judizialekin: 7 kexa.
- Desadostasuna prozedura judizialen garapenarekin: 2 kexa.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia jarduketarekin ados ez egotea, epaitegi batzuen jarduketa dela-eta aurkeztutako salaketak tarteko: 2 kexa.
- Desadostasuna Justizia Administrazioaren esparruko tasa batzuk araupetzen dituen azaroaren 20ko 10/2012 Legearekin. Justizia.

B) Abokatuen eta abokatuen elkargoen jokabide profesionalari dagokionez:

- Desadostasuna prozedura judizial berarako doako justizia eskuratzeko beste eskari bat aurkeztu behar izatearekin.
- Ados ez egotea demanda bat aurkezteko diru-kopuru batzuk kobratu zituen abokatu baten jarduketarekin, azkenean demanda hori ez baitzuen aurkeztu.
- Ados ez egotea ofiziozko abokatu batzuen jarduketarekin. Dibortzio-prozedura bat izapidetzeko esleitu zaizkio abokatu horiek.
- Ados ez egotea abokatu baten jardun profesionalarekin, ez baitzion kexa-egileari informaziorik eman jarraitutako prozedura judizialei buruz, eta ez baitzuen azken epaiaren aurkako errekurtsorik aurkeztu.

- Lizarrako Abokatuen Elkargoak abokatuia aldatzeko eskariari emandako tratamenduarekin ados ez egotea.
- Lizarrako Abokatuen Elkargoak berandu erantzutea abokatu baten jardun profesionala dela-eta aurkeztutako kexa bati, eta ados ez egotea jasotako erantzun berantiarrarekin.
- Desadostasuna prozedura judizial batean peritu gisa jardun zuen arkitektoaren jarduketa dela-eta aurkeztutako kexaren harira Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Nafarroako Ordezkaritzak emandako erantzunarekin.
- Ados ez egotea abokatu baten jarduketarekin eta zenbait prozedura judizialekin.

C) Erregistro zibilei dagokienez:

- Bat ez etortzea Nortasun Agiri Nazionalean agertzen den sorlekua eta pasaportearen ageri den sorlekua, eta Erregistro Zibilean inskribatuta ez agertzea egiazki non jaio zen.
- Kexa-egilearen ezkontza Erregistro Zibil Zentralean inskribatzen geroratzea.
- Ados ez egotea nazionalitate espainiarra eskatu eta Erregistro Zibilean eman dioten ezezko ebazpenarekin. “Jokabide zibiko egokia behar adina ez justifikatzea” izan da arrazoia.
- Geroratzea Espainiako naziotasuna lortzeko espediente bat ebazten.
- Kexa-egilearen ezkontza Erregistro Zibil Zentralean inskribatzen geroratzea.

2.7.14. Gazteria eta kirola

Arlo hauetan, 7 kexa aurkeztu ziren. Kexa guztien % 0,54 egiten dute. Aurreko urtean ere, 7 kexa aurkeztu ziren.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

- Antsoaingo udal igerilekuak erabiltzeko kuotak igotzea.
- Ados ez egotea Antsoaingo udal igerilekuak erabiltzeko kuotaren hiruhileko osoa kobratzearekin lau urte betetzen dituzten haurrei.
- Burlatako Udalak eskatzaileari ezezkoa ematea hirurogeita hamabost urtetik gorakoentzako udal igerilekuetarako sarbide-kuotetatik salbuesteko -diru-sarrerarik ez edukitzeagatik- eskariari, eta ados ez egotea eskabidea izapidetzeko moduarekin.

- Sarrigurengo udal igerilekuetan udarako abonua ezin egitea.
- Artaxoako Udalak El Cerco Kirol Klubari ematen dion bazterketa tratua herriko futbol zelaia erabiltzeari dagokionez.
- Zangozako Udalak haurrei eta gazteei, udalaren instalazioetan kirol izaerako jarduerak egiteko, kobratzen dizkien kuotetan dagoen aldea, udalerrian erroldatuta egotearen edo ez egotearen arabera.
- Noaingo Udalak Beraingo haurrei igerileku estalira sartzeagatik kobratzen dien kuotaren eta igeriketa-ikastaroak egiteko kuotaren artean dagoen aldea, udalerrian erroldatuta egotearen ala ez egotearen arabera.

2.7.15. Ingurumena

28 kexa aurkeztu ziren, eta horiek guztizkoaren % 2,16 egiten dute; 2011n, ordea, 39 izan ziren.

Edukiari dagokionez, kexa gehienak beste behin zaratei buruzkoak izan ziren; zehazki, jasotako kexetatik 14 horri buruzkoak izan ziren.

Honakoak izan ziren jasotako kexak eragin zituzten egitateak:

A) Kutsadura akustikoari edo zaratei dagokienez:

- Tuterako alde zaharreko kale baten inguruan izaten den gehiegizko zaratarenagatik eragozpenak. Zarata hori aisiarako lokalen jarduerak sortzen du.
- Antsoaingo aisiarako lokal baten zaratek eta ixteko ordutegia ez betetzeak eragiten dituen eragozpenak.
- Cadreitako kontserben lantegi batetik heldu diren bibrazio, gas, usain eta hautsek eragindako eragozpenak.
- Iruñeko Udalak udako hilabeteetan Gotorlekuan antolatzen dituen kontzertuek eragiten dituzten zaraten enbarazuak.
- Nafarroako Zerga Ogasunaren bulego bateko aireztapen etxetxoetatik heldu diren zaratek eragindako eragozpenak.
- Irunberriko Udalaren areto batetik heldu diren zaratengatik eragozpenak. Aretoa, tarteka, musika ekitaldiak egiteko erabiltzen da.
- Eraikinetako igogailuek eragindako zaratengatik eragozpenak.
- Erriberriko plaza bateko bankuetan, udako hilabeteetan, gauez biltzen diren gazte-taldeek eragindako zaratengatik eragozpenak.

- Iruñeko erloju bateko soinuak eta eliza bateko kanpai-hotsek eragiten dituzten eragozpenak.
- Kexa-egilearen Monteagudoko etxearen ondoko aisiarako lokal bateko eta haren terrazako zaratak eragindako eragozpenak.
- Iruñeko alde zaharreko aisiarako lokalek eta gauzez kalean sortzen den zaratak, lokal horietako bezeroek egindakoak, eragindako eragozpenak.
- Iruñeko Buztintxuri auzoan dagoen aisiako lokal batek eragindako eragozpenak.
- Aisiako lokal bateko jabea ados ez egotea Barañaingo Udalak, zarata gehiegi sortzeagatik, ezarritako zehapenekin.
- Bizilagun batzuek kezka izatea Iberdrolari lursail bat esleitu zaiolako azpi-estazio elektriko bat ezartzeko, bizi diren etxeetatik 200 metro baino gutxiagoko distantzia batera.

B) Ingurumena babestea:

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari aurkeztutako salaketa bat galdu izatea. Salaketa ureztaketarako ubide bat garbitzeko herbizida bat isurtzeari buruzkoa zen.
- Elizondoko bizilagunen desadostasuna arrantzaleen elkarte baten eskariarekin. Eskatzen dute herriko erdiguneko presa edo azud bat eta zubi bat eraisteko; izan ere, jotzen dute haiek herrian uholdeak eragiten dituztela, urak estal ditzakeen esparruak okupatzen dituztela eta uren emarirako traba handiak direla.
- Lursail batean oihanberritzeko lanak eta garbiketa lanak egiteko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ematen dituen laguntza ekonomikoak gutxitu izatea. Gutxitze hori heldu da lursailaren azalerari buruz egindako neurketak desberdinak izatetik.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ezezkoa ematea kexa-egilearen finka batzuk kontserbazio bereziko eremutik kanpo uzteari.
- Azkoiengo Udalak lursail bat aisiarako eta kirol-jarduerarako erabiltzeko jardueralizentzia ukatzea.

C) Basa fauna eta beste animali batzuk babestea:

- Okil gibelnarra arriskuan egotea, SEO-Espainiako Ornitologia Sozietateak salatzen duen bezala, Erroibarren dagoen enpresa bat egiten ari den meatzaritzazundaketen ondorioz.

- GURELUR eta ADECANA elkarten desadostasuna Bertizko Natur Parkean basa animaliak ehizatzearekin, eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak ez erantzutea egitate horiek direla eta aurkeztutako salaketa bati: 2 kexa.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ezezkoa ematea Arguedasko arroz-soroetan hegaztiei eraztunak jartzeko GURELUR elkarteak egin duen eskariari.
- GURELUR elkarteak ados ez egotea saltoki handi batean basa hegazti babestu batzuk erakustearekin (kexa bikoiztua).
- Iruñeko Udalak utzita edukitzea zakurrentzako eremu bat.

D) Ehiza:

- Nafarroako Ehiztarien Elkartea (ADECANA) ados ez egotea Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen Erregelamendua -ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuaz onetsi zen- aldatzen duen otsailaren 1eko 7/2012 Foru Dekretua onetsi izatearekin, zeren eta foru dekretuaren proiektua ez baitaia aurkeztu Ehizari eta Arrantzari buruzko Batzorde Aholku-emaileari.
- Nafarroako ehiza aprobetxamenduen titularren balizko erantzukizuna estaltzen duen aseguru-mekanismo bat ezartzeko laguntza ekonomikoa erregulatu gabe egotea. Nafarroako Ehiztarien Elkartea (ADECANA) egin du salaketa.

2.7.16. Herri Lanak

Arlo honetan 13 kexa aurkeztu ziren, hain zuzen ere guztizkoaren % 1. 2011n, berriz, 10 aurkeztu ziren.

Ondoko egitateei buruzko kexak izan dira:

- Bizilagun batzuen desadostasuna Irungo errepidea, Arre herritik iragaten den zatian, zabaltzeko proiektuarekin, beren etxebizitzetatik 18 metrora pasatzen baita: 2 kexa.
- Lesakako Udalak zenbait bide publiko ez kontserbatzea eta ez egokitzea.
- Jabetza partikular batean euri-uren filtrazioak izatea, Iruñeko Udalak kaleak oinezkoentzat egokitzeko egindako lan batzuen ondorioz.
- San Martin Unxetik Uxuera doan NA-5310 errepidea hobetzeko lanen ondorioz, kexa-egilearen jabetzan sortutako kalte eta galerak ez konpontzea.

- Ados ez egotea Los Arcosko Udalak egindako zolaberritze-lanekin, zeren eta irisgarritasun baldintzak bete ez eta, gainera, ibilgailuak garajeetara sartu ahal izatea eragozten baitute.
- Hezetasunen eta filtrazioen arazoak kexa-egilearen jabetzapeko lokal batean. Iruñean dagoen belena batetik pasatzen den minetak eragiten ditu arazoak.
- Baztango Udalak ez egitea urbanizazio batean behar diren mantentze-lanak.
- Ur hornidurako arazoak egotea kexa-egileen etxeetan, Almandozko tunelerako ura hornitzeko depositu bat ezartzearen ondorioz.
- Alloko Udalak bide publiko bat eskas mantentzea.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ubide bat modu desegokian mantentzea, eustorma batzuk eraistearen ondorioz.
- Caparrosoko kale baten egoera txarra, zola jarri gabe baitago.
- Kexa-egilearen jabetzako balkoi bat ezin erabiltzea, Buñuelgo Udalak jarritako kable-linearengatik, eta ados ez egotea udalak kexa-egilearen finkan eginiko lan batzuekin.

2.7.17. Herritarren parte-hartzea

Kontzeptu berri horretan, 9 kexa sartzen dira, 2012an sartutako guztien % 0,69 hain zuzen.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

- Eskaria, Nafarroako Kutxa entitateko dietak jaso zituzten pertsonek herritarrei dieta horien zenbatekoari buruzko informazioa eman diezaieten, eta Nafarroako Parlamentuak entitateko arduradun politikoak dei ditzan, kexa-egileen tituluek jasan duten balio-galerari buruzko azalpenak ematera.
- Gardentasunik ez izatea Nafarroako Gobernuaren ibilgailuen parkekoa den ibilgailu baten baldintzekin. Enkante publiko bidez erosi zuen kexa-egileak.
- Iruñeko 15 M Mugimenduko kultura taldea eta Kulturarako Sare Estrategikoa ados ez egotea administrazioek lokal bat edo bilkura-areto bat utzi nahi ez izatearekin, Nafarroako Kulturaren Kontseiluari buruzko eztabaida publiko bat egin ahal izateko.
- Kongresuko (Gorte Nagusiak) diputatuen ordainsari-araubidea, gizarte segurantzaren araubidea eta erretiro araubidea aldatzeko eskatzen da.

- Desadostasuna Nafarroan Foruzaingoarekin eta Guardia Zibilarekin gertatzen den bikoiztasunarekin, trafiko kontrolatzeko eginkizunak direla eta; Nafarroan abortua debekatzen duen lege bat egon dadila komeni izatea; eta Nafarroan telebista publiko bat sortzea komeni izatea, bi kanalarekin: bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz.
- Eskaria, komunikabideek, bereziki Espainiako Telebistak, albistegietan suizidio kasuei buruzko informazioa eman dezaten.
- “Gurutze pentsionatuak” deitutakoak kentzeko eskaria”.
- Iruñerriko udalak bateratzeko eskaria, kostuak aurrezte aldera. Sindikatu bakarra egoteko eskaria, kostuak aurrezte aldera, eta abar.
- Lehiaketa publikoetan arrazoizko kostuen azpitik egiten diren lizitazioak, eskaintza ekonomikoari lehentasuna emanez eskaintza profesionalaren gainetik. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Nafarroako Ordezkaritzak sustatu du kexa.

2.7.18. Osasuna

Arlo honetan, 76 kexa aurkeztu ziren. Kexa guztien % 5,86 egiten dute. 2011n, berriz, 32 kexa aurkeztu ziren.

76 kexa horietatik:

- 5 osasun arreta publiko, unibertsal eta doakorako eskubideari buruzkoak.
- 7, osasun zerbitzuak berrantolatzeari eta berrantolaketa horrek sortutako arazoei buruzkoak.
- 17, arreta espezializatuko itxaron-zerrendeiei buruzkoak.
- 6, kexa-egileek, hainbat arrazoi tarteko, jaso ez duten arreta espezializatuari buruzkoak.
- 17, jasotako arreta klinikoari buruzkoak. Arrazoi batzuk direla eta, kexa-egileak ez daude ados arreta horrekin edo uste dute okerren bat izan dela.
- 4, ugalkortasun tratamenduei buruzkoak, bereziki in vitro ernalketari buruzkoak.
- 6, osasun prestazio jakin batzuei buruzkoak eta osasun administrazioak gastuak itzultzeari buruzkoak.
- 9, farmazia-koordainketak eragindako arazoei buruzkoak eta farmazia-prestazioei buruzkoak.

- 5, balizko interesdunak txostenak edo informazioa eskuratzeko eskubideari buruzkoak edo izaera pertsonaleko datuen babeserako eskubideari buruzkoak.

Kexak egiteko arrazoiak hauek izan ziren:

A) Osasun arretarako eskubideari dagokionez:

- Nafarroan doako osasun laguntza ukatzea Nafarroan egoitza duten baina egoera administratibo irregularrean dauden etorkinei, eta haiei informazio ez-nahikoa eta nahasgarria ematea, Nafarroako Osasunaren aldeko Plataformaren iritziz.
- Nafarroako Osasunaren aldeko Plataformaren iritziz, Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat osasun laguntza publiko bat, estaldura unibertsalekoa, ezartzen duen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea urratzea. Izan ere, laguntza hori etorkinei ere zabaldu behar zaie, edozein dela ere haien lege-egoera edo egoera administratiboa, azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua aldatzen duen urriaren 31ko 117/2012 Foru Dekretuaren indarrez.
- Ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan fakturak egitea egoera administratibo irregularrean dauden etorkinentzat. Nafarroako Osasunaren aldeko Plataformak sustatu du kexa.
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala kezkatuta egotea elkargoko kideak diren arkitektoen osasun laguntza aitortzen ez delako.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ez ematea eskatutako banakako osasun txartela, zeren eta onuradunak Espainian egoitza izateari buruzko txartela izapidetzen ari baita.

B) Osasun zerbitzuen berrantolaketari dagokionez:

- Eguesibarko Urbi Auzo Elkarte bizilagunen elkarte kezkatutako egotea Sarrigurengo osasun etxeko emakumearentzako laguntza zentroa irekitzen atzeratzen ari direlako.
- Ezezkoa ematea San Adriango oinarrizko osasun barrutiko bizilagunak sartzeari Errioxarekin muga-eremuetako herritarren osasun-laguntzarako izenpetutako hitzarmenean.
- Aurizko landa eremuko larrialdietarako zerbitzuko guardien sistemari izandako aldaketa. Izan ere, presentzia fisikoko guardietatik guardia lokalizatuetara aldatu dira.
- Sanfermin jaietan pediatria arretarik ez egotea Buztintxuriko osasun etxean.
- Desadostasuna Lizarrako oinarrizko osasun barrutian ezarritako harrera-sistemarekin. Izan ere, ezarri da harrerako langileak izan daitezela arreta-eredu egokiena zein den adieraziko dutenak.

- Ados ez egotea osasun garraioaren zerbitzua (ospitaleen arteko autobusa) kentzearekin Lizarrako eta Iruñeko ospitaleen artean. 3.204 herritarrek izenpetutako kexa.
- Iruñeko bi osasun zentrotan osasuna arretarik ez ematea, familiako medikua hiri horretan esleituta ez edukitzeagatik.

C) Itxaron-zerrendei dagokienez:

- Geroratzea traumatologiako ebakuntza kirurgikoak egiten: 5 kexa.
- Geroratzea digestio aparatuko ebakuntza kirurgikoak egiten: 3 kexa.
- Geroratzea neurozirujiako ebakuntza kirurgikoak egiten: 2 kexa.
- Gaixo onkologiko bati ebakuntza kirurgikoa egiten geroratzea.
- Geroratzea kirurgia plastikoko ebakuntza kirurgiko bat egiten, gaixo adingabe baten kasuan.
- Geroratzea zenbait espezialitatetarako kontsulten hitzorduetan eta zenbait proba mediko egiten: 4 kexa.
- Geroratzea bularreko minbiziaren inguruko azterketa batean. Minbizi horrek metastasia eragina zuen beste organo batzuetan.

D) Eskatu bai baina jaso ez den arreta espezializatuari dagokionez:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ustez ez betetzea kexa-egileak pairatzen duen gaixotasun larriaren jarraipenerako ezarrita dauden protokoloak.
- Errehabilitaziorako aurreikusitako hitzordu bat aurreratzeko eskaria, kexa-egileak dauzkan bizkarreko min handiak direla eta.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kexa-egileari ez egitea hark eskatzen dituen ebakuntza kirurgiko batzuk.
- Geroratzea Toledoko Paraplegikoen Ospitalean artatua izateko. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak deribatu du hara.
- Laguntza bidezko Ugalketarako Unitatean artatua izateko eskubidea galtzea, zerbitzu horrek zenbait minutu lehenago hitzordua emateko eginiko telefono-dei bati ezin erantzuteagatik.
- Valentziako ospitale batean larrialdi kasu batean ez artatzea.

E) Jasotako arreta klinikoari dagokionez eta harekiko desadostasuna dela eta:

- Kexa-egilea ados ez egotea bere amari eman dioten arreta medikoarekin eta gai hori dela-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkeztutako erreklamazio eta idazkiei ez erantzutea.
- Desadostasuna emandako arreta medikoarekin, eta sendagilez aldatzeko eskaria.
- Adingabe baten diagnosi medikoan tronpatzea, sendagileek gurasoek esandakoak ez entzuteagatik.
- Akufeno bat eragin zion akats medikoa, eta gero audifono bat erosteko laguntza medikoa ukatzea.
- Desadostasuna pediatriako larrialdi zerbitzuan emandako laguntzarekin, eta ez erantzutea Erien Arazoetarako Zerbitzuan aurkeztutako erreklamazioari.
- Ados eze egitea zenbait traumatologok 1994tik emandako arretarekin.
- Osasunbide—Nafarroako Osasun Zerbitzuak arreta mediko eskasa ematea, kexa-egileak behin eta berriz izaten dituen sinusitisak direla eta.
- Ados ez egotea familiako medikoak emandako arretarekin, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez erantzutea osasun etxean aurkeztutako erreklamazioari.
- Nafarroako Ospitalean ingresatutako adineko pertsona bati langile sanitarioek eta sozialek emandako tratua eta arreta sozial eta asistentzial eskasa.
- Desadostasuna ospitaleko senda-agiriarekin, atera eta bi egunen buruan berriz ingresatu behar izan baitu.
- Ados ez egotea otorrinolaringologia zerbitzuan jasotako informazioarekin, ebakuntza kirurgiko baten balizko arriskuei dagokienez.
- Ados ez egotea Ubarmin Klinikian emandako arretarekin, blokeo epidural bat egitearen kariatara.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak konponbide egokirik ez ematea pairatzen duen osasun arazorako.
- Gaixotasun baten diagnosian arreta sanitario eskasa ematea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixotasun baten diagnostia berandu egitea.

- Buztintxuriko buru osasuneko etxean eginiko txosten psikiatrikoarekin ados ez egotea.
- Gaixo onkologiko baten kasuan, ebakuntza kirurgikoa egitearen arriskuari eta beharrari buruzko informazio eskasa ematea.

F) In vitro ernalketari dagokionez:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak sexu bereko kideek osatutako bikoteei “in vitro” ernalketaren osasun prestazioa ukatzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea in vitro ernalketa egiteari, ezarpenaren aurreko diagnosi genetikoa edukita.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak pertsona bati “in vitro” ernalketaren osasun prestazioa ukatzea, bikotekiderik ez edukitzeagatik.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lehendik seme-alaba bat daukaten bikoteei “in vitro” ugalketaren osasun prestazioa ukatzea.

G) Osasun prestazioei eta gastuak itzultzeari dagokienez:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez berritzea Unibertsitate Klinikarekiko lankidetzak-akordioa. Izan ere, kexa-egilea klinika horretara deribatu izan dute azken 37 urteetan, osasun arazo ugari dituelako.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezezkoa ematea oxigenoko bizkar-zorro bat emateari.
- Osasun Departamentuak erkidego terapeutiko baten sartzeko laguntza ekonomikoa ukatzea.
- Desadostasuna Donostiako ospitale batean dagoen gaixo bat San Juan de Dios ospitaleko Zainketa Aringarrietarako Unitatera eramateko exijitzen diren baldintzekin, zeren eta eskatzen baita gaixoa Nafarroan errolatuta egotea, dagokion osasun txartela izatea eta jasotzen duen erretiro-pentsioa Nafarroan helbidea duen banku-entitate batean ingresatzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixo bat ez deribatzea Nafarroako Unibertsitate Klinikara.
- Desadostasuna Italiako osasun zerbitzuek eginiko ordainketa-eskariarekin, Italian 2009an emandako arreta batengatik, Europako osasun txartela edukita ere.

H) Koordainketa farmazeutikoari eta prestazio farmazeutikoei dagokienez:

- Sendagaiak erosteko ekarpen-kode okerra esleitzea: 2 kexa.
- Gaixo kroniko bat ados ez egotea behar dituen sendagaien prezioetik ordaindu behar duen portzentajearekin.
- Ados ez egotea sendagaien prezioa aurreratuta behar izatearekin, koordainketa farmazeutikoaren sistema berrian.
- 2. mailako graduko mendetasun larria duen pertsona batek, % 78ko ezgaitasuna duenak, zailtasunak izatea errezetatzen dizkioten sendagaiak doan eskuratzeko.
- Soilik pentsio bat jasotzen duten pentsiodunen bikote bat ados ez egotea koordainketa farmazeutikoaren sistema berriarekin, gehieneko tope bera aplikatzen baitzaie onuradunari eta asegurdunari.
- Espainian legezko erresidentziarik ez duen herritar batek ezin ordaintzea hartu behar dituen sendagaiak, koordainketa farmazeutikoak indarra hartu ondoren.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak farmazia bateko titularrari ez ordaintzea bisatutako errezeta batzuk.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak sendagaien prezioaren % 40 kobratzea garuneko perlesia izan, % 90eko ezgaitasun gradua aitortua duen eta judizialki ezgaitua dagoen pertsona bati.

I) Txosten medikoak eskuratzeko eskubideei eta datu pertsonalen babesari dagokienez:

- Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin, "Kolon-uzkietako Minbiziari Aurrea Hartzea" leloa inprimatzeagatik herritarrei igorritako gutunazaletan.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatu zioten psikiatreek bere datu pertsonalen tratamenduan ustezko irregulartasunak egitea.
- Desadostasuna Nafarroako Odol Bankuan odola ematen den bakoitzean bete behar izaten den inprimaki eta galde-sortak biltzen dituen galdera batzuekin, ustez Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legea urratzen dutelako.
- 1975ean, Iruñean kokatuta zegoen eta aspaldi itxi zen osasun zentro pribatu batean izandako erditze bati buruzko informazioa eskuratzeko eskaria.
- Traumatologia Zerbitzuak kexa-egileari ez ematea epaiketa batean aurkezteko beharrezko duen txosten medikoa.

2.7.19. Gizarte segurantza

21 izan ziren Gizarte Segurantzari buruzko kexak, 2011n baino gehiago, orduan 18 aurkeztu baitziren. Kexa horiek guztizkoaren % 1,62 egiten dute.

Honakoak izan dira kexa horiek eragin dituzten arrazoiak:

A) Pentsioei eta prestazioei dagokienez:

- Kexa-egileak jasotzen zuen kotizazio gabeko pentsioa azkentzea.
- Eskatutako erretiro pentsioa ukatzea, kotizaziorako eskatzen den gutxienerako epea ez betetzeagatik.
- Erretiro partzialaren prestazio ekonomikoa ukatzea, kexa-egilearen kontratuaren eta erreleboa hartzen duen pertsonaren kontratuaren artean kategoria-korrespondentziarik ez dagoelako.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak adopzio bidezko aitatasuneko prestazioa ustez ukatzea, amatasun subsidiarako epea iragan ondoren aurkezteagatik.
- Geroratzea Frantziako erretiro-pentsio bat izapidetzerakoan.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ezezkua ematea zahartzarako eta elbarritasuneko nahitaezko aseguru pentsioa emateari, exijitzen den gutxienerako kotizaziora ez iristeagatik.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ez ematea ezgaitasun iraunkorrerako prestazioa, kotizazioen ordainketan egunean ez egoteagatik.
- Ados ez egotea bere pentsioari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptua dela eta, aplikatzekoa zaion atxikipena handitzearekin, otsailaren 14ko 2/2012 Foru Legea aplikatzearen ondorioz. Izan ere, lege horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezarri eta zenbait atxikipen eta konturako diru-sarrera aldatzen ditu.
- Geroratzea erretiroagatik prestazio ekonomikorako eskubideaz baliatzeko eskaria ebazten, Espainiaren eta Venezuelaren arteko Alde Biko Ituna aplikatuta.
- Gizarte Segurantzaren Nafarroako Zuzendaritza Probintzialaren akatsa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta alarguntasun pentsioan kexa-egileari eginiko atxikipenean.
- Ezgaitasuna duen pertsona bat Gizarte Segurantzaren sisteman onuradun gisa sartzeko zailtasunak.

B) Ezgaitasunak aitortzeari dagokionez:

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ez aitortzea kexa-egilearen ezgaitasun iraunkorra: 2 kexa.
- Mutua batek eta Gizarte Segurantzak izandako jokabidea, istripu profesional baten tratamendu administratibo eta sanitarioari dagokienez.
- Gizarte Segurantzaren sendagile inspektore batek eginiko txostena, lanerako ezintasuna baloratzeko prozesu batean.
- Ezgaitasun iraunkorraren aitortzea ofizioz aldatzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak berriz eritzearen ondoriozko aldi baterako ezgaitasunaren baja bat baliogabetzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak behin betiko baja baterako emandako data.

C) Ordainketei eta itzulketei dagokienez:

- Aitortutako pentsioan eginiko kenkariak, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta organo judizialen bahituren ondorioz.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak jasotzen duen gizarteratze errenta bahitzea.
- Gizarte Segurantzarekin hartutako zor bati interesak aplikatzea.

2.7.20. Zerbitzu publikoak eta administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.

Batera aurkeztu ditugun bi arlo hauetan, 19 kexa aurkeztu ziren; 2011n, berriz, 29 erregistratu ziren. Kexen guztizkoan % 1,46 egiten dute.

Honakoak izan ziren kexak aurkezteko arrazoiak:

A) Zerbitzu publikoei dagokienez:

- Aratzuri herriko argiteria publikoan dauden eskasiak eta matxuratutako argi puntuak berrezartzeko berandu jardutea eta behar beste ez egitea.
- Erriberako Mankomunitateak ez aldatzea kexa-egilearen etxebizitzaren fatxadan kokatuta dauden zaborrentzako edukiontzi batzuen kokapena.
- Montejurrako Mankomunitateak etxebizitza baten ur hornidurako zerbitzua gaizki ematea.

- Ados ez egotea Ziaurrizko Kontzejuak (Odieta) ur beltzak saneatzeko kanona kobratzeko moduarekin, ur gutxien kontsumitzen dutenak kaltetzen dituelako.
- Eskualdeko hiri garraioan, irailaren 26ko greba-eguna dela eta, gutxieneko zerbitzu gehiegi ezartzea.
- Garraio publiko kolektiboaren tarifak proportziorik gabe handitu izatea azken hiru urtetan, bidaiarien garraio erregular eta diskrezionalarekin alderatuta.
- Iruña-Donostia lineako autobus bidezko garraio zerbitzuaren arazoak.
- Gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona ezgaitu batek zailtasunak izatea Iruñeko eskualdeko garraio publikoa erabiltzeko.
- Miranda Argako posta zerbitzuaren banaketak okerrera egitea, funtsean postariaren lanpostua kendu delako. Miranda Argako udalak aurkeztutako kexa.
- Desadostasuna Posta Zerbitzuaren jarduketarekin, Amerikako Estatu Batuetatik etorri eta itzulia izan zen bidalketa baten kasuan.
- Iruñeko Sanduzelai auzoa eta Orkoi herria batzeko oinezkoentzako pasabiderik ez egotea.
- Tuterako Udalaren eta argiteria publikoaren, semaforoaren eta udal eraikinen berokuntza-instalazioen zerbitzuaren esleipena hartua den enpresaren arteko desadostasunak.
- Kexa-egilearen semeari ez ematea Autopistas de Navarraren (AUDENASA) txartela, kexa-egileak ustez hartua duen zor batengatik.
- Desadostasuna Autopistas de Navarra S.A.k (AUDENASA) igorritako fakturekin, kexa-egileari ez baitzizkioten egin orain arte egiten zizkioten deskontuak.
- Desadostasuna Lesakan zenbait bizilagunek bide publikoa okupatzearekin eta zenbait lursail direla eta Lurralde Aberastasunaren Erregistroan ageri den mugaketa grafikoarekin.
- Kexa-egilearen etxebizitza eta Doneztebeko herrigunea lotzen dituen landa bidea ez mantentzea.

B) Administrazio publikoen ondare-erantzukizunari dagokionez:

- Esteribarko udalak ezestea Ollokiko jaietan zezensuzkoak eragindako kalteengatik ondare-erantzukizunaren erreklamazioa.

- Kexa-egilearen ibilgailuan izandako kalteak, Barañaingo errepede baten egoera txarraren ondorioz.
- Defentsa Ministerioari eskatutako konpentsazio-pentsio bat ukatzea, 1980. urtea baino lehen, soldaduska egiten ari zen bitartean, gertatutako egitate batzuegatik. Izan ere, egitate horiek orain daukan gaixotasuna eragin zuten.

2.7.21. Lana eta langabezia.

Arlo honetan, 24 kexa aurkeztu ziren. Joan den urtean, 11 izan ziren. Guztizkoan % 1,85 egiten dute.

Logikoa denez, kexa horietatik gehienak langabeziarekin daude lotuta.

Honakoak izan ziren kexetan azaldutako egitateak:

A) Langabezia prestazioei dagokienez:

- Desadostasuna langabezia prestazioa azkentzeko eta ordaintzeko prozedurarekin, atzerrira joan delako.
- 52 urtetik gorako pertsonentzako subsidioa ez ordaintzea, zeren eta kexa-egileari ofizioz eman baitzitzaion baja prestazioan, aurrez baja hori jakinarazi gabe.
- Langabeziarengatiko subsidioa jasotzen atzeratzea.
- Langabeziarengatiko subsidioaren prestazioa azkentzea hamabost egun baino gehiagorako atzerrira egindako bidaiengatik, prestazioa hartzen zuenak hori enplegu-bulegoari aurrez ez komunikatzeagatik.
- Langabeziarengatiko subsidioa ukatzea banku-konturik ez edukitzeagatik.
- 52 urtetik gorako langileentzako subsidioa itzultzeko exijitzea, haren aitopenean izandako akats baten ondorioz.
- Gizarteratzeko errenta aktiboa bertan behera uztea, kexa-egileak enplegu-eskatzailearen kartila ez betetzeagatik.
- Birkualifikazio Profesionalerako Programaren (PREPARA) diru-laguntzaren ordainketan atzeratzea.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak langabeziarengatiko subsidioa dela-eta bidegabeki jasotako zenbateko batzuk itzultzeko errekerimendua egitea, onuradunak jada 65 urte bete baititu.

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak langabeziarengatiko subsidioa dela-eta bidegabeki jasotako zenbateko batzuk itzultzeko errekerimendua egitea, onuradunak lanbide areko gutxieneko soldataren % 75etik gorako diru-sarrerak eskuratu dituelako, Nafarroako Gobernuak etxebizitza zaharberritzeko eman zion diru-laguntza bat kontatuta.
- Gizarteratzerako errenta aktiboaren programatik kanpo uztea, onuraduna enplegu zerbitzu publikoetan agertu ez delako, horretarako hitzordua jaso ez zuelako.

B) Beste batzuk:

- Lan izaerako desadostasunak lan egiten duen enpresa pribatuarekin. Enpresa hori ikastetxe publiko bateko jantokia garbitzeaz arduratzen da: 3 kexa.
 - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu-eskaintzen hartzailea izateko baldintzak aldatu izatea, eta, horrenbestez, Nafarroan erroldatuta egon dadila exijitzea.
 - Pairatzen duen gaixotasun profesional baterako tratamendu eskaria Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak izapidetu izatea.
 - Etxeko langilearen Gizarte Segurantzarako enpresa-kotizazioan % 20ko kenkaria ezin aplikatzea kontingentzia komunengatik, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatu baitzen.
 - Itzulitako emigrantearen izaerari buruzko ziurtagiria ematen atzeratzea.
 - Krisi egoeran dauden enpresentzako laguntza ezin eskatzea, berantiarren zerrenda batean egoteagatik.
 - Ados ez egotea enpresak lan-egutegiari buruzko informazioz ez emateagatik aurkeztua zuen salaketa bat dela-eta Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak egin duen izapidetzearekin.
 - Desadostasuna eraikuntzaren arloan atzerritarrak kontratatzearekin, pertsona nazionalen artean dagoen langabezia-tasa handia kontuan izanda.
 - Estatuko enplegu bulegoetan hitzordua aurrez eskatzeko doako modurik ez egotea.
 - Nafarroako Gobernuak kontratatutako enpresa bateko langileei soldatak ez ordaintzea.
 - Desadostasuna Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabetuentzat sustatutako prestakuntza-ikastaro baterako erabili duen hautapen prozedurarekin.

2.7.22. Trafikoa

Arlo honetan, 28 kexa aurkeztu ziren 2012an; aurreko urtean, berriz, 43 izan ziren. % 2,16 egiten duten guztizkoan.

Kexetan honako egitateak azaldu ziren:

A) Trafikoko arau-hausteei dagokienez:

- Trafikoaren arloa dela-eta ezarritako zehapenekin ados ez egotea: 7 kexa.
- Ados ez egotea trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko arau-hausteengatik zehapen administratiboak ezartzeko hasitako eta izapidetutako zehapen-prozedurekin: 6 kexa.
- Desadostasuna udal garabiak ibilgailua eramatearekin: 4 kexa.
- Trafikoko eta bide-segurtasunaren arloko araudiaren aurkako arau-hausteengatik zehapenak betearazteko prozedurekin ados ez egotea: 3 kexa.
- Desadostasuna bide-berreziketako eta -sentsibilizazioko ikastaro bat egin behar izatearekin, gidabaimena kentzeko zigor penal bat bete eta ondoren.

B) Ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-plazak direla eta:

- Iruñeko Udalak ezezkoa ematea ezgaituentzako aparkaleku-plaza baten eskariari.
- Leitzako Udalak ezezkoa ematea ezgaituentzako aparkaleku-txartel baten eskariari.

C) Trafikoaren udal antolaketari dagokionez:

- Erripagaina auzoko kale batetik zirkulatzen duten ibilgailuen gehiegizko abiadura.
- Desadostasuna Villatuertako Udalaren zenbait erabakirekin, herriko trafikoa antolatzeari dagokionez.
- Ibi iraunkorren seinaleak jartzea Avilako El Barraco herriko zenbait higiezinetakotxabe edo garajeetan, nahitaezkoa den udal baimena eduki gabe.

D) Gidabaimenari dagokionez:

- Gidabaimena berritzeko egiten diren proba medikoak nahikoak ez izatea.
- Nafarroako Trafikoko Probintziako Buruzagitzak ez ematea senarraren gidabaimenak indarraldia galdu izateari buruzko espedientearen kopia osoa.

2.7.23. Hirigintza

Arlo honetan 21 kexa aurkeztu ziren, 2011n baino gutxiago, orduan 32 izan baitziren. % 1,62 egiten dute kexen guztizkoan.

Kexak honako arrazoiei buruzkoak izan ziren:

A) Hirigintza planeamenduari dagokionez:

- Kexa-egilearen jabetzapeko lursail bat berandu sartzea Corellako Udalaren Hirigintzako Plan Orokorren aldaketa puntual bat egin eta onesteko prozeduran, eta hartara babesgabetasuna pairatu izateko aukera egotea, zeren eta interesdunak ez baitzuen jakin bere lursaila prozedura horretan sartu zela, eta ezin izan zituen, horrenbestez bere interesak defendatu ez udal plan orokorraren aldaketa puntualean, ez behin betiko onespeneren unean.
- Legardako alkateak eginiko kontsulta, jakite aldera ea Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuko Arkitektura Ondarearen Atalak eginiko errekerimenduak, udalaren plan orokorraren behin betiko onespenerari buruzkoak, udalaren eskumenak inbaditzen ote dituen eta udal autonomia urratzen ote duen.
- Lizarrako lursail baten katastro-azalera gutxitzea. Lursail hori gero birzatatze proiektu batean sartu zen.
- Artaxoako lursail bat, hirigintzaren ikuspuntutik, eraikuntza libreko arlo pribatu gisa kalifikatzea, hiri-lursail gisa kalifikatua izan gabe, sarbide zuzenik eta hiri-sarerik ez edukitzeagatik.

B) Hirigintza kudeaketari dagokionez:

- Arantzadiko meandroko hirigintza-plangintzarako proiektua gerarazteko eskaria, eta espazio hori dagoen bezala kontserbatzeko eskaria. Sei pertsonak sustatu dute kexa hau.
- Desadostasuna Carcastilloko Udalak igorritako urbanizazio-kuotekin.
- Ados ez egotea Tuterako Udalaren birzatatze-prozesu baten ondorioz esleitu zaion lursailarekin.
- Nafarroan ezinezkoa izatea obretarako lizentzia bat ematea oinarritzko proiektu bat aurkezte hutsarekin. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Nafarroako Ordezkaritzak sustatu du kexa.
- Eguesibarko Udalak ez erantzutea kalte-ordainen eskari bati. Izan ere, kexa-egileari bere jabetzapeko lursail baten zati bat kendu diote legez ezarritako prozedura bete gabe.

- Desadostasuna Puiuko Udalak lursail batean eginiko urbanizazio obrekin, ez baitute betetzen lursail horren urbanizaziorako udal planeko araudi teknikoa.
- Iruñeko Arrosadia auzoaren urbanizazioaren egoera txarra.

C) Legezketasunaren eta hirigintza-diziplinaren babesa dela eta:

- Leitzako Udalak ezer ez egitea eraikin bateko etxabeetan dauden lokalen abandonu egoeraren aurrean. Etxebizitza batean segurtasun eza eta osasungarritasun arazoak sortzen ditu.
- Noaingo Udalak ezarritako hertsapen-isun desproporzionatuak, hirigintzako arau-hauste batengatik.
- Astitzen familia bakarreko etxebizitza bat egiteko hirigintza lizentziaren eskaria ez izapidetzea eta ez ebaztea.
- Ados ez egotea Zangozako Udalak etxebizitza bat eraistearekin. Etxebizitza hori aurri-egoeran zegoen, baina jabeari ez zitzaion aurrez ezer jakinarazi.
- Lizarrako Udalak eginiko errekerimendua, kexa-egilearen jabetzakoa ez den lursail bat garbitu dezan eta sastrakak ken ditzan.
- Bere jabetzapeko pisu bateko terraza batean kristalak ezin jartzea, bizilagunen erkidegoak hartutako erabakiaren ondorioz.
- Vianako etxabe baten legez kanpoko erabilera, etxebizitza gisa erabiltzen baita.
- Basaburuko Udalak ez izapidetzea kexa-egilearen obra-lizentziarako eskabideak.

D) Hirigintzaren arloko informazioari dagokionez:

- Lesakako Udalak ez erantzutea hirigintza-informazioa eskuratzeko eskari bati.
- Oltza Zendeako Udalak eginiko hirigintza-itunei buruzko informazio-eskariari ez erantzutea.

2.7.24. Euskara.

Euskarari dagokionez, 64 kexa aurkeztu ziren, 2012an aurkeztutako guztien % 4,93. 2011n, berriz, 69 kexa aurkeztu ziren.

Kexa guztietatik, 57 Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak aurkeztu zituen, eta beste 6 partikularrek aurkeztu zituzten.

Gehienak (43) eskualde mistoari buruzkoak dira. Ondotik eskualde euskaldunari buruzkoak (16) eta eskualde ez-euskaldunari buruzkoak (4) datoz.

Administrazioei erreparatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa 26 kexaren xedea izan zen. Honakoei zuzendu zitzaizkien: Sustapen Departamentua (6 kexa, funtsean, bide-sarearen errotulazioa dela eta); Lehendakaritza Departamentua (5 kexa); Osasun Departamentua (4 kexa, funtsean eskualde euskalduneari); Kultura Departamentua (3 kexa); Landa Garapeneko Departamentua (3 kexa); Hezkuntza Departamentua (3 kexa). Beste 23 kexa Iruñeko Udalari zuzendu zitzaizkion, funtsean harekiko ahozko harremanak soilik gaztelaniaz gauzatu ahal izateagatik, esku-orriak eta inprimakiak gaztelania hutsez egiteagatik eta gaztelania hutsez dauden errotulazioengatik. Beste 4 kexa Barañaingo Udalari zuzendu zitzaizkion, inprimakiak eta webgunea gaztelaniaz edukitzeagatik. Halaber, zenbait kexa aurkeztu ziren eremu euskalduneari euskaraz ez erabiltzeagatik: Erroibarko, Esteribarko, Altsasuko eta Arbizuko udalei, Sakanako Mankomunitateari eta Ihabarko kontzejuari buruzkoak izan ziren.

Honakoei buruzkoak izan ziren kexak:

- Administrazio publikoen inprimaki, esku-orri eta zabalkundeko materialak gaztelania hutsez argitaratzea: 27 kexa.
- Euskaraz egoitza eta bulego administratiboetan edo Administrazio Publikoko langileekin ahozko harremanetan ezin erabiltzeari buruzkoak, hala eskatu denean: 11 kexa.
- Hiri bide, hiri arteko bide eta eremu publikoetako egoitza eta seinaleztapenak gaztelania hutsez egoteari buruzkoak: 11 kexa.
- Administrazio publikoek herritarrei zerbitzuak euskaraz ez emateari buruzkoak, hizkuntza horretan artatuak izatea edo hizkuntza horretan erantzutea eskatzen dutenean: 10 kexa.
- Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuen hizkuntza profilak zehazteari buruzkoa izan zen, euskaraz ez baita kontuan hartu ez merezimendu gisa, ez baldintza gisa ere.
- Iruñeko Udalaren haur eskoletan euskarazko toki publiko gutxi egotea.
- D ereduko derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasmaita bateko Gaztelania eta Literaturako irakasle eta tutore zenaren orde, euskaraz ez dakien pertsona bat jartzea.
- Villatuertako ikastetxe publikoan D eredurik ez egotea.
- Desadostasuna euskaraz jakiteko baldintza exijitzearekin Sakanako Mankomunitateko lanpostu batera (kamioi-gidaria) sartzeko.

2.7.25. Etxebizitza

Arlo honetan, 30 kexa aurkeztu ziren; aurreko urtean baino zazpi gutxiago, alegia. Kexa horiek guztizkoaren % 2,31 egiten dute.

Honakoak izan ziren kexa horiek eragin zituzten egitateak:

A) Etxebizitza bat eskuratzeari dagokionez:

- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu nahi izatea.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat, alokairu araubidekoa, ukatzea, aurrez Administrazioak hura eskaini arren.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat ezin eskuratzeko, gaur egun, senarrarekin batera etxebizitza baten jabea izateagatik. Banantzeko izapideak egiten ari dira.

B) Errentamendurako laguntza publikoei dagokienez:

- Estatuko Administrazioa atzeratzea gazteen emantzipaziorako oinarrizko errentaren ordainketan: 5 kexa.
- Sustapen Departamentuak kentzea generoko indarkeriaren biktima izateagatik bizi deneko etxebizitza babestua errentan edukitzeko zeukan diru-laguntza, eta gaur egun exijitzen zaion errentaren ordainketari ezin aurre egitea.
- Sustapen Departamentuak gutxitzea kexa-egilea bizi deneko etxebizitza babestuaren errentamendurako diru-laguntza, zeren eta kontuan hartzen baititu 2010eko diru-sarrerak, zeinak ez baitatoz bat egungo egoerarekin.
- Etxebizitza babestu bat errentan hartzeko diru-laguntza ukatzea, bikotekide ohiarekin batera jabea zen etxebizitzaren salmentatik heldu diren diru-sarrera batzuk eskuratu dituelako.
- Etxebizitza babestu bat errentan hartzeko diru-laguntza ukatzea, gutxieneko diru-sarearen baldintza ez betetzeagatik.
- Etxebizitza babestu bat errentan hartzeko diru-laguntza ukatzea, bikotekide ohiarekin batera jabetzan zeukan etxebizitzaren erdia dohaintzan eman duelako.
- Etxebizitza babestu bat errentan hartzeko diru-laguntza kentzea, Zaragozan dagoen etxebizitza baten zati alikuotaren jabea izateagatik.
- Etxebizitza babestu bat errentan hartzeko diru-laguntza kentzea, beste etxebizitza baten titularkidea izateagatik. Halere, etxebizitza horretaz ezin da baliatu epai judizial baten bidez bere bikotekideari esleitu zitzaiolako.

- Desadostasuna babes ofizialeko etxebizitza baten errentamendu-kontratua berritzeko kontuan hartzen den errenta-aitorpenarekin, eta Administrazioak lehendik daukan dokumentazioa berriz ere aurkeztu behar izatearekin.

C) Etxebizitzak erosteko edo zaharberritzeko laguntza publikoei dagokienez:

- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko diru-laguntza ukatzea, zeren eta zenbait diru-sarrera egozten baitzaizkio, bere senar ohiari esleitu zitzaiolako partekatzen zuten etxebizitza.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko diru-laguntza galtzea, Nasuvinsako langileek ahoz emandako informazio okerraren ondorioz.
- Kexa-egilearen iritziz, Lizarra aldeko Zaharberritzetarako eta Etxebizitzarako Bulegoak jokabide pasibo eta axolagabea izatea, eta horren ondorioz etxebizitza zaharberritzeko diru-laguntza bat ezin eskuratzeari.

D) Etxebizitzak eta haien eranskinak salerosteari dagokienez:

- Babes ofizialeko etxebizitzaren promotore batek ezezkia ematea etxebizitza babestu bat salerosteko kontratua bertan behera uzteari, zeren eta uste baitu ez dagoela eroslearen ukoa justifikatzen duen arrazoirik.
- Etxebizitza babestu bat salerosteko kontratu bat bertan behera uztea eta promotoreak ordaindutako zenbatekoak ez itzultzea.
- 2009an erosi zuen babes ofizialeko etxebizitzari atxikitako garaje plazaren beste balorazio bat egiteko eskaria; izan ere, gaur egun, eraikineko beste plaza batzuk merkatu libreran atera dira, eta % 63 merkeagoak dira.

E) Eraikuntza-akatsak:

- Nasuvinsak ezezkia ematea bere jabetzapeko objektuetan pairatutako kalteengatik ordaina emateari, bere babes ofizialeko etxebizitzaren trastelekuan izaten den hezetasunaren ondorioz.
- Nasuvinsak ezezkia ematea kalte-ordainak emateari bere babes ofizialeko etxebizitzan hezetasunaren ondorioz izandako kalteengatik.
- Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak ez erantzutea babes ofizialeko etxebizitza bateko akatsengatik aurkeztutako erreklamazio eskari bati.

F) Beste batzuk:

- Bizilagunen erkidego baten desadostasuna etxebizitza horiek birlojamendu jarduketa batzuen bitartez eskuratu zituzten jabeek edo errentariek kuotak ez ordaintzearekin.
- Etxebizitza babestu bat deskalifikatzeko eskaria ez ebaztea.
- Desadostasuna bere bizilagunen erkidegoari diru-laguntza bat ematearekin igogailu bat jartzeko, zeren eta aurkeztutako obra-proiektua, kexa-egilearen iritiz, legez kanpokoak baita eta bere jabetzarako eskubidea larriki kaltetzen baitu.
- Bizi deneko babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendu-kontratua ezin berritzea, abalik ematen ez diotelako.
- Errentari batek ez ordaintzea bere jabetzapeko etxebizitza baten alokairuari dagozkion errentak.

2.7.26. Beste batzuk (eduki juridiko-pribatuko kexak).

- Erretirodunen eta pentsiodunen elkarte batek ez betetzea erretirodunen klub bateko taberna errentan emateko kontratua.
- Kexa-egilearen emazte ohiak eragiketa finantzario batzuk kontratatzea kexa-egilearen baimenik gabe eta haren sinadura faltsifikatuz.

3. KAPITULUAK

OFIZIOZKO JARDUERAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



3

OFIZIOZKO JARDUERAK

3.1. DATU OROKORRAK.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak (18.1 artikulua) ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari ofiziozko jarduketak egiteko, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzera bideratuak, antolamendu juridikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak bermatze aldera (1.1 artikulua) eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetze aldera (16. artikulua). Ofiziozko jarduketa horiei amaiera eman dakieke, egokitzat jotzen bada, Nafarroako administrazio publikoei zuzendutako iradokizun, legezko betebeharren gogorarazpen edo gomendioak eginez, edo bestelako erakunde publikoei -Nafarroako Parlamentuari (33. eta 34. artikulua) edo Espainiako Arartekoari (14.2 eta 39. artikulua) iradokizun edo eskariak eginez.

2012. urtean, erakundeak 35 jarduketa abiarazi zituen ofizioz.

7 jarduketatan, aldaketa normatiboak, nagusiki legeak, egiteko zenbait iradokizun egin ziren. Beste 23tan, Administrazioaren jarduketa ikuskatu zen. Beste jarduketa batean, Espainiako Arartekoari eskatu zitzaion azterlan bat egin zezan onetsitako lege izaerako xedapen normatibo baten konstituzionaltasunari buruz. Eta beste batean, zerbitzu publikoak hobetzeko iradokizun bat egin zen.

Guztira, 49 erabaki hartu ziren ofiziozko 22 jarduketatan, legezko betebeharren gogorarazpenak, iradokizunak eta gomendioak kontuan hartuta. Logikoa den bezala, ofiziozko jarduketa orok ez du gomendio, iradokizun edo legezko betebeharren gogorarazpenik ekartzen, zeren eta emaitza jarduketaren beraren izaeraren, edukiaren edo xedearen arabera izaten baita.

Hartara, honakoak egin ziren: arau-xedapenak aldatzeko 19 iradokizun; administrazio egintzak sortzeko jarraitzen diren irizpideak aldatzeko edo konstituzio-eskubideetarako hobeak direla jotzen diren irizpide berriak sartzeko 22 iradokizun; legezko betebeharren 7 gogorarazpen; eta gomendio bat.

Administrazio publiko edo erakunde hartzaileek erabaki horiek onartzeari dagokionez, administrazio edo erakunde horiek haiei buruzko iritzia eman duten kasuetan, ikusten da 11 ofiziozko jarduketatan erakunde honek eginiko iradokizunak onartu dira, eta bost jarduketatan, berriz, kasuko administrazio edo erakundeek ez onartzeari buruzko erabakia hartu dute. Hartara, kalkula daiteke ofiziozko jarduketan onarpen maila % 68,75ekoa izan dela. Jarduketetatik lau oraindik ere amaitu gabe zeuden txosten hau itxeko garaian.

Egindako ofiziozko jarduketek honako **arloak** izan zituzten xede (handitik txikira ordenatuta aipatzen ditugu):

- Gizarte gaiak: 4 (gizarteratze errenta, berdintasuna, mendetasuna eta lana eta familia bateragarri egitea).
- Foru Ogasuna: 4 (aurrekontu-informazioa, BEZa -bi aldiz- eta PFEZa).
- Osasuna: 4 (muga-eremuetako gaixo nafarren arreta, etorkinen arreta -bi aldiz- eta koordainketa farmazeutikoa).
- Kontsumoa: 3 (partaidetza lehenetsiak eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko prozedurak -bi aldiz-).
- Funtzio publikoa: 3 (aldi baterako ezintasuna, boluntario-lanaren bateragarritasuna eta aparteko soldataren etetea).
- Haurrak: 3 (adopzio nazionala, adingabe baten abandonua eta haurren egoera).
- Espetxe administrazioa: 2 (arreta psikiatrikoa eta buru-gaixotasuna duten pertsonek tratamendua).
- Euskara: 2 (osasun zentroetako arreta eta bide-seinaleen errotulazioa).
- Toki Ogasuna: 2 (zaborrengatiko tasak eta gainbalioen gaineko zergak).
- Herritarren eskubideen bermea: 2 (eskariei erantzuteko betebeharrak eta herritarren errekurtsioak).
- Etxebizitza: 2 (bitartekaritza hipotekarioa eta etxegabetzeak).
- Giza eskubideak: 1.
- Atzerritarrak: 2 (bisatua ez ematea).

- Justizia: 1 (tasa judizialak).
- Gazteak: 1 (datu pertsonalen babesa).
- Gizarte Segurantzak: 1 (prestazio bat eta ezgaitasuna duen pertsona batentzako ikasketa-beka bat bateraezinak izatea).

Honakoa da Arartekoak bere kabuz eginiko jarduketan laburpena, **Nafarroako administrazio publikoen arabera** sailkatuta:

I. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: ofizioz eginiko 23 jarduketa zuzendu zaizkio.

- Gizarte Politiketako Departamentua: 7.
- Osasun Departamentua: 6.
- Sustapen eta Etxebizitza Departamentua: 3.
- Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua: 2.
- Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua. Justizia eta Barne arloa: 2.
- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 2.
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua: 2.
- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua: 2.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 1.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua: 1.
- Hezkuntza Departamentua: 1.

II. Espainiako Arartekoa: ofiziozko 7 jarduketa zuzendu zaizkio; agerian uzten du horrek bi erakundeen arteko lankidetzak maila egokia.

III. Toki entitateak: ofizioz eginiko 3 jarduketa zuzendu zaizkie.

- Erriberako Mankomunitatea: 2.
- Beste toki entitate batzuk, zeinak hurrengo epigrafeko 10. zenbakian aipatzen baitira: 1.

IV. Nafarroako Parlamentua: ofizioz eginiko 2 jarduketa zuzendu zaizkio.

3.2. OFIZIOZKO JARDUKETA AIPAGARRIENAK.

Honakoak izan dira 2012an aurrera eraman diren jarduketa garrantzitsuenak:

3.2.1. Iruñeko espetxeko presoei ematen zaien arreta psikiatrikoa.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Espetxe administrazioa. Laguntza psikiatrikoa.
Osasunerako eskubidea babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak Osasun Departamentuari informazioa eskatu zion, jakiteko ea Iruñeko espetxean sendagile psikiatrarik ba ote dagoen destinataturik, presoei arreta emateko.

Osasuneko kontseilariak honakoa jakinarazi zuen:

“Osasun Departamentuaren eta Espetxe Administrazioaren ordezkarien arteko jarraipen batzordeak, 2009ko uztailaren 2an bildu zenak, planteatu zuen bi administrazioen arteko lankidetzaren eredu bat behar zela Iruñeko espetxean dauden eta buru-gaixotasuna duten pertsonak artatzeko.

Lankidetzaren akordio horren ondorioz, populazio horretarako tratamendu-programa bat prestatu zen. Programa hori honetan datza: Buru-osasunaren Sareko sendagile psikiatra bat atxikitzea Iruñeko espetxean askatasunik gabe dauden pertsonak artatzeko.

Honakoa da programaren egitura:

- 1) Astearen behin, lanaldi osorako, Donibaneko Buru-osasuneko Zentroko psikiatra bat espetxera joanen da lanera, zentro horretan dauden eta buru-nahasteren bat duten gaixoak ebaluatu, diagnostikatu, tratatu eta jarraitzeko.
- 2) Etengabeko koordinazioa espetxeko osasun langileekin, telefonoz eta posta elektronikoz.
- 3) Espetxearen eta Buru-osasunaren Sareko beste tresna batzuen arteko koordinazioa, espetxeratuen laguntza-premiekin hori eskatzen dutenean.
- 4) Agenda bidezko hitzorduak ematea eta laguntza-jarduera guztia historia kliniko informatizatuan erregistratzea. Lehenengo kontsultetarako ordu eta erdiko denbora ezarriko da eta errebisioetarako, berriz, ordu erdiko.

Hauek dira programaren jardueraren datuak:

1. 2009ko azaroan hasi zen.
2. Kontsulten informatizatzea 2010eko martxoan hasi zen.

3. 2011n zehar, urte horretako datu osoak baitaude, 79 gaixo artatu dira eta 169 bertaratze-kontsulta egin dira.
4. Drogamenpekotasuna duten presoei artatzeko programarekin koordinatzeko 34 jarduketa egin dira. Programa hori ere Buru-osasuneko Sareko profesionalak gauzatzen dute espetxean.
5. Programa honetan ez dago itxaron-zerrendarik. Horrek esan nahi du egiten den laguntza-jarduerak egoki betetzen dituela espetxeko beharrak”.

Informazio hori ikusita eta hura positiboki baloratu ondoren, jarduketa itxi zen.

3.2.2. Osasun etxeekin telefonoz euskaraz komunikatzeko aukera egotea.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Euskara. Hartu-emanak hizkuntza horretan egiteko esku-bidea babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak informazioa eskatu zion Osasun Departamentuari, jakiteko ea aukerarik ba ote dagoen osasun administraziara euskaraz jotzen duten herritarrekiko hartu-emanak hizkuntza horretan egiteko, hori nahi baldin badute; ezezkoan, ezintasun horren arrazoiak emateko eskatu zitzaion.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia Fundazioak aurrez azalduak zituen nolako zailtasunak aurkitzen dituzten eskualde euskalduneko herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko herritarrentzako arreta zerbitzuetan (zentralita, zitazioak, informazioa eta abar) telefono-arreta euskaraz jasotzeko.

Jada 2010. urtean, gai hori bera zela-eta aurkeztutako kexa batzuk izapidetzearen harira, Nafarroako Arartekoak Osasun Departamentuari gogorarazi zion eremu euskalduneko herritarrei zuzentzen zaizkien jakinarazpen eta komunikazio guztiak gaztelaniaz eta euskaraz idazteko legezko betebeharra dagoela, eta gomendatu zion euskarazko telefono-arreta berma ziezaien halakorik eskatzen zuten eremu horretako herritarrei.

2010eko uztailaren 21ean, Osasun Departamentuak jakitera eman zigun barneko prozedura bat bazegoela, zeinak bidea ematen baitzuen dei-egileari euskaraz erantzuteko komunikazioa eten gabe. Aipatzen zen prozedura hori abian jarria zuela Lehendakartzako Zuzendaritza Nagusiak urtebete baino gehiago lehenagotik, Nafarroako Gobernuko bulego eta zerbitzuen jarduera hobetzeko, Iruñeko eta eremu mistoko herritarren partaidetza- eta arreta-esparruari zegokienez.

Horri buruz, Osasun Departamentuak agertzera eman zuen asmoa zuela oinarrizko osasun laguntzako langileei gogorarazteko prozedura hori egon badagoela eta hartaz baliatzeko gomendatzeko, erakundeak egindako legezko betebeharren gogorarazpena aintzat hartuz.

2012 otsailaren 23an, Osasun Departamentuaren erantzuna jaso zen, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren herritarrentzako arreta zerbitzuetan euskarako telefono bidezko arreta zela eta (telefonogunea, deiak, informazioa, etab.).

Osasun kontseilariak informatu zuen ezen, 2010eko uztailaren 21ean esan zen bezala, euskararen inguruko araudia betetzen ari zela eskualde euskalduneko eta eskualde mistoko osasun zentroetan. Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariak langileei igorritako ohar bat gehitzen zuen, telefono arretarako prozedura abian jartzeari buruz. Hona ohar horren edukia:

“Gaia: Telefono deiak euskaraz erantzutea.

Lankide agurgarriak:

Gogorazi nahi dizuegu Lehendakartzaren Zuzendaritza Nagusiak zenbait jarduera abiarazi dituela Gobernuaren jarduna hobetzeko herritarren parte-hartzearen eta haiei ematen zaien arretaren arloetan.

Hala, telefono bidezko arreta hobetzeko, barruko telefono bidezko arreta prozedura martxan jarri zen. Hau da, Iruñean eta gainontzeko eremu mistoan kokatuta dauden Gobernuaren bulegoetan jasotako deiek euskara erabiltzen badute eta solaskideari ezin bazaio arretarik eman zuen zentroetan dauden baliabideen bidez, dei hori Erregistro Orokorreko eta Argibideetarako Bulegora birbideratuko da (848-427100 telefonora) eta bertan arreta eskainiko zaio.”

Informazio hori ikusita, ondorioztatu daiteke Osasun Departamentuak barruko prozedura bat abian jarri duela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Departamentuak deiak euskaraz erantzun ditzan komunikazioa eteteko beharrik gabe. Beraz, nire esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki nuen.

3.2.3. Ezgaitasunarengatiko prestazioak eta doktoretza-tesi bat egiteko ikasketa-beka bateraezinak izatea.

Hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Gaia: Gizarte Segurantzza. Familia prestazioetarako eskubidea babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko hedabideetan argitaratu zen albiste baten bidez jakin genuen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ikasle bati 11.150 euroko zenbatekoa erreklamatu ziola -kopuru hori, izan ere, zeukan ezgaitasunarengatik ordaindua zitzaion-. Bada, Gizarte Segurantzak erreklamazio hori egiten zion bateraezintzat jotzen zuelako prestazio hori doktoretza-tesia egiteko emandako ikerketa-beka batetik heldutako diru-sarrerara batzuekin.

Erakundeak ez zuen arrazoizkotzat jo estatu sozial baten esparruan eta botere publikoek ezgaitasuna duten pertsonen, konstituzio-eskubideak berdintasun errealeko eta efektiboko

baldintzetan goza ditzaten bermatzeko eman beharreko babes bereziaren esparruan, ikasle batek ezin bateratzea bere doktoretza-tesia amaitzeko beka bat eta ezgaitasun-egoerarengatiko prestazioa, eta, horrenbestez, horietako bati uko egin behar izatea.

Hori dela eta, Espainiako Arartekoarengana jo genuen, azter zezan ea jarduketaren bat egin zezakeen planteatutako sakoneko arazoari buruz. Izan ere, jotzen genuen zenbait prestazio ekonomiko publikoren bateraezintasunari buruzko arau-disfuntzio baten adierazgarria izan zitekeela egoera. Kasua bazen, hau bezalako kasuetarako araudian aldaketaren bat edo modulazioaren bat egiteko iradoki zezan eskatu genion.

Erakunde honek planteatu arren beste kasu batzuetan ere arau-disfuntzio bat gerta zitekeela, Espainiako Arartekoak adierazi zuen ezen, azaldutakoak ulertuta ere, egokitzat jotzen zuela momentuz ez hastea ikertzen administrazio publikoaren jarduketa, zeren eta gaia zela-eta erabaki judizial bat eman behar baitzen.

Ondoren, ikasleak auzia irabazi zuen.

3.2.4. Muga-eremuetan bizi diren gaixoei osasun-arreta ematea beren etxebizitzetatik hurbilen dauden osasun zentroetan, beste autonomia erkidego batekoak izanda ere.

Hartzaileak: Espainiako Arartekoa eta Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Osasun arretarako eskubidea babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakunde honek publikoki jakin zuen, lehenengo, Errioxako Osasun Zerbitzuak erabaki zuela Errioxarekin mugakideak diren Nafarroako herrietan -esate baterako, Vianan- bizi diren herritarrekin hartuak zituzten hitzordu eta kontsultak deuseztatzea, eta, bigarrenik, Bortzirietako eskualdeko gaixoak, tradizionalki Irunen edo Donostian artatzen zituztenak, orain Iruñera deribatzen ari zirela; horrek, izan ere, berarekin ekarri zuen Lesaka, Etxalar, Igantzi, Arantza eta Berako alkateek jendaurrean horri buruzko kezka azaltzea.

Erakunde honek jo zuen ezen, puntualki ukitutako autonomia erkidegoekin erdietsi eta gauza litezkeen akordioak ezertan kendu gabe, ezin zela alde batera utzi osasun laguntza ez dela lurralde jakin bateko eta autonomia erkidego jakin bateko tokiko arazo bat, baizik eta eragina duela autonomia erkidego guztietan beren lurralde mugakideekiko harremanari dagokionez, eta, horrenbestez, Osasun Sistema Nazionalean eragina duen gai bat ere badela. Hortik heldu da oso komenigarritzat jotzea ezen Lurralde arteko Kontseiluak, Osasun Sistema Nazionaleko organo gidaria den aldetik, arazoa azter zezala, eta, hurbiltasun geografikoko irizpideetan eta eremu mugakideetan bizi diren herritarrei osasun arreta ematerakoan efizientziaz jokatzearen irizpideetan oinarrituta, konponbide bat aurki zezala autonomia erkidego guztientzat.

Gure erakundeak Espainiako Arartekoarengana jo zuen, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroari iradoki ziezaion ezen, Lurralde arteko Kontseiluko lehendakari gisa, bultza zezala kontseiluan irizpide komun batzuk onartzea (bereziki, hurbiltasuneko irizpidea), eremu mugakideetako osasun laguntzari dagokionez.

Halaber, Osasun Departamentuari iradoki zitzaion Lurralde arteko Kontseiluaren hurrengo bileran aldeztu zezala kontseilu hori osatzen duten kide guztiek sistema komun bat erabakitzea, eremu mugakideetan bizi diren gaixoen osasun laguntzaren jarraitutasuna segurtatzeko haien etxebizitzetatik hurbilen dauden osasun zentroetan.

Espainiako Arartekoak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministeriora jo zuen, eta txosten bat eskatu zuen akordio batzuk hartzeko balizko aukerari buruz eta jarduteko proposamen egokiak izapidetzeari buruz, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren esparruan, zertarako-eta autonomia erkidegoetako eremu mugakideetan bizi diren herritarrei osasun laguntza ziurtatzeko irisgarritasun handieneko baldintzetan, hurbilen dauden baliabideak erabiliz, zein osasun administrazioari dagozkion alde batera utzita.

Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak, berriaz eginiko txosten batean, adierazi zuen "eremu mugakideetako gaixoen edo aldi baterako tokiz aldatu diren gaixoen arreta ziurtatzeko eta, aldi berean, autonomia erkidegoetako premia finantzariei erantzuteko, Departamentuak, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin lankidetzan, FOGA-Laguntza Bermatzeko Funtsa sortuko duela, Osasun Kohesiorako Funtsaren esparruan, inguruabar horiei aurre egin ahal izateko, Osasun Sistema Nazional osoan kohesioa eta ekitatea ziurtatzeko aldera". Gehitzen zuen, halaber, "jada hasiak direla Berme Funtsaren bideak, izapideak eta kudeaketa finkatzeko lanak, autonomia erkidego guztietako ordezkarien parte hartzearekin, eta espero zela denbora gutxian haren exekuzio perfektua finkaturik edukitzea, une horrexetan, izan ere, konponbidea emanen baitzaio azaldutako arazoari".

Aurrekoa kontuan hartuta, Espainiako Arartekoak amaiera eman zien bere jarduketei, baina adierazi zuen arreta berezia eskainiko zela Laguntza Bermatzeko Funtsaren egituraketari eta eraginkortasunari.

Proposamen hori hezurramitu zen apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan; izan ere, haren bidez, Laguntza Bermatzeko Funtsa sortzen da, adierazitako xedearekin. Horrekin, izan ere, konpondutzat eman zen gai hau eta ofiziozko jarduketa itxi zen.

3.2.5. "Partaidetza lehenetsiak" deitutakoak.

Hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Gaia: Kontsumoa. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak zenbait kontsulta eta kexa jaso zituen "partaidetza lehenetsiak" deitutakoei buruz. Herritarrek beren desadostasuna eta ezinegona adierazten zuten partaidetza lehenetsi horiek ezartzen zizkieten mugekin. Horietako guztietako elementu komuna zera da: ezarpenaren behin betiko izaerari buruzko informazio eza edo nahikoa ez den informazioa eta iruzur baten biktima sentitzen direla.

Erakundeak jakin zuten, Banku, Kutxa eta Aseguruetak Erabiltzaileen Elkartek publiko egin zuen informazio baten bitartez, gutxienez ere 10.000 nafarrek beren aurrezki guztiak edo haien zati bat erabilia zutela "partaidetza lehenetsi" horietan inbertitzeko. Elkartek adierazten zuen produktu hori ez zegoela babestua Gordailuen Bermerako Funtsaren bidez, eta ez zuela aukerarik eskaintzen inbertitutako dirua berreskuratzeko finantza-entitateek agindutako berehalakotasunarekin.

Produktu hori kontratatu zuten bezero askok adierazi zuten ez zituztela produktuaren ezaugarriak ezagutzen, zeren eta, azaltzen zutenaren arabera, finantza-entitateek ez baitzieten informaziorik eman "partaidetza lehenetsien" ezaugarriei buruz, ez eta haien arriskuei buruz ere.

Arazoak okerrera egin zuen lehenetsietako partaidetak kontratatu zituzten herritar asko adinekoak, erretiratuak eta pentsiodunak zirelako eta haien aurrezkiak -edo horien zati bat- partaidetza lehenetsiak eskuratzeko erabili zituztelako, errentagarritasun finkoa emanen zien arriskurik gabeko produktua zelakoan: epekako diru-sartze bat, errenta finko eta seguruarekin eta kapitala eta pilatutako interesa itzultzeko bermearekin.

Erakunde honek Espainiako Arartekoari ezagutzera eman zizkien salatutako jokabide hauek guztiak, zeinek pertsona ugariengan eragina baitzuten; aldi berean, iradoki genion azter zezala Balore Merkatuko Batzorde Nazionalera, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministeriora edo egokitzen jotzen zituen erakundeetara jotzea, behin betiko konponbideak aurkitze aldera, are konponbide normatiboak ere, beharrezkoak baziren, zertarako-eta partaidetza lehenetsietako inbertsio-egileek informazio egiazkoa eta osoa izateko finantza-produktu horri buruz eta, aukera horren alde egiten bazuten, beren inbertsio osoa berreskura zezaten, ezertan kendu gabe produktu horiek, guztiz edo zati batean, beste produktu batzuekin trukatzeko aukera eskaintzea, inbertsio-egileak horrelakorik nahi izanez gero. Hori guztia, ezertan kendu gabe produktu horretan fede onez inbertitutako pertsona askoren larritasun egoerari irtenbidea emateko aldekoagoan gertatzen diren bestelako konponbideak kendu gabe.

Espainiako Arartekoak informatu zuen ofiziozko ikerketa abiatua zuela Balore Merkatuko Batzorde Nazionalan, jakiteko ea arazo horren berri bazuten eta, halaber, arrazoi horrengatik aurkeztutako erreklamazioen kopurua eta haiei bilatutako konponbidea ezagutzen zuten. Era berean, egoera hau gertatzen jarraitzea saihesteko aurreikusitako neurrien informazioa eskatu genuen, ezagututa produktua nolako ondorio negatiboak eragiten ari zen bezeroengan.

Gero, Espainiako Arartekoak Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren txosten xehe bat igorri zuen, non azaltzen baitziren partaidetza lehenetsi deitutakoen legezko baldintzak, haien merkaturatzearen bilakaera, finantza-entitateek txikizkako inbertsio-egileei zuzenduta jaulkitako lehenetsien saldo biziak (22.374 milioi euro), inbertsio-egileek Balore Merkatuko Batzorde Nazionalan aurkeztutako erreklamazioak (485, 2011ko abendura arte), Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak jarraitutako jarduketak, erabiltzaileei informazioa ematekoak nahiz lehenetsien jaulkitzaileak kontrolatzekoak, eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren etorkizuneko jarduketak, kontrola areagotzekoak nahiz

txikizkako bezeroei zuzendutako jaulkipenekin batera egiten diren balorazio-txostenak hobetzeko gomendioak ematekoak.

2012ko urrian, Espainiako Arartekoak erakunde honi jakinarazi zion partaidetza lehenetsiei buruz ikertzen jarraitzen zuela, eta ukitutako herritar askok aurkeztutako kexa ugari jasoak zituela. Bere idazkian, bai Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari, bai Ekonomiako eta Enpresen Laguntzarako Estatu Idazkaritzari eginak zizkien gomendioak helarazi zizkigun: hain zuzen ere, finantza-erabiltzaileei zuzendutako informazio jarduketa eraginkorrak susta zitatzela, inbertsio-produktuen edozein kontratu egin aurretik, erabiltzaile horiek informazio osoa izan zezaten kontratatzen ari diren produktuari buruz, inbertsioaren arriskuari buruz eta berme-funtsen batek estaliak egoteari buruz. Halaber, gomendioak nabarmentzen zuen banku-entitateei berriz gogorazi behar zaiela komenigarria dela eta jokabide zuzena dela produktu hauen inbertsio-egileekin akordioetara iristea, prozedura judizialetera jo dezaten saihesteko.

Horrenbestez, ofiziozko ikerketak oraindik ere jarraitzen du, egoera honek milaka pertsonarentzat eta familiarentzat izan duen garrantzi ekonomiko eta sozialarengatik.

3.2.6. Funtzionario publikoen ordainsariak gutxitzea aldi baterako ezgaitasun kasuetan.

Administrazio eskuduna: Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua.

Gaia: Funtzio publikoa. Funtzionario publikoen eskubideak babestea.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Nafarroako Gobernuak prentsa-zerbitzuetako eta hedabideetako albisteen bitartez, erakunde honek ezagutu zituen Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak neurri batzuk iragarriak zituela, funtzio publikoaren arloan, 2012an aurrezki publikoa lortzeko eta lan absentismoa gutxitzeko.

Iturri horien arabera, iragarritako neurri horietatik multzo zabal bat funtzionario publikoen ordezkari diren sindikatuei eta elkarteei aurkeztuko zitzaizkien, ezagut zitzaten eta, kasua bazen, haietan parte har zezaten edo haiek negoziatzen zitzaten.

Oraindik ere behin betiko moduan erabaki gabeko neurriak ziren arren eta negoziazioaren edo izapidetzearen ondoren ondoko faseetan alda zitezkeen arren, erakunde honek egokitzen jo zuen Lehendakaritza Departamentuari helaraztea nolako kezka sorrarazia zion iragarritako neurrietako batek, pertsona hartzaile ugariengan -gaixoak ziren aldetik funtzionario publikoak ziren aldetik baino gehiago- eta eragin zitezkeen kalteengatik. Aldi baterako ezgaitasunarengatik ordainsarien gutxitzea iragartzen zuen neurria zen; hain zuzen ere, soldataren % 50 bajaren lehenengo egunetan, eta % 25 laugarren baja-egunetik hogeigarren baja-egunera, inguruabar profesionalen kasuetan (lan istripuak eta laneko gaixotasunak) eta amatasun edo aitatasun bajeen kasuetan izan ezik. Neurri horren xedea bikoitza zen, Nafarroako Gobernuak iragarritakoaren arabera: alde batetik, gastu publikoa

gutxitzea eta defizit publikoa murrizten laguntzea, eta, bestetik, lan absentismoa beheratzea.

Neurri hori zela-eta erakunde honek zeukan kezka, nagusiki, zentratzen zen istripuak izan zitzaketen pertsonen kasuetan eta, batez ere, gaixotasun larriak, kronikoak, iraupen luzekoak edo bestelakoak hartzen zituztenen kasuetan, “inguruabar profesionaltzat” ezin sailka zitezkeenetan; izan ere, gaixotasunaren beraren ondorioz, egoera pertsonala larriagotzeaz gainera, egoera ekonomikoa ere larriagotuko litzaike, modu erabakigarrian, zeren eta hiru egunez soldataren erdia kobratuko bailukete eta hilabete bateko bi herenetan soldata nabarmen txikiagoa jasoko bailukete, guztiz beren borondatearen kontra eta ustekabeko eta nahigabeko egitate batengatik.

Hori dela eta, erakundeak Lehendakaritza Departamentuari iradoki zion neurria sakontasunez berrazter zezan, zeren eta haren hasierako itxurazko ontasun ekonomikoak kalte larriak eragin bailitzake zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsonen -alegia, funtzionario publikoen- osasunean; izan ere, lanera joan beharko lirateke beharturik, beren kalterako eta beren osasuna eta integritatea arriskuan jarrita.

Gainera, jotzen zen iragarritako neurri horrek kalteak eragin zitzakeela zerbitzu publikoak emateko eta zerbitzu horien hartzaile diren herritarrentzat; kalte ekonomikoak azkenean nahigabe ere baja eskatu behar dutenentzat; kalte ekonomikoak, baita ere, Administrazio Publikoarentzat berarentzat eta diru publikoarentzat, batzuek ahaleginak eginen litzuketelako lan kontingentzia bihurtzeko bestela ere halakorik izanen ez liratekeen egoerak; kalteak, azken batez, funtzionario publiko guztientzat, bereizkuntzarik gabe, kontuan hartuta, gainera, prentsak emandako datuen arabera, funtzionario publikoen % 60k baja egun bakar bat ere ez zuela hartu 2011n; eta abar.

Bestalde, neurri hau hartzeak -formalki lege mailako arau baten itxura emanda ere-, hain zuzen ere hartzaileak gaixotasunaren arabera nabarmen diskriminatzen dituenak (egoera horretan dauden ala ez dauden eta gaixotasuna lanekoa den ala ez den) eta lansari edo kenkari desberdina ematen dienak funtzionario publikoei, beren borondatearen aurka, zalantzak sortzen zituen Konstituzioko 9.3 eta 14. artikuluei egokitzeari dagokienez, zeren eta inguruabar pertsonal batengatik, gaixotasunarengatik diskriminatzen baitu; eta zalantzak, bestetik, diru zenbateko handiei erreparatuta, botere publikoen arbitrariotasunaren debekua eta segurtasun juridikoaren aurkakoa izateagatik, besteak beste. Gainera, neurria ez da oso onargarri gertatzen zuzenbideko estatu sozial batean, non pertsonen integritate pertsonala eta osasuna babestea botere publikoen oinarrizko balioak eta betebeharrak baitira. Horri buruzko edozein lege-artikulazio egin baino, egokiago jotzen genuen azterketa sakon bat egitea, konstituzio-arauen urraketari buruzko edozein itzal argitze aldera. Nolanahi ere, konstituzionaltasunari buruzko zalantzez haratago, neurriak gaixotasun-arrazoiengatik diskriminazio zantzuak izan ditzake, eta, horrenbestez, ezin da esan neurri bateragarria denik estatu sozialaren babesarekin.

Are gehiago, jotzen zen neurria zuzengabea izan litekeela, zeren eta onuragarri gertatuko bailitzateke baliabide ekonomiko gehien dituztenentzat, Administrazioaren soldataren gutxipenaren kalte-ordaina emanen lieketen aseguru pribatu bat kontratatu ahalko luketelako.

Bestalde, baliabide ekonomiko gutxien izan eta, dauzkaten diru-mugak tarteko, halako aseguruak ezin kontrata ditzaketenek gutxitze pairatuko lukete, eta haren aurrean beren burua behartuta ikusiko lukete lanera joatera, edozein dela ere haien egoera fisiko edo psikikoa, edo, bestela, beren egoera ekonomikoa osasunaren aurretik jartzera.

Erakundearen ustez, beste neurri batzuk egon daitezke, modu eraginkorrago batez, eta funtzionario publikoek onar lezaketen modu batez, lagun dezaketenen lan absentismoa gutxitzen; esate baterako, funtzionario publikoen baja medikoak Administrazioak zehazten dituen sendagileek ematea, propioek edo hartarako gaitutakoek. Sendagile horiek prestakuntza izanen lukete ebaluatzeko aztertzeraz ematen zaien gaixotasuna edo istripua dela-eta baja eman behar den ala ez, edo ikuskatze-lan zorrotzak eginen lituzkete baja mediko gehiegi hartzen dituztenen aurka, zehazte aldera ea egoera horrek bat datorren ala ez egiaz pairatzen duten gaixotasunarekin, eta neurriak ezarriko lirake beren lankideei, Administrazioari eta, azken batez, gizarteari iruzur egiten dietenei.

Bestalde, gomendagarri jotzen da halako sakonera duen neurri bat hartu baino lehen, azterlan zabal bat egin dadila Administrazio Publikoan baja medikoen ondorioz gertatzen den egiazko absentismoari buruz, haren benetako tamaina eta hari aurre egiteko hartu beharreko neurriak analizatuta, betiere soldata gutxitzeko konponbideen aurretik beste batzuk jarriz.

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak jakinarazi zuen hasiera batez proposatutako neurri hori ez zela sartuko Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzuko langileen arloko presako neurriei buruzko foru legearen proiektuan. Hori bai, jakitera eman zuen erabaki zela Administrazioaren eta sindikatueta ordezkarien arteko batzorde parekide bat sortzea, behar den aholkularitza teknikoarekin, urtean zehar analizatzeko aldera zein diren Administrazioa lan absentismoaren arrazoiak eta hura gutxitzeko proposamenak egiteko. Txostenak honakoa zioen: "nolanahi ere, Foru Administrazioa absentismoa gainerako sektoreetan gertatzen denaren parera gutxitzeko helburua dago, zeren eta, printzipioz, ulertzen baitugu gaur egun gertatzen den absentismo handiago hori ez dagoela justifikaturik. Horrenbestez, neurriaren erretiratzea aldi baterakoa da, eta hartzen diren neurriek ez baldin badute sortzen bilatzen den eragina, aukera dago neurri hori berreskuratzeko, datorren urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren harira, sindikatueta ordezkariei jada adierazi zaien bezala".

Informazio horrekin, eta neurria foru legean ez zela jaso egiaztatuta, amaitutzat eman zen jarduketa.

3.2.7. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua.

Gaia: Kontsumoa. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak espediente bat ireki zuen kontsumitzailearen eskubideak babesteko berme publikoaren funtzionamendua egiaztatzeko, 2012an erakunde honetan jasotako kexetatik abiatuta.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari kasuko informazioa eskatu ondoren erakunde honi izapidetzeko helarazi zitzaizkion kontsumoaren arloko lau erreklamazioetan egindako izapidetzeari buruz, egiaztatu zen Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak zenbait kudeaketa eginak zituela kexa-egileekin erreklamazioak kontsumo arbitrajearen aldetik bideratzeko. Hala eta guztiz ere, gaur arte, kudeaketa horiek ez dute emaitzarik eman, herritar interesdunek ez baitute kasuko arbitraje-erreklamazioa formalki aurkeztu.

Erreklamazio horiek izapidetzeko jarraitutako prozedurari dagokionez, lau kasuetako bitan, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak herritarrekin eginiko kudeaketak soilik telefono bidezkoak izan ziren, eta 2011ko abenduan egin ziren. Nafarroako Arartekoaren erreklamazio-igorpena, berriz, 2011ko uztailan izan zen.

Beste bi espedienteetan, departamentuak zioen erreklamazio-egileei arbitraje-eskariak igorri zizkiela idatziz, baina haien ez zituztela formalki aurkeztu. Hala eta guztiz ere, erakundeak ikusi zuen akats batzuk bazeudela herritarrei eskari horiek jakinarazteko moduan.

Erakundeak departamentuari gogorarazi zion Konstituzioko 51. artikulua botere publikoak premiatzen dituela kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatzera, haien segurtasuna, osasuna eta bidezko interes ekonomikoak prozedura eraginkorren bidez babestuz; hori dela eta, honako iradokizunak egin zizkion, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes-prozedurak hobetze aldera:

1. Erakundeak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak herritarren kontsumoaren arloko erreklamazio bat igortzen duen kasuetan, zeren eta uste baitu haien eskubideak urratu direla, kontsumoaren arloko organo eskudunak kexari alta eman diezaiola bere erregistroan eta bere artxibo administratiboetan, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak zuzenean departamentuaren egoitzetan aurkeztutako erreklamazio bat balitz bezala, eta bidezkoak diren inskripzioak eta gainerako ekintza administratiboak egin ditzala, eta datu gehiago behar baditu, interesdunari zuzenean eska diezazkiola.
2. Departamentuak interesdunekin, prozedura azkartze aldera, telefonoz egiten dituen komunikazioak eta gainerako kudeaketak ezertan kendu gabe, idatziz igor diezazkiela herritarrei aurkeztutakoa zuzentzeko eskariak, bai eta prozesuan zehar gerta daitezkeen gainerako eskariak ere.
3. Behin Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak kontsumitzailea babesteko prozedura ebatzi ondoren, erakunde honi jakinaraztea egindakoaren emaitza. Hori guztia, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1.1 artikuluan ezarritako eraginetarako.

Halaber, erakundeak departamentuari gogorarazi zion legez behartuta dagoela Nafarroako Arartekoari igortzera azken horrek, bere ikuskatze-eginkizuna betetzeko, eskatzen dizkion espediente administratiboak.

Foru legeak ezartzen duen bi hilabeteko gehieneko epea eman zion erakundeak administrazioari, egindako iradokizunak onartzen zituen ala ez jakinaraz ziezaion.

Aurrekoaren berri maiatzaren 2an eman zitzaion kontsumoaren arloko departamentu eskudunari. Hala eta guztiz ere, lege ezarritako gehieneko epea zabal iraganda ere, ez zen erantzunik jaso.

Hori dela eta, 2013ko urtarrilaren 23an, erakundeak Gizarte Politiketako Departamentuari gogorarazi behar izan zion Nafarroako Arartekoarekin lankidetzan jarduteko legezko betebeharra duela; betebeharraren barruan sartzen da ebazpenei erantzutea eta haiei buruzko iritzia ematea, edo onartuz eta behar diren neurriak ezarriz, edo ez onartzeko arrazoiak emanez. Ondoriozta litezkeen erantzukizunen gainean behar ziren ohartarazpenak egin ondoren, epe bat eman zitzaion, lege aginduzkoa den bezala adieraz zezan zer erabaki hartzen zuen horri buruz, iradokizunak onartuz edo, kasua bada, haiek ez onartuz, kasu horretan, betiere, horretarako arrazoiak emanda.

3.2.8. Erriberako Mankomunitateak hiri hondakin solidoen tratamendua dela-eta kobratzen dituen tasak.

Administrazio eskuduna: Erriberako Mankomunitatea.

Gaia: Toki ogasuna. Hiri hondakin solidoak kudeatzeko tasak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak egokitzen jo zuen ofizios espediente bat irekitzea hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo deuseztatzeko ordainarazten dituen tasei buruz.

Ikerketa hau irekitzeko arrazoiak izan ziren 2009tik foru erakunde honi aurkeztu zaizkion kekek eta egin zaizkion kontsultak, Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasak eta zerbitzu hori dela-eta ematen diren gainerako jarduerak arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako irizpideak direla eta.

Ordenantza fiskala dela-eta herritarrek adierazitako errefusa nagusia heldu da ordenantzan aurreikusitako egoera desberdinetan hartan aurreikusitako tarifak aplikatzen heldu diren emaitza neurrigabea, kexa-egileen esanetan, zeinak berarekin baitakar tasa bat baino gehiago ordaindu behar izatea lokal berean garatzen den jarduerarengatik, etxe-erabilera izan nahiz erabilera profesionala izan.

Erakundeak egiaztatu nahi izan zuen ea tasak finkatzerakoan zerbitzuaren kostuaren eta tasaren zenbatekoaren arteko baliokidetasun printzipioa errespetatzen den (alderdi hori Mankomunitatearen txosten tekniko- ekonomikoetan antzeman behar da), eta egiaztatzeko, halaber, ea zenbateko hori ezarrita, zerbitzuaren egiazko edo aurreikusitako kostuari egokitua, tributudunen arteko banaketa bat datorren berdintasunaren, gaitasun ekonomikoaren, progresibotasunaren eta konfiskaziorik ezaren printzipioekin. Bada, horretarako, hilabeteko epean honako dokumentazioa igortzeko eskatu zuen erakundeak:

- a) Erriberako Mankomunitatearen Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta aprobeztatzeko edo deuseztatzeko tasak eta zerbitzu eta horrekin lotuta ematen diren gainerako zerbitzuak arautzen dituen ordenantza fiskalaren testua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein egunetan argitaratu zen adierazita.
- b) Ordenantza fiskal horren aldaketen testua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein egunetan argitaratu zen adierazita.
- c) Ordenantza onetsi aurreko txosten tekniko-ekonomikoa.
- d) Ordenantzaren aldaketak onetsi aurreko txosten tekniko-ekonomikoa.

Legeak ezarritako epea zabal iragan ondoren, mankomunitatea premiatu zen beranduenez hamabost eguneko epean eskatutako informazioa igor zezan. Haren zain gaude oraindik ere. Behar ziren ohartarazpenak egin ziren erakunde honekin lankidetzan ez jardutetik erator daitezkeen erantzukizunei buruz.

3.2.9. Hiri izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioaren zerga). Etxebizitzaren erosleak ordezkoreen izaera hartzea, eta bera izatea egiaz zerga ordaintzen duena.

Administrazio eskuduna: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentua.

Gaia: Toki ogasuna. Hiri izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioaren zerga). Subjektu pasiboa eta ordezkoa.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Urte hauetan, behin eta berriz heldu zaizkigu herritarren kexak, hiri lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen foru legedia dela eta. Etxebizitza bat erosten duten herritarrek harriduraz hartzen dute haiek, erosleak, izan behar izatea gozatu ez duten ondasun baten plusbalioaren kontzeptuan ordainketa fiskal bati aurre egin behar izaten diotenak.

2009an, erakundeak ofiziozko jarduketa bat egin zuen, eta haren ondorioz iradokizun bat egin zien bai Toki Administrazioiko Departamentuari, bai Nafarroako Parlamentuari.

Hala eta guztiz ere, kexak behin eta berriz aurkezten direla ikusita, komenigarritzat jo zen ofiziozko beste jarduketa bat hastea.

Arazoa Nafarroak Toki Ogasunein buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 174.1 b) artikuluan dago. Hartan, izan ere honakoa ezartzen da:

“1. Honakoak dira zergaren subjektu pasiboak zergadun gisa: (...)

- b) Terreno eskualdatzeetan edo ordaindu beharrez jabaria mugatzen duten gozatzeko eskubide errealak eratu edo transmititzean, terrenearen transmititzaileak edo

kasuko eskubide erreala eratu edo eskualdatu egiten duen pertsona. Hala ere, erostunak zergadunaren ordezkokoak eginen ditu, non eta erostun hori ez den subjektu salbuespena duten pertsona edo erakundeetakoa.

Erostunak zergadunaren ordezkokoak egiten baditu, aurreko lerroaldean xedatu bezala, zilegi izanen du beti ere kargaren zenbatekoa transmititzaileari erreperkutitzea”

Aurretik, foru lege beraren 172.1 artikulua jo zuen Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zerga zuzeneko zerga bat dela, lur horiek izaten duten balio igoera kargatzen duena, igoera hori agerian geratzen denean lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen edo lur horiek erabiltzeko edozein eskubide erreal, jabaria mugatzen duena, sortu edo eskualdatzearen ondorioz”.

Horrenbestez, arau indardunen arabera, higiezin baten eroslea da tributuduna, zergadun nagusiaren -alegia, saltzailearen- ordezko gisa, hiri lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan.

Erosleak duen ordezkoaren izaerak berarekin dakar hari zerga ordainaraztea, eta ordainarazpen hori -jurisprudenzian behin eta berriz adierazi den bezala, besteak beste, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Aretoaren 1990eko apirilaren 18ko epaian-gertatzen da “kobrantza bermatzen duen bitartekaria” den aldetik, “toki ogasunarentzat zerga kobratzea eroso eta segurua delako”, eta horrek berarekin dakar tributudun nagusia (saltzailea) bigarren plano batean gelditzea eta erosleak hartzea bere gain saltzaileari gero ordainarazi ahalko dion tributu-kuota bati aurre egitearen erantzukizuna.

Estatuko araudiak foru araudian jasota dagoenaz bestelako araupetzea biltzen du. 1988ra arte, Estatuko legediak zergadunaren ordezkoaren baldintza erosleari aitortzen zion, foru araudian egiten den bezalaxe. Estatuko egungo araudiak martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, ordea, erosleari ordezkoaren izaera aitortzen dio soilik saltzailea Espainian egoiliarra ez den pertsona fisikoa denean (106. artikulua).

Bada, erakunde honen iritziz, izan ere, eta abiapuntutzat harturik Nafarroako Foru Komunitatean ere zergadun nagusia esku-aldatzailea (saltzailea) dela, logikoa da Administrazioak tributu hori subjektu pasiboari, hau da, saltzaileari, exiji diezaion, kasuko likidazioa eginez, halako moduan non ez den eroslea izanen zergaren zama bere gain hartu behar duena, geroago, subjektibo pasibo nagusiarengana jotzeko. Zama horrek, erakunde honen iritziz, erosleari bazterkeriazko trataera ematea dakar berekin, baina hori ez dago behar adina justifikaturik erosotasunezko eta segurtasunezko arrazoiengatik.

Horrenbestez, hiri lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga erosleari ordainaraz dakion saiheste aldera, zergadunaren ordezkoa izateagatik, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Toki Administrazioaren arloko departamentu eskudunera jotzea eta hari iradokitzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 174.1.b) artikulua aldatzeko aukera, eroslearen ordezkoaren baldintza kentzeko transmisio-egilea den subjektu pasiboari, kostu bidezko eskualdaketen hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zergari dagokionez.

Erakundeak jo zuen krisi ekonomikoko une hau egokia dela iradokitako aldaketari ekiteko eta erosleari erosotasunezko eta segurtasunezko arrazoiak tarteko behar adina justifikatuta ez dagoen betebehari hori kentzeko.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak jakinarazi zuen ez zuela egokitzat jotzen horri buruzko arau aurreproiektu bat bultzatzea. Erantzuna arazoitzeko adierazi zuen gai hori toki entitateen ordezkari azaldua ziela eta haiengandik beti aurkako erantzuna jaso zuela. Halaber, adierazi zuen erabaki hori hartzea Nafarroako Parlamentuari dagokiola. Hala eta guztiz ere, jakitera ematen zigun Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua izanen lirakeela aldaketaren bat bultzatzeko departamentu eskuduna, kasua bada.

Toki administrazioaren arloko departamentu eskudunaren aipaturako ezezkoarekin, amaitutzat eman genuen gure jarduketa.

3.2.10. Nafarroako Gobernu toki entitate batzuei eginiko gogorazpena, herritarrek zuzentzen dizkieten eskariei eta idazkiei behar den denboran eta moduan erantzuteko legezko betebeharrari buruzkoa.

Administrazio eskuduna: Nafarroako zenbait toki entitate.

Gaia: Herritarren eskubideen bermea. Administrazio publikoaren erantzun bat izateko eskubidea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak ofiziozko espediente bat zabaldu zuen, zeren eta herritarren kexen bitartez antzeman baitzuen Nafarroako toki entitate batzuek ez zituztela behar den denboran eta moduan ebatzi herritarrek aurkeztutako eskari eta errekursoak, legez behartuta dauden moduan.

Horri dagokionez, legegileak Nafarroako Arartekoari esleitzen dizkion eginbehar nagusietako bat da “zaindu beharra daukala Administrazioak behar den denboran eta moduan ebatz ditzan aurkeztu zaizkion eskari eta errekursoak” (foru legearen 23.2 artikulua). Nafarroako Arartekoa, hartara, administrazio isiltasunaren aurka borrokatzeko zeregin berezia duen erakunde publikoa da, isiltasunaren jokabide administratiboa okerra dela jotzen baitu.

Hori dela eta, erakundeari egokia iruditu zitzaion berriz ere jotzea 2011n eta 2012an jada gogorazpenen bat jaso zuten toki entitateei, haiei berriz ere oroitazteko legez erantzun espresa eman behar dietela, behar den denboran eta moduan, herritarren eskari eta errekursoei.

Zehazki, honako toki entitateei egin genien gogorazpen hori:

- ABLITASKO UDALA.
- AGOIZKO UDALA.
- ARANGUREN IBARREKO UDALA.
- BARAÑAINGO UDALA.

- BERRIOZARKO UDALA.
- CABANILLASKO UDALA.
- KASEDAKO UDALA.
- CINTRUENIGOKO UDALA.
- CORTESKO UDALA.
- EGUESIBARKO UDALA.
- LIZARRAKO UDALA.
- ETAIUKO UDALA.
- EZKABARTE UDALA.
- UHARTEKO UDALA.
- LARRAGAKO UDALA.
- LERINGO UDALA.
- IRUNBERRIKO UDALA.
- MENDABIAKO UDALA.
- IRUÑEKO UDALA.
- AZKOIENGO UDALA.
- GARESKO UDALA.
- TORRABA DEL RÍOKO UDALA.
- TUTERAKO UDALA.
- UHARTE ARAKILGO UDALA.
- VILLATUERTAKO UDALA.
- ARBEITZAKO KONTZEJUA.
- AZANTZAKO KONTZEJUA.
- LARRAIOZKO KONTZEJUA.
- IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA.
- JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA.
- ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA.

Gogorarazpen honekin, amaitutzat eman zen jarduketa.

3.2.11. Nafarroako Gobernuko departamentu batzuei eginiko gogorazpena, herritarrek zuzentzen dizkieten eskariei eta idatzkiei behar den denboran eta moduan erantzuteko legezko betebeharrari buruzkoa.

Administrazio eskuduna: Nafarroako Gobernuaren bost departamentu.

Gaia: Herritarren eskubideen bermea. Administrazio publikoaren erantzun bat izateko eskubidea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Toki entitateekin egin duen antzera, erakundeak herritarrek aurkeztutako eskari eta errekurtsioak behar den denboran eta moduan ebatzi ez dituzten Nafarroako Gobernuko departamentuetara jo zuen, horrela jasota ageri baitzen 2011n eta 2012an zehar aurkeztutako kexetan.

Zehazki, honako departamentu hauei gogorarazi zitzairen legez behartuta daudela idatziz eta espresuki erantzutera, behar den denboran, herritarrek aurkeztutako eskari eta errekurtsioei:

- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua.
- Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua.
- Hezkuntza Departamentua.
- Sustapen eta Etxebizitza Departamentua.
- Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua.

Gogorarazpenarekin, amaitutzat eman zen jarduketa.

3.2.12. Gizarteratze errenta eta oinarrizko errenta.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua.

Gaia: Gizarte ongizatea. Gizarteratze errenta eta oinarrizko errenta.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

2012ko maiatzean, erakunde honek bilera bat egin zuen Nafarroako Oinarrizko Errentarako Eskubidearen aldeko Plataformako ordezkari batzuekin. Plataforma horrek gizarte-laguntzaren arloan lan egiten duten eta elkarre-oinarria duten entitateen multzo bat biltzen du. Bileran, Plataformako ordezkariak adierazi zuten nolako kezka duten gizarteratze errentaren araupetze berriaren aplikazioarekin baztertuta geratuko liratekeen pertsonen kolektiboarengatik (beren kargura seme-alabak dituzten pertsonak, paperik gabeko etorkinak, bestelako baliabiderik ez duten familiak eta pertsonak eta abar), eta Nafarroako Arartekoari eskatu zioten ebaluazio bat egin zezan gizarteratze errentari buruzko foru lege berriaren eragin sozialari buruz, aurreko Oinarrizko Errentari buruzko Foru Legeak zeukan eraginarekin alderatuta.

Eskari horri erantzuteko, herritarren parte-hartzea sustatze aldera eta kudeaketa publikoaren gardentasuna bultzatze aldera, egokitzat jo genuen ofizioz espediente bat irekitzea, ebaluazio hori egin ahal izateko.

Horretarako, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari honako datuak eskatu genizkion:

- a) 2010eko eta 2011ko oinarrizko errentaren eskarien eta berritzeen kopuruak, urtearen arabera xehakatuak eta oinarrizko errentaren eskarien kopurua eta berritzeen eskarien kopurua bereizita.
- b) 2010ean eta 2011n onartu diren oinarrizko errentaren eskarien eta berritzeen kopuruak, urtearen arabera xehakatuak eta oinarrizko errentaren eskarien kopurua eta berritzeen eskarien kopurua bereizita.
- c) 2010ean eta 2011n ukatu diren oinarrizko errentaren eta berritzeen eskarien guztizko kopurua (urtez urte xehakatuak eta oinarrizko errentaren eskarien ukoak eta berritzeko eskarien ukoak bereizita). Haiek ukatzeko arrazoiak eta haien kopuruak ere zehaztea eskatzen da.

- d) 2010ean eta 2011n oinarrizko errenta jaso duten familia-unitateen kopurua. Eskatzen da atalez atal adieraz dadila zenbat kide dituzten unitate horiek, apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeko 4.1 artikulua finkatzen dituen irizpideen arabera, 2010. urteari dagokionez.
- e) Zenbat oinarrizko errenta eman diren aparteko izaeraz 2010ean eta 2011n, urtez urte xehakaturik.
- f) Oinarrizko errentaren eskarietara bideratutako gastu publikoaren guztizko zenbatekoa, 2010ean eta 2011n, urtez urte xehakaturik eta oinarrizko errentaren eskariak, berritzeen eskariak eta aparteko izaerako emateak bereizita.
- g) 2010ean, 2011n eta 2012ko otsailaren 4a baino lehen (ordu hartu baitzuen indarra lege berriak) aurkeztutako oinarrizko errentaren eskariak eta berritze eskariak, horiei guztiei aplikatzekoa baitzaie urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeko lehenengo xedapen iragankorra, zeinak gizarteratze errenta arautzen baitu. Oinarrizko errentaren eskarien kopurua eta hura berritzeko eskarien kopura bereizteko eskatzen da.
- h) Oinarrizko errentaren edo gizarteratze errentaren emateen kopurua, aurreko letran adierazitako eskariei dagokienez, eta horien onuradun diren familia-unitateen kopurua.
- i) Oinarrizko errentaren zenbat berritze-eskari onartu diren, aurreko g) letran adierazitako eskariei dagokienez, eta horien onuradun diren familia-unitateen kopurua.
- j) 2012ko otsailaren 4tik 2012ko apirilaren 30era gizarteratze errenta jasotzeko zenbat eskari aurkeztu diren.
- k) 2012ko otsailaren 4tik 2012ko apirilaren 30era gizarteratze errenta edo oinarrizko errenta berritzeko zenbat eskari aurkeztu diren.
- l) j) eta k) letretan, hurrenez hurren, adierazitako eskariei dagokienez, zenbat gizarteratze errenta eta errenta horren zenbat berritze onartu diren, errenta berriak eta berritzeak bereizita. Kasu guztietan, zenbat familia-unitate izan diren onuradunak.
- m) Gizarteratze errenta jasotzeko eta errenta hori berritzeko zenbat eskari ukatu diren. Ezezkoen kopurua xehakatzeari eskatzen dugu, lege berriak ezezkoa emateko jasotzen dituen arazoien arabera.
- n) Oinarrizko errentaren edo gizarte errentaren eskarietara bideratutako gastu publikoaren guztizko kopurua, 2012ko apirilaren 30era artekoa. Urte horri dagokionez, eskatzen da zehazteko zein eman ziren guztiz apirilaren 6ko 8/1999 Foru Legea aplikatuz, zein urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeko lehen xedapen

iragankorraren arabera eta zein eman ziren guztiz urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen arabera, lehen xedapen iragankorra alde batera utzita.

- o) Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariaren otsailaren 9ko 58/2012 Foru Aginduaren arabera aparteko izaeraz eman diren gizarteratze errenten kopurua.
- p) Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariaren otsailaren 9ko 58/2012 Foru Aginduaren arabera aparteko izaeraz gizarteratze errenta emateko bideratu den gastu publikoaren guztizko kopurua.

Halaber, eskatu zen informazioa emateko jakite aldera gizarte zerbitzuen sistema publikoko prestazioei eutsiko zaien edo beste prestazio batzuk ezarriko diren, gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden eta gizarte bazterketaren ondoriozko oinarritzko errenta eskuratzerik ez dutenentzat. Baiezkoan, zein prestazio diren jakin nahi da.

Emandako epea iraganda, berriz ere premiatu genuen eskatutako informazioa bidaltzeko, 2012ko abenduaren 31n gaurkotua. Halakorik ez dugu jaso oraindik ere.

2013ko otsailean, Oinarritzko Errentarako Eskubidearen aldeko Plataformak kalkulatu zuen Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berriaren ondorioz 5.000 familia-unitate geratuko direla oinarritzko errentatik kanpo. Plataformak adierazi zuen 2012an 8.000 familia-unitatek hartu zutela oraingo gizarteratze errenta; 3.500 familia-unitateri ukatu egin zitzaizela, eta 1.500 familia-unitatek eskatu ere ez zutela egin, baldintza berriak murriztaileagoak baitira.

3.2.13. Nafarroako etorkinen osasun laguntza publikoa.

Administrazio eskuduna: Osasun administrazioak.

Gaia: Osasuna. Osasun laguntza publikoa administrazio egoera ez-erregularrean dauden etorkinentzat.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak, 2012ko maiatzaren 10ean, Nafarroan argitaratzen diren bi egunkari orokorren bitartez, aditzera eman zuen nolako jarrera daukan egoera administratibo ez-erregularrean -hau da, Espainian bizitzeko baimen administratiborik gabe- dauden etorkinei buruz publikoki ere egiten diren baieztapen batzuei buruz. Izan ere, baieztapen horien arabera, pertsona horiek Espainian -eta, horrenbestez, Nafarroan- osasun laguntza jasotzeko eskubide mugatua izanen lukete.

Abiapuntu soilik juridiko batetik, argitasun batzuk eman genituen Nafarroan egoera administratibo ez-erregularrean dauden pertsona atzerritarren osasun estatutu indardunari buruz.

Horren harira, honakoa adierazi zen:

Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruz berriki eman den apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren arabera, atzerritarrek eskubidea dute Espainian osasun arreta jasotzeko osasun arloko legedi indardunean ezarritako terminoetan.

Osasun legedi hori osatzen dute bai Estatuak gai horri buruz onetsi dituen legeek, bai autonomia erkidegoek beren estatutuen arabera eman dituztenek.

Estatuko osasun legedia, zeinak oinarrizko izaera baitauka, berriki aldatu da, eta orain ezartzen du Espainia egoiliar gisa erregistraturik ez dauden eta baimendurik ez dauden atzerritarrek gaixotasun larriaren edo istripuaren kasuetan larrialdietako modalitateko osasun laguntza jasoko dutela, edozein dela ere arrazoia, senda-agiria jaso arte, bai eta haurdunaldi, erditze eta erditze-ondo kasuetan ere.

Bere aldetik, Nafarroako foru legediak, zeinak Estatuako oinarrizko legedia hobetzen baitu, Nafarroako Foru Komunitateak ematen duen osasun laguntza publikorako eskubidearen titularrak definitzerakoan, ezartzen du laguntza hori estaldura unibertsalekoa dela, Nafarroako udalerrri guztietan bizi diren pertsona hartzen dituela, eta "Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen dituela, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera". Horixe ezartzen da Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikuluan.

Horrenbestez, Nafarroan, lege esparru indardunaren arabera, Nafarroako udalerrietan bizi diren etorkinek eskubidea dute osasun laguntza publikoa jasotzeko, alde batera utzita egoera administratibo ez-erregularrean dauden, nafarren izaera administratiboa duten espainiarren baldintza berdinetan.

Erakunde honen iritziz, Nafarroako legean xedatutakoa ez da indarrrik gabe geratu, ez da alde batera utzi eta ez da indargabetu, eta ez da, ezta ere, aplikaezina apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren eraginez, zeren eta Konstituzio Auzitegiak jurisprudentzian behin eta berriz adierazi duen bezala (otsailaren 16ko epaia, guztien orde), "Estatuak ezin du, oinarrizko eskumen batez baliatuta, arlo baten erregulazioa agortu, eta arau-esparru propio bat utzi behar dio autonomia erkidegoari", eta "Konstituzioak ez dio Estatuari ahalmen bat esleitzen, baizik eta exijitzen dio osasun sistema normatibo nazionalaren existentzia zain dezala, Espainiako lurralde osoan indarra izanen duen gutxieneko erregulazio uniforme batekin, betiere kaltetu gabe ez autonomia erkidegoek beren eskumenez baliatuz eman ditzaketen arauak, beren lurralde esparruan Estatuak ezarritako gutxieneko komuna hobetzera bideratuak, ez arloari buruz Konstituzioaren eta estatutuen arabera dauzkaten kudeaketa- edo finantzaketa-eskumen berekiak".

3.2.14. Nafarroako Foru Komunitateak pertsona guztien berdintasun efektiboa lortzeko sustatzen dituen ekintzak, haien sexu-orientazioa zein den ere.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua.

Gaia: Gizarte ongizatea. Berdintasuna. Orientazio sexu-afektibo homosexuala duten pertsonen eskubideak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Herritar batek bere ezinegona helarazi digu, komenigarri ikusten baitu, beharrezko ez bada, administrazio publikoek neurriak hartu ditzatela, pertsonen arteko berdintasun efektiboa lortze aldera, daukaten sexu-orientazioa zein den ere; halaber, beharrezko ikusten du jokabide homofoboei aurrea hartzea eta, kasua bada, errotik moztea.

Herritar horrek deskribatu zituen askotan orientazio sexu-afektibo homosexuala duten pertsonak bizi dituzten egoerak eta esperientzia mingarriak; egoera horiek lehenengo pertsonan pairatu izan ditu, eta hori dela eta konbentziturik dago pertsona guzti-guztiak errespetatzearen aldeko apustua egin behar dela, bizitzaren etapa eta esparru guztietan. Irakasle gisa diharduenek, helarazi zigun zeinen garrantzitsua den hezkuntzaren esparruan pertsonetako errespetua bultzatzea; izan ere, balio hori lanaren mundura ere aldatu beharko litzateke eta, aurrerago, berriz, baita adineko pertsonentzako egoitzetan ere edo, modu orokorrago batez, bizitza sozial eta zibilean.

Gai hori Nafarroako Arartekoaren antzeko beste parlamentu-erakunde batzuek landu dute, eta gaia aztertzerakoan, agertzerak eman dute ezen, gaur egun gailentzen diren arau eta balio sozialetan, orientazio sexu-afektibo homosexualak eta bisexualak, eta are identitate transexual edo transgeneroa ere, ez daudela behar bezala aitortuak, eta ez dutela, ezta ere, normaltasun estatusik. Hori dela eta, nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak beren auto-estimurako, beren garapen pertsonalerako eta gizarteratze ez-problematikorako zaurgarriak diren egoerak pairatzen dituzte. Horrekin, herritar horrek adierazitakoa nabarmendu besterik ez da egiten.

Foru legeak erakunde honi esleitzen dizkien eginkizunak betetze aldera, pertsona guztien eskubideak aldeztari dagokionez, egokitzat jo zen jarduketa bat abiatzea egiaztatzeko zein ekintza bultzatzen dituen Foru Komunitateko Administrazioak pertsona guztien berdintasun efektiboa lortzeko, haien sexu-orientazioa zein den ere.

Xede horrekin, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu zitzaion informa zezan egiten edo garatzen ari zen jardueri buruz, edo aurrerantzean bultzatzea bideragarri edo gomendagarri izan daitezkeenei buruz.

Gizarte Politiketako Departamentuak honako hau jakinarazi zuen:

- a) Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen du legearen aurreko berdintasunaren printzipioa, eta jaiotzaz, arrazaz, sexuz, erlijioz, iritziz edo inolako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik diskriminaziorik ez

izatea. Halaber, Konstituzioaren 9.2 artikulua botere publikoei esleitzen die norbanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren baldintzak bultzatzea; betetasuna eragotzi edo ezabatzen duten oztopoak kentzea; eta herritar guztiei erraztasunak ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten.

- b) Konstituzio-xedapen horietan oinarrituta, azken urte hauetan pertsona homosexual eta bisexual buruzko eta identitate transexuala eta transgeneroa duten pertsonen (LGBT kolektiboa) buruzko esparru juridiko bat egituratzen joan da. Berriki onetsi diren arau horiek bilatzen dute pertsona horien eskubideak guztiz parekatzea, bai sexu bereko pertsonen artean ezkozteko aukerari dagokionez, bai pertsona transexual edo transgeneroen genero-identitatea legez sentitutako generora egokitzeko ahalmenari dagokionez ere. Eskubideen titulartasunari eta baliatzeari, nortasunaren garapen askeari eta pertsonen duintasunari eta intimitateari hertsiki lotutako gaiak dira.
- c) Arau horien artean, nabarmentzekoa da, lehenbizi, Nafarroan Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen onespena. Lege horren 1. artikulua, Nafarroako antolamendu juridikoaren interpretazioari eta aplikazioari dagokionez, inor ez baztertzearen printzipioa ezartzen da, parte deneko familia taldearen arrazoiarengatik, edozein dela ere haren sexu-orientazioa. Foru lege bereko 2.1 artikulua bikote egonkorren kontzeptua ezartzen du, sexu-orientazioa zein den ere.
- d) Estatu mailan, Kode Zibila aldatu da, uztailaren 1eko 13/2005 Legearen bitartez, ezkontzeko eskubidearen arloari dagokionez. Halaber, martxoaren 15eko 3/2007 Legea onetsi da, pertsonen sexuaren aipamena Erregistro Zibilean zuzentzea arautzen duena.
- e) Berriki, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea onetsi da. Foru lege hori, dauzkan ezaugarriak direla eta, Espainiako lehenengoa da, eta ezartzen du pertsonen bermatzea eskubidea izanen dutela, baldin eta jaiotzean esleitutako sexuaz bestea hartzen badute gizartearen aurrean, jasotzeko Foru Administrazioetik arreta integrala eta beren beharrian mediko, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitua, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan, Nafarroari dagozkion eskumenen esparruan.
- f) Foru lege horretan biltzen diren jarduketak esparruetatik, Gizarte Politiketako Departamentuari dagokiona da genero identitatearekin lotuta dagoena. Eskumen horiek gauzatzea Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren kontua da, uztailaren 25eko 75/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako estatutuetan ezarritakoaren arabera. Hori dela eta, azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legeko 11. artikuluan transfobiaren aurka aurreikusitako neurrietatik, departamentu horri -edo, zehazkiago, arestian aipatu dugun eta hari atxikita

dagoen erakunde autonomoari- legozkieke c) idatz-zatian aurreikusitakoak, hain zuzen ere trebatze eta sentsibilizazio programak egitearekin lotutakoak, genero-identitatearen ondoriozko jarrera baztertzailen aurka zuzendutakoak.

g) Baldintza hauetan oinarrituta, jarduketa publikoa orientatzen da pertsona homosexual, bisexual, transexual eta transgeneroen eskubideen aitortpena eta defentsa bultzatzera; horretarako, izan ere, honako helburuak ezarri ziren:

- Lortzea Nafarroako administrazio publikoek beren jarduera osoan integra dezatela berdintasunarekiko errespetua eta sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta inor ez baztertzea.
- sustatzea, Nafarroako gizarte osoan, bazterketa ezaren aldeko kultura bat, sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta dibertsitatea guztiz errespetatuko duena.
- homofobia eta transfobia modu ororen aurka borrokatzea, Nafarroan pertsona homosexual, transexual edo transgeneroen egoera ezagutzera emanez.

h) Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak antzeman du oraindik ere badaudela egungo errealitate sozial eta juridiko berriari egokitu ez zaizkion ereduetan oinarritutako inprimaki eta galde-sorta administratiboak. Ezinbestekotzat jotzen da inertzia horiei amaiera ematea. Horretarako, erakunde autonomo horrek dokumentu horien berrikuspena bultzatuko du, eta zainduko du haietan hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabil dadila.

i) Halaber, aztertzen ari da Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko beharra. Ekimen legegile honetan, eragile sozialek eta herritarren eragileen parte hartzea izanen da, bai eta, berariaz, LGBT kolektiboarena ere. Emakume transexualak generoko indarkeriaren auka babestea berariaz aurreikusiko da, eta planteatuko da, biktimen arretarako protokoloak eta kasuko programa eta prestazioak aktibatzearen ondorioetarako, sentitutako generoaren identitatea aitortzea, nahiz eta jaiotzako sexuari dagokion erregistro-inkripzioa aldatzeko legezko prozesua amaiturik ez egon.

j) Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak aurrera eramandako beste jarduketa bat da enpresei laguntza ematea, tresna metodologikoen bitartez, jazarpen sexualaren edo/eta sexu-arrazoiarengatik jazarpenaren aurkako protokoloak egin eta aplikatzeko. Laguntza hori IGE prozeduraren esparruan ematen da. Ildo beretik, urtero enpresentzako diru-laguntzetarako deialdiak egiten dira, beren berdintasun planen barruan jarduketak diseinatu eta gara ditzaten. Hartara, esate baterako, 2012rako deialdia Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariaren martxoaren 13ko 96/2012 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen (2012k apirilaren 4ko 66. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

k) Azkenik, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak urtero diru-laguntzak ematen dizkie emakumeen elkarteei eta Nafarroako irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko jarduketak egin ditzaten. Deialdi horretan sartzen dira homofobiaren aurka eta pertsonak beren orientazio edo identitate sexuala direla-eta baztertzearen aurka borrokatzeko proiektuak. 2012rako deialdia Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariaren martxoaren 13ko 94/2012 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen (2012k apirilaren 4ko 66. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Informazio hori ikusita, erakundeak gomendatu zuen ezen Gizarte Politiketako Departamentuak jarrai dezala beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak laguntzen eta hartzen, pertsona guztien berdintasun efektiboaren printzipioa bermatzeko, edozein dela ere haien orientazio sexuala, eta jokabide homofoboeri aurrea hartu eta, kasua bada, desagerrarazteko.

Halaber iradoki zen balora dadila ea, orain edo aurrerago, eraginkor gerta ote daitekeen Nafarroako Gobernuak plan bat egitea, esparru desberdinetan (hezkuntza, lana, gizarte zibila eta abar) bultzatzeko orientazio afektibo homosexuala duten pertsonetikiko errespetua, gure gizartean aurreiritzi handiak baitaude, bai eta, batzuetan, jokabide, jokamolde edo adierazpide argiki homofoboak ere.

Gomendio eta iradokizun honekin, amaitutzat eman zen erakunde honen esku-hartzea.

3.2.15. Nafarroako bide-sareetako seinaleak errotulatzeari Nafarroako Gobernuak toki horietarako onetsi duen izendapen ofizialaren arabera.

Administrazio eskuduna: Sustapen eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Euskara. Bide-sareetako seinaleak errotulatzeari toki horien izendapen ofizialaren arabera.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak, 2012an, herritarren zenbait kexa jaso zituen, zeren eta Nafarroako bide-sareetako seinaleen errotulazioan ageri diren izen batzuk, toki, eraikin, instalazio edo monumentuetakoak, ez baitatoz bat Nafarroako Gobernuak onetsia duen izendapen ofizialarekin, zeina indarra duena baita. Hartara, adibide gisa, zenbait izen oker aipatzen dira; hala nola, "Irache", "Iranzu", "Leiza", "Eguiarte", "Leyre" eta beste. Izan ere, halakoak agertzen dira idatzita berriki jarritako bide-sareko errotulu eta adierazpideetan, eta izendapen ofizialaz aurreko izenak dira.

Kexa horiek ikusita, erakunde honek komenigarritzat jo zuen Sustapen eta Etxebizitza Departamentura jo eta honako iradokizuna egitea:

"Nafarroako bide-sareetako errotulu eta seinaleetan ageri diren toki, eraikin, instalazio, monumentu eta bestelako izenek errespetatu ditzatela eta jaso dezatela Nafarroako Gobernuak bere xedapen eta akordioetan onetsia duen izendapen ofiziala".

Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak iradokizuna onartu zuen, eta amaiera eman zitzaion jarduketari.

3.2.16. Nafarroako Gobernuak Bitartekaritza Hipotekarioko Zerbitzu bat sortzea.

Administrazio eskudunak: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Etxebizitza. Etxebizitzarako eskubidea babestea. Hipoteka-maileguak ez ordaintzearen ondoriozko etxegabetzeak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakunde honek jakin zuen, hedabideen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Justizia Departamentuak abian jarria zuela mailegu hipotekarioak ez-ordaintzearen ondoriozko etxegabetzeen aurkako bitartekaritza zerbitzu bat. Zerbitzu horri atxikia zitzaion, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko banku-entitate nagusia. Albiste horien arabera, Eusko Jaurlaritzaren ekimena harrera positiboa izaten ari zen, eta errazago egiten zuen kaudimenik gabeko pertsonen maileguak birnegoziatzea, administrazioak proposatutako baldintzetatik abiatuta. Ekimen publiko horrek etxegabetzeen aurkako plataformen aitorpena ere jaso zuen.

Bitartekaritza zerbitzu publiko horretara, zabaldutako albisteen arabera, gehiegizko zorpetze-egoeran zegoen pertsona oro joan zitekeen, kasuko banku-entitatea zein zen ere, eta banku-entitate hori zerbitzuari atxikita egon nahiz ez egon. Zerbitzuaz baliatzeko baldintzak izanen lirakeke etxebizitza jabearen ohiko helbidea eta helbide bakarra izatea, haren balioa ez izatea 350.000 eurokoa baino handiagoa eta ukitutako pertsonen entitate mailegu-emailearekiko akordio eza egiaztatzea. Behin baldintzak egiaztatuta, zordunarekiko akordiorik ezean, banku-entitateak hilabeteko epea emanen lioke Bitartekaritza Hipotekarioko Zerbitzuari banakako proposamen bat aurkez zezan, ukitutako pertsonak hartutako zorra modu antolatuan likidatzeko. Hilabete horretan, banku-entitateak konpromisoa hartuko luke inongo erreklamazio judizialik ez abiarazteko. Banakako proposamena jaso ondoren, entitateak hura aztertu beharko luke, nahiz eta proposamen hori entitatearentzat loteslea ez izan.

Zalantzarik gabe, bitartekari gisa diharduen organo publiko batek proposatutako bitartekaritza-konponbideak izanen lirakeke, guztiz legalak, eta estaldura eta jokabide-arauak topa litzakete, beste arau batzuen artean, Gai zibiletako eta merkataritza-gaietako bitartekaritzari buruzko martxoaren 5eko 5/2012 Errege Lege Dekretuan.

Bestalde, mailegu-emaileak eta ordainketari aurre egiterik ez duen jabeak itundutako konponbide kasu desberdinetan, etxebizitza ordainketa gisa emateko formulen aldeko eta banku-entitateak familiaren etxebizitza bakarra den etxebizitzaren erabilerari eustearen aldeko apustua egin da, ordura arte mailegu-hartzailea zenaren onerako, bi parteen artek errentamendu kontratu batzen bitartez; izan ere, kontratu horrek aukera ematen du errenta txiki baten truke ukitutako pertsona edo familia bere etxean geratzeko, nahiz eta etxe hori orain banku-entitatearena izan. Horrekin, konponbidea onuragarria da bi

aldeentzat. Formula hori, zeina jada Espainiako zenbait tokietan entsegu moduan aplikatu baita, baliagarri gerta liteke, halaber, askotan entitate mailegu-emailearen eta pertsona mailegu-hartzailearen artean sortzen diren liskarretarako konponbidea emateko.

Azken batez, deskribatutako ekimena ikusita, erakundeak honako iradokizuna egin zien Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari:

"Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak azter dezala aukerarik ba ote dagoen Bitartekaritza Hipotekarioko Zerbitzu bat antolatzeke, zeinak, antolamendu juridikoaren arabera, bitartekaritza-lana eginen bailuke banku-entitateen eta etxebizitza baten jabe diren pertsonen artean, etxebizitza hori bizileku bakar dutenean eta etxegabetuak izateko arriskuan daudenean, hartutako maileguari aurre egin ezinik egoteagatik. Xedea izanen litzateke kaudimenik ez duen pertsonen maileguak birnegoziatzea Administrazioak proposatzen dituen baldintzetatik abiatuta."

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak jakinarazi zuen iradokizuna onartzen zuela eta, hura bururaino eramatekotan, eta egindako lehen azterketen arabera, ez zela eginkizun horietarako beste unitate administratibo bat sortuko, zeren eta eginkizun horiek lehendik dagoen beste bati esleitu ahal baitzaizkio. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Bitartekaritza Hipotekarioko Zerbitzua sortu zuen, eta haren eginkizunak Nafarroako Gobernuko Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari esleitu zizkion.

Iradokizuna onartuta, amaiera eman zitzaion esku-hartzeari.

3.2.17. Nafarroako Gazteriaren Institutuak datuak eskatzea gazte-elkarteen errolda gaurkotzeko eta izaera pertsonaleko datuen babesa.

Administrazio eskudunak: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua.

Gaia: Gazteria. Gazte-elkarteetako kideen izaera pertsonaleko datuen babesa.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

2012ko otsailean, gazte elkarte batek jo zuen erakunde honetara, Nafarroako Gazteriaren Institutuak Nafarroako gazte entitateen errolda gaurkotzeko eskatzen zizkien datuei buruzko kontsulta bat egiteko.

Kontsulta egin zuen elkarteak adierazi zigun Nafarroako Gazteriaren Institutuak errolda gaurkotzeko eskatzen zituen datuen artean zegoela bazkideen zerrenda bat, honako datuekin: izen-abizenak, nortasun agiri nazionala, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta jaiotze data. Galdetu ziguten ea datu horiek ematea Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan babestuta zegoen.

Erakunde honek gaia aztertuta, egokitza jo genuen kontsulta bat egitea Espainiako Datuen Babeserako Agentziari. 2012ko ekainean, gai horri buruz eginiko txosten bat jaso genuen, non,

lege-gogoeta batzuk egin ondoren, ondorioztatzen baitzen ezen, kontuan hartuta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoko 11.2 a) artikulua exijitzen duela izaera pertsonaleko datuak lagatzeko baimena lege mailako arau batetik heldu behar dela, eta kontuan hartuta, halaber, ez Gizarte Ongizateko kontseilariaren irailaren 18ko 73/2002 Foru Aginduak, zeinak gaurkotzen baititu Gazte Entitateen Errolda egiteko arauak, ez Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Estatutua onesten duen abuztuaren 24ko 140/2011 Foru Dekretuak ez dutela lege izaera hori, arau mailakoak edo are beheagoko maila batekoa baitira, ez dagoela behar adinako aurreikuspenik adierazitako lagapena babesten duenik.

Hau da, Agentziak ondorioztatzen zuen "elkartek, ukitutakoek horretarako baimena ematen ez badute, ez dutela zertan elkarteko kideen datu pertsonalak eman -esate baterako, jaiotze data, helbidea edo posta elektronikoko helbidea-, zeren eta ez baitago lagapen hori legitimatzen duen lege-babesik, 11.2 a) artikulua dagokionez, eta elkartekideek ez baitute libreki eta modu legitimoan onartu Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoko 11.2 c) artikuluan aurreikusitako lagapena babesten duen harreman juridikoa".

Espainiako Datuen Babeserako Agentziaren txostenaren kopia bat igorri zitzaion Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari, zeren eta jo baitzen gaia haren interesekoa izanzen zela, eta, kasu zehatz honetan, hari atxikita dagoen Nafarroako Gazteriaren Institutuari, zeina baitzen gure kontsulta eragin zuten egitateak aurrera eramane zituen erakundea.

Txosten hau helarazita, amaiera eman zitzaion esku-hartzeari.

3.2.18. Espainiako Arartekoari eskaria egitea, azter dezan konstituzioaren arabera diren BEZaren igoera, langile publikoen 2012ko abenduako aparteko soldata eta mendetasunerako laguntzen gutxipena.

Hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Gaiak: Ogasuna. Funtzio publikoa. Gizarte ongizatea. Zergadunen, langile publikoen eta mendetasunaren sistemako onuradunen eskubideak babestea.

Jarduketa: Konstituzionaltasunari buruzko azterketa.

Erakundeak Espainiako Arartekoari eskatu zion azter zezan ea Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak onartutako zenbait neurri esparru konstituzionalarekin bat datozen, eta zergadunen, langile publikoen eta mendetasun sistemaren onuradunen eskubideak errespetatzen ote dituzten.

Zehazki, eskatu zen aipatu lege dekretuan araupetutako hiru alderdi baloratzeko:

- a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga tasak errege lege dekretu bidez aldatzea Konstituzioaren arabera izatea.

- b) Sektore publikoko langileen 2012ko abenduko aparteko soldata kentzeko neurria konstituzioaren araberakoa izatea. Kentze hori uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikulua bitartez gauzatu zen, eta arau hori oinarritzko legediaren izaera esleitzen zaio, honako artikuluetan oinarrituta: Konstituzioko 149.1.13.a artikulua (ekonomiaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa) eta 156.1 artikulua.
- c) Mendetasun sistemako prestazioen arteko bateraezintasuna konstituzioaren araberakoa izatea eta sistema horri lotutako beste zenbait alderdi, tartean erregimen iragankorra.

Lehenengo gaiari dagokionez, Nafarroako Arartekoak zehaztu zuen aipatutako lege dekretuko 23. artikuluan BEZaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzeko zenbait atal jaso zirela; besteak beste, zerga tasa orokorra eta zerga tasa murriztuak aldatu egingo dira. Eta gogorarazten zuen Konstituzio Auzitegiaren doktrinak deklaratu duela Konstituzioaren aurkakoak direla PFEZaren tasa aldatzen duten lege dekretuak, zerga hori zuzeneko zergapetzearen figura zentral bat delako. Bada, gauza bera aplika lekiok BEZari, zeren eta kontsumoaren gaineko zerga hori zeharkako zergapetzearen figura nagusia baita, eta, horrenbestez, PFEZak zuzeneko zerga gisa denaren baliokidea.

Bigarren gaiari dagokionez, Nafarroako Arartekoak gogorazi zuen Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publiko eta ekonomia eta finantza arloetan eskumen eskusiboa duela, arrazoi historiko edo foralak direla medio (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 49. eta 45. artikulua, hurrenez hurren).

Egia izanda ere Konstituzio Auzitegiak neurri honekin antzekotasuna duten lege-neurrien kariatara eman duen jurisprudentziak onartu duela ezen, Konstituzioko 149.1.13.a eta 156.1 artikuluen arabera, Estatuko legeak eragina izan dezakeela funtzio publikoarena bezalako eskumen autonomikoetan -eskumen hori, Nafarroaren kasuan, eskusiboa da, foru izaera dela eta-, eta horrenbestez, Konstituzioaren ikuspuntutik posiblea dela Estatuak finka ditzala, izaera orokorrekin, langile publikoen ordainsarietarako mugak (funtzionario publikoen lansari-masaren osotasuna), jotzen duelako gastu publikoaren funtsezko osagaietako baten espantsio erlatiboari eusteko neurri bat izan daitekeela (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 21eko 63/1986 epaia, maiatzaren 9ko 148/2006 epaia eta uztailaren 6ko 222/2006 epaia), egia da, era berean, jurisprudentzia horrek berak adierazi duela gehieneko topeak ezartzeak baztertzeko Estatuak bere aldetik aurrez determina ditzala autonomia erkidegoen menpekota den funtzionario bakoitzaren -banaka hartuta- ordainsarien zenbatekoen gehieneko igoerak. Nabardura horrek islatu besterik ez du egiten Estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumena bateragarri egin beharra dagoela; izan ere, nahiz eta onartu lehendabizikoaren norainokoa, intentsitatea edo eragina aldatu egin daitekeela, beti mugatu beharko da berezkoa duen esparrura; hau da, konstituzio-manuek aipatzen dituzten ekonomia-jardueraren plangintzara eta koordinaziora, hortik harantzago joan gabe.

Aurreko ohar orokorrek azaleratu nahi dute Estatuak baduela enplegatu publikoen ordainsarietan muga globalak ezartzeko eskumena, gastu publikoaren elementu garrantzitsua den aldetik; baina hala ere, neurria konstituzionala izatea ala ez emango

zaion irismen edo hedapenaren arabera izan daiteke. Ikuspegi horretatik abiatuta, lege dekretuan jasotakoa ezin da erabat bat etorri Estatu mailakoarekin, plangintza eta koordinazio ekonomikoena; hortaz, posible litzateke aipatutako funtzio publiko eta ekonomia eta finantzan arloetan Foru Komunitateko eskumenei eragitea, eta moduari erreparatuz gero, gerta daiteke multzo konstituzionalera ez egokitzea. Horren haritik, nabarmendu behar da neurriak ez duela arau bat inposatu nahi gastu publikoari eusteari edo, zehatzago esateko, enplegu publikoaren arloan langileen gastuari eusteari dagokionez (urteko aurrekontuaren soldata masa gutxituz, mugatuz edo izoztuz, horrelako teknikak erabili baitituzte); aitzitik, xedea (hau da, 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzea) lortzeko modua erabat eta oso-osoan zehazten du, eta horrez gain, enplegatu publiko batzuk diskriminatzekeko puntura ere iristen da, lanbide arteko gutxieneko soldatan oinarritutako erreferentzia bat baliatuz.

Nafarroako Arartekoak eskabidean aipatu du onartutako lege dekretuan zehaztutako eta Estatuak baliatutako eskumen tituluek estatu-neurri hain zehatza legezkotzat jo ote duten (horien babespean plangintza eta koordinazioaren intentsitateari buruzko neurriak har badaitezke ere), Foru Komunitatean enplegu publikoaren arloan langileen gastua murriztea (2012ko abenduko aparteko ordainsaria) noiz eta nola aplikatu behar den ere dakarrena, eta halaber, neurriak Nafarroako zein enplegatu publikori eragiten dion eta zein dauden salbuetsita zehaztea (Estatuko arauan erabilitako erreferentzia kuantitatiboa jasotzen den ala ez irizpidetzat hartuta; gainera, posible da Nafarroako zerga errealitateari begira egokia ez izatea, xedea lansari baxuagoa duten langileak ez zergapetzea baldin bada).

Esandako guztia dela medio, aztertu beharko litzateke Gabonetako aparteko ordainsaria jasotzea funtzionario publikoen funtsezko eskubide gisa hartzen den Estatu oinarritzko legedian, Estatuak horren zehatz arautu (kentzea) eta Nafarroako funtzionario publikoei zuzenean aplikatzeko moduan. Une horretan, Estatuak har lezakeen neurri horrek Foru Komunitatearen eskumen eskusiboan eragina izango luke, eta horrek funtzionario publikoen estatutu erregimen osoa ezarri eta horiei kalte egingo lieke, nabarmen.

Nafarroako Arartekoak eskatu zuen aztertu zedila ea lan-kontratudun langileei abenduko aparteko haborokina kentzea Konstituzioarekin bat datorren.

Lege Dekretuko 2.2 artikuluan xedatu da lan-kontratudun langileek ez dutela jasoko 2012. urteko Gabonetako aparteko haborokina, edo abenduko aparteko ordainsaria, eta murrizketa kopuru hori osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztiei aplikatuko zaiela, kasu bakoitzean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Erakunde honek gogorarazi zuen funtzionario publikoa izatea estatutu-harreman juridiko publiko batean oinarritzen dela eta harreman horren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak legez ezartzen direla; beraz, legez alda daitezkeela Konstituzioak finkatzen dituen mugen barruan. Lan-kontratudun langileen harreman juridikoa, berriz, pribatua da, are herri administrazioen zerbitzuan ari direnena ere. Harreman horiek negoziazioen bidez ezartzen dira eta alderdietako batek (enpresaburuak) ezin ditu aldatu bere kabuz, ez zuzenean legeen bitartez, erabat eta berehalako ondorioekin, laneko legerian negoziatorako ezarritako baliabideak alde batera utzita.

Neurri hori Espainiako Gobernuak prestatu du eta berak aplikatuko du zuzenean, inolako bitartekorik gabe; hori argi eta garbi geratu da 2.2 artikuluko bigarren idatz-zatian, ezarri baitu neurria zuzenean aplikatuko dela 2012ko abenduko nominan. Izan ere, jarraian negoziazio kolektiboa aipatzen bada ere, ez du egiten neurria bera negoziatu daitekeela onartzeko, baizik eta adierazteko murrizketa jaso gabeko hainbat nominatan aplikatu daitekeela hainbanatuta.

Nafarroako Arartekoaren iritziz, aztertu behar litzateke ea Administrazioaren (enpresaburua) eta lan-kontratudun langileen arteko harreman juridikoa finkatzen duen lan-kontratua lege dekretu baten bidez zuzenean eta erabat aldatzea, alde batera utzita laneko legerian ezarritako mekanismo orokorrak, batez ere Langileen Estatutuko 41. artikuluan araututako negoziazioa (horren arabera ordainsarien sistema eta soldaten zenbatekoak aldatzea lan-baldintzen funtsezko aldaketa da, eta auzia konpontzeko alderdiei kontsultak egiteko eta onusteko negoziatorako aukera eman behar zaie), Konstituzioko 35. eta 37. artikuluetan ezarritakoarekin bat datorren: artikuluko horietan lanerako eskubidea finkatu da eta lan-negoiziarioa eta hitzarmenen indar loteslea bermatu dira.

Nafarroako Arartekoak uste du Estatuak zerbitzu publikoan ari diren lan-kontratudun langileen soldata murrizteko eskumena erabiltzea erabakiz gero, kontuan eduki behar dituela Langileen Estatutuan lan-baldintzak funtsean aldatzeko ezarritako bideak (Konstituzioko 35.2 artikuluan aipatzen da Langileen Estatutua langileen eskubideen babesera eta bermerako ezarri dela). Hala eta guztiz ere, dekretu legeak ez du aurreikusten Gobernuak Langileen Estatutuko 41. artikulua bidera jo dezala -hala egin beharko luke, dirudienez- eta, enpresa-ordezkaritzaren bitartez planteatzen dena, negoziatzen dena eta, kasua bada erabaki dezala soldataren gutxitzea. Aitzitik, zuzenean ezartzen du soldata gutxitzeko neurri zehatza, aurrez negoziatu gabe.

Nafarroako Arartekoak ez du uste Estatuak salbuespen dagoenik Langileen Estatutuko 41. artikuluko bidera jotzetik, eta hori egitetik salbuesten dutenik ez uztailearen 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoak, ez eta Enplegatu Publikoaren Estatutuko 32. eta 38.10 artikuluetan ezarritakoak ere. Hiru dira horretarako arrazoiak:

- Lehenengoa: arau horien helburu nagusia ez da Administrazioari gaikuntza ematea negoziazio kolektiboa ukatzeko edo, oro har, hari ahalmena emateko langileei aplikatzekoak zaizkien itun eta akordioak ez betetzeko; guztiz kontrakoa baizik. Izan ere, arauak bilatzen dute laneko legediaren arabeko negoziazio kolektiboa bermatzea (32. artikulua) eta itun eta akordioak bete daitezela bermatzea; eta arau haiek azken horiek aldatzeko aukera ematen dute soilik aparteko kasuetan eta inguruabar ekonomikoen funtsezko aldaketa batetik heldutako interes publikoko arrazoi larri batengatik, betiere interes publikoa babesteko hertsiki beharrezkoa den neurrian (38.10 artikulua).
- Bigarrena: agindu horiek arau nabarmenak dituztelako negoziazio kolektiboa eta itunak bermatzeko, baina ez dute, ostera, azken horiek nola aldatu esaten duten araurik, Langileen Estatutuko 41. artikulua ezarri duen moduan.

- Hirugarrena: itunak eta akordioak aldatzeko aurreikuspena edozein dela ere, hemen ez gara itun edo akordio bat aldatzen ari; aitzitik, lege indarra duen arau baten bidez aparteko haborokina zuzenean ezabatzen da, Langileen Estatutuaren 41. artikulua langile guztientzat oro har, eskubideen oinarriko berme gisa, ezarritako ibilbidea alde batera utzita, dela sektore publikokoa, dela pribatukoa. Horrenbestez, ez inongo errege dekretu legek, ez Enplegatu Publikoaren Estatutuak ez dute baztertzen Langileen Estatutuko 41. artikulua aplikazioa; eta, horrenbestez, langileen baldintzak funtsean aldarazteko neurri zehatz bat, Errege Dekretu Legeko 2.2 artikulua irismena duenaren parekoa, ezin litzateke erabaki Langileen Estatututik kanpo, eta arau horixe aipatzen du Konstituzioak (35.2) langileen eskubideak bermatzeko, enpresaburua publikoa nahiz pribatua izan.

Nafarroako Arartekoak ez du uste, ezta ere, bidea dagoenik errege dekretuaren isiltasuna osatzeko Langileen Estatutuaren 41. artikulua aplikazio batekin, zeren eta 2. artikulua irakurketak argi zuten baitu errege dekretuak jada alde aurretik erabaki duela, alde bakarrez, ezin eztabaidatzeko moduan eta ezin baldintzatzeko moduan, langilearen aparteko soldata kentzea; eta, horrenbestez, ez dago fede onez neurria negoziatzeko egiazko aukerarik.

Nafarroako Arartekoak, halaber, eskatu zuen azter zedila ea 20/2012 Errege Dekretu Legean betetzen den aparteko premia larriaren gaikuntzarako baldintza, hain zuzen ere Konstituzioak ezarritakoa, langile funtzionarioen edo lan kontratupeko langileen aparteko lansaria edo esker-saria kentzeko azken bi neurrien kasuan -datorren 2012ko abenduan betearazi behar dira neurri horiek-. Arartekoak aitortzen du dekretu legearen erabilera legitimoa dela, Konstituzioaren arabera, aparteko eta larrialdiko premiako egoera batean eta, gainera -eta alderdi hau ezin da zalantzan jarri-, garatzen den arau-ekintzaren bitartez bilatzen den helburua ezin bada legegintza prozeduraren bitartez erdietsi -hain zuzen ere, jada larrialdiko izapidetze bat aurreikusten du-.

Bila ibili arren, Nafarroako Arartekoak ez du aurkitu lege dekretuaren zioen azalpenean berriazko justifikaziorik araugintzako tresna hori erabiltzeko aurrean aipatutako neurriak onartzeko, kontuan edukita ez direla aplikatuko hainbat hilabete pasatu arte (2012ko abenduan) eta legegintzako presazko prozeduraren bitartez onartu zitezkeela, hau da, helburua, langileen gastua murriztea, berdin lortu zitezkeela Diputatuen Kongresuak eta Senatuak parte hartuta. Nolanahi ere, norbaitek esan lezake aurrekontuen egonkortasunerako, hots, dekretuaren helburua lortzeko, neurriak noiz aplikatuko diren bezain garrantzitsua dela berehala txertatzea antolamendu juridikoan, zeharka ere eragina izan lezaketelako. Hala ere, esan bezala lege dekretuak legegintzako presazko prozeduraren bitartez onartu daitezke aplikatzen hasteko asmoa dagoen baino nahikoa lehenago, eta horregatik kasu honetan aztertu behar litzateke lege dekretua erabiltzea bat datorren Konstituzioak eta Konstituzio Auzitegiak finkatutakoarekin.

Hirugarren gaia da mendetasun-sistema dela eta egiten den araupetzea.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak hainbat berrikuntza sartu ditu mendekotasunaren sistemaren arautegian.

Nafarroako Arartekoak eskatu zuen aldaketa edo gehikuntza horietako batzuk azter zitezela Konstituzioarekin bat datozen argitzeko; izan ere, dekretu horren bidez Estatuak Nafarroako herritarren eskubideak ukitzen ditu, nahiz eta Nafarroako Foru Komunitateak gizarte laguntzaren arloko eskumen eskusiboak eduki, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44.17 artikuluan ezarri den bezala.

Adibidez, Lege Dekretuko 22.9 artikulua 25 bis artikulua gehitu dio 39/2006 Legeari (abenduarien 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa). Artikulu horretan prestazio ekonomikoen arteko bateraezintasuna arautu da, eta arautu ere hain zehatz eta xehe ezen prestazio horiek bateragarriak direnez ezarri baitu (mendekotasunaren prebentziorako zerbitzua, autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzua, telelaguntza zerbitzua, laguntza etxean emateko zerbitzua, eguneko eta gaueko zentroak).

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak eskatzen du aztertu dadila ea Estatuak gizarte zerbitzuen prestazioak eta haien arteko bateraezintasunak horrenbesteko xehetasunarekin arautzeko eskumena daukan. Izan ere, baliteke horretarako eskumena Nafarroako Foru Komunitateak soilik edukitzea, Foru Hobekuntzako 44.17 artikulua arabera gizarte laguntzaren arloko eskumen eskusiboa dauka eta.

Halaber, Errege Dekretu Legeko 22.17 artikulua Mendekotasunaren Legeko azken xedapenetako lehenengoa aldatu du, eta aztertu egin behar litzateke Estatuak eskumenik daukan guztiz xehatuta ezartzeko noiz sortzen den mendekotasunaren onarpenak berekin dakartzan prestazioak jasotzeko eskubidea. Kasu honetan ere, prestazioak gizarte laguntzakoak direnez, baliteke haien gaineko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateak edukitzea, halaxe ezarrita baitago Foru Hobekuntzako 44.17 artikuluan.

Gainera, eskatu zen aztertzeko ea Estatu bere eskumenei lotu zaien lege dekretuko zarpigarren xedapen gehigarrian, etxeko zaintzarako prestazio ekonomikoak eta profesionalak ez diren zaintzaileentzako laguntzak, Mendekotasunaren Legeko 18. artikuluan ezarritakoak, arautu baititu: ez dira aplikatuko atzera-eraginkortasunarekin eta etendura ekar lezaketen epeak ezarri dira. Kasu honetan ere, prestazioak gizarte laguntzakoak direnez, baliteke haien gaineko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateak edukitzea, eta ez Estatuak, halaxe ezarrita baitago Foru Hobekuntzako 44.17 artikuluan.

Arrazoi beraiengatik ondokoetan ezarritakoa ere aztertzeko eskatu zen: Lege Dekretuko bederatzigarren, hamargarren eta hamabigarren xedapen iragankorrak eta azken xedapenetako lehena. Bederatzigarren xedapenean arautu da nola jokatu behar den Lege Dekretua indarrean jartzean ebatzi gabe dauden mendekotasuna onartzeko eskaerekin. Hamargarren xedapenean etxeko zaintzarako prestazioaren, laguntza pertsonalerako prestazioaren eta zerbitzuari lotutako prestazioaren gehieneko zenbatekoak finkatu dira. Hamabigarren xedapenean mendekotasun-gradu bakoitzari dagokion zerbitzu-babesaren intentsitatea (orduak hilean) finkatu da. Azken xedapenetako lehenengoak maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko seigarren xedapen gehigarria aldatu du abenduaren 39/2006 Legean ezarritako prestazio ekonomikoen gerorapenei eta atzera-eraginkortasunaren ondoriozko ordainketak egiteko aldiei dagokienean.

Nafarroako Arartekoaren ustez, Estatuak prestazio hauek horren zehatz arautzea (ondorioak, epeak, zenbatekoak, intentsitateak hileko ordutan, gerorapenak edo ordainketa-aldiak...), Nafarroako Foru Komunitateko legeria baztertuta, Komunitateak Foru Hobekuntzako 44.17 artikulua araberako arlo honetan daukan legegintzako eskumena urratzea izan liteke, berari baitagokio gai zehatz horiek arautzea.

Nafarroako Arartekoak azpimarratu zuen azterketa-eskaera hau ez duela eragin Nafarroaren eta Estatuaren arteko eskumen-auzi batek; aitzitik, funts hori baino zabalagoa da: Estatuak herritarren gizarte zerbitzuak murriztu ditu eta horretarako eskumenik daukan edo ez argitu behar da. Ez badauka, Estatuak herritarren bidezko eskubideak eta interesak urratzen ari da eta botere eta erakunde publiko egokiek eskubideok eta interesok babestu behar dituzte.

Espainiako Arartekoak komunikatu zuen ezen, Koordinazio eta Barne Araubide Batzordeak nahitaezko txostena eman ondoren, 2012ko urriaren 15eko azken bileran, erabaki zuela eskatutako errekurtsioa ez aurkeztea. Idazkiari kasuan kasu emandako ebazpenak erantsi zizkion.

Ebazpen horietan adierazten zen Espainiako Arartekoaren ohiko irizpidea dela konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsorik ez aurkeztea ekintza hori horretarako legitimazioa duten gainerako subjektuetako edozeinek hasi duenean.

Eskumen-auziei dagokionez -soilik Nafarroako Arartekoak alegatu ditu-, egokitzen jotzen zuten esku ez hartzea eta esparru horretan inongo erabakirik ez hartzea, zeren eta Nafarroako Parlamentuak iragarria baitzuen errekurtsio bat aurkeztea.

Errege lege dekretuaren aparteko premia larriaren baldintzari dagokionez, Espainiako Arartekoak jotzen zuten baldintza hori bete egiten dela.

BEZaren tasa aldatzeari dagokionez, Espainiako Arartekoak jotzen zuten zerga hori “Europar Batasunak harmonizatutako zerga bat dela, eta estatu guztietan antzeko aplikazioa duela, zerga-tasen aldaera bakarrarekin, eta horretan ere maniobra-tarte txikiarekin, betiere Europako Batzordeak adierazten duenaren menpean. Horretaz gainera, euroan sartzeak Espainiari ekarri dio monetaren kontrolaren -eta, horrenbestez, defizitaren- gaineko soberania lagatzea. Inor ez dago pairatzen ari garen egoera ekonomikoa ezagutzen ez duenik...”

Enplegatu publikoen abenduko aparteko soldata kentzeari dagokionez, jotzen zuten neurria justifikatuta dagoela egoera ekonomikoarengatik eta Estatuak defizit mugari eusteko eta gastua gutxitzeko dituen nazioarteko betebeharrarengatik. Aparteko soldatarako eskubideaz desjabetzeari buruzko iritzirik ez du ematen, zeren eta gai hori Nafarroako Parlamentuak planteatua baitu Konstituzio Auzitegian. Azkenean, bidezkoz jotzen du Administrazio Publikoetako Estatuko Idazkaritzari gomendatzea murriztu dezala errege dekretu legearen aplikazioa hura argitaratzeko uneko aparteko soldatarako sortu gabeko zenbatekoari dagokionez, eta premiatzea hura kentzetik eratorritako zenbatekoen erabilera zehatz dadin, eta ezarritakoez gainerako formula gehigarriak gaitzea soldataren kentzeak ukitutako enplegatu publiko guztiez haien onura hartu ahal dezaten.

3.2.19. Ezgaitasuna duten pertsonak koordainketa farmazeutikotik salbuestea.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Koordainketa farmazeutikoa. Ezgaitasuna duten pertsonak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Nazio mailan ezgaituei babesa ematen diharduen entitate batek erakunde honi zenbait gogoeta helarazi zizkion kolektibo honek gastu farmazeutikorako egiten duen ekarpenari buruz.

Zehazki, entitateak adierazi zuen Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren webgunean argitaratu zirela, argibide moduan, prestazio farmazeutikoaren eredu berriari buruz maiz egiten diren galdera batzuen erantzunak. Galdera horietan, aipatzen zen % 33tik gorako ezgaitasun gradua duten pertsonen ekarpenaren salbuespena (Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko Legean aipatutakora jota) eta, bereziki, ezgaitasuna duten erretirodunen kasua, eta argitzen zen azken inguruabar horri ematen zitzaiola lehentasuna eta, horrenbestez, salbuespena zela aplikatzekoa.

Entitateak zioen ezen, hala eta guztiz ere, nazio mailako errealitatea zela aurreikuspen horiek ez direla kasu askotan betetzen; eta, hartara, ezgaitasuna duten pertsona batzuk badaudela, bereziki erretirodunak, sendagaiak ordaintzen ari direnak, nahiz eta salbuespenerako eskubidea duten. Horretan lagungarri gertatzen da, entitatearen arabera, salbuespen hori ez dela aitortzen osasun zentro eta farmazia-bulego batzuetan, zeren eta horri buruzko informazio zehatzik ez baitute, eta balizko koordinazio eza gerta daitekeela kasu honetan koordainketaren araubidea zehazte aldera jardun behar duten organo administratiboan artean (osasunaren arloko administrazio eskudunak, tributuzko administrazioa eta ezgaitasunaren aitopenez arduratzen direnak).

Kontuan izanda gaia interes orokorrekoa dela eta nolako kolektiboan duen eragina, Osasun Departamentuari eskatu zitzaion informa dezan sortutako gaiari buruzko erreklamaziorik aurkeztu ote zaion, ezgaitasuna duten pertsonen legokiekeen salbuespena bermatzeko ofizioz hartu edo hartuko diren neurriak buruz eta beste departamentu batzuekiko koordinazio-neurriak buruz, aipatutako salbuespena eraginkor egite aldera.

Osasun Departamentuak honako hau jakinarazi zuen:

- a) 16/2012 Errege Lege Dekretuko 8. Puntuko 94. bis artikulua ezartzen du "honako erabiltzaileak eta haien onuradunak [prestazio farmazeutikoaren] ekarpenetik salbuespena egonenez direla: a) Sindrome toxikoak ukitutako pertsonak eta ezgaitasuna duten pertsonak, arau berariazkoetan jasotako kasuetan".
- b) Berariazko arauetan doako farmazia aurreikusten den ezgaituen kolektibo bakarra LISMIren (Ezgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982) prestazio ekonomiko eta sozialen onuradun den kolektiboa da, eta

kolektibo hori aipatzen da lege horretako prestazio ekonomiko eta sozialen sistema berezia ezartzen eta arautzen duen otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretuko 4., 5. eta 6. artikuluetan.

- c) Kolektibo hori halakotzat identifikatu du Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak TSI 001 kodea emanez (ekarpenetik salbuetsia), eta informazio hori Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari helarazi zitzaion, hura integra dezan Osasun Sistema Nazionaleko datu-basean eta autonomia erkidegoetako osasun txarteletarako datu base desberdinetan.
- d) Araudi horren arabera, TSI 001 ekarpen-mota (doako farmazia) esleituta edukitzeko, bi baldintza bete behar dituzte pertsona ezgaituek: % 33ko edo gehiagoko minusbalioetasuna izatea, eta beste edozein tituluren bidez ez edukitzea osasun estaldura publikorako eskubidea.
- e) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren datu basean, 49 pertsona ageri dira bi baldintza horiek betetzen dituztenak.
- f) Aseguradun edo onuradun baldintzarako sarbidea Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko 16/2003 Legeko 3. artikuluan ezarritako beste edozein bideetatik duten pertsona ezgaituak TSI datu basean erregistratuta daude farmazia prestaziorako dagokien ekarpen motarekin, beren aseguru- eta errenta-ezaugarriei dagokien moduan, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak helarazitako informazioaren arabera.
- g) Gogorarazi beharra dago kolektiboak ekarpen farmazeutikoko kode jakin batean sartzeko irizpideak ez dituztela osasun sistema probintzialek garatzen, baizik eta Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak.
- h) Zerbitzu-bokazioko irizpideak tarteko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erreklamazioak hartu eta artatzeko tresna bat garatu du, baina erreklamazioa baiesteko nahiz ezesteko erantzukizuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarena da, eta bera da gero baietsitako proposamenak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari helarazten dizkiona, gizabanakoaren ekarpen kodea exekuta dezan.
- i) Tresna horretara 2.000 erreklamazio baino gehiago iritsi dira, baina Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez daki bereizten horietatik zenbat dauden zehazki agerian jarri diguten egoeran. Badakiena da gauza bat dela erreklamazioa eta beste bat erreklamazio hori baiestea, eta horixe ez dagokiola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari.

Helarazitako informazioa ikusita, non Nafarroan salbuespen horren onuradun diren pertsonen datuak azaltzen baitziren, eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekiko harremanetan antzeman den koordinazioa ikusita, erreklamazioen artatzea errazteari begira, amaitutzat eman zen erakunde honen jarduketa.

3.2.20. Geroratzeak familia-laguntzen eta lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen ordainketetan.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua.

Gaia: Gizarte ongizatea. Familiei babesa emateko laguntzak eta lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak hedabideen bitartez ezagutu zituen familiei babesa emateko laguntzen eta lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen ordainketan balizko geroratzeak izan zitezkeela (erditze anizkoitzetarako laguntzak, lan eszedentzietarako laguntzak, hirugarren seme-alabaren jaiotzaren laguntzak, lau seme-alaba edo gehiagoko familientzako laguntzak eta abar). Horri dagokionez, argitara eman zen ezen, aurrekontu izaerako arrazoiengatik, familia ugari urratua ikusia zutela horrelako laguntzak jasotzeko eskubidea, eta atzerapenak pairatu behar izan zituztela zegozkien ordainketetan, horrek berarekin dakarren ezinegonarekin.

Argitaratutakoa kontuan izanda, eta kontuan izanda, halaber, erakunde honetan gai horri buruzko kezak eta kontsultak aurkeztuak zirela, arazo hau xehetasun handiagoez ezagutze aldera, Gizarte Politiketako Departamentuari eskatu zitzaion honako alderdiei buruzko informazioa helaraz ziezagun:

- Familia babestearen arloko laguntzen zein mota edo modalitatearen ordainketak atzeratzen ari ziren, zirudienaren arabera.
- Atzerapen horiei zegozkien zenbatekoak, laguntzen modalitatearen arabera.
- Ukitutako familien kopurua, irizpide berari jarraituz (laguntza-modalitatearen arabera).
- Arazoari konponbidea emateko hartutako neurriak edo hartuko diren neurriak.

Gizarte Politiketako kontseilariak honako txostena eman zuen:

“2011n, Nafarroako Gobernuaren irailaren 7ko eta 28ko erabakiak onartzearen ondorioz -horien bidez, neurriak hartzen dira aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzeko eta 2011ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan egin beharreko kreditu-atxikipenak zehazten dira, defizit helburuak betetzea aldera-, familiaren arloko prestazio ekonomikoetarako eskabideak ukatu ziren. Eskabide horietako batzuk, halere, ez ziren berariaz ebatzi. Inguruabar hori dela eta, zenbait kexa aurkeztu ziren Nafarroako Arartekoaren erakundearen.

Halaber, lehendik emandako beste laguntza batzuen ordainketa atzeratu egin zen. Halere, ez zen ordaindu gabe utzi lehendik baietsitako laguntza bakar bat ere.

2012an, aurreko urtean aurrekontuan dirurik ez egoteagatik artatu gabe utzi ziren eskabideei tokia egiteko xedez, laguntzetarako zenbait deialdi egin dira, eskabide horiei babesa eman ahal izateko. Hauexek dira, hain zuzen:

- 1) 33/2012 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik zuzeneko diru-laguntzak aldizka ordaintzeko deialdiaren oinarriak onesten dituena. 4.1.f) oinarriak laguntza jasotzeko oinarri gisa ezartzen du eszedentzia 2011n edo 2012an hasi izatea.
- 2) 234/2012 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, 2011. urtean seme-alabak zaintzeko eszedentzian egon diren aitei zuzeneko diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena, seme-alabak zaintzeko orduan erantzunkidetasuna sustatzeko neurri gisa.

330/2012 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak maiatzaren 22an emandako 235/2012 Foru Aginduan harrapatutako akatsak zuzentzen dituena. Foru agindu horren bidez, diru-laguntzak aldizka ordaintzeko deialdiaren oinarriak onetsi ziren 2011n eta 2012an izandako haur baten baino gehiagoren jaiotza, adopzio edo harrerengatik.
- 4) 239/2012 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, laugarren eta ondoko seme-alabengatik 2011ko eta 2012ko diru-laguntzak familiei emateko deialdiaren oinarriak onesten dituena.
- 5) 240/2012 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, jaiotza-tasa sustatzeko neurri gisa, ordainketa bakarreko diru-laguntza zuzenen deialdia onesten duena, 2011. urtean zehar eta 2012ko martxoaren 22ra arte jaiotza, adopzio edo harrera baten ondorioz adingabe bat hartzen duten familientzat, betiere hirugarren adingabea edo hortik aurrerako bat baldin bada.
- 6) 241/2012 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean bizi eta etxe-zerbitzuan eta/edo adingabeekin, adineko pertsonekin edo mendekotasun moderaturen bat dutenekin aritzeko 2011n langileak kontratatu dituzten familientzako laguntzen deialdia egiten duena, familia kontratatzaileen laneko eta familiako biritza batera eramaten laguntzeko.

Deialdi hauen babesean aurkeztutako eskabideak normaltasunez izapidetzen ari dira, oinarri arautzaileetan ezarritakoak betez. Horietako bakoitzaren gaurko egoera honela laburbil zitekeen:

- a) Haur bat baino gehiagoko erditzeengatik laguntzak: 144 eskari aurkeztu dira. Uztailean jaiotako seme-alabenak izan ezik, eskari guztiak ebatzi dira eta ordaintzeko daude.
- b) Eszedentziarengatik laguntzak: 643 eskari aurkeztu dira, eta 107 ebatzi dira.

- c) Erantzunkidetasuna errazteko laguntzak: 11 eskabide aurkeztu dira, eta guztiak ebatzi. Ordaintzeko zain daude.
- d) Hirugarren seme-alabarengatiko laguntzak: 691 eskari aurkeztu dira. Guztiak ebatzita daude eta ordaintzeko daude, salbu eta 21 eskari, haietan dokumentazio osagarria eskatu baita.
- e) Laugarren seme-alabarengatiko laguntzak: 1.934 eskari aurkeztu dira, eta haietatik 1.500 laguntza berritzeak dira; abuztuaren amaitu zen haiek aurkezteko epea. Gainerakoetatik, 188 eskari ebatzi dira, eta ordaintzeko zain daude.
- f) Etxe-zerbitzuan eta/edo adingabeekin, adineko pertsonekin edo mendekotasun moderaturen bat dutenekin aritzeko langileak kontratatzekeo laguntzak: 190 eskari aurkeztu dira. Haietatik gehienak ebatzi dira, eta ordaintzeko zain daude.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak, zeina departamentu honi atxikita dagoen erakunde autonomoa baita, eskabideak izapidetzeko eskuduna, ondorioztatzen zuen “bide guztiak jartzen ari direla eskariak ahal bezain azkar ebatzeko, eta informazioa ematen zaie pertsona eta familia eskatzaileei espedienteak ebatzeko prozeduraren egoerari buruz. Hori guztia legezkiekeen laguntzak ahal den epe laburrenean kobratu ahal ditzaten.”

Txostena ikusita, erakundeak egokitzen jo zuen Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea laguntza horien eskariak ebatzeko legezko betebeharrak duela, eta haiek kasuko epeetan interesdunei ordaindu behar dizkiela -epe horiek, izan ere, aplikatzekoak diren araudian eta deialdietan determinatuta daude-, horretarako behar diren neurriak hartuz, kudeaketakoak, aurrekontuak edo beste edozein gisakoak.

Gogorarazpen honekin, amaiera eman zitzaion jarduketari.

3.2.21. Adopzio nazionalaren aukera egitean bazterketa gertatzea, adopzio-egileei seme-alabarik ez izateko eskatzen baitzaie.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua.

Gaia: Hautzaroa. Adopzioa.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Erakunde honek, hedabideen bitartez, ezagutu zuen herritar batzuen gutun bat, zeinaren bidez azaltzen baitzuten orain dela sei urte nazioarteko adopzio bat egin zutela, eta gaur egun bi urte baino gutxiagoko adopzio nazional bat eskatzen dutela. Beren gutunean, herritarrek aipatzen zuten Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 75. artikuluko indardunak lehentasuna ematen diela adopzio nazionalen seme-alabarik ez duten pertsonen edo familia guneen, salbu eta premia bereziak dituzten adingabeen kasuan.

Horri dagokionez, gutuna idatzi zuten herritarrek jotzen zuten aurrez seme-alabarik ez izatearen baldintza hori elementu baztertzaila dela adopzio nazional bat lortu ahal izateko, eta irizpide horrek ez duela garatzen egokitasun handiagoa adingabe bakoitzarentzako baliabiderik onena ziurtatzeko edo hautatzeko, zeren eta -ziotenez- adopzioak izan behar baitu adingabeari baliabiderik eta familia-testuingururik onena emateko. Gehitzen zuen lege-baldintza horrek paradoxa bat eragin dezakeela, alegia, adopzio nazionalako adingabe bat esleitzen zaien guraso batzuek, inongo lege-murriztapenik gabe, familia handitu ahal izatea nazioarteko adopzioko adingabe batekin, baina alderantzizko kasuan hori ezinezkoa izatea, adierazitako arrazoiak tarteko.

Aurreko guztia ikusita, herritar horiek eskatzen zuten espresuki aipatutako araua (15/2005 Foru Legeko 75. artikulua) aldatzeko edo deuseztatzeko, zeren eta jotzen baitzuten baztertzaila dela eta konparaziozko bidegabekeria eragin dezakeela Nafarroako familia adoptatzaileen artean, eta, batez ere, adopzioaren filosofiaren beraren aurkako eraso bat delako; izan ere, filosofia horren arabera, adingabea eta haren interesa lehenetsi behar dira, eta ez helduena.

Gutun horretan planteatutako gaiak sortzen zuen interesa kontuan hartuta, Gizarte Politiketako Departamentuari iritzia eskatu zitzaion lege-arau horren balizko aldatetari buruz, herritarrek adierazitakoaren ildotik, eta, bereziki, jakiteko egungo erredakzioa baztertzaila edo adingabearen interes gorenaren aurkakoa den, edo egun indarrean dagoen lege-irizpidea aldatzea komeni den, gerta daitezkeen arrazoiak tarteko [abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 73.h) artikulua].

Gizarte Politiketako Departamentuak informatu zuen abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75. artikulua aldatzea bat izapidetzen ari dela, lehenengo idatz-zatia kentzeko, bertan jasotzen baitzen adopzio nazionalan seme-alabarik gabeko bikoteei lehenetsia ematea. 2013ko martxoaren 14an, Legebiltzarreko osoko bilkurak manua indargabetu zuen

3.2.22. Espainiara itzultzeko bisatua ukatzea Nafarroan bizi den eta herritar nafar batekin ezkonduko Nafarroako herritar bati.

Hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Gaia: Atzerritarrak. Bisatuak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak Espainiako Arartekoarengana jo zuen, jakitera emateko hedabide batean albiste bat jasoa zutela Nigeriako herritar bat pairatzen ari zen arazoei buruz. Emakumezko hori Nafarroako herritar batekin dago ezkondu duela sei urtetik, eta Nafarroan bizi da legez. Albiste horien arabera, herritarra iragandako eguberrietan Nigeriara bidaiatu zen, bere familiari bisita egitera, eta ordutik herrialde hartan dago, handik ateratzeko modurik gabe.

Herritarren senarrak hedabideetan adierazitakoaren arabera, emaztea Espainiara bere senarrarekin itzultzeko ahalegin administratibo ugari egin bazituen ere, ezin izan zuten

hori lortu, eta bikotea berriz biltzea eragozten zuten errekerimendu eta akatsak gertatzen diren etengabe.

Espainiako Arartekoari eskatzen zitzaion ezen, bere ahalmenen neurrian, bere bulegoak egokitzat jotzen zituen urratsak egin zitzala arazoari ahal den eta azkarren konponbidea emateko, betiere aplikatzekoa den legediaren aurreikuspenen barruan.

Nafarroako Arartekoak informatu zuen ikerketa bat abiarazia zuela Espainiak Lagosen duen Kotsuletxearen aurrean, informa zezen herritar horri zergatik ukatu zioten bisatua, eta bisatu eskariaren izapidetzearen egoerari buruz. Informazioa presaz emateko eskatzen zuen.

3.2.23. Osasun laguntza administrazio egoera irregularrean dauden etorkinentzat.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasuna. Osasun laguntza publikoa administrazio egoera ez-irregularrean dauden etorkinentzat.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Hedabideetan argitaratutako albisteen bitartez zabaldu zen Osasun Departamentua aztertzen ari zela neurri batzuk hartzea, 2012ko irailaren 1etik aurrera egoera irregularrean dauden etorkinei osasun laguntza publikoa ematera bideratuak.

Osasun Departamentuak hartuko lituzkeen neurri horiek heldu dira berriki eman den Osasun Sistema Nazionalaren jasangarritasuna bermatzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretu Legetik, non ezartzen baita atzerritarrek Espainian osasun arretarako eskubidea dutela, osasunaren arloko legedia indardunean ezarritako terminoetan.

Osasun legedi hori osatzen dute bai Estatuak onetsi dituen legeek, bai autonomia erkidegoek beren estatutuen arabera eman dituztenek.

Estatuko osasun legedia, zeinak oinarrizko izaera baitauka, apirilaren 20ko Errege Lege Dekretuak ezarritako aldaketei jarraituz ezartzen du Espainian egoiliar gisa erregistraturik ez dauden eta baimendurik ez dauden atzerritarrek, 2012ko irailaren 1etik aurrera gaixotasun larriaren edo istripuaren kasuetan larrialdietako modalitateko osasun laguntza jasoko dutela, edozein dela ere arrazoia, senda-agiria jaso arte, bai eta haurdunaldi, erditze eta erditze-ondo kasuetan ere.

Bestalde, Nafarroari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloan pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua, Nafarroako Foru Komunitateak ematen duen osasun laguntza publikorako eskubidearen titularrak definitzerakoan, ezartzen du laguntza hori estaldura unibertsalekoa dela, bere maila eta modalitate guztietan, modu berdinean, Nafarroako udalerrri guztietan bizi diren pertsonak hartzen dituela, eta *"Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen dituela, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera"*.

“Oinarrizko legediaren garapen autonomikoko legediaren” multzotik heldu den arau konstituzionalari erreparatuta, osasunaren arloari dagokionez, non eskumenak estatuaren eta autonomia erkidegoen artean banatuta dauden, eta aintzat hartuta, halaber, Nafarroak barne osasunaren arloko eskumen eskusiboa duela, bere foru araubidearen indarrez, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko aipatutako 11. artikulua ez zen geratu indarrik gabe, alde batera edo indargabeturik apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren eraginez, zeren eta Estatuko legedia oinarrizko arau baten gisara egituratzen baita, egoera irregularrean dauden atzerritarren gutxieneko eskubideak perfilatzen dituen, hain zuzen ere Nafarroako legeen bitartez zabaldu edo hobetu daitezkeen eskubideak, eta horixe da aipatutako foru legeko 11. artikulua egiten duena. Horri dagokionez, nahikoa da aipatzea Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eman duen doktrina, zeina otsailaren 16ko 22/2012 epaian berretsi baitu.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloan pertsonen duten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua indarrean jarraitzen duenez guztiz, eta Nafarroako Foru Komunitateko osasun administrazioak hura nahitaez bete behar duenez, egokitzat ikusi zen Osasun Departamentuari legezko betebeharren gogorazpen bat egitea, halako moduz non 11. artikulua hori indarrik gabe geratzen ez den bitartean edo foru lege batez aldatzen ez den bitartean, lege-arau hori aplikatuko den, bere eduki guztiekin. Horrek, izan ere, berarekin dakar osasun laguntza publikoa ematea, inongo tasarik edo preziorik kobratu gabe Nafarroan egoitza izan eta egoera irregularrean dauden etorkinei, baita 2012ko apirilaren 1etik aurrera edo 2012ko irailaren 1etik aurrera iritsi eta beren egoitza Nafarroan finkatu dutenei ere.

Hori dela eta, Osasun kontseilariari eskatzen zitzaion legezko betebeharren gogorazpen hori beranduenez bi hilabeteko epean onar zezan edo errefusa zezan, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2 artikulua finkatu bezala, eta, kasua bada, hartu beharreko neurriei buruz informa dezan.

Osasun Departamentuak ez zuen onartu legezko betebeharren gogorazpena, eta honela argudiatu zuen bere errefusa:

- 1) Nafarroako Foru Komunitateak, 1991tik, osasun laguntza eskuratzeko sistema berekia dauka, zeinaren bidez osasun estaldura publikoa zabaltzen joan baita, bere lurraldearen barruan, baita Estatuko arauen indarrez hura eskuratzetik ez zuten pertsonen ere.

Lehenengo, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretua onetsi zen. Haren indarrez, izan ere, osasun laguntza publikoa zabaldu zitzaion osasun babes publikorik ez zuten pertsonen edo hura eskuratzeko modurik ez zutenei, edozein titulu juridiko tarteko, irailaren 8ko 1088/1989 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat; izan ere, azken horrek Gizarte Segurantzaren osasun laguntzaren estaldura zabaltzen die behar adina baliabide ekonomiko ez duten pertsonen.

Aurrerago, azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua onetsi zen, zeinak Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubideko prestazioen prozedura eta baldintzak ezartzen baitzuten.

Foru dekretu hori onetsita, Nafarroan osatu nahi izan zen osasun laguntza publikoa ororenganatzeko printzipioaren erregulazioa. Izan ere, aurrez, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuaren bidez erregulatua zen.

2) Aipatutako 640/1996 Foru Dekretuak sarbiderako ezartzen duen sistema baldintza gisa exijitzen du Nafarroan gutxienez ere urtebetez bizitu izatea eta diru-sarreraren araberako kuota bat ordaintzea. Diru-sarrerarik ez duten pertsonak (nazionalak eta ez-nazionalak, erregularrak eta irregularrak) Osasun Sistema Nazionalako banakako osasun txartela lortzen zuten otsailaren 8ko 1088/1989 Errege Dekretuaren indarrez. Izan ere, dekretu horrek "sarbidea" eman zien baliabiderik gabeko pertsonen osasun sistema nazionalen, erroldatuta egotearen baldintza betetzen bazuten. Atzerritarrek 1088/1989 Errege Dekretuan aurreikusitako prozeduraren bitartez sartu ziren Osasun Sistema Nazionalen, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoaren bitartez Atzerritartasunari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 12. artikuluan egindako aldaketaren bitartez.

3) Osasun Sistema Nazionalaren jasagarritasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, osasun sistema nazionalako banakako osasun txartela eskuratzeko bidea aldatu da. Egindako aldaketen artean, bi nabarmendu behar dira:

a) la nazional eta egoera erregularrean dauden ez-nazional guztiak sisteman sartzea. Bide batetik edo bestetik, nazional guztien banakako osasun txartela lortu ahalko dute, asegurdun gisa edo onuradun gisa, dela Gizarte Segurantzarekin lotura batu dutelako, dela hura eduki gabe ere urtean 100.000 euro baino diru-sarrera txikiagoak edukitzeagatik edo dela, gainerako kasuetan (hondarrekoetan), hitzarmen bereziak egin ahal izateagatik.

b) Etorrin irregularren partzialki baztertzea. Baztertzea partziala da, zeren eta larrialdiko laguntza, haurdunaldiaren lotutako laguntzak eta adingabeentzako guttizko laguntza aitortzen baitzaie. Gainera, Ministerioak adierazi du osasun publikoarekin lotutako zerbitzu guztiak ere sartuko lirakeela. Horrenbestez, erroldatuta egote hutsarengatik osasun sistema publikora sartu ahal izateko aukera baztertzen da.

Nafarroako Foru Komunitatean, araupetze berri horrek eraginak izan zuen, normala den bezala. Asegurudunei dagokienez, honako eraginak:

- la nazional eta ez-nazional erregular guztiek, zeinek Nafarroako osasun estaldura aitortuta baitzeukaten (soilik Nafarroan) 640/1996 Foru Dekretuaren indarrez, Gizarte Segurantzaren Sistema nazionalako asegurdun edo onuradun baldintza izanen dute. Horrek berarekin ekarriko du foru dekretuaren beraren birtualtasuna galtzea, nahiz eta ez guztia, eta aipatutako 640/1996 Foru Dekretuan bilduta zetozen urteko kuota batzuen ordaintzarengatik heldzen ziren diru-sarrera batzuk ingresatzeari uztea.

- Egoera irregularrean dauden etorkinak zein egoeratan geratuko diren araupetu behar da. Araupetze horren abiapuntua izanen zen Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloan pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua, zeinak ezartzen baitu osasun laguntza publikoa, orentzakoa, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen dituela, baita etorkinak ere, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera. Horri dagokionez, ulertzen da Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenak betez eta bere funts propioekin, aukera duela estatu osorako oinarrizko arauetan finkatutako gutxieneko muga hobetzeko, hartara arreta emanez bestela bazterturik gera litezkeen kolektiboak.

4) “Bazterrutako” pertsona berriak bildu ahal izateko, egokitzat jo zen 640/1996 Foru Dekretua aldatzea, bertan jasoz sistemara sartu ahal izateko kasu guztiak. Nabarmenezkoa da araubide hori 1996tik eta gaur arte erabili dela Nafarroan, eta 2012ko apirila baino lehen inork ez duela zalantzan jarri, eta 11/2010 Foru Legeak ere ez zuela berariaz indarririk gabe utzi. Izan ere, badirudi alderdi sozial batzuk hori zalantzan jartzen ari direla alderdi hori.

5) 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua bera jada aipatzen du egoitzaren baldintza, eta ez du esaten laguntzak doakoa izan behar duenik. Horrenbestez, 640/1996 Foru Dekretuaren baldintzek balioa izaten jarraitzen dute: egoitza (urtebete) eta ekarpen ekonomikoa.

6) Pertsona horiek osasun laguntza publikora sartzeko 117/2012 Foru Dekretuak egin duen aldaketarekin (zerbitzuen oinarrizko zorroa eta zorro osagarria) 640/1996 Foru Dekretuan ezarritako bi baldintzei eusten zaie:

- Nafarroan egoitza urtebetez edukitzea.

- Kuota bat ordaintzea.

Ahal ziren kalte txikiak bilatzearen ondorioetarako, urtebeteko erroldatzearen baldintzaren salbuespena ezarri zitzaien 2012ko irailaren 1ean Nafarroan egoitza zuten etorkin irregularrei (banakako osasun txartela eskatu zuten eguna).

Bestalde, Gizarte Politiketako Departamentuarekin laguntza-lerro bat koordinatu zen, eta lerro horren arabera Osasun Departamentuaren osasuna ororenganatzeko dokumentua eskuratu nahi duten etorkin irregularrek hura lortu dezakete lehenengoak emandako diru-laguntza baten bitartez; diru-laguntzak kostuaren % 100 hartzen du.

Nafarroan aplikatzen ari ziren baldintzei eutsi zaie, honako arrazoi hauengatik: koherentzia, 1996tik araubideari atxiki nahi zitzaizkion herritar nazionalakiko justiziaz jokatzeko eta dei-efektuak saihestea.

- 7) Nazioko Gobernuak eskumen gatazka positibo bat aurkeztu zuen Konstituzio Auzitegian 117/2012 Foru Dekretuaren aurka (ulertuta 640/1996 Foru Dekretua tazituki indarrrik gabe geratu zela 16/2012 Errege Lege Dekretuaren bitartez), eta Konstituzio Auzitegiak, 2013ko urtarrilaren 9tik, bertan behera utzi du Nafarroak osasuna ororenganatzeko ezarria zuen araubidearen eraginkortasuna.
- 8) Gero, 2013ko otsailaren 14an, Nafarroako Parlamentuak foru lege bat onetsi du, zeinaren bidez Nafarroan egoitza egun bat duten etorkin irregularrak aukera izanzen baitute Osasun Departamentuaren osasun prestazioak doan eskuratzeko.
- 9) Azkenik, 640/1996 Foru Dekretua aldatzen zuen foru dekretuaren proposamenak legez ezarritako izapide guztiak bete zituen, Nafarroako Kontseiluaren aldeko irizpenarena barne.

Legezko betebeharren gogorarazpena ez onartuta, eta egiaztatu ondoren otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea argitaratu eta indarra hartu duela amaitutzat eman nuen nire jarduketak. 8/2013 Foru Legeak, izan ere, Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri eta berariaz indarrrik gabe uzten du azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, haren aldaketak eta hura garatzek xedapenak.

3.2.24. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aldaketa bat bultzatzea, funtzionarioak boluntario-lanetan ari ahal daitezen.

Administrazio eskuduna: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Funtzio publikoa. Boluntario-lanak egiteko bateragarritasuna.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Pertsona fisikoek boluntario-lana egiteko daukaten eskubidea errazte aldera eta, azken batez, bizitza sozialean premia handiena duten pertsoneri laguntzen parte hartzek eskubidea errazteko, erakundeak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarengana jo zuen, eta honako iradokizuna egin zion:

“Bultza dezala Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aldaketa bat, funtzionario publikoek, baita dedikazio eskusiboko edo bateraezintasuneko osagarriak esleituta dituztenek ere, aitortua izan dezatela, modu altruistan, doan, irabazi asmorik gabe eta botere publikoekiko modu autonomoan, beren lanpostuari dagokion lanbide tituluarekin jarduteko boluntario-lanetan, betiere lan horietan funtzionario-lanaldian egiten ez den bitartean, funtzionario gisa dauzkaten gainerako betebeharren betetzea eragotzi edo kaltetu gabe, inpartzialtasuna eta independentzia auzitan jarri gabe eta interes orokorrak kaltetu gabe”.

Iradokizun normatibo hori honakoari zor zitzaion:

- a) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia) 57.1 artikulua deklaratu zuen bateraezina direla, oro har, funtzio publikoan jardutea eta beste edozein kargu, lanbide edo jardueratan jardutea, haiek publikoak nahiz pribatuak izan, norberaren kontura edo besteren kontura izan, ordainpekoak nahiz ohorezko hutsak izan, funtzionario-betebeharren betetze zorrotza eragotzi edo kaltetzen badute, inpartzialtasuna edo independentzia auzitan jartzen badute edo interes orokorrak kaltetzen badituzte.
- b) Aldi berean, dedikazio eskusiboaren osagarria esleituta duten lanpostuetan jarduten duten funtzionarioek, aurreko bateraezintasun orokorraz gainera, estatutu bereko 45.2 artikuluan ezartzen den berariazko debekua izanen dute, sektore publikoan nahiz sektore pribatuan irabazpidezko jarduerak egitekoa, honako salbuespenekin: unibertsitate zentroetan irakasle-lanean jardutea eta norberaren edo familiaren ondarea administratzea.
- c) Modu berean, bateraezintasunaren osagarria esleituta duten lanpostuetan jarduten duten funtzionarioek, aurreko bateraezintasun orokorraz gainera, aipatutako langileen estatutuko 46.2 artikuluan ezartzen den berariazko debekua izanen dute, beren lanpostuari dagokion lanbide-tituluaren lanbide-jardunean aritzekoa.
- b) Bestalde, martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak arautzen du herritarren parte hartzea boluntario-lanetan, kemenez, askatasunez, elkartasunez, altruismoz eta erantzukizunez, edozein titulartasunetako irabazteko asmorik gabeko erakundeen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan izaera horretako egitarau edo jarduera etengabeak burutzen badituzte.

Boluntario-lanak hartzen du askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna xede izanik, pertsonen edo komunitateari zerbitzuak emateko, irabazteko asmorik gabeko entitateetan antolatzen diren pertsonen gizarte portaera oro.

Boluntario-lanak martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeko 3. artikuluan finkatzen diren printzipioei erantzuten die. Honakoei, besteak beste: ematen den zerbitzuaren doakotasuna, ez baitu inongo etekin materialik bilatzen; botere publikoekiko autonomiaz jardutea; pertsonen edo taldeen arteko elkartasuna; laguntzari denboran eusteko erantzukizuna, ahal den kalitate gehienarekin, eta abar. Irabazi asmorik gabeko antolakundeetan lan zibiko edo sozialak egiteko sartzan diren boluntarioek foru legeko 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte.

Bolondres Lanari buruzko Foru Legeko 12. artikulua jasotzen du Nafarroako administrazio publikoek boluntario lana eta elkartasuna sustatuko dutela gizarte zibilaren barruan, eta administrazio publikoetako langileak, aldi baterako eta behar bezala arrazoituta, laga ere egin ditzakeela, lanaldi osoan edo lanaldi partzialean ari daitezen.

- e) Hala eta guztiz ere, ez Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren irakurketatik, ez Bolondres Lanari buruzko Foru Legearen irakurketatik, ez da argitasunez ondorioztatzen dedikazio esklusiboko edo bateraezintasuneko osagarriak esleituta dituzten lanpostuetan aritzen diren funtzionario publikoek boluntario-eginkizunetan aritu ahal daitezkeen beren lanpostuari dagokion lanbide tituluarekin, irabazi asmorik gabe eta boluntariotzaren arloko erakunde edo entitateetan.

Aitzitik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko 45., 46. eta 57. artikuluen irakurketa murriztailea eginez ondoriozta daiteke debekatuta dagoela lanpostuari dagokion tituluko lanbidean jardutea, baita boluntario-lanetan ere.

- g) Egungo krisi ekonomikoa giza- eta familia-egoera larri eta dramatikoak eragiten ari da, eta horrek berarekin ekarri du gizarte zibila modu altruista eta arduratsuan mobilizatzea. Gero eta gehiago dira boluntario-lanaren bitartez beste pertsona edo talde batzuekiko elkartasunaren alde egiten dutenak, bereziki behartsuenen alde, haiei gizarte-desberdintasuneko egoerak gainditzen laguntze aldera.

Horri dagokionez, gizarte demokratiko, ireki, moderno eta parte-hartzaile batek, Bolondres Lanari buruzko Foru Legeko 3.h) artikulua aldezten duena bezalakoak, aukera eman beharko luke, hainbeste traba juridiko edo formalik gabe, edo behar adina arrazoi gabe, funtzionario publikoek, baita dedikazio esklusiboko edo bateraezintasuneko osagarriak esleituta dituztenek ere, jardun ahal daitezen, modu altruistan, doan, irabazi asmorik gabe eta botere publikoekiko modu autonomoan, beren lanpostuari dagokion lanbide tituluarekin boluntario-lanetan, betiere lan horietan funtzionario-lanaldian egiten ez den bitartean, funtzionario gisa dauzkaten gainerako betebeharren betetzea eragotzi edo kaltetu gabe, inpartzialtasuna eta independentzia auzitan jarri gabe eta interes orokorrak kaltetu gabe.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak behar zen txostena eman zuen, non honako gogoeta nabarmentzen baitzuten:

1. Honakoak dira gai honekin zerikusia duten alderdiak arautzen dituzten Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko artikulua:

- 57.1 artikulua: “Funtzio publikoan aritzea bateraezina izanen da, edozein kargu, lanbide edo jarduera publiko nahiz pribatutan, bakoitzaren kontura edo besteendako, ordainduta edo soilik ohorez, aritzearekin, funtzionarioaren betebeharrak betetzea eragotzi edo gutxietsi, beraien inpartzialtasun edo independentzia ezbaian jarri edo interes orokorrak kaltetzen badituzte”

- 45.2 artikulua: “Aipatu lanpostu horiek betetzen dituztenek beren zerbitzuak eskuragarritasun osoz eta erabateko dedikazioaz emanen dituzte

eta ezin izanen dute bestelako irabazi asmoko jarduerarik burutu, ez sektore publikoan, ez sektore pribatuan; hala ere, unibertsitateko ikastetxeetan irakats dezakete, baita norberaren edo familiaren ondarea administratu ere.”

- 46,2 artikulua: “Lanpostu horiek betetzen dituztenek ezin izanen dute beraien lanpostuari dagokion tituluarekin lanean aritu.”

2. Nafarroako Bolondres Lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak bolondres lantzat jotzen du askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna xede izanik, pertsoneri edo komunitateari zerbitzuak emateko egiten dena, eta berariaz salbuesten ditu edozein lan harremanen eta eginbehar pertsonal edo juridikoren ondorioz ematen diren jarduerak edo ordaindutako lanaren ordezkioak. Horri dagokionez, pertsona boluntarioek beren jardueraren truke jaso dezaketen edozein kontraprestazio material errefusatu beharko dute.
3. Gai hori jada behin baino gehiagotan planteatu da zuzendaritza nagusi honetan, bera baita langileen bateraezintasun espedienteak izapidetzen dituen. Arestian adierazitako araudia kontuan izanda, zuzendari nagusi honetan ez dugu inongo eragozpenik jarri langileek boluntario-jarduerak egin ditzaten, Administrazioako lanpostuaz kanpora gara daitekeen beste edozein jarduketatan bezala, lan hori lanalditik kanpo egiten bada eta lanpostuaren einkizunak betetzean eraginik ez badu.

Horri dagokionez, ez dago inongo kolisiorik, ezta ere, dedikazio eskusiboaren edo bateraezintasunaren osagarriak jasotzen dituzten langileentzat, zeren eta interpreta baitezakegu boluntario-jarduerak egitea ez dela irabazpidezko jarduera bat, ez eta kasuko lanbide-tituluarekin jardutea ere.

Hori dela eta, departamentu honen iritziz, ez dago zertan aldatu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, funtzionarioak boluntario-lanetan aritu ahal daitezen errazteko, zeren eta, arestian adierazitako irizpideekin, haietan jardun baitezakete inongo arazorik gabe.

Emandako erantzunarengatik eskerrak emanez, erakundeak ulertu zuen Administrazioak emandako erantzuna ez dela nahikoa, honakoak direla eta: iradokizunaren helburu soziala, zeina ez baita soilik de facto permititzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek boluntario-lana egin dezatela, baizik eta, baita ere, Gobernuak eta, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak, aukera hori jaso eta lagun dezatela; iradokitzen den arau-aldaketa Nafarroako administrazio publiko guztiei zabaltzen zaie eta, horrenbestez, gaur egun Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak erabiltzen duen interpretazio-irizpidez harantzago joanen litzateke, zeren irizpide hori, eskumen-arrazoia tarteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen zerbitzuko langileei baitagokie soilik; bateragarritasun-aurreikuspen bati buruzko berariazko legezko araupetze batek segurtasun juridiko handiagoa emanen luke interpretazio-irizpide baten aplikazioak

baino, kontuan izanda irizpide hori, gainera, ez dagoela kanpora begira adierazia eta, azken batez, unean uneko unitate eskudunaren buruan dagoen agintari administratiboak alda dezakeela.

Hori dela eta, erakunde honek nabarmentzen zuen zeinen positibo ikusiko litzatekeen, ia ikuspegi guztietatik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aldaketa bat, Nafarroako funtzionario guztiek, edozein administrazioetakoek, aitortua izan dezatela, modu altruistan, doan, irabazi asmorik gabe eta botere publikoekiko modu autonomoan, beren lanpostuari dagokion lanbide tituluarekin jarduteko boluntario-lanetan, betiere lan horietan funtzionario-lanaldian egiten ez den bitartean eta lanpostuko jarduean interferentziarik sortzen ez den bitartean.

Hori dela eta, jo zen herritarrek oso ongi baloratuko luketela bateragarritasun hori berariaz babesten duen erregulazio normatibo bat egitea. Aurreko guztia, nolahi ere, ez da eragozpena izanen, azkenean erabaki zitekeen lege-aldaketa gauzatzen zen bitartean, Funtzio Publikoren Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko langileekin boluntario-jardueraren aldeko jarrerari eustea, orain arte egindakoaren ildotik.

Berrespen horrekin, amaitutzat eman zen jarduera.

3.2.25. Balio erantsiaren gaineko zergaren zein tasa aplikatu 2012ko irailean egin baina aurreko hilabeteetan emandako zerbitzuei buruzkoak diren fakturretan

Administrazio eskuduna: Nafarroako Zerga Ogasuna.

Gaia: Ogasuna. Balio erantsiaren gaineko zerga. Aplikatzekoa den tasa

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Zalantzak sortu direnez erabakitzerakoan zein tasa aplikatu behar den balio erantsiaren gaineko zergan (BEZa) 2012ko abuztuan edo lehenago emandako zerbitzuetan (telefonía, elektrizitatea eta abar) faktura irailean jaso eta ordaintzen den kasuetan, jarduketa bat abiatu genuen ofizioz, jakite aldera zein den legez aplikatzekoa den tasa: % 18 ala % 21.

Egiazki, erakundeak egiaztatua zuen herritarren elektrizitate- eta telefono-faktura batzuetan, abuztuko fakturazio-aldiari buruzkoetan, % 21eko zerga tasa berria aplikatzen ari zela.

Zalantza sortu zen zeren eta Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, 23. artikulua bidez, Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu baitzuen, 2012ko irailaren 1etik aurrerako eraginekin; izan ere, zergaren tasa arrunta % 21era igo zuen eta tasa murriztua, berriz, % 10era (lehen % 18 eta % 8 ziren, hurrenez hurren).

Hori dela eta, 2012ko irailaren 117an, informazioa eskatu zitzaion Nafarroako Zerga Ogasunari, legegaren arabera iritzia eman zezan.

Nafarroako Zerga Ogasunetik honako informazioa igorri ziguten:

“Eragiketa bakoitzari aplikatuko zaion tasa, sortzerakoan indarra duena izanen da (Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko 19/1992 Foru Legeko 36.2 artikulua); hori dela eta, tasa hori zehazteko zergaren araudian sortzapenari buruz jasotako erregelei erreparatu beharko zaie.

Foru lege bereko 24. Artikuluko 1. idatz-zatiko 7. Zenbakiak, interesatzen zaizkigun eragiketei dagokienez, ezarri zuen zerga honela sortuko dela:

”7º. Errentamenduetan, hornikuntzetan eta, oro har, segidako traktu eragiketetan, hartukizun bakoitzari dagokion prezioaren zatia exijigarria den unean. (...)”

Bestalde, 24.2. artikulua honakoa ezartzen du: “Aurreko zenbakian xedatutakoa hala izanik ere, zerga egitatea burutu aurretik alde aurreko ordainketak sortaraziko dituzten kargapeko eragiketetan, efektiboki hartutako zenbatekoengatik prezioaren kobrantza osoa nahiz partziala burutzen denean sortuko da zerga”

Azaldutakoaren arabera, zergaren sortzapena segidako traktu eragiketetan, hartukizun bakoitzari dagokion prezioaren zatia exijigarria den unean gertatzen da, salbu eta ordainketa aurreratuek egiten badira; izan ere, halakoetan 24. Artikuluko aipatutako idatz-zatia aplikatzen da.

Hortaz:

- Kontraprestazioa legez edo kontratu bidez 2012ko iraila baino lehen exijitzekoa den eragiketetan, zerga sortzen unean indarrean zegoen ehuneko 8a edo 18a aplikatuko da, nahiz eta ordainketa materiala gero unean egin. Xede horietarako, egiten den fakturaren data edo haren ordainketaren balizko geroratzetatek ez dute aldaraziko zergaren sortzapena; izan ere, zerga sortzen da kasuko zerbitzu prestazioen prezioa exijitzekoa izatearekin.
- Arrazoi berarengatik, prezioa exijitzekoa izate hori sortzen bada 2012ko irailaren 1a eta gero, ehuneko 10 edo 21 izanen dira aplikatzekoak, nahiz eta data horren aurretiko zerbitzuen prestazio-aldi batekoak izan.
- Kontraprestazioa efektibo egiteko epe bat legez edo kontratu bidez ezartzen den eragiketetan, ulertuko da kontraprestazio hori ez dela exijitzekoa izanen epearen azken egunera arte. Horrenbestez, sortzapena epe horren azken egunean gertatuko da, nahiz eta kontraprestazioaren zenbatekoaren zehaztapen edo kuantifikazioa lehenago gertatu eta data horren aurretiko zerbitzu-prestazioei buruzkoa izan. Baldin eta ordaintzeko epearen azken eguna 2012ko abuztuaren 31 baino geroago bada, ehuneko 10eko edo 21eko tasa izanen dira aplikatzekoak.
- Nolanahi ere, eragiketen konturako ordainketek (behar bezala identifikatutakoak), zeinak oraindik ere exijitzekoak ez baitira arestian adierazitakoaren arabera,

zergaren sortzapena determinatuko dute aurreratutako ordainketaren proportzioan, hori ordainketa horiek egiten diren unean indarrean dagoen zerga tasaren arabera kalkulatuta.

Konturako ordainketa horiei dagokien zerga tasa ez da inolaz ere zuzenduko, nahiz eta haiei dagokien eragiketaren egitea eta, horrenbestez 24.1 artikulua aplikazioak determinatutako sortzapena, 2012ko abuztuaren 31 eta gero gertatzen badira.

Azken batean, baldin eta epe baten kontsumoa (uztaila-abuztua, esate baterako) abuztuaren 31tik aurrera bada exijitzekoa, % 10eko edo % 21eko tasa aplikatuko da, hain zuzen exijitzeko unean indarrean dagoena, salbu eta irailaren 1a baino lehen ordaindu bada (alegia, exijitzekoa izan baino lehenago). Aitzitik, baldin eta exijitzekoa bazen irailaren 1a baino lehen, % 8ko edo 18ko tasa aplikatuko da.

Kontuan hartu beharra dago, halaber, faktura egiten data ezin dela bat etorri eragiketa egiteko datarekin (zergaren araudiaren arabera, ulertzen da eragiketak sortzapenaren unean egiten direla beti), eta kasu horretan fakturan bi data agertu beharko dira, espediziokoa eta eragiketa egitekoa.”

Aurrekotik ondorioztatu genuen ezen, 2012ko abuztuan edo lehenago emandako zerbitzuen kasuan (telefonía, elektrizitatea eta abar), faktura irailean jaso eta ordaintzen bada, aplikatzekoa den tasa berria izanen dela hain zuzen, hau da, % 21, zeren eta segidako traktuko eragiketak baitira.

Horrenbestez, gaia zergen ikuspuntutik argituta, eta legez kanpokotasunik antzematen ez denez, amaitutzat eman zen jarduera.

3.2.26. Iradokizun normatiboa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legeko 55. artikulua aldatzekoa, gutxieneko familiarraren asignazioa guraso banandu edo dibortziatuen artean hainbana dadin hitzarmen arautzailean seme-alabak direla-eta finkatu den bizikidetasun denboraren arabera.

Administrazio eskuduna: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua-Nafarroako Zerga Ogasuna.

Gaia: Ogasuna. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Herritar batek erakunde honengana jo zuen bere kasu partikularra azaltzeko eta gure esku-hartzea eskatzeko.

Hiru alaba dauzka (horietako bik 100eko 65etik gorako ezgaitasunarekin), bere ezkontidearengandik bananduta dago eta, lan arrazoiengatik eta beste arrazoi partikularrengatik, bere emazte ohiarekin erabaki du amak izan dezala alaben gurasobakarreko zaintza . Hala eta guztiz ere, aitik banaketaren epai judizialaren bitartez onetsitako hitzarmen erregulatzailerak du aitortua, eta, modu efektiboan, bisiten araubide

zabalaz gozaten du, alabekin egon ahal izateko, halako puntu bateraino non alaben denboraren heren bat baino gehiago pasatzen baitu haiekin.

Amak alaben gurasobakarreko zaintza lortu zuenez, eta alabekin ematen duen denbora gorabehera, aitzak ezin ditu aplikatu Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legeko 55. artikulua zerga-oinarriaren zati orokorrerako ezartzen dituen kenkariak (lege horren testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen).

55.4.2.a artikulua egungo idazketaren arabera, zerga oinarriaren zati orokorreko kenkariak soilik bidezkoak dira, seme-alabei dagokienez, zaintza partekatuen kasuetan. Hartara, gurasobakarreko zaintzaren kasu hauetan egon eta zaintzako titularrak ez direnek, nahiz eta beren seme-alabekin denboraren zati handi bat eman, ezin dituzte aplikatu foru legeak ezartzen dituen kenkariak. Horrekin, gurasoen artean lege tratamendu desberdineko egoera bat gertatzen da, gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuan ezarritako zaintza motaren arabera, halako moduz non gurasobakarreko zaintza edo zaintza partekatua esleituta daukatenean ken baititzakete legeak zerga oinarriko xedatzen dituen zenbatekoak, b) eta c) kasuetan, guztiz edo partzialki. Aitzitik, gurasobakarreko zaintza esleituta ez daukatenean, ezin dute inolako kenkaririk aplikatu, nahiz eta seme-alaben eta gurasoen bizikidetasuna arautzen duen hitzarmen erregulatzailerak bere seme-alabekin egoten araubide zabala aitortu.

Kasua oraindik ere nabarmenagoa da seme-alaba ezgaituen kasuan, baldin eta 100eko 33ko edo gehiagoko minusbalioetasuna kreditatzen badute. Kasu horretan, izan ere, logikoa da gurasoak, bere seme-alaba ezgaituekin dagoen bitartean, zama ekonomiko handiak hartu behar izatea bere gain, haiek artatu eta babeste aldera eta haien ongizatea segurtatze aldera. Hala eta guztiz ere, gaur egun PFEZa dela-eta indarrean dagoen araudiaren arabera, gurasoak ezin ditu familia gutxienekoaren kontzeptuan ezarritako kenkariak aplikatu, zeren eta alderdi formala alderdi substantiboaren gainean jartzen baita; hau da, gurasobakarreko zaintzaren deklarazioa guraso bakoitzak bere seme-alaba ezgaituekin daukan bizikidetasun efektiboko denboraren gainetik jartzen da.

Aurrekoa ikusita, Nafarroako Arartekoak honako iradokizun normatiboa helarazi zion Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari:

“Ekonomia eta Ogasun Departamentuak azter dezala ea aukerarik badagoen Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legeko 55. artikulua aldatzeko, familia gutxienekoaren asignazioa epai irmoaren bidez banandutako edo dibortziazatutako gurasoen artean hainbanatzeko onetsitako hitzarmen erregulatzaileran finkatutako bizikidetasun-denboraren arabera, epai horretan seme-alaba ezgaituen zaintza gurasoetako bakar bati esleitzen zaion kasuetan”.

Iradokizuna seme-alaba ezgaituen kasura mugatzen zen soilik, zeren eta iradokitakoa puntu horretan konektatzen baita Espainiako Konstituzioko 39.2 artikulua botere publikoei ezartzen dien seme-alabak osoki babesteko betebeharrarekin, bai eta Konstituzioko 49. artikulua ezartzen dien betebeharrarekin, alegia, pertsona ezgaituen aldeko politikak

egiteko beharrarekin eta haiei arreta espezializatua emateko beharrarekin, horren barne dela behar diren arlo guztietako lege-arreta.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak iradokizuna onartu zuen planteatutako gaia aztertzeari dagokionez, eta, horren arabera, proposatutako aldaketa normatiboa aztertzeari ekin zion. Hala eta guztiz ere, analisia egin ondoren, iradokizuna errefusatu zuen. Igorritako txosten batean, honakoa adierazi zuen:

1. Departamentua bat dator Arartekoaren kezkarekin, proposamenaren azpian dagoenarekin, alegia, seme-alabekiko bizikidetasunak ez dakarrela, nahitaez, mendetasun ekonomikoa, eta arlo horretan gisa guztietako bazterketak saihestu behar direla, halako moduz non seme-alaben mantenuan eta zaintzan laguntzen duten gurasoak bere egoera PFEZean modu egokian islaturik ikusi beharko baitu. Une honetan, nolabait ere jasota dago epai judiziala tarteko seme-alaben elikaduraz arduratzen den gurasoaren egoera (PFEZari buruzko Foru Legeko Testu Bateginek 0 59.3 artikulua), eta horixe aitortua du, halaber, Konstituzio Auzitegiaren 19/2012 epaiak.
2. Bi eragozpen garrantzitsu egin beharko lirateke Arartekoaren iradokizuna dela eta. Lehenengo, ez dirudi metodorik onena denik seme-alabengatiko familiako gutxienekoa hainbanatzea soilik bizikidetasun-denboraren arabera, zeren eta bizikidetasun denbora hori (hura egiaztatzeko zailtasuna alde batera utzita) ez baita ez seme-alaben mantenua, ez sostenguan laguntzearen sinonimoa. Bestalde, arestian aipatu den Konstituzio Auzitegiaren 19/2012 epaia kontuan hartuta (mendetasun ekonomikoa aldeztu du jarraitu beharreko gida gisa), zalantza ugari sortzen ditu, ikuspegi konstituzionaletik, berriz ere bizikidetasunaren egitatean oinarritutako lege-neurri bat hartzea.

Eta, bigarrenik, ez dirudi ez asegarrria, ez proportzionatua denik soilik seme-alaba ezgaituengan eragina duen konponbide bat jartzea, zeren eta, nahiz eta horien kasuan arazoa larriagoa den, irizpide hobea aukeratu behar baita seme-alaba guztientzat. Gabezia horiek gorabehera, gustu handiz onartuko genituzke arloari buruzko bestelako iradokizunak.

3. Departamentuak interesa du konponbideak ematen, mendetasun ekonomikoa aldeztearen adierazitako bidean aurrera eginez, Arartekoak planteatutako egoerei, bai eta aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 19/2012 epaiak, zalantzarik gabe, ekarriko dituen ondorio zabalagoei ere. Halaber, interes handia daukagu jakiteko zein izanen den Estatuko legegilearen erreakzioa aipatutako epaiaren aurrean, nahiz eta horretatik ez den ondorioztatu behar, bistakoa denez, haien planteamenduak zorrotz jarraitu behar izatea.

Hala eta guztiz ere, aldaketa horiek PFEZaren erregulazioan, egiaztatzean eta diru-bilketan izan dezaketen garrantziari erreparatuta, arazoizkoa dirudi kontuz eta zuhurtasunez jardutea. Ez da ahaztu behar, ezta ere, ezen familiaren esparruan gertatzen diren egoeren aniztasuna eta konplexutasuna ikusita, ezinezko gertatzen dela arauak haiei

guztiei justiziaz konponbidea ematea: kasu gehienei eman beharko zaie konponbidea, baina agian ezin izanen da kasu guztientzako konponbiderik eman, zeren eta aforismo latindarra betetzeko aukera baitago “summun ius, summa injuria”, hau da, zuzenbidearen ideal gorenak, askotan, zuzengabetasun handiak eragin ditzake”.

Ikus daitekeen bezala, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak proposatutako neurriaren aurkako irizpidea adierazi du. Azkenik, departamentu eskudunak iradokizun normatiboko arloari buruz duen jarrera ikusita, amaitutzat eman genuen gure jarduera.

3.2.27. Egiaztatzea prozedura administratibo eraginkorrik ba ote dagoen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes legitimoak babesteko.

Administrazio eskuduna: Gizarte Politiketako Departamentua-Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzua.

Gaia: Kontsumoa. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak ofiziozko jarduketa bat abiatu zuen kontsumoaren arloa dela eta, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek haren aurrean izapidetutako kexen ondorioz. Hori dela eta, kontsumoaren arloan eskuduna den departamentuari eskatu zion kopia oso bat eman ziezaiola hamabi espediente administratiborenak -kexa horiekin lotura zuzena zuten espedienteenak-, egiaztatu ahal izateko ea prozedura administratibo egokirik ba ote dagoen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes legitimoak babesteko (Konstituzioko 51. artikulua).

Espediente administratiboak jaso eta aztertu ondoren, erakundeak egokitzen jo zuen honako legezko betebeharren gogorarazpen, ohartarazpen, gomendio eta iradokizunak egitea:

Lehena: Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea, kontsumoaren arloko departamentu eskuduna den aldetik, legezko betebeharra duela Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Gobernuaren artean ezarritako prozedura orokorraren bitartez, erakunde honek eginiko errekerimenduen erantzutekoa, behar den epean eta moduan, hain zuzen ere eskatzen zaion informazioa eta dokumentazio administratiboa eskuratzeari dagokionez, beharrik edo justifikaziorik gabeko atzerapenik edo geroratzetik gabe, bai eta helarazten zaizkion gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenei erantzutekoa, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarritako epean eta moduetan.

Bigarrena. Ohartarazpen bat egitea Gizarte Politiketako Departamentuari, jasota uzte aldera ezen orain arte ez dela nahikoa izan hark herritarren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen konstituzio-eskubideak garatzen dituen parlamentu-erakundearekin izan duen lankidetzaz, zeren eta, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, ez baitu informaziorik eman herritarrek egindako kexetatik heldu diren jarduketan amaierako emaitzari buruz, bai emaitza hori ezagutzeko, bai kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen alde

eginiko jarduketa administratiboa ikuskatu ahal izateko, nahiz eta erakunde honek informazio hori berariaz eskatu -batzuetan behin baino gehiago- departamentuari igorritako idazkietan.

Hirugarrena. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloko beste edozein organo administratibo eskuduni gogoraraztea ezen, arbitraje-eskariari buruzko dokumentazioa zuzentzeko izapidetzean, ez eskaria ematen den ereduaren arabera ez izatea, ezta, are gutxiago, NANaren kopia falta izatea, ezin direla ez banaka ez biak batera aintzat hartu eskaria artxibatzeke arrazoi gisa, baldin eta arbitrajea eskatzen dela deduzitzeko bidea ematen duten beste eredu batzuk erabili izan edo erabiltzen ari izan.

Gogorazi behar da ezen, lege mailako arau batek exijitzen ez duen bitartean, Administrazioari eskari baliodunak aurkezteko ez direla eredu bakar edo jakin batzuk eskatzen, ez eta NANaren kopiak ere, eta nahikoa dela eskariak aurkeztea interesdunaren datu pertsonalarekin -haren identifikazioa islatzen dutenekin-, jakinarazpenak jasotzeko hautatu den tokiarekin eta jarduketa administratiboa dela-eta bilatzen den helburuarekin. Ildo berekoa da otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretuko 34. artikulua, zeinak ez baitu eskatzen ez eredurik, ez eta NANaren kopiarik ere. Izan ere, eskatzen du eskatzailearen eta eskatutakoaren datuak emateko, bai eta egitateen deskribapen labur bat ere. Egia da NANaren zenbakia adierazteko eskatzen duela, baina ez haren kopia. NANaren zenbaki hori idazkian falta izateak ere, erakunde honen iritziz, ezin lezake behar adina indar izan eskaria artxiba dadin erabakitzeke.

Ez azaroaren 26ko 30/1992 Legetik, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenetik, zeinak aurreikusten baitu eredu eta formularioak sortzea Administrazioaren tresna boluntario gisa, herritarrek idazkiak aurkezteko eta ekintzak aurrera eramateko eskubidea errazteko, ez eta otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretutik ere, ez da ondorioztatzen administrazio prozeduraren jarraitutasuna (arbitraje kasuan) betekizun dokumentalek edo formalek baldintzatuta dagoenik.

Horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloko edozein organo administratibo eskuduni gomendatzea ez dezala erreklamazio- edo arbitraje-eskarien artxibatzea deklaratu eskabideak aurkezteko ezarrita daukan eredu falta izateagatik, ez eta interesdunaren NANaren kopia falta izateagatik ere.

Laugarrena. Gizarte Politiketako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea ezen erreklamazio-egileei eman diezaiela orientazioko eta bertaratze bidezko aholkularitzako zerbitzu bat, exijitzekoak diren betekizunei eta dokumentazioari dagokienez, edozein direla ere, bideratze aldera planteatzen duten gaiari buruzko sakoneko erabaki bat har dezatela, betiere saihestuz espedienteak bertan behera gera daitezela edo artxiba daitezela forma arrazoiengatik.

Bosgarrena. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloko edozein organo administratibori gogoraraztea interesduneri dokumentazioaren errekerimendua egiteko egiten dizkien jakinarazpena pertsonalki egin beharra duela,

halako moduz non ezin izanen baita jarduketan artxiboa dekretatu interesdunari edo haren helbidean agertzen denari jakinarazi zaiola frogatzeko moduan jasota ez dagoenean, legeak jakinarazpen administratiboetarako ezartzen dituztenak direla eta.

Seigarrena. Gizarte Politiketako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea ezen segurta dezatela lehentasuna emanen zaiela kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideei haien balizko urratzeak edo egiazko urratzeak gertatzen direnean, bereziki urratze horiek enpresa handietatik edo interes orokorreko enpresa edo zerbitzuetatik heldu direnean; hartara, saihestuko da, alderantzizkoa gertatzea, alegia, lehentasuna eman dakiela formalismo administratiboari eta arauen interpretazio zorrotzegiei, prozedura administratiboari dagokionean, jokamolde horrek, izan ere, Zuzenbide Administratiboaren buruan dagoen formalismoaren aurkako printzipioa urratzen duelako.

Horri dagokionez, bi organo horiei gogorarazi behar zaie Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean, non kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubidea Konstituzioko 5.1 artikuluan ezarrita baitago, botere publikoek, konstituzioaren ikuspuntutik, behartuta daudela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa bermatzera, hartara, prozedura eraginkorren bitartez, haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak babestuz.

Zazpigarrena. Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea legez enpresen jokabideak ikertzeko, ikuskatzeko eta, kasua bada, zehatzeko ahalmenez baliatzeko betebeharra duela, baita ofizioz ere, haien aurka kontsumitzaileek eta erabiltzaileek erreklamazio, kexa edo arbitraje eskariak aurkezten badituzte, arauen hausturak edo kontsumitzaileen eskubideen urraketak antzematen diren kasuetan, edozein direla ere kontsumoko arbitraje sistemak jarraitutako prozedura eta harekin lortutako emaitza.

Nabarmendu behar da Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuaren eginkizunen artean, lehenengoa "kontsumitzaileen defentsarena" dela. Horretatik ondorioztatzen da zerbitzu horren jarduketa esparrua ez dela mugatzen kasu partikularretako bitartekaritzara eta arbitrajera; izan ere, hortik haratago, zaindu behar du, behar diren neurriak ezarriz, kontsumitzaileen eskubide eta interesak babestearen konstituzio printzipioaren aplikazio efektiboa, partikularren erreklamazioak erreklamazio-egileaz gainerako beste kontsumitzaile batzuei eskubideak urratzearen agerkaria izan daitekeenean.

Zortzigarrena. Gizarte Politiketako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea gogoeta orokor bat eta gaur egun ezarritako prozedura eta sistemen ebaluazio orokor bat egin dezatela, Nafarroako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa egite aldera, kontsideratze aldera haiek egiazki eraginkorrak diren, Espainiako Konstituzioak eskatzen duen bezala.

Txosten honi itxiera emateko garaian, jaso gabe genuen eginiko legezko betebeharren gogorarazpenen, gomendioen eta iradokizunak onartzeari ala ez onartzeari buruzko erantzunik.

3.2.28. Aldeetako batek GIB/HIESa izateagatik baztertzen duten klausula, estipulazio, baldintza edo itunak baliogabeak edo eraginkortasunik gabeak izatea.

Hartzailea: Nafarroako Parlamentua.

Gaia: Kontsumoa. Kontratazioa. GIB/HIESa duten pertsonen eskubideak babestea.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa.

“Nafarroako HIESaren aurkako Batzordea” eta “SARE” gobernuz kanpoko erakundeak gure erakundearekin bildu ziren, ezagutzera emateko nolako interesa zuten Nafarroako Parlamentuak 2011n sustatu zuen legegintza-ekimena (haren bidez, nahi zen GIB/HIESa gaixotasuna edukitzeagatik alde bat baztertzeko klausula, estipulazio, baldintza edo itunak baliogabekotzat edo eraginkortasunik gabekotzat deklaratu) berreskura zedin, horretarako aukerarik izanez gero.

Gure erakundeak Nafarroako Parlamentura jo zuen, lehendakariaren bitartez (uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 2.1 artikulua) eta iradokizun bat egin zion, alegia, posiblea bazen eta horretarako oztopo gaindiezinik ez bazegoen, lege proposamena berriz aurkez zedila Diputatuen Kongresuan, Konstituzioko 87.2 artikuluan eta aplikatzekoak ziren gainerako xedapenetan ezarritakoen arabera, betiere honakoak kontuan izanda: a) Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina aldatzen duen lege proposamenaren xedea. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2011ko martxoaren 4an onetsi zuen lege proposamen hori eta Diputatuen Kongresura igorri zuen; b) SARE eta Nafarroako HIESaren aurkako Batzordea elkarrekin erakutsitako interesa; eta c) Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 215.3 artikuluan xedatutakoa.

Erakundeak gogora ekartzen zuen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoan eginiko bilkuran, lege proposamen bat onetsi zuela, zeinaren bidez Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina -azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaz onetsia- aldatzen baitzen, gero Kongresuko Mahaira bidal zedin, Konstituzioko 87.2 artikuluari jarraituz. Lege proposamen hori 2011ko apirilaren 6ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Lege proposamen horren bitartez proposatzen zen xedapen gehigarri bat gehi zekiola aipatutako testu bateginari, non berariaz aipatzen baitzen GIB/HIESa edukitzeagatik alde bat baztertzen zuten klausula, estipulazio, baldintza edo itunak baliogabeak edo eraginkortasunik gabeak izatea, bai eta GIB/HIESa duen aldeak xedapen horretan ezarritakoari uko egitearen deuseztasuna edo baliogabetasuna ere.

Lege proposamenak agertzera ematen zuen, zioen azalpenean, elkarte, erakunde, kolektibo eta erakunde publiko batzuek (besteak beste, Nafarroako Arartekoa) eginiko salaketa, diskriminatzailetzat hartzen baitzituzten zenbait negozio juridikotan jasotako

klausulak, zeinen arabera zenbait prestaziotatik eta zerbitzutatik kanpo uzten baitira GIB/HIESa duten pertsonak. Kasurik gehienetan, hori da modu esplizitu eta banakakoan identifikatzen den gaixotasun bakarra.

Bazterketa horrek, orobat, ondorioak dakarzkie ukitutako pertsoneri, beren eskubide konstituzionalak normal baliatzea eragozten baitie, eta Konstituzioko 9.2 eta 14. artikuluen aurkakotzat jotzen da.

Lege proposamenak adierazten zuen “itunak ezartzeko askatasuna, zuzenbide pribatuak aldeei aitortzen diena, ezin dela erabili bizitza sozialeko taldeak gaixotasun bat izate hutsagatik diskriminatzeko estaldura gisa”. Gero baieztatzen zuen “askatasun zibilaren edo borondatearen autonomiaren muga direla legea, pertsonaren duintasuna eta besteen eskubideak, besteak beste nortasunari eta duintasunari berez datxezkienak, Konstituzioko 10.1 artikulua ezarritako balioak direnak”.

Lege proposamena 2011ko abenduaren 13an aurkeztu zen Diputatuen Kongresuan, eta 2012ko abenduaren 21ean kalifikatu zen. IX. legegintzaldiko 125/000028 espediente gisa izapidetu zen.

Lege proposamena 2011ko abenduaren 28ko B-23-1 zenbakiko Gorte Nagusietako-Kongresuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Parlamentuaren aurreko legegintzaldiaren amaieran, Diputatuen Kongresuak, 2012ko urtarrilaren 11n, erabaki zuen ekimena iraungita zegoela deklaratzeko eta horixe argitaratzeko Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari jakinarazi zitzaion.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren aurreko legegintzaldiaren amaieraren emaitza izan zen Diputatuen Kongresuan aurkeztutako lege-ekimen hori iraungita eta, horrenbestez, itxita zegoela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 215.3 artikulua honakoa xedatzen du: “baldin eta Gorte Nagusietan iraungi egiten bada Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuko Mahaiari aurkezturiko lege proposamen baten izapidetzea, Parlamentuko Osoko Bilkurak, Eledunen Batzarrak proposaturik, erabaki ahalko du aurkezpena errepikatzea eta proposamenaren defentsarako hautaturiko foru parlamentariak berrestea”.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Nafarroako Arartekoari adierazi zion ezin ziola Osoko Bilkurari proposatu Diputatuen Kongresuko Mahaiari berrets zezan Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina aldatzen duen Lege Proposamena, hain zuzen ere biltzarreko Osoko Bilkurak joan den legegintzaldian onetsitakoa, zeren eta lege proposamen hori iraungita baitzegoen, Nafarroako Parlamenturako 2012ko maiatzaren 22ko hauteskundeetarako deia egiterakoan, eta kasu hori ez baitzegoen aurreikusita Erregelamenduko 215.3 artikuluan. Legelari nagusiaren txosten batean -eranskin gisa gehitzen zen txosten hori-, adierazten zen, halere, “eduki bera duen beste proposamen bat

aurkezten bada, egungo Parlamentuak berriz ere eztabaida dezakeela, eta erabaki dezakeela hura Diputatuen Kongresura bidaltzea, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 148. artikulua arabera”.

Erabakia eta legegari nagusiaren txostena ikusita, amaitutzat eman zen jarduketa.

Berriki jakin dugu parlamentu-talde batek gai hori berriz aztertzen duen foru lege bat aurkeztu duela Nafarroako Parlamentuan.

3.2.29. Udaltzaingoaren jarduketa bat gainbegiratzea, adingabe baten abandonuko edo gurasoen arreta faltako balizko kasu batean.

Administrazio eskuduna: Atarrabiako Udala.

Gaia: Haurtzaroa. Adingabeen eskubideak babestea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Erakundeak herritar batzuen idazki bat jaso zuen. Idazkiaren bidez jakinarazten zioten Atarrabiako jaietan, gau batean, garaje baten sarreran gaizki aparkatutako auto bat zegoela (bizilagunei garajera sartzea eragozten zien), eta barruan haur bat zegoela lotan, inongo helduren laguntzarik gabe eta autoa irekita zegoela.

Idazkian adierazten zuten une horretan gertalekuan zeuden herritar batzuek SOS Nafarroari hots egin ziotela. Gero, Atarrabiako Udaltzaingoak esku hartu zuen: autoaren datuak hartu zituzten eta ibilgailuko jabeak aurkitzeari ekin zioten.

Kasualitatez une haietan bertan zegoen erizain batek adingabearen osasun egoera aztertu zuen, eta berretsi zuen ongi zegoela. Ondoren adingabearen amaren bikotekidea aurkitu zuten. Hurbileko taberna batean zegoen, bertan zeudenen arabera, egoera tamalgarrian; eta ama ere aurkitu zuten, eta hura ere, lekukoaren arabera, bikotekidearen antzeko egoera tamalgarrian hurbildu zen gertalekura. Senideak arduratu ziren haurraz.

Ofiziotako jarduketa hau ekarri zuen idazki aurkeztu zuten herritarrek uste zuten adingabearekiko jarduketa protokolo bat falta izan zela kasu hartan, haren osasun egoera egiaztatze aldera, bai eta ondoren behar ziren jarduketak egitea.

Idazkia erakunde honetan aurkeztearen kariatara, eta gertatutakoak xehetasun handiagoekin ezagutze aldera, bai eta, modu orokorrago batez, honelako kasuetarako jarduketa protokolorik ba ote dagoen ala ez jakiteko, egokitzat jo zen gaiari buruzko ofiziotako jarduketa bat abiatzea.

Hori dela eta, informazioa eskatu zitzaion Atarrabiako Udalari. Udalak informazioa igorri zuen, non xehetasunekin azaltzen baitzuen adingabe baten balizko babesgabetasun egoeren aurrean nola jardun beharra dagoen, eta udaltzaingoak arlo hori dela-eta zein prestakuntza daukan. Halaber, goitik behera kontaktzen ziren gau hartan gertatutako egitateak.

Hori guztia ikusita, amaitutzat eman zen jarduketa, egokitzat jo baikenuen.

3.2.30. Krisialdi ekonomikoko ingurune batean etxebizitzarako konstituzio- eskubidea eraginkortasunez babesteko neurriak.

Administrazio eskuduna: Botere publikoak.

Gaia: Etxebizitza. Etxebizitzarako konstituzio-eskubidea.

Jarduketa: Iradokizun normatiboak

Erakunde honek, Estatuko eta autonomia erkidegoetako gainerako arartekoekin batera, parte hartu zuen Oviedon 2012ko abenduaren 14an egin zen bileran. Bileran horren xedea zen neurriak proposatzea etxebizitzarako konstituzio-eskubidea eraginkortasunez babesteko.

Bileran, honako ondorioetara iritsi ginen:

1. Gaur egungo krisi ekonomikoak ondorio oso negatiboak ditu biztanleen sektore handi batean. Hori dela-eta, konstituzioan ezarritako etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea gauzatzeko itxaropenak zapuztuta ikusteaz gain, kasu askotan, euren bizitokia zen etxebizitza utzi behar izan dutela ikusi dute, familiek zorra gehiegi pilatzen baitituzte eta horren ondoriozko hipoteka betearazpenak gauzatzen baitira.
2. Hainbeste pertsonarengan -horren barne direla kolektibo bereziki ahulak; esate baterako, adineko pertsonak edo adingabeak, gurasobakarreko familiak, etorkinak eta abar- eragina izaten ari den errealitate dramatiko honek exijitzen eta eskatzen du, Konstituzioko 47. artikuluan jasotako aginduaren arabera, botere publikoak presaz, behar diren arau-aldaketak egin ditzatela -aldaketa horiek, izan ere, instantzia publiko eta pribatuetatik elkarreetatik eta foroetatik eskatzen ari dira- legedia hipotekarioan, prozedura zibileko legedian, legedia konkurtsalean eta Kode Zibilean, etxebizitzarako eskubidea eraginkortasunez bermatze aldera.
3. Kasu batzuetan saihesteko asmoz eta, beste batzuetan, hipoteka betearazpenen ondorioz familiek eta egoera ekonomiko eta sozial latzean dauden pertsonen pairatu behar izaten dituzten ondorioak arintzeko asmoz, zenbait arau onetsi dira. Hala ere, helburua aipatutako eskubide konstituzionala babestea bada ere, ez dira nahikoak izan botere publikoengandik espero dena asebetetzeko; izan ere, konstituzioari jarraiki, euren esku dago merkatuan eskubide hori gauzatzeko aukerarik ez duten pertsonen eskubidea betetzen dela bermatzea. Zentzu horretan, burututako hipoteka betearazpenen gaineko berri etengabeak eta finantza-erakundeek aplikatzen duten Praktika Onen Kodea izenekoaren emaitzen inguruan eman diren datuek erakusten dute ez direla batera eraginkorrak izan.
4. Arau horiek ez dituzte egoera jakin batzuk barne hartu, adibidez, kredituen abal-emaileen kasua; izan ere, hainbatetan zorraren ordainketari aurre egiteko euren etxebizitza edo beste berme batzuk eman behar izaten dituzte, beraz, zor nagusiak ondorioak zabaltzen ditu eta bazterkeria egoera jartzen ditu.

5. Une honetan hipoteka-maileguen kuotak ordaindu ezin dituzten pertsona askok mailegu horiek sinatu zituztenean ondorengo krisi egoera hau pentsaezina zen eta, funtsean, ez ordaintzeen arrazoiak hipoteka maileguaren kontratua sinatu ostean bat-batean gertatu diren inguruabarrak izan ohi dira, hala nola, langabezia, heriotza, gaixotasuna, banantzea, etab. Hau da, maileguak sinatu zirenean aurreikusi ezin zitezkeen gertakariak. Gainera, horiei gehitu behar zaie finantza-erakundeek egindako higiezin balorazio desegokia eta mailegatzaileen kaudimen egoera. Horrek esan nahi du, inguruabar horietan pertsona horiei hipoteka maileguak eman zizkietenez, pertsona horiek dituzten gehiegizko zorren ko-arduradunak direla.
6. Erreskatatu dituzten finantza-erakundeei dagokienez, egokitzat jotzen da gobernua neurriak hartu beharko izatea laguntza publiko horiek herritarrengan berriro inbertitu daitezen, bai herritarrek erakundeekin dituzten hipoteka maileguak berriro negoziatuz, bai modu horretan erosi diren higiezin zati bat gizarte etxebizitza bihurtuz.

Ondorio horiekin bat eginez, Herriaren Defendatzaileek botere publikoei dei egin diete ahalik eta azkarren eta Espainiako gizarteak eskatzen duen adostasuna eta ardura oinarritzat hartuta, beharrezkoak diren neurri legegile, sozial eta ekonomiko guztiak har ditzaten konstituzioan ezarritako etxebizitza edukitzeko eskubidea modu errealean eta eraginkorrean betetzen dela ziurtatzeko. Halaber, herrialde honetan jazotzen ari diren hipoteka betearazpen kopuru handiak eragin duen gizarte alarmak egoera hori arintzen saiatzeko zenbait neurri hartzeko beharra agerian utzi du. Izan ere, kasu gehienetan haxe da pertsona horiei geratzen zaien aukera bakarra: etxebizitza edo hipoteka zordunaren jarduera nagusia zen lokala galtzea, mailegu-hartzailea behin betiko zorpetzea eta hipoteka maileguaren abal gisa euren burua eskaini zuten pertsonen galbidea.

Horretarako, egokitzat jo da botere publikoei honako aukera hauek baloratu ditzaten eskatzea:

- a) Orain dela gutxi onetsi diren arauen onuradunak zabaltzea, hipoteka betearazpena jasateko arriskuan dauden zordunak babesteko.
- b) Etxebizitzen gizarte alokairua sustatzea kaleratzeak ordezkatzeko modu gisa.
- c) Hipoteka zorren berregituratze neurriei heltzeko aukerak zabaltzea.
- d) Hipoteka zorra kitatzeko aukera posibleetako bat zordunek ordainean ematea denez, aukera hori nork baliatu ahalko duen zehaztea.
- e) Zordunaren lanbidea den jarduera garatzen den tokia, hau da, negozio-lokalak babesteko neurriak zabaltzea.
- f) Zorrak berregituratzeko sistema bat arautzea, fede onez gehiegizko zorrak pilatzen direnean konponbideak bilatzeko zenbait mekanismo artikulatuz.

- g) SAREB izenekoari (Bankuen berregiturazetik datozen aktiboak kudeatzeko elkarteak) beharrezkoak diren neurriak har ditzan eskatzea finantza erakundeek, gutxienez, euren titulartasunekoak diren babestutako etxebizitza guztiak eraikitzerakoan zuten xedea betetzeko erabil ditzaten, neurri alternatiboak aurreikusiz (desjabetzea barne), balorazioa amortizazioaren, saltzeko zailtasunaren, finantza erakundeak jaso dituen laguntza publikoen eta balorazioaren arabera haztatuz SAREB izenekoan sartze aldera. Modu berean, baloratu behar da gizarte alokairurako erakunde onuradunen titulartasunekoak diren higiezinak sozialki haztatu diren prezioetan erosteko aukera, etxebizitza eta lurzoruari buruzko plan publikoetan babestutako etxebizitzak eraiki beharrean.
- h) Gobernuak orain dela gutxi onetsi dituen eta hipoteka betearazpena jasateko arriskuan dauden zordunak babestea xede duten arauetan ezarritako etenaldiak baliatu ditzaketen familien eta pertsonen kaleratzeak saiheste aldera esku hartzeko protokolo bat zehaztea
- i) Ahalik eta azkarren Etxebizitzaren Gizarte Funtsa abian jartzea eta higiezin nahikorekin osatzea fede ona zuten eta bat-batean jazo diren inguruabarren ondorioz kaleratuak izan diren eskuratzailerei erantzuna eman ahal izateko.
- j) Zerga-araudia aldatzea fede oneko zordunek euren egoera pertsonala zerga-kargen ondorioz okertzen ikusi ez dezaten, hala nola, eskualdaketen gaineko zerga edo gainbalioen zerga eta beste zerga mota batzuk.
- k) Aholkularitza, orientabide eta finantza-erakundearen eta ordaintzeko zailtasunak dituzten jabeen arteko bitartekotza eskaintzen duten zerbitzu publikoak sortzea edo sendotzea.
- l) Prezioaren edo, hala badagokio, alokairuaren ordainketaren atzerapena iradokitzea finantza erakundearen aurrean kasu eta baldintza jakin batzuk errespetatuz.

3.2.31. Tasa judizialei buruzko Legearen aldaketak

Hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Gaia: Justizia. Tasa judizialak. Babes judizial eragingarrirako eskubidea babestea.

Jarduketa: Iradokizun normatiboa

Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari zuzendu zitzaion onetsi den tasa judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legearen edukiak azter zitzala eskatzeko. Halaber, iradokizion gobernuari zein Gorte Nagusiei eska ziezaien lege hori aldatu dezaten, legearen aurrean tratu berdina jasotzeko eskubidea bermatze aldera, baita epaileen eta auzitegien babes eragingarria jasotzeko eskubidea ere.

Nafarroako Arartekoaren ustez, kasu batzuetan, legeak ezarri dituen tasa judizial berriak aplikatuz gero, garestiegi suertatu daiteke horiek ordaindu behar dituzten pertsona fisikoentzat eta babes judizial eraginkorra jasotzeko eta tratu berdintasunerako oinarrizko eskubideetan eragin negatiboa eduki dezakete.

Erreformaren gakoak hauxe da: pertsona fisikoak tasa judizialak ordaindu behar dituzten pertsonen zerrendaren barruan sartu dituzte, orain arte salbuetsirik zeuden arren. Lege hori indarrean jarri arte, urtean zortzi milioi euro baino gehiago fakturatzen zituzten enpresek besterik ez zituzten tasa horiek ordaintzen. Indarrean jarri eta gero, aldiz, salaketa zibil, administrazioarekiko auzi salaketa edo gizarte salaketa bat aurkezten duen pertsona fisiko orok ordaindu beharko ditu, betiere, legeak ezarri dituen salbuespenekin.

Hala, pertsona fisikoek gizarte jurisdikzioan izan ezik tasak ordaindu beharko dituzte lehenengo auzialdian, bai eta bigarren auzialdian ere, hiru jurisdikzioetan: zibila, soziala eta administrazioarekiko auziena.

Erakundeak uste du oro har pertsona fisikoak tasa judizialen subjektu pasibo bihurtzea ez datorrela bat babes judizial eraginkorra jasotzeko oinarrizko eskubidearen eraginkortasunarekin (konstituzioaren 24.1. artikulua horixe bermatzen du) eta, kasu batzuetan, inguruabar zehatzak aintzat hartuta, oinarrizko eskubide hori urratu ere egin daitekeela azaldu du.

Legean tratu berdintasunerako oinarrizko eskubidea ere ez da guztiz errespetatu (Konstituzioaren 14. artikulua); izan ere, pertsona fisikoen inguruan ezarritako salbuespenak bermatzen du baliabide ekonomiko eskasak dituzten pertsona fisikoek justizia jaso ahalko dutela baina, horrek esan nahi du, nolabaiteko ahalmen ekonomikoa duten herritarrek ordaindu beharko dituztela. Gainera, salbuespen horiek herri-administrazioak, Gorte Nagusiak, erkidegoetako legebiltzarrak edo Zerga Ministerioa barne hartzen ditu, erakunde horiek guztiek abian jartzen dituzten ekintza judizialen ondoriozko tasei aurre egiteko ahalmen ekonomikoa nahikoa duten arren.

Hona hemen aldatu beharreko beste alderdi bat: ez da tasarik ordainduko salaketa jartzerakoan, ezta geroago errekurtsioak aurkezterakoan ere, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babesteko “bereziki ezarritako prozeduren” kasuan. Erregulazio hori kritikatu beharra dago honako arrazoia dela bide: “pertsona fisiko batek konstituzioan ezarritako oinarrizko eskubide baten urraketaren ondorioz sustatzen duen ekintza judizial oro doakoa izan beharko litzateke, eskubide horien garrantzia eta horien eraginkortasunaren alde egin dezaten konstituzioak botere publikoei ezarri dien agindua aintzat hartuta, beraz, ez litzateke inolako tasarik aplikatu behar, ekintza prozedura berezi baten bidez edota ohiko prozedura baten bidez gauzatzen bada ere”.

Tasak ordaintzeari dagokionez, ez dago justifikazio nahikorik ohiko prozesu baten eta prozesu berezi baten arteko bereizketa egiteko. Kasu horietan garrantzitsua den gauza bakarra ez da prozedura bere horretan, baizik eta helburua; hau da, herritarrak berrezarri nahi duen oinarrizko eskubidearen babesa. Hortaz, hori burutzeko aukeratutako prozedura bigarren mailako kontua da. Azken finean, prozedura aukeratzea herritarrari dagokio eta bi

prozedura moten arteko hautua egin dezake (berezia edo ohikoa) inguruabar eta asmoen arabera. Dena den, babestu nahi dena beti da gauza bera: urratutzat jotzen den konstituzioan ezarritako oinarritzko eskubidea, babestu eta, hala badagokio, berrezarri nahi dena. Zentzu horretan, zentzuzkoena litzateke salbuespen objektiboak honako hau barne hartuko balu “salaketa jartzea eta geroagoko errekurtsioak aurkeztea helburua konstituzioan ezarritako eskubideak (ez bakarrik oinarritzkoak) babestea denean, bai eta hauteskunde administrazioaren jardunaren aurka denean ere”.

Kritikatu den hirugarren puntua hauxe da: dirudienez, kasu askotan, tasa judizial berrien ezarpena ez da bakarrik emandako zerbitzu judizialaren kostu ekonomikoaren ondoriozkoa. Zerbitzuaren kostu ekonomiko erreala ez da inoiz gaudituz behar, legearen hitzaurrean azaldu den moduan eta “tasaren” legezko kontzeptuaren eta kontzeptu doktrinalaren zein baliokidetasun printzipioaren ildo berean (“tasek zergapeko egitea osatzen duen zerbitzuaren edo jardueraren kostuari aurre egingo diote”, 1989ko tasen eta prezio publikoen legeak ezarri duen moduan). Beraz, ezarri diren tasen arteko desberdintasun nabarmena azaltzeko argudioak topatzea ez da erraza.

Adibidez, administrazioarekiko auzien alorrean, ohiko prozesuari 350 euroko tasa dagokio, apelazioari 800 eurokoa eta ezeztatzeari 1.200 eurokoa. Gora-jotzeko eta ezeztatzeko ezarritako zenbatekoek, ohiko prozeduraren zenbatekoekin eta beste bi zerbitzuen kostu igargarri errealekin alderatuz, neurritz kanpokoak dirudite, beraz, ondorioztatu daiteke zenbateko horien ezarpenak helburu eragozlea eduki duela eta xedea ez dela emandako zerbitzuaren kostu errealarari aurre egitea izan, derrigorrezkoa den moduan. Hala izanez gero (eta legegileak ezarri dituen zenbatekoen eskala ikusita, ematen du argi dagoela zentzu horretan jardun dela), baieztatu daiteke helburu eragozle hori ez datorrela bat babes judizial eraginkorra jasotzeko oinarritzko eskubidearekin.

Kasu askotan gerta daiteke, auzilariak salatutakoa kontuan hartuta, tasaren aplikazioa guztiz neurritz kanpoko eta eragozlea izatea. Hala nola, 100 euroko trafikoko isun baten aurka prozedura laburtuaren bitartez aurkeztutako administrazioarekiko auzi salaketaren kasuan, herritarrek bikoitza ordaindu beharko du tasen ondorioz, hau da, 200 euro eta organo judizialak arrazoia ematen badio eta isuna bertan behera uzten badu, gehienez ere isunari dagozkion 100 euroak eta legezko interesak jasoko ditu. Gainera, epaia ezezkoa bada eta auzitegi nagusira jotzeko errekurtsioa aurkeztu nahi izanez gero, tasak 800 eurokoak izango dira.

Errealitate horren aurrean, azaldutakoa bezalako kasu askotan, herritarrei ez zaie komeni administrazioarekiko auzi prozesu bat abian jartzea, arrazoia dutela uste badute ere, beraz, argi dago arauak helburu eragozlea duela eta xedea ez dela soilik dirua biltzea.

Nafarroako Arartekoak beste adibide batzuk aurkitu ditu eta horietan ere ezarritako tasak argi eta garbi neurritz kanpokoak dira. Hori gertatzen da zenbateko zehaztugabea duten prozeduretan edo zehaztea ezinezkoa den kasuetan. Horietan, legeak 18.000 euroko balioa finkatu du tasaren zerga-oinarria ezartze aldera. Galde daiteke: “Zergatik 18.000 euro eta ez 10.000 edo 5.000?” Nondik atera da horren zenbateko altua? Zenbateko hori ez dago oso justifikatua eta, beraz, epaileen eta auzitegien babesak jasotzeko eskubidearen gauzatzeari dagokionez, tasen helburu eragozlea erakusten du berrito ere.

Kritikagarria den beste alderdi bat da zenbatekoak aldatu daitezkeela prozesu judizialaren zenbatekoaren arabera. Prozesu motaren arabera dagozkion zenbatekoek gain, horiek ere ordaindu behar dira. Zenbateko horien oinarria ez da zerbitzuaren kostu erreala eta tasen baliokidetasunaren printzipio orokorretik aldentzen dira. Hortaz, pentsa daiteke horien xedea dirua biltzea besterik ez dela. Dena den, hori ere epaileen eta auzitegien eskutik babes judizial eraginkorra jasotzeko oinarrizko eskubidearekin bateraezina da.

Halaber, nabarmendu da, doako laguntza juridikoaren eskubideari lotuta dagoen salbuespen subjektiboa alde batera utzita, legeak ezarri dituen tasen gainontzeko zenbatekoetan ez dela tasen oinarri den ahalmen ekonomikoaren printzipioa aplikatu. Printzipio horrekin bat eginez, tasak ezartzerakoan aintzat hartu behar da, zergaren ezaugarriek aukera ematen badute behintzat, ordaindu behar dituen pertsonaren ahalmen ekonomikoa. Argi dago, justiziaren arloan, epaileen eta auzitegien babes eskuratzeko eskubidea gauzatzen duen herritarraren kasuan, ahalmen ekonomikoaren printzipioa guztiz aplikagarria dela eta tasa judizialen ezaugarriek diharduen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta zenbateko desberdinak ezartzeko aukera ematen dutela. Hala ere, subjektu aktiboen errenten araberako ahalmen ekonomikoaren printzipioaren aplikazio onargarria eta desiragarria gorabehera, tasa judizialei buruzko legean ez da printzipio hori barne hartu, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubide mugatutik harago. Hortaz, herritar gehienek kasuan, ez da euren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko justizia jasotzeko dagokionez.

Era berean, Nafarroako Arartekoak antzeman du Espainiako ordenamendu juridikoak (Konstituzioaren 1.1. artikulua) barne hartzen duen "justiziaren" printzipioa aldentzen ari dela, izan ere, euren lana eta lanpostua defendatze aldera epaiketa batera joan behar diren langileek ez dute tasarik ordaindu beharko ohiko prozesuan baina, gora-jotzeen bidez edo ezeztatzeen bidez lanpostu bera defenditzen jarraitzeko, 500 edo 750 euro (hurrenez hurren) ordaindu beharko dituzte. Lanerako eskubidea babesteko eskubidea (are gehiago une honetan, hainbat lanpostu desagerrarazten ari baitira) dohainik izan beharko litzateke, instantzia guztietan.

Arau bat modu hertsian betetzeak egoera bidegabeak edo administratuentzako egoera kaltegarriak eragin ahal dituenean, Espainiako Arartekoak Gorte Nagusiei edo gobernuari legean aldaketak egin ditzaten iradokitzeko duen eskumena oinarritzat hartuta, Nafarroako Arartekoak proposatu dizkion legearen aldaketak ikertzeko eskaria helarazi zion.

Hartara, erakundeak hauxe proposatu zuen:

- a) Ikuspuntu subjektibo batetik, pertsona fisikoak tasen ordainketatik salbuetsita egon daitezen, izan ere, konstituzioak aitortu eta babesten dituen oinarrizko eskubideen titularrak dira.
- b) Aurreko iradokizuna ez bada egokitzen jotzen, tasen ordainketatik salbuetsita egon daitezen klase baxu eta ertaineko pertsona fisikoak. Modu horretan, muga jakin bat (30.000 edo 40.000 euro) gainditzen ez duten urteko diru-sarrera gordinak dituzten pertsona fisikoek ez dituzte tasak ordaindu beharko eta, horrela, tasen kontzeptuaren oinarri den ahalmen ekonomikoaren printzipioa errespetatuko litzateke.

- c) Edonola ere, diru-sarrerak alde batera utzita, tasa judizialen ordainketatik salbuetsita egon daitezen ondorengo prozesu judizialak: herritarrak urratuak izan diren eta konstituzioan ezarritako edo haren zenideek dituzten eskubide bat edo batzuk defendatzeko asmoz abian jarritako prozesuak. Konstituzioak aitortzen duen eskubideen defentsarako ez litzateke tasa bat jarri beharko.
- d) Hala eta guztiz ere, herri-administrazioek tasa judizialak ordaindu beharko litzukete euren errekursoak edo herritarren eskubideak urratu dituzten ekintzak hizpide dituzten auzietan burututako ekintzak gaitzetsi egiten badituzte.
- e) Aurreko iradokizunak ez badira egokitzat jotzen, tasa judizialek zenbateko proportzionatuak izan behar dituztela hizpide, baliokidetasun printzipioa kontuan hartuta (“joera zerbitzuaren kostuari aurre egitea izan behar da” ez halabeharrez ordaintzea), beraz, ezein kasutan ez dute babes judiziala jasotzeko aukera eragotzi edo horretarako asmoa kendu behar. Bermatu beharko litzateke tasa gisa ordaindu beharreko zenbatekoa ez dela inoiz prozesuak hizpide duen zenbatekoaren portzentaje murriztua baino handiagoa izango edo, zenbateko zehaztugabeen kasuan, tasa zenbateko txiki bat dela ziurtatu.
- f) Azkenik, bigarren auzialdiko tasen zenbatekoak eta lehenengo auzialdiko tasak berdinak izan beharko lirateke edo, modu subsidiarioan haien arteko aldea oso txikia izan beharko litzateke eta kostuari lotutako arrazoen bidez justifikatua egon beharko litzateke.

Proposatutako aldaketa horiez gain, Nafarroako Arartekoari proposatu zuen Espainiako Arartekoak justizia administrazioarekin eta herritarren eskubide konstituzionalen bermearekin zerikusia duten beste alderdi batzuk aztertu ditzan.

Hala, gatazken aurrean epaiz kanpoko konponbideak sustatzeko proposamena egin zuen, arbitraje eta bitartekotzaren bidez (bereziki, administrazioaren arloan) eta konstituzioan ezarritako eskubideen bermatzaile diren eta Autonomia Estatutuetan aitortutako erakundeek, Espainiako Arartekoak bezala, epaiketetara joateko aukera eduki dezaten iradoki du, diru gutxien duten herritarrak ordezkatzeko eta babesteko. Horretarako, egokia den auzibide-legitimazio aktiboa esleitu behar diete. Kontu horiek guztiak lege osagarri gisa proposatu daitezke, baita tasa judizialen gaineko legearen xedapen gehigarri gisa sartu ere, mahai gainean jarritako aldaketak gaineratzeko legea aldatzen baldin bada.

Justizia Ministerioak aditzera eman zuen Tasa Judizialei buruzko Legea aldatzeko prest zegoela, eta bere gain hartzen zuela Arartekoak horri buruz helarazitako proposamenak bere egiteko konpromisoa, tasak beherantz zuzentze aldera eta, kasu batzuetan, haiek kentze aldera. Hartara, otsailaren 22ko 3/2012 Errege Lege Dekretuaren bitartez, tasen araubidea aldatu zen Justizia Administrazioaren esparrurako, eta tasen zenbatekoa jaitsi zen lehenengo instantzia zibilean eta administrazioarekiko auzietan, tasak pertsona juridikoen gaitasun ekonomikoaren arabera modulatu ziren eta kenkari bat ere sartu zen, prozesuetan errekurtoetarako sarbidea errazteko. Halaber, Espainiako Arartekoak Justizia Ministerioari planteatu zion honako tasak kentzeko aukera: zehapen prozedurak epaibidean

jartzen direnean sortzen direnak; exekuzio hipotekarioko prozeduretako tasak, batez ere ohiko etxebizitzaren gainekoak; ordena sozialeko erregutze-errekurtso eta kasaziozko errekurtsoetako tasak; eta kontsumoko arbitraje-erabakiak exekutatzeko tasak. Horren guztiaren berri eman zion Espainiako Arartekoak erakunde honi.

3.2.32. Buru-gaixotasuna duten pertsonen zigor-tratamendua, tratamendu prozesala eta espetxe-tratamendua.

Hartzaileak: Espainiako Arartekoa eta autonomia erkidegoetako arartekoak.

Gaia: Legedia penala, prozesala eta espetxeetakoa. Buru-gaixotasuna duten pertsonak.

Jarduketa: Iradokizun normatiboak

Arartekoak Koordinatzeko XXVII Jardunaldiak prestatzearen karietara -2012ko ekainaren 19an eta 20an izan ziren Zaragozan, eta Aragoiko Justiziak antolatu zituen--, Espainiako Arartekoaren egoitzan mintegi bat egin zen, honako izenburuaren pean: "Buru-gaixoen zigor-tratamendua, tratamendu prozesala eta espetxe-tratamendua".

Mintegiak aukera eman zigun errealitate triste bat ezagutzeko: espetxeratuen populazioak buru-patologiaren tasa handi bat dauka. Espetxeratuen artean, lautik batek diagnosi psikiatriko bat edo gehiago dauka bere historia klinikoan. Buru-gaixotasun larri edo kronikoa duten pertsonak dira, eta gaixotasun horrek narriatze bat eragiten die, ezgaitasunen bitartez eta rol sozialak betetzeko gaitasunetan dauzkaten arazoak bitartez. Horietako askok eguneroko bizitzarako gabeziak ere badituzte, eta horrek mendetasuna eragiten die, eta estresaren aurrean ahulak izatea, eta sozializazio defizitak izatea, eta maiz gertatzen zaie sintomak atzera egitekoaldi batzuen ondoren beheraldiak izaten dituztela berriz.

Are larriagoak dira ezgaitasun psikikoa izan eta espetxeetan zigorak betetzen ari diren 1.000 pertsona baino gehiagoren egora (2006an, espetxeratuen % 1,8 ziren). Haien ezgaitasuna minusbaliotasuneko ziurtagiri mediko batekin edo historia klinikoan jasotako proba psikometrikoekin dago kreditatua. Pertsona horiek berehala deribatu beharko lirarteke arreta sozio-sanitario psikiatriko egokia ematen duten zentroetara, edo toki egokiagoetara eta tratamendu egokiagoak hartzera.

Mintegia egin ondoren, Nafarroako Arartekoak buru-gaixotasuna duten pertsonen ikuspuntu zigor-ikuspuntutik, ikuspuntu prozesaletik eta espetxe-ikuspuntutik ematen zaien tratamenduarekin lotutako honako proposamenak igorri zituen:

1. Oro har, Justizia Ministerioari proposatzen zaio zigor arloko, arlo prozesaleko eta espetxe-arloko lege esparru indarduna azter dezan, hartara sartzeko, beharrezkoa den neurrian, Buru-gaixoen Babesteko Buru-osasunaren Arreta Hobetzeko Printzipioak. Izan ere, NBEk 1991ko abenduaren 17ko 46/119 Ebazpenaren bitartez onetsi zuen agiri hori, eta bereziki erreferentzia egiten dio buru-gaixotasuna duten pertsonak defendatzeari eta haiek atxilotze-zentroetan beren borondatearen aurka barneratzeari.

2. *Buru-gaixotasuna izan eta egindakoa lege-haustea dela ulertzeko gaitasunik ez duten edo ulertze horren arabera jarduteko gaitasunik ez duten pertsona prozesatuaren kasuan*, buru-gaixoa erantzukizun kriminaletik salbuesteko behar diren neurriak har daitezela, Zigor Kodeko 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, halako moduz non saihestuko baita pertsona horiek espetxeetan sar daitezela edo lortuko baita espetxean ahal den denbora gutxien eman dezatela.
3. Arestian adierazitako kasuan ez egoteko, hau da, sistema judizialaren diligentzia normaleko egoeratan zigor erantzukizunetik salbuetsita egonen liratekeen edo salbueste ez-oso bat izanen luketen pertsonak epaituak eta zigortuak izan daitezen salbuesteko, honako proposamenak egin ditugu:
 - a) Arreta berezia eskain dakiela segurtasun kidego eta indarrei, atxilotutako pertsonarengan buru-gaixotasuna dagoela susmatzen denean, horretaz ohartarazteko zigor-diligentzietan esku hartzen duten aldeei (ministerio fiskala, abokatua, epailea), halako moduz non prozesua behar bezala bideratuk baita, aukera horri erreparatuta.
 - b) Arreta berezia eskain dakiola ministerio fiskaleko kideen eta abokatuen elkargoetako kideen prestakuntzari, gauza izan daitezen ustezko delitu edo arau-hauste batengatik akusatuta dauden pertsonak buru-gaixotasunen bat izateko aukeraz konturatzeko; eta gaixotasuna susmatzeko edo antzemateko kasuan, protokolo baten arabera jardun ahal dezaten, salbuespenaren edo aringarriaren existentzia alegatzeko, eta, salbuespenaren kasuan, pertsona hori tratamendu mediko egokiagoa hartzeko leku batera deribatzeke.
 - c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak arreta berezia eskain dakiola epaile eta magistratuen prestakuntzari, horiek jakin dezaten nola jardun ustezko delitu edo arau-hauste batengatik akusatutako pertsonarengan buru-gaixotasunaren balizko presentzia ohartarazten den kasuan, halako moduz non salbuespenaren edo aringarriaren kasuan, pertsona hori tratamendu mediko egokiagoa hartzeko leku batera ere deribatu ahal dezaten.
4. *Buru-gaixotasun larri bat duten presoaren kasuan, gaixotasun hori dela-eta, irizpide mediko eta zientifikoaren arabera, hirugarren pertsonentzako arriskurik ez dagoenean*, pertsona horiei espetxea ez den beste zentro batean eman dakiela tratamendua, hartan tratamendu mediko “zibil” eta “ez penal” egokia har dezaten. Tratamendu hori osasun laguntzarako eredu publikoan emanen zaien, epaituak izan ez diren buru-gaixoekiko berdintasun baldintzetan, eta haien konstituzio-eskubideak guztiz errespetatuta. Buru-osasuna lehengoratu, baloratu beharko litzateke ea Zigor Kodearen 60.2 artikulua aplikatuta, zigorra betetzea ez-beharrezkoa den edo kaltegarria den, eta zigorra deuseztatzeko edo gutxitzeko kasuan, zigor hori askatasunez gabetzeko zigor neurri alternatiboekin ordez daitekeen.
5. *Buru-gaixotasun larri bat duten presoaren kasuan, gaixotasun hori dela-eta, irizpide mediko eta zientifikoaren arabera, hirugarren pertsonentzako arriskurik*

ez dagoenean, pertsona horiei espetxea ez den beste zentro batean eman dakiela tratamendua, hartan tratamendu mediko berezi eta banakakoa har dezaten. Tratamendu hori osasun laguntzarako eredu publikoan emanen zaie edo, buru-gaixo horientzako edo hirugarren pertsonentzako arrisku larria dagoen kasuetan, erakunde edo unitate psikiatriko batera eramanen dira, non barneraturik, artaturik, zaindurik eta trataturik egonen baitira beren gaixotasuna dela-eta hertsiki behar den denboran, betiere haien duintasuna eta eskubideak guztiz errespetatuta. Buru-osasuna lehengorotuta, baloratu beharko litzateke ea Zigor Kodearen 60.2 artikulua aplikatuta, zigorra betetzea ez-beharrezkoa den edo kaltegarria den, eta zigorra deuseztatzeko edo gutxitzeko kasuan, zigor hori askatasunez gabetzeko zigor neurri alternatiboekin ordeztatekeen.

6. Arestian adierazitako bi kasuetan, proposatzen da premia dadila, bidezkoa den kasuetan txosten mediko batekin eta txosten sozial batekin *askatasunaz gabetzeko zigorraren ordeztateko neurri alternatiboak ezartzeko, buru-gaixotasuna duten pertsonen tratamendua eta birgizarteratzea ahalbidetzen dutenak*, baina ez soilik Zigor Kodean edo Espetxe-erregelamenduan aitortzen formal bat eginez, horixe bai baitago gaur egun, baizik eta programa efektibo eta errealean bitartez, betiere programa horiei behar beste baliabide emanek aukera hori erreala izan dadin eta aplika dadin.

7. *Buru-gaixotasun ez-larria eta beren delituaren kontzientzia duten pertsona presoan kasuan*, pertsona horiek espetxe batan egon daitezela tratamendu medikoa, errehabilitazioa eta birgizarteratze-tratamendu banakako programa batekin, autonomia erkidegoko osasun zerbitzuko sendagileekin koordinatuta. Banakako programak bilatu beharko luke, beharrezkoa edo gomendagarria den guztietan, zigorraz besteko segurtasun-neurri alternatiboen aplikazioa; esate baterako, kanpoko tratamendu medikoak (anbulatorioak, esate baterako), familia zaintza edo zentro egokietan sartzea (zentro psikiatrikoak, errehabilitaziokoak, hezkuntzakoak eta abar). Funtsezkoa izanen da Espetxe Zaintzako epailearen esku-hartzea, betiere, besteak beste, psikiatra batek eta gizarte zerbitzuetako profesional batek osatutako diziplina anitzeko lantalde batek behar bezala aholkatuta.

Pertsona horientzat funtsezkoa da osasun arreta indartzea, espetxe-zentroei behar adina giza baliabide eta gauza baliabide egokiak emanek, autonomia erkidegoko osasun zerbitzuarekin koordinatuta eta espetxeratuaren birgizarteratze sozial eta laborala bilatuz banakako programen bitartez.

8. Zigor Kodea aldatzea, Espetxe Zaintzako epaileen eginkizunak indartzeko, halako moduz non buru-gaixotasuna izan eta espetxeetan dauden pertsonak birbideratu ahalgo dituzten beren tratamendurako, errehabilitaziorako eta birgizarteratzerako egokiagoa den giro batera, baita epaia eman duen organo judizialarekiko autonomiaz ere.
9. Bultza dezala guztien artean (gizartea, politikariak, botere publikoak, Zuzenbideko operadoreak, justiziaren arloko profesionalak, osasunaren arloko

profesionalak, gizarte zerbitzuetako profesionalak eta abar) mentalitate-aldaketa sakon bat egin dezagun, onartzea aldera buru-gaixotasuna duten pertsonak gaixoak eta eriak direla, eta haiek espetxe-esparrutik urrutiratu behar direla kasu larrietan, eta haiekin daukaten gaixotasunaren arabera jokatu beharra dagoela, buru-gaixotasuna duten gainerako pertsonekin bezala (horiek ere, irizpide medikoen arabera, eta ez irizpide poliziako eta judizialen arabera, hirugarren pertsonentzako arrisku bat izan baitaitezke, batzuetan).

10. Ezinbestekoa da benetako sistema soziosanitario eta asistentzial publiko, efiziente eta nahikoa diseinatu eta eraikitzea, kasu larrietan espetxean eta espetxe-ospitale psikiatrikoetan egotearen alternatiba bat izanen dena (izan ere, horietan ageri-agerikoa da gaixoaren urrutiratzea eta bakardadea), buru-gaixotasuna duten pertsona horiek (akusatuak edo presoak) klinikoki eta zuzen diagnostikatuko dituen, medikoki artatuko dituen eta haientzat gizarteratzea (pertsona horientzat, funtsezkoa da laguntzarako are sozio-sanitarioaren arreten jarraitutasuna) eta laneratzea (buru-gaixotasuna duten pertsona askok lanean egin dute sendatzeko eta egonkortasuna lortzeko behin betiko urratsa) lortuko duena, banakako programen bitartez.

Proposamen horiek guztiak aipatutako mintegian eztabaidatu ziren, eta bertan gehiengoak ontzat eman zituen, koordinazio jardunaldietan bezala.

3.3. NAFARROAKO HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko (aurrerantzean, 15/2005 Foru Legea) 14. artikulua ezarri zuen Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen egoera baloratuko duela bere urteko txostenean.

Foru lege horren aurreikuspena betetzeko, atal honetan arlo horri buruzko zenbait datu eta balorazio eskaintzen ditugu, adingabearen babesaren arloko esku-hartze administratiboaren arloan dagoen arau nagusia delako.

3.3.1. Egindako jarduketaren azalpena eta ebaluazioa.

A) Arau- eta plangintza-lana.

Aurreko urteko txostenetan adierazi genuenez, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko Erregelamendua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bidez. Arau horrek legearen erregulazioa osatzen du zenbait alderdi garrantzitsutan; esate baterako: arloan esku hartzen duten langileen lanbide profil espezializatuak, Balorazio Batzordea, Administrazioak zenbat jarduera, baliabide eta produktutan izanen duen esku-hartzea, kautelazko neurriak, babesgabetasuneko egoerak, familiako babesaren eta babes neurrien jarraipena, aldaketa eta iraungipena.

Hala eta guztiz ere, urteko txosten horietan adierazi genuen bezala, oraindik ere garatzeko daude 15/2005 Foru Legean jasotako alderdietako batzuk. Izan ere, arau horretan, 2010ean zenbait aldaketa egin dira azaroaren 8ko 18/2010 Foru Legearen bitartez, funtsean adopzioari dagokionez.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako Departamentuak informatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean adopzioari buruzko prozedura administratiboa araupetuko duen foru dekretuaren proiektua izapidetzen ari da. Aurreko bi ekitaldietan ere aipatu genuen izapidetze hori; hortaz, berretsi beharra dago esparru horretan bizkor jardutea komeniko litzatekeela, adopzioaren arloko arau-esparrua osatzeko.

Bestalde, Gizarte Politiketako Departamentuak adierazi duenaren arabera, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren aldaketa prestatzen ari dira, adingabearen babesaren arloko prestazioei dagokienez. Zehazki, bultzatzen ari da presako familia-harrerei buruzko araupetze bat, sei urtez beherako haurrentzat, haien egoeraren balorazioa egiten den bitartean, familia unitateetan, eta ez zentroetan, bizi daitezzen. Erakunde honen iritziz, ekimen hau oso positibotzat jo beharra dago. Neurriak, adingabearen egoera baloratzeko behar den denbora tartera mugatuta badago ere, azpimarratzen du aurreko urteko txostenetan iradoki genuen ildoak, familia-harreraren indartzea bultzatzeko beharrari eta haur txikientzat harrera instituzionalak saihesteari dagokienez.

Plangintzari eta programazioari dagokienez, 2012an zehar Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoak (2008-2012) jarraitu du indarrean. Plangintzarako tresna orokor horren esparruan, honakoak izan dira Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzuak ezarritako ildo estrategikoak: a) familia-harrera indartzea; b) harrera-baliabide berri gisa larrialdiko familia-harrera eskaintzea, baloratu beharreko sei urtez beherako adingabeen kasuan; c) fase finalistan babesean dauden adingabeentzako autonomia programak indartzea; d) premia bereziak dituzten haurrak adoptatzeko neurriak indartzea; e) Nafarroako Foru Komunitateko haurren babesari buruzko deskribapena hobetzea; f) adopzio prozesuak azkartzea; eta g) errekurtsoak, profesionalak eta lan ereduak espezializatzea.

Jarduketa-ildoak aurreko urtean adierazitakoen antzekoak dira funtsean, eta berritasun nagusia da haur txikientzako larrialdiko familia-harreraren baliabideari dagokiona, hain zuzen arestian adierazitakoa.

Aurreko txostenean esan genuen bezala, erakunde honen ustez, egokia da Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzuak helburu zehatzago eta berariazkoagoak programatzea izaera orokorreko plangintza-tresnen esparruan; helburu horiek urtero berrikus edo gaurkotu litezke, egoeraren bilakaeraren arabera eta hauteman daitezkeen beharrian nagusien arabera. Berriz diogu lan hori komenigarria dela eta komenigarria dela, halaber, ezarritako helburuak unean-unean betetzeko maila ebaluatzea eta, kasua bada, lehenetsunak birdefinitzea.

B) Adingabeen eskubideen sustatzea eta zabaltzea.

15/2005 Foru Legeak adingabeen eskubideen eta betebeharren taula bat ezartzen du eta haiek sustatu eta zabaltzea agintzen du.

Jarduera horri dagokionez, Gizarte Politiketako Departamentuak informatu zuen 2012ko azaroaren 20an, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren kariatara, zenbait ekitaldi egin zirela, adingabeen eskubideak sustatze aldera eta haien zabalkundea egite aldera.

Erakunde honen aurreko txosten batzuetan adierazi den bezala, komenigarri dirudi haurren eskubideen sustapen eta zabalpen lan hori areagotzea, bai esparru sozialean, orokorrean, bai, zehazkiago, adingabeen esparruan. Zehazki, bereziki kontuan hartuta populazioaren sektore horrentzat zeinen zaila den hain zuzen ere bere eskubideak eta betebeharrak -banakakoak zein sozialak- ezagutzea, erakunde honek komenigarritzat jotzen du nabarmentzea adingabeen eskubideak zabaltzea ekintza koordinatuen bitartez -funtsean adingabearen arloko organo eskudunen eta hezkuntza administrazioaren arteko ekintza koordinatuen bitartez.

C) Prebentzio jarduerak.

Prebentzio jardueren funtsezko helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea.

Administrazioak esparru honetan egin beharreko esku-hartzea funtsean garatuko da beren jarduera dela-eta adingabeak artatzen dituzten instantzia desberdinen arteko lankidetzatik eta koordinaziotik abiatuta (hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak, funtsean).

Eginkizun horretarako daukagun tresna garrantzitsuena Haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua da. Eskuliburuan, Nafarroako Foru Komunitatean adingabeen babesari buruzko programak, baliabideak, prozedurak, kontzeptuak eta eskumen-esparruak jaso, bateratu eta azaltzen dira. Gizarte Politiketako Departamentuak adierazten duenaren arabera, prestakuntza-saioak egiten jarraitzen dira, koordinazio-tresna hori behar bezala aplikatze aldera. Saioak ondokoei zuzendutakoak ziren: oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak, haurrak eta nerabeak artatzeko bitarteko ekipoak eta, oro har, hurrekin eta gazteekin lan egiten duten guztiak (osasun eta hezkuntza arloko profesionalak, haurrendako tratu oneko sareak eta abar).

Nafarroako Foru Komunitateko koordinazioari berariaz dagokionez, berriz, lan-esparru bat jardunean jarraitzen duela adierazi digute; hartan, teknikariak eta zuzendaritzako kideak biltzen dira (Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Politiketako departamentuetako zerbitzuetakoak), organo horiek direlako adingabeekin harreman zuzen handiagoa dutenak.

Erakunde honen ustez, positiboa da egindako koordinazio-ahalegina, eta bide horretan lan egiten jarraitzea animatu nahi dugu, ezinbestekoa baita babesgabetasun egoerak behar bezala prebenitzeko.

Behin eta berriz esan beharra dago komenigarria dela prebentzio-lana -hain zuzen ere 15/2005 Foru Legeak lehentasunezkoztat jotakoa- ahal den guztian areagotzea, saiheste aldera adingabeengan eragina duten arazoek azkenean beraiekin ekar dezatela babes sistemak modu bizkorragoan esku hartu behar izatea. Zehazki, arrazoizkoa bada ere azpimarra gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntzaren arloko profesionalen arteko koordinazioan jartzea, erakunde honek berriz dio komenigarria dela, orobat, prebentzio-programak edo -ekintzak abiaraztea, 15/2005 Foru Legeko 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ondoko arloetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisialdia, animazioa, prestakuntza eta enplegua.

D) Babes sistemako jarduerak.

a) Arrisku-egoerak.

Babesgabetasuneko egoeren artean, oro har, arriskukoak dira intentsitate handiena edukitzen dutenak eta, horrenbestez, esku-hartze administratibo txikiagoa exijitzen dutenak. 2012an, jasotako informaziotik ondorioztatzen denez, arrisku egoeran dauden adingabeak eta babes neurriren baten onura dutenak eguneko zentroetara eramanez artatu ziren (26 adingaberen kasuan), edo hezkuntzako esku-hartzerako programen bitartez (193 adingaberen kasuan) edo behaketa- eta harrera-zentroen bitartez (197 adingabe).

2011ko datuekin alderatuta eta erreferentzia horiek erabilita, ikusten da arrisku egoera horretan daudela jo daitezkeen adingabeen kopuruak % 6 egin duela gora (2012an, 416 adingabek hartu zuten neurriren baten onura; 2011n, berriz, 391 izan ziren).

Igoera horrek berresten du azken urteetan izandako joera, zeina erakunde honen aurreko txostenetan eman baita aditzera. Adierazi den bezala, igoera horrek ez du zertan negatiboa izan. Izan ere, izaera horretako egoeretako esku-hartze goiztiarra -intentsitate txikiagokoa adingabearen babesgabetasunari dagokionez- onuragarria izan daiteke eta babesgabetasun egoerak gertatzea ekiditeko balio dezake. Nolanahi ere, datuak eta haren bilakaerak aditzera ematen dute zeinen komenigarria den, ahal den guztian, arrisku-egoerak antzemateko eta haietan esku hartzeko mekanismoak indartzea. Esparru horretan, eginkizun nabarmena izan dezake lurralde guztian diziplina arteko tarteko lantaldeak -bereziki, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeak deitutakoak- ezartzeak.

b) Babesgabetasun egoerak.

Babesgabetasuna intentsitate handiagoaz agertzen den eta adingabearen zaintza hartu beharra dakarten babesgabetasun egoerak dira. 2012an, 32 adingabe deklaratu ziren babesgabetasun egoeran. Kopurua 2011ko ia bera da (33 adingabe) eta nabarmen txikiagoa da 2010ekoa baino (44 adingabe). Babesgabetasun kasuak gutxitzeko joerari euste hori positibotzat jo beharra dago, printzipioz eta behar den zuhurtasunarekin.

Adierazi dugun bezala, deseatzekoa da adingabeentzako arreta-zerbitzuen esku-hartzea, halakorik gertatzen bada, babesgabetasuneko faserik goiztiarrean gertatzea, arriskukoan, eta, horri dagokionez, positiboa da azken hiru urteetan antzeman den joera,

zeren eta gora egiten baitute arrisku egoeretako jarduketek eta esku-hartzeek eta behera egiten dute, berriz, arinki bada ere, babesgabetasun egoerek. Erakunde honek bultzatzea egin nahi du ildo horretan antzematen den ahaleginarekin jarraitzeko.

Bestalde, 3 kasutan babesgabetasun egoera deuseztatu zen. 2011koa (7 kasu) baino zenbatero txikiagoa da hori, eta zenbatero txikitzen joan beharra dago, hura baldintzatzen duten faktore anitzak ahaztu gabe, betiere. Berriz esan beharra dago Administrazio Publikoak ahaleginak biderkatu behar dituela, adingabeak beren jatorrizko familietara itzultzeko baldintzak eman daitezkeen. Halatan, gogorarazi egin beharra dago horixe dela babesgabetasunaren azken helburua, eta horrek berekin dakarrela beren adingabeak, arrazoiak arrazoi, artatzen ez dituzten edo artatu nahi ez dituzten familiekiko esku-hartzea bultzatzeko betebeharra. Erakunde hau jabetzen da helburu hori ezin dela kasu guztietan lortu; halere, gogorarazi behar da xede hori lortzeko lan egin behar dela, ahal den neurrian kenduz babesgabetasuna pairatzen duten familiek laguntza eman dezaten eragozten duten oztopoak; hori, jakina, ez da eragozpen izan behar adingabearen interesak lehenesteko kasu guzti-guztietan.

Azken batean, ematen du komenigarria dela jarraitzea indartzen prebentzio-eginkizunak, arrisku-egoeren detekzioarenak eta familiekiko esku-hartze soziala, ahal den neurrian ekidite aldera inguruabarren eraginez adingabeen babesgabetasuna deklaratu beharra, eta, kasua bada, babesgabetasun egoera deklaratu gero, itzulera bideragarri egitea.

c) Familiei laguntzeko jarduerak.

Puntu honetan, Administrazioaren babesak jaso dituzten familiak aipatzen dira (babes teknikoa nahiz ekonomikoa), alde batera utzita zain jarduera mota izan den. Administrazioaren babes horren helburua izan da bereiztea saihestea, eta bereizte kasuetan, adingabearen itzultzea bilatzea. Datua aipagarria da, zerren eta ongi islatzen baitu zenbat familiak izan dezaketen Administrazioaren laguntzaren beharra, eta, horrenbestez, zenbatero dituzten zailtasunak, gutxi-asko trinkoak eta era askotakoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Gizarte Politiketako Departamentuak jakinarazi digunaren arabera, 2012ko erreferentziako ekitaldian 1.798 familia izan ziren era bateko edo besteko laguntza jaso zutenak. Datua hauei dagokie: Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Ekipoen zerbitzuak jasotzen dituzten familiak; diru-prestazioak jaso zituzten familiak; Familietan Esku-hartzeko Programa erabili zuten familiak; seme-alabak eguneko zentroetara joaten diren, harrera-familia batekin bizi diren edo egoitza-zentro batean dauden familiak; Behaketa- eta Harrera-zentroak esku hartu duen familiak; topaguneetan laguntza jasotzen duten familiak, eta abar.

Datu horrek agerian uzten du, halere, oraindik ere nabarmena dela arrazoi desberdinengatik, beren adingabeen egoerarengatik, laguntza publikoa behar duten familia guztiak kopurua (babesgabetasunarengatik nahiz babesgabe gelditzeko arriskuarengatik). Datu horrek justifikatzen du botere publikoek ahalegin bat egin dezatela arlo horretan diharduten agenteei (funtsean, Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua, oinarritzko gizarte zerbitzuak, laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko

entitateak eta abar) behar dituzten baliabideak emateko -pertsonek zein materialak-garrantzi sozial handiko beren lan honetan arrakasta izan dezaten.

d) Zaintza egoeran dauden adingabeak.

Zaintza da babesgabetasun egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurri bat, eta familia- nahiz egoitza-harreraren figuraren bitartez gauzatzen da. 2012an, 537 adingabe aurkitu ziren egoera horretan. Kopuru hori handiagoa da aurreko urtekoa baino (492 adingabe) eta berresten du azken urteetako goranzko joera (458 adingabe 2010ean), eta, halaber, aurreko atalean adierazitakoa finkatzeko balio du.

e) Tutoretzapeko adingabeak.

Tutoretza, administratiboa zein arrunta, legeak ezarritako babes-neurrietako beste bat da, eta babesgabetasun egoera trinkoago bati lotuta dago; hau da, geriza-gabetasunari. 2012an tutoretzapean jarritako adingabeak 202 izan ziren, 2011n (214) baino gutxiago eta 2010eko kopuru berbera.

f) Harrera indardun eta formalizatuak.

Geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza harreraren bidez formalizatzen dira.

2012an, 104 adingaberen harrera formalizatu zen (2011n baino hogeita lau gutxiago).

Ondoren adierazitakoak dira harreraren dauden adingabeen guztizko kopuruak:

Harrera egoeran dauden adingabeen kopurua, guztira: 537 (492, 2011n).

Familia harrerak: 245 adingabe (250, 2011n).

Adingabeak harrera etxeetan hartzea: 292 adingabe (242, 2011n).

Familia zabalean eta beste familia batzuetan gauzaturiko harrerak: 152 (162, 2011n) eta 93 adingabe (88, 2011n), hurrenez hurren.

Harrera-egoeran dauden adingabeen guztizko kopuru handiagoak, eta harekin lotuta arrisku egoeretako esku-hartzeen arestian aipatutako igoerak, agertzeraren ematen dute adingabe gehiago direla babes-sistema batean sartzen direnak hartatik ateratzen direnak baino; horrek berarekin dakar berriz esan behar izatea bermatu beharra dagoela esparru hori baliabideez egoki horniturik egon dadila.

Bestalde, azpimarratzekoa da 15/2005 Foru Legeak familia harrerari ematen diola lehentasuna egoitzako harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen zaio adingabeak familia zabalean hartzeko aukerari, beste familia batzuetako harreraren gainetik, adingabea bere eremu naturaletik gertuen egon dadin printzipio orokor gisa.

Aurreko urteko txostenetan, erakunde hau kezkatuta azaldu zen, egoitza-harrereren eta familia-harrereren artean hautematen zen erlazioa dela-eta; izan ere, egiaztatzen zen lehenengo garrantzi erlatiboa handitzen ari zela. Hartara, esaten zen 2009an egoitza-harrereren kopuruak gora egin zuela eta familia-harrererenak, berriz behera; 2010ean batzuen eta besteen arteko erlazioak ia bere horretan iraun zuela, baina urte horretan formalizatutakoetatik, gehien-gehienak egoitza-izaerakoak zirela, instituzionalak; eta 2011n, familia-harrerak hiru gehiago izan zirela, baina kopuru hori 26ra ere igo zela egoitza-harrereren kasuan; halaber, esaten zen urte horretako 128 harrera berrietatik, 90 lehenengo modalitatekoak izan zirela eta 38 harrera baizik ez zirela izan bigarren modalitatekoak.

2012an, berriz ere antzeman zen erlatiboki gora eginga zuela egoitza-harrereren garrantzi erlatiboak, zeren eta berrogeita hamar adingabe gehiago baitaude egoera horretan, eta, aitzitik, harrera-familian 5 kasu gutxiago.

Datuak joera negatibo bat berresten du, eta iradokitzen du babesgabetasun egoeran dauden adingabeak hartzeko prest dauden familiak falta direla. Badirudi lehenetsunezkoa dela esparru honetan ahaleginak zentratzea, arreta berezia eskainita adin txikiagoko haurren kasuei, “Adopzio nazionalaren eta horrekin lotutako beste gai batzuen inguruko arazoak aztertzeke batzorde bereziaren” txostenean adierazitakoaren ildotik -2010aren amaieran argitaratu zen-; izan ere, txostenak azpimarratzen du egoitza-harrera, nolana ere, subsidiarioa izanen dela, eta proposatzen du adingabe txikieneztat figura hori kentzea, halako moduz non neurria eraginkorra izanen baita, lehenengo une batean, 0-3 urteko tartean, eta arrazoizko epe batean, sei urtera bitarteko tartean.

Erakunde honek badaki helburu konplexua dela, zeina ez baitago soilik jarduketa publikoaren menpe, baina beste behin adierazi behar du neurriak hartu behar direla, administratiboak nahiz legegintzazkoak, familia-harreraren modalitatea sustatzeko, ahal den guztian adingabeen instituzionalizazioa saiheste aldera. Neurri horiek ezartzeko, lehenengo egungo nahiz etorkizuneko familia hartzaileentzako laguntza areagotu beharko litzateke, terminoaren zentzu zabalenean, laguntzat teknikoekin nahiz laguntza ekonomikoekin, gizarte zerbitzuen legediaren bitartez edo, baita ere, zerga legediaren bitartez, egokitzen jotzen bada.

Familia-harrereren barruan, oraindik ere nabarmen handiagoa da familia zabalean hartutako adingabeen kopurua, kanpoko familiek hartutakoen kopurua baino, eta alderdi hori bat dator legegileak lehenetsitako bidearekin. Hala eta guztiz ere, joera ez da positiboa, zeren eta datuek erakusten baitute familia arrotzean egindakoen kopurua igo dela (aurreko urtean baino bost gehiago), eta familia zabalean egindakoak, berriz, jaitsi direla (aurreko urtean baino hamar gutxiago). Horrekin berresten da 2011n gertatutakoa, zeren eta orduan familia-harrera batzuen eta besteen bilakaera antzekoa baitzen.

Aurrekoa dela eta, erakunde honek beste behin adierazten du komenigarria dela ahal den guztian indar daitezela, ahal diren guztian, babesa behar duten adingabeen familia-ingurune esku-hartzeak eta jarduketak, harrera beharrezkoa bada, naturala denetik hurbilen dagoen ingurunean gerta dadin. Jarduketa hauek, normalean ingurune hurbil

horretan egiten badira, ahalbidetu dezakete, halaber, adingabeak beren gurasoekin gehiagotan itzuli ahal izatea eta haurren bereizketa-egoera horiek laburragoak izatea.

g) Nazioko eta nazioarteko adopzioak eta egokitasun-deklarazioak.

2011n, 4 adopzio nazional gertatu ziren (2011n baino bi gutxiago eta 2010eko kopuru bera) eta nazioarteko 44 adopzio (2011n baino hogeitun gutxiago eta 2010ean baino hamar gutxiago). Halaber, egokitasuneko 30 ziurtagiri eman ziren (93 2011n eta 137 2010ean).

Ikusten da, oro har, adopzioek behera egin dutela. Hori, besteak beste, krisialdi ekonomikoari eta familietan izaten ari den eraginari egotzi ahal zaie.

h) Gatazka egoeran dauden adingabeak.

Puntu honetan babes sisteman egon eta ez-egokitzapen larriko egoeran daudelako beren buruei edo besteei kalte egiteko arriskuan izan daitezkeen adingabeak aipatzen ditugu. 2012an, 223 adingabe zeuden egoera horretan. 111 izan ziren talde hori osatzera sartu zirenak. Kopuruak 2011koak baino askoz txikiagoak dira (371 adingabe gatazka sozialeko egoeran, eta horietatik 198 kasu berriei zegozkien), eta hurbilago daude 2010eko kopuruetatik (236 adingabe egoera horretan eta 42 kasu berri).

Guztiarekin ere, datuak oraindik ere agerian jartzen du arazo honi aurre egiteko ahaleginak egiten jarraitu beharra dagoela, prebentzioko neurriak, hezkuntza-neurriak, neurri kulturalak eta gizarteratze-neurriak aplikatuz. Halaber, beharrezkoa da gatazka egoera honetan dauden adingabeekiko familiei laguntza berezia ematea, egoera horrek eragindako arazo larriak izaten baitituzte sarritan.

i) Autonomia pertsonaleko programa.

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutakoak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

Gizarte Politiketako Departamentuak emandako datuen arabera, 2012an 18 izan ziren autonomia eta instituzionalizazio prozesuetarako eman ziren laguntzak. Kopuru hori 2011koa (14 laguntza) baino handiagoa da.

Iradokitzen dugu arlo honetako jarduerak indartzen jarraitzea, eta horretarako laguntza ekonomiko zein teknikoak ematea. Erakunde honek jada nabarmendua du komenigarria dela emantzipaziorako edo helduen bizitzara iragateko programak indartzea.

E) Erreforma sistemako jarduerak.

Erreforma-sistemari dagokionez, 288 adingabe egon dira horren barruan 2012an, neurri judizialak bai ingurune irekian bai barnetegi-araubidean betetzen.

Kopurua 2011koa (262 adingabe) eta 2010ekoa (217 adingabe) baino handiagoa denez, beste behin esan beharra dago ahaleginak biderkatu behar direla gatazka eta zehatzeko moduko jokabideak ekar ditzaketen egoerei aurrea hartzeko eginkizunetan eta hautemate-eginkizunetan, eta inplikaturako instantzien artean (familiaren arloa, arlo soziala eta hezkuntzaren arloa, batez ere) jarduerak koordinatu behar direla.

Halaber, gora egiten du, aurreko urtearekin alderatuta, barneratze araubideko "alten" kopuruak (37 izan ziren 2012an eta 14 2011n), nahiz eta araubide hori izan murriztapen handiena dakarrena eta larritasun handieneko jokabideei dagokiena. Halere 2010ekoak (45) baino gutxiago dira.

3.3.2. Azken bost urteotako bilakaeraren laburpen-taula

	2008	2009	2010	2011	2012
Arrisku-egoerak	144	386*	353	391	416
Babesgabetasun deklarazioak	20	29	44	33	32
Laguntza jaso zuten familiak	1847	1908	1952	1062	1708
Zaintza egoeran dauden adingabeak	442	452	458	492	537
Tutoretzapeko adingabeak	207	220	202	214	202
Harreran dauden adingabeak	464	452	463	492	537
- Formalizatutako harrerak	24	155	118	128	104
- Familia harrerak	267	242	247	250	245
- Egoitza-harrerak	197	210	216	242	292
- Familia zabaleko harrerak	183	164	169	162	152
- Familia arrotzeko harrerak	84	78	78	88	93
Nazioko adopzioak	4	9	4	6	4
Nazioarteko adopzioak	74	65	54	64	44
Egokitasun ziurtagiriak	130	128	137	93	50
Gatazka sozialen bat duten adingabeak	217	328	236	371	223
Autonomia pertsonaleko laguntzak	62	59	22	5	18
Erreforma egoeran dauden adingabeak	335	313	217	262	288
Barnetegi-araubideko alten kopurua	13	23	45	14	37

(*) Urte horretatik aitzina, Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Ekipoen bidez eginiko esku-hartzeak ere jasotzen dira.

Islaturako datuen bilakaera konparatiboak honakoak iradokitzen ditu, alderdi garrantzitsuenen modura:

- Oro har, gora egiten dute adingabeak babestek sistemak esku-hartzeko beharrak. Ondorio hori ateratzen da arrisku egoeran dauden adingabeekiko jarduketek gora izatetik eta zaintza- eta harrera-egoeran dauden adingabeen kopuruek gora egin izatetik.
- Elementu positiboena da, berriz, ikusten dela geriza-gabetasuneko eta tutoretzapeko adingabeen deklarazio-datuak oinarri hartuta, arrisku egoeran dauden adingabeei dagokienez, gora egiten duela fase goiztiarretan esku hartzeari lehentasun efektiboa emateko joerak.

- Elementu kezkarriena da, berriz, zailtasunak daudela lehenetasunak efektibo egiteko harreraren esparruan (familia-harrerak eta, horien barruan, familia zabalean harrera egiteko kasuak: gora egiten du harrera instituzionalen garrantzi erlatiboak eta, familia-harreraren barruan, kanpoko familietan eginiko harreraren kopuruak). Arrazoiak, funtsean, krisialdi ekonomikoari eta horrek familiengan dituen eraginei egotzi behar zaizkie, orokorrean.

3.3.3. Iradokizunak

Aurreko guztia laburbilduz, eta txosten honetan adierazitako kezka eta hobekuntza-alderdiak azpimarratzeko aukera ezertan kendu, erakunde honen ustez, oso positiboa da adingabeen benetako babesari eta laguntzari dagokionez Nafarroan egiten den lana, bai gizarte-politikaren arloko eskumena duen Departamentuak egiten duena, bai laguntza erabakigarria ematen duten gizarte-erakundeek egiten dutena.

Halere, neska-mutikoen eta nerabeen eskubideen babesari hobetzeko eta zerbitzu publikoak hobetzeko eginkizuna duen aldetik, ondoko iradokizunak egin nahi dizkio Gizarte Politiketako Departamentuari:

- 1) Haurtzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenaosatzea, eta horri dagokionez, ahal den bezain laster adopzioari arloko kasuko erregelamendua onets dadila bideratzea.
- 2) Adingabeei babesari ematearen arloan diharduten agenteei (Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua, oinarrizko gizarte zerbitzuak, laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko entitateak eta abar) behar dituzten baliabideak ematea edo baliabide horien dotazioa bideratzea (giza-baliabideak, baliabide materialak edo baliabide teknikoak), esleituta dauzkaten eginkizunei behar den bezala ekin ahal izateko.

Horri dagokionez, aurre egin behar dioten jardueraren mailari erreparatuta, eta kontuan izanda jarduera horretan izan den gorakada, iradokitzen da ezen, gutxienez ere, euts dakiela egungo dotazioei eta, ahal baldin bada, haiek areago daitezten. Halaber, gomendatzen da dotazio horiek babes sistemako esku-hartzeen eskariaren bilakaeraren arabera egokitzea.
- 3) Jarduketa ildo zehatzak ezartzen jarraitzea izaera orokorreko plangintza-tresna estrategikoen esparruan, jarraipenerako edo berrikuspenerako adierazleak ezarri, eta urtero edo maizago eginez berrikusketak edo gaurkotzeak, egoeraren bilakaerari nahiz unean-unean detektatzen ahal diren beharriari edo defizitei erreparatuta.
- 4) Adingabeen eskubide eta betebeharren zabalkunde-lana areagotzea, bai esparru sozialean, orokorrean, bai adingabeen beraien esparruan. Azken horri dagokionez, ekintzak egin edo sustatzea, zuzenean eta berariaz zuzenduak

adingabe horiek, adingabeen babesaren arloko organo eskudunen eta hezkuntza administrazioaren arteko ekintza koordinatuen bitartez.

- 5) Jarraitu koordinazio neurriak ezartzen organo administratiboen eta adingabeei arreta egiten diharduten gizarte ekimeneko entitateen artean, zertarako eta, funtsean prebentzio-neurriak indartzeko eta arrisku-elementuen atzemate goiztiarra bideratzeko.

Bereziki, arreta berezia eskaintzea gizarte zerbitzuen sistemaz besteko instantziekiko koordinazioari, eta, zehazki, hezkuntza- eta osasun-esparruekiko koordinazioari.

- 6) Prebentzioaren arloan, halaber, prebentzio-programak edo -ekintzak garatzea, honako arloetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisia eta animazioa, eta prestakuntza eta enplegua.

- 7) Jarraitzea arrisku-egoeretan esku-hartze goiztiarrari lehentasuna emanez, eta, horri dagokionez, egoera horiek antzemateko dauden tresna eta gailuak indartzea, zertarako eta, ahal den neurrian, saiheste aldera inguruabarrek determina dezatela adingabeen geriza-gabetasuna deklaratu behar izatea. Bereziki, tarteko lantaldeak Nafarroako lurralde osoan ezar daitezela bideratzea (Haurrei eta Nerabeei Arreta egiteko Lantaldeak edo antzekoak).

- 8) Esku-hartzea areagotzea adingabeak geriza-gabetasuneko egoeran deklaratu diren familietan eta adingabeak familia gunetik bereizi diren kasuetan, eta ahal dela, ahaleginak egitea itzulketa bideragarria izan dadin behar diren baldintzak sortzeko. Hori, halere, ez da eragozpenik izanen nolnahi ere adingabearen interes gorenari lehentasuna emateko.

- 9) Familia-harrera sustatzeko neurriak hartzea, egoitzetako harrerak ahal den guztian gutxituz, eta, bereziki, ahaleginak egitea azken harrera mota hori deuseztatzeko sei urtetik beherako haurren kasuan.

Horri dagokionez, proposatzen da harrerako familientzako laguntza areagotzea, arlo teknikitik zein arlo ekonomikitik.

Zehatz esanda, hau da proposatzen da:

- a) Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa alda dadila sustatzea, familia-harrerara bideratutako laguntzak areagotzeko.
- b) Nafarroako Zerga Ogasunarekin batera, harrerako familientzako zerga-onuren aldeko lege-aldaketa bat aztertu eta bultzatzea, funtsean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez.
- 10) Familia-harreraren kasuan, ahaleginak egitea familia zabaleko harrerak areagotzeko, familia-esparru horretan laguntzako esku-hartze eta jarduketan

bitartez, hain zuzen ere haurrak beren jatorritik hurbilen dagoen ingurunean egon daitezten.

- 11) Adopzio prozedurak eta egokitasun deklarazioak malgutzeko eta bizkortzeko neurriak hartu beharra azpimarratzea.
- 12) Jarraitzea eta, ahal den guztian, areagotzea gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako programak, prebentzio-neurriekin, hezkuntza-neurriekin, kultura-neurriekin eta gizarteratze-neurriekin, bai eta, kasua bada lan-neurriekin ere, arreta-programa horiek eta egoera horretan dauden adingabeak dauzkaten familientzako laguntza bereziak integratuz.
- 13) Autonomia pertsonaleko programak indartzea, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta, neurri judizial edo administratiboren bat jaso duten nerabeek helduarorako iraganbide egokia eduki ahal izan dezaten.
- 14) Erreforma sistemaren esku-hartzea ahal den guztian gutxitzeko betebeharrari dagokionez, ahaleginak berrindartu behar dira, gatazka eta zehatzeko moduko jokabideak ekar ditzaketen egoerei aurrea hartzeko eginkizunetan eta hautemate-eginkizunetan, eta inplikaturako instantzien artean jarduerak koordinatu behar dira: familiaren arloa, arlo soziala eta hezkuntzaren arloa, nagusiki.

4 KAPITULUA

HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO EGINIKO PROPOSAMENAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



4

HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO EGINIKO PROPOSAMENAK

4.1. DATU OROKORRAK

2008. urteaz geroztik, erakundeak herritarrek zerbitzu publikoen hobekuntzan duten partaidetza sustatzen du, eta, horren harira, zerbitzuok hobetzeko proposamenak aurkeztera animatzen ditu. Proposamen horiek, kasu batzuetan, araudia aldatzeko proposamen ere bihurtzen dira.

Horrela, 2008tik herritarrek 234 hobekuntza proposamen aurkeztu dituzte; horietatik 46 proposamen 2012. urteari dagozkio.

Aurkeztutako proposamenak administrazio publiko eskudunari igortzen dizkio erakundeak, eta ahal den neurrian, haren aurrean defendatzen ditu; bestalde, Estatuaren eskumenekoak badira, Espainiako Arartekoari igortzen dizkio.

2012ko proposamenak honako gaietara buruzkoak izan dira, kopuruaren arabera handitik txikira ordenatuta:

Gaiak Proposamen kopurua

ZAINTZA PARTEKATUA 15

FUNTZIO PUBLIKOA 7

OGASUNA 6

OSASUNA 5

HEZKUNTZA 5

TOKI ERAKUNDEEN FUNTZIONAMENDUA 1

HERRITARREN ESKUBIDEEN BERMEA 1

LANA 1

GIZARTE GAIK 1

ESPETXEETAKO ADMINISTRAZIOA 1

ETXEBIZITZA 1

TRAFIKOA 1

ERRENTAMENDUAK 1

GUZTIRA 46

- A) Azaldutako datuetatik ondorioztatzen denez, **zaintza partekatuaren** arlokoak izan dira ugarietak.

Zehazki, toki erakundeek eta elkarteek 15 proposamen planteatu zituzten eta Nafarroako Arartekoari “zaintza partekatua” deiturikoa babesteko eskatu zioten, ezkontideak bereizi edo dibortziatzen direnerako edo gurasoen bizikidetzatza eteten denerako. Halaber, Kode Zibilean edo, hala badagokio, foru araudi aplikagarrian figura hori arautzeko eskatu zuten.

- B) **Funtzio publikoaren** alorrean, herritarrek honakoa planteatu zuten:

- Hainbat neurri aldatzea, Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoak merezimenduen lehiaketa bidez hornitzeko prozesuekin lotuta.
- Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren, eta, zehazki, Guardia Zibileko Kideen baja medikoak kontrolatzeko neurriak ezartzea.
- Enplegu eskaintzan behin betiko onartutako pertsonen zerrenda erabiltzea Nafarroako Tokiko Administrazioan foru gaikuntza eskatzen duten lanpostuak behin-behinean hornitzeko bitarteko lanetarako (idazkariak edo kontu-hartzaileak), lanpostu horiek foru funtzionario gaidunek estali arte.
- Egungo Foru Komunitateko Administrazioari kontratazio zerrendetan lehentasuna ematea adinaren (55 urte) eta Administrazioan emandako zerbitzuen (15 urte) gutxienerako baldintzak betetzen dituzten hautagaiei.
- Irakaskuntzako funtzionarioen ordainsariei eta lanaldiei buruzko neurriak aldatzea, bestelako neurriak hartzeko eskatuz, irakaskuntzako sektore pribatuarekin alderatuta.
- Oposizioetara duten eskubidea bermatzea beren azterketak era arrazoituari berrikusi eta zuzen daitezkeen, ez baitaude bat ere ados Espainia osoko oposizioetan dagoen “kasuan kasuko baldintzen arabera jokamolde teknikoaren” irizpidearekin.
- Nafarroako Foru Komunitateko Tokiko Administrazioa berrantolatzea Foru Legeko proiektuko bigarren xedapen gehigarria aldatzea, idazkari eta bitartekoak hornitzeari buruzkoa, hautaketa probak nahitaez egin daitezkeen oposizio bidez eta plaza horiek estaltzeko enplegu publikoaren eskaintzetan aldi zehatz bat ezar dadin.

- C) **Ogasunaren** alorrean, herritarrek honako eskaerak egin zituzten.

- Ezgaitasunen bat duten pertsonen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zergapetze nafarra hobetzeko araudi aldaketak ezartzea.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia aldatzea, unibertsiitate ikasketak egiten dituzten eta bekarik jasotzen ez duten seme-alabengatikoa kenkariak aurreikusteko.

- Konpentsazio pentsioa jasotzen duten pertsoneri zerga tratamendu hobe ematea.
- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa murriztua aplikatzea babes ofizialeko etxebizitzetara.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zerga onura bat sartzea, beren neba-arrebekin bizi diren eta horien kargu egiten diren pertsoneri zuzenduta, aurreko eta ondorengo belaunaldietarako ezarritakoaren antzera.
- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren (gainbalioen zerga) araudia aldatzea hainbat alderditan, besteak beste, dauden tarifen murrizketan, zerga horri buruzko artikuluen indargabetzean, edo tarifen aldaketan, biztanle gutxiagoko erakundeei beharpen bat ezarrita, udalerrri horietan higiezin jabetzen eskualdaketez ez dietelako gainbaliorik eragiten ondasunen eskualdatzaileei.

D) Osasunaren arloan, herritarrek honako proposamenak planteatu zituzten:

- Neurri desberdinak hartzea aireztapen mekanikoa behar duten pertsonen dituzten zailtasunei dagokienez.
- Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak egindako ekarpenak kontuan hartzea Arartekoen Koordinaziorako XXVI. Jardunaldietako lantegietan, buru osasunari buruzko gaietara dagokienez.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixoei tratu hobe ematen diela bermatzea.
- Etxean egiten diren erditzeetan osasun estaldura bermatzea.
- Osasun Departamentuak ez eskatzea Iruñean erroldatuta egoteko baldintza lan arrazoien ondorioz hiri horretan bizi direnek osasun arreta eskura dezaten, bertan erroldatuta egon ez arren.

E) Hezkuntza arloan, herritarrek honakoak proposatu zituzten:

- Eskolaratzeari buruzko araudian sartzea ikastetxeek neba-arreba bikiak gela berdinean edo desberdinen eskolaratzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan jarraitu beharreko irizpide eta prozedurak.
- Uharteko ikastetxean eredu eleaniztasuna eratzea.
- Testu liburuak hurrengo ikasturteetarako aprobetxatzea.
- Ikastetxeetan gizarte langilearen figura sartzea.
- Legedia aldatzea, batxilergo eta lanbide heziketaren curriculumean zerga sistemari buruzko ezagutzak sartzeko.

- F) **Toki erakundeen funtzionamenduari** dagokionez, herritarrek Tokiko Administra-
zioko Foru Legea aldatzeko proposatu zuten, udalbatza irekiko araubidean udalen
funtzionamenduari buruzko alderdi bati lotuta.
- G) **Herritarren eskubideen bermeei** dagokienez, proposamen bat aurkeztu zen 10.000
biztanletik gorako Nafarroako udalerrri eta mankomunitateekin edo Eskualdeko toki
nagusiekin hitzarmenak sinatzeko aukera baloratzeko, herritarrek Nafarroako
Gobernuari zuzendutako idazkiak aurkez ditzaten, behar bezala, toki erakunde
horietako erregistroetan.
- H) **Lanaren** esparruan, interes orokorra edo soziala duten obra eta zerbitzuen
kontratazioan langabetuei lehentasuna emateko proposatu zen, beren laneratzea
errazte aldera.
- I) **Gizarte gaietan** Nafarroan topagune familiarren araudia aldatzeko beharrezana
planteatu zen.
- J) **Espetxeetako administrazioari** dagokionez, ezgaitasunak edo buruko gaitzak
dituzten eta espetxeetan zigortuta dauden pertsonen kopurua murrizteko neurriak
ezartzeko eskatu zen.
- K) **Etxebizitzaren** alorrean etxebizitza babestuen eskaeretan gaitasun ekonomikoa
baloratzeko baldintzak aldatzeko proposatu zen.
- L) **Trafikoaren** arloan, aparkaleku mugatuko guneeetan ibilgailua aparkatuta izandako
denbora zehatzaren arabera kobratzen duen sistema ezartzeko eskatu zen.
- M) Azkenik, **hiri errentamenduei** dagokienez, proposamen batek indarreko Hiri
Errentamenduei buruzko arazoaren 24ko 29/1994 Legea berrikusteko eskatu zuen,
alderdietakoren batek arau hausteren bat egitearen ondorioz kontratuak iraungitzeko
epeak aldatze aldera.

4.2. HERRITARREN PROPOSAMENEN HARTZAILE IZAN DIREN ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK

Nafarroako administrazio eta erakunde publiko hauek jaso zituzten Nafarroako Arartekoak
helarazi zizkien proposamenak, herritarrek aurkeztu ondoren:

I. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa: 18 proposamen jaso dituzte.

Osasun Departamentua:	4
Hezkuntza Departamentua:	4
Ekonomia eta Ogasun Departamentua:	3
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua:	2
Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua:	2

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua:	1
Sustapen eta Etxebizitza Departamentua:	1
Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua:	1
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazio Departamentua:	4
Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua:	1

II. Toki erakundeak: Proposamen bat jaso dituzte.

Iruñeko Udala:	1
----------------	---

III. Nafarroako Parlamentua eta Arartekoa

Halaber, Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioei eta atxiki gabeko foru parlamentarioei proposamen bat igorri zitzaien eta Gorte Nagusietako Arartekoari beste bat.

4.3. PROPOSAMENEN EDUKIA.

Jarraian, herritarrek aurkeztutako proposamenen edukia azaldu da:

4.3.1. Ezgaitasunen bat duten pertsonen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan Nafarroako zergapetzea hobetzeko araudi aldaketak ezartzeko proposamena.

Gaia: Ogasuna. Zergak. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Administrazio hartzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Tributu Ogasuna).

Laburpena: Ezgaitasuna duen pertsona batek planteatu zuenez, estatu mailan hainbat onura daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan, baldin eta dohaintzen onuradunak ezgaitasunen bat duten pertsonak badira (ezgaitasun maila % 33koa edo altuagoa bada).

Onura horiek 47.858,49 eurotik 150.253,03 eurora bitarteko murrizketak dira, mortis causa eskuraketetako minusbaliotasun mailaren arabera, eta zerga oinarrian inter vivos eskualdaketetarako eskuraketa balioaren % 95eko murrizketa aplikatu daiteke, beste onura batzuen artean, pentsio planen ekarpenetarako, gizarte aurreikuspenen mutualitateetarako eta abar.

Azaldutakoaren arabera, gainera, autonomia erkidego batzuek kenkariak aurreikusi dituzte ezgaitasunen bat duten onuradunen kasuan, besteak beste, zerga oinarriko murrizketak (Euskal Autonomia Erkidegoa, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Aragoi, Balear Uharteak, Kanariak, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Extremadura, Murtzia eta Errioxako kasuak aipatzen ziren).

Planteatutakoaren arabera, Nafarroan, legediak ez dituen onura horiek aurreikusten, ez dago parekidetasunik ezgaitasunik dituzten pertsonen artean oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren ordainketan, gainerako estatuan egoera berdinean dauden pertsonekin alderatuta.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorri zion gai hau.

Departamentuak jakinarazi duenez, Nafarroako Foru Komunitateko zerga gaitasunean oinarrituta, eta ezgaitasunen bat duten pertsonak dauzkaten zerga onuren aukera sorta zabaltzeko asmoz, legedi aldaketaren bat proposatzeko aukera aztertzen ari ziren, pertsona horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan zuten zergapetzea hobetze aldera.

Ondoren, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak jakinarazi zuen zuzenketa bat aurkeztu zela 2012ko zenbait zerga aldatu eta tributu neurriak hartzeari buruzko Foru Dekretu proiektura. Bertan, "mortis causa" eskuraketetan 60.000 euroko murrizketa sartzeko proposatu zen, 100eko 33ko edo goragoko edo % 65etik beheragoko ezgaitasuna egiaztatzen duten subjektu pasiboentzat. Kopuru hori 180.000 eurokoa litzateke ezgaitasuna % 65ekoa edo altuagoa denean.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak neurri hori onartu zuen. Zenbait zerga aldatu eta tributu neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legeko 8. artikulua (2012ko abenduaren 31ko NAO) honakoa xedatzen du:

“8. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Artikulu bat gehitzen zaio, 32. bis, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginari, zeina abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Artikulu horrek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zergapeko egitateetan izanen du eragina.

“32. bis artikulua. Subjektu pasibo ezgaituen “mortis causa” eskuratzek.

Subjektu pasibo ezgaituek gauzatzen dituzten mortis causa eskuratzek 60.000 euroko murrizketa izanen dute; horretarako, % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasun-gradua egiaztatu beharko dute. Zenbateko hori 180.000 eurokoa izanen da subjektu pasiboak egiaztatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela.

Murrizketa hori aplikatu aurretik, eta kasua bada, kapitulu honetan aurreikusitako murrizketak egin beharko dira.

Minusbaliotasunaren egiaztapena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da; erregelamendu hori maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.”

4.3.2. Foru Komunitateko Administrazioko burutzak merezimenduen lehiaketa bidez hornitzeko prozesuei buruzko hainbat neurri aldatzeko proposamena.

Gaia: Funtzio publikoa. Foru Komunitateko Administrazioko burutzak. Merezimenduen lehiaketa bidezko hornidura.

Ukitutako administrazioa: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Laburpena: Herritar baten proposamenari jarraiki, merezimenduen lehiaketa bidez Foru Komunitateko Administrazioko burutzak hornitzeko onartutako deialdietan argi eta garbi zehaztuta egon beharko lirateke unitate organiko baten ezabapenari buruzko irizpideak, lehiaketaren tramitazioan zehar egitura organikoaren aldaketaren ondorioz deitutako unitate organikoren bat ezabatzen bada. Izan ere, deitutako unitate organikoen izenaren aldaketa horien ezabapentzat jo izan da. Halaber, proposatutakoaren arabera, unitate organikoa deitu den eta bertan aldaketak dauden kasuetan, deitutako prozedura ez litzateke ondorerik gabe geratu beharko, eta, horretarako, kasu horietan unitateen funtzioak berrezarri beharko lirateke eta hornidurarekin jarraitu, unitateko merezimenduen lehiaketaren bidez, eskaerak aurkezteko epe berria ireki behar denean ere. Era berean, deialdi hauek ebazteko gehieneko epea ezarri beharko litzateke, burutzetara sartzeko hornidura prozedura hauetan parte hartzen duten pertsonak ez ditzaten prozedurok etenda ikusi. Azkenik, deialdien ebazpenean urteetako atzerapena egoteak egituraren aldaketak eragiten ditu, baita hautagaien egoera profesional eta pertsonalean ere, eta, ondorioz, une jakin batean burutza bat behar bezala bete duten pertsonak hiru, lau edo hainbat urteetara beharbada ezingo dute kargu horretan jarraitu.

Emaitza: Erakunde honek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren txostena eskatu zuen. Departamentuak jakinarazi zuenez, prozesuok arrazoizko epean ebazten direla ziurtatzeko neurriak hartuko zituen eta, neurri hori nahikoa ez zela egiaztatuz gero, prozedura horiek ebazteko epea ezartzeko aukera aztertuko luke.

Hala ere, eta horrelako neurriak egitea oso positiboa den arren, erakunde honek honako iradokizuna egin zuen:

“Lehendakaritza Departamentuari iradokitzea merezimenduen lehiaketa bidez burutza bat hornitu ostean Administrazio publikoak, autoantolaketarako ahalmena erabiliz, burutza horretako izenean edo eginkizunetan aldaketak sartzearabakitzen du, aldaketa hori justifikatu egin beharko dela eta kasuz kasuz aztertu beharko dela aurreko unitatearen funtsezko edukiari eragiten dion ala ez, aurreko unitatearen ezabapena edo honen birmoldaketa adoste aldera.”

Departamentuak iradokizun hori onartu zuen.

4.3.3. Aireztapen mekanikoa behar duten pertsonen dituzten zailtasunei buruzko neurri desberdinak hartzeko proposamena.

Gaia: Osasuna. Osasun laguntza

Ukitutako administrazioa: Osasun Departamentua.

Laburpena: Herritar batek hainbat neurri proposatu zituen aireztapen mekanikoa behar duten gaixoei arreta hobea emateko.

Emaitza: Erakunde honek txostena eskatu zion Osasun Departamentuari.

Departamentuak jakinarazi zuenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan bederatzi gaixo daude erregistratuta etxean arnagailua eta jariakinen xurgagailua dutela. Zerbitzu hori etxeko arnasketa terapien espezialista den enpresa batekin hitzartuta dago. Txostenaren esanetan, hori guztia erabiltzeko trebakuntza senide batek jasotzen du ospitalean bertan, gaixoari alta eman baino lehen. Era berean, bere medikuak eta familiako erizainak gaixoa kontrolatuko dute, berari edo bere senideei zor dakizkien zalantza, ardura edo gertaerak argitzeko.

Osasun Departamentuaren esanetan orain arte ez da gertaerarik erregistratu eta ez da erreklamaziorik aurkeztu gai honen inguruan.

Informazioa ekimenaren sustatzaileari bidali ondoren, osasun gaiez gain aireztapenaren menpe dauden pertsonen arreta osoa antolatu behar zela jakinarazi zuen, arreta horren barruan alderdi sozialak lantzeko eta ez osasun arlokoak soilik. Horrenbestez, erakundeak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari bidali zion proposamena eta orain arte ez dugu erantzunik jaso.

4.3.4. 10.000 biztanle baino gehiago dituzten Nafarroako udalerrri eta mankomunitateekin eta eskualdeko toki nagusiekin hitzarmenak sinatzeko aukera baloratzeko proposamena, herritarrek Nafarroako Gobernuari zuzendutako idatziak aurkez ditzaten, behar bezala, toki erakunde horietako erregistroetan.

Gaia: Tokiko Administrazioa. Idazkien aurkezpena. Toki erakundeen eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenak. Administrazio erregistroak.

Administrazio hartzailea: Nafarroako Gobernu.

Nafarroako Arartekoak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari helarazi zion gai hau, hainbat herritarrek azaldu baitzuten beren kexen bidez. Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzendutako idatziak toki erakundeetako erregistroen bidez aurkezteko aukera proposatu da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 30eko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaerak,

idazkiak eta jakinarazpenak edozein administrazio organotako erregistroetan aurkez daitezke, Estatuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoko edozein administrazioaren edo toki erakundea osatzen duten erakundeen barruan, azken kasu horretan bidezko hitzarmena sinatu bada.

Irizpide hori onartuta, 30/1992 Legeko 38.4 artikulua aplikatzen dena, Foru Komunitateko Administrazioari zuzendutako eskaerak toki erakunde bateko erregistroan aurkez litezke eta eskaera horiek baliozkotasun eta eraginkortasuna izango lukete toki erakundearen eta Nafarroako Gobernuaren artean aurretik sinatutako hitzarmen bat badago.

Nafarroako Arartekoak egiaztatu ahal izan duenez, kasu askotan (batez ere gizarte laguntzaren eremuan) herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzendutako idazkiak aurkeztu dituzte oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez.

Horren harira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 38. artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiko 151. artikuluan aurreikusitako esparruan, oinarrizko gizarte zerbitzuak (nola udaletan integratutako organoak, hala mankomunitateak) agiriaren erregistro egokiak eduki beharko lituzkete, eta halaxe adierazi zaio Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari, herritarrek aurkeztutako eskaerak jasota geratzen direla bermatzeko; halaber, gizarte zerbitzuen sistemara sartzeko atea direnez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki erakunde titularren (udalak edo mankomunitateak) arteko lankidetzaren antolatu beharko litzateke, herritarrek sistema horretarako sarbide errazagoa eta bere asmoen bideraketa hobe izan dezaten.

Aipatutako ebazpenean, Nafarroako Arartekoak honakoa iradokitzen zion Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuari:

1. Aztertzea, sakontasunez, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eskabide eta agiriaren erregistroari ez izateak ekar ditzakeen arazoak, eta neurri batzuk bultzatzea, zerbitzu horien titularrak diren toki erakundeekin batera lan eginez, arazo horri konponbidea emateko eta bermatzeko eskabideak eta agiriak aurkeztu direla jasota gera dadin, agiri bakoitzari dagozkion aurkezpen datarekin eta orduarekin, herritar guztiek daukaten eskubidea da eta.
2. Behin huts horri konponbidea emanda, behar den lankidetzaren artikulatzea Foru Komunitateko Administrazioaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki erakundearen artean, herritarrek zerbitzu horietan aurkeztutako eskabideak eta agiriak erabateko eraginkortasuna izan dezaten.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria sailburuak iradokizunak onartzen zituela jakinarazi zuen.

Hori guztia kausa, eta jarduera honi izaera orokorragoa emate aldera eta ez soilik oinarrizko gizarte zerbitzuetan jasotako agirietan oinarritutakoa, Lehendakaritzako,

Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuari iradoki zaio behar bezala balora dezala Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki erakunderik handien (esaterako, hamar mila biztanletik gorako udalerriak eta mankomunitateak edo eskualdeko toki nagusiak diren udalerriak) artean hitzarmenak sinatzeko aukeraren sustapena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, herritarrek Nafarroako Gobernuari zuzendutako idazkiak aurkez ditzaten, behar bezala, toki erakunde horietako erregistroetan.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne sailburuak iradokizuna onartzen zutela eta iradokitako jarduketak hasiko zituztela jakinarazi zuen.

4.3.5. Ikastetxeek neba-arreba bikiak gela berdinean edo desberdinean eskolaratzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan jarraitu beharreko irizpide eta prozedurak eskolaratzeari buruzko araudian sartzeko aukera baloratzeko proposamena.

Gaia: Hezkuntza. Hezkuntza arloko plangintza. Neba-arreba bikien eskolaratzea. Irizpideak.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamentua.

Laburpena: Herritar batek, alaba bikien ama denak, Nafarroako Arartekoari jakinarazi zion ez zegoela ados ikastetxeek bikien eskolaratzean jarraitzen duten irizpidearekin.

Herritarraren arabera, hainbat ikastetxeetako arduradunek azaldu zioten bikiak eskolatzen direnean gela desberdinetan sartzearen alde egiten dela.

Kasu horietan hartzen den erabakia irmoa eta orokorra izan beharrean kasu bakoitza baloratu behar dela eta ikasleei ondoen egokitzen zaien irtenbidea hartu behar dela proposatu zuen herritarrak.

Emaitza: Nafarroako Arartekoak informazioa eskatu zion Hezkuntza Departamentuari. Departamentuaren esanetan, neba-arreba bikiak gela berdinean edo desberdinean eskolaratzeari buruzko erabakia ikastetxeak berak hartzen du, bere kabuz, eta ikasleen gurasoek gaiari buruzko ikuspuntua adieraz dezakete, kasuan kasu aukera bat edo bestea gomendatzen duten egoerak aztertu ahal izateko.

Erakunde honen iritziz, irtenbide hau oso egokia da. Hala ere, egoera honetan edo antzeko egoeran dauden guraso guztiek aurretiaz eta oro har ezagut dezaten jardunbide on hau, Nafarroako Arartekoak Hezkuntza Departamentuari iradoki dio neba-arreba bikiak gela berdinean edo desberdinetan eskolaratzeari buruzko erabakia hartzean ikastetxeek jarraitu beharreko irizpide eta prozedura hauek eskolaratzeari buruzko araudian islatzeko aukera balora dezala. Gainera, gurasoek beren ikuspegia azalduz ikastetxeen erabakian parte hartzeko aukera dutela jakinarazi beharko litzateke.

Hezkuntza Departamentuak iradokizun hori onartzen zuela jakinarazi zuen. Hala, eskolarzeari buruzko araudia aldatzean kontuan hartuko zela adierazi zuen, ikasturte horretakoa dagoeneko aplikatuta zegoelako.

4.3.6. Uharteko Ikastetxe Publikoan hezkuntza eredu eleaniztuna eratzeke proposamena.

Gaia: Hezkuntza. Hezkuntza arloko plangintza. Hezkuntz ereduak.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamentua.

Laburpena: Uharteko Andra Mari Zuria ikastetxe publikoan ingeleseko irakaskuntza programa bat ezartzeko eskatu zuten eskolarzeari dauden haur batzuen gurasoek.

Emaitza: Erakundeak txostena eskatu zion Hezkuntza Departamentuari eta hark honakoa jakinarazi zuen:

- a) Ingeleseko irakaskuntza programak apurka-apurka ezarri behar dira, ingelesa irakasten duten irakasleen gaikuntza beharrezkoa baita.
- b) Horretarako, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxeen egoerari eta planteamenduari buruzko azterlan bat gauzatu behar du.
- c) 2012-2013 ikasturterako ez da aurreikusi proposamen hori ezarriko denik, baina, hala ere, datozen ikasturteetan ezar daitekeela kontuan hartuta, 2013-2014 ikasturtean Uharteko Andra Mari Zuria ikastetxe publikoan programa hau ezartzeko aukera baloratuko da.

Informazio horretatik ondorioztatu ahal izan denez, hezkuntza arloko administrazioak Uharteko Andra Mari Zuria ikastetxe publikoan 2013-2014 ikasturterako ingeleseko irakaskuntza programa ezartzeko aukera baloratzeko asmoa dauka.

4.3.7. Testu liburuak hurrengo ikasturteetarako aprobetxatu ahal izateke proposamena.

Gaia: Hezkuntza. Ikasturtea. Testu liburuak.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamentua.

Laburpena: Eskola adina daukaten hiru umeen ama kexatu egin zen urtero testu liburuak aldatzen direla eta. Izan ere, familiak askok ezin dituzte seme-alaba nagusientzako erositako testu liburuak aprobetxatu, beren seme-alabak ikasturtez pasatzen direnean.

Emaitza: Hezkuntza Departamentuari txostena eskatu zion erakunde honek eta hark jakinarazi zuenez, bai oinarrizko hezkuntzan (lehen hezkuntza edo derrigorrezko bigarren hezkuntza), bai derrigorrezkoaren ondorengoan, hartutako argitalpenak lau ikasturtez

mantendu behar dira, indarreko araudiaren arabera. Ondorioz, herritarraren proposamenarekin bat datorren aurrezteko irizpidea betetzen da.

Departamentuaren esanetan, hala ere, ikastetxeetan liburuei eta eskola materialari (koadernotxoak, fitzak eta abar) ematen zaien erabilera pedagogikoaren ondorioz batzuetan material hori ezin da berriz erabili.

Ikastetxeak eta, zehazki, irakasgaia ematen duen irakasleak jarraitzen duen irizpidearen araberakoa da hori, neurri handi batean. Horren harira, erakundeak gaia bere ikastetxeari planteatzeko aholkatu zion, bere proposamena behar bezala azter eta balora zedin.

4.3.8. Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea (indarrean dagoena) berrikusteko proposamena, alderdietako batek arau hausteren bat egitean kontratua iraungitzeko epeak aldatze aldera.

Gaia: Zuzenbide zibila. Hiri errentamenduak. Kontratuaren iraungipena.

Ukitutako administrazioa: Legea egiteko proposamena.

Laburpena: Hiri Errentamenduei buruzko 29/1994 Legea (indarrean dagoena) berrikusteko proposatu du herritar batek, alderdietakoren batek arau hausteren bat egitean kontratua iraungitzeko epeak aldatze aldera. Izan ere, ez zaio bidezkoa iruditzen urtea amaitu baino lehen errentamendu kontratua ezin iraungi izatea, alderdietako batek arau hauste bat egin duelako (errenta ez ordaintzea). Bere ustez, Legeak gehiago babesten du maizterra alokatzailea baino.

Emaitza: Erakunde honek herritarrari jakinarazi zionez, Hiri Errentamenduei buruzko Legeko 27. artikulua eta Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 22.4 artikulua arabera, maizterrek ez badute betetzen hilero alokairu kuota ordaintzeko betebeharra, alokatzaileak kontratua desegin dezake eta maizterra etxebizitzatik kaleratu, errentak ordaindu ez dituelako. Hala ere, maizterra ezingo da kaleratu baldin eta, epaiketa baino lehen, erreklamaturako kopuruak eta bestelako zorrak ordaintzen badizkio alokatzaileari.

Hau da, proposamenean xedatutakoaren kontra, ez da beharrezkoa urtebeteko epea betetzea errentamendu kontratua iraungi ahal izateko.

Legearen interpretazio hori argituta, amaiera eman zitzaion espedienteari.

4.3.9. Ezkontideak bereizi edo dibortziaztean edo gurasoen bizikidetzaren etetean seme-alaben zaintza partekatua arautzeko proposamena.

Gaia: Zuzenbide zibila. Gurasoen arteko bizikidetzaren etendura. Seme-alaben zaintza partekatua.

Hartzaileak: Legea egiteko proposamena.

Laburpena: Toki erakundeek eta elkarreek Nafarroako Arartekoari seme-alaben “zaintza partekatua” deiturikoa babesteko proposatu zioten, ezkontideak bereizi edo dibortziatzen direnerako edo gurasoen bizikidetzat eteten denerako. Halaber, Kode Zibilean edo, hala badagokio, foru araudi aplikagarrian figura hori arautzeko eskatu zuten.

Nafarroako Parlamentuak dagoeneko eztabaidatu eta arautu du zaintza partekatua gaia, gurasoen bizikidetzat eteten den kasuetan seme-alabak zaintzeari buruzko martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legearen bidez. Foru Lege horrek, Nafarroak ezarri duena Foru Zuzenbide Zibilaren alorrean dagozkion eskumen eskusiboak betetz, gurasoei baimena ematen die beren seme-alaben gaineko zaintza partekatua adosteko, biak ados badaude, eta, ados egon ezean, epaileari ematen dio baimena zaintza modu hori ezartzeko, edo, bestela, gurasoetako baten aldeko zaintza indibiduala ezartzeko, adingabeak diren edo ezintasunen bat duten seme-alaben intereserako, familiaren egoera eta bestelako ezaugarriak kontuan hartuta.

Ondorioz, Nafarroan guraso bakarraren zaintzak ez dauka Kode Zibilak ematen dion lehentasuna (gurasoen adostasuna gailentzen baita), Zerga Ministerioaren esku hartzea informaziozkoa da -baina ez da loteslea epailearentzat (araudi horrek Auzitegi Konstituzionalaren epaia aurreratu baitzuen, izaera loteslea indargabetuz)-, eta zaintza partekatua legezko berdintasunean agertzen da. Berez, gurasoek erabaki behar dute zein den beren seme-alabentzako aukerarik onena, eta ados jartzen ez badira (adostasun bat lortu ahal izateko famili bitartekaritzaarako zerbitzu publikora jo dezakete, Foru Komunitateko Administrazioak aukera hori eskaintzen baitu), epaileak hartuko du erabakia. Horretarako, familia bitartekaritza baliatu daiteke eta zaintza motarik egokiena erabakiko du, kasuan kasuko egoerak aztertuta, esku hartzaile guztiei entzunda eta adingabearen interes gorena zainduta.

4.3.10. Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarrentzako, eta, zehazki, Guardia Zibileko Kidegoentzako baja medikoen kontrol neurriak ezartzeko proposamena.

Gaia: Funtzio publikoa. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak.

Ukitutako administrazioa: Estatuko Administrazioa.

Laburpena: Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren, bereziki, Guardia Zibileko Kideen buruko kontuen ondoriozko baja medikoak kontrolatzeko neurriak ezartzeko proposatu du herritar batek.

Emaitza: Erakunde honek herritarrari jakinarazi zionez, erakunde hau sortu eta arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 1.3 artikuluan xedatutakoaren arabera Nafarroako Arartekoaren jarduketa eremupean ez dagoen administrazio publiko bati buruzkoa da proposamena. Izan ere, Arartekoak Nafarroako administrazio publikoetan baino ezin du esku hartu.

4.3.11. Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak buru osasunari buruzko gaiei lotuta egindako ekarpenak Arartekoan Koordinaziorako XXVI. Jardunaldietako lantegietan kontuan hartzeko proposamena.

Gaia: Osasuna. Buru osasuna. Elkarteen parte hartzea.

Ukitutako administrazioa: Espainiako Arartekoa eta Autonomia Erkidegoetako Arartekoak.

Laburpena: Arartekoan Koordinaziorako XXVI. Jardunaldiak prestatzeko lantegietan buruko gaitzekin, eta, zehazki, "borondatearen aurkako tratamendu anbulatorioarekin" lotutako gaiak jorratuko zirela jakin zuen Espainiako Neuropsikiatria Elkarteak. Hori horrela, bere ekarpenak eta presentzia tailerretan kontuan hartzeko eskatu zuen.

Emaitza: Erakunde honek eskaeraren eta agiri eranskinen berri eman zion zegokion lantegiari, eduki hori ezagutu, kontuan hartu eta eztabaidatu zedin bileran zehar. Azkenean, aipatu elkartearen partaidetzarako proposamena onartu zen eta bere ekarpenak egin ahal izan zituen.

4.3.12. Gaixoei tratu hobea ematen zaiela bermatzeko proposamena.

Gaia: Osasuna. Gaixoen eskubideak. Tratu atseginerako eskubidea.

Administrazio hartzailea: Osasun Departamentua.

Laburpena: Herritar baten proposamenaren arabera, Osasun Departamentuak bioetikari eta medikuntzaren gizatiartzeari buruzko ekintzak sustatu beharko lituzke eta medikuei jardunbideak eman, gaixoekiko tratu hobea lortze aldera.

Emaitza: Erakunde honek txostena eskatu zion Osasun Departamentuari eta, hark jakinarazi zuenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lehentasuna sistemaren erabiltzaile eta profesionalen arteko komunikazioa eta harremana hobetzea da. Horretarako, Osasun Administrazioa hainbat ekintza sustatzen ari da osasun arretako edozein prozesutan "bioetika eta gizatiartzearen" funtsezko printzipioak indartzeko. Ildo horretatik, Osasun Departamentuko Irakaskuntza Planak urtero Prestakuntza Batzordean egindako ikastaroak eta trebakuntza programak jasotzen ditu. Gaixoari Laguntzeko Zuzendaritza ere profesional eta erabiltzaileen arteko

komunikazio prozesua hobetzeko programak diseinatzen ari da. Azkenik, Gaixoari Laguntzeko Zuzendaritzak eta zentroetan gaixoari laguntzeko unitateek etengabeko jarraipena egiten dute erabiltzaileek aurkeztutako kexa, erreklamazio eta iradokizunen jardueran eta emaitzan, horien izaera eta kopurua kontuan hartuta.

Informazio hori proposamena sustatu duen pertsonari igorri zaio eta, hala, amaitutzat eman da gaia.

4.3.13. Etxean egindako erditzeetan osasun estaldura bermatzeko proposamena.

Gaia: Osasuna. Etxeetan erditzeak estaltzea.

Ukitutako administrazioa: Osasun Departamentua.

Laburpena: Herritar batek adierazi duenez, bere alaba etxean erditu du era naturalean, emaginek lagunduta. Kostua 1.500 eurokoa izan zen, eta adierazi duenez, Osasun Departamentuaren informazioari jarraiki ospitaleetako erditzeetarako 2.700 euro ordaindu behar ditu Administrazioak. Emakumeek erditze tokia aukeratzeko eskubidea dute eta eskubide hori betearazi egin beharko litzateke. Horretarako, Gizarte Segurantzak erditzeen osasun estaldura eskaini beharko du. Proposamenean, gainera, ospitaleetako erditzeak baino merkeagoak direla frogatu du.

Emaitza: Erakundeak proposamenari buruzko txostena eskatu zion Osasun Departamentuari. Departamentuaren esanetan, une honetan Osasun Sistema Nazionalako zerbitzu komunak kartera ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan ez da aukera hori jasotzen. Hala ere, autonomia erkidego desberdinetako oinarritzko zerbitzu kartera adostu eta bateratzeko lanean ari dira, herritarrei egiten zaien eskaintza parekidea izan dadin lurralde nazional osoan, nahiz eta hori, azken finean, autonomia erkidego bakoitzaren eskumena den. Hala ere, txostenean adierazitakoari jarraiki, eta nazio mailako egoera ekonomikoa ikusita, ez dirudi une egokia denik karterara prestazio gehiago gehitzeko. Era berean, adierazi denez “Osasun Sistema Nazionalean erditze normalean laguntzeko Estrategiak”, 2007an argitaratutakoak, ez du laguntza modu hori ezartzeko beharrezkoa planteatu. Bestalde, laguntza modu hori segurtasunez eman ahal izateko beharrezko kalitate estandarrak zehaztu gabe daude eta, gainera, emagin, ginekologiako aditu eta pediatren sare iraunkorra beharrezkoa litzateke. Gaur egungo plantillarekin ezinezkoa da hori betetzea.

Erantzuna jaso ondoren, herritarrak Nafarroako Arartekoari Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin bitartekari lanak egiteko eskatu zion, teknika edo prozedura hori Osasun Sistema Nazionalako zerbitzu komunitara sartzeko. Proposamena Espainiako Arartekoari igorri zitzaion eta hark txostena egin zuen. Bertan adierazi zenez, erakunde horrek ofiziozko ikerketa bat gauzatu zuen osasun administrazio desberdinetan gai honi buruz eta honakoa adierazi zen: a) egun pertsona ugari eskatzen dute era horretako laguntza; b) erditzea era naturalean egiteko aukera errespetatu behar da, berez datorrenean eta arrisku faktorerik ez dagoenean; c) egoera kontuan hartuta, gaur egun dagoen zesarea tasa arrazionalizatu behar

da; d) teknika naturalak aitortzeak ez du esan nahi kontrol mediko baxuagoa defendatu behar denik; e) aipatutako aitapena bat dator gaixoen autonomiaren eta informazio eta dokumentazio klinikoaren gaineko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen 41/2002 Legean jasotako printzipioekin; eta f) medikalizatu gabeko erditze naturaletan laguntzeko protokoloak ezarri behar dira, emakumeek horiek bete ahal izan ditzaten, betiere arrisku faktorerik ez badago. Amaitzeko, Arartekoaren txostenaren arabera, gaur egun eta Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren esparruan, hainbat jarduera hasi dira autonomia erkidegoetako oinarritzko zerbitzu kartera zehaztu, bateratu eta adosteko, eta, beraz, jarduera horien ondorioak aztertu beharko dira, burutu direnean.

Informazio hori proposamena egin duen pertsonari igorri zaio eta, hala, amaitutzat eman da gaia.

4.3.14. PFEZaren araudia aldatzeko proposamena, unibertsitate ikasketak egiten dituzten eta bekarik jasotzen ez duten seme-alabengatiko kenkariak aurreikuste aldera.

Gaia: Ogasuna. Zergak. PFEZa. Kenkariak.

Administrazio hartzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Tributu Ogasuna).

Laburpena: Herritar batek zera proposatu zuen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen araudian kenkariren bat aurreikusi beharko litzatekeela unibertsitate ikasketak egiten ari diren eta ikasketa beka edo laguntzarik jasotzen ez duten seme-alaben gastuengatik.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari txostena eskatu ondoren, Nafarroako Tributu Ogasunak jakinarazi zuen egun ez dagoela horren gaineko azterketa edo aurreikuspenik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan zerga kenkari edo onurak sartzeko. Txostenaren arabera, zerga salbuespen eta kenkariak eta, orokorrean, zerga onurak ezartzeko, salbuespen izaera edo gutxienez justifikazio tekniko sendoa eduki behar da.

Ogasunaren txostenari jarraiki, seme-alabek eragindako unibertsitate gastuen gaineko berriazko zerga desgrabazioak ez du esan nahi PFEZaren ez direnik kontuan hartuko karga ekonomiko horiek, legezko arau eta printzipioen barruan. Horren harira, subjektu pasiboak eskuratutako errentaren zenbatekoan, zerga oinarriaren zati orokorra osatzen duen horretan, Legeak hainbat "zerga murrizketa" aplikatzen ditu gutxienerako pertsonal eta familiarren kontzeptuan. Gutxienerako horiek aplikatuta, zergadunaren oinarritzko beharrian pertsonal eta familiarrek betetzeko erabiltzen denez zergapetuko ez den errenta zatia zenbatzen da. Zenbateko horien kopuruan, eta zehatzago, subjektu pasiboarekin bizi diren ondorengoengatik gutxienerako familiarretan sartutzat joko dira, besteak beste, seme-alaben hezkuntzan egindako gastuak.

Ondorioz, Departamentuak dio Nafarroan eta ia autonomia erkidego batean ere ez, Kanarrietan kasuan salbu, ez dela aplikatzen zerga tratamendu berezi bat, kuota kenkaria

kasu, unibertsitate ikasketekin lotutako gastuetarako. Izan ere, zerga administrazioaren esanetan, kuotako kenkarien katalogoan, kenkari horiek duten salbuespen izaera dela eta -batez ere zerga honen mekanikan-, kopurua eta edukia oso mugatuak izan behar dira.

Ondorioz, administrazioari ez zitzaion proposamena egiteko modukoa iruditu.

4.3.15. Ikastetxeetan gizarte langilearen figura sartzeko proposamena.

Gaia: Hezkuntza. Irakasleak. Gizarte langileak.

Administrazio hartzailea: Hezkuntza Departamentua.

Laburpena: Ikastetxeetan gizarte langilearen figura sartzeko proposatu du herritar batek. Azaldu duenez, kontuan hartuta hezkuntza sistemak bete behar dituen erronkak, apurka-apurka gorantz doazen gizarte desberdintasunak eta oraindik eskolan curriculumaren garapenerako funtsezko faktore gisa lantzen ez diren testuinguru elementuak, ikastetxeetan gizarte langilearen edo esku hartze sozial eta familiarreko profesionalaren figura sartu beharko litzateke.

Emaitza: Erakunde honek txostena eskatu zion Hezkuntza Departamentuari. Txostenari jarraiki, Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak hainbat neurri hartu behar izan dituzte langileen arloan Nafarroako Aurrekontu Orokorretako I. kapituluko gastua murrizteko (langileei buruzkoa), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan langileen arloko gastua murrizteko jarraibideak ezartzen dituen 2012ko otsailaren 15ko Nafarroako Gobernuaren erabakiaren ondorioz. Horrenbestez, une honetan ezin da proposamenean aipatu den zerbitzu handitzea planteatu, ez baita bateragarria langileen kapituluan gastu publikoa murrizteko neurriarekin.

Ondorioz, administrazioari ez zitzaion proposamena onartzeko modukoa iruditu.

4.3.16. Interes orokor edo soziala duten obra eta zerbitzuen kontratazioan langabetuei lehentasuna emateko proposamena, beren laneratzea errazte aldera.

Gaia: Lana. Langileen kontratazioa. Langabetuen lehentasuna

Administrazio hartzailea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentua.

Laburpena: Herritar baten proposamenari jarraiki, kontratazioan lehentasunezko pertsonak direnen zerrenda handitu beharko litzateke langabetuak bertan sartuz, interes orokorra edo soziala duten obra eta zerbitzuak egiteko, beren laneratzea errazte aldera, Foru Aginduan araututako eran. Proposamenak, zehazki, honakoak sartu beharko liratekeela defendatzen zuen: langabezia dauden pertsonak, 30 eta 50 urte bitartekoak, langabeziagatiko prestazioa jasotzeko kotizazio nahikorik ez dutenak eta izaera horretako beste diru laguntzarik jasotzen ez dutenak. Hori dela eta, deialdian aurreikusitako pertsona

taldeak hedatzeko proposatu zen, egun krisi ekonomikoaren ondorioak bortizki pairatzen dituzten eta lanpostu bat eskuratzeko orduan zerrendan sartutako taldeen pareko zailtasunak dituzten pertsona kopuru handi hori sartzeko.

Erakunde honek txostena eskatu zion Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eta, hark adierazi duenez, deialdiak lehentasunezko talde batzuk ezartzen ditu. Lehentasun hori, txostenaren arabera, enplegu politika aktiboen helburu nagusietako batekin bat eginez justifikatzen da: enplegua eskuratzeko orduan aukera berdintasuna sustatzea, laneratzeko zailtasun gehien duten taldeei lana eskuratzeko erraztasunak emango dizkieten politikak gauzatu. Esandakoaren arabera, Enplegu Estrategia Europarrean jasotako helburuak bete nahi dira, eta, nazio mailan, 2012-2014 Enplegu Estrategia Espainiarrean jasotakoak, estatuan enplegu politika aktiboak koordinatu eta betearazteko araudi esparru erreferentea baita. Estrategia espainiar horren arabera, autonomia erkidegoek, beren eskumenen eremuan, Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legeko 25. artikuluan aipatzen diren enplegu politika aktiboak osatzen dituzten eremuei dagozkien ekintza eta neurriak diseinatu eta garatuko dituzte, horien artean laneratzeko zailtasun gehien duten taldeak lan munduan integratzeko eta lurraldeko jarduera ekonomikoa sustatu eta garatzeko ekintzak.

Halaber, txostenean adierazienez, une honetan pertsona askok laneratzeko zailtasunak dituztela ikusita, inork ez du zalantzan jartzen aipatu taldeek enplegua eskuratzeko duten zailtasun handiagoa, bai lehen bai orain.

Azkenik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari beharrezkoa iruditu zitzaion deialdia bere horretan uztea, deialdi horretan agertzen diren taldeak baitira, bere ustez, lanerako zailtasun handienak dituztenak, nazioko eta erkidegoko araudi esparruaren arabera. Halaber, Zerbitzuaren iritziz deialdia bere horretan hobeto egokitzen da Nafarroako errealitatera.

Ondorioz, administrazioari ez zitzaion egokia iruditu proposamena onartzea.

4.3.17. Ezgaitasunak edo buruko nahasmenduak dituzten eta espetxeetan zigortuta dauden pertsonen kopurua murrizteko neurriak hartzeko proposamena.

Gaia: Espetxeetako administrazioa. Osasuna. Buru osasuna.

Ukitutako administrazioa: Barne Ministerioa.

Laburpena: Ezgaitasunak edo buruko nahasmenduak dituzten eta espetxeetan zigortuta dauden pertsonen kopurua murrizteko neurriak hartzeko proposatu zuen Kordobako Abokatuen Elkargoak. Beren ustez, argi dago egoera tamalgarri honen arrazoi nagusia baliabide eta programa sozio-sanitarioen falta dela eta horiek martxan jarriz gero gauzak nabarmen hobetuko liratekeela.

Emaitza: Erakunde honek aipatu Abokatuen Elkargoari igorri zion bere iritzia, Elkargoaren iritziarekin bat eginez, baita Nafarroako Arartekoak Arartekoen Koordinaziorako XXVI.

Jardunaldiak (Madrilen ospatu zirenak 2012an) prestatzeko lantegira bidalitako proposamenen agiria eta Giza Eskubideen Auzitegi Europarraren 2012ko otsailaren 23ko epaiaren kopia ere. Azken horrek aurrekari garrantzitsua ezartzen du.

4.3.18. Konpentsazio pentsioa jasotzen duten pertsoneri zerga tratamendu hobe emateko proposamena.

Gaia: Ogasuna. Zergak. PFEZa. Kenkariak. Konpentsazio pentsioa.

Administrazio hartzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Tributu Ogasuna).

Laburpena: Herritar baten proposamenari jarraiki, PFEZaren araudiak zerga tratamendu hobe eman beharko lieke konpentsazio pentsioa jasotzen duten pertsoneri, senar-emazte harremana etetean konpentsazio pentsioa ordaintzen duenak jasandako atxikipenak ken diezazkion pentsioa jasotzen duenari bere errenta aitorpenean. Proposamena egin duenaren ustez, konpentsazio pentsioaren filosofia zera da, alderdietako bat ere ez litzatekeela ekonomikoki kaltetuta geratu behar bereizketatik, baina, gaur egun, PFEZean pentsioa aitortzeko moduak berau jasotzen duena kaltetzen du. Azaldu duenez, pentsioa jasotzen duenak ezin du ezar “kendu” PFEZaren konturako atxikipen gisa, eta ordaintzen duenak, aldiz, jasotzen duen “soldata gordina” ken pentsioaren zenbatekoa aitortu arren, bere kontura jasandako atxikipen guztiak ken ditzaken PFEZaren aitorpenean.

Emaitza: Ekonomia eta Ogasun Departamentuari txostena eskatu ondoren, Nafarroako Tributu Ogasunak jakinarazi du, funtsean, proposamena onartuz gero ez litzatekeela gaitasun ekonomikoaren printzipioa errespetatuko, pentsioaren pertsona onuradunak bere gaitasun ekonomikoaren arabera dagokiona baino gutxiago ordainduko lukeelako zergan, eta bestalde, pentsioaren ordaintzaileak bere gaitasun ekonomikoaren gainetik zergapetuko lukeelako. Txostenean gaineratu zenez, PFEZaren konturako atxikipenen mekanismoa aplikatzeak ez du zergen ordainketa baxuagoa edo altuagoa eragiten: horien aurrerakin bat baino ez da, eta, ondorioz, subjektu pasiboak bere PFEZaren aitorpenean baino ezingo ditu kendu atxikipenak, benetan jasan baldin baditu. Era berean, aipatutako mekanismoa aplikatzean ez zaio inolako kalterik eragiten konpentsazio pentsioa jasotzen duen pertsonari, ez baitio pentsio horien edukiari ez eta zerga kargari eragiten. Amaitzeko, aurkeztutako proposamenaren ondorioz, gaitasun ekonomiko bera eta egoera familiar eta pertsonal berdina daukaten bi subjektu pasibok bi kopuru desberdin ordainduko lituzkete, eta, beraz, txostenaren arabera, proposamen hau ez litzateke bideragarria izango ikuspegi teknikitik.

Ondorioz, administrazioari ez zitzaion proposamena egiteko modukoa iruditu.

4.3.19. Etxebizitza babestuaren eskaeretan gaitasun ekonomikoa baloratzeko baldintzak aldatzeko proposamena.

Gaia: Etxebizitza. Etxebizitza babesturako laguntzak. Baldintzak. Gaitasun ekonomikoa.

Administrazio hartzailea: Sustapen Departamentua.

Laburpena: Herritar batek proposatu zuenez, etxebizitza babestuko eskatzaileen erroldari buruzko araudian aldatu egin beharko lirateke eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzeko baldintzak. Herritarraren ustez, etxebizitza babestuko eskatzaileen errolda arautzen duen 25/2011 Foru Dekretuko 7. artikulua arabera gaitasun ekonomikoa baldintzak azken zerga aldiaren harira egiaztatu behar dira (PFEZaren aitortpena aurkezteko epea urte natural bakoitzeko urtarilaren 1ean amaitzen delarik), eta, ondorioz, ezin da eskaeraren uneko benetako gaitasun ekonomikoa baloratu.

Emaitza: Sustapen Departamentuari txostena eskatu zion erakunde honek. Bertan adierazitakoaren arabera, etxebizitza babestu baten adjudikazioa norgehiagoka prozedura bat da eta partaide guztiek era berean egiaztatu behar dute sarbide baldintzak betetzen direla. Horrela, beharrezkoa iruditzen zaio sarbide baldintzak egiaztatzeko irizpideak pertsona guztiei era berean aplikatzea, eta, beraz, ezin da gaitasun ekonomikoa eskatzaileak egindako edo ez egindako errenta aitortpenaren arabera baloratu. Izan ere, txostenari jarraiki, zerga egoera batzuk ez dira urte bakoitzeko irail edo urria arte araupetzen. Administrazioarentzat beharrezkoa da guztientzako data zehatz bat ezartzea. Izan ere, erroldan izena emanda dauden zerga egoera "egonkortzeko" epe bat utzi behar da, izena emandako pertsona guztien eta erroldaren funtzionamenduaren segurtasun juridikoa areagotze aldera. Txostenean azaldutakoaren arabera, eskatzaileen gaitasun ekonomikoa benetan era zuzenean aztertuko balitz, gutxienez bost errenta aitortpen eta aitortu gabeko hilabeteetan jasotako diru-sarrerak eskatu beharko lirateke; hori guztia nahitaezkoa litzateke baldintza hori benetan betetzen dela egiaztatzeko, eta, noski, zeregin hori betetzea ezinezkoa litzateke, salbu eta Sustapen Departamentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari egotzitako eskumenak hartuko balitu, edo, behintzat ez litzateke bateragarria izango administrazioaren jardura eraginkor eta arinarekin.

Ondorioz, administrazioak proposamena ez onartzea erabaki zuen.

4.3.20. Proposamena Osasun Departamentuak ez dezan eskatu Iruñean erroldatuta egotea, lan arrazoien ondorioz hiri horretan bizi direnek osasun arreta eskura dezaten bertan erroldatuta egon ez arren.

Gaia: Osasuna. Osasun arreta eskuratzeko baldintzak. Erroldatzea

Proposamenaren **Administrazio hartzailea:** Osasun Departamentua.

Laburpena: Herritar batek, Iruñetik berrogeita hamar bat kilometrotara dagoen udalerrri batean bizi denak, lanaren ondorioz Iruñean denbora asko ematen duela adierazi du. Bere kasuan eta antzekoetan herritarrei lehen mailako edo oinarrizko osasun arreta (eta ez larrialdietako) jasotzeko aukera eman beharko litzatekeela proposatu du, erroldatuta egon behar izanik gabe.

Emaitza: Erakundeak txostena eskatu zion Osasun Departamentuari. Bertan adierazi zenez, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriak dio osasun txartela Nafarroako udalerrietan bizi diren herritar guztiei ematen zaiela, osasun prestazioetarako eskubideaz baliatu ahal izateko baldintzak egiaztatu

ondoren. Baldintza horien artean, Nafarroako udalerrri batean bizi izana egiaztatu behar da, errolda agiriaren bidez.

Hala ere, Departamentuak jakinarazi duenez, lehen mailako arretarako pediatra eta mediku orokorra askatasunez hautatzeko eskubidea arautu eta handitzen duten 244/1994 eta 122/2002 Foru Dekretuek (hurrenez hurren) ez dute errolda agiria aipatzen; horren ordez, osasun arlo batean bizi den erabiltzaile batek ezin duela beste arlo batean lan egiten duen mediku bat eduki soilik ezartzen dute.

Ondorioz, Osasun Departamentuaren esanetan lanaren ondorioz Iruñean “lekualdatuta” dauden pertsonak beharrezko osasun arreta eskatu eta eskura dezakete beren aldi baterako bizilekuari dagokion osasun zentroan, eta, horretarako, helbidea aldatu eta medikua esleitu beharko da, aldi baterako bizilekuaren helbidearen arabera, Iruñean erroldatu behar izanik gabe.

4.3.21. Idazkari eta kontu-hartzaileen deialdian behin betiko onartutako pertsonen zerranda lanpostu horien aldi baterako hornidurarekin lotutako bitarteko lanak estaltzeko erabiltzeko proposamena, foru funtzionario gaituek horiek estaltzen dituzten arte.

Gaia: Funtzio publikoa. Toki mailako funtzio publikoa. Foru gaikuntza eskatzen den lanpostuen bitarteko hornidura.

Administrazio hartzailea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentua.

Laburpena: Herritar baten proposamenari jarraiki, foru gaikuntza eskatzen duten Nafarroako Tokiko Administrazioan lanpostuak (idazkaritza eta kontu-hartzailletza) hornitzeari dagokionez, lanpostu hutsak bitarteko gisa estaltzeko aukera ezarri beharko litzateke, behin betiko hornitzeko deitutako hautaketa prozesuak burutu arte. Horretarako, idazkari eta kontu-hartzaileen deialdira behin betiko onartutako pertsonen zerranda erabiltzeko proposatu zuen.

Emaitza: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentuari txostena eskatu zitzaion, eta, bertan jakinarazitakoaren arabera, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzurako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Errege Dekretuari jarraiki kontratatutako langileak deialdi irekiaren bidez hautatu behar dira, merezimendu eta gaitasunaren printzipioetan oinarrituta. Era berean, Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak Nafarroako toki erakundeetako idazkaritza eta kontu-hartzailletza lanpostuak aldi baterako estaltzeko sistema ezartzen du eta horren harira mintzatzen da, era berean, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko araudia onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua.

Ondorioz, Departamentuaren ustez proposamena ez da bideragarria indarreko legediaren esparruan. Izan ere, herritarrak proposatzen duen sistema ez da Nafarroako Administrazio

Publikoetan aplikatu beharreko indarreko araudian aurreikusitako aldi baterako langileen hautaketa sistema eta ez ditu bermatzen pertsona hori hautatzeko prozesuek bete behar dituzten berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak. Ondorioz, administrazioak ez zuen proposamena onartu.

4.3.22. Proposamena, Foru Komunitateko Administrazioaren gaur egungo kontratazio zerrendetan, adinari lotuta (55 urte) eta Administrazioan lanean aritu izanari lotuta (15 urte) gutxieneko baldintzak betetzen dituzten hautagaiei lehentasuna eman dakien.

Gaia: Funtzio publikoa. Foru funtzio publikoa. Kontratazio zerrendak. Lehentasuna.

Administrazio jasotzailea: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Laburpena: Gaur egungo araudiak berrogeita hamabost urte baino gehiago dituzten eta administrazio publikoan gutxienez hamabost urtetan lanean egon diren pertsonen kontratazioari lehentasuna eman dio. Bi herritarrek kontratazioko lehentasun hori 58 urte baino gehiago dituzten pertsoneri zabaltzeko proposamena egin dute. Halaber, Administrazioan eduki behar duten esperientzia langilearen adina aintzat hartuta alderantzizko proportzioan murriztu dadila eta denboraldi hori administrazioarentzat emandako zerbitzuei eta menpekotasun ekonomikoari lotuta egon dadila (eta ez kotizazioari) iradoki dute. Horrez gain, Administrazioaren edozein lanpostutan egindako lana kontuan hartzeko eskatu dute. Azkenik, neurri hori posible ez balitz, azken baliabide gisa eragindako langileen erretiro aurreratua izapidetzeko aukera onartu dadila proposatu dute.

Emaitza: Erakunde honek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren txostena eskatu zuen eta, eskaerari erantzunez, departamentuak adierazi zuen proposamena ez dela bideragarria, bere ustez, kontu hori Mahai Orokorrean sindikatuekin jorratu behar delako. Proposamena negoziatu beharko litzatekeela adierazi du, eta saiatu behar da lehentasuna ematen duten politikek beste pertsona batzuen kontratazioa erabat baztertu ez dezaten. Horrez gain, horren inguruan dagokion adostasuna lortu beharko litzateke sindikatuen ordezkariaren gehiengoarekin, bakoitzak egiten dituen proposamenekin.

Horrenbestez, Administrazioak ez du proposamena onartzeko aukerarik ikusi.

4.3.23. Proposamena, irakasle funtzionarioen ordainsariei eta lanaldiari buruzko neurriak aldatu daitezen eta beste neurri batzuk har daitezen.

Gaia: Funtzio publikoa. Irakasle funtzionarioak. Lan baldintzak.

Administrazio jasotzailea: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Laburpena: Dirudienez, bi herritarrak Hezkuntza Departamentuko irakasle funtzionarioak dira eta adierazi dute irakaskuntza pribatuan ordainsarrietan aplikatu den murrizketa irakaskuntza publikoko irakasleei aplikatutakoa baino txikiagoa dela eta, gainera,

murrizketa hori lanpostuak mantentze aldera egin dela. Azaldutakoaren arabera, sektore publikoan ez da aukera hori mahaian gainean jarri eta adierazi dute hori ulergaitza den bidegabekeria bat dela; izan ere, haien ustez administrazio publikoa izan beharko litzateke haren zerbitzura dauden langileentzat jarraibide justu eta zuzenak ezarri beharko litzatekeena.

Emaitza: Erakunde honek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari txosten bat egiteko eskatu zion, eta txosten horretan azaltzen da proposamena ez dela onartu, krisi ekonomikoaren ondorioz hartutako neurriek, langile publikoen lan baldintzetan eragina edukitzeaz gain, gastu publikoaren atal eta kapitulu guztietan eragina daukatelako, horien artean, garrantzitsuenetako bat, langileena. Departamentuak txostenean adierazi du proposamenak, legezkoak izan arren, ezin direla onartu Nafarroako Gobernuak zein Nafarroako Parlamentuak beste aukera politiko batzuk hautatu dituztelako langileen arloan hartu beharreko neurriei dagokienez.

4.3.24. Proposamena, babes ofizialeko etxebizitzetara BEZaren tasa gutxitua aplikatu dakien.

Gaia: Ogasun publikoa. Zergak. Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Tasa gutxitua. Babes ofizialeko etxebizitzak

Administrazio jasotzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Zerga Ogasuna).

Laburpena: Herritar batek azaldu du etxebizitzetara BEZa % 4tik % 10era igo dela, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eta sustapen publikoko etxebizitzak salbuetsita, baina, haren iritziz, Nafarroan ia ez da horrelakorik eraitzen. Proposamenean azaldu du, babes ofizialeko etxebizitzetara helburua errentarik txikiak dituzten herritarrek (kasu honetan, OAEAP x 4,5eko gehieneko diru-sarrerak dituzten familiak) etxebizitzetara duin eta egokiak erosteko edo alokatzeko aukera izatea denez, ez daukala zentzurik betekizun ekonomiko batzuk eskatzeak eta, aldi berean, BEZa % 4tik % 10era igotzeak. Hori dela eta, % 4ko tasa gutxitua aplikatzea proposatu du.

Emaitza: Erakunde honek txostena egiteko eskatu zion Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, eta Nafarroako Zerga Ogasunak jakinarazi zuen proposamena ez zela egingarria honengatik: Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikularen arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) ordainarazpenean, baldinartetasun-errekargua barne, Nafarroak une bakoitzean estatuan indarrean dauden oinarritzko printzipio eta arau erreal eta formal berak aplikatu behar ditu. Horrek esan nahi du Nafarroak ez daukala BEZaren funtsezko alderdiei lotuta arauketak egiteko eskumenik, zergaren menpe dauden eragiketetan aplikagarriak diren zerga-tasen arloa horren barruan dagoela, eta are gutxiago arauketa horiek eta estatuak zerga horren eremuan une bakoitzean ezartzen dituenak desberdinak baldin badira.

Horregatik, departamentuak ezin izan du proposamena onartu, edukia ez baitator bat indarrean dagoen Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikularekin.

4.3.25. Proposamena, ibilgailua aparkaldi mugatuko zonetan aparkatuta edukitzen den denbora zehatzagatik kobratzen duen sistema ezar dadila.

Gaia: Trafikoa eta bide-segurtasuna. Aparkaldi mugatuko zonak. Tarifen ordainketa.

Administrazio jasotzailea: Iruñeko Udala.

Laburpena: Herritar batek adierazi du gaur egungo aparkaldi mugatuko sistemak hainbat eragozpen eragiten dizkiola, beharrezkoa den denbora zehaztasunez iragarri behar delako. Horrenbestez, oro har edo beharrezkoa dena baino gehiago ordaintzen da edo kontrakoa, hau da, herritarra premiarekin aparkalekura itzuli behar da zigorra saiheste aldera. Halaber, adierazi du makinak ez duela atzerakorik itzultzen; beraz, aurreikusitako zenbatekoa eskuragarri dituzun txanponekin gorantz biribildu behar da. Horregatik guztiagatik, ibilgailua aparkaldi mugatuko zonetan aparkatuta dagoen denboraren truke kobratzeko aukera ematen duen sistema ezar dadila eskatu du; izan ere, bidezkoagoa dela uste du.

Emaitza: Erakundeak Iruñeko Udalari eskatu dio mahai gainean jarritako proposamena baloratu dadin eta azken horrek hauxe adierazi du: a) Iruñean, 1999an araututako aparkalekuen sistema ezarri zenetik, diru-poltsa elektronikoarekin ordaintzeko aukera dago; b) aparkaldiak ordaindutakoa baino denbora laburragoa iraun duenean, atzerakoak itzultzen dituen sistema ezartzea teknikoki konplexuagoa da; eta c) hala ere, elektronikaren eta informatikaren arloan etengabe aurrerapen teknologikoak daudela aintzat hartuta, ordaindutako denbora benetan erabili den denborari egokitzeko sistema eraginkor eta fidagarri bat asmatzen den unean ezarri egingo da. Iruñeko Udalak gaineratu du ordaindutako denbora benetan erabili denari egokitzeko sistema eraginkorra errazteko formula berriak bilatzen jarraitzen duela eta, alde horretatik, ordainketa sakelako telefonoaren bidez egiteko aukera ezarriko duela. Horrez gain, txartelik gabe aparkatzeagatik edo ordaindutako denbora gainditzeagatik jartzen diren salaketak bertan behera uzteko aukera ere Iruñeko Udalaren webgunean abian jarriko du, eta kreditu-txartelarekin egiteko aukera aztertzen jarraitzen du.

Horrenbestez, Udalak uste du, txartelarekin ordaintzeko aukera dagoenez, horrek herritarrak mahai gainean jarri dituen arazoetako batzuk konpondu ditzakeela; izan ere, erabili den denbora zehatza kontuan hartuta zenbatekoak itzultzen dituen sistema ez da egingarria oraindik. Dena den, mugatutako aparkaldiaren ondorioz herritarrek ordaintzeko duten eginbeharra betetzen laguntzen duten bitartekoen ezarpenean aurrera egitearen alde agertu da Udala.

4.3.26. Proposamena, kontzeju irekiko udalen funtzionamendu araubideari dagokionez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu dadila.

Gaia: Toki Administrazioa. Udalak. Funtzionamendu araubidea. Kontzeju irekia.

Administrazio jasotzailea: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentua.

Laburpena: Herritar batek proposatu du, udal batek kontzeju irekiaren araubidea hautatzeko aukera duenean eta horren arabera agintzea erabakitzen duenean, hauteskundeetarako deialdia egiten den unean udal erroldan sartuta dauden herritarrek besterik ez dezaten hitzarekin zein botoarekin parte hartzeko eskubidea eduki. Modu horretan, hauteskundeetako deialdia egin ostean erroldatzen diren herritarrek hitzarekin baina botorik gabe parte hartu ahalko dute. Proposamena justifikatzeko argudiatu du udal erroldan toki mailako gai jakin batzuen gaineko erabakietan parte hartzeko helburuarekin gertatzen diren aldaketa anitzak saihestuko lirakeela.

Emaitza: Erakunde honek Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren txostena eskatu du, proposamena baloratu dezan, baina azken horrek ez du iradokizuna egingarritzat jo; izan ere, azaldutakoaren arabera, kontzeju irekiaren araubidea hautatzen duten udalen funtzionamendua Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 29. artikuluan arautu da, eta hori estatu mailako funtsezko arau bat da, Nafarroako udaletan guztiz aplikagarria dena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 4.2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori dela-eta, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak amaitzeko adierazi du Nafarroako Foru Komunitateak ez daukala eskumenik Nafarroako udalen funtzionamenduari lotutako gai hori arautzeko. Beraz, proposatutakoari dagokionez, estatu mailako legerian ezarritakoa bete behar da.

4.3.27. Proposamena, legeria aldatu dadila Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumean zerga sistemari lotutako ezagutzak gaineratu daitezten.

Gaia: Hezkuntza. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumen edukia aldatzea.

Administrazio jasotzailea: Hezkuntza Departamentua.

Laburpena: Herritar batek honako hau proposatu du: Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumean zerga sistemari lotutako ezagutzak gaineratzea; zehatz-mehatz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Gizarte Segurantzaren kotizazio, langileen soldata-orrietako atxikipen, enpresarien kotizatze betebeharrak, eta udaleko zerga eta tasei buruzko ezagutzak. Bere proposamena justifikatzeko azaldu du ikasleek ez dakitela ezer gai horien inguruan; beraz, eduki horiek gaineratzea egokitzat jotzen du.

Emaitza: Proposamena zehaztasunez aztertu ostean, erakunde honek, xedea eta edukiari dagokionez planteamendua zentzuzkoa dela onartu arren, ez zuen abagunerik antzeman proposamen hori administrazio publikoaren aurrean izapidetzeko. Erabaki horren arrazoia tributu, zerga eta lanaren inguruko gai horren konplexutasuna da, gaur egun oso aldakorra dena eta desiragarria den segurtasun juridikorik ez daukana. Era berean, hezkuntza ziklo horietan gailendu behar diren ezagutzak funtsean praktikoak direnak eta esperientziari lotuta daudenak dira, eta ez tributu, zerga, lan edo Gizarte Segurantzaren arloko legekotasunari buruzkoak. Beste arrazoi bat da ezagutza horiek eskuratzen diren unetik praktikan jartzen diren unera arte denbora luzea pasatzen dela. Azkenik, aintzat hartu

behar da, eduki horien espezializazio maila dela-eta, kasu gehienetan, partikularrek zein enpresariak profesional espezializatuen esku uzten dituztela.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza administrazioak hezkuntzako curriculumen konfigurazio zehatzaren inguruko erabakiak hartzeko duen zuhertasun tarte handia kontuan hartuta eta hezkuntzaren erdiko fase horretan eduki jakin batzuk gaineratzea hori erabaki behar dutenen aukerako balorazioaren menpe dagoela aintzat hartuta, ez zen egokitzat jo proposamen hori zegokion administrazioaren aurrean izapidetzea.

Hala ere, herritarrari gomendatu zitzaion eskaerak egiteko eskubidea Hezkuntza Departamentuaren edo Hezkuntza Ministerioaren aurrean gauzatzeko aukera zuela, eskaerak egiteko eskubidea arautzen duen lege organikoarekin bat eginez. Horrez gain, Nafarroako Parlamentuko Eskaeren Batzordeen, Diputatuen Kongresuaren edo Senatuaren aurrean ere eskaera aurkez dezake, bakoitzaren araudi parlamentarioen arabera.

4.3.28. Proposamena, oposiziogileek beren azterketak modu arrazoituan berrikusi eta zuzendu daitezen duten eskubidea bermatu dadila, ez baitago ados Espainia osoan egiten diren oposizioetan aplikatzen den "zuhertasun teknikoaren" irizpidearekin.

Gaia: Funtzio publikoa. Oposizio epaimahaien zuhertasun teknikoa.

Eragindako administrazioa: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Laburpena: Herritar batek zera proposatu du: oposiziogileek beren azterketak modu arrazoituan berrikusi eta zuzendu daitezen duten eskubidea bermatu dadila, ez baitago ados Espainia osoan egiten diren oposizioetan aplikatzen den "zuhertasun teknikoaren" irizpidearekin.

Emaitza: Proposamena zehaztasunez aztertu ostean, erakunde honek herritarrari jakinarazi zion, oposizioen eta oposizio-lehiaketen kalifikazio epaimahaien zuhertasunari dagokionez, hainbatetan eman dutela iritzia justizia auzitegiek (zehazki, Auzitegi Gorenak) eta jurisprudentzia zabala eta sendoa sortu dela. Jurisprudentzia horretan onartzen da, ebaluatzeko funtzioaren barruan, oposizioen eta oposizio-lehiaketen kalifikazio epaimahaiek balioztatzeko eta baloratzeko tarte handia dutela eta kanpoko erakundeek (administrazio publikokoak edota botere judizialekoak) ezin dutela hori ordezkatu.

Dena den, ezagutzan eta inpartzialtasunean oinarrituta baloratzeko askatasun zabal hori behin aitortuta, jarraian jurisprudentziak dio askatasun hori ez duela hau eragingo: kalifikazio epaimahaien erabakiak ez dira kontrolatzeko aukera guztietatik at egongo, zenbait elementuk zuhertasun teknikoaren arau hori mugatzen baitute. Kontrol elementu horien barruan, ondorengoak daude: epaimahaiaren osaera bera (espezialistek osatzen dute); kideen artean beharrezkoak diren erabakien objektibotasuna eta inpartzialtasuna arriskuan jarri dezaketen abstentzio edo errefusate arrazoirik ez dagoela ziurtatzea; deialdiaren oinarrietan xedatutakoarekin bat eginez hartutako erabakien arrazoitzearen kontrola; erabaki horien arrazionaltasunaren gaineko kontrola; arbitrarioak izan daitezen

saihestea; deialdiaren oinarriak errespetatzea (hautaketaren lege berezi gisa jarduten dute); funtzio publikoan sartzeari dagokionez, hautagai guztien berdintasunaren bermea; etab.

Modu horretan, kalifikazio epaimahaiek baloratzeko duten askatasuna mugatzen da, eta kanpoko organoen kontrolpean jartzen da.

Berrikusteko eta azterketen zuzenketaren arrazoiak jasotzeko eskubideari dagokionez, erakundeak jakinarazi zuen gaur egun eskubide horiek ordenamendu juridikoan aitortu direla. Horiekin batera, beste eskubide batzuk ezarri dira: administrazio espedientea ikusteko eskubidea; modu negatiboan eragina duten erabakien arrazoiketa ezagutzeko eskubidea; deialdietako oinarriek ezarritakoaren arabera, hautaketa prozesuak osatzen dituzten egintzen arrazoiketa ezagutzeko eskubidea; edo alegazioak edo errekursoak aurkezteko eskubidea. Kalifikazio epaimahaiak horretarako eraturako izapide baten bidez hartu dituen erabakien zergatia azaltzeari uko egiten badio, oposizioileak aipatutako errekursoak aurkeztu ditzake eskumena duen organoaren aurrean, azterketa berrikusi dezan eta horri atxikita dauden arrazoiak azal diezazkion.

Halaber, herritarrari jakinarazi zitzaion, administrazio publikoen jarduera gainbegiratzeko funtzioa gauzatuz, Nafarroako Arartekoaren erakundeak zenbait kexa jaso dituela, oposizioetako azterketen puntuazioari buruzkoak. Kexak eta administrazioaren jarduna aztertu ostean, horietako batzuen harira gogorarazpenak eta gomendioak egin ziren. Laburbilduz, xedea da kalifikazio epaimahaien jarduerak gardenak, arrazoituak eta arrazoizkoak izan daitezen, bai eta herritarrek aurka egiteko duten eskubidea bete dadila ere, antzemanaz gero arbitrariotasuna saihestuta. Hori guztia kalifikazio organoen zuzentasun teknikoaren kaltetan izan gabe, justizia auzitegiek hainbat hamarkadatan aitortu baitiete. Hala, zuzentasun horren esanahia azaldu dut.

Azkenik, ondorioztatu da epaimahaien zuzentasun teknikoa administrazioaren ahalmen bat dela, eta azken horrek organo espezializatuen bidez gauzatzen duela. Halaber, esan daiteke Espainiako zuzenbidean oso finkatuta dagoela eta administrazio publikoen hautapen probak eta lanpostuen betetzeak arautzen dituzten lege ia guztiek aitortzen dutela. Lege eta, batez ere, jurisprudentziaren ikuskera hori aldatzea Nafarroako Arartekoa erakundearen aukeretatik at dagoen egitekoa da; izan ere, Espainiako administrazio publiko guztietan eragina dauka, ez bakarrik Nafarroako administrazioetan edo horietako batzuk. Gainera, legeen joeraren aurkakoa da.

Hala eta guztiz ere, herritarrari jakinarazi zitzaion aurrekoa ez zela eragozpen bat erakunde honek, urte hauetan guztietan egin duen bezala, kasu zehatz batzuk aztertu ditzan, herritarren ustez oposizio bateko epaimahaiek euren eskubideak urratu dituztela azaltzen duten horiek, hain zuzen, eta administrazioaren jardunbide okerrak (aipatu diren printzipioekin bateraezinak direnak) zuzentzeko gomendioa egin dezan.

4.3.29. Proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan onura fiskal bat gaineratu dadila, beren anai-arrebeekin batera bizi diren eta haien zaintza beren gain hartu duten pertsoneri zuzentzen zaiena eta aurrekoen eta ondorengoek kasuan indarrean dagoenaren antzerakoa dena.

Gaia: Ekonomia eta Ogasun Batzordea. Kenkariak PFEZan.

Administrazio jasotzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Zerga Ogasuna).

Laburpena: Herritar batek proposatu du, anai-arreben artean bizikidetzeta eta mendekotasun ekonomikoa gertatzen direnean, onura fiskal bat aplikatu dadila. Bere proposamena justifikatzeko, azaldu du 89 urteko arreba bat daukala eta betidanik berarekin eta bere emaztearekin bizi izan dela. Gainera, arrebak ez du inolako pentsio edo prestazio publikorik jasotzen; beraz, interesduna da haren sostengu ekonomikoa bere gain hartu duena. Bere ustez, aurrekoekin edo ondorengoekin bizitzegatik murrizketak edo kenkariak aplikatzen direla kontuan hartuta, berea bezalako kasuak aztertu beharko lirateke.

Emaitza: Kexa aztertu ostean, erakunde honek Ekonomia eta Ogasun Departamentura jo zuen proposamena ebaluatu zezan.

Departamentu horrek proposamena ukatu zuen, honako bi arrazoi hauengatik:

Lehenengoa da, bere ustez, oro har eta benetan bereziak diren egoerak alde batera utzita, anai-arreben arteko lotura PFEZaren zerga-oinarria eta kuota kalkulatzeko aintzat hartu behar den errenta pertsonalaren zenbatekoa haztatzeko kontuan hartzen diren inguruabar pertsonal eta familiarren babesetik kanpo dagoela. Izan ere, horixe ondorioztatzen da araudi zibiletik eta Gizarte Segurantzaren eta zergen araudietatik. Gainera, ulertu behar da uneren batean zerga-legegileak muga bat ezarri behar diola familia loturaren babesari.

Bigarren arrazoia da, bere arrebaren mantenua bere gain hartzeak proposamena egin duen herritarraren errenta murrizten duela aitortzen badu ere, zalantzan jarri duela proposamenean deskribatutako egoera PFEZaren kuotaren kenkarien barruan sartzeko beharrezkoa den gutxieneko orokortasunera heltzen den. Hori guztia, anai-arreben arteko mendekotasun ekonomiko erreala egiaztatzeko zailtasuna aipatu gabe (esku artean dugun kasuan, adibidez, ez da inolako erreferentziarik egin interesdunaren edo bere arrebaren ondarearen inguruan) eta egoera horiek guztiek zerga arbitraje eta trikimainak eragiteko duten arriskua albo batera utzita.

4.3.30. Proposamena, hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzeari lotutako zenbait alderdiri dagokienez, araudia aldatu dadila (gainbalioen zerga).

Gaia: Ogasuna. Toki ogasunak. Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga.

Eragindako administrazioa: Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nafarroako Zerga Ogasuna).

Laburpena: Herritar batek hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren zenbait alderdi aldatzeko proposamena egin du, adibidez, egun indarrean dauden tarifak merkatzea, zerga horri buruzko artikulua indargabetzea edo biztanle gutxiago dituzten entitateen kasuan tarifak merkatzea; izan ere, udalerrri horietan jabetza higiezin eskualdaketa ez die gainbaliorik eragiten ondasunen eskualdatzaileei. Proposamena justifikatzeko azaldu du legeak lursailen ustezko balio gehikuntzaren inguruan egin duen balorazioa guztiz bidegabea dela. Izan ere, kasu batzuetan aplikatzen diren gehikuntza portzentajeak, beharbada, jabetzaren eskualdaketa dela-eta agerian jarritako balizko gehikuntzatik gertu egongo dira (kargaren denboraldia hogeitun ingurukoa denean), baina, kargaren denboraldia gero eta motzagoa denean, gehikuntza gertagarria kaltegarria izan daiteke eta, ondorioz, zerga hori aplikatzea bidegabe eta konfiskatzaile bihurtzen da.

Emaitza: Kexa aztertu ostean, erakunde honek Ekonomia eta Ogasun Departamentura jo zuen proposamena azter zezala.

Txostenean, departamentuak (Nafarroako Zerga Ogasuna) honako hau adierazi zuen: a) zerga hori eztabaidagarritzat jotzen du; b) PFEZan edo Sozietateen gaineko Zergan lurren eskualdaketa zergapetzen duen balizko zerga-ordainketa bikoitzagatik, hiriko lurralde zergarekin batera beharbada biltzeagatik eta bikoitzasun horren balizko konstituzio-kontrakotasunagatik zergak jaso dituen kritikak alde batera utzita, auzitegiek ez dute bikoitzasun hori onartu ordainketan, ezta haren konstituzio-kontrakotasuna ere; c) zerga-oinarriaren zehaztapenaren inguruko kritikak ulertu ditu, lurraren balioaren benetako gehikuntza kalkulatzeko bi faktore hartu baitira kontuan: ondasunaren katastro-balioa eta eskualdatzaileak zein denboratan izan duen ondasun hori; d) hala ere, edozein objektibazirik sortzen dituen eragozpenak gorabehera, uste du objektibazirik horrek zergaren kudeaketa errazteko eta haren gatazka judicialak gutxitzeko helburua duela, horrela PFEZaren zenbatespen objektiboan, BEZaren erregimen erraztuan, zeharkako zenbatespenean, errenten presuntzio eta zenbatespenetan, lotutako eragiketen merkatu-balioan eta abarretan erabiltzen diren mekanismo berdinei jarraituta; e) ordekoari dagokionez, hura egoteak funtsezko oinarria dauka: tokiko erakundeek zergaren kudeaketa erraztea, eta, ondasunaren eskuratzaileak, zergaren subjektu pasiboa ez denean, zergaren zenbatekoa eskualdatzaileari jasanarazteko aukera.

Aldi berean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposamena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari helarazi dio, baita Iruñeko Udalari ere. Izan ere, hiri izaera duten lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga udaleko zerga bat da. Bien erantzuna berdina izan zen: “araubide komunaren eremuan zergaren erreforma aurreikus daiteke;

beraz, proposatutako legeriaren aldaketak azken hori ahaztu gabe jorratu behar dira. Horrez gain, toki erakundeen finantzazioaren berrazterketaren testuinguru globalaren barruan aztertu behar da”. Bi erakundeek zergari lotutako araudian dauden zenbait ahultasun onartu dituzte, baina, hala ere, baieztatu dute une honetan, zerga bilketaren egoera larria kontuan hartuta, ezin dela alde batera utzi. Bestalde, gaineratu dute, azaldu den moduan, ordezkoreen figura neutroa dela zerga bilketaren ikuspuntutik, karga jasanarazteko aukera baitago.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke Ekonomia et Ogasun Departamentuak (Nafarroako Zerga Ogasuna) proposamena egin duen pertsonaren kezka ulertzen dituela, baina, aldi berean, uste du azaldutako gainerako argudioak aintzat hartu behar direla, bai eta zerga bilketan gerta daitekeen galeraren aurrean toki erakundeen egonezina ere.

Azken finean, gorago jasotako arrazoiak direla-eta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ez du uste herritarrak mahai gainean jarri duen legeriaren aldaketa bideragarria denik.

4.3.31. Proposamena, Toki Administrazioa Berriro Antolatzeko Foru Legearen proiektua aldatu dadila, Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako lanpostuei buruzko zenbait alderdiri lotuta.

Gaia: Toki Administrazioko Batzordea. Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako lanpostuak.

Eragindako administrazioa: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentua.

Laburpena: Herritar batek Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa Berriro Antolatzeko Foru Legearen proiektua aldatzeko proposamena egin du. Zehazki, lehenik eta behin zera iradoki du: foru legearen proiektuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzea, Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako lanpostuei buruzkoa, hain zuzen, eta denborari lotutako konpromiso zehatzak barne hartzen dituzten lanpostu hutsak eskaintzeko exijitu dadila.

Bigarrenez, iradoki du aipatutako proiektuan egiten diren hautapen-probak nahitaez oposizio bidez egin daitezen eta ez oposizio-lehiaketa bidez; izan ere, bere ustez, oposizioaren sistemak berme gehiago eskaintzen ditu, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat eginez. Horrez gain, estatu mailan horixe da idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak betetzeko erabiltzen den metodoa.

Emaitza: Herritar batek egin duen proposamena denez eta Nafarroako Parlamentuan izapidetzen ari den foru lege baten proiektuan eragina duenez, hori aztertzea eta baloratzea ez dagokio erakunde honi, parlamentuko taldeen eskumenekoa baita. Hortaz, erakunde honek egokitzat jo zuen proposamena parlamentuko taldeei helaraztea, bai eta atxiki gabeko foru parlamentarietara ere, horren berri eduki dezaten eta egokitzat jotzen duten ondorioetarako.

5. KAPITULUA

TXOSTEN BEREZIAK



Defensor del Pueblo
de Havana
Hizlarroako Arartekoa



5

TXOSTEN BEREZIAK

5.1. EGINDAKO TXOSTENAK.

2012an, Nafarroako Arartekoaren bulegoak honako txostenak egin zituen:

- Bere ekimenez eginiko txosten berezi bat.
- Nafarroako Parlamentuak eskatutako bi txosten berezi.

Txosten horiek interesdun guztien eskura daude erakundearen webgunean, <http://www.defensornavarra.com>, txosten berezien atalean.

Halaber, VI. kapituluan txosten horien ondorioz erakundeak egin dituen gomendioak eta iradokizunak adierazi dira, behar den arloan (euskara eta osasuna).

5.2. ERAKUNDEAK BERE EKIMENEZ EGIN DUEN TXOSTEN BEREZIA.

Jakina den bezala, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, 36.2 artikulua arabera, Nafarroako Arartekoari ahalmena ematen dio Nafarroako Parlamentuaren aurrean ohiz kanpoko txosten edo monografikoak (txosten bereziak ere deituak) aurkezteko, gertakarien larritasunak, garrantziak edo premiak hala eskatzen duenean.

Erakundeak bere ekimenez Nafarroako Arartekoaren eta Espainiako Arartekoaren arteko erakunde-harremanari buruzko txosten berezia prestatu zuen, Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeari aurkeztu zaiona.

Txosten berezi hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2012ko urtarrilaren 20ko 8. alean argitaratu zen, eta 2012ko otsailaren 15eko saioan aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

5.3. NAFARROAKO PARLAMENTUAK ESKATUTAKO TXOSTEN BEREZIAK.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16.d) artikulua ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari bere eskumeneko arloetan txostenak egiteko, Parlamentuak eskatuta.

Arau horren babesean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak bi txosten berezi egiteko eskatu zuen. Honakoak dira txostenak:

1. Txostena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetako profesionalak osasun-azterketetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruz.

- Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2011ko irailaren 6an egindako bileran erabaki zuen hori eskatzea.
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2012ko urtarrilaren 20ko 8. alean argitaratu zen.
- 2012ko otsailaren 15eko saioan aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

2. Herritarren hizkuntza eskubideek hedabideak direla-eta duten benetako egoerari buruzko txostena.

- Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2011ko azaroaren 21ean egindako bileran erabaki zuen hori eskatzea.
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2012ko apirilaren 26ko 39. alean argitaratu zen.
- 2012ko maiatzaren 18ko saioan aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari.

6. KAPITULUA

GOMENDIOAK,
IRADOKIZUNAK ETA
LEGEZKO BETEBEHARREN
GOGORARAZPENAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK

6.1. AITZINSOLASA.

Atal honetan Nafarroako Arartekoak 2012an egin dituen gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak bildu dira.

Egindako gomendio, iradokizun eta gogorazpen horiek hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude, eta haietan Nafarroako xede-administrazioa nahiz edukia, laburbilduta, adierazten dira, hobeto uler daitezen.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen egiturari dagokionez, gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak aipatzen dira, eta 2012ko ekainera arte zeuden departamentuei zuzendutakoak eta ondoren eratu diren departamentuei zuzendutakoak bereizi dira.

Horrez gain, adierazten da administrazio jasotzaileak gomendioa, iradokizuna edo gogorazpena onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen.

Hobeto ulertzeko, informazioa honela antolatu da:

- Lehenik eta behin, gaia.
- Bigarrenez, erakunde edo administrazio jasotzailea: Nafarroako Parlamentua, Arartekoa, Nafarroako Gobernuko departamentu bat, Udal bat, Kontzeju bat, Mankomunitate bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, elkargo profesional bat edo bestelako erakundeak.
- Hirugarrenez, espediente zenbakia, honakoa den (ordena horretan) zehaztuta: kexa (ESP.), ofiziozko jarduketa (OJ), herritarren proposamena (P) edo Parlamentuak eskatutako txostena (PT).
- Laugarrenez, aztertutako gaiaren laburpen laburra.

- Bosgarrenez, gomendioaren, iradokizunaren edo legezko betebeharren gogorarazpenaren testua.
- Seigarrenez eta azkenean, adierazten da erakunde edo administrazio jasotzaileak gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen. Hori onartu ezean, ukoa behar bezala justifikatu den azaldu da.

6.2. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK ARLOKA

6.2.1. Nekazaritza

ARTAZUKO UDALA

12/423 ESP.

Interesdunaren finka baten ondoan dagoen ubide baten egoerari dagokionez:

- Udalarri gomendatzea ubidea egoera onean egoteko behar diren jarduketak gauza ditzala.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

6.2.2. Gizarte ongizatea

LANDA GARAPEN, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA

12/137 ESP.

Ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea, beharrezkoa bada beste administrazio organo batzuekin batera, ezgaitasuna dutenak gizarteratzeko legean ezarritako ezgaitasuna dutenentzako lanpostuen erreserba betetzeari buruz Nafarroan gaur egun dagoen egoera ikertu eta azter dezala.
- Departamentuari iradokitzea ezgaitasuna dutenentzako enplegu zentro bereziak sustatzeko eta pertsona horiek enpresa arruntetan laneratzeko 2011n ezarritako aurrekontu zuzkidurei, gutxienez, eusten saia dadila.
- Departamentuari iradokitzea Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako erreserba gauzatzeko neurriak bultzatu eta har ditzala, horren mendeko beste organo eta erakunde batzuen laguntzaz, eta aurreko aurrekontu ekitaldian esleitutako kontratuen % 6ko zenbatekoa lortzeko, gutxienez, legezko betebeharra dagoela gogoraraztea.
Onartua.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUA ETA IRUÑEKO UDALA

12/502/M ESP.

NASUVINSaren etxebizitza batean alokairu erregimenean bi herritar eta haien seme-alabak bizi dira. Oinarrizko errenta jasotzen zuten bitartean gastuei aurre egin ahal zieten, baina orain dela gutxi kuotaren bat ordaindu ez dutenez, erakunde horrek zorra ordaintzera edo etxebizitza uztera behartu ditu. Pertsona horiek duten beharrizan larriaren egoerari dagokionez:

- Sustapen Departamentuari iradokitzea NASUVINSarekin batera lan egin dezala, familia horrek etxebizitza babestu bat erabiltzeko eskubideari dagokionez adierazten den arazorako irtenbidea bilatzen saiatzeko.
- Iruñeko Udalari iradokitzea ahalik eta lasterren Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko auzo unitateak baloratu ditzala kasu horren zirkunstantziak eta jarduketako aukerak zehatz ditzala, bidezkoa bada, laguntzaren bat emateko familia horri edo, hala denean, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren prestazioetako baten bat edo egokiak izan daitezkeen beste batzuk aktibatzeko.
Onartua.

12/1075/M ESP.

Genero-indarkeriaren biktima den, langabezian dagoen eta amaitzear dagoen langabeziagatiko prestazioa jasotzen duen emakumezko herritar bat eta haren seme-alabak beharrizaneko egoeran daude. Familia babes ofizialeko etxebizitza batean bizi da araubide berezian, eta, kuotaren bat ordaindu ez duenez, jabeak zorra ordaintzera behartu du, eta, ordaindu ezean, abisu gehiago egin gabe, hori auzibidean erreklamatu duela ohartarazi dio, kaleratzeko eskatuta:

- Sustapen Departamentuari iradokitzea gai hori azter dezala eta familia horrek etxebizitza babestua erabiltzeko duen eskubidea ez galtzeko neurriren bat baloratu dezala.
- Iruñeko Udalari iradokitzea ahalik eta lasterren Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko auzo unitateak baloratu ditzala kasu horren zirkunstantziak eta jarduketako aukerak zehatz ditzala, bidezkoa bada, laguntzaren bat emateko familia horri edo, hala denean, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren prestazioetako baten bat edo egokiak izan daitezkeen beste batzuk aktibatzeko.
Onartua.

GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA.**11/725 ESP.**

% 33ko minusbaliotasun maila aintzatesteko ukoari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea, minusbaliotasun mailaren ziurtagiria nolabait administrazio irregulartasun bat dela kontuan hartuta, hainbat erakunde edo organismoren aurrean bere minusbaliotasun maila errazago egiaztatu ahal izateko kexaren egileak ziurtagiria emateko eskatzen badu, hori eman dezala.
- Departamentuak legezko betebeharra du herritarrek aurkezten dituzten eskabide eta eskaera guztiei garaiz eta behar bezala beren-beregi erantzuteko, besteak beste, kexaren egilearen eskaerari.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

11/728 ESP.

Alaba jaioberriaren zaintza administratiboa hartzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea adingabeak babestearen arloan hartzen dituen neurriak beren-beregi justifikatzeko legezko betebeharra duela, kautelazko edo behin-behineko izaera dutenak barne, baita eragindako pertsonen jakinarazteko legezko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kasua berriro ebaluatu dezala, egungo zirkunstantzien eta amaren erabilgarritasunaren arabera, eta, beharrezkoa bada, harekiko esku-hartzea eta laguntza eta alaba egoera egokietan itzultzea dakarten neurriak areagotu ditzala, familiaren berrintegrazioa bultzatuta.
Onartua.

11/777 ESP.

Oinarrizko errentari buruzko espediente baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek oinarrizko errentaren prestazioari buruz egiten dituzten eskaerak epe barnean ebazteko legezko betebeharra duela.
Onartua.

11/788 ESP.

Duen beharrian larriaren egoeratik oinarrizko errenta premiaz bideratu beharri dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek oinarrizko errentaren prestazioari buruz egiten dituzten eskaerak epe barnean ebazteko legezko betebeharra duela.
Onartua.

11/818 ESP.

Mendekotasunaren arretarako arloan hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duen urriaren 21eko 103/2011 Foru Aginduari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea etxebizitzan geratzeko laguntza ekonomikoa eta eguneko zentroaren erabilera oro har bateragarri egiteko aukera aztertu eta baloratu dezala.

Ez da onartu.

11/826 ESP.

Oinarrizko errentari buruzko espediente baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek oinarrizko errentaren prestazioari buruz egiten dituzten eskaerak epe barnean ebazteko legezko betebeharra duela.

Onartua.

12/6/M ESP.

Mendekotasun egoera baloratzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kasu hori berrikus dezala, egokia bada, interesduna ados gonda haren mendekotasun egoeraren ebaluazio eguneratua eginda.

Ez da onartu.

12/7/M ESP.

Eguneko zentro batera doazen eta, haien mendekotasun maila dela-eta, garraioagatik prestazioa bermatuta ez duten pertsonen dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea eguneko zentro horretara doazen eta, haien mendekotasun maila dela-eta, garraioagatik prestazioa bermatuta ez duten pertsonen prestazio hori aintzatetsita duten erabiltzaileen esku jartzen diren garraio bideen bidez garraiatzeko aukera eman diezaiela, bidezko kostua ordainduta, erabiltzaile horien beharrianak estali ondoren plaza librerik baldin badago.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/28 ESP.

Oinarrizko errenta berritzeari buruzko espediente baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.

- Kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala gomendatzea.

Onartua.

12/78 ESP.

Oinarrizko errentaren eskaera baloratzeko eta ebazteko unea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala.

Onartua.

12/117 ESP.

Oinarrizko errentari buruzko eskaera baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriaren Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala.

Onartua.

12/137 ESP.

Zenbait elkarteren (adibidez, CORMIN) eta horiek ordezkatzan dituzten ezgaitasuna dutenen egungo egoerari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea etxebizitzan zainketak eskuratzeko laguntza ekonomikoa, eguneko zentroaren zerbitzuaren prestazioak eta lehenengoaren zenbatekoan behar diren modulazioak oro har bateragarri egiteko neurriak har ditzala.
- Departamentuari gomendatzea mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzen deialdia onesten duen abenduaren 23ko 247/2011 Foru Aginduaren eragina ikertu eta azter dezala, eta mendekoek unera arte jaso dituzten prestazioak ez murrizteko beharrezko neurriak har ditzala, haien arreta beharizanen maila eta baliabide ekonomikoak aldatu gabe.
- Departamentuari gomendatzea Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Emateko Plan Integralean ezarritako neurriak ezartzeko bidean aurrera egin dezala, eremu horretan lan egiten duten erakundeen laguntzaz, garatu beharrezko jarduketak denboran programatuta eta ondorio horretarako beharrezko aurrekontu zuzkidurak aurreikusita.

- Departamentuari gomendatzea, Ezgaitasuna duten Pertsonei Arreta Emateko Plan Integralaren lan-eremuaren barnean, mendeko pertsonentzako eta ezgaitasuna dutenentzako prestazioak bateragarri egin ditzala eta kolektibo bati zein besteari zuzendutako jarduketak programatu eta argitu ditzala, bi kolektiboetarako arreta bermatuta.
 - Departamentuari gomendatzea ezgaitasunaren arloko irabazi-asmorik gabeko erakundeen urte anitzeko finantzaketa sistema, erakunde horien bideragarritasuna eta iraunkortasuna zein haien garapen etengabea hobeto bermatzen dituen, ezartzeko beharrezko neurriak aztertu eta har ditzala.
- Onartua.**

12/287/M ESP.

Nafarroako Gobernuko Adingabeak Babesteko Zerbitzuak adingabe bat zaindu eta jarraitzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea egokitzat jotzen dituen jarraibideak eman ditzala, Adingabeak Babesteko Zerbitzuak adingabea zaintzeko irtenbide onena bilatu eta kasuaren jarraipen berezia egin dezan.
- Onartua.**

Gizarte Politiketako Departamentua

11/733 ESP.

Adinekoen arloan audiofonoak erosteko laguntza ekonomikoa ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek egiten dituzten eskaera guztiak epe barnean ebazteko legezko betebeharra duela, haien kontuen administrazio onerako duten eskubidea gauzatuta.
 - Departamentuari gomendatzea herritarren eskaeren kalifikazio berria egin dezala herritarren planteamenduaren jarduketa behar bezala agertzen ez denean edo kalifikazio berritik horretarako aldeko ondorioak ondorioztatzen direnean.
 - Departamentuari gomendatzea kasu horretan kexaren egilearen eskaera ebatz dezala, haren benetako izaera (adinekoen arloko ohiz kanpoko laguntza edo adinekoentzako laguntza teknikoa) kontuan hartuta, gaur egun dagoen aurrekontu erabilgarritasunaren arabera.
- Onartua.**

11/849 ESP.

Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoen eta mugikortasunerako laguntzen deialdia onesten duen ekainaren 2ko 186/2011 Foru Aginduan ezarritako laguntzak eteteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoen eta mugikortasunerako laguntzen deialdia, foru agindu horrek egindako deialdiaren arabera ezgaitasuna duten pertsonentzako elementuak eskuratu zituztenei parte hartzeko aukera bermatzen diena, ahalik eta lasterren egiteko aukera aztertu eta baloratu dezala.

Onartua.

12/71 ESP.

Oinarrizko errentaren eskaera baloratzeko eta ebazteko unea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala.

Onartua.

12/72 ESP.

Kexaren egilearen ezintasun judiziala sustatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea, egoitzazko zerbitzu publikoen eremuan, erabiltzaileen ezintasuna sustatzeko Justizia Administrazioan bideratu daitezkeen komunikazioak haien familiei jakinarazteko behar diren jarraibideak eman ditzala.

Onartua.

12/98 ESP.

Hirugarren semea/alaba jaiotzeagatiko laguntza ekonomikoaren eskaerari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek aurkeztutako eskaerak aplikatu beharreko araudian ezarritako gehieneko epearen barnean ebazteko legezko betebeharra dela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea, hori egin ez badu, kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala.
- Departamentuari iradokitzea 2012ko ekitaldian hirugarren semea/alaba duten familientzako laguntzen deialdia onets dezala, bertan kexaren kasuari eta aurrekontu kreditu nahikorik ez egoteagatik 2011n aztertu ezin izan zirenei erantzunda.

Onartua.

12/100 ESP.

Oinarrizko errenta berritzeari buruzko espediente baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebazteko deiala.

Onartua.

12/139 ESP.

Lagundutako garraio zerbitzua erabiltzeagatik kexaren egilearen amari kobratzen zaion prezioari dagokionez:

- Mendekotasunaren Nafarroako Agentziaren Gobernu Kontseiluaren 2011ko azaroaren 24ko Erabakiak biltzen duen lagundutako garraio zerbitzuen prezioa arautzeko edukia berrikus dezala gomendatzea, kostua erabiltzaileen artean hobeto berdinbanatzen saiatuta.

Onartua.

12/190 ESP.

Eskatzen den egunaren aurreko bi urteetan Nafarroan etengabe bizi izateko baldintza bete ez dela oinarri hartuta, gizarteratzeko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egilearen gizarteratzeko errentaren ukoa berrikus dezala, Nafarroan aurretik bizi izateko baldintza betetzat jota eta prestazioa behar den zenbatekoan emanda.

Onartua.

12/195 ESP.

Gizarteratzeko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kasu horretan kexaren egileak sustatutako espedientea ebazteko gehieneko epea amaitu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatu dezala.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/199 ESP.

Adingabea hartzeagatiko laguntzarik ezari eta aurkeztutako errekurtsu bati ez erantzuteari dagokionez:

- Departamentuak eskolatze helburuarekin adingabeak mugitzeko programetan, atzeritarrei buruzko legedian ezarritakoetan, parte hartzen duten familiei laguntzeko prestazio ekonomikoa ezartzeko edo sustatzeko aukera azter dezala gomendatzea, egokitzat jotzen diren betekizunak, baldintzak eta edukia errespetatuta.

Onartua.

12/203 ESP.

Komunikazioa eta informazioa errazten dituzten euskarri produktuak eskuratzeko Mendekotasunerako Nafarroako Agentziak eskainitako laguntza eteteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoen eta mugikortasunerako laguntzen deialdia, ekainaren 2ko 186/2011 Foru Agindua egindako deialdiaren arabera ezgaitasuna duten pertsonentzako elementuak eskuratu zituztenei parte hartzeko aukera bermatzen diena, ahalik eta lasterren egiteko aukera aztertu eta baloratu dezala.

Onartua.

12/221 ESP.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko laguntza ekonomikoa emateko unea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek aurkezten dituzten eskabide eta eskaera guztiei garaiz eta behar bezala beren-beregi erantzuteko legezko betebeharra duela, besteak beste, kexaren egilearen eskaerari.

Onartua.

12/228 ESP.

Krisi ekonomikotik ondorioztatutako aurrekontu murrizketetan babestuta, Nafarroako Gobernuaren eta Departamentuaren artean adostu diren mendeko pertsonen laguntzeko unea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea mendekotasunaren arretarako zerbitzuak mendeko pertsonen benetako beharrezanetara egokitzea, ahal den neurrian baliabide teknikoak eta ekonomikoak pixkanaka gehitzen saiatuta, mendeko pertsonentzako arreta osoa eta kalitatekoa bermatzeko.

- Departamentuari iradokitzea 103/2011 eta 247/2011 Foru Aginduek ezarritako bateragarritasun sistema araudi bidez osatzeko aukera azter dezala, kasu zehatz batean prestazio bat baino gehiago eskatzen duen banakako arretarako programa ezartzea teknikoki gomendatzen duten zirkunstantziak daudenean salbuespena egin ahal izan dadin.

Ez da onartu.

12/229 ESP.

Gizarteratzeko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarritzko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriaren Departamentuari gomendatzea kasu horretan kexaren egileak sustatutako espedientea ebazteko gehieneko epea amaitu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatu eta, horren ondorioz, oinarritzko errenta eman ditzala.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/255 ESP.

Ezgaitasuna duten pertsonak zentroetara sartzeko zerrenda bat kudeatzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kexak aipatzen duen zerbitzua edo antzekoak eskuratzeko itxaron-zerrendak kudeatzeko aplikatu daitezkeen irizpideak argitaratu ditzala. Gainera, zerbitzu horiek eskuratzeari dagokionez, interesdunek ezinbestekoak ez diren edo errepikakorrek diren izapide formal guztiak (adibidez, plaza baten eskaintza ukatu ondoren eskaera berriak aurkeztea) egitea eragotz dezala gomendatzea.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egilearen alaba lehengo itxaron-zerrendan sar dezala berriro, beste eskaera bat edo jada Administrazioaren eskuetan dagoen dokumentazioa aurkezteko eskatu gabe.
Onartua.

12/257 ESP.

Kexaren egileari gizarteratzeko errenta berritzeko ezintasunari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kexaren egileak adierazitako egoera egiazta dezala, eta, hori egiaztatuta ondoren, ezarritako baldintzak betetzen badira, gizarteratzeko errenta salbuespen gisa berritzea onar dezala, haren pobrezia larriaren egoera arintzeko.
Onartua.

12/261 ESP.

Oinarritzko errentaren eskaera ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea kasu horretan kexaren egileak sustatutako espedientea ebazteko gehieneko epea amaitu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatzea eta, horren ondorioz, eskatutako prestazioa ematea.
- Departamentuari iradokitzea, aurretik bizi izateko epeak hogeita lau hilabetekoa izaten jarraitzen badu, modu subsidiarioan baloratu ditzala interesdunak

Nafarroatik aldi baterako irten eta itzultzeari dagokionez aipatu dituen zirkunstantziak.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/270 ESP.

Oinarrizko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gogoraraztea kasu horretan kexaren egileak sustatutako espedientea ebazteko gehieneko epea amaitu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatzea.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/272 ESP.

% 88ko minusbaliotasuna duen arrebari 2012ko martxora arte jaso duen mendeko pertsonak etxean egoteko laguntza kentzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea etxebizitzan geratzeko laguntza ekonomikoa eta eguneko zentroaren erabilera oro har bateragarri egiteko aukera aztertu eta baloratu dezala.

Ez da onartu.

12/283 eta 12/393 ESP.

Oinarrizko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuak pobrezia-aren benetako egoeran dauden eta, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik, gizarteratzeko errenta eskuratu ezin duten pertsonen oinarrizko beharrianak aldi baterako estaltzea ahalbidetzen duten laguntza ekonomikoak ezartzen dituen araua ahalik eta lasterren sustatzeko aukera azter dezala gomendatzea.”

Onartua.

12/296 ESP.

Eguneko arreta emateko Sarrigurengo Las Hayas egoitza zentro horren antolaketaren barnean Monjardín eguneko zentroko erabiltzaileak (ezgaitasuna duten helduak) egoitza zentrorantz eramatearekin ados ez egoteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea interesdunei Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Emateko Plan Integralean eguneko zentroari dagokionez hasieran ezarritakoa aldatzea eragin duten arrazoiak eta aldaketa horrek eguneko zentro horretako erabiltzaileei eragin negatiboa sortzea eragozteko gauzatuko diren jarduketak zehatz ditzala.

- Departamentuari iradokitzea Iruñeko Monjardín eguneko zentroko Adimenezteratasun larria duten pertsonen Gurasoen eta Tutoreen Elkarte-APAMOri Monjardín eguneko zentroko erabiltzaileek Sarrigurengo kokaleku berria jasoko duten arreta diseinatzen parte hartzeko aukera eman diezaiola, haien ikuspuntua eta esperientzia gehi diezaieten antolaketa eta kudeaketa aldeei.
- Departamentuari gomendatzea ahaleginak egin ditzala, Monjardín eguneko zentroko erabiltzaileen kokapen berriak zentro horrek gaur egun garatzen duen proiektuan eragin negatiboa izan ez dezan. Horretarako, eguneko zentroko erabiltzaileei proiektuaren kalitateari, autonomiari eta eguneko zentro gisa dituen jardueren garapenari eusteko behar diren kanpoko eta barneko espazioak esleitu beharko litzaizkieke, batez ere posibletzat jotzen den kokalekua egoitza zentroa dela kontuan hartuta.
- Departamentuari iradokitzea, Las Hayas zentroko egoitza arreta eta Monjardín eguneko zentroko proiektua espazio fisiko berean batzeko bideraezintasuna egiaztatzen bada, eguneko zentroa kokatzeko espazio egokia aurkitzeko lan egiten jarrai dezala.
Zati batean onartu da.

12/297 ESP.

Oinarrizko errenta berritzea ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kasu horretan kexaren egileak sustatutako espediente ebazteko gehieneko epea amaitu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatu dezala.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/335 ESP.

Hirugarren semea/alaba jaiotzeagatiko familientzako laguntza ekonomikoa ez ordaintzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek hirugarren semea/alaba jaiotzeagatiko laguntza ekonomikorako aurkeztutako eskaerak aplikatu beharreko araudian ezarritako bi hilabeteko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea, aplikatu beharreko araudiak eskatutako baldintzak betetzen badira, laguntza ekonomikoaren eskatzaileak hori jasotzeko behar diren neurriak har ditzala.
Onartua.

12/341 ESP.

Mendekotasun sistemaren prestazioak eskuratzeko eskaera bat bideratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea mendekotasun sistemaren prestazioak eskuratzeko eskaerak aplikatu beharreko legedian ezarritako gehieneko epean ebazteko legezko betebeharra duela.
- Departamentuari gomendatzea, kexaren xedea den artxibatze epea ebazpena ondorioz gabe utzita, interesdunari hala denean eskuratzeko eskubidea izan dezakeen mendekotasun sistemaren prestazioa eman diezaiola, eskaeraren aurkezpenaren arabera bidezkoa den egunetik aurrera ondorioak sortuta.
- Departamentuari iradokitzea, mendekotasunaren prestazioak eskuratzeko prozedurak bideratzeari dagokionez, gizarte zerbitzuen sistemaren oinarriko mailan lan egiten duten atalekin koordinatzeko neurri berriak hartzea aztertu eta bultzatzea, eskumena duten beste erakunde edo administrazio organo batzuen laguntzaz.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/356 ESP.

Emaztearen gizarteratzeko errenta berritzea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea gizarteratzeko errentaren prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.
- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebatz dezala.
Onartua.

12/393 ESP.

Bizirauteko edozein laguntza ekonomiko ukatzeari dagokionez:

- Departamentuak pobrezia benetako egoeran dauden eta, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik, gizarteratzeko errenta eskuratu ezin duten pertsonen oinarriko beharrezan aldi baterako estaltzea ahalbidetzen duten laguntza ekonomikoak ezartzen dituen araua ahalik eta lasterren sustatzeko aukera azter dezala gomendatzea.
Onartua.

12/464 ESP.

Gizarteratzeko errenta berritzeari buruzko espediente baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek gizarteratzeko errentaren prestazioari buruz egiten dituzten eskaerak epe barnean ebazteko legezko betebeharra duela.
Onartua.

12/500 ESP.

Gizarteratzeko errenta berritzea ohiz kanpoko arrazoiengatik ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea interesdunaren egoera berrius dezala eta gizarteratzeko errenta berritzea salbuespen gisa onar dezala, Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen 5.2 artikuluan xedatutakoaren babesean.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/511/M ESP.

Lau eta zortzi urteko bi adingabek duten babesgabetasun egoerari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kasuaren egungo zirkunstantziak azter ditzala eta, adingabeak babesteari buruzko legedian ezarritakoaren esparruan, egoerarako egokia izan daitekeen neurriren bat aplikatu daitekeen baloratu dezala.

Onartua.

12/763 ESP.

Gizarteratzeko errenta berritzeko eskaera ez ebazteari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebazteko dezala.

Onartua.

12/874 ESP.

Oinarrizko errenta jasotzeari buruzko eskaera baten ebazpena geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea oinarrizko errentaren edo gizarteratzeko prestazioaren eskaerak indarrean dagoen araudian ezarritako berrogeita bost eguneko gehieneko epearen barruan ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta epe horren barruan hartutako erabakiak jakinarazteko betebeharra ere.

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztutako eskaera ahalik eta lasterren ebazteko dezala.

Ez da onartu.

12/960 ESP.

Kexaren egilearen amak jasotzen duen laguntza ekonomiko urriari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kexaren egilearen amaren prestazioa aldatzeko eskaera baloratu dezala eta, eman dakioken prestazio berria handiagoa bada,

horixe eman dezala prestazio berria eskuratu ahal zuen egunetik ondorioak izanda.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/1045 ESP.

Departamentuak gizarteratzeko errenta ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileari gizarteratzeko errenta eman diezaiola, eskaera aurkeztu aurreko bi urteetan Nafarroan etengabe eta benetan bizi izan dela egiaztatzen duten behar beste dokumentu aurkeztu baititu.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/1109 ESP.

Haren beharrian egoera larria dela-eta eskatu dituen laguntzak bideratzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea herritarrari gizarteratzeko errenta eman diezaiola, urtarriaren 23ko 1/2012 Foru Legearen 4.1 d) artikulua ezarritako baldintza betetzen den egunetik ondorioak izanda, beharrezkoa bada balorazio eguneratua egin ondoren.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA ETA SUSTAPEN DEPARTAMENTUA

12/367 ESP.

Ezgaitasuna duten pertsonentzako pisu funtzional batean plaza bat ez emateari eta bizileku duen etxebizitza babestuaren alokairua ordaintzeko diru-laguntza kentzeari dagokionez:

- Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea interesdunari babespeko pisuaren/pisu funtzionalaren zerbitzua emateko legezko betebeharra duela, gizarte zerbitzuen sistemaren prestazio bermatua den aldetik.
- Sustapen Departamentuari gomendatzea, aurretik aipatutako zerbitzua ematen ez den bitartean, interesdunak alokairu erregimenean bizileku duen etxebizitza babestua ordaintzeko jasotzen zuen diru-laguntzari euts dakiola.
- Sustapen Departamentuari gomendatzea martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretua aldatzeko aukera azter dezala, horren arabera ezintasunagatik bereiziko ez dela, eskubideen titulartasunaren ondorioetarako.
Onartua.

12/406 ESP.

Herritarraren bihotzak funtzionatzeko behar den eta etengabe sare elektrikora konektatuta dagoen kanpoko monitoretik eta kanpoko baterietatik ondorioztatutako argindarra hornitzeko gastuak ordaintzeko laguntza eskaerari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kexaren egileari ezarritako bizitzeko tratamendu mediko berritik ondorioztatutako elektrizitate gastuak Gizarte Zerbitzuen Zorroko

Katalogoan dauden laguntzetako baten bat eman ez edo hain kasu berezietarako ohiz kanpoko eta berariazko laguntzaren bat sortuz ordaintzeko aukera azter dezala.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

OJ_15_12

Haien sexu-orientazioa alde batera utzita, pertsona guztien benetako berdintasuna lortzeko neurriei dagokienez:

- Gizarte Politiketako Departamentuari gomendatzea, haien sexu-orientazioa alde batera utzita, pertsona guztien benetako berdintasunaren printzipioa bermatzeko eta jarrera homofoboak saihesteko eta, hala denean, desagerrarazteko beharrezkotzat jotzen diren neurri guztiak babesten eta hartzen jarrai dezala.
- Gizartean aurreiritzi, jarrera, jokaera edo adierazpen homofobo argiak daudenez, Nafarroako Gobernuak afektibitate-orientazio homosexuala duten pertsonenganako errespetua hainbat eremutan (hezkuntza, lana, gizartea eta abar) bultzatzeko plana egitea orain edo etorkizunean eraginkorra izan daitekeen baloratu dezala iradokitzea. **Onartua.**

OJ_34_12

Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari dagokionez:

- Haurtzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen araudi garapena osatzea eta, alde horretatik, adopzioaren arloko araudia ahalik eta lasterren onestea eragitea.
- Adingabeei babesa ematearen arloan diharduten agenteei (Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua, oinarritzko gizarte zerbitzuak, laguntzaile diharduten ekimen sozialeko entitateak eta abar) behar dituzten baliabideak ematea edo horiek ematea sustatzea (giza baliabideak, baliabide materialak edo baliabide teknikoak), esleituta dauzkaten eginkizunei behar den bezala ekin ahal izateko.

Alde horretatik, aurre egin behar duten jarduera maila handia eta bertan antzematen den gehikuntza kontuan hartuta, egungo zuzkidurei, gutxienez, euts dakiela eta, ahal bada, horiek gehitu daitezela iradokitzen da, baita zuzkidura horiek babes sistemaren esku-hartzeen eskaeraren bilakaerara egokitu daitezela ere.

- Jarduketa-ildo zehatzak ezartzen jarraitzea izaera orokorreko plangintza-tresna estrategikoen esparruan, jarraipen-adierazleak ezarrita eta urtero edo maizago eginda berrikusketak edo gaurkotzeak, egoeraren bilakaerari nahiz unean-unean detektatzen ahal diren beharrezkoen edo defizitei erreparatuta.
- Adingabeen eskubideak eta eginbeharrak bai gizartean, oro har, bai adingabeen eremuan bertan hedatzeko lana areagotzea. Horri dagokionez, adingabeei zuzenean

eta berariaz zuzentzen diren ekintzak gauzatu edo sustatzea, adingabea babestearen arloan eskumena duten organoen eta hezkuntza administrazioaren artean, funtsean, koordinatutako neurriak dituztenak.

- Administrazio organoen eta adingabeei arreta ematen dieten gizarte ekimeneko erakundeen arteko koordinazio neurriak hartzen jarraitzea, prebentzio neurriak bultzatzeko eta elementu arriskutsuak goiz antzemateko, gehienbat.

Gizarte zerbitzuen sistemarekin zerikusirik ez duten erakundeekiko eta, bereziki, hezkuntza eta osasun eremuekiko koordinazioari arreta berezia ematea.

- Prebentzioaren arloan programak edo ekintzak gauzatzea ondoko esparruetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisia eta animazioa, eta prestakuntza eta enplegua.
- Egoera arriskutsuetan esku-hartze goiztiarra lehenesten jarraitzea, eta, alde horretatik, egoera horiek antzemateko dauden gailuak eta mekanismoak indartzea, ahal den neurrian, zirkunstanziek adingabeen babesgabetasuna adierazi beharra zehaztea eragozten saiatzeko. Bereziki, Nafarroako lurralde osoan bitarteko taldeak (Haur eta Nerabeentzako Arreta Taldeak edo antzekoak) ezartzea orokortzea.
- Babesgabetasun egoeran dauden eta familia-nukleotik bereizi diren adingabeak dituzten familiekiko esku-hartzea areagotzea, ahal den neurrian, itzultzea bideragarri egiteko beharrezko baldintzak sortzen saiatuta, nolana ere adingabearen interes handiagoari kalterik egin gabe.
- Familia-harrera sustatzen duten neurriak hartzea, ahal den neurrian egoitza-harrera murriztuta, eta, bereziki, sei urtetik beherako umeen kasuan egoitza-harrera desagerrarazten saiatuta.

Alde horretatik, familia hartzaileei laguntza teknikoa eta ekonomikoa areagotzea proposatzen da.

Zehazki, hauek proposatzen dira:

- a) Esparru orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroaren aldaketa, familia-harrerarako laguntzak gehitzen dituen, sustatzea.
 - b) Nafarroako Zerga Ogasunarekin batera, familia hartzaileentzako zerga onuren legegintza aldaketa aztertu eta bultzatzea, batez ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.
- Familia-harrerei dagokienez, familia zabaletan egindakoak gehitzen saiatzea, familia-eremu horretan umeak haien jaioterririk ahalik eta hurbilen egotea sustatzen laguntzen duten esku-hartzeak eta jarduketak gauzatu.

- Adopzio prozedurak eta egokitasun deklarazioak malgutzeko eta bizkortzeko neurriak hartu beharra azpimarratzea.

Gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako programekin jarraitzea eta, ahal dela, horiek areagotzea, prebentzio, hezkuntza, kultura, gizarteratze, eta, hala denean, lan eremuetako neurriak ezarrita. Programa horietan egoera horretan dauden adingabeak dituzten familientzako arreta eta laguntza bereziak sartuko dira.

- Autonomia pertsonaleko programak indartzea, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta, neurri judizial edo administratiboren bat jaso duten nerabeek helduarorako iraganbide egokia eduki ahal izan dezaten.
- Erreforma sistemaren esku-hartzea gutxitu beharrari dagokionez, ahaleginak egitea gatazka eta jarrera zigorgarriak ekar ditzaketen egoerak saihesteko eta antzemateko eginkizunetan, eragindako erakundeen artean jarduketak koordinatuta: familia, gizarte eta hezkuntza eremuak, batez ere.

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

12/137 ESP.

Zenbait elkarteren (adibidez, CORMIN) eta horiek ordezkatzan dituzten ezgaitasuna dutenen egungo egoerari dagokionez:

- Departamenturi gogoraraztea Nafarroako Gobernuak Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea garatzeko legezko betebeharra duela, bai horrek eskatutako araudizko arauak onetsiz bai lege horretan ezarritako ezarpen neurriak hartuz.
- Departamentuari gomendatzea, arauaren zeharkako izaera kontuan hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arloan 5/2010 Foru Legearen aurreikuspenak materialki eraginkorrak izateko behar diren jarduketak bultzatu eta koordinatu ditzala.
- Departamentu horri iradokitzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako lan publikoaren esparruan, ezgaitasuna duten pertsonen hori eskuratzeko duten egungo egoera ikertu eta azter dezala, eta, beharrezkoa bada, indarreko legedian xedatutakoa betetzeko behar diren neurriak har ditzala.

Onartua.

ZIZUR NAGUSIKO UDALA

12/477/M ESP.

Kide guztiak langabezia dituen familia baten beharrian larriaren egoerari dagokionez:

- Udalari iradokitzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak baloratu ditzala kasu horren zirkunstantziak eta jarduketako aukerak zehatz ditzala, bidezkoa bada, laguntzaren bat emateko familia horri edo, hala denean, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren prestazioetako baten bat edo egokiak izan daitezkeen beste batzuk aktibatzeko.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

12/67 ESP.

Ezgaitasuna duen pertsona izateagatik 12 zenbakiko linearen geltoki batean dituen zailtasunei dagokienez (geltokia ez omen da irisgarria egoera hori duten pertsonentzat, espaloia oso estua da, eta garraiora sartzea larriki oztopatzen duten sustraiak eta zuhaixkak daude):

- Udalari iradokitzea bus geltokiak eta haien ingurua etengabe zaindu ditzala, ezgaitasuna duten pertsonen bus geltokietara eta autobusetara normaltasunez sartzea eragotz dezaketen oztopoak (adibidez, sustraiak, objektuak eta abar) kentzeko ondorioetarako.
Onartua.

12/707/M ESP.

Iruñeko kaleetan bizi den, etxebizitza eta janaria izateko inolako diru-sarrerarik jasotzen ez duen eta programatutako ebakuntza kirurgiko bat egin zain Iruñean dagoen herritar batek duen beharrian larriaren egoerari dagokionez:

- Udalari iradokitzea kasu horren zirkunstantziak baloratu ditzala eta jarduketako aukerak zehatz ditzala, ahal bada interesdunari udal aterpetxearen zerbitzua emanda edo, hala denean, gizarte zerbitzuen sistemaren laguntzaren bat, egoera hori arintzea eta bereziki ostatua emateko etxebizitza ez izatea arintzea ahalbidetzen duena, bideratu eta ematea aztertuta.
Ez da onartu.

Nafarroako Parlamentua

12/137 ESP.

Zenbait elkarteren (adibidez, CORMIN) eta horiek ordezkatzan dituzten ezgaitasuna dutenen egungo egoerari dagokionez:

- Parlamentuari iradokitzea mendekotasunaren eta ezgaitasunaren arloetarako berariazko parlamentu batzordea sortzeko eskaera baloratu dezala eta, egoki baderitzo, horri erantzun diezaiola.
Ez da onartu.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

OJ_20_12

Mendekotasunaren murrizketen konstituzionaltasunari dagokionez:

- Herriaren Defendatzaileari iradokitzea mendekotasun sistemaren prestazioen eta sistema horri lotutako beste alde batzuen (Lehiakortasuna Bermatzeko eta Aurrekontu Egonkortasuna Sustatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak ezartzen duen aldi baterako araubidea, besteak beste) arteko bateraezintasuna konstituzioaren esparruan sartzen diren eta mendekotasun sistemaren onuradunen eskubideak errespetatzen dituzten azter dezala.

Onartua.

6.2.3. Kontsumoa

GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

11/556 ESP.

Kontsumoko Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu zen erreklamazioa bideratzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kontsumoko arbitrajearen bidez gatazka bat ebazteko interesa izan dezaketen aldeei jakinarazpenak egin diezazkiela ahalik eta modu eraginkorrenean, horrela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestuta, prozedura judizial bati jo behar izan gabe, eta kasu zehatz honetan, oraindik egin badaiteke, enpresari berriro jakinarazten saia dadila.

Ez da onartu.

12/216 ESP.

Eskainitako zerbitzuen prezioei buruzko (zergak barne) informazio osoa ez emateagatik eta kontsumitzaileen esku derrigorrezko erreklamazio-orriak ez izateagatik Nafarroako Gobernuako Kontsumo Zerbitzuak ezarritako zehapen bati dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileari ezarritako zehapenak ondoriorik gabe utz ditzala, zehapenaren egilea bera (pertsonea fisikoa) ez izateagatik, bera langile duen enpresa (pertsonea juridikoa) baizik.

Ez da onartu.

OJ_07_12

Erakunde honetan orain dela gutxi jaso diren kexetatik abiatuta, kontsumitzaileen eskubideak babesteko berme publikoek nola funtzionatzen duten egiaztatzeari dagokionez:

- Gizarte Politiketako Departamentuari iradokitzea, herritarrek beren eskubideak urratu direla uste izateagatik erakunde honek Departamentuari herritarren kontsumo arloko erreklamazioa bidaltzen dion gutzietan, kontsumoaren arloan

eskumena duen organoak kexari alta eman diezaiola bere erregistroan eta administrazio artxiboetan, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak zuzenean haren bulegoetan aurkeztutako erreklamazioa izango balitz bezala, bidezko inskripzioak eta gainerako administrazio ekintzak gauzatuta eta, datu gehiago behar izanez gero, interesdunari zuzenean eskatuta.

- Departamentuari iradokitzea, telefono bidezko komunikazioei eta interesdunek prozedura arintzeko egiten dituzten beste kudeaketa batzuei kalterik egin gabe, herritarrei idatziz bidal dakizkiela zuzentzeko eskaerak eta prozesuan egiten diren beste guztiak.
- Departamentuari iradokitzea, Departamentuak edo Kontsumoko Arbitraje Batzordeak kontsumitzailea babesteko prozedura ebatzi ondoren, erakunde honi emaitzaren berri eman diezaiola, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 1.1 artikuluan ezarritako ondorioak izanda.
- Departamentuari gogoraraztea Nafarroako Arartekoak ikuskatzen duen administrazioak horrek eskatzen dizkion administrazio espedienteak bidaltzeko legezko betebeharra duela.

Erantzunaren zain dago.

OJ_29_12

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legezko interesak babesteko administrazio prozedura eraginkorrak egoteari dagokionez:

- Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea, kontsumoaren arloan eskumena duen aldetik, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Gobernuaren artean ezarritako prozedura orokorraren bidez erakunde horren errekerimenduei epearen barnean eta behar bezala erantzuteko legezko betebeharra duela, eskatutako informazioa eta administrazio dokumentazioa emateko asmoz, behar ez bezalako edo justifikatu gabeko atzerapenik eta luzapenik gabe, baita Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarritako epeen eta bideen barnean jakinarazitako legezko betebeharren gomendioei, iradokizunei eta gogorarazpenei erantzuteko legezko betebeharra ere.
- Gizarte Politiketako Departamentuari ohartaraztea horrek herritarren, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen konstituzio eskubideen bermatzailea den parlamentu erakunde honekin izandako lankidetzaren urria izan dela. Izan ere, aldi zehatz batzuetan izan ezik, ez du eman herritarrek egindako kexetatik ondorioztatutako jarduketan azken emaitzari buruzko informazioa, bai emaitza hori ezagutzeko bai kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen alde egindako administrazio jarduera ikuskatu ahal izateko, erakunde honek beren-beregi —eta noizean behin, behin baino gehiagotan— eskatu duela informazio hori Departamentuari bidalitako idazkietan.

- Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloan eskumena duen beste edozein administrazio organori gogoraraztea arbitraje eskaerari buruzko dokumentazioa zuzentzeko izapidean eskaera emandako ereduaren ez aurkeztea edo, are gutxiago, NANaren kopia ez aurkeztea ezin direla banan-banan edo batera jo eskaera artxibatzeke arrazoitzat, arbitraje eskaera ondorioztatzea ahalbidetzen duten beste eredu batzuk erabili badira.
- Lege mailako arau batek eskatu ezean, Administrazioaren aurrean eskaerak aurkezteko eredu bakarrak edo zehatzak edo NANaren kopiak beharrezkoak ez direla gogoraraztea, nahikoa dela interesdunaren identifikazioa islatzen duten datu pertsonalak, jakinarazpenetarako helbidea eta administrazio jarduerari dagokionez duen asmoa dituzten eskaerak aurkeztea.
- Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloan eskumena duen beste edozein administrazio organori gomendatzea ez dezala adieraz erreklamazio edo arbitraje eskaerak artxibatzeke, ezarritako eskaeren aurkezpen eredu edo interesdunaren NANaren kopia ez aurkezteagatik.
- Gizarte Politikako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea baldintzak eta eskatu beharreko dokumentazioa (edozein direla ere) betetzeari dagokionez erreklamazio-egileei aurrez aurreko orientabide eta aholkularitza zerbitzua eman diezaiela, agertutako kontuari buruzko funtsezko erabakia har dezaten, espedienteak indargabetzea edo formazko kontuengatik artxibatzea eragotzita.
- Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari edo kontsumoaren arloan eskumena duen beste edozein administrazio organori gogoraraztea interesdunari egin beharreko dokumentazio eskaeren jakinarazpena aurrez aurre egin behar dela. Horrela, ezin izango da jarduketak artxibatzeke agindu, interesdunari edo haren bizilekuan agertzen denari modu fede-emailean jakinarazi dela egiaztatu ezean, legeak administrazio jakinarazpenetarako ezartzen dituen arazoak direla-eta.
- Gizarte Politiketako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak horien balizko edo benetako kalteen aurrean nagusitzen direla bermatu dezatela, batez ere kalte horiek enpresa handietatik edo interes orokorreko enpresa edo zerbitzu ekonomikoetatik datozenean, eta administrazio prozedurari eta Administrazio Zuzenbidean nagusi den printzipio antiformalistaren kontrako denari lotutako arauen administrazio formalismoak edo interpretazio murriztailegiak nagusitzea eragotz dezatela.
- Gizarte Politiketako Departamentuari gogoraraztea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazioak, kexak edo arbitraje eskaerak jasotzen dituzten enpresen jarrerak ikertzeko, ikuskatzeko, eta, hala denean, zehatzeko eskumenak ofizios ere gauzatzeko legezko betebeharra duela, araudiaren arau-hausteak edo kontsumitzaileen eskubideen kaltea antzematen badira, kontsumoko arbitraje sistemak jarraitu duen prozedura eta horren emaitza kontuan hartu gabe.

- Gizarte Politiketako Departamentuari eta Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeari iradokitzea Nafarroako kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko gaur egun ezarrita dauden prozeduren eta sistemen gogoeta eta ebaluazio orokorrak egin ditzala, Espainiako Konstituzioak eskatu bezala horiek benetan eraginkorrak diren aztertzeko.

Erantzunaren zain dago.

NAFARROAKO PARLAMENTUA

OJ_30_12

Hiesa izateagatik aldeetako bat baztertzen duten kontratuetako klausula, akordio, baldintza edo itunei dagokienez:

- Nafarroako Parlamentuari iradokitzea, ahal bada eta horretarako oztopo handirik ez badago, Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkurak 2011ko martxoaren 24an Diputatuen Kongresuaren Mahaiaren aurrean onetsitako Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorraren testu bategina aldatzen duen lege-proposamena eta beste lege osagarri batzuk berriro aurkez ditzala, Konstituzioaren 87.2 artikulua eta aplikatu beharreko gainerako xedapenen arabera.

Ez da onartu.

Eguesibarko Udala

12/357 ESP.

Sarrigurengo zaindariaren jaietan jostailuak saltzeko postu baten instalazioa ukatzeari dagokienez:

- Udalari gogoraraztea erroldatzea Sarrigurengo jaietan salmenta ibiltariko postuek lurzoru publikoa okupatzeko baimena emateko irizpide baztertzaitzat ez jotzeko legezko betebeharra duela, irizpide horrek Konstituzioaren 14. artikulua urratzen baitu.

Onartua.

Garesko Udala

12/294 ESP.

Herritar bati Garesko azoka txikian saltoki finko bat ez esleitzearekin ados ez egoteari dagokienez:

- Udalari gomendatzea, gainerako eskatzaileen lehentasun ordena eta antzinasuna errespetatzen badira eta indarreko araudiak ezartzen dituen gainerako baldintzak betetzen badira, kexaren egileari saltoki finkoa eman diezaiola Garesko azoka txikian.

Onartua.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

OJ_05_12

10.000 nafarrek, gutxienez, beren aurrezki guztiak edo horien zati bat “lehentasunezko partaidetzetan” inbertitzeari eta inbertitutako dirua finantza erakundeek agindutako berehalakotasunez berreskuratzeko ezintasunari dagokienez:

- Herriaren Defendatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, Ogasun eta Administrazio Publikoaren Ministerioari edo egokitzat jotzen dituen erakundeei gaia helarazteko eskatzea, lehentasunezko partaidetzetako inbertsiogileei finantza produktu horri buruzko benetako informazio osoa izatea ahalbidetzen dieten irtenbide eraginkorrak bila daitezen, eta, hori hautatzen badute, haien inbertsioa osorik itzul dakien, horien ordez beste finantza produktu batzuk osorik edo zati batean eskaintzeko aukerari kalterik egin gabe, inbertsiogileak hori hautatzeko aukera izango duela bere borondatez. Hala ere, produktu horretan fede onean inbertitu duten pertsona askoren egoera larriarekin amaitzeko egokientzat jotzen diren beste irtenbide batzuk ezarri ahalko dira.

Onartua.

6.2.4. Hezkuntza

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

11/850 ESP.

Herritar bati “That´s English” ikastaroaren matrikularen dirua itzultzea (akats batengatik eman zuen izena) ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea ofizioz baliogabetu zen “That´s English” programaren matrikulari dagokion zenbatekoa itzul diezaion.

Onartua.

12/36A, 12/129A eta 12/165A ESP.

Espainiako Gobernuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren webgunean arazo informatiko bat egoteagatik Nafarroako Gobernuak unibertsitate ikasketetarako eskaini duen beka eskatzeko ezintasunari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea, Nafarroako Gobernuaren 2011-2012 ikasturterako Beken Deialdi Orokorren eskatzaileei, kexaren egilea bezala, Hezkuntza Ministerioaren deialdian parte hartzeko web aplikazioko problematikak eragindakoei, aldeko irtenbidea eman diezaiela, arazo horrek Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren deialdian eragin kaltegarria edo kontrakoa izan ez dezan.

Onartua.

12/92M ESP.

Semearen ikastetxea aldatzeko asmoari dagokionez:

- Departamentuak interesdunak ikasturte honetarako eskatutako ikastetxea eta hizkuntza-eredua aldatzea onar dezala iradokitzea, bestelakoa justifikatzen duten interes orokorreko arrazoiak edo hirugarrenen eskubideak egon ezean.

Ez da onartu.

12/124 ESP.

Sistema Informatikoen Administrazioaren LHko ikasketetako praktiken kudeaketari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea ikastetxeen eta hezkuntza ikuskaritzaren arteko koordinazioa eta komunikazioa areagotzeko behar diren neurriak har ditzala, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan esku hartzen dutenen eginbeharrak betetzea eraginkorra eta berehalakoa dela bermatzeko.

Onartua.

12/187 ESP.

Bigarren Irakaskuntzako Institutuko ikasle ohia den semeak jasandako gertaera batzuei buruzko jarduketari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea ikasleen artean gehiegizkoak izan daitezkeen jarrerak antzemateko eta prebenitzeko jarraitutako arauak aztertu, eta, hala denean, berrikus ditzala, ondorio horretarako neurri zehatzak eta egokiak hartuta.

- Kasuaren gertaerak bezalakoak antzeman edo susmatzen badira, ukitutako gurasoek ikastetxea aldatzeko egindako eskaerei ahalik eta lasterren erantzun dakiela iradokitzea.

Onartua.

12/309 ESP.

Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan karrera amaierako lanaren Kalifikazio Epaimahaia egindako balorazio prozedurari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak hasieran hautatu den kalifikazio epaimahaia ez denaren aurrean karrera amaierako lana azaldu eta defendatu ahal izateko beharrezko neurriak har ditzala, beharrezkoa bada, aurretik ezarritako deialdia atzeratuta.

Onartua.

12/331 ESP.

Iruñean Donapea LHlk gaur egun okupatzen duen lurzatian eraikiko diren hiru ikerketa zentro berri ezartzeko Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioaren (FIMA) artean sinatutako protokoloari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea Donapea Lanbide Heziketako ikastetxearen kokapenaren aldaketak ikastetxeak egun ematen dituen zerbitzu publikoak oro har okerragotzea ekar dezakeen azter dezala, beharrezkoa bada, zerbitzu horien hobekuntza bermatzeko neurri egokiak hartuta.
- Departamentuari iradokitzea Sustapen Departamentuari edo, hala bada, hirigintzaren arloan eskumena duen Administrazioari azterlan bat egiteko eskatzea baloratu dezala, azterlan horretan hirigintza-parametroen bidez aztertuko dela ea bateragarria den Donapea LHIn instalazioak mantentzea eta etorkizunean ikerkuntza biosanitarioko hiru zentro berriak ezartzea, hiri-antolamendu egoki baten bidez, batera egon ahal izate aldera eraikin horiek guztiak eta haien zerbitzuak, bakoitza bere ezaugarri eta beharrezkin eta haien arteko behar adinako muga eta distantziekin, elkarren arteko baldintzapenak eta eragozpenak ekiditeko. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak plangintzarako duen ahalmena deusetan ere galarazi gabe".
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/334 ESP.

San Frantzisko ikastetxe publikoan jolas-ordua partekatzeagatik sortzen diren arazoei dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea San Frantzisko ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako ikasleen jolas-ordua zaintzen jarrai dadila, ikasle horien segurtasuna eta osotasuna bermatzeko ondorioetarako.
- Departamentuari gomendatzea, San Frantzisko ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako ikasleek Lehen Hezkuntzako ikasleekin jolastokia eta jolas-ordua partekatzen badituzte, espazio hori bi erabilera gunetan (bata Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta bestea Lehen Hezkuntzako ikasleentzat) zatitzeko aukera baloratu dadila eta Haur Hezkuntzako ikasleen segurtasuna bermatzeko neurri egokiak ezar daitezela (adibidez, eremua mugatzeko lerro fisikoak, banantzeko elementuak, nagusiak diren ikasleei egindako ohartarazpenak eta abar).
Onartua.

12/403 ESP.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleentzako atzerriko programa akademikoaren deialdiko plazak esleitzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea ikasleentzako plazak esleitzeko prozeduretan interesdunen azken emaitza zehatz dezaketzen izapide guztien (ausazkoak barne) publikizitatea, gardentasuna eta kontrola erabat bermatzen dituzten neurriak har ditzala.
Onartua.

12/503 ESP.

Kexaren egilearen semea Donapea LHiko Batxilergo Teknologikoko lehenengo mailan onartutako ikasleen behin betiko zerrendatik baztertzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea Departamentu horri idazkia bidaltzen dion edozein herritarrek eskubidea duela horretarako ezarritako epean idatzizko erantzuna jasotzeko.
 - Departamentuari gomendatzea semeak 2012-2013 ikasturtean Batxilergoko lehenengo maila egiteko hautatu duen ikastetxeak ez onartzeari dagokionez kexaren egileak aurkeztu dituen idazkiei beren-beregi eta ahalik eta lasterren erantzun dakiela.
- Onartua.**

12/514 ESP.

Berriazko elikadura behar bat kontuan ez hartzeagatik alaba frantsesean murgiltzeko programa batera joateko ezintasunari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea finantzatzen dituen hezkuntza programetan ikasleen elikadura beharrak kontuan hartzea ahalbidetzen duten neurriak edo irtenbideak ahal den neurrian aztertu eta har daitezela, ikasle horiek programetan parte hartzeko duten aukera berdintasuna sustatuta.
- Onartua.**

12/522 eta 12/995 ESP.

Berriozarko Mendialdea I eta II ikastetxeetarako eskola garraioa eteteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea, ikasleak Berriozarko Mendialdea I eta II ikastetxeetara joateko dauden ohiz kanpoko zirkunstantziak, zehatzago haien arriskugarritasuna, kontuan hartuta, ikastetxe horietarako eskola garraioa zerbitzua ematen jarrai dadila.
- Ez da onartu.

12/622 ESP.

Hezkuntza Departamentuak deitutako ikastetxe publikoetako atzerriko hizkuntzetako elkarrizketa laguntzaileen plazak antolatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea, atzerriko hizkuntzetako elkarrizketa laguntzaileen plazak edo bekak emateko etorkizuneko deialdietan hasieran deitutako plazak modu arrazoituan murriztu behar badira, plazak hautagaien kolektibo ezberdinen artean esleitzeko portzentajeei euts dakiela, deialdiak berak aurreikusi bezala.
- Onartua.**

12/1014 ESP.

Baztan Ikastolako Haur Hezkuntzako Atal bati diru-laguntza bat ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrek aurkezten dituzten eskaera guztiei epean eta forman beren-beregi erantzuteko legezko betebeharra duela.
 - Aipatutako Departamentuari gomendatzea kexaren egileak egin dituen eta idazkian aipatu diren eskaerei beren-beregi erantzun diezaiela.
- Onartua.**

12/1050 eta 12/1093 ESP.

Nuevo Articatik Doña Mayor ikastetxe publikorako eskola garraioko zerbitzuari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Nuevo Artican bizi diren eta Doña Mayor ikastetxe publikoan eskolatuta dauden ikasleei garraioko zerbitzua bermatzen jarrai dezala edo, bestela, atxikitako Buztintxuri ikastetxe publikoak ez onartzearen ondorioz ikastetxe horretan izena eman edo emango duten ikasleei, gutxienez, zerbitzua aintzatets diezaiela.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/1062 eta 12/1063 ESP.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean frantseseko C1 mailaren matrikula baliogabetzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea herritarrekiko harremanetan fede onaren eta legezko konfiantzaren printzipioen arabera jarduteko legezko betebeharra duela, jarduketetan herritarrari emandako informazioarekin koherentea izanda, baita horiek ukitzen dituzten erabakien aurka bidezkoak diren errekurtsio administratiboak eta judizialak, organo administratiboa edo judiziala eta errekurtsioak aurkezteko epea adierazteko legezko betebeharra ere.

- Departamentuari gomendatzea kearen egilea frantseseko C1 mailan izena emantzat jotzeko eta ikastaroa egitea ahalbidetzeko beharrezkoak diren administrazio neurriak har ditzala.

Onartua.

12/1102 ESP.

Sarrigurengo ikastetxe publikoko espaziorik ezari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea ikasturte honetan ikastetxea handitzeko benetako aukerei edo ikastetxe berri bat eraikitzeko komenigarritasunari buruzko azterlan sakona egin dadila, beharrezko erabakiak ahalik eta lasterren hartu ahal izateko, ahal den neurrian gertaerek aurreikuspenak gainditzea eta azkenean eskola eskaintzaren eta eskariaren arteko desfasea egotea eragozteko asmoz.

Onartua.

P5/12 espedientea

Bikiak eskolatzeari eta ikastetxeek ikasgela berean edo ikasgela ezberdinetan eskolatzeari buruzko erabakia hartzeko jarraitzen dituzten irizpideei eta prozedurari dagokienez:

- Hezkuntza Departamentuari iradokitzea eskolatzeari buruzko araudian ikastetxeek bikiak ikasgela berean edo ikasgela ezberdinetan eskolatzeari buruzko erabakia hartzeko jarraitzen dituzten irizpideak eta prozedura agertzeko aukera baloratu

dezala, gurasoek horri buruz duten ikuspuntua emanaz ikastetxearen erabaki horretan parte hartzea ahalbidetuta.

Onartua.

Hezkuntza Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa

12/38 ESP.

Indarreko araudiak goi mailako prestakuntza zikloetako tituludunentzat ezartzen dituen baliokidetasunak NUPean onartzeko ezintasunari dagokionez:

- Unibertsitateari gomendatzea, 2012-2013 ikasturteari begira, azaroaren 14ko 1618/2011 Errege Dekretuak ezarritako titulazioak aintzatesteko araubidea eraginkor bihurtzeko eta aplikatzeko neurriak har daitezela, beharrezko erabakia edo erabakiak ahalik eta lasterren hartuta eta argitaratuta.

Onartua.

BERRIOZARKO UDALA

12/481 ESP.

Udal haurtzaindegian seme-alabak egoteagatiko fidantza itzultzeko eskaerari eta 2010-2011 ikasturteagatik zein 2011-2012 ikasturteagatik egin zaizkion zordunketak argitzeko eskaerari dagokienez:

- Udalari iradokitzea Berriozarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ordaindu gabe dagoen zorra ordaintzeko laguntza ekonomikoa kudeatzeko aukera aztertu eta, hala denean, bultzatu dezala edo, bestela, kexaren egilearekin ordaindu gabe dagoen zatikako ordainketa hitzartzen saia dadila, haren hileko diru-sarreretara proportzionalki doituta eta kasu horretan Udalarekin duen zorragatik abiarazitako premiamendu bidea etenda.

Onartua.

EGUESIBARKO UDALA

11/819 ESP.

Eguesibar III Haur Hezkuntzako ikasgela mistoak zuen hirugarren hezitzailea kentzeari dagokionez:

- Udalari gomendatzea, ikasturtea nahiko aurreratuta dagoela kontuan hartuta, Eguesibar III Haur Hezkuntzako hirugarren hezitzailea ahalik eta lasterren kontratatu dezala, ikasturtearen hasieran eratu zen 0 eta 1 urte bitarteko umeentzako ikasgelan egon behar diren umeei behar bezalako arreta bermatzeko asmoz.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

ESTERIBARKO UDALA

12/451 ESP.

Haur eskolako udal kudeaketari dagokionez:

- Udalari gogoraztea eskaintzen dituen zerbitzu publikoen erabiltzaileei eta bestelako interesdunei bertan egingo diren aldaketen inguruko informazio nahikoa behar bezalako aurrerapenarekin emateko legezko beharra duela, zuzenean zein zeharka kudeatzen dituen kontuan hartu gabe.
Erantzunaren zain dago.

MARTZILLAKO UDALA

12/103, 12/112, 12/113, 12/114, 12/115,12/118,12/125 12/134 eta 12/140 ESP.

Kexen egileak ez daude ados “Bilindanga” haur eskola inauguratu berriari gehitutako zezenei buruzko giropenarekin eta ikasmaterialarekin, eta horiei dagokienez:

- Udalari iradokitzea eskolako zuzendaritzarekin eta eskolan izena emanda dauden umeen gurasoekin bilera egitea sustatu dezala, zezenei buruzko apaingarriak mantentzea edo ez mantentzea eta, hala denean, zezenei buruzko jolasak (adibidez, eskolako zuzendariaren txostenean deskribatutakoak) egitea baloratzeko ondorioetarako.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

12/234 ESP.

Ikastetxe publiko bateko teilatuak eta jolastokiak dituzten osasungarritasun arazoei dagokienez:

- Udalari gomendatzea uxoei ikastetxe publikoan eragin dituzten osasungarritasun eta higie arazoak konpontzeko egokiak diren neurriak har ditzala.
Onartua.

TUTERAKO UDALA

12/447 ESP.

Udaleko Haur Eskolen tasak “Cheque Dejeuner” enpresaren bidez ordaintzea ukatzeari eta Udalak beren-beregiko erantzuna ez emateari dagokionez:

- Udalari gogoraztea idatziz eta legez aplikatu beharreko gehieneko epearen barnean erantzuteko legezko betebeharra duela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 318.1 artikulua eskatutakoaren arabera.
Onartua.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

12/474 ESP.

Medikuntza Fakultatean ikasketen bigarren maila egiteko asmoz, Unibertsitateak interesdunak matrikula Madrilgo Europako Unibertsitateetik Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatera aldatzeko egin duen eskaera onartzea ukatzeari dagokionez:

- Unibertsitateari iradokitzea kexaren egileak egindako aldatzeko eskaera, medikuntza ikasketetan aurrera egitea ahalbidetuko liokeena, berriro baloratu dezala eta, ahal bada, aldeko jarrera har dezala.

Ez da onartu.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

12/273 ESP.

Kexaren egileak aurkeztu zuen baliokidetzaren eskaera bat ez ebatzeari dagokionez:

- Unibertsitateari gogoraraztea baliokidetzaren eskaerak ebatzeko eta ebatzpenak legez ezarritako epearen barnean jakinarazteko legezko betebeharra duela.
- Unibertsitateari iradokitzea Immigrazio eta Gizarte Esku-hartzeko Adituaren Berezko Tituluan sartzeko aukerei buruzko informazioa eta orientabidea eman diezazkiola interesdunari, Pertsona, Familia eta Taldeekiko Gizarte Esku-hartzeko Unibertsitate Masterrean jada gainditu zituen kredituak kontuan hartuta.

Onartua.

12/428 ESP.

Zuzendu zuen doktorego tesi baten ebaluazioari dagozkion zenbait dokumentu eskuratzea ukatzeari dagokionez:

- Unibertsitateari gomendatzea katedradunari eskatu diren dokumentuak eskuratzeko eskubidea gauzatzen lagundu diezaiola: Aholkularitza Juridikoaren eta Zuzenbide Pribatuko Departamentuaren txostenak, zuzendutako doktorego tesiaren egilea den ikasleak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsotik aurrera egindakoak.

Erantzunaren zain dago.

6.2.5. Atzerritarrak

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

OJ_24_12

Nafarroako herritar batekin 6 urtez ezkondua egon den eta Nafarroan legalki bizi den Nigeriako herritar batek dituen arazoei buruzko albisteari dagokionez:

- Arazo horri ahalik eta irtenbide azkarrena emateko egokitzat jotzen diren kudeaketak egin daitezela iradokitzea, aplikatu beharreko legediak ezartzen dituen aurreikuspenen barnean.

Onartua.

6.2.6. Funtzio publikoa

LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA.

12/1170/M ESP.

Herritar batek istripua izan zuen, humeroa apurtu zuen, eta eskuineko besoa immobilizatu zioten. Haren arazoa ez dago araudian adierazita, minusbaliatuei eta edoskitzaroan daudenei buruzkoa baita. Herritar horrek Toki Erakundeen B taldeko kontu-hartzailearen gaikuntza eta lanpostua eskuratzeko probetan parte hartzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Ebaluazio Epaimahaiari kexaren egileak ariketak egin ahal izateko behar diren egokitzapenak egiteko eskatu diezaiola.
- Onartua.**

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

11/787 ESP.

Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez aldi baterako kontratazioaren deialdian gainerako izangaien gaineratik lehenesteko eskaera ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak aurkeztu duen dokumentazioa egiaztatu dezala eta, abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduaren 9. artikuluan aipatutako bi salbuespenak betetzen direla egiaztatuz gero, kontratazioarako hautagaien zerrendan lehenetsuna eman diezaiola, horren ondorioz berehala kontratatu dezala, eta, kontratatua egon zitekeela eta egon ez dela kontuan hartuta, denbora horrenegatik dagokion kalte-ordaina ordain diezaiola.
- Onartua.**

12/47 ESP.

Hezkuntza Departamentuaren zerbitzurako aldi baterako kontratazioaren deialdi bati dagokionez:

- Ikasturtea hasi baino lehen aldi baterako kontratazioak esleitzeko egindako ekitaldi publikoetan bete behar diren plaza guztiak sar daitezela gomendatzea, ekitaldi horien aurretik banakako deialdirik egin gabe.
 - Kexaren egilea "Elikagaiak prestatzeko Eragiketak eta Ekipoak" espezialitateari dagokion zerrendan sar dadila gomendatzea, Hezkuntza kontseilariaren maiatzaren 8ko 60/2009 Foru Aginduaren 12.3 artikuluan ezarri bezala, hurrengo kontratazioei begira.
- Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/359 ESP.

Alaba adingabea zaintzeko zerbitzu-eginkizunak ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kexaren egileari alaba adingabea zaintzeko zerbitzu-eginkizunak eman diezazkiola, kasu honetan Hezkuntza Departamentuko Giza

Baliabideetako Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 20ko 426/2012 Ebazpenak eskatutako baldintzen aplikazioa salbuetsita.

Ez da onartu.

12/672, 12/705, 12/762, 12/849, 12/984, 12/1002 eta 12/1003 ESP.

Prozedurak berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak betetzea ezartzen du. Ikuskarien zerbitzuak emateko zenbait funtzionariori esleitu zitzaizkien eta prozedura horri jarraitu gabe eman ziren zerbitzu-eginkizunei dagokienez:

- Departamentuari gogoraraztea ikuskariaren lanpostuak aldi baterako esleitzean berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei eraginkortasuna emateko legezko betebeharra duela.
- Departamentuari iradokitzea ikuskariaren lanpostuak aldi baterako esleitzeko hautagaien zerrenda osatzeko deialdia onets dezala, etorkizunean sor daitezkeen beharriaz begira.

Onartua.

12/1065 ESP.

Departamentuaren zerbitzurako aldi baterako kontrataziorako zerrenda baten kudeaketari dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea, keax aipatzen duen aldi baterako kontrataziorako zerrendari dagokienez, zerbitzua emateko gaitzat jo diren eta desgaitasuna duten pertsonen lehentasunez deitzea aintzatets dezala.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/1100 ESP.

Lan bizi eta familiakoa uztartu beharri eta ondorio horretarako eskatutako zerbitzu-eginkizunak ukatzeari dagokienez:

- Departamentuari iradokitzea keaxaren egileari aldi baterako zerbitzu-eginkizunak eman diezazkiola esleitutako irakaskuntza arloko lanpostua gauzatzeko haren etxetik hurbilago dagoen ikastetxe batean, lan bizi eta familiakoa uztartzen laguntzeko.

Ez da onartu.

12/1103 ESP.

“Pedagogia Terapeutikoa” eta “Entzumena eta hizkuntza” irakasgaietako zazpi lanpostu aldi baterako kontratazeko deialdiei dagokienez:

- Departamentuak maiatzaren 8ko 60/2009 Foru Aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian irakasleen lanpostuen berriazko profilak ezartzeari dagokienez ezarritakoa bete dezala gomendatzea, aldi baterako kontrataziorako zerrenda orokorretan agertzen diren pertsonen horiek egiaztatzea ahalbidetuta.

Onartua.

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

11/564 ESP.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako Goi mailako Tituludunaren bi lanpostu oposizio bidez esleitzeko deialdia onetsi duen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren (INAP) ebazpenaren bidez abiarazi den hautaketa-prozedurari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea ebazpenen jakinarazpenetan edo argitalpenetan ebazpen horien aurkako bidezko errekursoak eta horiek aurkezteko epea eta organoa adierazteko legezko betebeharra duela.
- Departamentuari gogoraraztea gora jotzeko errekursoak ebazteko eta hartutako erabakiak Legeak ezarritako hiru hilabeteko gehieneko epean jakinarazteko legezko betebeharra duela.
- Departamentuari gomendatzea, kexak aipatzen duen oposizioko hirugarren ariketari dagokionez, prozedura atzeraeragiteko eta balorazio kuantitatiboaren araua aplikatzeko agindu dezala.

Onartua.

11/807 ESP.

Oposizio bat ebazteko unea geroratzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea langileen arloko hautaketa-prozedurak arrazoizko epean bideratu eta ebazteko legezko betebeharra duela, horretarako neurri egokiak hartuta.
- Departamentuari gomendatzea kexak aipatu duen hautaketa-prozesua, gizarte-langilearen lanpostuei buruzkoa dena eta 2010eko apirilean deitu zena, ahalik eta lasterren amaitzeko neurriak har ditzala.

Onartua.

11/823 ESP.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Ataleko Burutza bat merezimendu lehiaketa bidez ez esleitzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea langileen arloko hautaketa-prozedurak arrazoizko epean bideratu eta ebazteko legezko betebeharra duela, horretarako neurri egokiak hartuta.
- Administrazioari gomendatzea bideratzen ari den hautaketa-prozesuen amaiera jar ez dezala hautaketa-prozesuaren xede diren lanpostuak txertatzen diren atal edo erakundeen egitura organikoaren etorkizuneko balizko aldaketen baldintzapean.

Onartua.

OJ_06_12

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak funtzio publikoaren arloan 2012an aurrezki publikoa gauzatzeko iragarri dituen neurriei eta lan-absentismoaren murrizketari dagokienez:

- Departamentuari iradokitzea funtzionario publikoen ordainsarien aldi baterako ezintasunagatiko murrizketari buruz iragarritako neurria sakon berrazter dezala, haren hasierako itxurazko ontasun ekonomikoak, funtzionario publikoen moduan, zerbitzu publikoak ematen dituzten eta haien kalterako eta haien osasun eta osotasunerako arriskua izanda lanera joan behar diren pertsonen osasunerako kalte larriak ekar baititzake.
 - Departamentuari gomendatzea Administrazio Publikoko baja medikoen ondoriozko benetako absentismoari buruzko azterlan zabala egin dezala, haien benetako garrantzia eta alde horretatik hartu beharreko neurriak aztertuta eta soldata murrizteko irtenbideak balizko beste batzuen aurretik jarrita.
 - Funtzionario publikoen baja medikoak Administrazioak zehazten dituen eta dena delako gaixotasunak edo istripuak baja merezi duen ala ez ebaluatzeko prestatuta dauden medikuek (propioak zein gaituak) eman ditzatela iradokitzea. Gainerako alde mediko guztiak lehen arretako medikuak azter litzake, orain arte egin den bezala, baina mediku horrek gaixoa edo istripua izan duena bidali beharko luke baja emateko gaituta dagoen medikuagana.
 - Baja medikoa gehiegi erabil dezaketen pertsonen gainean ikuskapen zorrotzak egin daitezela iradokitzea, egoera hori langileak benetan duen gaixotasunarekin bat datorren ala ez zehatz dadin eta haien lankideei, Administrazioari, eta, laburbilduz, gizarteari iruzur egiten diotenei neurri zorrotzak ezar dakizkien.
- Onartua.**

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA**12/211 ESP.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren negoziazio foroetako sindikatu profesionalen ordezkariak sindikal ez nahikoari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea arlokako mahaien funtzionamenduari eta arlokako mahaietako sindikatu profesionalak mahai orokorraren proiektuetan parte hartzeari buruzko aldean proposamen zehatza egin eta bidaltzeko ekimena har dadila, eta mahai orokorrean proposamen hori ahalik eta lasterren aztertzeari ekiteko behar diren ekintzak bultzatzea.
- Ez da onartu.

12/431 ESP.

E mailako lanpostuen aldi baterako kontratazioari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea onartutakoen zerrendaren behin betiko onespina eta plazarik ez duten onartutakoak aldi baterako kontratatzea ahalbidetzen duten ondoz ondoko izapideak ahalik eta neurri handienez arindu ditzala.

Onartua.

12/709 ESP.

Funtzio Publikoko zuzendari orokorrak, baimenak sortzen duen denbora osoan zerbitzuak ematen ez badira metatzen den edoskitzaroa hartzeko jarraibideak ezartzeko uztailaren 23an emandako 1908/2012 Ebazpenaren aplikazioari dagokionez:

- Uztailaren 23ko 1908/2012 Ebazpenak ezarritako irizpide orokorrak edoskitzaroagatik baimen ordaindua arautzeko modua zehazten du, hori modu metatuan hartzen bada eta sortzen duen urtean zerbitzua ematen ez bada; irizpide horri publikitatea eman dakiola iradokitzea.
- Ebazpena hartu baino lehen (2012ko uztailaren 23a) funtzionarioak semea/alaba zaintzeagatik eszedentziara edo edoskitzaroagatik baimena sortzen duen urte osoan zerbitzua ez emateko ondorio bera dakarren beste egoera batera formalki pasatzea eskatu duenean arautze irizpide hori aplikatu ez dadila iradokitzea, kasu horietan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aurretik zeukan irizpidea aplikatuta.
- Eragindako herritarren aurrean har daitezkeen arautze erabakiak beren-beregi justifikatzeko legezko betebeharra duela gogoraraztea.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/996 ESP.

Nafarroako Foruzaingoak egindako bitarteko izendapenei dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea kexan salatutako egoera eta, bereziki, kaboaren lanpostua lortzeko lehiaketa zuzentzeko prozedura egokiak ahalik eta lasterren deitzeko neurri egokiak har ditzala, Foruzaingoan egiten diren bitarteko izendapenak aplikatu beharreko araudian ezarritako aldi baterako mugetara egokitzeko asmoz.

Onartua.

12/1018 ESP.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak kontratazio zerrenden kudeaketan gauzatutako gardentasunak eta publikizaterik ezei dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lanpostuak aldi baterako gauzatzeko hautagaien zerrenden kudeaketari publikitatea eman diezaiola.

Onartua.

OJ_26_12

Funtzionario publikoen bateraezintasunak ezarri dituen Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoa) 57.1 artikuluari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren aldaketa bat bultza dezala, funtzionario publikoek (dedikazio eskusiboko edo bateraezintasuneko osagarriak esleituta dituztenek ere) haien lanpostuei dagokien lanbide titulua borondatezko lanetan modu altruistan, doan, irabazi-asmorik gabe eta beren kontuz gauzatzeko eskubidea aintzatetsita izan dezaten, baldin eta lan horiek funtzionarioen lanaldian egiten ez badira, funtzionarioen gainerako betebeharrak betetzea eragotzi edo kaltetzen ez bada, haien inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jartzen ez bada edo interes orokorrak kaltetzen ez badira.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

P2/12 espedientea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren buruzagitzak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko prozesuei dagokienez:

- Departamentuari iradokitzea, buruzagitza bat merezimendu lehiaketa baten bidez betetzen denean, administrazio publikoak, autoantolakuntzarako duen ahalmena gauzatu, izenean edo buruzagitza horren funtzioetan aldaketak gaineratu nahi baldin baditu, aldaketa justifika dadila eta, kasu bakoitzean, aurreko unitatearen funtsezko edukian eragina izango duen ala ez azter dadila, aurreko unitatea bertan behera utziko den edo berriz moldatuko den erabakitze aldera.

Onartua.

OSASUN DEPARTAMENTUA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA**11/599 ESP.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostua aldatzeko eskaera ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A mailako osasun langileen barne mugikortasunaren diziplina jartzen duen araudi xedapen bat onetsi eta argitara dadila, egiturazko lanpostuen kontzeptua berrikusita edo, hala denean, zehaztuta.
- Onartua.**

11/673 ESP.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A mailako osasun langileen barne mugikortasunari buruzko 1/2011 Jarraibideari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A mailako osasun langileen barne mugikortasunaren diziplina jartzen duen araudi xedapen bat

onetsi eta argitara dadila, egiturazko lanpostuen kontzeptua berrikusita edo, hala denean, zehaztuta.

Onartua.

11/808 ESP.

Kexaren egileak 2009tik aintzatetsita duen lanpostu mailako osagarriari dagokion ordainketak geroratzeari eta haien atzeraeraginezko ondorioei dagokienez:

- Departamentuari gogoraztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordainsarien likidazioak arrazoizko epe baten barnean izapidetu eta ebazteko legeko betebeharra duela, esku hartzen duten administrazio organoei dagokienez horretarako behar diren neurriak hartuta.

Onartua.

12/8 ESP.

Tuterako osasun arloko erizaintzako laguntzaileak aldi baterako kontratatzeke zerrendaren lehenetsuneko ordenari dagokionez:

- Departamentuari gogoraztea aurkezten zaizkion eskaerei erantzuteko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3 artikulua eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 47.2 artikulua aipatzen duten hiru hilabeteko epea betetzeko legeko betebeharra duela.

Onartua.

12/60 eta 12/96 ESP.

Anatomia patologiko eta zitologiako teknikari espezialistaren oposizioan irakaskuntza baloratzeko sistemari eta zenbait prestakuntza-jarduera ez baloratzeari dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea Kalifikazio Epaimahaiari eska diezaiola kexaren egileek sektore publikoko prestakuntza-jardueretan (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoko Zentroa) unibertsitate eremuko ikasleei emandako irakaskuntza baloratu eta puntuatzea, Ikerketa Biomedikoko Zentroko Zuzendaritzak egindako ziurtagiriaren arabera.
- Departamentuari gomendatzea oposizioaren Kalifikazio Epaimahaiari eska diezaiola oposiziogileei lanbide heziketako ikasleei emandako irakaskuntzazatik finkatutako puntuazioa berrikusteko, benetan eman eta ziurtatu dituzten irakaskuntza orduen arabera dagokien puntuazioa emanda.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/119 ESP.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren (INAP) ebazpenaren bidez onetsitako administrari laguntzailearen oposizioko proba baten balorazioari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea hautagaiek proba edo ariketen galderetako baten bati alegazioak aurkezten dizkieten hautaketa-prozesuetan horietako bakoitzari beren-beregi erantzun dakiola, eta kasu honetan, zehatz-mehatz, ukitutakoak aurkeztu zituen alegazioei arrazoizko erantzuna eman dakiela.
- Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

12/218 ESP.

Lanaldi partzialeko kontratu finkoa duten teknikari espezialistek lanaldi osoko lanpostuak eskuratzeko dituzten zailtasunei dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz, Nafarroako Gobernuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aldaketa gehitzen duen foru legearen proposamena ahalik eta lasterren onesteko behar diren jarduketak ahalik eta neurri handienez bultzatzea.
- Onartua.**

12/311, 12/325 eta 12/326 ESP.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek aintzatetsita duten lanpostu mailako osagarri dagozkien eta zor diren atzerakinak ez ordaintzeari dagokienez:

- Departamentuari gogoraraztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordainsarien likidazioak arrazoizko epe baten barnean izapidetu eta ebazteko legezko betebeharra duela, esku hartzen duten administrazio organoei dagokienez horretarako behar diren neurriak hartuta.
- Onartua.**

12/332 ESP.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko administrari laguntzaileak kontratatzeke zerrendetan balizko irregulartasunak egoteari dagokienez:

- Departamentuari gogoraraztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako aldi baterako langileak administrari laguntzaileen lanpostuak edo eginkizunak gauzatzeko kontratazioak eskaintzen den lanpostuaren kategoriari dagokion zerrendan egiaztatutako ordenaren arau orokorra zehatz eta zorrotz beteta egin behar direla; arau hori Osasun kontseilariak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentro eta establezimenduetako aldi baterako kontratuetarako langileak hautatzeari buruzko arauak onesteko abenduaren 24an emandako 127/2009 Foru Aginduan ezarri da. Horrez gain, premia justifikatzen duten ohiz kanpoko kasuetan baino ezin izango dira kontratatu bete beharreko lanpostuaren aurreko ezagutzak dituzten pertsonak, organo kontratugilearen arrazoizko txostena egin ondoren.
- Onartua.**

12/339/M ESP.

Genero-indarkeriaren biktima den langile publiko bat jatorrizko atal organikoa ez deneko lanpostu bati aldi baterako atxikitzearen iraupenari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea, langilearen egoera pertsonala kontuan hartuta, helburuko atalean lan egiten utz diezaiola, bertan lanpostu hutsa dagoen bitartean.

Ez da onartu.

ARANGURENGO UDALA

12/324 ESP.

Lorezaintza langileen hainbat lanpostu esleitzeari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea herritarren eskaerei erantzuteko legezko betebeharra duela, egindako eskaerak eta horietan sortzen diren kontuak ebatzita.
 - Udalari gogoraraztea, nolana ere, plantillako lanpostuak (kexan aipatutakoak barne) modu finkoan edo aldi baterako eskuratzeko publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzeko legezko betebeharra duela, eta, beharrezkoa bada, egindako kontratazioa berrius dezala gomendatzea.
- Onartua.**

BARAÑAINGO UDALA

12/961 ESP.

Udaltzainen lau lanpostu betetzeko oposizio bat egitean egondako hainbat irregularitasuni dagokienez:

- Udalari gomendatzea funtzio publikora sartzeko oposizioen edo oposizio-lehiaketen Kalifikazio Epaimahaiei beharrezko jarraibideak eman diezazkiela, hautaketa-prozesu osoan publizitate, informazio eta gardentasun printzipioak erabat betetzeko, hautagaiei sortzen diren gorabehera guztiei eta proben emaitzei buruzko informazio osoa emanda, hautagaiei gainerako hautagaien ariketak ikusteko aukera emanda eta ariketak berrikusteko arrazoizko aldia ezarrita, eskatzaileei bertaratzeko benetako aukera eskainiko zaiela.

Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

AURIZKO UDALA

12/409 ESP.

Auritz, Erroibar eta Orreaga Udalerrien Taldeko idazkariaren lanpostua aldi baterako betetzeko deialdian udal idazkariaren lanpostua hiru urterako bete beharri dagokionez:

- Udalerrien Taldeari gogoraraztea, konstituzioarekin eta legearekin bat eginez, parte hartzeko baldintzen edo eskaeren ezarpena saihesteko betebeharra duela, betiere,

xedapen horiek funtzio publikoan sartzeko (behin betiko zein behin-behinean) deialdiak agintzen dituzten legeen barruan ez badaude.

Onartua.

LIZARRAKO UDALA

12/1114 ESP.

Musika Eskolako lan kaleratze bati dagokionez:

- Udalari gomendatzea Musika Eskolako langilea zen kexaren egilea berriro hartzeko jarraibide egokiak eman ditzala, egindako kaleratzeak Konstituzioaren 35. artikulua aitortzen duen lanerako eskubidea urratzen baitu.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

ERRIBERIKO UDALA

12/33 ESP.

Funtzionario publiko bati udal etxebizitza bat ez erabiltzeagatik ordainsari konpentsatzailea ukatzen dion ebazpenari eta hori ematea geroratzeari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea herritarrek aurkezten dituzten eskaera guztiak epean eta forman beren-beregi ebazteko legezko betebeharra duela, herritarrek administrazio onerako duten eskubidea gauzatuta.
- Udalari gomendatzea udal eraikineko etxebizitza funtzionarioak erabiltzeko moduan egokitzeko beharrezko baliabideak jar daitezela, horretarako eskubidea baitu, aldeei etxebizitza hori interesatzen ez bazaie eta hori adostu bada, behintzat.
Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

IRUÑEKO UDALA

12/183 ESP.

Iruñeko Udalak bere funtzionario publikoetako baten behar ez bezalako jarduketaren aurrean agertutako jarduketarik ezari dagokionez:

- Langileen arloan berariazko eskumena duen Udaleko organoari gomendatzea toki erakunde horren eta haren erakunde autonomoen eremuan funtzionarioen bateraezintasunei buruzko lege araubideari lotutako balizko eskaera eta ebazpenei buruz dagoen informazio osoa zentraliza dadin, egondako jarduketek legezketasunari heltzea zainduta eta, beharrezkoa bada, jarduketa horiek berrikusita.
- Bidezko atal organikoen bidez, jarraibideak eman daitezela eta berariazko mugen pean dauden funtzionario guztiei edozein jarduera debekatu ez egiteko legezko betebeharra gogoraz dakiela iradokitzea, legez ezarri bezala eta mugaren arabera.
Onartua.

12/1021 ESP.

Kexaren egilea barne hartzen duen kontrataziorako zerrenda baten kudeaketan gardentasunik eta publizitaterik ezei dagokienez:

- Udalari gomendatzea lanpostuak aldi baterako gauzatzeko hautagaien zerrenden kudeaketari publizitatea eman diezaiola.

Onartua.

AZKOIENGO UDALA

12/980 ESP.

Udaltzaingoko lanpostu bat betetzeko prozeduratik baztertzeari dagokionez:

- Udalari gomendatzea lanpostuak betetzeko hautaketa-prozeduretan mota horretako proba fisikoak neurtzeko kronometraje elektronikoko sistemak erabil daitezela.
- Udalari gomendatzea kexaren egileak eskatu duen arintasun proba (Barrowen testa) errepikatzeko xedatu dezala, kronometraje elektronikoko sistema bat aplikatuta. Ez da onartu. Ez du ukoa justifikatu.

ZIZUR NAGUSIKO UDALA

12/171 ESP.

Etxez etxeko udal arreta zerbitzurako Familiako Langile lanpostua aldi baterako kontratuaren bidez betetzeko hautagai zerrenda hautapen proben bidez eratzeko deialdiaren oinarriei dagokienez eta, zehazki, B motako ibilgailuak gidatzeko baimena eta ibilgailua edukitzeko betekizuna eskatzeari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu, Konstituzioaren eta legearen arabera, saihestu behar duela funtzio publikoan sartzeko deialdiak arautzen dituzten legeetan aurreikusita ez dauden parte-hartze betekizunak edo eskakizunak sartzea, haiek iraunkorrak zein behin-behinekoak izan.
- Kexak aipatu duen Familiako Langile lanposturako deialdiaren oinarrietan sartu den gidabaimenari eta ibilgailua izateari buruzko betekizuna baliogabe dezala gomendatu diogu Udalari.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

12/19 ESP.

Lehiaketa-oposaketaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zerbitzurako administrazio laguntzaile plazak betetzeko deialdian behin betiko zerrendetatik kanpo utzi izanari dagokionez, zein Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Erretorearen ebazpenaren bidez onartu baitzen:

- Unibertsitateari gogorarazi diogu hautapen prozesuetako deialdien oinarriak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera interpretatu behar dituela legez.
- Lehiaketa-oposaketaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zerbitzurako administrazio laguntzaile plazak betetzeko deitutako hautapen prozesuan kexa-jartzailea onar dezala gomendatu diogu Unibertsitateari, hartan parte ahal izan dezan behar diren jarduketak eginez.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

AO_20_12

Langile publikoei 2012ko abenduko ordainsari berezia etetearen konstituzionaltasunari dagokionez:

- Herriaren Defendatzaileari iradoki diogu aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko neurriei eta lehiakortasuna sustatzeari buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sektore publikoko langileen 2012ko abenduko ordainsari berezia etetea Konstituzioaren esparruan sartzen den eta langile publikoen eskubideak errespetatzen dituen iker dezala.
Onartua.

6.2.7. Toki erakundeen funtzionamendua.

LERGAKO UDALA

11/23 ESP.

Landa etxe bat alokatzeko jarraitutako kontratazio prozedurari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez proposamenak zabaltzeko ekintza publikoen data, ordua eta tokia iragarri behar dituela, izapidetzen dituen edo hala eskatzen duten kontratuak esleitzeko prozedurei dagokienez.
- Udalari gogorarazi diogu legez berariaz erantzun behar diela herritarrek bere eskumeneko gaietan egiten dizkioten eskabide eta eskaerei, erantzuna jakinaraziz; eta gomendatu diogu kexaren egileari eskatu duen informazioa eman diezaiola.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

12/20 ESP.

Animalia arriskutsu bat edukitzeko baimena emateari uko egin izanari buruz:

- Udalari gomendatu diogu kexaren egileari eskatutako baimena eman diezaiola, hirugarrenei eragindako kalteengatiko erantzukizun zibileko aseguruua sinatu duela frogatu ondoren, frankiziaduna balitz ere, Udalaren 13. Osasun Ordenantzan xedatutako 180.303,63 euroko estaldurarekin.
- Udalari iradoki diogu, egokia baderitzo, Udalaren 13. Osasun Ordenantzan frankiziadun aseguruak handik kanpo daudela sar dezala, eta lizentzia eskabide guztiei aplikatuko zaiela, salbuespenik gabe, edo, bestela, frankiziarik gabeko aseguruua eskatzeari edo ez eskatzeari begira tratu desberdina zuritu lezaketen garrantzizko irizpideak edo eragileak sar ditzala.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

AZKOIENGO UDALA

12/1060 ESP.

Pertsona batek toki erakunde horri egin zion zerbitzu profesionalen eskaintzari Udalak emandako erantzunari dagokionez:

- Udalari iradoki diogu, orokorrean eta etorkizunerako, herritarren kontratazio eskaintzak ezestea arrazoitu behar duenean, arrazoiak inguruabar edo irizpide objektiboei erantzun diezaiela, eskaintzaileak objektibotasunari, inpartzialtasunari edo independentziari buruzko usteak izatea saihestuz.
Onartua.

GARESKO UDALA

12/1 ESP.

Administrazio Elektronikoaren Udal Ordenantza ez betetzeari dagokionez:

- Udalari iradoki diogu, xedapen teknikoen eta aurrekontu xedapenen esparruan, udal zerbitzuek ahalik eta ahaleginik handiena egin dezatela Administrazio elektronikoaren udal Ordenantzan jasotako manu eta xedapen guztiak erabat eta eraginkortasunez betetzeko.
Onartua.

6.2.8. Herritarren bermeak administrazio publikoekiko harremanetan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO DEPARTAMENTUA

12/468 ESP.

Immigrazioaren Arreta Bulegorako Gizarte Laneko diplomatuen prestakuntzarako diru-laguntza luzatzeari uko egin izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu kexaren egileari urtebetez luza diezaiola Immigrazioaren Arreta Bulegorako Gizarte Laneko diplomatuen prestakuntzarako diru-laguntza, ondare erantzukizuneko prozedurari ofizioz ekin dakiola, interesdunari entzunez, bere kalte materialak edo moralak froga ditzan eta, hala balegokio, dagokion kalte-ordaina ordain dakiola.
Erantzuteke.

HEZKUNTZA ETA LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA

12/157 eta 12/162 ESP.

Langileei buruzko gorako errekurtsio bat ebatzi ez izanari dagokionez:

- Departamentu biei gogorarazi diegu legez langileei buruzko gorako errekurtsioak izapidetu, ebatzi eta hartutako erabakiak jakinarazi behar dituztela, gehienez ere legez xedatutako hiru hileko epean.
- Departamentu biei gomendatu diegu, kexari dagokionez, gorako errekurtsioa ahalik eta azkarren ebazteko behar diren neurriak har ditzatela.
Onartua.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUA ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOA

12/411 ESP.

Landa Garapenaren zuzendari nagusiaren Ebazpen baten aurka jarritako gorako errekurtsioari erantzun ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu administrazio publiko bati idatziz zuzendu eta haren jarduketa jakin bat eskatzen duen herritar orok daukala eskubidea erantzuna bide beretik jasotzeko administrazio prozedura bakoitza ebazteko xedatutako gehienezko epean, kasu honetan hiru hiletan, zein ere den erantzuna.
Onartua.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA

12/319 ESP.

2011ko errentaren aitortpena egiteko Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoetan aurretiko hitzordurik gabe geratu izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu Nafarroako Zerga Ogasunak bere bulegoetan “aurretiko hitzordua”ren sistema behar den neurrian luzatzeko aukera iker dezala, eskatzen duten zergapeko guztiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko hitzordua eta dagokion aholkularitza dauzkatela bermatzeari begira.
Onartua.

12/1019 ESP.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendariak emandako tratu desegokiari dagokionez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegua hobetzeko aukeran alta emanda ez egoteko arrazoiei buruz eskatu zizkion azalpenak direla-eta:

- Aurretiaz ezer epaitu gabe, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari gogorarazi diogu, hari dagokionez, eta orokorrean, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioarekin harremana duen herritar orok arreta adeitasunez, prestasunez eta konfidentziasunez jasotzeko eskubidea daukala.
Onartua.

12/1121 ESP.

Lodosako bulegoan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan eskaintza bateko hautapen prozesuari buruzko informaziorik eza dela-eta emandako arreta oker eta desegokiari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu zaio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jarraibide egokiak eman diezazkiola egiten dituen langileen hautapen prozesuetan gardentasunaren eta informazioaren printzipio orokorrak bete daitezen, hautagaiei gertatzen diren gorabehera guztiei eta proben emaitzei buruzko informazio egokia emanez, ariketak berrikusteko arrazoizko epea ezarriz, eta eskatzaileei bertaratzeko egiazko aukera emanez, eta, zehazki, kexaren egileari informazio hori eman dakiola.
Onartua.

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA

11/671 ESP.

Gorako errekurtsio bat ebazteko atzerapenari dagokionez:

- Gogorarazi diogu legez berariaz eta ahalik eta lasterren erantzun behar diola herritarrek aurkeztutako gorako errekurtsioari.
Onartua.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUA

12/352 ESP.

Administrazioak lehiaketa publiko baten eskaintzaileei proposamen irabazlea erakusteari uko egin izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu NASUVINSari eska diezaiola, kexaren egilearen eskaeraren aurrean, lehiaketaren eskaintzaile irabazleari hark, eskaintzaile baztertu gisa, egindako eskaeraren berri eman diezaiola, eta proiektu irabazlearen kopia emateko baiezkoa edo ezezkoa lor dezala, ondoren, horren arabera jokatzeko.

Onartua.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUA ETA LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUA ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOA

12/427/M ESP.

Udalaz gaindiko Eragineko Sektoreko Proiektu bat izapidetzeari eta, hala balegokio, onartzeari, eta bertan jasotako ingurumen baimena zementu-fabrikaren eta hainbat motatako hiri-hondakinen erretzearen alde aldatzeari dagokienez:

- Departamentuei iradoki diegu haietan eskumena duten teknikariek bilera bat izan dezatela Proiektuak erasandako toki erakundeen ordezkariekin, bilera horretan, Nafarroako Gobernua baimentze izapidetzen ari den Proiektuari buruz izan litzaketan zalantza guztiak argitzeko.
- Departamentuei iradoki diegu eskatzen den derrigorrezko ingurumen-inpaktuaren aitortpenaren edo ingurumen-baimenaren jendaurreko erakusketa epea luzatzeko aukera balora dezatela, irailean alegazioak egin ahal izateko, herritarren informazioa eta partaidetza eta, bereziki, toki erakundeen partaidetza erraztu xedez.

Ez da onartu.

GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

12/445 ESP.

Hiru seme-alabengatik eta ondorengoengatik diru-laguntza eskuratzeko administrazioaren esku badauden agiriak eman beharrari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez bete behar dituela Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 35.f) artikulua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 9.4 artikulua eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13.8 artikulua, zeinek administrazio jardulearen esku badauden agiriak ez aurkezteko herritarrek duten eskubidea xedatu baitute.
- Departamentuari gomendatu zaio, kasu honetan eta antzeko beste batzuetan, laugarren seme-alabagatik eta hurrengoengatik laguntza eskatzen dutenak errentaren aitortpenaren eta familia ugariaren txartelaren kopiak aurkeztetik salbuets ditzatela, agiri horiek Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren esku badaudelako.

Onartua.

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

12/25 ESP.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren ebazpen batek oposizioaren bidez Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren eta haren organismo autonomoen zerbitzurako hogeita hamazazpi administrazio publikoko teknikari (adar juridikoa) plaza betetzeko onartutako deialdiari lotuta jarritako bi errekurtsori erantzun ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez herritarrek administrazio onerako duten eskubidea errespetatu behar duela eta, zehazki, gorako errekurtsioak legez xedatutako epearen barruan ebatzi behar dituela, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.
- Departamentuari gomendatu zaio kexaren egileak jarritako gorako errekurtsioa ahalik eta azkarren ebatz dezala.

Onartua.

12/51, 12/56 eta 12/158 ESP.

Gorako zenbait errekurtsio ebatzi ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez ebatzi behar dituela gorako errekurtsioak legez xedatutako epearen barruan, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.

Onartua.

12/156 ESP.

Nafarroako Gobernuaren ibilgailuetako auto akastun bat enkante publikoaren bidez erosi izanari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, egokiak deritzen egiaztapenen ondoren, erosleari erositako ibilgailuaren matxura guztiak konpontzeko izandako gastu guztiak ekonomikoki ordain diezazkiola.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA

12/110 ESP.

Departamentuak gorako errekurtsio bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez ebatzi behar dituela gorako errekurtsioak legez xedatutako epearen barruan, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.

Onartua.

12/424 ESP.

Oposizioaren bidez E mailako 65 lanpostu plaza betetzeko deialdian egin zuen azterketaren galderak eta erantzunak ikusi ahal izateko eskatuz aurkeztu zuen idazkiari erantzun ez izanari dagokionez:

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari gogorarazi diogu administrazio publiko bati idatziz zuzendu eta haren jarduketa jakin bat eskatzen duen herritar orok daukala eskubidea erantzuna bide beretik jasotzeko administrazio prozedura bakoitza ebazteko xedatutako gehienezko epean, kasu honetan hiru hiletan, zein ere den erantzunaren emaitza.

Onartua.

P4/12 espedientea

Foru Komunitatearen administrazioaren eta 10.000 biztanlez gorako edo eskualde burua diren Nafarroako udalerrien eta mankomunitateen artean herritarrek toki erakunde horien erregistroetan Nafarroako Gobernuari zuzendutako idazki baliodunak aurkeztu ahal izateko hitzarmenak sinatu ahal izateari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu Foru Komunitateko administrazioaren eta biztanleria handiko nafar toki erakundeen, hala nola hamar mila biztanlez gorako udalerrien eta mankomunitateen edo eskualde buru diren udalerrien artean hitzarmenak sinatzea bultzatzeko aukera balora dezala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatutako ondoreetarako, herritarrek toki erakunde horietako erregistroetan ere Nafarroako Gobernuari zuzendutako idazki baliodunak ere aurkez ahal ditzaten.

Onartua.

OSASUN DEPARTAMENTUA

12/245 ESP.

Idazki bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 115.2 artikuluan gorako errekurtsioak ebatzi eta jakinarazteko xedatutako gehienezko epea -hiru hilabete- bete behar duela.

Onartua.

BUÑUELGO UDALA

12/121 ESP.

Buñuelgo Udalaren udal artxibategian begiratzea ukatu izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez agiri ondarea osatzen duten artxibategiak eta agiriak ikusten utzi behar diela herritarrei, indarreko legediak xedatu duenez.
- Udalari gomendatu diogu herritarrari 1936 eta 1961 bitarteko udal akta-liburuak ikusten utz diezaioala.

Ez da onartu.

ZIRAUKIKO UDALA

12/342 ESP.

Udalean aurkeztu zuen originalarekin bat ez datorren eskritura publiko baten kopia itzuli izanari dagokionez:

- Gomendatu dugu Udalaren udal zerbitzuek uneoro izan dezala tratu arduratsua hara jotzen duten herritarrekiko harremanetan eta behar diren segurtasun neurri guztiak har ditzatela interesdun parte hartzen duten prozeduren izapidetzea dela-eta herritarrek eman litzaketen agiri originalak behar bezala gorde eta artxibatzen direla bermatzeko.
Onartua.

EGUESKO UDALA

12/480 ESP.

Eguesko etorbidean dagoen haur eskolaren aurreko zebrabidean abiadura murrizteko sistema jartzeko eskabideari erantzun ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei.
- Udalari iradoki diogu berriz ebalua ditzala egun ezarrita dauden segurtasun neurriak eta baten bat gehiago eransteko aukera, Eguesko etorbideko 1. zenbakiaren parean, haur eskolaren aurrean, dagoen zebrabidea erabili ohi duten haurren segurtasuna behar beste bermatzeko.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

LIZARRAKO UDALA

12/321 ESP.

Gorako errekurtsio bat ebatzi ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei, eta haien artean kexaren egileak jarritako berraztertze errekurtsioari.
Onartua.

EZKABARTEKO UDALA

12/159 ESP.

Interesdunaren espedientea eskuratzeari uko egin izanari eta horri dagokionez jasotako tratuari eta erreklamazio bat ebatzi ez izanari buruz:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei, eta haien artean kexaren egileak jarritako erreklamazioari.

- Udalari gogorarazi diogu herritarrek eskubidea dutela agintariek eta funtzionarioek begirunez eta adeitasunez tratatuak izateko.
- Udalari gogorarazi diogu legez eman behar dietela interesdunari, une orotan, administrazio espedienteak eskuratzeko bidea.
Onartua.

FUNESKO UDALA

12/466 ESP.

Udalean herri horretako bi herritarri emandako tratu desegokiari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez agintari eta funtzionario guztiek arreta egokia eman behar dietela herritarrei, uneoro begirunez, begiramenez eta aditasunez tratatuz. Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

UHARTEKO UDALA

11/847 ESP.

Berraztertzeako errekurtsu bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez ebatzi behar dituela jartzen zaizkion administrazio errekurtsuak legez xedatutako epearen barruan, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.
Onartua.

LEGARDAKO UDALA

12/30 ESP.

Katastroan haren jabetzako zenbait lursail inskribatu ez izanari dagokionez:

- Udalaren udal zerbitzuek kexaren egileari lagun diezaioten gomendatu dugu, behar diren aholkularitza eta informazioa emanez, egokia bada, Katastroan titularra den lursailak inskribatzeko dagokion prozedura izapidetzeari begira.
Onartua.

MARTZILLAKO UDALA

12/1116 ESP.

Eskatu ziren agiri jakin batzuk (alkateak eta ordezeko hirigintza zinegotziak hartutako zenbait ebazpen jaso dituzten udal aktak) ukatu izanari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu kexaren egileari eskatu dituen udal aktetan aipatu udal ebazpenak biltzen dituen zerrenda bat igor diezaiola, egintzak identifikatu ahal izateko moduan, eta garrantzirik gabeko datu pertsonalak ezabatzeko aukera kaltetu gabe.
Onartua.

OTSAGABIAKO UDALA

11/595 ESP.

Haren etxebizitzaren lursail mugakide batean jantoki bat jarri izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez berariaz eta epearen barruan erantzun behar diela aurkezten zaizkion eskari guztiei eta, zehazki, kexa jartzailearen aipatu idazkiari.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

11/651 ESP.

Etxebizitza batean erroldatzeko eskatu beharreko betekizunei dagokienez:

- Udalari iradoki diogu, aurrerantzean, udal erroldako izen emateak egiaztatzeko duen ahalmena erabiliz, etxebizitzaren okupazioa egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eska dezala; horretarako, lehenago erroldatutako pertsona baten baimen hutsa ez da nahikoa, higiezinaren gaineko erabilera ahalmenik ez badauka.
Onartua.

12/90 ESP.

Kexa jartzailearen aburuz, neurrigabea eta mehatxuzkoa den jakinarazpen bati eta herritarraren arreta faltari dagokienez:

- Udalari gomendatu diogu premiamendu-bidea hasteko jakinarazpen ereduak daukan testua aztertu eta behar den neurrian alda dezala, premiamendu-bidea eragiten duten inguruabarren zorpekoari informazio oso eta xehea emateko eta beharrik gabe latza eta zorrotza izan ez dadin.
Onartua.

12/343 ESP.

Udalan aurkeztutako bi eskariri erantzun ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei, eta haien artean kexaren egileak aurkeztutako eskariei.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

TORRES DEL RÍOKO UDALA

12/510 ESP.

Herri horretako hilerrian haren aitonaren hilobia kentzerakoan ezer jakinarazi ez izanari eta hilotik atera uste diren bere aitonaren gorpuzkiak emateko eskabideari dagokienez:

- Udalari iradoki diogu kexaren egilea kontakta dezatela, hala nahi badu herritarraren gorpuzkiak hilotik ateratzeko, edo, fisikoki posible bada eta alderdien arteko

adostasuna egonez gero, behar den administrazio baimena lortu ondoren, gorpuzkiak egungo hilobian gera daitezzen, lehengo hilarria edo antzeko bat berriz jarrita.

Onartua.

URDAZUBIKO UDALA

12/1031 ESP.

2010eko kontu orokorren onarpenari buruzko dokumentazio eskaera bati eta, orokorrean, udal erabakiak ez argitaratzeari dagokienez:

- Udalari gomendatu diogu kexan aipatu 2010eko kontu espedienteko dokumentazio eskaerari erantzun diezaiola, agiriak ahalik eta azkarren emanaz.
- Udalari gogorarazi diogu legez hartzen dituen erabaki eta ebazpenen laburpen bat argitaratu behar duela udal ediktu taulan.
- Udalari iradoki diogu, ahal den neurrian, udal jarduketan baliabide elektronikoak sartzen aurrera egin dezala, kexan aipatu ondorioetarako, edo toki erakundearen eta herritarren arteko harremana erraztuko duten beste batzuk.
Erantzuteke.

ZIZUR NAGUSIKO UDALA

12/398 ESP.

Udal erregistroak Nafarroako Administrazio Auzitegian gorako errekurtsua onartu eta erregistratzeari uko egin izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez jaso eta erregistratu behar dituela Udal horren egintza edo erabakien aurrean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendutako gorako errekurtsuak.
Onartua.

12/191 ESP.

Udal garabiaren bulegoetan jasotako informazio eskasari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez informazio osoa eman behar duela beti interesdunak egin nahi dituen jarduketei dagokienez indarreko xedapenek ezarritako betekizunei buruz.
Onartua.

NARBARTEKO KONTZEJUA

11/512 ESP.

Udalan, zenbait agiri eske, Kontzeju horri zuzenduta aurkeztutako idazki bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Kontzejuari gogorarazi diogu legez onartu behar dituela Kontzeju horren aurrean aurkezten diren eskariak eta gainerako agiriak, eta herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatu behar duela eta, ondorioz, eskatu diogu behar diren neurriak har ditzala kexaren egileak aurkeztutako agiriak jasotzeari uko egiteko zuzemena indarrrik gabe uzteko.

Ez da onartu.

ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA

12/267 ESP.

Mankomunitateak berraztertzeke errekurtso bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez ebatzi behar dituela berraztertzeke errekurtsoak legez xedatutako epearen barruan, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.
- Mankomunitateari gomendatu diogu kexaren egileak jarritako berraztertzeke errekurtsoa ahalik eta azkarren ebatz dezala.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

IZARBEIBARKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

12/109 ESP.

Izarbeibarko Mankomunitateari zuzendutako informazio eskabide bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide eta eskaera guztiei, eta haien artean kexaren egileak aurkeztutako eskariari.
- Mankomunitateari gomendatu diogu kexaren egileak bere eskarian eskatutako ziurtagiriak eman ditzala.

Onartua.

ZANGOZAKO ESKUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

12/226 ESP.

Plantilla organikoaren hasierako onarpenari eta 2012ko aurrekontuaren hasierako onarpenari aurkeztu zizkien alegazioak ebatzi ez izanari dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez bere eskumeneko gaietan egindako eskaera guztiak ebatzi behar dituela.
- Mankomunitateari gomendatu diogu kexaren egilearen alegazioak aurkeztutat jo ditzala eta, haiek baloratu ondoren, haiei buruz ebatz dezala, beharrezkoa balitz, plantilla organikoa eta 2012ko aurrekontu orokorra aldatuz.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

ABLITAS, AOIZ, ARANGUREN, BARAÑAIN, BERRIOZAR, CABANILLAS, CÁSEDA, CINTRUÉNIGO, CORTES, EGUES, LIZARRA, ETAIU, EZKABARTE, UHARTE, LARRAGA, LERIN, IRUNBERRI, MENDABIA, IRUÑA, AZKOIEN, PUENTE LA REINA, TORRALBA DEL RÍO, TUTERA, UHARTE-ARAKIL ETA VILLATUERTAKO UDALAK; ARBEITZA, AZANTZA ETA LARRAIOZKO KONTZEJUA; ETA IRUÑEKO ESKUALDEKO, MONTEJURRAKO ETA ERIBERAKO MANKOMUNITATEAK

AO_10_12

Toki erakundeek denboran eta forman herritarrek egindako eskaerak eta errekursoak ebatzi ez dituzten kasuei dagokienez:

- Toki erakundeei gogorazi diegu legez erantzun behar dietela, denboran eta forman, herritarrek egindako eskaera eta idazkiei, ordenamendu juridikoak administrazio on, bizkor eta eraginkorraren alde jaso dituen bermeak bete daitezen.

Presidentziako, Sustapeneko, Gizarte Politiketako, Hezkuntzako eta Landa Garapeneko Departamentuei

AO_11_12

Nafarroako Gobernuko Departamentuek denboran eta forman herritarrek egindako eskaerak eta errekursoak ebatzi ez dituzten kasuei dagokienez:

- Departamentuei gogorazi diegu legez erantzun behar dietela, denboran eta forman, herritarrek egindako eskaera eta idazkiei, ordenamendu juridikoak administrazio on, bizkor eta eraginkorraren alde jaso dituen bermeak bete daitezen.

6.2.9. Herri-ogasuna

EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

11/719/M ESP.

Bere borondatez guztiz kanpoko zioagatik eraikuntza enpresak ezarritako epean amaitu ez zen etxe bat eraikitzeagatik 2006ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egindako kitapenari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu egindako jarduketak geldiaraz ditzala, eraikuntza enpresaren aurrean hasitako prozesu judiziala ebatzi arte, honako baldintza jarrita: hura bukatutakoan, arrazoizkotzat jotzen den epean eraikitzen amai dezatela edo, bestela, berrinbertsioagatik salbuespena aplikatu ezinetik eratorritako zerga zorra ordain dezatela.
Ez da onartu.

12/46 ESP.

Kexa jartzaileak bere etxebizitza ordainean ematearen zerga kalifikazioari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 47. artikulua bete behar duela, zeinen arabera herritarrek egindako eskaerei legez xedatutako epeetan erantzun behar baitie; halaber, gomendatu diogu, zehazki, kexaren egileari ahalik eta azkarren erantzun diezaiola.
- Departamentuari gomendatu diogu kexaren egilea bere etxebizitza ordainean emateak eragindako 2010eko zergaldiko PFEZren zerga zorretik salbuets dezala. Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA

12/306 ESP.

Kexa jartzaileak jasotzen duen Gizarteratzeko Errentaren zati bat bahitu izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu ez ditzala zorrak orekatu gizarteratzeko errentaren kargura, hark eragindako sarrerek lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokion zenbatekoa gainditzen ez duten heinean. Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

12/418 ESP.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ohiko etxebizitzako inbertsioagatik aplikatutako kenkariari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu interesdunari 2007, 208 eta 2009ko zergaldietako errenta aitorpenei hipoteka-maileguaren %100 ezartzeko aukera balora dezala, dagozkion kenkariak egiteko ondoretarako, etxebizitzaren erregistroko titularra delako eta hura haren ohiko bizileku iraunkorra delako. **Onartua.**

12/473 ESP.

Etxebizitza erosteagatik kenkariak itzultzeko eskaerari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu aintzat har dezala kexaren egilearen eta eraikuntza enpresaren artean sinatutako salerosketa kontratua amaierazi zuen zio berezia, ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legeko 20. artikuluan xedatutako zerga ondorioetarako. **Onartua.**

12/508 ESP.

Pentsio planaren erreskateagatik zerga ordaintzeari eta zenbait prestazio publiko jaso ahal izateko hark izandako eraginei dagokienez:

- Departamentuari iradoki diogu azter dezala dagokion mailako arau bat onartzea bultzatzeko aukera, gaitasun ekonomikoaren adierazle Pertsona Fisikoen Errentaren

gaineko Zergaren aitortpena darabilten laguntza eta prestazio publikoak eskuratu edo kuantifikatzeari dagokionez, diru-sarrerak pentsio planen kapitala berreskuratzeak eragindako zenbatekoan gutxitzea xeda dezan.

Ez da onartu.

12/1079 ESP.

Nafarroako Gobernuko Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuak garraibide jakin batzuen gaineko zergari buruz izapidetutako espediente bati dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu Nafarroako Zerga Ogasuneko Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuak kexa jartzaileari egindako kitapena eta zehapena baliogabe dadila, eta haren titulartasuneko ibilgailuarentzat garraibide jakin batzuen gaineko zergako salbuespenari euts dakiola, %94eko desgaitasuna dela-eta. Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

AO_28_12

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriko desgaitasuna duten alaben zaintzagatiko kenkariei dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu azter dezala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legeko 55. artikulua aldatzeko aukera, gutxieneko familia saria epai sendoz banandu edo dibortziatutako gurasoen artean proportzionalki hainbanatu xedez, haietako batek desgaitasuna duten ondorengo zaintza guztiz bere gain hartzen duenean, onartutako hitzarmen arauemailean ezarritako elkarbizitza denboraren proportzioan.
Onartua.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

12/105 ESP.

Foru Komunitateko zergapekoek "gizarte intereseko beste xede batzuetarako" darabiltenaren %0,7ko zerga esleipena arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeko xedapenak zenbait puntutan bete ez izanari dagokionez: deialdietan kontsulta izapideak ez egitea; haiek berandu argitaratzea; PFEZ kanpainetan informaziorik eza; aurrekontu-sail bakoitzeko kredituak ez agortzea; sail izendunak ezartzea; eta GKEz besteko erakundeei (enpresa eta partikularrei) diru-laguntzak ematea.

Baita 2012ko Aurrekontuen Foru Legearen bidez aipatu 7/2009 Foru Legean sartutako aldaketari dagokionez ere, arauaren xedea eta asmoa indargabetzen baitu, Nafarroako Gobernuari ekintzak zuzenean %0,7 horretarako kargura burutzeko eta zenbatekoak banakako prestazio ekonomikoetara bideratzeko aukera eman dion heinean.

Azkenik, PFEZren bidez bildutako Estatuaren Ogasunaren funtsak jasotzen dituztenen aldean Nafarroako GKE-ek duten desabantailari dagokionez:

- Gomendatu diegu zergapekoek zerga “gizarte intereseko beste xede batzuetara” esleitzeari dagokion sailaren helmugari buruzko lege aldaketa bultzatzeko behar diren neurriak har ditzatela, herritarrek esleitutakoa halakoak egiten dituzten Nafarroako elkarteak eta GKEak finantzatzeko osorik erabiliko dela berma dadin.
 - Gomendatu dugu aurreko ekitaldian ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen aplikazioan egindako gabeziak azter ditzatela, eta gogorazi dugu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren Departamentuek beren xedapenak bete behar dituztela, behar diren neurri zuzentzaileak hartuz.
 - Gomendatu diegu Nafarroako elkarteek eta GKE-ek, zerga esleipen horri dagokionez, Estatuan dagoen araubide komunari atxikitakoen tratua bera jasotzeko behar diren neurriak aztertu eta, behar bada, har daitezela.
- Ez da onartu.

LANDA GARAPENEO ETA INGURUMENEO DEPARTAMENTUA ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOA

AO_09_12

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko araudiari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga erosleari ordainaraz dakion saihesteko, zergadunaren ordetzkoa izateagatik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 174.1.b) artikulua alda dezala, eroslearen ordetzkoaren baldintza kentzeko transmisio-egilea den subjektu pasiboari, kostu bidezko esku-aldatzeetako hiri-lurren balio gehikuntzari buruzko zergari dagokionez.
- Ez da onartu.

BERIINGO UDALA

12/151 ESP.

Teknikari dinamizatzaile lanak egiteko laguntza teknikoko kontratua deuseztatu izanari dagokionez:

- Udalarik gogorazi diogu legez bete behar duela Kontatu Publikoen Foru Legeko 124. artikuluan xedatutako prozedura, Foru Lege horren peko kontratu bat deuseztatzea erabaki aurretik.
- Udalarik gomendatu diogu kexaren egilearekin sinatutako laguntza kontratua deuseztatzeko egintza atzera bota eta baliogabe dezala.
- Udal horri gomendatu diogu, atzera egiteagatik kontratu bat deuseztatu nahi badu, espedientean xehetasunez arrazoitu eta argudia ditzala deuseztatzeko erabakia oinarritzeko arrazoi objektiboak, eta hari dagozkion prestazioari edo prestazioei lotutako balizko aukerak balora ditzala.

Onartua.

CASTEJONGO UDALA

12/107 ESP.

Udalarekiko zor bat dela-eta, jasotzen duen oinarritzko errentaren zati baten bahimenduari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu bahitutako zenbatekoaren errealitatea egiazta dezala, eta hura egiaztatutakoan, kexaren egileari beharrik gabe bahitu zaizkion zenbatekoak itzul diezazkiotela.

Onartua.

CINTRUÉNIGOKO UDALA

11/586 ESP.

Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergagatik zor zuen kuota bati erantsitako errekaruari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez bete behar duela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 eta 71.1 artikuluetan xedatutakoa, eta interesdunen eskabideak, eskaerak edo errekurtsioak forma arrazoiengatik indargabetzea saihestu behar duela.

- Udalari gomendatu diogu kexak aipatutako zehapena baliogabe dezala eta, beharrezkoa balitz, kontzeptu horregatik bildutako zenbatekoa itzul dezala.

Onartua.

CÁRCARKO UDALA

11/716 ESP.

Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoari (ORVE) dagozkion tasen ordainketari dagokionez, bere etxebizitzaren eraikitze eta urbanizazio bermea itzul diezaioten:

- Udalari gomendatu diogu herritarrari ORVEren tasen kostua eta haren etxebizitza eraikitzeko bermea beharrik gabe atxikita egon zen denboran sortutako interesak itzul diezazkiola.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

MENDIGORRIAKO UDALA

12/955 ESP.

Haren jabetzako lursail bati esleitutako azalerari eta, beraz, igortzen zaien lurralde zergaren zenbatekoari dagokienez:

- Udalari iradoki zaio herriko egungo 359 lursailaren katastroa aldatzea bultza dezala, kexaren egileei esleitutako azalera 357 metro karratutan murriztuz eta, behar

balitz, lursail mugakidearena azalera berean handituz, hori beren jabetzen gehiegizko eta gutxiegiako tamainari buruz egindako aitortpenei egokitzen zaien neurrian, eta auzipean ageri den lursailaren zatiari dagokion egungo katastro titulartasunari eutsi diezaiola, eta lurralde zergaren zenbatekoa aldaketa horri egokitu dezala.
Erantzuteke.

MILAGROKO UDALA

12/329 ESP.

Bahimendua ekarri duen premiamendu prozedura batean pairatutako babesgabetasunari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten idazki guztiei, eta haien artean kexaren egileak aurkeztutako bi idazkiei.
- Udalari gogorarazi diogu legez eman behar dizkiela interesdunei informazio zuzena eta orientabide egokia egin nahi duten jarduketari buruzko betekizun juridiko edo teknikoei buruz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. g) artikulua betez.
Onartua.

NAVASCUESEKO UDALA

12/111 ESP.

Lurralde zergaren kobrantzari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez jakinarazi behar dizkiela interesdunei beren bidezko eskubide eta interesei eragiten dieten ebazpenak eta administrazio egintzak, eta berariaz ebatzi behar dituela herritarrek aurkeztu eskabideak, eskaerak eta gainerako idazkiak.
- Udalari gomendatu diogu, kexak aipatu duen higiezinari dagokionez, 2011rako, esleitutako kalifikazioa eta katastro balioa berrikus dezatela, lehendik zeudenei eutsiz, edo interesdunaren aurrean egindako egiaztapenaren emaitzari egokituz.
Onartua.

ERRIBERRIKO UDALA

12/44 ESP.

Kontratista batek udalari emandako zerbitzua ordaindu ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkioten eskabide, eskaera eta erreklamazio guztiei, eta haiek administrazio onerako duten eskubidea betearazi behar duela.

- Udalari gomendatu diogu kexaren egileari egin dituen lanak ordain diezazkiola, egokia balitz, eska lekiokkeen balizko erantzukizuna zein ere den eta hura kaltetu gabe.

Onartua.

12/396 ESP.

Partikular batek udalari emandako zerbitzu publikoa ordaindu ez izanari dagokionez:

- Udalari gogoratu diogu legez ahalik eta azkarren ordaindu behar duela kexaren egileak egindako zerbitzua.

Onartua.

OLTZAKO UDALA

12/207 ESP.

Udal katastroan atzemandako akatsak zuzentzeko eskabide baten izapidetzeari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez azkar izapidetu behar dituela herritarrek egiten dizkieten eskabideak eta eskaerak.

Onartua.

IRUÑEKO UDALA

12/222 ESP.

Kexa jartzaileak zirkulazioaren gaineko zerga ordaindu beharrarekin duen desadostasunari dagokionez:

- Udalari iradoki diogu, azaldutako inguruabarrak direla-eta, azter dezala kexa jartzailea bere auto zaharrari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuets dezala eta, behar balitz, aipatu zerga itzultzeko behar diren neurriak har ditzala.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

12/541 ESP.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erregistroko baja data eskatu zuen bezala atzera eramateari uko egin izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez informazioa eman behar diela hautapen prozeduretan parte hartzen duten interesdunei prozedura horien garapen arruntean interferentziak nahiz baldintzapenak eragin ditzaketan alderdi eta egitate guztiei buruz, bai eta haiek beraien bidezko interesentzat izan ditzaketan ondorioei buruz ere.

- Udalari gomendatu diogu kexaren egileak eskatutakoa onar dezala, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erregistroko baja atzera eramateari dagokionez.

Onartua.

ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA

11/634 ESP.

Mankomunitateak hiri-hondakinen kudeaketan aplikatzen duen hondakinen bilketa tasari dagokionez:

- Iradoki dugu, hiri-hondakin solidoak jasotzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen irizpidea ken dadila eta haren orde berdintasun eta progresibitate printzipioekin hobeki uztartzen den irizpide bat ezar dadila, edo, bestela, egungo tarifetan irizpide aldagarriak eta gutxieneko eta gehieneko topeak ematea, hain zuzen ere tasa berdintasun printzipioari hobeki egokitzeko, halako moduz non haren zenbatekoaren banaketak zuhurtzia irizpideak beteko dituen eta ez den justifikatu gabeko desberdintasunik edo neurrigabeko emaitzarik gertatuko.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

11/688 ESP.

Erriberako Mankomunitateak tasak kobratzeari dagokionez:

- Mankomunitateari iradoki diogu, hiri-hondakin solidoak jasotzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen irizpidea ken dadila eta haren orde berdintasun eta progresibitate printzipioekin hobeki uztartzen den irizpide bat ezar dadila, edo, bestela, egungo tarifetan irizpide aldagarriak eta gutxieneko eta gehieneko topeak ematea, hain zuzen ere tasa berdintasun printzipioari hobeki egokitzeko, halako moduz non haren zenbatekoaren banaketak zuhurtzia irizpideak beteko dituen eta ez den justifikatu gabeko desberdintasunik edo neurrigabeko emaitzarik gertatuko.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

11/828 ESP.

2011n lokala etxebizitzarako erabiltzeagatiko zabor tasak kobratzeari dagokionez:

- Mankomunitateari iradoki diogu kexaren egileari 2011n lokala etxebizitzarako erabiltzeagatik igorritako zabor tasaren ordainagiriak deuseztatu eta baliorik gabe utz ditzala.
Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

12/39 ESP.

Mankomunitateak aplikatzen duen hondakinak biltzeko tasari dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez behar bezala erantzun behar diela herritarrek egindako eskabide eta eskaerei.
- Mankomunitateari iradoki diogu, etxebizitza batean jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jarduera bat burutzen den kasuetan, hiri-hondakin solidoen kudeaketa zerbitzua emateagatik tasa bakarra aplikatu dezala.

- Mankomunitateari gomendatu diogu, kexari dagokion kasuan, higiezinan abokatu jarduteagatik tasa bakarra aplikatu dezala, eta 2011ko ekitaldian behar gabe kobratutako zenbatekoak itzul ditzala.

Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

12/142 ESP.

Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatik birritan kobratzen delako usteari dagokionez:

- Mankomunitateari iradoki diogu, etxebizitza batean jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jarduera bat burutzen den kasuetan, hiri-hondakin solidoen kudeaketa zerbitzua emateagatik tasa bakarra aplikatu dezala.
 - Mankomunitateari gomendatu diogu, kexari dagokion kasuan, kexa jartzaileari tasa bakarra aplikatu diezaiola eta behar gabe kobratutako zenbatekoak itzul ditzala.
- Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

12/1058 ESP.

2008ko abuztuaz geroztik hondakin tasagatik ordainagiriak kobratzeko moduari dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez informazio nahikoa eman behar diela interesdun eta eraginpekoen beren portaerari eragin edo hura baldintza lezaketen alderdi eta egitate guztiei buruz, kasu honetan, 2008az geroztik, hondakin tasak ordaindu behar liratekeen moduari buruz.
 - Halaber, gogorarazi diogu legez tasen ordainagiri berri eman behar duela, legezko betekizun guztiak zorrozki betez.
 - Mankomunitateari gomendatu diogu, haietakoren bat oraindik indarrean egonez gero, 2008tik 2011rako tasei lotuta sortutako zorreatatik premiamendu eta bahimendu probidentziak baliorik gabe utzi ditzala.
- Ez da onartu. Ez du bere ezezkoa zuritu.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

AO_20_12

BEZaren igoeraren konstituzionaltasunari dagokionez:

- Herriaren Defendatzaileari iradoki diogu aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko neurri eta lehiakortasuna sustatzeari buruzko uztailearen 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak sektore publikoko langileen 2012ko abenduko ordainsari berezia etetea Konstituzioaren esparruan sartzen den eta zergapekoen eskubideak errespetatzen dituen iker dezala, Lege Dekretuz egin delako.
- Onartua.**

6.2.10. Barne Departamentua

IRUÑEKO UDALA

12/366 ESP.

Iruñeko udaltzain batek emandako tratuari dagokionez:

- Kasu jakin hau epaitu gabe, Udalarari gogorarazi diogu legezko betebeharra daukala Udaltzaingoak bere eginkizunak Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 4. artikulua zerrendatutako oinarritzko printzipioen arabera bete ditzan. Haien artean, honakoak daude: h) letran, herritarrekiko harremanetan tratu zuzen eta arduratsua izatea uneoro; eta k) letran, Poliziako kide identifikatzea.

Onartua.

12/426 ESP.

Gertu dauden San Fermin jaien aurrean polizia zerbitzuak antolatzeari dagokionez:

- Udalarari iradoki diogu balora dezala kexa aipatu duen Sanferminetako jaietako ospakizunei lotutako herri-segurtasuneko plan berezia prestatzea eta, egokia balitz, onartzea, orokorrean herritar guztien, eta bereziki, haietan parte hartzen duten polizia agenteen eta agintarien segurtasuna eta eskubideen erabilera ahalik eta hobekien bermatzeko har litezkeen beste neurri batzuk kaltetu gabe.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

BARAÑAINGO UDALA

12/846 ESP.

Bide publikoan txiza egiteagatiko zehapen-espeditente baten izapidetzeari dagokionez:

- Alkatetzari gomendatu diogu baliogabetu eta artxiba dezala herritarraren aurka zabaldutako zehapen-prozedura; izan ere, hark fede onez eta zegokion kitapenarekin ordaindu zuen zehapena, Udalak zabaldutako lehen prozeduraren baitan, administrazioak gero salaketa eta zehapen-prozedura aplikagarria ez zen araudi baten arabera izapidetu zituela egiaztatu bazuen ere, akats hori administrazioari berari egotzi behar zaiolarik.

Ez da onartu.

TAFALLAKO UDALA

12/404 ESP.

Tafallako udaltzain batek emandako tratuari dagokionez:

- Kasu jakin hau epaitu gabe, Udalarari gogorarazi diogu legezko betebeharra daukala Udaltzaingoak bere eginkizunak Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 4. artikulua zerrendatutako oinarritzko printzipioen arabera bete ditzan.

Haien artean, honakoak daude: h) letran, herritarrekiko harremanetan tratu zuzen eta arduratsua izatea uneoro; eta k) letran, Poliziako kide identifikatzea.
Onartua.

6.2.11. Justizia

LIZARRAKO ABOKATUEN ELKARGOA

12/141 ESP.

Abokatu batek aurkeztutako kexa bati Elkargoak erantzun ez izanari dagokionez:

- Abokatuen Elkargoari gogorarazi diogu legez sei hilaren buruz izapidetu behar dituela diziiplina-prozedurak, Diziiplina Prozeduraren Arautegian xedatu denez.
- Abokatuen Elkargoari gomendatu diogu, Diziiplina Prozeduraren Arautegiko 6 eta 17. artikuluen arabera, prozedura amaiazten duten egintzetan, herritarrei, eta kasu honetan keixaren egileari, haien aurrean jar daitezkeen errekurtsoen berri eman diezaiela.

Onartua.

IRUÑEKO ABOKATUEN ELKARGOA

11/800 ESP.

Nafarroan bide elektronikoen bidez doako laguntza juridikoa onartzeko eskatu ezinari dagokionez:

- Abokatuen Elkargoari iradoki diogu kexa jartzaileari doako laguntza juridikoaren eskabidea izapidetzeko behar dituen betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientabidea eman diezazkiola.

Onartua.

12/701A ESP.

Abokatu batek emandako eta Iruñeko Abokatuen Elkargoan salatutako laguntza juridiko bati dagokionez:

- Elkargoari iradoki diogu alderdien arteko bitartekaritza egin dezala, kexa jartzaileak adierazi duen desinformazioa argitzen ahalegintzeko; halaber, uste dugu bitartekaritza hori informala izan litekeela, legeak Elkargoari emandako eginkizunetan sartzen dela eta nahikoa izan daitekeela halako ezaugarriak dituen gai batean.

Onartua.

12/1072A ESP.

Doako laguntza juridikoaren eskabide bati dagokionez:

- Iruñeko Abokatuen Elkargoari gogorarazi diogu Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarilaren 10eko 1/1996 Legeko 7. artikulua bete behar duela, eta, beraz, ez duela berriz doako laguntza juridikoaren beste eskabide bat aurkezteko eskatu

behar prozedura juridiko berbererako, auzian emandako ebazpen judiziala eman zenetik bi urte baino gehiago igaro ez badira.

Onartua.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEA

AO_33_12

Tasa Judizialen Legeari eta epaiketari konstituzioko eskubideak defendatzeari dagokienez:

- Espainiako Herriaren Defendatzaileari iradoki diogu Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Lege onartu berriaren edukia azter ditzala, eta Gobernuari edo Gorte Nagusiei iradoki diezaiola Legea alda dezala, lagearen aurreko tratu berdintasunerako eskubidea eta epaileen eta auzitegien egiazko tutoretza eskuratzeko eskubidea bermatu xedez.

Horretarako, honakoak proposatu dira:

- a) Konstituzioak onartu eta babestu dituen oinarriko eskubideen titularrak izateagatik, ikuspuntu subjektibotik, pertsona fisikoak tasetatik salbuetsita sar daitezela.
- b) Arestiko iradokizunari desegokia iritziz gero, beheko klaseetako eta klase ertainetako pertsona fisikoak tasak ordaintzetik salbuetsita gera daitezela, eta hala, adibidez, muga batetik beherako (30.000 edo 40.000 euro) urteko sarrera gordinak dituzten pertsona fisikoek ez ditzatela tasak ordaindu behar, tasen kontzeptua inspiratu duen ahalmen ekonomikoaren printzipioa sartuz hala.
- c) Edonola ere, diru-sarrerak gorabehera, herritarrek eurei edo beren senideei urratutako konstituzio eskubide bat edo batzuk defendatzen dituzten prozesu judizialak tasak ordaintzetik salbuetsita gera daitezela. Konstituzioak onartutako eskubideen defentsak ez luke tasarik izan behar.
- d) Administrazio publikoek, aldiz, tasa judizialak ordain ditzatela herritarren eskubideak urratu dituzten egintzak aztertzen diren auzietan haien errekurtsuak edo egintzak ezetsiak diren kasuetan.
- e) Arestiko iradokizunari desegokiak iritziz gero, tasa judizialek baliokidetasun printzipioari jarraituz (“zerbitzuaren kostua estaltzeko joera izan dezatela”, ez estal dezatela) zenbateko neurritsuak izan ditzatela, inolaz ere tutoretza judiziala eskuratzeko galaraz edo gibelaraz ez dezaten. Tasagatik ordaindu beharreko zenbatekoa prozesuan eztabaidatutako zenbatekoaren ehuneko txiki bat baino handiagoa inoiz ez izatea bermatu behar litzateke beti, edo zenbatekoa zehaztugabea denean, tasa zenbateko txikia izatea.
- f) Azkenik, bigaren auzialdiko tasen zenbatekoak eta lehen auzialdiko tasenak desberdinak izan ez daitezela edo, subsidiarioki, haien arteko aldea os txikia eta kostuaren arabera justifikatua izan dadila.

- Espainiako Herriaren Defendatzaileari iradoki diogu justizia administrazioari eta herritarren konstituzioko eskubideei lotutako beste gai batzuk azter ditzala, hala nola:

- a) Gatazkentzako epaiketaz kanpoko irtenbideak bultzatzea, arbitrajea eta bitartekaritza bezalako bideak erabiliz (batez ere, administrazioaren eremuan).
 - b) Autonomia Estatutuetan konstituzioko eskubideen bermatzaile aitortutako erakundeak, hala nola Herriaren Defentsariak, epaiketari aurkeztu eta hain dirudunak ez diren herritarrek ordezkatu eta defendatu ahal izatea ahalbidetzea, horretarako behar den prozesu zilegitasun aktiboa emanez.
- Onartua.**

AO_35_12

Gaixotasun mentala duten pertsonen zigor-, auzibide- eta espetxe-tratamenduari dagokionez:

2012ko ekainaren 19 eta 20an Zaragozan egin ziren Herriaren Defendatzaileen XXVII. Koordinazio Jardunaldien prestaketaren kariaz, Espainiako Herriaren Defendatzailearen egoitza prestatzeko tailer bat egin zen, "Gaixo mentalaren zigor-, auzibide- eta espetxe tratamendua" izenpean. Bertan, Nafarroako Arartekoak honako proposamenak egin zituen:

1. Errealitatea onartzea: espetxeko biztanleriak patologia mentaleko tasa handia daukala: lau presotatik batek diagnostiko psikiatriko bat edo batzuk dauzka jasota bere historia klinikoan. Pertsona horiek buruko gaixotasun larria edo kronikoa daukate, andeatzen dena, eta gizarte eginkizunak betetzeko zenbait desgaitasun eta trebetasunen bidez agertzen da; haietako askok eguneroko bizitzarako gabeziak ere badauzkate, eta mendeko bihurtzen ditu horrek, estresaren aurrean zaurgarriak, sozializatzeko gabeziak dauzkate eta sintomak arintzen diren boladak eta berrizkaturak txandakatzen dira.

Are larriagoak dira espetxeetan zigorra betetzen ari diren eta desgaitasun psikikoa duten 1.000 lagunetik gorako kasuak (2006an, presoen %1,8); haien desgaitasuna elbarritasuneko ziurtagiri medikuaren edo historia klinikoan jasotako proba psikometrikoen bidez frogatuta dago. Pertsona horiek berehala aldatu behar lirake arreta soziosanitario psikiatriko egokiko zentroetara edo toki eta tratamendu egokiagoetara.

2. Justizia Ministerioak indarrean dagoen legezko zigor-, auzibide- eta espetxe-esparrua berrikustea, bertan, Gaixo Mentalak Babesteko eta Osasun Mentalaren Arreta Hobetzeko Printzipioak sartzeko -NBERen Batzar Nagusiak 1991ko abenduaren 17ko 46/119 Ebazpenaren bidez onartutako agiria-, batez ere gaixotasun mentala duten pertsonen defentsari eta atxiloketa zentroetan gogoz kontra sartzeari dagokienez.

3. Gaixotasun mentala duten auzipetuak eta presoak, gutxienez, honako lau kasuetara birbideratzea, haietako bakoitzak ondorio eta neurri desberdinak dakartzalako:

- 1. kasua: Buruko gaixotasuna izanda ekintzaren legez kontrakotasuna ulertzeko edo ulermen horren arabera jokatzeko gaitasunik ez duten auzipetuak: Zigor Kodeko 20. 20. artikulua arabera erantzukizun kriminalaren salbuespena gauzatzeko neurriak hartu behar lirateke, pertsona horiek espetxeetan sartzea ekidin ahal izateko edo haietan egonaldi ahalik eta laburrena egitea lortzeko.
- 2. kasua: Buruko gaixotasun larria izanda, gaixotasun horren ondorioz, irizpide mediku eta zientifikoaren arabera, hirugarren pertsonentzako arriskurik igartzen ez zaien presoak: espetxez besteko zentro batean artatu behar lirateke eta osasun tratamendu "zibil" eta "ez penal" egokia jaso behar lukete, osasun laguntza publikoaren ereduak gaixotasun mentala duten auzipetu gabeko pertsonen baldintza berberetan emanda, haien konstituzioko eskubideak erabat errespetatuz. Osasun mentala berreskuratuta, baloratu behar litzateke, Zigor Kodeko 60.2 artikulua aplikatuz, zigorra betetzea beharrik gabea edo kaltegarria den baloratu eta, egokia balitz, kondena deuseztatu edo murriztu behar litzateke, edo askatasuna kentzeko zigorraz besteko neurriak jarri haren orde.
- 3. kasua: Buruko gaixotasun larria izanda, gaixotasun horren ondorioz, irizpide mediku eta zientifikoaren arabera, hirugarren pertsonentzako edo beren buruarentzako arriskua igartzen zaien presoak: espetxez besteko zentro batean artatu behar lirateke eta osasun tratamendu berezi eta banakakoa jaso, osasun laguntza publikoko ereduak emanda edo, beren buruarentzako edo hirugarren pertsonentzako arrisku larriko kasuetan, erakunde edo unitate psikiatriko batera eramana izan, bertan barneratuta, arreta emanda, zainduta eta beren gaixotasunagatik beharrezkoa den denbora doi-doi artatuta geratzeko, haien duintasuna eta eskubideak erabat errespetatuz beti. Osasun mentala berreskuratuta, baloratu behar litzateke, Zigor Kodeko 60.2 artikulua aplikatuz, zigorra betetzea beharrik gabea edo kaltegarria den baloratu eta, egokia balitz, kondena deuseztatu edo murriztu behar litzateke, edo askatasuna kentzeko zigorraz besteko neurriak jarri haren orde.
- 4. kasua: Buruko gaixotasun ez larria izanda beren delituari buruzko kontzientzia duten presoak: espetxean geratu behar lukete, banakako osasun tratamendu, birgaitze eta birgizarteratze programa baten pean, Autonomia Erkidegoko Osasun Zerbitzuko medikuekin koordinatuta. Beharrezkoa edo gomendagarria den guztietan, banakako programak zigorraz besteko segurtasun neurriak aplikatzea bilatu behar luke, hala nola kanpoko osasun tratamenduak (hala nola ambulatorioak), familiako zaintza edo zentro egokietan barneratzea (psikiatrikoak, birgaitzekoak, hezkuntzakoak, etab.); funtsezkoa da Espetxe Zaintzako epaile batek esku hartzea, besteak beste, psikiatra batek eta gizarte zerbitzuetako langile batek osatutako diziplina anitzeko talde batek ongi aholkatuta.

4. 1. kasuan sartzea saihesteko, hots, justizia sistemaren eginbide arrunteko baldintzetan erantzukizun penaletik salbuetsita edo salbuesle osagabe baten pean geratuko liratekeen pertsonak epaituak eta kondenatuak saihesteko, honako proposamenak egin ditugu:
- a) Segurtasun kidego eta indarren kideen prestakuntzari arreta berezia ematea, atxilotuak gaixotasun mentalen bat dauka susmatzen denean, zigor eginbideetan parte hartzen duten alderdiei (fiskaltza, abokatuak, epailea) egitate horren berri eman dakien, posibilitate horren arabera prozesua behar bezala bidera dadin.
 - b) Fiskaltzako eta abokatuen elkargoetako kideen prestakuntzari arreta berezia ematea, gaitz mentala izanda ustezko delitu edo hutsegite bat egin izana leporatzen zaion pertsonen balizko kasuaz jabe daitezen, eta gaixotasunaren susmoa edo hautematea berretsiz gero, protokolo baten bidez jardun ahal izan dezaten, inguruabar salbueslea edo aringarria dagoela alegatu ahal izateko eta, salbueslea bada, pertsona hori osasun tratamendurako toki egokienera bideratzeko.
 - c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak arreta berezia ematea epaileen eta magistratuen prestakuntzari, ustezko delitu edo hutsegite bat egin izana leporatzen zaion pertsonak gaixotasun mental larria izan lezakeela jabetzen diren kasuetan nola jokatu jakin dezaten, inguruabar salbueslea edo aringarria izanez gero, pertsona hori osasun tratamendurako toki egokienerantz bideratu ere ahal izan dezaten.
5. 2 eta 3. kasuetarako, Justizia Ministroak Zigor Kodeko 20 (bertan gaixotasun mentala duten pertsonen berezitasuna jaso behar litzateke), 60 eta 101. artikulua aldatzeko aukera azter dezan, epaileak edo auzitegiak, espetxe-zaintzako epailea barne, osasun txostena izanda, gaixotasun mental larria duen pertsonari laguntza-zentro batean edo jarraibide medikuen pean sendatzeko osasun tratamendua ezartzea, birgaitzea eta birgizarteratzea erabaki ahal izan dezan, tratamenduaren iraupena askatasuna kentzeko zigorraren iraupenetik askatuta, hori gaixoaren osasunaren edo osotasunaren edo haren birgizarteratzearen onerako bada.
6. 2 eta 3. kasuetarako berriz, egokia den kasuetan, osasun txostena eta gizarte txostena izanda, askatasuna kentzeko zigorraren ordean gaixotasun mental larria duten pertsonen tratamendua eta birgizarteratzea ahalbidetuko duten bestelako neurriak hartzeko eska dadila, Zigor Kodean edo espetxe-arauegian formalki hura aitortuz ez ezik, hori eginda baitago, benetako eta egiazko programen bidez ere bai, programa haiei aukera egiazkoa eta aplikatua izateko behar beste baliabide emanda.
7. 2, 3 eta 4. kasuetarako, Zigor Kodea alda dadila espetxe-zaintzako epaileen eginkizunak sendotzeko, gaixotasun mentala izanda espetxeetan sartuta dauden pertsonak beren tratamendu, birgaitze eta birgizarteratzerako giro egokienera

birbideratu ahal izateko, epaia eman duen justizia organoarekiko autonomia ere izanda.

8. 2 eta 3. kasuetarako, guztion artean (gizartea, politikariak, botere publikoak, zuzenbide operatzaileak, justiziako langileak, osasuneko langileak, gizarte zerbitzuetako langileak eta gainerakoak) pentsaera aldaketa sakona bultza dadila, gaixotasun mentala duten pertsonak gaixoak eta eriak direla onartzeko, kasu larrietan espetze esparrutik aldentzeko eta haiekin horren arabera eta gaixotasun mentala duten beste pertsonekin bezala (haiek ere, irizpide medikuetatik, eta ez polizia edo justizia irizpideetatik, hirugarren pertsonentzako arriskua izan baitaiteke) jokatzeko.

Ezinbestekoa da benetako laguntza sistema soziosanitario, publiko, eraginkor eta nahikoa diseinatu eta eraikitzea, kasu larrietan espetxean eta ospitale psikiatrikoetan (argi baitago haietan gaixoak aldentuta eta bakarrik daudela) geratzearen aurreko aukera dena, gaixotasun mentala duten pertsona horiek (akusatuak edo presoak) klinikoki eta zuzen diagnostika dituzan, osasun tratamendua eman diezaien eta gizarteratzea (pertsona horientzat, ezinbestekoa da komunitateko arreta soziosanitarioko sarean zaintza iraunkorra izatea) eta laneratzea (gaixotasun mentalak dituzten pertsona askok lanean aurkitu dituzte sendatzeko eta egonkortzeko aukera eta behin betiko urratsa) bila dezan, banakako programen bidez.

9. 4. kasurako, funtsezkoa da (larria ez den) gaixotasun mentala izanda espetxeetan geratu behar duten pertsonen osasun arreta indartzea, espetxeei giza baliabide eta baliabide material nahikoak eta egokiak jarritz, Autonomia Erkidegoko Osasun Zerbitzuarekin koordinatuta, eta presoaren birgizarteratzea eta laneratzea banakako programen bidez bultzatuz.

6.2.12. Gazteria eta Kirola

GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

AO_23_12

Adopzio nazionala eskatzeko bereizkeriari dagokionez, adoptatzaileei seme-alabarik ez edukitzea eskatzen zaielako:

- Gizarte Politiketako Departamentuari iradoki diogu haurren eta nerabeen sustapen, arreta eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 15. artikulua aldatzeko aukera azter dezala, adopzio nazionalan seme-alabarik ez duten pertsona edo familia-nukleoei lehentasuna eman baitie, premia bereziak dituzten adingabeei dagokienez izan ezik, Nafarroako familiaordeen artean konparaziozko bidegabekeria eragingo balu eta, batez ere, adopzioaren filosofiaren aurka egingo balu, filosofia hori adingabearen interesa nagusitzea baita, eta ez helduena.

Onartua.

ANTSOAINGO UDALA

12/1122 ESP.

Haren alabari udak kirol instalazioak erabiltzeagatik kobratutako kuotari dagokionez:

- Udalari gomendatu zaio kexaren egilearen alabari 2012an udal kirol instalazioak erabiltzeagatik abenduari dagokion kuota (orduan eskatu baitzuen hura erabiltzea) kobra diezaiotela, hiruhileko osoagatik bidali zitzaiona heinean banatuz.
Onartua.

ARTAXOAKO UDALA

12/77 ESP.

Herriko futbol zelaia erabiltzeko tratu baztertzaileri dagokionez:

- Udalari iradoki zaio lankidetzeta hitzarmena susta dezala, toki erakundea ez ezik, C.A. Artajonések eta C.D. El Cercok ere parte har dezaten, etekinak eta kargak bien artean banatuz, udal futbol zelaia erabiltzeko intentsitatearen arabera.
- Udalari gomendatu zaio, edonola ere, kudeatzeko erabilitako modua zein ere den, berdintasunaren eta berdinbanatzearen printzipioak berma daitezela, C.D. El Cercori ezarritako kargak berriusiz eta, egokia balitz, aldatuz.
Onartua.

BURLATAKO UDALA

12/23 ESP.

Iratxe Kontsumitzaile Elkartearen bidez aurkeztutako erreklamazio bati kasurik egin ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela herritarrei indarreko araudian xedatutako epeen barruan, eskabideak osagabeak direla uste denean haiek zuzentzeko eskatu, prozedurek agertutako kontu guztiak berariaz ebatzi eta erabakiak jakinarazi, legeak eskatutako edukiarekin.
- Udalari gogorarazi diogu udal kirol instalazioak erabiltzeko tasak kobratzeko tratu desberdintasunak ezabatzeko neurriak har ditzala eta, kasu honetan, interesdunari herrian erroldatutako hirurogeita bost urtez gorako pertsonen ematen dien tratu bera eman diezaiola.
Onartua.

EGUESKO UDALA

12/382 ESP.

Udalak aurkeztutako eskari bati erantzun ez izanari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 6/1990 Foru Legeko 318. artikulua bete behar duela, zeinen arabera herritarrek egindako eskaerei legez xedatutako epeetan erantzun behar baitie; halaber, gomendatu diogu, kasu honetan, kexa jartzaileak aurkeztutako bi eskariei erantzun diezaiela.
- Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

NAFARROAKO PADEL FEDERAZIOARI

11/806 ESP.

Nafarroako Padel Federazioak antolatutako lehiaketetan parte hartzeko eskatutako nazionaltasuneko betekizunari dagokionez:

- Federazioari gomendatu diogu, Nafarroako esparruan antolatzen dituen lehiaketa ez profesionalei dagokienez eta, zehazki, Nafarroako Padel Zirkuituan, bi bikotekideetatik batek espainiar nazionaltasuna izateko betekizuna alda dezala, eta lehiaketa eta baldintza berdintasuna Europar Batasuneko Estatu kide guztietako herritarrentzat zabal ditzala.
- Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

6.2.13. Ingurumena

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua 11/689 ESP.

Nafarroako Ingurumen Batzordearen funtzionamenduari dagokionez:

- Nafarroako Ingurumen Batzordeari gogorarazi diogu legez ingurumen-inpaktuko azterlana eskatzen duten azpiegitura proiektuei buruzko derrigorrezko txostenak eman behar dituela, otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legeak agintzen duenez.
 - Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren organo eskudunei gogorarazi diegu legez berariaz erantzun behar dietela organoko kideek aurkeztutako eskabideei, eskaerei eta gainerako idazkiei.
 - Kontsulta erakunde horren organo eskudunei gomendatu diegu edonola ere beren antolamendu eta funtzionamendu arautegian xedatutako saio deialdietarako maiztasuna bete dadila.
- Onartua.**

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUA ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOA

12/201 ESP.

Kontserbazio bereziko eremu batean atari zabaleko meategi proiektu bati lotuta meatzaritza lanak egiten ari den enpresa dagokionez, zundaketa eremua oki gibelnabarraren (*Dendrocopos leucotos*) lurralde ezaguna delako, espezie hori Espainiako Espezie

Mehatxatuen Katalogoan “Arriskuan” sailkatuta eta Nafarroako Gobernuak azaroaren 27ko 563/1995 Foru Dekretuaren bidez hala aitortuta egonda:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez bete behar duela Ingurumena Zaintzeko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeko 71. artikulua.
 - Departamentuari gomendatu diogu, ematen dituen ingurumen-afekzioko baimenetan, arreta eta zaintza berezia jar dezala baimendutako enpresak burutzen dituen jarduketan gainean, baimenean xedatutako baldintzak beteko dituela bermatu xedez.
- Onartua.**

12/259 ESP.

Bertizko Jaurerrian zenbait animalia espezie basatiren ehizari dagokionez, eta egindako salaketa bati erantzun ez izanagatik:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez bete behar dituela basafauna eta haien habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 11. artikuluan xedatutako baimenak emateko prozeduren izapidetzean eskatu beharreko prozedura fase guztiak.
 - Departamentuari gogorarazi diogu legez nahikoa arrazoitu behar dituela basafauna eta haien habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 11. artikulua aplikatuz emandako baimenak.
 - Departamentuari gogorarazi diogu legez basafaunaren babesari edo ehizari buruzko kontuetan egindako salaketak indarreko araudian xedatutako gehienezko epearen barruan ebatzi behar dituela, eta epe horretan jakinarazi behar dituela hartutako erabakiak, beharrezkoa balitz, legezko babes eta leheneratzerako behar diren neurriak hartuz edo hala dagokionean erantzukizunak argituz, are gehiago salaketa horiek ingurumenaren babeserako erakunde ezagunek egin badituzte.
- Onartua.**

12/277 ESP.

Bertizko Jaurerrian zenbait animalia espezie basatiren ehizari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez bete behar dituela basafauna eta haien habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 11. artikuluan xedatutako baimenak emateko prozeduren izapidetzean eskatu beharreko prozedura fase guztiak.
 - Departamentuari gogorarazi diogu legez nahikoa arrazoitu behar dituela basafauna eta haien habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 11. artikulua aplikatuz emandako baimenak.
- Onartua.**

12/320 ESP.

Basogintza jarduerak egiteko onartu zitzaizkion laguntza ekonomikoak gutxitu izanari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, kexak aipatu lanetarako azaleraren neurketetan ikusitako desadostasunak direla-eta, hura argitzeko, adituen beste txosten bat egin dadila.
- Departamentuari iradoki diogu, txostenean aipatu 0,6 hektareako azalerari eutsiz gero, interesdunari hura espedientearen hasierako fasean aintzat hartutako azalera izan balitz zegokiokkeen laguntzaren zenbatekoa ordain dakiola.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/360 ESP.

2009ko irailaren 17an egindako arau-hauste bat preskribatu izanari dagokionez, zein urte bereko azaroaren 3an Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuaren aurrean salatu baitzen:

- Departamentuari gogorazi diogu legez arreta egokia eta eraginkorra eman behar diela herritarrei, prestutasun ahalik eta handienaz eta legez xedatutako epeen barruan jokatzuz beti herritarrek agertutako gaien izapidetzean, haiei gertatutakoa bezalako kalteak eragitea saihesteko eta administrazio arau-hausteak preskribatzea saihesteko.
Onartua.

12/362 ESP.

Ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuz onartutako Ehiza eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen Arautegia aldatu duen otsailaren 1eko 7/2012 Foru Dekretuari dagokionez:

- Departamentuari gogorazi diogu legez, ehiza-ustiapenei lotutako erabakiak hartzean, Ehiza eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeko 4. artikulua aipatutako kide anitzeko organoen eta, zehazki, Ehiza eta Arrantzarako Aholkularitza Batzordearen bidezko gizarte parte-hartzeko xedapen guztiak bete behar dituela.
Onartua.

12/381 ESP.

Nafarroako ehiza-ustiapenen titularren balizko erantzukizuna estaliko duen aseguru tresna ezartzea ekonomikoki bultzatzeko laguntza arautu ez izanari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, Nafarroako Ehiza eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeko 86.3 artikulua garatuz eta betearaziz, artikulua hark aipatu laguntza ekonomikoa arautuko duen araua eta hura bideratzeko modua prestatu eta onartzea bultzatzea dezala, arau horrek egungo Ondare Erantzukizun Zibileko asegurua edo egokia iritzitako besteren bat jasotzea kaltetu gabe.
Onartua.

12/710 ESP.

Arguedaseko arroz-zelaietan hegaztiei eraztuna jartzeko eskabide bati uko egin izanari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez erantzun behar diela, berariaz, denboran eta forman, herritarrek egiten dizkieten eskabide eta eskaera guztiei, eta haien artean kexaren egileak jarritako salaketa idazkiari.
- Departamentuari gomendatu diogu, honakoaren antzeko egoeretan, zorrozki egokitu diezaiola basa hegaztiei eraztuna jartzeko aurkezten zaizkion eskabideen onespena edo ezespena indarreko legedi aplikagarriari, ezesteko kasuak nahikoa eta zuzenbidearen arabera arazoituz.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/884A ESP.

Merkataritza zentro batean espezieak erakusteari dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez betearazi behar duela basafauna eta haien habitatak babestu eta kudeatzeko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 9 eta 10. artikuluetan xedatutakoa, eta haren arabera zehatu behar dituela manu horien aurkako egitateak.
- Departamentuari gomendatu diogu merkataritza zentroan basafaunako hegaztiak egindako erakusketak beharrezko betekizun guztiak betetzen zituenetz eta Departamentuaren administrazio baimena zeukanetz egiaztatzeko izapideei ekin diezaiela eta, araudi aplikagarria bete ezean, balizko arau-hausleak zigor ditzala.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

ARANGURENGO UDALA**11/851 ESP.**

Udala titularra den ehiza-esparruaren sozietate kudeatzailearen aktari dagokionez, udalean erroldatutako pertsona bat esparruaren tokiko bazkidetzat jo ez izanagatik eta ehiza-kuota desberdin kobratzeagatik:

- Udalari gomendatu diogu, esparruaren titularra den heinean, esparruaren sozietate kudeatzaileari ehiztariaren eskubideak bermatzeko egindako errekerimenduak betearaz ditzala eta, bete ezean, ustiapenaren emakida bertan behera utz dezala edo, bestela, egokiak beste neurri batzuk har ditzala.
Onartua.

Berriplanoko Udala eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentua

11/610 ESP.

PA-30eko trafikoaren ondorioz, beren etxebizitzetan jasaten ari diren gehiegizko zaratari dagokionez:

- Nafarroako Gobernuako Etxebizitza eta Sustapen Departamentuari eta Berrioplanoko Udalari gogorarazi diegu legez herritarrek gehiegizko zarata iraunkorrak, baita trafikoak eragindakoak, etxean ez jasateko duten eskubidea babestu behar dutela, xede horretarako behar diren neurriak hartuz.
- Kexari dagokionez, bi administrazioek teknikoki egokia izanda erasandako etxebizitzetan gehiegizko zarata ekidingo duen neurri zuzentzailea hartzen eta finantzatzen elkarrekin jardun dezatela gomendatu dugu.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

BURLATAKO UDALA

11/781 ESP.

Gazteen etxabe batetik iritsitako gehiegizko zaratek eragindako kutsadura akustikoari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu ahalik eta lasterren onar dezala aisiarako bilera zentro iraunkor eta behin-behinekoetarako lokalak arautzeko ordenantza eta, bitartean, behar diren neurriak har ditzala kexa jartzailearen bizilekuko etxabeko zarata mailak indarreko legeak xedatutako mailak gaindi ez ditzan.
- Udalari gogorarazi diogu legez herritarrek administrazio onerako duten eskubidea errespetatu behar duela eta, zehazki, herritarrek aurkeztutako eskariak legez xedatutako epearen barruan ebatzi behar dituela, kasu honetan, kexaren egileak aurkeztu eskaria.
Onartua.

UHARTEKO UDALA

12/884 ESP.

Zentro batean espezieak erakusteari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez betearazi behar duela Nafarroako ikuskizun publikoei eta jolasezko jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Lege osoa, eta bere udalerrian egiten diren ikuskizun publikoek dagozkien baimenak dauzkatela zaindu behar duela.
- Udalari gomendatu diogu egindako hegazti erakusketak behar diren udal betekizun guztiak betetzen zituen egiaztatzeko behar diren izapideei ekin diezaiela eta, araudia bete ezean, balizko arau-hausleak zigor ditzala.
Onartua.

IRUNBERRIKO UDALA

12/189 ESP.

Zenbait ekitaldi burutzeko erabilitako Udaletxeko aretoetako batetik iritsitako zaratari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez betearazi behar duela kexa jartzaileak ingurumen egokia izateko eta legez onartutako mailaren gaineko kutsadura akustikoa ez pairatzeko duen eskubidea.
 - Udalari gomendatu diogu hoshgabetzeko neurri berriak azter eta har ditzala, ateratako zaratek legez onartutako mailak gaindi ez ditzaten.
- Onartua.**

MARTZILLAKO UDALA

11/829 ESP.

Telefonia mugikorreko antena baten ezarpenari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez hartu behar dituela behar diren neurri guztiak klasifikatutako jarduerak beharrezko udal lizentziarik gabe jardutea saihesteko, gai horretan ikuskatzeko duen eskumena erabiliz.
 - Udalari gomendatu diogu, jarduera legeztatu ahal balitz ere, antenaren titularra den enpresari zehapenak jarri ahal izatea azter dezala, antena hura lehen derrigorrezko baimenak lortu gabe ezarri izanagatik.
- Onartua.**

MONTEAGUDOKO UDALA

12/400 ESP.

Haren etxebizitza ondoko taberna baten barrutik eta terrazatik iritsitako zaratei dagokienez:

- Udalari gogorarazi diogu legez eraginkortasunez babestu behar dituela salatutako lokaletik iritsitako zaratak erasandako auzokoen konstituzioko eskubideak, horretarako egokiak eta proportziozkoak diren neurriak hartuz.
 - Udalari gomendatu diogu kexak aipatu tabernari dagokionez zaratari buruzko legedia betetzeko kontrol neurriak zorrotzu eta areagotu ditzala, egokia balitz zehapen neurriak hartuz, edo beharrezkoa balitz, neurri zorrotzagoak edo zuzentzaileak.
 - Udalari gomendatu diogu tabernaren titular berriak dagokion baimena benetan daukan egiazta dezala, horren arabera egokiak diren neurriak hartzeko.
- Onartua.**

OTSAGABIAKO UDALA

11/496 ESP.

Haren etxebizitzatik gertu burutzen diren bi industria jarduerak eragindako zaratei dagokienez:

- Udalari gogorazi diogu legezko betebeharra duela eraginkortasunez jarduteko, herritarrek beren etxebizitzetan bakean egon daitezen eta atsedena har dezaten bidegabeko zaratak eta eragozpenak saihesteko, kasu honetan, kexaren egilearen etxebizitzatik gertuko bi tailerrek eragindakoa.
- Udalari gomendatu diogu behar diren neurriak har ditzala kexak aipatutako jarduerak kexaren egilearen intimitaterako konstituzioko eskubideak urratzen dituzten zaratak eta eragozpenak eragin ez ditzaten eta, beharrezkoa balitz, zarata eragiten duen jardueren titularrei eska diezaiela behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko; halaber, Udalak zarata eragiten duten instalazioak aldi baterako edo behin betiko mugatzea edo ixtea ere dekreta lezake, indarreko legediari guztiz egokitu ezean.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

ERRIBERIKO UDALA

12/369 ESP.

Udako hiletan batez ere, herriko plaza batean gazteak elkartzeak eragiten duen zaratagatik pairatzen duten ondoezari dagokionez:

- Udalari iradoki diogu plazan sortutako zarata maila eta kexaren egileen etxebizitzetan duen eragina azter ditzala eta, egokia balitz, behar diren neurriak har ditzala zarata mailak indarreko legediak xedatutako mailei egokitu dakizkien.
- Udalari gogorazi diogu legez herritarrek administrazio onerako duten eskubidea errespetatu behar duela eta, zehazki, herritarrek aurkeztutako eskariak legez xedatutako epearen barruan ebatzi behar dituela, horretarako egokiak diren neurriak hartuz, kasu jakin honetan kexaren egileak aurkeztu eskariei erantzunez.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

11/789 ESP.

Kexa jartzaileek euren etxebizitzetan jasan behar duten zaratari eta pairatzen ari diren egoera konpontzeko neurririk ezari dagokionez:

- Udalari gogorazi diogu legez eraginkortasunez babestu behar dituela kexan salatutako zaratak erasandako auzokoen konstituzioko eskubideak, horretarako egokiak eta proportziozkoak diren neurri guztiak hartuz.
- Udalari gomendatu diogu honako neurriak ditzala:
 - a) Kexan aipatutako tokian poliziaren zaintza areagotzea eta gaueko ordutegian han pertsonak pilatzea saihestea, zarata maila handiegiak sortu edo bestelako portaera gizalegegabeak badauzkate edo gizartean onartutako elkarbizitza arauak errespetatzen ez badituzte, eta, beharrezkoa balitz, eragileen aurrean zehapen neurriak hartzea.

- b) Kexan aipatu lokalen funtzionamendua ikuskatzea eta zaintzea, behar diren neurri zuzentzaileak hartuz eta, bereziki, gaueko ordutegian jardutea saihestuz horretarako baimenik ez balu edo zarata handiegia sortuko balu.
- c) Herritarrek kexan egindako proposamena, hots, herritarren etxebizitzetatik aldentutako “kale-edana” egiteko gaitutako eremu zehatzak mugatzeko aukera, aztertzea.

Onartua.

12/147 ESP.

Nafarroako Gobernuak Eskiroz kalean dauzkan lokalek eragindako hots mailari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu aire girotzeko instalazioek eragindako zarata maila eta kexaren egileen eta erasandako gainerako auzokideen etxebizitzetan duen eragina azter ditzala eta, egokia balitz, behar diren neurriak har ditzala zarata mailak indarreko legediak xedatutako mailei egokitu dakizkien.
- Udalari gomendatu diogu berehala ekin diezaiola legea babesteko dagokion prozedurari, administrazio bulegoak zabaltzeko baimenari dagokionez.
- Udalari gogorarazi diogu legez herritarrek administrazio onerako duten eskubidea errespetatu behar duela eta, zehazki, herritarrek aurkeztutako eskariak legez xedatutako epearen barruan ebatzi behar dituela, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.

Onartua.

12/376 ESP.

Iruñeko eliza baten kanpaiak duten zarata handiegiari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu elizaren kanpaien eta haiei atxikitako erlojuaren hots-mailak, hurrenez hurren, gurtzara deitzeko kanpaietarako finkatutako 90 dezibeleko gehienezko muga eta erlojurako 135/1989 Foru Dekretuak xedatutako gehienezko mugak betetzen dituela zaintzeko behar diren neurriak har ditzala.

Onartua.

12/621 ESP.

Urteko aste guztietako ostegun, ostiral eta larunbat gau askotan Iruñeko Alde Zaharreko auzokoak pairatzen ari diren zaratei dagokienez:

- Udalari gogorarazi diogu legez eraginkortasunez babestu behar dituela Iruñeko Alde Zaharreko ostalaritza lokaletatik iritsitako zaratak erasandako auzokoen konstituzioko eskubideak, horretarako egokiak eta proportziozkoak diren neurriak hartuz.
- Udalari gogorarazi diogu inguru horretako zaintza areago dezala, herritar guztiek auzokoen lasaitasuna eta atsedena eta, bereziki, norberaren eta familiaren

intimitaterako, osotasun fisikorako eta beren bizilekuen bortxaezintasunerako dituzten konstituzioko eskubideak errespetatzeko duten betebeharra bermatzeko.
Onartua.

TUTERAKO UDALA

12/1076 ESP.

Tuterako gune historikoko kale batean, zehazki Cortadores kalean, sortzen den zarata handiegiari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez eraginkortasunez babestu behar dituela Tuterako gune historikoko dauden ostalaritza lokaletatik iritsitako zaratak erasandako auzokoen konstituzioko eskubideak, horretarako egokiak eta proportziozkoak diren neurriak hartuz.
- Udalari gogorarazi diogu Cortadores kaleko zaintza areago dezala, herritar guztiek auzokoen lasaitasuna eta atsedena eta, bereziki, norberaren eta familiaren intimitaterako, osotasun fisikorako eta beren bizilekuen bortxaezintasunerako dituzten konstituzioko eskubideak errespetatzeko duten betebeharra bermatzeko. Erantzuteke.

ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA

11/693 ESP.

Cintruenigoko kale batean jarritako zabor edukiontziei dagokionez:

- Mankomunitateari gogorarazi diogu legez berariaz erantzun behar diela herritarrek aurkeztutako eskabide, eskaera eta erreklamazio guztiei, baita kexaren egileek egingakoei ere.
- Mankomunitateari iradoki diogu aipatu edukiontzien egungo kokapenaren aldaketa aztertu eta buru dezala, auzokide guztien eskubideak eta interesak era arrazoizkoan uztartuko dituen irtenbidea emanaz.
Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

6.2.14. Herri lanak

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA

12/204 ESP.

Herri lan baten ondorioz haren jabetzan eragindako kalte-galerak konpondu ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu kexaren egilearen lursailean eragindako kaltea espeziean ordaintzeko behar diren neurriak har ditzala, errepide mugakidea zabaldu eta hobetzeko lanek erasan dioten neurrian.
Onartua.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUA

12/962 ESP.

Irungo errepidea Arre herritik igarotzen den zatian handitzeko proiektuari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, kexak aipatu zirkulazio bidea bikoizteko proiektuaren izapidetzeak eskatutako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren esparruan, inguruko etxebizitzetako afekzio akustikoari buruzko azterlana sar dadila eta, batez ere interesdunen bizilekuei dagokienez, zarata indarreko legedian xedatutako mailen barruan geratuko dela bermatzeko behar diren neurriak har ditzala.

Onartua.

ALLOKO UDALA

12/54 ESP.

Haren lursailera eta Alloko zentral hidroelektrikora iristeko bide publikoaren mantenu eskasari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu kexak aipatu bidearen egoera, zehazki kanaletik eta zentral hidroelektrikotik gertuko zatiarena, zain dezala, bide horrek andeatzen jarraitzea saihestu xedez; halaber, puntu horretan segurtasun neurriren bat (hesia, langa, etab.) har dezala, jendea toki horretan sartzea ekiditen ahalegintzeko.
 - Udalari iradoki diogu Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eska diezaiola zentral elektrikoaz kanpoko jendeari haren instalazioetan eta ondoko ingurunean sartzea galarazteko neurriak har ditzala, eta iragaitea galarazten duen seinalea jar dezala.
- Onartua.**

CAPARROSOKO UDALA

12/991 ESP.

Herri horretako kale batek duen egoera eskasari dagokionez:

- Udalari gogorarazi diogu legez hiri bide publikoen zolatzeari eta ura eta saneamendua hornitzeari buruzko eskumenak erabili behar dituela, eta azpiegiturak edo instalazioak egoera egokian mantentzeko behar diren jarduketak burutu behar dituela.
 - Udalari gomendatu diogu, kexan aipatu kaleari dagokionez, lan egokiak egiten ez diren bitartean, salatutako egoera hobetzeko behin-behineko neurriak har daitezela.
- Onartua.**

LESAKAKO UDALA

12/10 ESP.

Udalak zenbait bide publiko zaindu eta egokitu ez izanari dagokionez, eta bide publiko horiek katastroan sartu ez izanagatik:

- Gomendatu diogu behar diren neurriak har ditzala kexa jartzailearen lursailera iritsi eta lursail horri zerbitzua emateko landa bide publikoa zaintzeko eta, beharrezkoa balitz, hobetzeko.
Ez da onartu.

LOS ARCOSKO UDALA

12/301 ESP.

Berriz zolatzeko egindako lanei eta kexa jartzailearen jabetzako garajerako sarbidean haiek izan duten eraginari dagokienez:

- Udalari iradoki diogu Los Arcosko Ruiz de Alda kaleko espaloia zabal dadila, batez ere oinezkoak ibiltzea bereziki oztopatzen den puntu edo zatietan.
- Udalari iradoki diogu interesdunaren garajerako irisgarritasun arazoa konpon dezala, horretarako hara sartu eta irteteko gainditu behar den aldapa edo malda murriztuz.
Onartua.

ERRIBERRIKO UDALA

09/568/M ESP.

Udalak kexa jartzaileen etxebizitzetako balkoi eta leihoetara atxikita jarri duen olanari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu, aipatu olana jarriz gero, Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumak argi eta ikuspegiatarako eskubideari buruz xedatutako hiru metroko tartea errespetatu dezala.
Onartua.

IRUÑEKO UDALA

10/35 ESP.

Kexa jartzailea bizi den eraikineko garajearen iragazten den urari dagokionez:

- Udalari gomendatu diogu, jabeekin batera, kexan salatutako iragazpen arazorako balizko irtenbidea aztertzen jarrai dezala; arazoa hiriko etorbide bat berrurbanizatzeko lanak egin zirenetik sumatu da.
Onartua.

6.2.15. Osasuna

OSASUN DEPARTAMENTUA

11/792 ESP.

Mendebaldeko Tuterako Osasun Zentroan keza jartzaileak behar duen antikoagulanteen bidezko tratamendua kontrolatzeko analisi klinikoak egiteari uko egin izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu Osasunbideari behar diren jarraibideak igor diezazkiola keza egileari egin behar zaizkion tratamendu antikoagulantearen kontrolak Mendebaldeko Tuterako Osasun Zentroan egin daitezela.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

11/804 ESP.

Gaixo bati emandako balizko osasun arreta arduragabeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu xeheago iker dezala osasun zentroan gaixoari emandako osasun arreta nahikotzat edo egokitzat jo daitekeen, gertatutako inguruabarren eta egitateen arabera.

- Gomendatu diogu ikertu beharreko egitateei eta pertsonen dagokien inpartzialtasun eta objektibotasuneko oharra dauzkaten mediku batek edo batzuek egin dezatela ikerketa.

- Departamentuari gomendatu diogu, ateratzen diren ondorioen arabera, egokia balitz, haren antzeko kasuetan gaixoei emandako zerbitzua hobetzeko neurriak har daitezela, kasu jakin honetarako egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk kaltetu gabe.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/11 ESP.

Osasunbideak beste emakume batekin ezkonduko emakume bati hazi-jartze artifiziala egiteari uko egin izanari dagokionez:

- Osasunbideari gogorarazi diogu legezko betebeharra daukala herritarrei arreta egoki eta eraginkorra emateko, eta beti adeitasunez jokatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 6. artikulua xedatu bezala.

- Osasunbideari gogorarazi diogu lege berariaz erantzun behar diola aurkeztutako erreklamazioari, ahalik eta lasterren.

- Departamentuari gomendatu diogu andreari in vitro ernalketa zerbitzua eman diezaiola, bere bikotekidearekin bien seme-alabak izateko ezintasun biologikoko kasu baten aurrean dagoelako, eta hari uko egitea sexu-joeragatik bereizkeria kasua izan daitekeelako, hura Konstituzioko 14. artikuluan eta Europar Batasuneko

Oinarrizko Eskubideen Kartako 21. artikuluan galarazita egonda.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/26 ESP.

Bisatutako errezeta batzuk ordaindu ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu kexak aipatu hiru errezetak -administrazioak bisatuak- emateagatik fakturatutako zenbatekoa ordain dezala, uste baitugu emandakoa medikuek agindutakoarekin bat datorrela.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/29 ESP.

Bikotekiderik ez izateagatik hazi-jartze artifizialeko prozesua egiteari uko egin izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu in vitro ernalketa zerbitzua eman dezala, Laguntza bidezko Ugalketa Teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legeko artikuluaaren arabera, gaixoa bere egoera zibilagatik edo osasunaz kanpoko beste edozein inguruabarrengatik ez diskriminatzea bermatuz.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/57 ESP.

Beste erkidego bateko osasun zentro batera bideratutako gaixo batentzako tratamendu egokirik ezari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu, Osasunbideko osasun langileek haren kasua berrebalua dezatela eta gaixoaren osasun arazoa artatzeko beste posibilitateak edo aukerak erabaki daitezela.

Onartua.

12/154 ESP.

Osasunbideak kexa jartzailearen gaixotasunaren jarraipenerako ezarritako protokoloak bete ez izanari dagokionez:

- Departamentuari iradoki diogu kexaren egilea artatzen ari diren medikuek finkatutako epeak betetzeko behar diren neurriak har daitezela, dagozkion kontrolak egin daitezen, eta eguna finkatutakoan, epe horien barruan hitzordua eman diezaiotela, horrelako gaixotasunek behar dituzten osasun protokoloak bete ahal izateko hala.

Onartua.

12/232 ESP.

Lizarra eta Iruña arteko osasun garraio zerbitzua (ospitaleen arteko autobusa) kendu izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu kexak aipatu ospitaleen arteko autobus zerbitzuari eusten ahalegin daitezela, erabiltzaileentzako baldintza oso

antzekoetan, haren erabilera mailaren arabera egokitzapenak sartu ahal izatea kaltetu gabe.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/240 ESP.

Sarrigurengo osasun zentroko emakumearen arretarako zentroa ireki ez izanari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu ahal den guztia aurreratu dadila Sarrigurengo osasun zentroko emakumearen arretarako zentro hori abiarazteko.

Onartua.

12/251 ESP.

Kexa jartzaileak ebakuntza kirurgiko bat izateko jasaten ari den itxaronaldiari dagokionez:

- Departamentuari gomendatu diogu kexaren egileak behar duen ebakuntza ahalik eta lasterren egin dezala eta, hasieran aurreikusitako osasun zentroan berehala egiterik ez badago, beste zentro bat eskain dadila.

Onartua.

12/254 ESP.

Haren alabaren osasun diagnostikoan egondako akats bati dagokionez:

- Departamentuari gogorarazi diogu legez errespetatu behar duela jendeak bere osasunari lotutako osasun jarduketetan parte hartzeko duen eskubidea eta, kasu honetan, gertatzen zaiena adierazterik ez duten adingabeak izanda, gurasoen esanei arretarik handiena jarri behar duela, horrela, haren patologia ahalik eta lasterren eta zuzenen diagnostikatzeko.

Onartua.

12/271 ESP.

Ezarpenaren aurreko diagnostiko genetikoaren (EDG) prestazio edo finantziario publikorik ezari eta kexaren egileek duten arazoari lotutako laguntza motaren bat bideratu ahal izateari dagokienez:

- Departamentuari iradoki diogu laguntza bidezko giza ugalketako osasun prestazioan sartutako tekniken artean ezarpenaren aurreko diagnostiko genetikoaren sartzea balora dezala.
- Departamentuari gomendatu diogu, kexaren egileekin batera, azaldu dituzten inguruabarrak azter ditzala eta, medikuek egokia baderitzote, behar duten tratamendua jaso ahal izateko neurri bat erabaki dezala.

Ez da onartu. Ez zuen bere ezezkoa zuritu.

12/282 ESP.

Oxigenoko bizkar-zorroa eduki beharrari dagokionez:

- Gomendatu diogu interesdunak, erantsi dituen osasun agiriek aipatzen duten bezala, oxigenoko bizkar-zorroa izateko egin duen eskabidea balora dezala, eta, agiriak nahikoa ez balira, haiek osatzeko aholka dezatela, eta eskabide horri buruzko erabakia har eta azpiko arazorako sakoneko irtenbidea eman dezala, beharrezkoa balitz, xede horretarako balio lezaketen beste aukera batzuk baloratuz.

Onartua.

12/288 ESP.

Auritz/Burguete eskualdeko osasun larrialdiko zerbitzuari dagokionez:

- Sailari gomendatu diogu kexak aipatu oinarritzko eskualdean eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuetan fisikoki dagoen zaintza zerbitzuari eustea azter dezala, jarduera mailari ez ezik, mendialdea izateagatik eskualde horrek dauzkan berezitasunei arreta berezia jarritz.

Ez da onartu.

12/298 ESP.

Bere ahizpari komunitate terapeutiko batean sartzeko ukatu zitzaion diru-laguntzari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kasu honetan konponbide bat eman dezala, interesdunak behar duen tratamendua jaso ahal izateko, kasuaren arduradunak diren medikuek aholkatutako moduan.
- Departamentuari iradokitzea, oro har, neurri berriak hartzea azter dezala, droga mendetasunak tratatzeko programen garapenerako eta komunitate terapeutikoetarako hitzarmenei dagokienez. Neurri horiek, egoitza-egoeran antzinatasunaren betekizuna modulatuko lukete (osasuneko beste administrazio batzuekiko koordinazioaren bidez) antzinatasunaren betekizuna salbuesteko, horretarako arrazoiak daudenean. Bestela, kexan salatutakoaren moduko emaitzak ekiditen duten bestelako neurriak har litezke.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

12/358 ESP.

Bigarren haur bat edukitzeko emankortasun tratamendu bat jasotzeko zitazio ezari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea behar diren jarraibideak eman diezazkiola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari egiazko eta eraginkor bihurtu dezan in vitro ugalketaren prestazioa bigarren mailako antzutasuna izan eta seme edo alaba osasuntsu bat duten bikoteentzat, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintza pertsonalak betetzen badituzte.
- Departamentuari gomendatzea eman beharreko jarraibideak eman diezazkiola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, lehen nahiz bigarren mailako

antzasuna duten bikoteek itxaron beharreko denbora murrizte aldera eta prestazioa jasotze aldera, baldin eta maiatzaren 26ko 14/2006 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

12/435 ESP.

Odol-emaile batek odola emateko bete behar duen galdetegiari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Nafarroako Odol Bankuaren inprimakin-galdetegian jarraibide zehatzak eman ditzala. Galdetegiko atal egokietan, helbide fisikoaz gain, helbide elektronikoa ager dadila, interesdunak bere datu pertsonalak zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatu nahi baditu horra jo ahal izateko.

Onartua.

12/436 ESP.

Bularreko minbiziaren ebakuntza egiteko itxaroteko denborari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea minbiziaren inguruko ebakuntzak azkarrago programatzeko neurriak azter eta susta ditzala. Gaixoarentzat itxaroteko denborak ekar dezakeen ziurgabetasuna, ebakuntza noiz izango den ez dakielako, ahalik eta gehien murriztea.

Onartua.

12/443 ESP.

Berriki ezarri den farmaziako koordainketa sistemari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea farmaziako produktuen gehieneko zenbatekoa gainditzen duten zenbatekoak (pertsone bakoitzaren errentaren arabera) itzultzeko hiru hilabeteko gehieneko epea bete dezala. Dirua itzultzeko epe hori ahalik eta gehien murrizteko mekanismo egokiak sor ditzala, diru-zenbateko horiek aurreratzen dituzten herritarrak ez kaltetzeko xedearekin, dirua aurreratzeak esfortzu ekonomiko garrantzitsua eskatzen baitie.

Onartua.

12/444 ESP.

Nafarroako Ospitaleguneko osasun langileek eta gizarte langileek beraren amari eman dioten tratu desegokiari dagokionez:

- Departamentuari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari gogoraraztea, oro har, kalitate oneko osasun laguntza emateko betebeharra daukatela legez. Gainera, osasuneko eta gizarte laneko langileek gaixoei eta beraien senideei osasuneko eta gizarte-laguntzako informazio nahikoa eman behar diete, behar den aurrerapenarekin, erabakirik egokienak har ditzaten. Halaber, uneoro tratu ona eta saiataua eman behar diete gaixoei eta senideei.

- Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun etxeetako eta ospitale zentroetako zuzendaritzari eska diezaiela, kasu honetan eta antzeko kasuetan, berariaz erantzuteko gaixoei edo senideei egiten dituzten erreklamazio eta kexa idazkietan azaltzen diren galderetako bakoitzari.

Onartua.

12/458 ESP.

2012ko uztailaren 1az geroztik errezetatutako sendagaiak dohainik eskuratzeko izaten ari den eragozpenei dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazia Prestazioen Zerbitzuari eska diezaiola ofizioz ikerketa egokiak egin ditzala, kexaren sustatzaileari dagokion farmazia-ekarpeneko kodea egiaztatzeko eta, kodea okerra bada, emandako kodean zuzenketa egokia eginaraz dezala.

Onartua.

12/459 ESP.

San Fermin jaietan Buztintxuriko osasun etxean pediatriako arreta ezari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea legearen arabera gaixoei edo interesdunei informazio pertsonalizatua eman behar diela erabilgarri dauden osasun etxe eta zerbitzuei buruz, batez ere zerbitzu horien ohiko ordutegia herritako jaiengatik edo bestelako ospakizun edo gertaerengatik aldatzen bada.

Onartua.

12/507 ESP.

Virgen del Camino Ospitaleko Gaixoentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu zuen erreklamazioak erantzunik ez jasotzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea administrazio publiko batengana idatziz jotzen duen eta jarduketa zehatz bat eskatzen dion herritar orok eskubidea daukala erantzuna jasotzeko, bide beretik, administrazio prozedura bakoitza ebatzeko ezarrita dagoen gehieneko epean, erantzunaren edukia zein den gorabehera.

Onartua.

12/983 ESP.

Beraren amari eman dioten osasuneko arreta eskasari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea, Gizarte Politiken Departamentuarekin koordinatuta eta lankidetzan, kexa sustatu duen pertsonaren amari ahalik eta lasterren plaza bat eman diezaiola egoitza-zentro publiko edo pribatu itundu batean, daukan mendetasun mailaren arabera zentro horretan arreta egokia jaso dezan, bere pentsioarekin ordaindu ahal izateko moduan.

ERANTZUNA JASO GABE.**12/1140 ESP.**

Gaixo batek jasotako arreta medikoa eta gai honetan aurkeztutako erreklamazioaren erantzun ezari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea ondare erantzukizuneko prozedurak ebazteko betebeharra duela legez, baita ebazpenetan hartutako erabakiak jakinarazteko ere, horretarako ezarrita dagoen sei hilabeteko epean.

Onartua.

AO_14_12

Administrazio egoera irregularra daukaten etorkinei dagokienez (hau da, Espainian bizitzeko administrazioaren baimenik ez dutenak), eta Espainian eta horrenbestez Nafarroan osasun arretarako eskubidea ustez murriztuta edukitzeari dagokionez:

- Gogoraraztea, oro har, estatuak ezin duela, oinarrizko eskumen bat gauzatzera, gaiaren arauketa agortu: arautzeko zerbait utzi behar dio foru komunitateari. Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen osasun gaietako eskubide eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua osasun laguntzako eskubidea etorkinei hedatzen die, beraien lege edo administrazio egoera gorabehera.

AO_25_12

Egoera irregularrean dauden etorkinei 2012ko irailaren 1etik aurrera eman behar zaien osasun laguntza publikoari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea, Nafarroari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen osasun gaietako eskubide eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 11. artikulua, Nafarroako Foru Komunitateak ematen duen osasun laguntzarako eskubidea daukaten pertsonak definitzean, hau azaltzen duela: osasun laguntza unibertsala dela eta, maila eta modalitate guztietan, Nafarroako udalerrietan bizi diren pertsona guztientzat dela, bereizketarik gabe. Gainera, "Nafarroako udalerrietan bizi diren etorkinei ere dagokie, beraien lege edo administrazio egoera gorabehera".

Ez da onartu.

IP02_11

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren espezialitateetako azterketa medikuen epeei dagokionez:

- Departamentuari ondoko hobekuntza hauek iradokitzea azterketa medikoetarako kontsultak antolatu eta kudeatzeko orduan, osasun espezialitateetako gaixoek itxaron behar duten denbora murrizteko:

- a) Osasun espezialitate desberdinetako azterketa medikoetarako itxaronaldien egoerari eta haien arrazoiei buruzko ebaluazio sakona egitea.

- b) Ebaluazio hori egindakoan, neurri eraginkorren programa bat egitea eta onartzea, azterketa medikoetan gaur egun itxaron behar den denbora murrizteko.
- c) Azterketa medikoetan itxaron beharreko gehieneko denborari buruzko araudi bat egitea, edo erreferentziazko irizpide orokorrak ezartzea espezialitate mediko bakoitzerako, eta irizpide horiek protokolizatu eta argitaratzea (adibidez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuaren web atarian), nahiz eta kasu guztietan nahitaez bete behar ez izan. Nolanahi ere, komenigarria litzateke itxaronaldietarako epe horiek edo erreferentziako gehieneko denbora horiek Nafarroako Gobernuaren webgunean eta osasun etxeetan argitaratutako protokoloetan jasotzea, espezialitateen eta gaixotasunen arabera, berraztertze modukoak izango diren irizpide medikoen arabera. Betiere, gaixoaren interes klinikoa nagusituko da antolamenduzko interesen gainetik.
- d) Osasun etxeetako jardunean arreta ahalik eta gehiena jar dadila, osasunaren babes integrala bermatze aldera, horretarako antolaketa neurri egokiak hartuz eta aurrekontuan egokitzapen egokiak eginez, gaixoei azterketa medikoko kontsultetan zentzuzko itxaroteko epea bermatzeko helburuz (malgutasuna ekidin ezina den arren), azterketa medikoko kontsulta egiteko hasieran aurreikusitako egunetik aurrera.
- e) Azterketa egiteko itxarroteak osasuna kaltetzen dien gaixoen kasuan, Arreta Espezializatuko Itxarote Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean ezarritako aginduari jarraiki, medikuei gogorazi behar zaie inguruabar hori agerrarazi behar dutela azterketa medikoa egiteko kontsultaren data jartzen dutenean. Eta medikuaren ohar horren arabera, itxaron-zerrenda sistema formalizatu bat finkatu beharko litzateke, guztientzat eskuragarri dena, lehenengo kontsulta duten gaixoen daukatena antzekoa, eta gehieneko itxaronaldiko berme berberekin eta tratamenduko alternatiba berberekin.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEARI

AO_04_12

Nafar gaixoei beste autonomi erkidego batzuetako osasun etxeetan, beren bizilekuetatik hurbilago daudenak, osasun arreta ukatzeari dagokionez:

- Herriaren defendatzaileari iradokitzea Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun ministroari iradoki diezaiola, Lurralde arteko Kontseiluko burua den aldetik, kontseiluak irizpide komunak hartzea bultzatzea (bereziki, hurbiltasunari dagokionez) muga-zonetan osasun arreta emateko orduan.
- Osasun Departamentuari iradokitzea Lurralde arteko Kontseiluaren hurrengo batzarrean azal dezala komenigarria dela kontseilua osatzen duten kideen artean sistema komun bat adostea, mugen inguruko zonetan bizi diren gaixoei etxetik

hurbilen dauzkaten osasun etxeetan osasun arreta jasotzearen iraunkortasuna bermatzen duena.

Onartua.

6.2.16. Gizarte Segurantzza

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEARI

AO_03_12

Gizarte Segurantzaren ezgaitasunarengatiko prestazioei dagokienez, eta prestazio horiek doktoretza tesia egiteko ikasketa beka bat jasotzearekin bateraezinak izateari dagokionez:

- Espainiako Herriaren Defendatzaileari jarduketaren bat egitea iradokitzea, gai honen sakoneko auziari buruz. Izan ere, baliteke araugintzazko disfuntzio bat egotea prestazio ekonomiko publiko jakin batzuen bateraezintasuna ezartzerakoan. Iradokitzea, bestalde, honelako kasuetarako araudi horretan aldaketaren bat egitea iradoki dezala.

Ez da onartu.

6.2.17. Zerbitzu publikoak

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUARI

12/127/M ESP.

Autopistas de Navarra, S.A.ren (AUDENASA) txartela ukatzeari dagokionez, jatorri ezezaguneko zor bat edukitzeagatik:

- Departamentuari iradokitzea enpresa emakidadun horri eska diezaiola kexaren sustatzaileari erantzuteko eta ustezko zorraren jatorria eta zenbatekoa azal diezazkiola.

Onartua.

BAZTANGO UDALARI

11/416 ESP.

Argizatze eta asfaltatze zerbitzu publikoak ez emateari dagokionez:

- Udalari gomendatzea kexan aipatzen den herriko zonan:
 - a) Bide publikoa kontserbazio eta erabilera egoera egokian mantentzeko konponketak egin ditzala.
 - b) Zona hori argiztatzeko neurri egokiak har ditzala.
- Onartua.**

11/417 ESP.

Iruritako sarbideko gabeziei dagokienez:

- Udalari iradokitzea Iruritako sarbideko gurutzean oinezkoen pasabide bat edo altxatutako abiadura murrizgailu bat, edo oinezkoen segurtasuna bermatzen duten bestelako neurriak jartzea eta, beharrezkoa bada, Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari neurri horiek hartzeko eskaera arrazoitua egitea.

Ez da onartu.

ESTERIBARKO UDALARI

12/248 ESP.

Kexaren sustatzaileak, Ollokiko jaietan zezen suzkoak bere ibilgailuaren kristaletan egin zizkion kalteengatik, aurkeztu zuen ondare erantzukizunaren erreklamazioa ukatzeari dagokionez:

- Udalari gomendatzea ondare erantzukizuna bere gain har dezala kexaren egilearen aurrean. Egindako kaltea onar dezala eta diru-zenbateko egokia ordain diezaiola.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUARI ETA LESAKAKO UDALARI

12/395 ESP.

Lesakako 3. industrialdeko zenbait aldatetari dagokienez, SITNAn islatzen diren moduan, eta bide publiko baten defentsari dagokionez:

- Udalari gomendatzea administrazio prozedurak has ditzala (eta beharrezkoak badira, prozedura judicialak ere bai) bide publiko bat defendatzeko eta berreskuratzeke, zabalera egokian eta irisgarritasun egokiarekin, bizilagunak (eta gainerako erabiltzaileak, baleude) autoz arazorik gabe igaro ahal izateko moduan. **Onartua.**

IRUÑEKO UDALARI

11/811 ESP.

Ondare erantzukizuneko espediente bat ezesteari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko Legeko 139. artikulua bete behar duela.
- Udalari gomendatzea, kasu zehatz honetan, dauzkan erantzukizun objektiboa eta ondare-erantzukizuna bere gain har ditzala eta bidezkoa den kalte-ordaina ordain dezala.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

ARAZURIKO KONTZEJUARI

12/18 ESP.

Argiztapen publikoaren akatsei dagokienez, eta matxuratutako argi-puntuak birjartzeko berandu egin diren eta nahikoak ez diren jarduketei dagokienez:

- Kontzejuari gogoraraztea legearen arabera argiztapen publikoko gaietan bere eskumena gauzatu behar duela, eraginkortasun printzipioarekin bat etorriz. Akatsik atzematen badu, horiek zuzentzeko neurriak hartu behar ditu beti, berandutu gabe.
 - Kontzeju horri gomendatzea espedientean aipatu den argiztapen publikoko gunea oztopatzen duten zuhaitzak inausteko agintzeko eta, agindua ez bada betetzen, bideratutako errekerimendua behartuta egin dadila, jarduketak Oltza Zendeako Udalaren jarduketekin koordinatuz, beharrezkoa bada.
- Onartua.**

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEARI

12/68 ESP.

Kexaren sustatzaileak, ezindua den aldetik, Iruñerriko garraio publikoa erabiltzeko dauzkan zailtasunei dagokienez:

- Mankomunitateari iradokitzea, bere ahalmen teknikoen eta aurrekontu ahalmenen arabera, beharrezko jarduketak areagotu ditzala, ahalik eta lasterren instalazioen mantentze tekniko egokia lortzeko, funtzionamendu egokia bermatzeko eta gidariak ezindutako erabiltzaileei ahalik eta arreta onena emateko, horretarako prestakuntza eta sensibilizazio programa zehatzak erabiliz.
- Onartua.**

JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEARI

12/617 ESP.

Ur hornidura ematerakoan tratu desegokia:

- Mankomunitateak kexa egin duen pertsonaren etxebizitzan edateko uraren gutxieneko presioa berma dezala gomendatzea, horretarako egokiesten dituen bitartekoak erabiliz, eta bere aurrekontuen kontura.
- Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

6.2.18. Lana

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUARI

12/520 ESP.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatutako ikastaro batean parte hartzea ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea neurri egokiak har ditzala, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatzen dituen ikastaroetan parte hartzaileen aukeraketa egin behar denean berariaz agerraraz daitezen hartutako erabakiaren arrazoiak eta hautagaiei aplikatutako irizpideak, eta horren guztiaren berri eman diezaien hautagaiei.
- Onartua.**

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUARI

12/164/M ESP.

Kexaren sustatzailearen senarrak segurtasun enpresa batean lan egiten du. Enpresa horrek zenbait zerbitzu ematen ditu Nafarroako Gobernuarentzat, eta ez du soldatarik, ordurik ez aparteko ordainketarik ordaintzen ari. Horri dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea kasua azter dezala eta enpresak, Nafarroako Gobernuarentzako zerbitzuak emateari dagokionez, kudeaketa edo ekonomi arazorik badauka, arazo horiek konpontzen lagundu ahal duen azter dezala.
- Ez da onartu.

6.2.19. Trafikoa

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUARI

12/478 ESP.

Nafarroako Suhiltzaileek kexaren sustatzailearen ibilgailuan egin duten jarduketa zehatz bati dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea ondare erantzukizuneko espediente bat izapidetu dezala, Suhiltzaileen Zerbitzuak interesdunaren ibilgailuan egindako kalteengatik, kaltea ebalua dezala eta, bidezkoa bada, kalte-ordain egokia ordain diezaiola.
- Ez da onartu.

UHARTEKO UDALARI

11/846 ESP.

Udaltzaingoak bideratutako salaketari dagokionez, kexaren sustatzailearen autokarabana ezinduentzako plaza batean aparkatzeagatik. Autokarabanaren jabearen semeak % 89ko ezgaitasuna du, eta autokarabanak Europar Batasuneko ezinduentzako edozein plazatan aparkatu ahal izateko txartela dauka.

- Udalari gomendatzea, salaketaren egunean autokarabanak ezinduentzako plazetan aparkatzeko txartela zeukanez gero, salatzailearen alegazioak onar ditzala eta zehapen espediente artxiba dezala, zehapenik gabe.
- Onartua.**

IRUÑEKO UDALARI

12/213 ESP.

Trafiko gaietako zehapen espediente bati dagokionez (zama-lanetarako zona batean aparkatzeagatik jarritako isuna):

- Udalari gogoraraztea zehapen prozeduran planteatzen diren gai guztiak berariaz motibatu eta ebatzi behar dituela, legearen arabera, eta herritarrei jakinarazten dizkien eta erabaki-edukia (izaera intzidentalekoa izanik ere) daukaten ekintza guztietan egin behar duela gainera.
- Udalari gomendatzea kasu honetan zehapen bakar bat jar dezala, herritarraren omisioagatik hasitako zehapen espedienteen bikoiztasuna ondoriorik gabe utziz.
Onartua.

12/323 ESP.

Kexa sustatu duen ibilgailuaren isunari eta garabiak kentzeari dagokionez.

- Udalari iradokitzea kasu honetan, gertakarien inguruabarrak kontuan izanik, eta erru edo dolo elementurik ez dagoenez gero, egindako ekintza kaltegarriak (zehapen espedientea eta garabi zerbitzuagatik tasa kobratzea) indargabetzea. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztapenerako ahalmena erabiltzea (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren legeko 105.1 artikuluan aipatua).
Onartua.

12/1181 ESP.

Pio Baroja plazaren inguruan ezindutako pertsonentzako aparkatze plaza baten eskaera ukatzeari dagokionez:

- Udalari iradokitzea ezindutako pertsonentzat erreserbatutako plaza bat jartzeko eskaera, ahal den neurrian, azter dezala, haurraren garraio segurua bermatu ahal izateko, beraren ezgaitasun maila eta kasuaren inguruabar zehatzak kontuan izanik.
Onartua.

TAFALLAKO UDALARI

11/820 ESP.

Trafikoaren inguruko zehapen bati dagokionez eta gero auzi honetan egin diren jarduketeki dagokienez:

- Udalari gogoraraztea, legearen arabera, herritarrek aurkezten dituzten berraztertze errekurtsioen ebazpenak eman eta jakinarazi behar dituela, legeak agintzen duen epean (hilabete bat), eta horretarako neurriak har ditzala eskatzea.
Onartua.

6.2.20. Hirigintza

Sustapen Departamentuari

12/399A ESP.

Nafarroan ezin da obra lizentziarik eman oinarrizko proiektua soilik aurkeztuz gero. Gainera, obra proiektuetarako lehiaketa publikoetan zenbait gabezia daude. Horri guztiari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Nafarroako Ordezkaritzarekin batera lankidetzan estuan arituz, hirigintzako lizentzien sistema sakon berrikus dezala, administrazioaren esku hartzearen legeko parametro berriei egokitzeko. Era berean, gaur egungo bizigarritasun aurretiazko txostenaren ordez beste kontrol-bitarteko batzuk, eraginkortasun berekoak, jar ditzala. Bitarteko horiek obra lizentziak, oro har, eta oinplano berriko etxebizitzan eraikinak eraikitzeko lizentziak eskuratzeko bete beharreko izapide eta betekizunak asko sinpletzea ekarri beharko lukete. Beharrezkoa bada, Nafarroako Gobernuari Lurralde Antolaketako eta Hirigintzako abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 191. artikulua aldatzeko proposamen egokia egin beharko litzaioke.

Onartua.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUARI ETA CORELLAKO UDALARI

12/432 ESP.

Corellako Udal Plan Orokorren aldaketa puntuala onartzeari dagokionez eta aldaketa horrek sortutako jarduketan unitatean lur-zati bat sartzeari dagokionez:

- Corellako Udalari gogoraraztea ekimen partikular batek sustatutako Udal Plan Orokorren aldaketa puntualean, legearen arabera, exijitzen diren izapide guztiak bete behar dituela, eta bereziki plan orokorraren aldaketa puntual hori behin-behinean onartu eta gero sartu diren aldaketen eragina zuzenean jasaten duten jabeen entzunaldia ematea.
- Sustapen Departamentuari gomendatzea Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa kontseilariaren ekainaren 14ko 113/2010 Foru Agindua ofizioz berrikustea sustatzea. Agindu haren bidez, Corellako Udal Plan Orokorra modu puntualean aldatzeko proiektua behin betiko onartu zen. Foru agindua bertan behera uztea eta prozedura behin-behineko onarpenaren unera ekar dadila gomendatzea, Corellako Udalak informazio publiko berria eta benetako entzunaldia eman diezaion kexaren sustatzaileari (eta gainerako herritar eta jabeen ere bai), bere interes legitimoak defenda ditzan.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

ZIRITZAKO UDALARI

11/377 ESP.

Aplikatu beharreko araudiaren aurka hirigintzako lizentziak emateari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea udalerrian indarrean dagoen hiri plangintzako zehaztapenak errespetatu eta onartu behar dituela bere jarduketa guztietan, legeak hala agintzen baitio.
- Udalari gomendatzea kearen xede diren hirigintzako lizentziak ofizioz berrikustea balora dezala, lur-zati batzuk ixteari buruz dauzkaten zehaztapen edo baldintzei dagokienez. Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

FUSTIÑANAKO UDALARI

8/499 ESP.

Udalaren aktibitate ezari dagokionez, hirigintzako salaketa bat ez duelako izapidetu:

- Udalari gogoraraztea legearen arabera herritarrek aurkeztutako salaketei buruzko iritzia eman behar duela eta berariaz erantzun behar diela.
- Udalari gomendatzea, egin den salaketa dela-eta, ikuskapenerako ahalmenak eraginkortasunez bete ditzala eta, beharrezkoa bada, hirigintzako legezketasuna berrezar dezala, Lurralde Antolaketa eta Hirigintza Antolatzeko Foru Legeko 197. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.
Onartua.

IRUÑEKO UDALARI

11/824 ESP.

Bulego-lokal bat erreformatzeko egiten ari diren obrei dagokienez:

- Udalari gogoraraztea Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeko 57. artikuluko legezko zehaztapenak bete behar dituela, legeak hala agintzen baitio.
- Udalari ondoko hauek gomendatzea:
 - a) Sailkatutako jarduerarako lizentzia emateko prozeduran ez badie pertsonalizatutako entzunaldirik eman kearen egileei eta hurbiltasunagatik ukituta dauden gainerako bizilagunei, lizentzia ofizioz berrikus dezala, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 102 eta 103. artikuluen barnean.
 - b) Obrak egiteko hirigintzako lizentziari dagokionez, hirigintzako legezketasuna babesteko prozedura berehala has dezala, Lurralde Antolaketa eta Hirigintzaren abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 199 eta 200. artikuluen arabera.

- c) Lokalaren giroketaren instalazioa eten dezala, sustatzaileak irekitzeko lizentzia eskuratzen ez duen bitartean, salbu eta udalak ulertzen badu irekitzeko lizentzia administrazioaren isilbide positiboaren bidez eman dela.
 - d) Giroketako instalazioek, iturri emisore guztiak aldi berean funtzionatzen ari direlarik, sortzen duten zarata-mailari buruzko azterlana egin dezala. Azterlanak kexa egin duten pertsonen etxebizitzetan eta ukitutako gainerako bizilagunen etxebizitzetan zaratak duen eragina aztertu beharko luke. Beharrezkoa balitz, neurri egokiak hartu beharko lirateke zarata-mailak indarrean dagoen legeriaren arabera mailei egokitzeko.
- Onartua.**

12/120 ESP.

Arantzadi zonako hirigintzako plangintzari dagokionez eta proiektu hori eteteko eskaerari dagokionez:

- Udalari iradokitzea bizilagunen parte hartzea bultzatzea, eta bizilagunek Arantzadiko meandroa natur, nekazaritza edo hiri parke bihurtzeari buruz aurkeztu dituzten edo etorkizunean aurkeztu dituzten proposamenak kontuan izan, aztertu eta erantzun daitezela. Ahal den neurrian, bizilagunen interesak eta udalaren interes publikoak bateratu daitezela.
- Onartua.**

12/237 ESP.

Milagrosa auzoaren urbanizazioaren egoerari dagokionez:

- Udalari iradokitzea, aurrekontuak uzten badio eta ezarrita dauzkan lehentasunak kontuan izanik, Milagrosa auzoa hobetzeko obrekin jarrai dezala, batez ere lorategi-eremuak eta itzala daukaten zonak sortzeari edo egokitzeari, zuhaitzak landatzeari, eta espaloiak eta bestelako espazio publikoak erreformatzeari dagokienez.
- Onartua.**

LARRAUNGO UDALARI ETA ASTITZEKO KONTZEJUARI

12/136 ESP.

Hirigintzako lizentzia bati izapidetzeari eta ebazteari dagokionez:

- Udalari eta Astitzeko Kontzejuari gogoraraztea herritarrek aurkeztu dituzten eskaerak izapidetu eta berariaz ebatzi behar dituztela, forma eta epe egokietan, legearen arabera, eta herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidea bete behar dutela.
 - Tokiko bi erakunde horiei gomendatzea zeinek bere eskumenen esparruan kexaren egilearen eskaerak berariaz izapidetzeko eta ebazteko.
- Onartua.**

ZANGOZAKO UDALARI

12/429 ESP.

Aurri egoeran dagoen etxe bat eraisteari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea berariaz, epe eta forma egokietan, erantzun behar diela herritarrek egiten dizkioten eskaera eta eskabide guztiei, besteak beste, kexaren egileak egin dituen idazkiei.
 - Udalari gomendatzea kexaren egileak bere idazkietan azaldutako gai guztiei idatziz erantzutea, baita eraikina eraisteko prozeduraren espediente osoa ikusten uztea ere.
- Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

TUTERAKO UDALARI

12/990 ESP.

Berak ordezkatzeko dituen pertsonen hirigintzako lur birzatiketa batean adjudikatu zaizkien lur-zati berriei dagokionez:

- Udalari iradokitzea, Konpentsazio Batzarekin lankidetzan, hasierako egoerara itzultzeko aukera azter eta balora dezala, eta kexaren sustatzaileei lur-zati berrietako bat proindiviso adjudika diezaiela, baldin eta aldaketa berri horrekin lurra berriro zatitzearen behin betiko onarpenak hirugarren jabeentzat finkatutako interesak kaltetzen ez badira.
- Erantzuna jaso gabe.

6.2.21. Euskara

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO DEPARTAMENTUARI

11/832 ESP.

Nafarroako Antzoki Sareak komunikabide batean argitaratutako iragarki bati dagokionez, zeinetan Irurtzun udalerraren izen ofiziala ez den errespetatzen:

- Departamentuari gogoraraztea bere jarduketetan nafar udalerrien izendapenak errespetatzeko legezko betebeharra duela, Nafarroako Gobernuak onartutako toponimia ofizialaren arabera.
- Onartua.**

12/179 ESP.

Nafarroako Lege Gordailuaren M1 inprimakina euskaraz idatzita ez egoteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea eskaera-eredu edo formularioak interesdunei euskaraz ere eskaintzea.
- Onartua.**

LANDA GARAPENA, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUARI

12/122 ESP.

Departamentuak egindako inprimakin eta komunikazioetan euskararen erabilera ezari dagokionez, eta departamentu horrek eremu euskalduneko herritar bati nekazaritza ustiatetik titular txartela gaztelaniaz bakarrik igortzeari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea eremu euskalduneko herritarrei Nafarroako Foru Komunitateko administrazioira euskaraz jotzeko eta erantzunak euskaraz jasotzeko daukaten eskubidea erraztu behar diela, legeak hala aginduta.
- Departamentu horri iradokitzea jarraibide egokiak eman ditzala, eremu euskaldunean daukan bulegoetan abere ustiategiengatik inguruko administrazio-izapideak egiteko herritarrentzat jartzen diren inprimakiak eta nekazaritzako ustiategiaren titular txartela euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko eta bidaltzeko.
Onartua.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUA ETA TOKIKO ADMINISTRATIOARI

12/492 ESP.

Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza Zerbitzuak Euskararen Foru Legeak mugatutako eremu euskalduneko bizilagun bati inprimakin ofizial batzuk igorri dizkio, pertsona horrek bere abereen erregistroa egunean jartzeko nahitaezko datuak igor ditzan. Inprimakin horiek gaztelania hutsean daude idatzita. Horri dagokionez:

- Abeltzaintza Zerbitzuari iradokitzea eremu euskalduneko herritarrei eskaintzen edo igortzen dizkien inprimakin ofizialak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idaztea, herritar horiek administrazioarekin euskaraz jarduteko daukaten eskubidea gauzatu ahal izateko.
Onartua.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI

11/726 ESP.

Komunikabideetan 2012. urtean euskarari bideratutako aurrekontuko partida kentzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea urte anitzeko plana egin dezala, euskara erabiltzen duten edo euskara erabili nahi duten komunikabideei babes ekonomiko eta materiala emateko. Horrela, administrazioak eta onuradunek alde aurretik jakin ahalko lukete urtero zein baliabide ekonomiko eta material bideratuko diren euskararen presentzia sustatzeko helburuz, aurreikusten diren ahalmen ekonomikoen eta aurrekontuen arabera, baita bilatzen diren helburuak, eskainitako baliabideak eta babes publikoa eskuratzeko irizpide orokorrak ere.
Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

12/422 ESP.

Zizurko Institutuko D ereduari, derrigorrezko bigarren hezkuntzako hizkuntza eta literaturako irakasle titularraren ordezkari eta gela bateko tutore den eta euskaraz ez dakien irakaslearen izendapenari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea neurriak hartu behar dituela D ereduko irakasleen ordezkariak euskaraz ondo dakiten irakasleekin egiten direla bermatzeko.

Onartua.

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUARI**12/76 ESP.**

Iruña-Jaca autobidean "Eguiarte" toponimoaren errotulazioari dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea legezko epea kontuan izan behar duela jasotzen dituen instantzia eta idazkiei erantzuteko orduan, legeak hala agintzen diolako, eta neurri egokiak hartu behar dituela herritarrek beren gaietan administrazio egokia izateko eskubidea gauzatu ahal izateko.

Onartua.

12/145 ESP.

Herritar batek "Auritz/Burguete" izen ofiziala errespetatzen ez duen bizigarritasun-zedula bat jasotzeari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea administrazio jarduketetan nafar udalerrien izendapenak errespetatzea, Nafarroako Gobernuak onartutako toponimia ofizialaren arabera; kasu honetan, Auritz/Burguete.

Onartua.

AO_16_12

Nafarroako bide sareetako seinaleetako errotulazioan ageri diren zenbait izeni (tokienak, eraikinenak, instalazioenak edo monumentuenak) dagokienez, Nafarroako Gobernuak onartu duen eta indarrean dagoen izendapenarekin bat ez datozenak:

- Departamentuari iradokitzea Nafarroako bide sareetako errotulu eta seinaleetan ageri diren izenek (lekuenak, eraikinenak, instalazioenak, monumentuenak eta bestelakoak) Nafarroako Gobernuak bere xedapen eta erabakietan onartu duen izendapen ofiziala errespetatzea eta izen horiek eduki ditzatela.

Onartua.

LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUARI**12/150 ESP.**

Herritar Txartela euskaraz ez egiteari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea neurri zehatzak har ditzala, kexa sustatu duen pertsonak Herritar Txartela euskaraz jaso dezan, eta horrela herritarren hizkuntz eskubideak (Euskararen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean jasoak) berma daitezen.
Onartua.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUARI

12/495 ESP.

Eskualde euskaldunean ibiltzen den Foruzaingoaren ibilgailu baten errotuluak soilik gaztelaniaz egoteari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea Nafarroako eremu euskaldunean ibili ohi diren Foruzaingoaren ibilgailuek errotulu elebidunak dauzkatela egiazta dezala.
Onartua.

12/496 ESP.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean “Martín de Azpilicueta” sariaren IX. edizioaren deialdia argitaratu zuen, 2012. urterako, Nafarroako politika eta kudeaketa publikoari buruz. Deialdiaren hirugarren oinarrian, 5. atalean, azaldu zen lanak gaztelaniaz, euskaraz edo Europar Batasunean ofiziala den edozein hizkuntzatan aurkez zitezkeela. Azken bi kasuetan, gaztelaniazko itzulpena gaineratu behar zen. Beraz, ezin zen euskaraz bakarrik zegoen lanik aurkeztu. Horri dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea “Martín de Azpilicueta” sariaren 2012. urteko deialdian (Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren urtarrilaren 16ko 12/2012 Foru Aginduan araututakoa) hirugarren oinarriko 5. atala alda dezala, lanak euskaraz aurkezten dituzten parte hartzaileek beren lanak gaztelaniara itzuli behar ez izateko.
Onartua.

OSASUN DEPARTAMENTUARI

11/833 ESP.

Eremu euskaldunean dagoen osasun etxe batean herritarrei liburuxka bat eskaintzen zitzaien, izenburu honekin: “Haurrari arreta emateko programa. Haurren istripuak. Zain itzazu”. Liburuxka gaztelania hutsean dago. Horri dagokionez:

- Osasun Departamentuari gogoraraztea herritarrengana jotzeko argitaratzen dituen eta herritarren esku jartzen dituen liburuxkak, edo beraietan dagoen informazioa, euskaraz ere idatzi behar dituela, legearen arabera, lurralde horretan hizkuntza ofizial horretan irakurri nahi dituzten herritarrek hala egin ahal dezaten.
Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

12/493 ESP.

Euskararen Foru Legeak mugatzen duen eremu mistoko zenbait herritarrek telefonoz deitu zuten Iturramako Osasun Etxera, zerbitzuak eskatzeko, baina arreta euskaraz jaso nahi zutela adierazi zuten arren ez zuten euskarazko arretarik jaso. Horri dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea euskaraz arreta emateko protokoloa hobe dezala, euskaraz hitz egin nahi duten pertsoneri arreta euskaraz hobeto emateko Euskararen Foru Legean mugatzen diren eremu euskaldunean eta eremu mistoan.
Ez da onartu.

12/1099 ESP.

Eremu euskaldunean mediku batek baja-parteia gaztelania hutsean eman zion herritar bati. Horri dagokionez:

- Departamentuari gogoraraztea eremu euskalduneko herritarrei, eskatzen baldin badute, Nafarroako Foru Komunitateko administraziora euskaraz jotzeko eta erantzunak euskaraz jasotzeko daukaten eskubidea erraztu behar diela, legeak hala aginduta.
- Departamentuari iradokitzea eremu euskalduneko herritarrei eskaintzen edo igortzen dizkien inprimakin ofizialak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idaztea, herritar horiek administrazioarekin euskaraz jarduteko daukaten eskubidea gauzatu ahal izateko.
Onartua.

NAFARROAKO GOBERNUARI**IP 04_11**

Gizarte komunikabideetan euskarak duen presentziari dagokionez, eta gizarte komunikabideetan herritarren hizkuntz eskubideek duten benetako egoerari dagokionez:

- Nafarroako Gobernuari iradokitzea euskara erabiltzen duten edo erabili nahi duten komunikabideei ekonomikoki laguntzeko urte anitzeko plana egin dezala, Euskararen Foru Legeko 27.1 artikuluan berariaz xedatutakoa garatuz. Horrela, administrazioak eta balizko onuradunek aurrerapen nahikoarekin jakingo lukete urte bakoitzean euskararen presentzia sustatzeko bideratzen diren baliabide ekonomiko eta materialen berri, aurreikusten diren aurrekontu-ahalmenen barruan, eta lortu nahi diren helburuak, gaitutako baliabideak eta babes publikoa jasotzeko irizpide orokorrak jakingo lituzkete.
- Iradokitzea plana onartu aurretik entzunaldia has dadila gizarte komunikabideentzat, plan hori egitean parte har dezaten.

NAFARROAKO PARLAMENTUARI

IP 04_11

Gizarte komunikabideetan euskarak duen presentziari dagokionez, eta gizarte komunikabideetan herritarren hizkuntz eskubideek duten benetako egoerari dagokionez:

- Nafarroako Parlamentuari iradokitzea Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurrekontu partida bat edo gehiago sar ditzala, egokiesten duen diru-zenbatekoan, Euskararen Foru Legeko 27.1 artikulua benetan bete ahal izateko. Artikulu horrek xedatzen duenez, “administrazio publikoek gizarte komunikabide publiko eta pribatuetan euskararen presentzia gero eta handiagoa izatea sustatuko dute. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu”.

ARBIZUKO UDALARI

12/486 ESP.

Udalaren Jabetza Erregistroak bidalitako ediktu bat, udaletxeko iragarki oholean hilabetez egon dena, gaztelaniaz bakarrik idatzi dela ziurtatzen duen administrazio ziurtagiri bati dagokionez:

- Udalari gogoraraztea Euskararen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 11. artikulua derrigortzen duela eremu euskaldunean, euskara ofiziala den eremuan alegia, administrazioaren jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntzetan (gaztelaniaz eta euskaraz) egitera, salbu eta prozeduran interesdunak diren herritarrek hizkuntza bakar bat erabiltzeko eskatzen badute berariaz.

Onartua.

BARAÑAINGO UDALARI

12/80 ESP.

Barañaingo herritar batek bere alaba haur eskolan, udal horrena dena, D ereduan inskribatu zuenean, eman zioten ziurtagiria gaztelania hutsez idatzita zegoen. Horri dagokionez:

- Udalari gogoraraztea Barañaingo udal eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren 6. artikuluan xedatutakoa bete beharra duela.

Onartua.

12/485 ESP.

Barañaingo LAGUNAK kiroldegiaren webguneak euskarazko bertsiorik ez edukitzeari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea udalaren eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar duela. Animatzea ahalik eta lasterren LAGUNAK kiroldegiaren webgunea itzul dezan.

Onartua.

IRUÑEKO UDALARI

12/85 ESP.

Iruñeko Udalak auzokide elkarte bati liburuxka bat bidali dio, “Jarduera fisikoko programa Iruñeko gimnasia zirkuituetan” izeneko, gaztelania hutsean. Horri dagokionez:

- Udalari gogoraraztea udalaren kartelak, informazio liburuxkak eta oharrak, Iruñeko herritarrei zuzenduak, gaztelaniaz eta euskaraz idatzi behar dituela.
- Onartua.**

12/177 ESP.

Iruñeko Udalari eta euskararen erabilerari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea Iruñeko Udalaren eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar duela, salaketa buletinak eta isunak ordaintzearen ziurtagiriak (baita administrazioaren prozeduren berri emateko egiten diren gainerako agiriak ere) euskaraz ere idatz daitezen.
- Onartua.**

12/300 ESP.

Zenbait kartel euskaraz gaizki idatzita egoteari dagokionez, gai honen inguruan aurkeztutako eskaera bati ez erantzuteari dagokionez, eta udalari eskatu zion administrazio isilbidearen ziurtagiria gaztelaniaz soilik jasotzeari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 318. artikulua eta eskaera eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2011 Lege Organikoko 11. artikulua bete behar dituela. Beraz, erantzuna eman behar die herritarrek egindako eskaerei, legeak ezartzen dituen epeetan.
- Onartua.**

12/484 ESP.

Iruñeko Udalak herritar bati bidali dion garabi zerbitzuaren fakturari dagokionez, etxean konponketak egiteagatik ordaindu behar diren zergak azaltzeko toki ogasunak bidalitako dokumentuari dagokionez, eta aparkatzea ordaindu izanaren ziurtagiriei dagokionez, gaztelaniaz soilik igorri baitira:

- Iruñeko Udalari gogoraraztea legearen arabera Iruñeko Udalaren eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar duela. Ordenantzaren 8 f) artikuluan azaltzen denez, udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu administrazioaren prozeduren berri emateko herritarrei eskaintzen dizkien dokumentu eta ereduetan.
- Onartua.**

12/489 ESP.

Euskaraz errotulaturako seinale batzuetan okerreko grafia egoteari dagokionez:

- Udalari iradokitzea kexan aipatzen diren seinaleetako euskarazko idazkuntza egiazta dezala eta, okerrik badago, seinaleak zuzendu ditzala, hizkuntz arau egokiak aplikatuz.

Onartua.

12/490 ESP.

Iruñeko Udalak Civivox eta Aquavox-etan gaztelaniaz bakarrik argitaratuta dauzkan udalaren liburuxkei dagokienez:

- Udalari gogoraraztea Iruñeko Udalaren eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen udal ordenantza bete behar duela, legearen arabera, eta horrenbestez, aurrerantzean herritarrentzat argitaratzen dituen informazio liburuxkak gaztelaniaz eta euskaraz egon behar direla eta herritarren esku jarri behar dituela.

Onartua.

12/491 ESP.

Gaiarre Antzokia Udal Fundazioak ekimen bat abiatu zuen Gabonetan, antzerkia oparitzeko. Ekimen horren barnean, ekimenaren berri ematen zuten liburuxkak gaztelania hutsez argitaratu ziren. Gaiarre Antzokiak San Fermin jaiei buruzko antzezlanak aukeratzeko deialdiaren oinarriak dauzkaten liburuxkak ezin ziren euskaraz eskuratu. Horri dagokionez:

- Udalari iradokitzea, Iruñeko Udalak euskara erabiltzea eta sustatzea arautzen duen ordenantzaren xedatutakoaren arabera, irizpide hau jakinaraz diezaiola Gaiarre Antzokia fundazioari: ikusleei ematen zaizkien informazio orokorreko liburuxkak euskaraz ere idatzi behar dira.

Onartua.

12/494 ESP.

Iruñeko Udalaren eremuan ahozko harremanetan herritarrei ustez euskaraz arreta ez emateari dagokionez:

- Udalari gogoraraztea herritar guztiek udal zerbitzuekin, ahozko harremanetan, arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidea bete behar duela, herritarrek hala eskatzen badute.

Onartua.

12/1033 - 12/1042 ESP. (biak barne)

Iruñeko Udalak herritarrekiko harremanetan euskararen erabileran dauzkan balizko gabeziei buruzko zenbait gertakariri dagokienez:

- Udalari iradokitzea bere jardun eremu guztietan herritarrei zuzentzen dizkien informazio liburuxken edizioak, eta bereziki kultur jardueretan, euskaraz eta gaztelaniaz egin ditzatela udalak eta beraren mendeko erakundeek, ordenantzaren 9.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko eta udal bizitzan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko.

- Udalari iradokitzea Gaiarre Antzokia Udal Fundazioak (Iruñeko Udalaren mendeko erakundea denak) bere kultur jardueraren berri ematen duten liburuxkak, programak, propaganda eta kartelak egiterakoan, herritarrei zuzentzen dizkien komunikazioak gaztelaniaz eta euskaraz idatz ditzala.
- Udalari iradokitzea, herritarrekin ahoz dauzkan harremani dagokienez, ordenantzaren 8. artikuluan xedatzen denez, modu eraginkorrean eta lehenbailehen neurriak har ditzala, administrazioarengana jotzen duten herritarrei euskaraz erantzun ahal izateko, leku egokietan horretarako gai diren langileak jarritz. Are azkarrago jarri beharko lirateke horretarako gai diren langileak jendeari informazioa emateko guneetan, jendeari arreta egiteko zerbitzuetan eta jendeari informazioa emateko antzeko tokietan.
- Udalari iradokitzea, herritarrekin idatzizko komunikazioak egiten dituenean, oro har modu elebidunean arreta jaso ahal izateko zerbitzua eskain diezaie hala eskatzen duten herritarrei, ordenantzaren 8 eta 9. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz. Herritarrek aukera hori hautatzen badute, udalak beraiekin komunikatzeko erabiltzen dituen bitartekoak (hau da, gutunak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak, inprimakinak, txartelak, salaketa aktak, ordainagiriak eta abarrekoak) gaztelaniaz eta euskaraz idatzi beharko lituzke.
- Udalari iradokitzea, eraikinak, kaleak, espazio publikoak, turismorako interesgarriak diren tokiak, zerbitzuen kontrola, trafiko seinaleak eta abarrekoak errotulatzeari dagokionez, ordenantzaren 8. artikuluko c) eta e) hizkiak aplikatuz, errotulazio hori gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzala, hizkuntza biak berdintasunez erabiliz eta euskararen presentzia kasu guztietan bermatuz, are gehiago testua euskarara itzuli ahal denean edo horretarako eragozpenik ez dagoenean, edo aldez aurretik itzulpena eginda dagoenean.
- Udalari iradokitzea, herritarrei bere web atariaren bidez ematen dien informazio orokorrari dagokionez, berarenak diren edo berak kudeatzen dituen webguneetan euskara gutxienez % 20an erabil dezala, ordenantzaren 12. artikuluekin bat etorritz.
- Udalari iradokitzea, bere mendeko erakundeek herritarrei oro har web atariaren bidez ematen dieten informazioan, aurreko puntuan ezarritako irizpidearen antzeko bat aplika dadila (baldin eta horretara behartzen duen araurik ez badago) eta, horrenbestez, euskaraz gutxienez % 20an erabil dadila.
- Udalari iradokitzea, herritarrek udalarengana gaztelaniaz nahiz euskaraz jotzeko duten eskubidea bermatzeari dagokionez, udalak edo bere mendeko erakundeek antolatzen dituzten lehiaketa eta sarietan, herritarrek proiektuak edo lanak aurkeztu behar dituztenean, euskaraz aurkezten diren lan edo proiektu guztiekin batera gaztelaniazko itzulpena aurkeztera behartzen duten klausula guztiak ken daitezela lehiaketa eta sari horien oinarrietatik, eta horrenbestez, lanak edo proiektuak bi hizkuntzetako edozeinetan onar daitezela, ordenantzaren 5. artikuluekin bat etorritz.

Onartua.

ERRO IBARREKO UDALARI

12/1126 ESP.

Udalaren kartel baten errotulazioari dagokionez, zeinetan “Ayuntamiento del Valle de Erro” legenda gaztelania hutsean ageri den:

- Udalari gogoraraztea bere kartelak eta hiri bideen errotulazioak gaztelaniaz eta euskaraz jarri behar dituela legearen arabera.
Onartua.

IHABARKO KONTZEJUARI

12/487 ESP.

Ihabarko Kontzejuak bizilagunei igortzen dizkien komunikazioak gaztelania hutsean egoteari dagokionez:

- Kontzejuari gogoraraztea Euskararen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 11. artikulua derrigortzen duela eremu euskaldunean, euskara ofiziala den eremuan alegia, administrazioaren jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntzetan, gaztelaniaz eta euskaraz, egitera, salbu eta prozeduran interesdunak diren herritarrek hizkuntza bakar bat erabiltzeko eskatzen badute berariaz.
Onartua.

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOARI

11/838 ESP.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren webguneak euskarazko bertsiorik ez edukitzeari dagokionez:

- Federazioari webgunea modu mailakatuan egokitzeko aukera iradokitzea, euskarazko bertsio bat jartzeko helburuz; horrela eremu euskalduneko udalerrietako euskaldunek (eta eremu mistokoen, egotekotan) euskaraz kontsultatu ahalko dute.
Onartua.

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEARI

11/840 ESP.

Autobusen lineen ordutegi aldaketaren berri emateko, Gipuzkoako etorbidean, jarri zituen pegatinak gaztelaniaz soilik idazteari dagokionez:

- Mankomunitateari gogoraraztea herritarrengana jotzeko argitaratzen dituen ohar eta iragarriak gaztelaniaz eta euskaraz idatzi behar dituela, legearen arabera.
Onartua.

12/88 ESP.

Iruñerriko hiri garraio publikoko pantailetan geralekuak iragartzeko gaztelaniaz soilik ageri diren mezuei dagokienez, orain dela gutxira arte gaztelaniaz eta euskaraz ageri zirenak:

- Mankomunitateari gogoraraztea Iruñerriko hiri garraio publikoko pantailetan jartzen diren mezuak gaztelaniaz eta euskaraz idatzi behar direla.

Onartua.

12/488 ESP.

Zenbait errotulutan eta herritar batentzako komunikazio batean euskara ez erabiltzeari dagokionez, edo hizkuntza hau gaztelania baino gutxiago erabiltzeari dagokionez:

- Mankomunitateari iradokitzea herritarrei zuzentzen zaizkien idatzizko adierazpenetan (errotuluetan, seinaleetan edo antzekoetan erabiltzen direnak), gaztelaniazko testuak eta euskarazkoak letra-tamaina berbera eduki dezatela.

Onartua.

6.2.22. Etxebizitza**SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUARI****11/799 ESP.**

Babes ofizialeko etxebizitza baten errenta ordaintzeko diru-laguntza kentzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea, interesdunak daukan babestutako etxebizitzaren errentamendurako diru-laguntzak emateari dagokionez, departamentuak Nafarroako Zerga Ogasunak eskatutako aitorpenaren zuzenketari buruz ebatzen duenaren arabera joka dezala, bi unitate organikoen arteko jarduketak koordinatuz.

Ez da onartu.

12/75 ESP.

Babestutako etxebizitza alokairu erregimenean edukitzeko baldintzei dagokienez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileari diru-laguntza aitor diezaiola (errentaren arabera) babestutako etxebizitza errentatzeko, eta horrenbestez kasu zehatz honetan izandako irizpidea (diru-laguntzatik baztertzea, beste etxebizitza baten jabekide delako) zuzen dezala.

Ez da onartu.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUARI**12/108 ESP.**

Babestutako etxebizitza eskuratzeko diru-laguntza bat ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileari diru-laguntza aitor diezaiola babestutako etxebizitza eskuratzeko, aurreikusi diren irizpide orokorren arabera

dagokion zenbatekoan, eta kasu horretan diru-laguntza ukatzeko kontuan izan den kausa indargabetzea.

Ez da onartu.

12/252 ESP.

Babes ofizialeko etxebizitza bat alokatzeko laguntza kentzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egilearen 2010eko ekitaldiko errenta aitortpena berrikus dezala, aitortu zituen diru-sarrerak modu sinesgarrian egiaztatzeko eta, diru-laguntzarik badagokio, ematea.

Onartua.

12/265 ESP.

Higiezin-enpresa baten aurrean tasatutako prezioa duen etxebizitza baten salerosketa kontratuaren ukoa ezesteari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea adieraz dezala motibatutako kausa dagoela kexaren egileak eskatu duen salerosketa kontratuari uko egiteko, eta higiezin-enpresari gomenda diezaiola kontratua deusezta dezala, dagokion zehapenarekin.

Onartua.

12/292 ESP.

Babestutako etxebizitza bat deskalifikatzeko prozedurari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileak etxebizitza deskalifikatzeko aurkeztu duen eskaera ezesteko ebazpena ezezta dezala eta indarrrik gabe utz dezala.
- Departamentuari gomendatzea interesdunak eskatu dion ziurtagiria, administrazio isilbide positiboarena, eman diezaiola.

Onartua.

12/517 ESP.

Babestutako etxebizitza alokatzeko diru-laguntza bat ukatzeari dagokionez:

- Departamentuari gomendatzea kexaren egileari laguntza ukatu zion administrazio ebazpena ezezta dezala, eta diru-laguntza eman diezaiola babestutako etxebizitza errentatzeko, bere errentaren araberakoa.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

12/1000 ESP.

Babestutako etxebizitza bat errentatzeko diru-laguntza kentzeari dagokionez eta exijitzen zaion errenta ordaindu ezin izateari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea neurri egokiak azter eta har ditzala, babestutako etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateari dagokionez, diru-sarreraren

zenbaketaren denborazko epea (martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuko 7. artikulua zehaztua) aldatzen dutenak, justifikatutako premia-egoera bat dagoen kasuetan laguntzei eustea baloratzeko helburuz.

- 2012ko irailetik aurrera egin beharreko urteko ordainketarako, kexaren egileari ordura arte emandako diru-laguntza ordaintzen jarraitzea iradokitzea, kasu honetako inguruabarrak kontuan izanik.

Ez da onartu.

12/1053 ESP.

Kexaren sustatzailearen semeari babestutako etxebizitza bat adjudikatzeari dagokionez.

- Departamentuari iradokitzea babestutako etxebizitzak adjudikatzeko egintza formala bete baino lehenagoko jarduketa prozedura edo protokoloa azter dezala, eta egokia bada erakunde sustatzaileen eta zentsuaren kudeatzailea den NASUVINSAREN arteko koordinazioa susta dezala, eta esku hartu duten eragileek jardundakoari buruzko informazioa aldi berean eskuragarri jartzea.

Onartua.

12/1120 ESP.

Babestutako etxebizitza bat errentatzeko diru-laguntza gutxitzeari dagokionez eta exijitzen zaion errenta ordaindu ezin izateari dagokionez:

- Departamentuari iradokitzea neurri egokiak azter eta har ditzala, babestutako etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateari dagokionez, diru-sarreraren zenbaketaren denborazko epea (martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuko 7. artikulua zehaztua) aldatzen dutenak, justifikatutako premia-egoera bat dagoen kasuetan laguntzei eustea baloratzeko helburuz.

Ez da onartu. Ez da ezezkoa justifikatu.

SUSTAPEN DEPARTAMENTUARI ETA LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUARI

AO_17_12

Hipoteka-maileguak ez ordaintzeagatik egiten diren kaleratzeen aurkako bitartekaritza zerbitzuari dagokionez:

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Hipoteken Bitartekaritzako Zerbitzu bat antolatzeko aukera azter dezala iradokitzea. Zerbitzu horrek, antolaketa juridikoa errespetatuz, bitartekari lanak egingo lituzke bankuen eta etxebizitza bakarra daukaten eta hipoteka-mailegua ordaindu ezin dutelako kaleratuak izan daitezkeen pertsonen artean. Horrela, pertsona kaudimengabeen maileguak berriro negoziatuko lirateke, administrazioak proposatzen dituen baldintzetan oinarrituta.
- Onartua.**

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUARI ETA ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEARI

AO_25_11

Emantzipatzeko oinarrizko errenta

Emantzipatzeko oinarrizko errentari dagokionez, gazteak alokairuko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko ematen dena.

- Herri Defendatzaileari iradokitzea emantzipatzeko oinarrizko errentaren ordainketa-aginduak emateko eskumena deszentralizatzeko edo autonomi erkidegoetan eskuordetzeko aukera azter dezala. Bi administrazio mailaren parte hartzeak (estatukoa eta autonomikoa edo forala) laguntza hauen kudeaketa atzera dezake eta, finean, onuradunek laguntzak eskuratzea atzera dezake. Aurrekoa gorabehera, laguntza Estatuko Administrazio Orokorretik datorrenez gero, neurri egokiak presta litezke laguntzak kudeatzeko autonomi erkidegoekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan.
- Gaur egun dagoen prozedurari buruz, eskubidea aitortzeko egintzen komunikazio sistema automatizatuaren funtzionamendua berrikustea iradokitzea, araudian interesdunari jakinarazpena egiteko egintza aldi berean egiteari buruz xedatutakoa bete dadin, aldiberekotasun hori betetzen ari dela egiaztatzeke eta, hala ez balitz, egoera zuzentzeko neurri egokiak hartzeko.
- Ordainketa agintzeko egintzari buruz iradokitzea araudian agindua emateko epe bat berariaz finka dadila (gaur egun, bakar-bakarrik adierazten da kreditu-erakundeari ordaintzeko agindua emango zaiola, "izapide egokiak egin ondoren", zehaztapen gehiagorik eman gabe). Epe hori eskubidea aitortzeko egintza interesdunari jakinarazten zaionetik aurrera zenbatuko litzateke, edo Sustapen Ministerioak egintza horren jakinarazpena jasotzen duen unetik aurrera (bi gertakari horiek aldi berean jazo beharko lirateke, arauak exijitzen duen aldiberekotasunaren arabera).
- Ordaintzeko agindua emateko epe bat finkatzea iradokitzea. Horrek segurtasun juridikoa areagotuko luke eta administrazioaren antolaketarako arau bat litzateke. Arau hori bat dator ofiziozko bultzadaren eta azkartasunaren printzipioekin, administrazio prozedurei buruzko legerian kontsaktatuta daudenak. Gainera, ziurtasun handiagoa emango die herritarrei berandutza interesak jasotzeko balizko eskubideari dagokionez, berandutza gertatzen den kasuetan.
- Eskubidea aitortzeko egintzetan, ordainketa berandutzen bada interesak jasotzeko aukerarik dagoen jakinaraztea iradokitzea. Bidezkoa bada, gai honetan aurrekontuei buruzko legeriak exijitzen dituen betekizunen berri ematea iradokitzea.

ZENBAIT ADMINISTRAZIO PUBLIKORI

AO_31_12

Krisialdi ekonomikoan etxebizitzarako eskubide konstituzionala eraginkortasunez babesteari dagokionez.

- Hipoteka exekutatzeko arriskuan dauden zordunak babesteko berriki onartu diren arauen onuradunen kasuak gehitzea.
- Etxebizitzen gizarte alokairua sustatzea, kaleratzearen ordezkotzat alternatiba gisa.
- Hipoteka-zorrak berregituratzeko neurriak aplikatzeko kasuak areagotzea.
- Hipoteka-zorra kitatzeko aukeren artean, zordunek etxebizitza zorraren truke zein kasutan eman dezaketen finkatzea.
- Zorrak berregituratzeko sistema arautzea, gehiegizko zorrak edukitzearen egoerak fede onez sortzen diren kasuetan konponbideak bilatzen dituzten mekanismoak artikulatuz.
- Finantza-erakundeek, gutxienez, beren etxebizitza babestu guztiak eraikitzean eman zieten helburuarekin erabil ditzaten neurriak hartzeko eskatzea.
- Etxebizitzen Gizarte Fondoa premiaz abiatzea, eta higiezin kopuru nahikoa ematea, gertaerabidezko inguruabarrengatik etxetik kaleratzen diren fede oneko erosleei erantzuteko.
- Zerga araudia erreformatzea, fede oneko zordunen egoera pertsonala ez dadin larriagoa izan zerga-zamen ondorioz (adibidez, eskualdaketen zerga edo gainbalioa, eta bestelako zergak).
- Finantza-erakundeen eta ordaintzeko zailtasunak dauzkaten jabeen artean aholkularitza, orientazio eta bitartekaritzako zerbitzu publikoak sortzea edo sendotzea.
- Finantza-erakundeari prezioaren edo alokairuaren (kasuaren arabera) ordainketa geroratzea iradokitzea, kasu eta baldintza zehatz batzuetan.

7. KAPITULUA

NAFARROAKO
ADMINISTRAZIO
PUBLIKOEN NAFARROAKO
ARARTEKOAREKIN
LANKIDETZAN JARDUTEA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



7

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK NAFARROAKO ARARTEKOAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEA

7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA.

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 26. artikuluan xedatzen duenez, foru komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari lehenetasunez eta presaz haren ikerketa eta ikusketetan.

Nafarroako Arartekoari laguntzeko legezko betebeharra ez betetzeak berekin dakar, legezko balizko beste neurri batzuen artean, lankidetzat falta hori urteko txostenean jasotzeko aukera.

Ildo horretan, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 24.2 artikulua azaltzen duenez, hasierako txostena edo dokumentazioa bidaltzeko edo horiek eskuratzeko eskaera egin ondoren, administrazio publikoko langileek edo haien nagusi edo arduradunek jarrera negatiboa edo zabarra agertzen badute, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak oztopotzat har dezake jarrera hori. Hala, Arartekoak berehala publiko egin dezake gertatutakoa, eta kalifikazio hori ezar dezake Nafarroako Parlamentuari bidaltzen dion urteko txostenean edo txosten berezian, balego.

Horrez gain, foru lege bereko 34.2 artikulua arabera, neurri berriak hartzeko oharpenak, gomendioak, lege-betebeharren gogorazpenak edo iradokizunak jaso ondoren, bi hilabete baino gutxiagoko epean, dagokion administrazio-agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu, Nafarroako Arartekoari jarrera horren arrazoiak azaltzen ez badizkio edo jarrera hori azaltzeko justifikazio egokirik ez badu, Arartekoak urteko txostenean edo txosten berezian jasoko du gertatutakoa. Txosten horretan, Arartekoaren ustez arazoa konpon zitekeen baina jarrera txarragatik konpondu ez den kasuetan, espresuki aipatuko dira jarrera hori izan duten administrazio publikoko agintari edo langileen izenak.

Lankidetzarako betebeharren ez-betetze larriak zigor-tratamendua ere erakar dezake. Zentzu horretan, Zigor Kodearen 502.2 artikulua Espainiako Herriaren Defentsariaren edo autonomi erkidegoaren organo baliokideen ikerketa oztopotzea (eskaten dituen txostenak

bidaltzeari uko eginez edo bidalketa arrazoirik gabe berandutuz, edo ikerketa horretarako beharrezkoak diren espedienteak edo administrazio dokumentazioa eskuratzea oztopatuz) estatuaren erakundeen eta botere-banaketaren aurkako delitu gisa tipifikatzen du. Delitu hori egiten duten agintari edo funtzionarioei enplegua edo kargu publikoa sei hilabete eta bi urte bitartean uzteko zigorra ezar dakieke.

7.2.LAGUNTZEKO BETEBEHARRAREN BETETZE-MAILA. NAFARROAKO ARARTEKOARI LAGUNTZARIK EMAN EZ DIOTEN ADMINISTRAZIOEN AIPAMENA.

Oro har, 2012. urtean, Nafarroako administrazio publikoek Arartekoari lagundu diote, bere ikerketen garapen normala erraztuz edo ahalbideratuz.

Aitzitik, zenbait kasu puntualetan, gainbegiratutako administrazio publikoek ez diote erakunde honi lagundu.

Horregatik, gure ustez Nafarroako Arartekoari lagundu ez dioten administrazioak, eta beraz beren legezko betebeharra argi eta garbi bete ez duten administrazioak aipatu behar ditugu. Hauek dira:

GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA- GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA:

Espedientea: AO_7_12

Gaia: Kontsumoa. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Mota: Iradokizunak eta laguntza emateko betebeharra gogoraraztea

Ofizios jardutea kontsumitzailearen eskubideak babesteko berme publikoek nola funtzionatzen duten egiaztatzeko, erakunde honetan jasotako kexetan oinarrituta.

Ixteke.

GIZARTE GAIETAKO DEPARTAMENTUA

Espedientea: AO_29_12

Gaia: Kontsumoa. Kontsumitzaileen eskubideak babestea.

Mota: Administrazio dokumentazioaren eskaera

Ofizios jardutea kontsumitzailearen eskubideak babesteko berme publikoek nola funtzionatzen duten egiaztatzeko, erakunde honetan jasotako kexetan oinarrituta.

Ixteke

ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA

Espedientea: 11/389

Gaia: Ogasuna. Toki ogasuna. Tasak

Mota: Gomendioa

Kexa: Erriberako Mankomunitateak bi tasa ordainaraztea, higiezin bakar batean hondakin solidoak kudeatzeko zerbitzua emateagatik, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen ondorioz.

Amaiera: 2012-03-30

Espedientea: 12/345

Gaia: Ogasuna. Toki ogasuna. Tasak

Mota: Txosten eskaera

Kexa: Erriberako Mankomunitateak igorritako enbargo probidentzia, bizi den baina berea ez den etxebizitzaren zabor-tasa bat ez ordaintzeagatik. Ixteke.

Espedientea: AO_8_12

Gaia: Ogasuna. Toki ogasuna. Tasak

Mota: Dokumentazio eskaera

Ofizioz jardutea, zaborren tasa kobratzeko ezarritako irizpideen inguruan. Irizpide horiek hiri hondakin solidoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzeko tasak, eta zerbitzu horretarako ematen diren gainerako jarduerak arautzen dituen zerga ordenantzan azaltzen dira.

Ixteke.

OTSAGABIAKO UDALA

Espedientea: 11/496

Gaia: Ingurumena. Kutsadura akustikoa.

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena eta lankidetzan jarduteko beharrari buruzko orotarazpena.

Kexa: Kexa egin duen pertsonaren etxebizitzatik hurbil dauden industria jarduerak egiten duten zarata.

Amaiera: 2013-02-19

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Espedientea: 12/958

Gaia: Hezkuntza. Ikasleen eskubideak

Mota: Informazio eskaera

Kexa: Nafarroako Unibertsitate Publikoko zenbait ikasle ez daude ados lehen mailako irakasle graduaren eskola-ordutegia aldatzearekin.

Ixteke.

Espedientea: 12/959

Gaia: Hezkuntza. Ikasleen eskubideak.

Mota: Informazio eskaera

Kexa: Nafarroako Unibertsitate Publikoko zenbait ikasle ez daude ados lehen mailako irakasle graduaren eskola-ordutegia aldatzearekin.

Ixteke.

Kasu hauek erakunde honi laguntzen ez dioten erakundeen erregistroan sartu dira. Erregistroa Nafarroako Arartekoaren azaroaren 9ko 43/2007 ebazpenaren bidez sortu zen (Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 34. zenbakia, 2007ko azaroaren 30ekoa) eta bertan laguntza ematen ez duten administrazio publikoak espresuki aipatzen dira.

8. KAPITULUA

ERAKUNDEAK HERRITARREKIN
ETA GIZARTE ZIBILAREKIN
IZAN DUEN ZUZENEKO
HARREMANA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA


8.1. HERRITARRENTZAKO ARRETA BULEGOA. NAFARROAKO ARARTEKOARI EGINIKO KONTSULTAK.

2012. urtean, erakundearen Herritarrentzako Arreta Bulegoak 1.428 kontsulta jaso zituen guztira.

Haietako 1.259 (% 88,16) banakoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, horietako askotan, nagusiki gizarte ongizateari eta hezkuntzari buruzkoetan, azaldutako gaiak banakako egoera gainditu eta familietan eragiten zuen. Kontsulta guztietatik 169 (% 13,18) kolektiboek jarri zituzten, hau da, pertsona taldeek, interesak ordezkatzen dituzten erakundeek edo nortasun juridikoa daukaten erakundeek.

Kasu guztien % 51,5ean kontsulta modu pertsonal eta zuzenean egin zen Herritarrentzako Arreta Bulegoan bertan. Kontsulten gainerako % 34,4a, berriz, telefono bidez egin zen. Kasuen % 13,9an, kontsulta Internet bidez egin zen, eta % 0,2an, posta arruntez.

Kontsulta mota



Ikus daitekeen bezala, Nafarroako Arartekoari kontsulta egiten dioten bi pertsona nahiz kolektibotatik bat zuzenean bertarutzen da bulegoan, horrekin zerbitzu publiko horrek eskaintzen dituen hurbiltasuna eta arreta pertsonalizatua bilatuz.

Egindako kontsultak honako gaiei buruzkoak izan ziren:

ARLOAK	KONSULTAK GUZTIRA	%
Gizarte Ongizatea	208	14,57%
Euskera	120	8,40%
Osasuna	95	6,65%
Hezkuntza eta Irakaskuntza	80	5,60%
Herritarrek dauzkaten bermeak	75	5,25%
Etxebizitza	72	5,04%
Justizia	68	4,76%
Funtzio Publikoa	67	4,69%
Gizarte Segurantzza	51	3,57%
Ingurumena	42	2,94%
Ogasuna	41	2,87%
Kontsumoa	34	2,38%
Hirigintza	34	2,38%
Trafikoa	30	2,10%
Barne Arloa	27	1,89%
Toki Entitateen Funtzionamendua	24	1,68%
Lana	22	1,54%
Atzerritartasuna	21	1,47%
Herri Lanak	19	1,33%
Zerbitzu Publikoak	17	1,19%
Nekazaritza	7	0,49%
Kirola	3	0,21%
Industria	2	0,14%
Gazteria	1	0,07%
Turismoa	1	0,07%
Besterik	267	18,70%
GUZTIRA	1.428	100,0%

Ikus daitekeenez, kontsulta kopuru handiena gizarte ongizateari buruz (egindakoen % 14), administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruz (egindakoen % 8) eta osasunari buruz (egindakoen % 6,65) egindakoena izan zen.

Laugarren multzoa hezkuntzari edo irakaskuntzari buruzko kontsultei dagokie (% 5,60).

Bosgarrenik administrazio publikoekiko harremanetan herritarren bermeei buruzko kontsultak daude (% 5,25). Horren atzetik, justiziari buruzko kontsultak (% 4,76) eta funtzio publikoari buruzkoak (% 4,69) datoz.

Ondokoa izan zen kexen eduki nagusia:

- Gizarte ongizatean, beste urte batez, baliabide ekonomikorik gabeko pertsonen laguntzak emateari buruzko kontsultak nagusitu ziren, zehazki oinarritzko errenta

eta gizarteratzeko errenta emateko epeei buruz (errenta horiek aitortzean edo ordaintzean izan ziren atzerapenen ondorioz). Era berean, adingabeak eta nerabeak babesteari, mendetasun sistemaren laguntzei eta familientzako laguntzei buruzko hainbat kontsulta egin ziren.

- Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari dagokienez, kontsulta gehienak “Hizkuntza Eskubideen Behatokia” fundazio pribatuak aurkeztu zituen. Kontsulta horietatik gehienak izan ziren inprimaki, liburuxka eta zabalkundeko materialetan, bai eta kale edo trafiko bideen errotulazioan euskara ez erabiltzeari buruz.
- Osasungintzan, kontsulta asko egin ziren arreta espezializatuaren berandutzei buruz (itxaron-zerrendak) eta osasun arretagatiko erreklamazioei buruz. Erreklamazioak egiteko dauden bideei buruzko informazioa eskatu da. Horrez gain, farmaziako koordainketari buruz eta gaixoak beste osasun etxe batzuetara bideratzeko bete behar diren baldintzei buruz kontsulta ugari egin ziren.
- Hezkuntzan, kontsultarik gehienak gai hauei buruzkoak izan ziren: ikasketetarako eta zenbait ikastetxetako garraio eta jantoki zerbitzuetarako bekak eta laguntzak emateko eta ukatzeko irizpideak, eta eskolako bizikidetzako edo jazarpeneko arazoak.
- Herritarren bermeei dagokienez, aurreko urteetan bezala, kontsulta gehienak herritarrek aurkeztutako eskaerei, eskabideei edo errekurtsio administratiboiei erantzuteko administrazio publikoek dauzkaten epeei buruzkoak izan ziren. Era berean, herritarrek administrazioaren langileengandik arreta egokia eta errespetuzkoa jasotzeko duten eskubideari buruz hainbat kontsulta egin ziren.
- Justiziari buruzko kontsultetan, arlorik garrantzitsuena abokatuen eta zenbait elkargo profesionalen jardun profesionala izan zen. Epaien edukiekin ados ez zeuden herritarren kontsultak ere jaso ziren. Batzuek epaien aurkako errekurtsioak nola egin galdetu zuten. Era berean, Erregistro Zibiletan dauden berandutzeak eta izena emateko ezespernak aipatu ziren.
- Funtzio publikoan, sartzeko deialdietan, Nafarroako administrazio publikoek onartuak, parte hartzeko exijitzen diren betekizunei buruzko kontsulta asko egin ziren. Kalifikazioak berrikusteko, epaimahaiek arreta emateko eta emaitzak aurkaratzeko aukerei buruz galdetu zen. Gainera, Nafarroako administrazioetako funtzionario publikoek kontsultak egin zituzten beren eskubideei buruz.
- Etxebizitzan, kontsultek agerian utzi dituzte herritarren zailtasun ekonomikoak, bizi diren babes ofizialeko etxebizitzaren alokairuaren errenta ordaintzeko ezintasunari buruzko hainbat kontsulta egin baitziren, aurreko urteetan jasotzen ari ziren diru-laguntzak gutxitu zirelako edo ukatu zizkietelako. Jabetza araubidean adjudikatu diren babes ofizialeko etxebizitzetako uko egiteko aukerei buruzko kontsultak eta babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza-akatsen buruzko kontsultak ere egin dira.

- Gizarte Segurantzari buruzko kontsultak, batik bat, ezgaitasun adierazpena egiteko prozesuei buruzkoak eta behar ez dela kobratu diren prestazioak itzuli beharrari buruzkoak izan dira.
- Aurreko urteetan bezala, ingurumena dela-eta eginiko kontsulthen gai nagusia kutsadura akustikoa izan zen; bereziki, foru legedian baimendutakoaz gainetiko zarata eragiten duten jardueren ondorioz herritarrek beren etxebizitzetan pairatzen duten egoerari buruzko kontsultak izan ziren.
- Ogasunean, kontsulta gehienak tokiko zergei eta mankomunitateen tasei buruzkoak izan ziren. Nafarroako Zerga Ogasunaren tributuei buruzko kontsulta gehienak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak izan ziren.
- Merkataritzari eta kontsumoari buruzko kontsulthen gai garrantzitsuena kontsumitzaileen babesa izan zen, batez ere telefono konpainien aurrean eta elektrizitate eta gas konpainien aurrean.
- Hirigintzan, herritarrek hirigintzako informazioa eskuratzeko eskubideari buruz, hirigintzako legezketasuna babesteari buruz eta hiri plangintza onartzeko prozedurei buruz aholku eskatu zuten.
- Trafikoa dela-eta, herritarrek beren kontsultak planteatu zituzten, funtsean, ezarritako zehapenei buruz eta zehapen prozedurari buruz.
- Barne arloko arazoetan, poliziaren ekintzei buruzko kontsultak izan ziren gehienak, eta horien atzetik, administrazioko izapideei buruzkoak.
- Lan arloan, langabeziaren prestazioak eskuratzeko betekizunei buruzkoak eta prestazio horiek agortutakoan egokitzen diren prestazioei buruzkoak izan ziren kontsultak. Era berean, langabetuentzako prestakuntza ikastaroetan sartzeko betekizunei buruzko kontsultak egin ziren.
- Atzerriartasunaren arloan, nabarmentzekoak dira egoitza eta lan baimenak eskuratzeko behar diren izapideei buruzko kontsultak, eta atzerrian egindako ezkontzak baliozkotzeari buruzkoak.
- Herri lanen arloa dela eta, nabarmentzekoak dira toki entitateek bide publikoak egoera onean kontserbatzeko betebeharrari buruzko kontsultak eta azpiegitura jakin batzuk egiteak dakartzan kalteei buruzko kontsultak.

- Zerbitzu publikoetan, kontsultak batez ere ezindutako pertsonen garraio publikoak erabiltzeko dauzkaten eragozpenei buruzkoak, eta ur horniketako zerbitzuari eta zabor bilketa zerbitzuari buruzkoak izan dira.
- Nekazaritzan, urte honetan ere, lur-zatiak kontzentratzeko prozesuei buruzko kontsultak gailendu dira.
- Kontsulta juridiko-pribatuak hainbat gairi buruzkoak izan dira. Gehienak banku erakundeekin izandako arazoei buruzkoak izan dira, batez ere lehentasunezko partaidetzak direlakoei buruzkoak eta banku erakundeek beren zerbitzuengatik kobratzen dituzten komisierei buruzkoak. Era berean, aurreko urteetan bezala, auzokideen arteko arazoei buruzko kontsultak egin dira.

8.2. GIZARTE ZIBILAREKIN IZANDAKO HARREMANA.

2012an, Nafarroako Arartekoak, bere aldetik nahiz bere laguntzaileen bitartez, harremanak izan zituen interes sozial eta profesional batzuk ordezkatzan dituzten zenbait entitaterekin, bai eta pertsonen zenbait kolektiborekin ere.

Entitate edo kolektibo horien artean, honakoak nabarmendu daitezke:

- BEHATOKIA - Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
- Pobreziaaren kontra borrokatzeko sarea.
- CORMIN- Ezgaitasuna duten pertsonen ordezkarien Nafarroako batzordea.
- USPAN-Nafarroako Administrazio Publikoko Lanbide Sindikatuen Batasuna.
- ETXERAT ELKARTEA.
- SOS ARRAZAKERIA elkarte.
- APAMO-Iruñeko Monjardín zentroko adimeneko atzerapen larria duten pertsonen guraso eta tutoreen elkarte.
- Nafarroako Hiesaren Aurkako Batzordea.
- SARE elkarte.
- APRODEMM- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen eskubideen aldeko elkarte.
- Iruñeko Udaleko UGTren atal sindikala, Nafarroako poliziak.
- Nafarroako Psikologoak Elkargoa.
- Nafarroako erakunde publikoen aukera berdintasuneko eragileak.

Era berean, ondoko gizarte erakunde eta kolektiboek erakunde honengana jo dute, bere esku hartzea eskatzeko, kexen, kontsulten, ofiziozko jarduketan edo zerbitzu publikoak eta legeria hobetzeko proposamenen bidez:

- Nafarroako Hiesaren Aurkako Batzordea.
- SARE elkarte.
- Iruñeko Abokatuen Elkargoa.
- Mendetasuna duten pertsonak defendatzeko plataforma.
- Nafarroako toki erakundeak aukera berdintasuneko eragileak.

- CORMIN-Ezgaitasuna duten pertsonen ordezkarien Nafarroako batzordea.
- APAMO-Iruñeko Monjardín zentroko adimeneko atzerapen larria duten pertsonen guraso eta tutoreen elkarte.
- APRODEMM- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen eskubideen aldeko elkarte
- Nafarroako Osasunaren Plataforma.
- ANEABE-Ontziratutako edarien ur enpresen elkarte nazionala.
- ELA sindikatua.
- Noaingo Elortzibar Institutuko irakasle, guraso eta ikasleen eta heziketa komunita- teko bestelako kideen batzarra.
- “Construyendo Sarriguren; Hazi eta Hezi” auzokide plataforma.
- Bernat Etxepare ikastetxe publikoko guraso elkarte.
- Mendialdea Guraso Elkarte.
- Patxi Larrainzar, Salduzelai, Orkoien eta Buztintxuri ikastetxe publikoetako guraso elkarteak.
- Miranda Argako San Benito ikastetxe publikoko Virgen del Castillo guraso elkarte.
- Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko guraso elkarte.
- Uharteko Virgen Blanca ikastetxeko Zumedia guraso elkarte.
- Nafarroako hezkuntza ikuskatzaileen elkarte.
- USPAN-Nafarroako Administrazio Publikoko Lanbide Sindikatuen Batasuna
- SPA-Nafarroako Erakunde Publikoetako Langile Administrazioen Sindikatua.
- Andosillako talde sozialista.
- Garesko Udaleko Bildu Gares udal taldea.
- SEO-Espainiako Ornitologia Sozietatea
- GURELUR elkarte-Ingurune naturala babesteko nafar fondo.
- Langabetuen kolektiboa.
- Nafarroako Oinarritzko Errentaren Eskubidearen aldeko Plataforma, ondoko hauek osatzen dutena: Txirotasunaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Sarea, AXOLA, Nafarroako SOS Arrazakeria, ODS-Hormiga Atómica, Paperak eta Eskubideak Denontzat Plataforma.
- Txirotasunaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Sarea.
- Ekonomia alternatibo eta solidarioko sarea.
- Nafarroako GKEen Koordinadora.
- BEHATOKIA - Hizkuntza Eskubideen Behatokia
- Iruñeko Udaltzaingoaren lanbide elkarte.
- Etxerat Nafarroa elkarte.
- Raduga errusiar-nafar elkarte.
- El Cerco de Artajona kirol elkarte
- Iruñeko Eskirotz kaleko 16. zenbakiko auzokide elkarte
- ADECANA-Nafarroako ehiztari elkarte.
- Iruñeko 15M mugimenduaren kultur taldea.
- Kulturako sare estrategikoa.
- EHAEN-Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Nafarroako ordezkartza.
- Eguesibarreko Urbi Auzo Elkarte.
- Gaztelu Plazako elkarte, telebista ikusleak eta irrati entzuleak eta komunikab- deen erabiltzaileak.
- Adeni Nafarroa elkarte.

- Lamiak-Nafarroako Emakume Gazteak elkartea.
- Kordobako Abokatuen Elkargoa.
- Jubilados en Marcha elkartea.
- Nafarroako Adineko Pertsonen Behatokia elkartea.
- Nafarroako Foruzaingoaren Langileen Batzordea.

9. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa



ERAKUNDEAREN KALITATEARI BURUZKO EBALUAZIOA

9.1. NAFARROAKO ARARTEKOAREN BALIAGARRITASUNAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN INGURUAN HERRITARREK DAUKATEN IRITZIA

Aurreko urteetan bezala, 2012. urtean iritzia eskatu genien herritarrei Nafarroako Arartekoaren bulegoaren funtzionamenduaren inguruan.

Balorazioa egin da erakundea erabili duten pertsona guztiei igorritako inkesta anonimo baten bitartez. Inkesta hori herritarrei bidaltzen zaie euren kexa izapidetu eta gero lortutako azken emaitzaren berri ematen zaien unean bertan, hau da, kexa ixten den unean. Modu horretan, galdeketaren galderei erantzuten dietenean, herritarrek informazio osoa eta behar adinakoa daukate euren arazoari konponbidea emate aldera erakundeak burutu duen bitartekaritza lanari buruz.

Galdeketen ebaluazioa hileroko egiten da eta horrek aukera ematen digu hobetu daitezkeen arloak antzemateko eta gure esku-hartzea eskatzen duten pertsonen zerbitzu hobea emateko beharrezkoak diren aldaketak egiteko.

Epigrafe honetan, urteko emaitza islatuko dugu, 2012. urtean jasotako galdeketa guztiak ebaluatu ondoren egindakoa. Guztira 127 izan ziren, hau da, ia 2011. urtean bezala (128).

Honakoak dira galdera eta azterketari buruz lortutako emaitzarik garrantzitsuenak:

NOLA EDUKI DUZU NAFARROAKO ARARTEKOAREN BERRI?

1. Senideen edo ezagunen bidez	30	% 24
2. Banuen beste harreman batzuen esperientzia	24	% 19
3. Administrazioen baten aholkuz	13	% 10
4. Hedabideen bidez (prentsa, irratia, telebista...)	44	% 35
5. Besteak	15	% 12
Ez da batere baliagarria izan	1	% 1
GUZTIRA	127	% 100

ZER IRITZI DUZU NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEAN ESKAINITAKO ARRETAZ?

1. Oso ona	85	% 67
2. Ona	34	% 27
3. Hala moduzkoa	2	% 2
4. Txarra	1	% 1
5. Oso txarra	5	% 4
Ez da batere baliagarria izan	0	% 0
GUZTIRA	127	% 100

Ikusten den bezala, inkesta bete dutenen artean, 10etik 9k baino gehiagok balorazio ona edo oso ona egin dute eskainitako arretaren inguruan.

ZER MODUZKOA IRUDITU ZAIZU KEXA AURKEZTU ZENUENETIK PROZESUA AMAITU DEN ARTE IGARO DEN DENBORA?

1. Oso luzea	11	9%
2. Luzea	19	15%
3. Zentzuzkoa	69	54%
4. Laburra	20	16%
5. Oso laburra	7	6%
Ez da batere baliagarria izan	1	1%
GUZTIRA	127	100%

Galdera horren emaitzak agerian jarri du inkesta egin dutenen artean, 10etik ia 8k erantzun dutela kexak izapidetzeko epea arrazoizkoa edo laburra dela.

NAFARROAKO ARARTEKOAREN ESKU HARTZEAK ARAZOA KONPONTZEN LAGUNDU DUELA USTE AL DUZU?

1. Bai, oso onuragarria izan da	49	39%
2. Bai, nahiko onuragarria izan da	38	30%
3. Ez, ez da oso onuragarria izan	15	12%
4. Ez, ez da batere onuragarria izan	17	13%
5. Guztiz alferrekoa	0	0%
Ez da batere baliagarria izan	8	6%
GUZTIRA	127	100%

Ikus daitekeen bezala, 10 herritarretik 7k uste dute Nafarroako Arartekoak emandako zerbitzua baliagarria edo oso baliagarria izan dela euren arazoa konpontzeko.

NOLA BALORATZEN DUZU NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOAN JASOTAKO INFORMAZIOA?

1. Oso ona	74	% 58
2. Ona	44	% 35
3. Hala moduzkoa	2	% 2
4. Txarra	3	% 2
5. Oso txarra	4	% 3
Ez da batere baliagarria izan	0	% 0
GUZTIRA	127	% 100

Horrenbestez, inkesta erantzun duten 10etik 9k baino gehiagok jasotako informazioa ontzat edo oso ontzat jo dute.

USTE DUZU ERAKUNDEAK BIDALITAKO IDAZKIAK ARGIAK ETA ULERGARRIAK DIRELA?

1. Oso argiak	56	44%
2. Argiak	47	37%
3. Ulergarriak	12	9%
4. Ez oso argiak	5	4%
5. Ez dira batere argiak	3	2%
Ez da batere baliagarria izan	4	3%
GUZTIRA	127	100%

Erantzunak ikusita, ondorioztatu daiteke hamarretik bederatzik uste dutela jasotako idazkiak oso argiak, argiak edo ulergarriak direla.

ARARTEKOAK ZURE KEXARI LOTUTA HARTUTAKO ERABAKIAREKIN ADOS ZAUDE?

1. Erabat ados	56	44%
2. Ados	35	28%
3. Ados, neurri batean	15	12%
4. Ez nago ados	7	6%
5. Ez nago batere ados	8	6%
Ez da batere baliagarria izan	6	5%
GUZTIRA	127	100%

Horrenbestez, inkesta erantzun dutenen artean, 10 pertsona bakoitzeko 7k diote ados daudela edo guztiz ados daudela hartutako erabakiarekin.

BESTE PERTSONA BATZUEI GOMENDATUKO ZENIEKE NAFARROAKO ARARTEKOARENGANA JOTZEA?

1. Bai	110	87%
2. Ez	12	9%
Azken aukera gisa	0	0%
Momentuz ez	0	0%
Ez da batere baliagarria izan	5	4%
GUZTIRA	127	100%


Galdeketa erantzun duten 10 pertsonatik ia 9k baietz erantzun zuen eta 10etik batek ezetz erantzun zuen.

HARTUTAKO ERABAKIA EDOZEIN DELA ERE, ZERO ETA HAMAR BITARTEKO ESKALAN, NOLA BALORATUKO ZENUKE ERAKUNDEAK ZURE ARAZOAREN GAINEAN IZAN DUEN ESKU-HARTZE GLOBALA?

0	6	5%
1	2	2%
2	0	0%
3	1	1%
4	1	1%
5	4	3%
6	3	2%
7	11	9%
8	24	19%
9	36	28%
10	33	26%
Ez da batere baliagarria izan	6	5%
GUZTIRA	127	100%

Herritarren balorazioaren batez bestekoa 8,0koa da. Moda edo maizen agertzen den balioa 9 da (% 28) eta ondoren 10 dator (% 26).

0 eta 10 Bitarteko balorazio orokorra



Ikus daitekeen bezala, inkesta erantzun duten 10 pertsonatik 7k baino gehiagok 8 edo nota altuagoa eman diote erakundearen esku-hartzeari.

9.2. KEXAK IZAPIDETZEKO BATEZ BESTEKO EPEAK

2012. urtean, honako hauek izan dira kexak izapidetzeko batez besteko denborak:

IZAPIDETZE-DENBORAK (egunetan)	2012
Hasieratik herritarrak hartze-agiria jaso duen arte	1,9
Hasieratik kexa izapidetzeko onartu den arte	8,3
Hasieratik kexa itxi den arte	60,2
Kudeatutako kexen kopurua	1.510

Egiaztatu ahal den moduan, kexa bat izapidetzeko batez besteko denbora 60,2 egunekoa da.

ERANSKINA

2012ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Era
nski
na

ERANSKINA

2012ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

En este apartado se recogen los datos principales de las Resoluciones que han sido aceptadas por las diferentes Administraciones públicas durante el año 2011.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. artikulua, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu den urteko txostenaren edukia definitzerakoan zera ezarri du “Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzailea Nafarroako Parlamentua izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da”.

Nafarroako Arartekoaren 2012ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta, honako hau nabarmendu beharrean gaude:

1. Hasierako kredituak 822.059,03 euro izan ziren eta, zifra totaletan, behin betiko aurrekontuarekin edo aurrekontu finkatuarekin bat datoz.
2. Aitortutako betebeharrak 698.894,03 euro izan dira. Horrek esan nahi du, finkatutako aurrekontuari dagokionez, % 85,02ko gauzatze-maila lortu dela.
3. Ekitaldiko aurrekontu-emaitez 122.838,61 euroko superabita agerian utzi du.

2012. urtean zehar eginiko gastuek, eragiketa korronteen arabera (I. kapitulutik V. kapitulura) eta kapitaleko eragiketen arabera (VI. kapitulutik IX. kapitulura) gastuetan sailkatuta, honako hauek dira:

	Behin betiko	Onartutako	
Eragiketa-mota	kredituak	obligazioak	Egikaritzaren %
Eragiketa arruntak	782.259,03	659.601,66	% 84,32
Kapital-eragiketak	39.800,00	39.292,37	% 98,72
GUZTIRA	822.059,03	698.894,03	% 85,02

Jarraian, gastuen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria jaso dira.

A) GASTUEN EGOERA

Gastuen kapitulu ekonomikoaren arabera zerrendatuta, 2012ko ekitaldiari dagozkion aurrekontuetako aurreikuspenak, aitortutako betebeharrak garbiak eta gauzatze portzentajea islatu dira:

Gastuen aurrekontuaren likidazioa 2012ko ekitaldia

KAPITULUAK	Aurreikuspenak	Onartutako obligazio garbiak	Egikaritzaren %
1 Langileen gastuak	503.559,03	468.350,11	% 93,01
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	244.600,00	159.559,49	% 65,23
4 Transferentzia arruntak	34.100,00	31.692,06	% 92,94
6 Inbertsio errealak	39.500,00	39.292,37	% 99,47
7 Kapital-transferentziak	0,00	0,00	% 0,00
8 Finantza-aktiboak	200,00	0,00	% 0,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	% 0,00
GUZTIRA	822.059,03	698.894,03	% 85,02

B) DIRU-SARREREN EGOERA

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak agerian jarri du diru-sarrera horiek, funtsean, Foru Ogasunetik jasotako transferentzien ondorio direla; izan ere, ekitaldiko diru-sarrera guztien % 99,83 dira.

Sarrera-aurrekontuaren likidazioa 2012ko ekitaldia

KAPITULUAK	Aurreikuspenak	Onartutako eskubide garbiak	Egikaritzaren %
3 Tasak eta bestelako sarrerak	100,00	0,00	% 0,00
4 Transferentzia arruntak	781.150,00	781.150,00	%100,00
5 Ondareengatiko sarrerak	1.009,03	882,64	%87,47
7 Kapital-transferentziak	39.525,60	39.525,60	%100,00
8 Finantza-aktiboak	174,40	174,40	%100,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	822.059,03	821.732,64	% 99,96



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Hafarrioaloo Aiarrekoea



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa